

PATRI URKIZU

ESKRIBU GALDUEN BILA

Autobiografia eta kultur kritikak







Lezoko Unibertsitateko Udala

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

© Patri Urkizu
© edizio honena: Lezoko Unibertsitateko Udala
Atariko argazkiak: Hieronymus Bosch: *Pekatu nagusien mahaia* (zatia). (Museo del Prado (1510 ing.). *Cave, cave D[omin]us valet*.
Itzulpena: *Adi, adi, ce jaun goicoa dagoc adi*. Refranes y sentencias… 1598. BNF, MS magl CL, VIII, 25, f. 114.
Edizio-lanak: R. Etxezarreta, P. Intxaurrandieta, J. Zabaleta.
ISBN: 978-84-935801-5-5
LG: D 963-2023
Inprimatzailea: Gertu inprimategia
Zubilaga industrialdea, 9
20569 Oñati, Gipuzkoa
T 943 783 309
gertugrafika@gmail.com
www.gertu.net

PEFC FSC EMAS Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Nire eskerrik beroenak Lezoko Udalari babesle lanetan hain arduratsu izanagatik eta bereziki Patxi Intxaurrandieta, adiskide ezin hobeari, edizio arazoetan, ohi bezala, hain esku-zabalki laguntzeagatik.

Lehena errepikatu nahi ez baduzu, iker ezazu.

Baruch Spinoza

Alkatearen agurra

Horrelako ohoreak ere ematen ditu alkate karguak. Ohorea baita Patri herrikideari buruzko liburu honetan lerro batzuk idazteko aukera izatea. Ohorea eta ardura. Eskerrak liburu on batek ez duen hitzaurre on bat behar. Lasaitua nirea.

Plazer handiz argitara eman dugu, paperezko moldean, Patri Urkizu Sarasua (Lezo, 1946) idazle, ikerlari eta irakaslearen memorio liburu mardul hau. Bizitza oparo eta aberats baten isla, kultura arloari dagokionez behinik behin. Harribitxi bat gaur egungo lezoarrontzat, baina, zalantzarik gabe, baita Jaizkibelen magal honetako etorkizuneko herritarrentzat ere.

Patri herrikidea frankismoaren ondorengo Lezoko lehenengo alkate demokratikoa izan genuen, gure herriarekiko eta Euskal Herriarekiko duen konpromisoaren beste adibide bat. Nabarmentzekoa euskara normalizatzeko egin zuen lan itzela, lehen egunetik plenoak euskaraz eginez, esaterako. Modu naturalean egindako bidea izan zela aipatzen du berak, baina ez ziren urte errazak izango 1979tik 1983ra bitarteko haiek alkate izan eta gisa horretako erabakiak hartzeko.

Patri Euskal Herriak XXgarren mendean eman duen kulturgile handienetako bat dugu. Nahiz eta herrikideok eguneroko tratuan gizon apaltzat dugun. Bere txingurri lan etengabeak, ordea, ez du agian merezitako errekonozimendua izan. Balio beza esker oneko ahalegin xume honek aitortza moduan. Esker mila, Patri, Lezori eta Euskal Herri osoari emandako guztiagatik!

Lezo, 2023ko urriak 6.
Mikel Arruti Salaberria, Lezoko alkatea

Bi hitz atari moduan

Eskribu galduen bila bai, beste autobiografia ahalegin bat, beste errelato bat, orain esaten ohi den eran, eta, noski, *Pro domo,* maisuak artikulu bat titulatu zuen eran. Baina, norentzat bildu, jaso eta gordetako irudi zahar eta berriek, fotografia eta koadroek, liburu portadek, kontraportadek eta barneko testuek sorrarazten dizkidaten oroitzapen, iradokizun eta iruzkin hauek behar ditut idatzi, galdetzen diot nire buruari. Nori arraio interesatuko zaizkio. Eta pentsatzen hasi eta, lehenik neronentzat izan daitezkeela interesgarri begitantzen zait. Oroitzapen lanbrotsuok zertxobait irudien kriseiluaz argituz orain arteko ibilbidea hobeto konprenitzeko saio gisara balioko didatela gogoetatzen dut, eta baita ere lagunduko didala aspaldi honetan literatur historiaren ikerketa ohikoetatik askatzeko, neurri batean bederen. Edota izan daitezkeela nire familia eta adiskideentzat, irakurtzeko gogorik eta astirik badute, bereziki nire anaia-arreba Marikrutx eta Joxebarentzat, (tamalez, bi anaia maitagarriok jada joan zaizkit lur honetatik baina ez bihotzetik) nire seme Urtzirentzat, nire biloba Malenentzat handitzen denerako, eta nire garaia bizi izan duen edonorentzat, beste lekuko bat gehiagoren moduan zerbait beren oroimenen ganbara eta ibilbide propioa argitu diezaiekeelakoan, agian. Trapu zikinak nork bere etxe barruan, etxeko harraskan garbitu behar dituela esaldia oso zabaldua den arren, esperantza dut inor gehiegi mindu gabe, baina zenbait mito bere neurri apalera eramanez eta desmitifikatuz, eta gertakizunak neronek bizitu izan ditudan eran, argi eta garbi, aratz eta garratz behar bada adierazterakoan argi pittin bat urte gogor, zail eta odoltsu gertatu direnez emango dutela, eta historiaren letra handietarik kanpo, azpi ohar edota ertz ohar gisara kontsideratu daitezkeen hauek balioko dutela osatzen joateko ororena behar duen historia, eta ez soilik garaileena.



Irudia 1: Patrizio Urkizu Maritxalarren marrazkia: Lezo.

I

LEZO, NIRE SORTERRIA

1946-1958

LEZO, JAIZKIBEL mendiaren magalean, Pasaiako bokaletik gora igotzen den itsasbazter atseginak eta bista ederrak dituen paraje batean dago kokaturik Lezoko Unibertsitatea, nire sorterria. Halaxe zioen Lope Isastikoak bere Gipuzkoako *Compendio Historial…*ean XVII. mende hasieran. Laurogeita bost auzokide omen zituen. Sei milatik gora ditu kontatuak bi mila eta hamabigarren urtean egindako erroldak.

Lope Isastikoa 1565. urtean jaio zen eta 1626an zendu. Aitak Salamancara bidali zuen ikastera, bere anaiarekin eta morroiekin, eta Unibertsitatean Teologian doktoratu zen. San Juan Bataiatzailea elizako benefiziadua, Nigráneko (Pontevedra) abadea, Nava de Arévaloko (Ávila) apaiza, Iruñeko apezpikutegiaren ganbara apostolikoan fiskala eta Iruñean, Madrileko gortean eta Toledoko artzapezpikutegian konfesore eta predikari nagusi ere izan zen. Anaia Onofre 1612an hil zitzaiolarik, haren tokia hartu zuen Lezoko Errege Ontzioletan eginiko ontzien material eta horniduren arduradun lanetan. Zazpi urte igaro zituen erresumako hiriburuan kontuak garbitzen eta kitatzen, eta Gipuzkoako bestelako kontuak biltzen, hala nola aipatu *Compendio*a, *Tratadillo de los célebres arquitectos de Guipúzcoa*, *Relación de las Maléficas de Cantabria*, hau da, sorginei buruzkoa, *Apaizak hobeto* delako Ternuako baleazaleen historia gogorra eta beste.

Dakigunez, Lezo jada mila berrehun eta hiruan, paper zaharretan ageri zaigu honela aipaturik latinez, *Guillelmun de Laçon et socios suos, ut sint vestri vicini*, alegia, Alfontso IX.a zen erregeak Lazongo Gileni eta bere kideei ematen ziela lur sail hura eta *Astubiaga* izeneko portua, berrogeita hamar marbetinoren (garaiko monetaren) truke bertan auzokide bizi zitezen.

Gaztelako errege Enrike III.a eta Gonzalo Moro korrejidorea, legeetan doktorea, Gipuzkoako Junta Jeneraletako presidente ziren garaiko, mila hirurehun eta laurogeita hemeretziko (1399) beste agiri batek, jada aipatzen ditu Lazongo portuko *cay*a, kaia –gaskoiak bertan egon zirela adierazten zuen hitza–, *Jazquevil*, Jaizkibelgo herri-lurrak, Lezoko baseliza –gerora *Basílica del Santo Cristo de Lezo* ospetsua izango zena– eta ibaiondoko *Gabiria* eta *Darieta* izeneko etxeak.

Mende batzuk geroxeago, 1760ko plano batean zehaztasun handiz ageri dira Pasaia, Lezo eta Errenteria. Lezori dagokionez, honako lekuak izendatzen dira: *Borda Andiako errota, Kostaburu, Eguzkiza, Goiko Eliza (San Juan Bataiatzailea), Beheko Eliza (Santo Kristo), Errota, Mendeisa, Altamira, Alzate, Txarrene* eta *Darieta.*

Errazkin izeneko batek 1809an egindako beste irudi batean ikus dezakegu Hondarribia, Pasaia eta Lezo artean izan zirela aspalditik muga-kontuen arazoak, eta bertan ematen diren izenak irakur ditzakegu: *Darieta, Bordatxu, Aramuntenea* (alegia, Iparraldean lurrak eta jauregiak zituen Gramont dukearena zitekeena), *Gaintxurizketako bidea, Usategieta, Txurrutallako errota, Santa Isabel gaztelua, Borda Andiko errota, Arando*… Eta nola galeoi zaharrak badia barnean bateleko arraunlariek eramaten zituzten kairaino.

Lander Zurutuzak, Lezoko liburuzainak, bertako historia hobekien ezagutzen duenak, 1993an eginiko marrazki batean ikus dezakegu mendeetan zehar hain garrantzitsuak izan ziren ontziolak non zeuden kokatuak. Lope Isastiko historialariak berak dionez, *Port de la Borda* deituan eraiki zen 1609an *Nuestra Señora del Pilar y Santiago,* mila eta berrehun tonako galeoia, Ozeanoko kapitaina, puntalak hamabi braza eta erdi, luzerak hirurogeita hamazazpi eta gilak berrogeita hamazazpi zeuzkana. Aurrez aurreko irudian aipatu izenez aparte, hemen ageri zaizkigu, gainera, beste zenbait: *Palazio* (Jauregi), *Andreonea, Lezo andia, Martiskone, Kabite*…

Koloretsu eta berde ikusi zuen Lezo XIX. mendeko pintore ezezagun batek (KM, *Album siglo XIX*, nº 3.717). Teilatu gorrizko etxe multzoa, muino baten gainean dagoen San Juan Bataiatzailearen elizaren eta beheraxeago ezkerrean dagoen Gurutze Santuaren dorrearen inguruan. Zubitxo batek igarotzen du Oiartzundik datorren ibaia eta, hau Pasaiako badiara iristen delarik, kanposantu xume bat ageri da eskuinaldeko kantoian. Ikazkinek sortu ikatzak bultzaturiko baporez trena hor doa

Donostiatik Irun aldera. Lehen planoan neska-mutil bikote gaztea ohiko jantziz. Irudi bukoliko-erromantiko-industriala.



Irudia 2: Anonimoa: Lezo trenbidetik ikusita XIX. mendean.

Beti iruditu zait Darío de Regoyosek (Ribadesella, 1857 – Bartzelona, 1913), Carlos de Haes pintore belgikarraren ikasleak, naturalezaren koloreen espresatzeko antze eta trebezia berezia duela. Mutiltxoak biluzik bainatzen makalez eta lizarrez inguraturiko errekan, baratzak, *itxien irudiyak irriyuan*, lezoarren eran esateko, artasoroak eta alor landuak. Gure etxekoek bertatik mende erdi geroago babarrunak, tomateak, porruak, azak, tipulak, eta beste biltzen genituen.



Irudia 3. *La casa solariega de los Lezo.*

Postal zahar bateko goiko partean, ezkerraldean, Aiako Harria, Oiartzungo mendiak eta herria ageri dira, eta eskuinean Errenteria. Beherago Lezoko herria, ezkerraldean. Aipatu kanposantuaren aurrez aurre *Real Compañía Asturiana de Minas* fabrika, adreiluzko bere tximinia ilun, garaiarekin eta pabiloi handiekin. Gaztelaniazko oharrean dionez, Pasaiako badia honetatik iristen omen ziren itsasoko erromesak Santo Kristora. Garai eta paraje honetan eraikitzeko zoramena, konstrukzioen sukarra ez zegoen oraindik zabalduta.

Bada fotografia zahar bat ere fabrikak egiten hasi aurretikoa. Altamira aldetik hartutakoa. Ezkerreko partean, kanposantua ur-ertzean. *Jauregialde*n bi etxe soilik, eta gertu baratze multzo handi bat *Bikarioenea* etxeraino iristen zena. Jaizkibelgo lehen torreoiaren bidean, *Martiskone* baserria, eta Sanjuangoan, *Andreone*. Badiara iristen zen Lezoko erreka, garai hartan nahikoz zabalagoa zen leku batzuetan, noski. Bazen ontzigintza gunea ere, *Parayueloren baraderoa* bezala ezaguna.

Kaia eta garai batean Kaputxinoen komentua zegoen lur ertzean batelikoak ageri dira, pabei sokez ongi inguratuak, *goiti ta beheiti* ongi joateko mareen konpasean, *Renteria Malen 1926* festetako eta kolorez ongi horniturik egindako errebistaren arabera. Lurren mugimenduengatik moilak eta almazenak egiten ari direla nabari da. Hemen ezarriko zen *Industrias Químicas de Navarra*. Errebista bereko beste irudi batean ikusten dugu *Unión Alcoholera Española (S.A.) Fábrica de Lezo-Rentería, Levaduras El Danubio* iragarkia. Urteko 1.500.000 kilo legamia ekoizten zuten bertan. Eta behar-beharrezkoa zen edozein ogi mota egiteko, bai opilgintzarako, bai gozogintza mota orotarako. Propagandak hori zioen, *economiza dinero, tiempo y trabajo*. Urte asko geroago ere, bertatik igarotzean, batean baino gehiagotan sudurrek sufritzen zuten legamiaren kiratsa.

Errenteriako bidean, trenaren gaineko zubia pasata eskuinera zegoen *Pakers*, galleta- eta karamelu-fabrika. Hemen bizi zen Miguel Ángel Quintana eskolakidea, gerora zenbait dokumental eta film interesgarri egin dituena (*Gipuzkoa* 2000). Zortzi urte izango genituen fabrikako areto ttiki batean marrazki bizidunak eta zinema xume bat pasatzen zigunean eskolako lagunoi. Beti estimatu izan nuen haren zinemarekiko afizioa baino zuzenago pasioa dei genezakeena.

Garai batean, Madrilen Echegaray kalean bazen taberna bat *Los Gabrieles* deitua, hormak azuleju koloretsuz margoztatuak zituena, eta hauek Lezo-Errenteriako fabrika eta *Galletas María* kaxa karratuak iru-

dikatzen zutena. Gero modernitateak azulejuzko horma eder haiek handik kendu zituen. Non ote dira?

Trenbide inguruan zegoen *Pintura Fabrika*, hau da, albaialde eta minio fabrika, biak *Real Compañía Asturiana de Minas*enak. Ez zen fabrika eta tximiniarik falta Lezo, Pasaia eta Errenterian, 1930. urte inguruko fotografiek adierazten digutenez. Eta ez zen, Pedro Barruso eta Mikel Zabaleta historialariek diotenez, langile arazorik ere falta izan II. Errepublika garaian. Hala, bi huelga gogor gertatu ziren 1932an burdingintzan eta papergintzan, bata 1933an *Botoi Fabrika*n, eta bestea *Pakers*en 1934an eta aipatu *Compañia Asturiana* delakoan.



Irudia 4: Gineatik ekarritako enborrak *Los troncos* deitua.

Acha Aserraderos de Lezo izeneko lantegiak uretan zeuzkan Gineatik ekarritako enbor lodi-luzeak. *Los troncos*, deitzen genion paraje hari. Leku arriskugarria zen, batetik bestera igarotzeko mutil koxkor asko tronkoen gainetik pasatzen baikinen, eta halako batean balantzen eraginez eta azala irristakorragatik bazitekeen uretara erortzea, eta enborren azpian itotzea, igerian ongi jakin ezean. Behin etxeko katu zaharra hil behar baitzen, agindua betetzera abiatu nintzen, zaku zahar batean sartu eta uretara bota nuen, baina atzaparrekin zuloa egin baitzuen, zakutik atera eta han zebilela ur gainean ikusi nuen. Txanela hartuta eta arraun batez kolpatuz hondoratu nuen, baina korronteak tronkoetaraino eraman zuen ontzia. Han lotu eta etxeratzerakoan, enkargua eta faena eginda, anaia Joxebak joan behar izan zuen nire ahaleginaren porrota konpontzera, alegia, tron-

koetatik atera eta bere amarralekura eramatera ontzitxoa. Ez zen garai haietan gaur egungo animaliekiko atxikimendurik.

Beste postal batean ikus daitezke Lezoko herri sarrera, fabrikak eta Pasaiako portua. Ezkerretik hasita, *Altzate* etxea; gero ijitoek okupatu, eta kanpoan bizitzen ohituak zeudenez, antza, zuradi guztiari su eman zioten eta azkenean erre eta suntsitu zen dena. Eta bidetik beste aldera *Intxaustienea*. Bertan bizi zen Jose Manuel Insausti Martínez, *Real Compañía de Minas*etako langilea, Manoli Ormabururekin ezkondua eta sei seme-alabaren aita. Semeetako batek inprimategi ttiki bat ezarri zuen *Alai-etxe* aldean. 1936ko urriaren 6an Hernanin fusilatu zuten aita. Hemen bizi zen Julen Arretxe ere, Joxan adiskidearen aita, beste afizioen artean fotografiarena zeukana, eta bertako atarian arrantzako aparejuak deskorapilatzen saiatzen ginen haur mukizu batzuk ginela. Eskuinaldeko zubia pasata hasten da San Juan kalea.

Zerutik 1960ko abuztuan ateratako argazki batean nabarmen da belardi berdez eta artasoroz beteak ziren Lezoko lurrak Industrializazioarekin fabrikez, tximiniez eta etxez bete zirela. Pasaiako badiaren ertz batean, fotografiaren beheko aldean ikus dezakegu gure herria. Oiartzun ibaiaren ezkerraldean *Real Compañía Asturiana de Minas* deitu lantegia eta ibaiaren eskuinaldean gure familiaren batelikoa. Gure etxea San Juan kaletik sartzerakoan bosgarrena zen. Leihoetatik gau osoan entzuten zen *Asturiana*ko mailuen hotsa eten gabe, tiriki-taukiri, soinu mekanikoa, garai urrunetan Kaputxinoen komentutik gregoriar melodiak entzungo ziren bezala. Jaizkibel ibilbidearen ezkerretara, *Gure Borda* sagardotegia eta frontoi itxiaren teilatua ikus daitezke.

Gustave Colin (Arras, 1828-Paris, 1910) pintore frantsesa, Euskal Herriaren berezitasunak liluratuta, denboraldi bat Ziburun gelditu zen inguruko herrietako (Urruña, Hondarribia, Lezo…) festak, zezenak, pilota partiduak eta beste pintatuz. Margolan batean, Lezoko Gurutze Santuaren plazan zezenak, toreatzaileak eta barreraren atzeko ikusleak lasai ikus daitezke. Santo Kristori bisita egin nahi ote dio?

Kontrako angelutik hartutako fotografia batean ikusten da zenbait urte geroago zezena bere ukuilutik ateratzen, orain Arruti denda dagoen lekutik, alegia. Ez zen falta garai hartan jende blusadun, txapeldun eta ausartik ere, belauniko faena egiteko gai zenik. Balkoiak, noski, jendez gainezka. Maistrak behin eskolan kontatu zigunez, bazen herrian Sala-

mancatik etorritako gizon bat, Patricio izenez, *Andreone*ko etxean bizi zena, toreatzaile bezala fama handia zeukana.

Plaza agertzen den beste postal batean, testuak dionez aurrez aurre dugun etxea, *Casa solariega de los Lezo* delakoa litzateke, hots, geroago *Paskualenea* deitu izan dena eta XX. mendeko lehen herenean aitona Gasparrena izatera pasatu zena. Aldamenean, COOPERATIVA DENANTZAKO zegoen kokatua. Taberna arrunt bat bazen ere orain LABORAL KUTXAren egoitza dena. *Markesane*ko parkea dago atzeko aldean eta hara ematen duen lehen solairuko etxebizitza nirea da. Bere pobretasunean garaiko irudi honek ere badu xarmarik. Alondegia egin gabe zegoen eta zenbait etxeri azken solairu bat eranstearena ere ez.



Irudia 5: Lezoko Plaza: COOPERATIVA DENANTZAKO.

Lezoko Plaza 1914 inguruan erretratatzen duen argazki batean, Udaletxeko hartitzak honela dio: *Plaza de la Constitución 1837*. Urte mordoxka geroago, Gerra Zibila iritsi zenean, aldatu zioten izena eta *Plaza del Santo Cristo* ezarri, eta euskaraz handik urte batzuetara *Gurutze Santuaren Plaza,* eta horrela jarraitzen du gaur egun.

Elias Salaberria (Lezo, 1883 – Madrid, 1952) pintore ospetsuak badu koadro bat, Interneten ikus daitekeena *La Procesión del Corpus Christi de Lezo, 1912,* titulua duena. Koadro hori Arabako Bellas Artes Museoan dago, eta Madrileko *Exposición Nacional de Bellas Artes*en Lehen Dominaren irabazle gertatu zen, eta hurrengo urtean *Munich*eko

Erakusketan ere saritu zuten. Lehen planoan ageri dira herriko gizon eta emakumeen irudiak, adituek diotenez, *con realismo fotográfico*. Erretratuak egiten zituen sala handi batean egona naiz txikitan, eta aitak zioenez, oso umore bizikoa omen zen, hiru orduz mugitu gabe egonarazten baitzituen modeloak, auzoko biztanleak, eta horiek zertxobait higituz gero, haserre handiz purrustada izugarriak botatzen omen zituen. Goiko aldean, eskuinera behatuz, Lezoko eliza eta baratzak modu erromantikoan margoturik ageri dira. Aitona Joakin omen da, eskuinetik hasita beltzez jantzita ageri den hirugarrena. Amona Mariak ere hor behar du izan nonbait andre multzoaren artean. Ez nituen ezagutu ez bata eta ez bestea, hau da, aitaren gurasoak.



Irudia 6: Elias Salaberria, *La procesión del Corpus* en Lezo (1914).



Irudia 7: Elias Salaberria, *La ofrenda de Elcano*. (1922).
Aita eskaileratan gora hirugarrena.


Aitona Joakin Maria Urkizu Mitxelena 1877an jaio, eta 1900eko ekainaren bostean ezkondu zen Maria Luisa Juliana Maritxalar Etxeberriarekin. Eta bazuen anaia bat 1886ko apirilaren batean jaioa, Patrizio izenekoa, *Partido Errepublikano*ko buru izan zena 1931n. Amaren partetik, aitona Ignazio Maria Gaspar Sarasua Odriozola Azpeitian jaio zen 1872ko urtarrilaren zazpian, eta amona Juana Bautista Leunda Salsamendi 1878ko ekainaren 6an Beizaman.

Urquizu deitura ageri da jadanik ahaide nagusien artean XV. mendean, eta 1525az geroztik Elorrion. *Sarasua* deitura 1515az geroz Durangon ageri da, *Maritxalar* Hondarribian 1598an eta *Leunda* Beizaman 1586az geroztik. Hona bada nire zortzi abizenak, *Irargi*ri esker aurkitu ditudanak: Urkizu, Sarasua, Maritxalar, Leunda, Mitxelena, Odriozola, Etxeberria, Salsamendi. Aitor dezadan, lehenbailehen eta dena den, izenari baino garrantzi handiagoa eman diodala beti izanari, eta arrebak zioen bezala, Elorriokoak jauntxo baziren ere, gu leinu pobrekoak izango ginen, nonbait.

Elias Salaberriaren koadroetarik famatuenetakoa, *La ofrenda de Elcano* da. 1922an pintatua. Bertan aita ontziko eskaileretan behetik gora zenbatuz hirugarrena da. Ile horixta, alkandora zuria hautsia eta kandela eskuan daramana. Hamaseiren bat urte izango zituen. Herriko beste aurpegi ezagunak ere ageri dira. Gipuzkoako Diputazioaren enkarguz egindako lana izan zen, Juan Sebastian Elkanoren Munduko itzuleraren IV. mendeurrena ospatzeko, eta koadro hau dela-eta, Getariako Herriak *Seme Kuttun* izendatu zuen Elias. Marinelen tradizioak Lezon bizirik iraun du ia duela gutxi arte.

Willy Koch [Solingen (Alemania), 1879 - Donostia, 1950] fotografoak ateratako argazki batean belauniko otoitz egiten ageri dira aita kriseiluarekin, ezkerretik hasita hirugarrena, eta lehena osaba Eusebio arraunarekin Lezoko Gurutze Santuaren aurrean. Fotografia honek Bartzelonan sariren bat irabazi zuen 1947 inguruan. Txuri-beltzezko irudiak oso gogoko zituen Kochek eta santutegiak (Lezo, Loiola…), hotelak, bainutegiak, beribil-karrerak zirela-eta bere argazkiei halako isiltasun, iluntasun eta bake berezia ematen zien.

Elias Salaberriaren beste koadro esanguratsua niretzat *Examen de Doctrina*, 1904. urte ingurukoa da. Koadro hau *Museo San Telmo*n



Irudia 8: Willy Koch-en argazkia (1947 ing.). Osaba Eusebio eta aita belauniko.

1983ko esposizioan erakutsi zen, eta bertan ikus daiteke zein asperturik dagoen apaiza –sotana beltza eta bonete beltza, eskumuturra masailean eta ahoa zabalik–. Katekistak, aldiz, lasai samar dirudi. Zenbat aldiz ez ote gara pasa gela honetatik igandetako Dotrina garaian! Halere, gure katekistetarik bat, Kandida Salaberria benetan andereño eder, samur, ezti eta ahots atseginekoa zen.

Ezagutu nuen amona bakarra *Olatzar* baserrikoa izan zen. Bisitan amarekin joan nintzen batean. Etxetik atera, Plaza eta Zubitxo kalea igaro eta hantxe abiatu ginen polliki amaren jaiotetxerantz. Garai batean andreek arropa garbitzen zuten Zubitxo errekan. Aldamenean argazki zahar batean ezkerrean ikusten den etxeko behe partean zegoen kokatuta *Ultramarinos Palacios*. Lehen solairuan iparragirretarrak eta hirugarrenean lizarazutarrak bizi ziren. Emakume dotoreak hauek, apainak, ederrak, ilajea eta ile-mototsa ongi orraztu eta bilduak… *Xikiro*, Kamilo eta Karmina Dopazo, galego etorkikoak ere bertan bizi ziren, beheko solairuan. Denborarekin *Olatzar*ko bidean *Plazeta* ondoan ipini zuten *Txulotxo*ko labaderoa. Zenbat solas, zenbat kontu, zenbat irri eta zenbat kanta ez ote zituen entzun babesleku hark andreen aho arin, zirikatzaile eta zorrotzetatik? Oroitzen naiz harlauzek distira eta argi bereziz luzitzen zutela.



Irudiak 9-10: Olatzar eta aitona-amonak amaren partetik.

Olatzar. Aitona Gaspar Sarasua eta amona Juana Leundaren baserria. Badaukat Jabier Salaberria adiskideak, gaztetan "*Huesitos*" deituak, hain baitzen argala, ateratako fotografia zahar bat. Oroitzen naiz beheko solairuan, ukuiluan, behiak egoten zirela beti askatik jaten, eta zur zaharrezko eskailera batzuetatik igota sukaldera iristen ginela. Bertan beti zeuden, jada xahartuxea zen amona Juana eta haren ahizpa Maria. Hura babarrunak aletzen eta erramu hosto batekin euliak uxatzen, eta hau artilezko galtzerdiak egiten. Zintzilik zinta likatsu batzuk, euliak bertan pegatsi zitezen. Beste eskailera batzuetatik igo eta ganbarara iristen zen eta hantxe zegoen dolare zaharra eta zurezko zolan barreiaturik hainbat motatako sagarrak: aldakoak, andoainak, erbisagarrak, gabierrotak, txalakak…

Beste argazki batean aitona Gaspar eta amona Juana ageri dira eta nabarmen ikusten da amona emakume aurpegi polita zuena zela, eta garai hartan ohi bezala dena beltzez jantzia dago, buruan mantelina daramala. Aitona Gasparren bekokiak garbi uzten du ez zuela inork erraz engainatuko eta, haserretuz gero, beldurgarria zitekeela. Bere abileziaren bidez Urrestillatik ia esku-hutsik atera, Loiolako jesuitetan aldi batez morroi egon eta deusetik zerbait izatera iritsi zen, alegia, *Paskualenea, Juanenea, Salbatore, Olatzar* eta zenbait lurren jabe izatera.

Paskualenea etxeari 1930. urte inguruan aitonak *lebantea*, teilatu jasotzea, eginarazi zion eta armarria ezarri, non neurria gaizki hartu eta hiru hagin zizelkatu ordez, bi atera zitzaizkion Pako Muki harginari. Gaur egun nire arreba Marikrutx bizi den etxearen balkoia eta armarria Lezoko plazaren edergailu dira, beti gustatu izan baitzaio lore-poteak ongi ureztatzea eta geranio gorriz estaltzea beheko eta goiko elizara, frontoira eta portura bistak dituen lekua.

Esan bezala, herrian sartzerakoan lehenik guardia zibilen etxea, kuartela zegoen, gero, ezker aldean, nire adiskide amianotarren etxea, beheko aldean *Joxe alpargateroa* espartin-saltzailearen dendarekin. Ondoren *Bar Marichu* zetorren. *Jauregialde* deitzen genuen denda, Bittorren almazena, Ireneren denda eta beste. Etxeondoan neska multzoa kalloketan jostatzen. Baita platanondo ilara ere, karretera ertzean. Oroitzen naiz *Industrias*etako aberiak gertatzen zirenean eta tximiniatik gora ke pozoitsua isurtzen eta hedatzen zenean, nola gure etxe aurreko platanoen hostoak erortzen ziren bat-batean, derrepentean iharturik, eta inguruan suertatzen zen jende guztia musuzapia aurpegian zuelarik pasatzen zen. Industrializazioaren onurak eta galerak!

Fotografia zahar batean goragoxe *Andreone* ageri zaigu, gaur egungo Liburutegia. Lehen planoan artasoroak, meta parea, pareta batzuk erdi eroriak. Zuhaitzen atzean *Pasamontes* taberna. Hemen uda partean kanpoko aldean zegoen banku luzean egoten ziren eserita ur-ardoz bete porroiaren aldamenean agure zenbait. Eta gogoan dut orobat atzeko partean bazeukala igela jokoa, hots, bazirela zurezko kaxa zahar baten gainean ezarrita zegoen batrazioaren ahotik sartzeko berunezko fitxa astun, borobil batzuk, era hartan tokan aritzeko. Goian *Martixkone*. Eta eskuinaldean *Bikarioenea*. Honen sotoan luistarrak eta JOCekoak biltzen ginen, eta *Allerru* esku-baloiko ekipoa entrenamendua bukatutakoan dutxatzen ur hotzarekin.

Bikarioenea etxearen aurrez aurre goiko eliza, San Juan Bataiatzailearen parrokia. XVI. mendean eraikia, platanondoz inguratua. Bertan ageri den eranskina dotrina emateko lekua izan da. Eskuineko izkinan ikus daiteke harriz landutako eguzki-erlojua. Txikitatik interpretatzen erakutsi ziguten, ordu ofiziala eta eguzkiarena bereizten. Goiko partean gargola beldurgarriak, piztia bitxi izugarriak. Goiko elizaren azken konponketa eta garbiketa aurretik, zeinetan hain parte handia izan zuten Garmendia arotzak, Juan Luis Urkizu lehengusuak eta Isidro Ormazabal nire koinatuak, oroitzen naiz sarrera ondoan ageri zela zulo bat ondoan honako testua zuena idatzia: *Agujero debido a las bombas de los rojos* (sic). Gaur egun, noski, ezabatuta dago.

Irudi zahar hauen komentarioekin batera, eta bertan zertzelada batzuk sartu ditudan arren, hastera noakizue ni neu neure buruaz zerbait esaten. Gai labainkorra eta arriskutsua benetan. Gure aita Patrixiok,


Patti bere garaiko adiskideentzat, nire urtebetetzerako *Zorionak eta Urteaskuan* egindako marrazkiarekin, hain zuzen. Alde batean haurtxo bat salabardoz uretatik jasoa arrantzale beso zaintsu batzuen bitartez ikusten da. Batelikoak *Kuku* du izena, eta irudi naifak arrantzale familia batean jaioa naizela adierazten dit. Papertxoaren ifrentzuan nire irudi bibotedunarekin batera, zorionak opa dizkit emaztearentzat eta semearentzat.

Oroitzen naiz txikia nintzelarik noizbait galdetu izana, non, noiz eta nola jaioa nintzen, eta amaren sabelean gertatu misterioak tabu zirenez garai hartan, edo ezkutatu egiten zirenez, sexu kontuez hitz egitea bera debekatua baitzegoen, kontu sinesgaitz hura ere kontatu zidatela. Alegia, ohiko zikoina bati, Parisetik hegan zetorrela, Jaizkibeldik pasatzerakoan mokoan zeraman saskia erori zitzaiola eta *Errotetan*, Pasai Donibane eta Lezo arteko lohitegian, hau da, *Iberduero* zentral termikoa eraikita egon den lekuan, erori nintzela eta ohi bezala arrantzara joandako nire aitak erreskatatu, eta etxera ekarri ezohiko arrantza, San Juan kaleko etxebizitza xume hartara.

Daukadan nire fotografia zaharrenean dena txuriz jantzita ageri naiz. Galtzak eta niki halamoduzkoa txuri, zapata eta galtzerdiak ere txuri. Lau urte ote? Ez dakit. Hor nonbait. Nabarmen da Kontxako hondartzan aterea dela eta protagonistak: Marikrutx nire arreba, eta Iñaxio Saizar bere arreba Karmenekin garela. Antza denez, Iñaxio baino lotsatiagoa nintzen, bera galtzontzilotan ageri baita. Iñaxio ni baino urte bat gazteagoa zen, baina beti ni baino ausartago edo jenioz biziagoa izan da bizitzan, Allerruko eskubaloiko jokalariek eta ikusleek jakingo edo oroituko dutenez. Bestalde, Kontxa izan da urteetan nire itsas bazter maitatuenetarikoa, oraindik egun ere bainatzera bertara jotzen baitut. Gabarroiraino joan, igeri eginez nire estilo autodidaktikoan, hots, *crawl*ez eta sorbaldaz, kortxoen aldamenean luze batzuk egin eta dutxa hotzean gorputzari bizi eta tentsio berria emateko aukera paregabea ematen didanez.

San Juan kaleko 14. zenbakian bizi ginen, beheko partean. Lehen solairuan Agustin Unzain eta bere familia bizi zen, eta bigarrenean Tito Labordetarena. Unzaindarrak eta urkizutarrak euskaldunak eta euskaltzaleak ginen, baina labordetatarrek gaztelaniaz hitz egiten zuten eta eguerdiko ordu bietan albisteak entzuteko *Radio Nacion*alaren doinua igotzen zutenean, aitak ernegaturik leihoak itxiarazten zituen. Tito guardia zibil baten semea zen eta Lola Bergara, emakume ederra, bere

emaztea, Lodosakoa. Gerora denek, Lolak izan ezik, euskaraz ongi ikasi zuten eta kartzela ere sufritu zuten Juan Mari eta Jorge semeek. *Industrias Navarras* edo azido sulfurikoa ekoizten zuen fabrikarena zen etxea. Hemen, beraz, jaio nintzen, munduratu edo sortu ninduten. Bosgarrena nintzen. Alegia, hiru anaia eta arreba bat izan ditut, eta ni azken kondarra naiz. Nire aurrekoa, anaia Joxeba 1936an jaioa zen, hots, gerraurrekoa, eta ni gerraondokoa. Medikua Don Roman Unanue izan zen. Hau, noski, herri guztiarena zen eta makina bat angula, txipiroi eta lupia oparitu izan dio gure familiak esker gisara.



Irudia 11: Sortetxea. San Juan kalea 16.

Esan bezala, gure etxean euskaraz hitz egiten zen. Aita kaletarra, abertzalea eta erbesteratua izana baitzen eta ama *Olatzar* baserrian jaioa. Beraz, nik nire oroitzapenen ganbaran gorde-gordeketan dabilzkidan eta aurkitzen ditudan lehen hitzak hauexek lirateke: *ama, aita, ttittia,* oso zalea bainintzen eta nire amarenak auzoko ederrenetarikoak omen, *papo*, gauza bat bukatu zela adierazteko. *Txista* injekzioren bat sartu edo hartu beharrean aurkitzen nintzenean. *Kikak*, hortz berriak ateratzen zihoazkidanean; *pitittoa* eta *pittilina*, pixontzian edo egin beharrekoak bere lekuan egitera behartzen ninduten; *ttakalo,* esertzerakoan esaten zen hitz lagungarria; *txitxia*, haragia edo arraina adierazteko. Hain zen zabaldua hitz hau, ze auzoko mutil *biyurri* bat azkenean izen horrekin geratu baitzen, gosetia izaki nonbait eta beti *txitxia* nahi. Urteekin bizikleta- eta moto-konponketan, lantxoak egiten aditua bilakatuko zen. Ni, aldiz, oroitzen naiz aitak, arotza baitzen eta oso antzetsua, prestatutako zurezko *ttaka-ttaka* bat egin zidala, non ikasiko nuen polliki-po-

lliki lehenik, arrastaka gero, zutik ibiltzen, eta ixkinekin kanketakoak hartzen, burua kazkagortzen.

Udako arratsaldeetan freskura hartzera ateratzen ginen espaloira aita, ama eta neu. Aita batzuetan berak eginiko aulkian esertzen zen, edota aulkiari buelta emanda zerbait leitzen. Amak lihozko lanen bat izaten zuen esku artean. Batzuetan Errenteriatik zetozen ezagunak *ariyo* agurtu eta berriketa ttiki bat izaten zuten elkarren artean. Gauetan maiz, bakailao-deskargan ibili eta gero, *Pysbe*ko deskargatik *Jauregialde*rantz, Ignazio Irazu enkargatuak prestatuta zeukan soldata-sobrea jasotzera etortzen ziren langileak. Tabernaren bat zelakoan –atea irekita egoten baitzen–, sartu ohi ziren, ia beti aita arrantzara joandakoan marea eta erreleboa aprobetxatuz baliatzen zenez.

Laster hasi nintzen irakurtzen. Azalean mutiko ongi orraztu, alkandora mahuka-luze zuria, gorbata eta txaleko gorrixta irudikatzen zuen *Nuevo Catón* liburuan. Gaztelaniaz irakurtzen, noski. Amak bidaltzen ninduen etxe ondoko porteriara eta hantxe *Gure Borda*ko Kokilirekin ikasi nuen silabak behar bezala ahoskatzen, *mi mama me ama, gato, guerra, giro* eta horrelakoak. Porterian Kokili herrena, Bixente mantxua eta Manolo konkoxua egoten ziren zaindari, eta benetan harritzen ninduen Bixentek nola ezkerreko eskuaz idazten zuen eta zein zenbaki ederrak marrazten. Han egoten zen etzanda Boby ere, *ruso*aren emaztearen zakur beltza. *Ruso* hau ingeniaria zen eta Fabrikako arduraduna, eta benetako drama sortu zen kamioi batek harrapatu eta akabatu zuenean Boby.

Gogoan dut, oso ttikia nintzela, amak xakotea nola prestatzen zidan aitarentzat. Hamarretakoa, goizeko seietan hasia izaten baitzen lanean. Porteriatik pasa, gero fabrika barrenean sartu, burdinazko eskailera batetik saskitxoa besoan jaitsi, su eta gar ari ziren galdara handi batzuen ingurutik igaro, eta hamaika hodiz inguratua zen bidexka batetik iristen nintzela aitaren gelara. Hantxe egoten zen makina neurgailuen datuak orduero orri garbi eta zigiludun batzuetara pasatzen. Batzuetan koartilloko botila ardoa eta estankoan erositako kuarteroi paketea eramaten nizkion. Fabrikako atean, barnealdean zituen gordeta arrantzarako arraun luzeak eta zalabardoa, eta hantxe zegoen kanpoko aldean osaba *Xantus* pirita-bagoiak aldapa batean garraiatzen, gero piramide gorri-beltz-urdinkara batzuetan iraultzeko. Esklaboen lana zirudien.

Gure etxea pasa eta herriko plazarako bidean zegoen Fabrikako ingeniariaren etxea. *El ruso* deitzen genuenak bertan zeukan egoitza, bederen. Ofizinak behean zeuden eta lau solairu zituen. Gure etxean bezala, denak Fabrikako langileak ziren bertan bizi zirenak, baina ez nolanahikoak. Ingeniaria, diru-kaxaz arduratzen zen *kajeroa* (Don Miguel Gortari), eta beste. Errepublika garaian, hemen lehen solairuan zegoen *Centro Republicano*a. Saloia, hitzaldi-aretoa, eszenatokia eta taberna ere ba omen zuen. *La Voz de Guipúzcoa* (1934-I-7) kazeta errepublikanoak dakar *Unión Republicana*ko junta zeintzuek osatzen zuten: *Presidente*: Ciriaco Urquizu; *Vicepresidente*: Vicente Ayerdi; *Secretario*: Fernando Nieto; *Vicesecretario*: Sebastián Sein; *Tesorero*: Cayetano Labordeta; *Vocales*: Pablo Areitio, Anastasio Fernandez, Juan José Gaztelumendi eta Ignacio Sistiaga. *Todos ellos viejos republicanos*. Hemendik ote datorkit errepublikazaletasuna, edo sekulan ezagutu ez dudalako? Nik ezagutu nuenean, beheko solairuan ofizinak zeuden. Bertan Gortari jauna, *kajeroa*, astero langileen soldata-sobreak prestatzen egoten zen, batuketa baten ondoren, *164,75 pesetas* agertzen zen, adibidez, dirua paperean eta sosak txanponetan prestatzen eta nik, kontatzen trebatu nintzenean, batzuetan lagundu ere izan nion. Lehen solairuan ingeniaria bizi zen, *ruso*a. Bigarrenean aipatu Gortari jauna, Ana bere emazte argal eta luzearekin eta Ana eta Jose Antonio seme-alabekin, eta Paki neskamearekin. Pakita hau zen garai hartako herriko neskameen artean berritsuena, alaiena eta lotsagabeenetakoa.

Bost urte bete nituenean hasi nintzen eskolan. Berasarteneko eskolan, hots, Arantxa Berasarte maistrarekin ikasi nituen lehen urteak (1951-1956). Eskola partikular batean, beraz, aita ez baitzen eskola publikoetan ematen zuten erdal heziketaren zale, eta jada etxean arrantza zela-eta bazen diru pixka bat nire heziketa ordaintzeko adina. Eskola sarreran, Jaizkibela txango egin genuen egun batean ateratako fotografia batean ikus dezaket ikasle multzoa, non goian, ezkerretik hasi eta hirugarrena naizen ni, tiranteak eta guzti; eta behean daudenak: Rejino Salaberria, Dabid Gomara, Iñaxio Sarasua, Luisito Lizarazu…, Joxan Arretxe baloiarekin… Argazkian ez dira ageri neskak (Ana Gortari, Itziar Unanue, Beatriz González…). Hasieran *Enciclopedia Bruño* delakotik ikasten genituen gai guztiak. Batxilergoa hasitakoan, gai bakoitzarentzat liburu bana. Hura bai diru xahuketa.

Oroitzen naiz Dabid eta ni ginela maistraren kuttunenak eta biok egin genuela batxilergoko sarrera eta lehen kurtsoa Donostiara libre gisara joanez. Eta egun Posta dagoen lekuan zegoela batxilergoa ikasteko egoitza. Errege bezpera batean ikasle ona izateagatik maistrak berarekin Donostiara eraman ninduen kabalkada ikustera, eta gogoan dut *rosco de reyes* delakoa jan genuela Izagirre futbol jokalariaren, atezain ospetsua izan zenaren etxean, eta nola iruditxo bat suertatu zitzaidan ere oroitzen naiz.



Irudia 12: Arantxa Berasarteren eskola atarian.

Eskolako lagun artetik gehien miresten nuena Luisito zen, txoriak harrapatzeko zeukan abilidadeagatik. Haren trebezia eta artea! Begia non jarri hantxe zihoan tiragomaz harrittoa eta, zapla, txoria lurrera. Bestetan, hor kilkerren bat aurkitu baietz, eta landare bat jaso eta hantxe ageri zen kantari kilker beltza. Eskolan belauniko eta zigortuta eskuak zabalik gehienetan ikusi nuena Rejino izan zen. Noizbehinka epilepsia erasoaldiak ere sufritzen zituen, eta hantxe gelditzen ginen denak beldurturik, haren indarra ikaragarria baitzen eta jenio zakarra baitzeukan. Goiko solairuan bizi zen maistra Arantxaren familia eta orduan bere ahizpa Nati jaisten zen egoera konpontzera.

Aldapa behera bagindoazen behin korrika bizian, denak zutik Espainiako Geografia errepasatu ondoren kantari arratsaldeko seietan: *España limita al norte con el Mar Cantábrico*… eta *hasta mañana si Dios quiere* esanda, estrata bidean nor baino nor azkarrago iritsi karreterara eta halako batean ukondokadaren bat eman norbaiti edo bultzadatxoren bat aldamenekoari eta hantxe zilipurdika erori, belauna urratu, odoleztatu

eta negarrez hasi. *Has sido tú, mañana le digo a la maestra*, hasperenka egiten zuen bitartean. Horren beldurrak errietarenak baino gehiago negarrarazi zidan, hurrengo goizean Marikrutxek beti bezain apain jantzi ninduenean, eta gogoan dut nola ez nuen eskolara joan nahi beldurrez. Aldi bakarra izan zen hau; anaia Josebak ia arrastaka eraman ninduen. Esplikatu zionean Arantxa maistrari berandu zergatik ginen, hark bere beso amultsua lepotik pasa eta goxo-goxo hitz egin zidan, gertatutakoa ahazteko esanez.

Toneleria bat ere bazen herriko sarreraren eskuinaldean, non upel handiak egiten zituzten. Eta Altamira azpian trenaren tunela. Berasarteneko eskolatik ateratzen ginenean, *par le chemin des écoliers,* hots, etxeratzeko batere inolako presarik gabe, tunelean sartu eta bertako putzuetan ageri ziren zapaburuak harrapatzen saiatzen ginen. Tunel honetatik igandeetan Bezperetatik ihes egin eta pasatzen ginen, eta trenbidez joaten *Lartzabal*eraino futbol partiduak ikustera, Errenteriako *Touring*ek Irungo *Real Unión*en kontra jokatzen zuenean, esate baterako. Halaber, inguru horretan gaur ere ikusten diren almazenen ondoan futbol zelaitxo zuloz bete batean makina bat partidu jokatuak gara. Txillidak tonelerian eginarazi zituen bere burdinazko hainbat eta hainbat artelan, gero eskultura ospetsu eta balio handiko bilakatuak. Ramón Zapirain –*Matón* boxeolari afizionatu eta korrikalari ona zena deitzen genion anaiak–, eta Imanol Olaizolak, biak *plomero* on, iaio eta antzetsuak eta bertako langileak zirenek esan izan didate, *eskultura horiek ez dira Txillidarenak nireak, gureak baizik.*

Eskolan hasi bezala, igandero ordu bietan, bazkaldu ondoren joaten nintzen Dotrina ikastera eta Bezperetara. Don Ramon Azkonobieta suertatzen zitzaigunean, hasten ginen aitaren egin ondoren *Sinaiko mendian eman zitzaigun legea*… kantari. Don Ignazio Esnal genuenean, aldiz, zertxobait animatuxeagoak izaten ziren kantak, eta horrelaxe ikasi genituen Mezako kantez aparte, *Ijituak badakite triku-traku egiten, triku-traku egiten eta oilaskoak lapurtzen* eta Azkueren kantutegiko beste batzuk. Ondoren, dotrina ikasten hasten ginen, adinaren arabera, seinalatua geneukan katekistarekin. Niri Korta izeneko andereño adinduna suertatu zitzaidan lehenbizi eta geroago Kandida gazteagoa.

Leopoldo Eijo y Garay jauna Gasteizko gotzaina zelarik argitaratu dotrinan, *Kristau ikasbide (osoa)* zeritzanean ikasi genituen galdeak eta

erantzunak behar bezala taxutzen: Galdera: *Kristaua al zera?;* Erantzuna*: Bai jauna, kristaua naiz, Jaungoikoari eskerrak.* G. *Kristau izatea zer da?* E. *Jesukristoren erakutsiak sinistu ta bere mirabetzarako beartua egotea da kristau izatea…* Egia esan, honekin hasi zitzaigun gure euskara polliki aberasten, ikasten genuelarik *mirabetza, alguztiduna, hoben astuna* eta horrelakoek zer arraio nahi zuten esan.

Antza denez, ez nuen memoria txarra, eta Errenteriako parrokian Don Roberto Agirre bikarioaren aurrean proba bat gaindituta, Donostiara on Jaime Font y Andreu gotzain katalanak antolatzen zituen dotrina nork hobeto ikasi norlehenka haietan ere parte hartu nuen. Gogoan dut nola azterketa pasatu eta denok joan ginen, ni lehen aldiz, Victoria Eugenia antzokira.

Badut fotografia zahar bat komunio nagusia egin nuenekoa (1956-III-19), baina ez zait gelditu zazpi urterekin komunio txikia egin nuenekorik, baina oroitzen naiz marinel jantziz ibili nintzela. Arbitroek erabiltzen ohi zuten txilibitua ere baneukala, eta maiz aritu nintzela nolako hotsa ateratzen zuen probak egiten.



Irudia 13: Komunio nagusian.

Goiko Elizako aldarean, Aste Santuan, Elias Salaberriak pintatu *Monumentua* ipintzen zen, santu guztiak estaltzen zituen. Bertako eskaileretan ibiltzen ginen goiti eta beheiti apostolu bezala janzten gintuztenean ofizioetan. Teatroa elizaren barruan egin ohi zen betidanik, azken afaria, oinen garbitzea, Judasen saltzea, … alegia, sinboloen irudikatzea.

Garai hartako entretenimendurik handiena zen mutikoen artean ikustea nork zuen karrakarik handiena, eta nork egiten zuen ilunpeetako edo *Tiniebletako Ofizioetan* zaratarik eta hotsik bortitzena, finena, ozenena. Baziren arotzek txapa finez prestatutako karrakak edo haiek jotzen benetako trebezia handia zutenak, haietatik soinu hunkigarria edo gustagarria sortzen. Koruak bitartean *De lamentatione Jeremiae prophetae,* hots, Jeremias profetaren negar-kantak errezitatzen zituen.

Teatro laikoa ere antzezten zen dotrinan. Korupeko aretoan, pertsianak jaitsi eta elizaren beste partetik bereizita. Hantxe, bankuetan eserita, gu behean eta aktoreak goian ikusten genituelarik. Hamar urte genituenean anaia Joxebak eta beste antzezle batzuek Jon Etxaideren *Markesaren alaba* jokatu zuten, eta neuk ere, hamaseiren bat urte nituela, Charles Chaplinen imitazioren bat egin nuen eta testu-oroitarazle lanetan aritu nintzen. Halaber, 1973 inguruan zinema-kluba zuzentzen nuen Helena emazteak emandako testuez baliatuz. Haur denboran aitak ez zigun uzten herriko plazan egiten ziren komedietara joaten, erdaldunak joaten baitziren batez ere, hara elizako aulkiak eramanik, bertan esertzeko. Komediarik ederrenak, aitak esaten zigunez, *las de las sábanas blancas*, omen, esan nahiz bezala, ametsetan maindire zurien artean egiten zirenak zirela.

Ohetik aparte, sukaldean egiten genuen garai hartan gure bizitzaren parterik handiena. Etxean sartu eta eskuin-ezker baziren bi gela. Pasilloan lehenik zurezko eseraulki zabal bat, aitak egina, gizonezko buru baten taila ederrarekin. Eserleku gainean almoada bat kolore bizitan amak harilkatua, eta batzuetan aipatu angorako katu pollita, magalean edukitzen nuena lasai asko zorriak bilatzen nizkion bitartean eta batzuetan kentzen. Ezkerrean euritako-ontzia ispilu batekin eta aitona-amonen bi taila bikainekin eta burdinazko apaingarriekin. Eskuinean marginoa, barnean zenbait karpeta eta gauza nahasirik zeuzkana, hau ere irudi ederrez tailatua. Ezkaratzean sartzen ginelarik, bazen aurrez aurre ikatzez eta egurrez elikatzen zen sukalde beltz bat, eta saihets batean armairu zuri eta gora bat. Haren eskuinean freskera, eta ezkerrean harraska. Eltze handi bat bete ur irakiten ezartzen zen sutegian, eta ura beroa zegoenean harekin garbitzen ninduten larunbatetan. Igandera-ko apain, prest egotearren, arreba Marikrutxek, fabrikatik etorritakoan, aitaren eta anaien alkandora zuri almidonatuak plantxatzen zituen bi-

tartean mahai gainean. Bazen esertoki ttiki bat eta hantxe ikusten dut nire burua eserita oinak lurrera iristen zitzaizkidalarik. Arantzazuko egutegia horman eta haren ondoan irratia. Gutxitan pizten zen hau, eta gehienetan edo Maria Dolores Agirreren ahotsa edo Basarriren bertsoak entzuten ziren. Baziren, beti ohi bezala iragarkiak eta kantak ere gerora memorian sartuta geldituko zitzaizkigunak: *Ya viene el negro zumbón…, Cuatro caminos hay en mi vida…, El criminal nunca gana…,* eta horrelakoak. Oroitzen naiz nola behin amari galdetu nion, izkinaren batean urraturen bat egin eta odola zeridala ikusterakoan, *ama hilko al naiz*, samurki erantzun zidalarik, barre-murrian, *ez, seme, ez, honengatik ez.*

Gurasoek zilar-ezteiak bete zituztenean jai handia ospatu genuen etxean. Lezoko Gurutze Santuaren basilikaren atarian gaude fotografia batean mezaren ondoren. Ezkerretik eskuinera: Joxeba anaia, izeba Maria, *Olatzar*ko amonaren ahizpa Maria, lehengusua, ama, anaia Iñaki, aita, fraide karmeldar bat, ni, Marikrutx, Joakin anaia eta Isidro Ormazabal koinatua. Oroitzen naiz nola izeba Maria deitzen genuena, amona Juanaren ahizpa, *Olatzar*ko baserrian bizi zen eta noizbehinka jaisten zen herrira eta eskuz egindako artilezko galtzerdiak oparitzen zizkigun. Artile latz eta beroa.

Maiz pasatu genuen atari hura haurtzaroan, bai aitak eta bai neuk, monagilloak izan baikinen biok; eta emakumeek, zer esanik ez, zarreran, eskuinaldean ikusten den pontetik ur bedeinkatuarekin *aitaren* egin ondoren. Urteekin nabarmentzen zait nola hiru emakumeek larru beltz eta orri-ertz urreztatuak dituzten misalak daramatzaten eskuan. Eta aitak eta Joxebak txapela buruan.

Gogoratzen naiz, monagillotarako hautatu nindutenean, nola astegunetan maiz seietarako jaikiarazten ninduen amak. Jantzi eta korrika Gurutze Santuaren basilikara joaten nintzen. Seiak eta hogei izango ziren txintxarria jotzen nuenean, Atanasio Broste sakristauak nola jo behar zen erakutsi eta gero. Eta *Bitoriako Eliz Barrutirako Kristau-Ikasbidea Gipuzkoako euskeraz (osoa)* liburuttoak, euskaraz etxean zegoen liburu bakarrenetakoak bukaera aldean zekarren *Meza Laguntzeko Era* ikasi behar izan nuela buruz: *Sac. In nómine patris et Filii et Spiritus sancti. Amen. Introibo ad altare Dei. Min. Ad Deum qui laetificat iuventutem meam…* Eta azken ebanjelioa bukatzean *Deo gratias,* esan eta ateratzen ginela elizatik sakristiarako bidean ziztu bizian. Apaizari lehenik

alba, gero zingulua, estola eta kasulla, eta bestelakoak eranzten lagundu, eta ahalik azkarren kentzen genuela gure erroketea eta, kanpanilla bere lekuan utzirik, ospa egiten genuela korrika…

Zenbat aldiz ez ote dudan begiratu monagillo nintzenean eta Meza laguntzen nengoela Gurutzea eta Kristo beltza, denborarekin ohartuko ginelarik beltza kandelen keak eraginda zegoela, Ama Birjina eta batik bat Maria Magdalena bekataria. Mosaiko koloretsu hark oso erakartzen ninduen, kanpandorrean zeuden usoen urrumarekin beldurrak hartuta. Irudi haren guztiz ezberdina, askorentzat ezezagun eta harrigarri gelditu da Kristo gotiko bizantziarrari kearen beltza, gona luzea eta peluka, eta mosaikoa irudiekin kendu diotenean.

Behin osaba Leon Albizuri, izeba Maiñaxirekin ezkondua zegoena –askotan kontatu izan didate pasadizo hau–, etxeratu zelarik, tabernaria eta errenta-jabea baitzen, poltsikotik diru-paper mordoxka atera eta erakutsi egin zidan galdetuz nahi ote nituen. Nik berehala eskua luzatu omen nuen, baina detaileak oso haserretu zuen gure aita, honela erantzun baitzion osaba Leoni:

–Gordeitzak hire diru guzti horiek hire patrikan. Nahiago diat eta nire seme guztiok nire inguruan, hire diru guztiak baino.

Osaba Leon harroputz, berritsu eta seme-alabarik gabe zena, isil-isilik gelditu zen, eta handik momentu batzuetara erantzun zion apal-apal:

–Ez zaik arrazoirik falta, ez.

Iñaki anaiak 1954. urtean Pasaiako badian *andeja* –gure etxean hala ahoskatu izan da beti, hots, gaztelaniazko jotarekin–, andexa handi bat arrantzatu zuen. Metro eta hirurogei zentimetro bai luze eta hogeita hamasei kilo pisukoa. Makina bat indar eta tirabira behar izan zituen batelaren barrenera altxatzeko arrain handi hura, errenditzeko, alajaina. Badakit *La Voz de España* egunkarian fotografia ere agertu zela Julen Arretxek aterata. Eta oroitzen naiz eskolatik seietan irten eta etxeratzerakoan hemen aurkitu nuela denon poza. Tamalez, anaia Iñaki hogeita bederatzi urte zituenean Jaizkibelgo kostan itsasoak eraman zuen, lehorrean emaztea eta lau seme-alaba utzirik.

Etxean, aitaren afizioari jarraiki, oso izan gara arraunzaleak. Fotografia zaharren artean bada bat bere gazte garaiko Lezoko arraunlariena:

Patti Urkizu (aita), Rafael Odriozola, Manuel Arrieta, Joxe Joakin Urkizu (osaba), XX, Antonio Saizar, Euxebio Urkizu (osaba), XX, Inaxio Larrea, Patxiku Salaberria, Manuel Saizar, Julian Garmendia, Joxe Luis Urretabizkaia, eta Joxe Manuel Salaberria. Gazte sasoitsuz osatu taldea. Beste batean, Lezoko traineruan (ez dut lortu irakurtzea izena), arraunean egin zuten aitak, osaba Eusebio eta osaba Joxakinek (Torrejilgo Joakin, Iñaki eta beste arraunlari bikainen aita). Garai hartan Jon Garbizu "Zubigar" olerkariaren arabera –1930ean hil zen trenak harrapatuta, portura lanera zihoala–, baziren bi traineru (gaur egun alerik ez), gazteek eta zaharrek eratuak. Lehenbizikoek Isidoro Irastorza zeukaten patroi eta besteek Joxe Migel Salaberri. Gazteenak *San Pedrotarra* zuen izena eta, zaharrenak *Muskerra* (askoz hobea zen bestea baino).

Paper zaharren artean agertu zait *Comandancia de Marina de Guipuzcoa*ren agiri bat ere, 1950eko azaroaren 25ean Pasaian sinatua, non adierazten den *Jaizkibel* izeneko ontzia erosi zuela aitak 2.800 pezeta ordainduz. Luzeraz 5,88 metro, zabaleraz 1,33 eta puntalaz 0,52 zituena, eta hamar pertsona eramateko baimendua. Oroit naiz orobat nola Donostiako iraileko estropada batzuk zirela-eta Lezoko kaitik aterata, Pasaiako bokala igaro, Ulia ababorrean denbora luzez eduki, Zurriola puntatik pasa eta Santa Klara islatik ez oso urrun zegoen kanpoko ziabogaraino, arraunean eraman ninduten nire anaiek eta aitak, bidean arrantza pixka bat, arraingorri, txitxarro eta txipiroi batzuk ere harrapatu genituelarik. Azken traineruak ziaboga hartu zuenetik eta branka Kontxa aldera zuzendu, gu ere hasi ginen ekialderantz arraunean lasai etxerantz itzultzen.



Irudiak 14-15: Ama Birjina Karmengoaren jaietako estropada aurretik Trintxerpen. Ezkerreko argazkian: Lemazain Juan Luis Urkizu. Joakin Urkizu, X. Arin eta Joseba Urkizu. Eskuinekoan: patroi: Juan Luis Urkizu, Joakin Urkizu, Joseba Urkizu eta Iñaki Urkizu. Batela Jaizkibel.

Beste fotografia zaharren artean badira bi Trintxerpeko Ama Birjina Karmengo festak zirela-eta batel-estropada *Jaizkibel*ek irabazi zuenekoa. 1956a izango zen seguru asko, eta bertan arraunean ari direnak honakoak: Juan Luis Urkizu, lehengusua, osaba Eusebioren semea, egunero arraunean bere aitarekin Lezotik Ondartxoko ontziolara joaten zena; Joakin Urkizu nire anaia zaharrena, Joxeba Urkizu, nire hurrengo anaia, ni baino hamar urtez helduagoa, eta brankan Torrejilgo lehengusua, Iñaki Urkizu. Ez zen sasoirik eskas, ez, batel hartan.

Gogoan dut, baita ere, festetako karrozetan behin atera nintzela txikitan batel baten gainean, arraunlari *piurak* egiten, *intentziyo* guztia ipintzen nuelarik keinuan, hau da, arrauna hartzeko moduan. Hain zen handia arraunerako afizioa herrian eta batez ere gure etxean.

Nire haur denboretan Manuel Arrillaga, aitaren adiskidea, eta San Pedroko traineru ospetsukoaren semea zen Lezoko traineruaren patroia, *Tenemos un patrón que se llama Arrillaga, rumbala rumbala rum*, kantatzen genuen eta txalotzen. Fotografia zahar batean ageri zaigu, aipatu dugun Tito Labordeta ere, eskuan lore sorta duela; aitaren lankidea zen; garai batean UGTkoa-edo zen, eta aitari elizkoiegia izatea aurkitzen zion akats bakarra. Garai batean osaba Leonena izan zen *Bar Urretavizcaya* tabernaren atarian, eta *¡Aupa los despreciados!* kartelpean. Antza denez, ez zuen arrakastarik ukan Elias Salaberriak eta beste zenbaitek gogo bizi handiz sustengatzen zuten traineruak. Donostiako estropada batzuetan eliminatu egin baitzituzten Hondarribiko hiru arraunlari bikain lagungarri zeramatzatelako.

Beste bi kirol baziren arrakasta handikoak gure herrian: futbola eta txirrindularitza. Bietan zen iaioa anaia Joxeba. Futbolean *Aldeguna* ekipoan jokatzen zuen eskuinaldeko defentsa bezala; Gotzon Urretabizkaia erdian defentsa bezala, Suspe atezain, Kordero, Rikardo Salaberria, Joxetxiki eta beste; *Bar Marichu* tabernan biltzen ziren larunbat askotan afaltzera. Hemen ikusi nituen lehen aldiz *Frantziako Tourra*, Bahamontes eta Loroño. Garaian ez ziren ttipiak eta laburrak eztabaidak, ea zein ote zen hoberena erabakitzeko, Toledokoa ala Larrabetzukoa. Han entzun nituen lehen solas gordinak ere uda batez, neskatxa gazteak igarotzean, bertara joaten ziren guardia zibil gazteen ahotik.

Beste fotografia batean Joxeba ageri da bizikleta batean *Luistarren Festetako* ziklo-kros karreran irabazle. Aldamenean bere laguntzailea,

Gurutz. *Pitula,* gero bere kamioiarekin herriko kale garbitzailea izango zena ere agertzen da argazkian jendartean. Oroitzen naiz *arindarren* etxearen atzean zegoen bidexkatik pasatu behar zutela eta nola *Itsu*ko ziklista lagunek enbor batzuk jartzen saiatu ziren, bidexka oztopatzeko eta denbora galarazteko. Halere, ongixko ezagutzen zituen baserritarren kooperatibaren atzealdekoak *Joshebak* –halaxe idazten zuen garai hartan bere izena–, eta kopa bereganatu zuen.

Nire notak eskolan oso onak zirela eta neska bizikleta bat oparitu zidan Joxebak. Harekin ikasi nuen nik bizikletan ibiltzen, zenbait erorikoren ondoren, eta gauza bera bizilagun eta auzoko neska askok ere: Migelitok, Begoñita eta Antoñita Unzainek, Maripili Saizarrek, Joana Mari Salaberriak… Gero festetako zinta-karreretan ateratzeko balioko zigun abilidadea… Bukatuak ziren txingoka, tortoloxetan, sokan saltoka, kromo trukaketan, espaloian eta karreteran futbolean jolasten aritzeko egunak…

Arantxa Berasarteren Lezoko eskolan, partikularzki esan bezala, prestatu nintzen batxilergoko sarrera, ingresoa eta lehen urtea egiteko, eta bertan jarraitzerik izan ez nuenez, nahikoa lan bai baitzuen Arantxak beste haurrekin gure mailako gai guztiak prestatzen hasteko, Donostiara joan behar eta han hasi nuen bigarren urtea.

Oroitzapen lanbrotsuen artean daukat nola gure maistrarekin Dabid Gomarak eta biok egin genuen egungo Postetxean azterketa. Tren geltokitik atera, zubi handi batetik igaro. Hura dotoretasuna. Ni harri eta zur nintzen, begiak zabal-zabalik. Urumea ibaian gabarra bat ari zen hondarra biltzen, eta pertika handi batzuez mugitzen zen. Gerora jakin nuen, Bittor *Gartziategi*koak kontaturik, bertan lan egiten zuela Florentino Goikoetxeak hondarra biltzen hondoan gehiegi pila ez zedin. Lana bukatutakoan, *Gartziategi* sagardotegian freskatzen zuen eztarria gero bizikletaz baserrira itzuli aurretik.

Beste fotografia zahar batean Florentino Goikoetxea "Altzueta" *Comète* sareko mugalaria, Donibane Lohizuneko portuan alemanen okupazio garaian zurezko saskitxo batekin ageri zait, baina zer ote darama barrenean? *Comète* sareaz filmak eta dokumentalak egin izan diren arren, inon ez da aipatu izan Lezoko kontaktua. Alegia, kostaldeko bidea. Nola lo egiten zuen gure etxean, aitaren adiskidea izaki, elkarrekin egon zirenez gerra zibilaren hasieran Donibane Lohizunen. Eta Joxeba anaiak eta Marikrutx arrebak enkarguak egiten baitzizkioten, bai Her-

nanira bai Jaizkibel kostako zenbait baserritara mezuak eramanez, gero gau ibilaldi ezkutuak bideratu ahal zitzan.

Zurriola aldean Gros auzoan bada *Mariaren Bihotza Ikastola*, orain, garai hartan *Colegio Corazón de María* deitzen zena. Hemen izan ziren, bada, nire lehen urrats libreak, nire pauso txikiak Gipuzkoako hiriburuan. Leihoetatik ikusten zen nola olatuak harkaitzetan hausten ziren zurrunbiloka itsaso zakarra haserre zebilenean. Oraindik ez zen hondartza zabalik han, marea beherean hondartza txikitxo bat baizik.

Aita Agirre euskaltzalea izan zen, nire aitaren adiskide ona, San Antonio ospitalera eraman nindutenez gero, eskaileratan erori eta konorterik gabe gelditutako batean, eta oroitzen naiz nola Aita nagusiaren urtebetetze batean euskaraz errezitatu nuen kolegioko aretoan ikasarazi zidaten hura: *Zorionak, bihotz-bihotzez, Zorionak eskaintzen dizkizut, aita maitekor hori, ikasle guzien izenez.* Aita Sierrak koru txiki bat zuzentzen zuen, eta bazen talde bat txotxongiloekin dibertitzen zena ere. Gela ilun batean ikusi nituen lehen aldiz eta benetan txundituta, liluraturik utzi ninduten panpina haien ahotsak eta funtzionamenduak.

Uda partean nire anaiek eta aitak txipiroiak eta lupiak arrantzatzen zituztenean, nire saskia arrainez betea hartu, trolebuserako sos batzuk jaso eta bakar-bakarrik hantxe nintzen Donostiarantz abiatua. Gros auzoan *Ondarra* izeneko arrandegira gehienetan eta Parte Zaharrean Bretxara ere bai, noizean behin. Hemen galdetzen zidaten, *Hola guapito, ¿qué traes en el cesto?*, baina nik zein salmenta-postura joan behar nuen aldez aurretik banekienez, haraxe joaten nintzen, eta batzuetan txipiroi alearen prezioa xentimo batzuk garestixeago saltzera ere iristen nintzen.



Irudia 16: Eskuinetik ezkerrera: anaia Iñaki Urkizu, arrantzalea, Marikrutx Urkizu Txapa fabrikatik atera berria, andexa 36 kilokoa, ama Maria Luisa Sarasua eta ni. (Fotografia: Julen Arretxe, Lezo 1954).



Irudia 17: Alesbesen (Villafranca de Navarra) dagoen karmeldarren komentua.

II

ZORNOTZA ETA ALESBESEN KARMELDARREKIN

1958-1962

SANTI AMIANO adiskidea eta biok goiko elizaren horma baten kontra pilotan jokatzen ari ginela, fraide karmeldar bat agertu eta galderak egiten hasi zitzaigun. Gero etxetik pasatu zen, amarekin hitz egin eta galdetu zion ea nahi ote nuen Zornotzako kolegiora joan ikastaro bat egitera. Hain ongi pasatu nuen hartan futbol-zelaian, frontoian eta buru-ariketa zenbait eginez, ezen jada ikusi zuten baliagarri izan nintekeela eta irailean ikasturtea has nezakeela. Eta gainera batxilergoko sarrera, zehatzago *Escuela de Comercio* zeritzanean lehen urtea burutua nuenez, latinoen bigarren kurtsoan hasiko nintzela esan zidaten, eta arropak prestatu behar nituela. Oroitzen ez dudan zenbaki bat ezarri zieten arropa guztiei: galtzerdi, galtzontzilo, barruko elastiko, galtza, alkandora, jertse, musuzapi eta bestelakoetan. Abarka parea ere eraman behar nuela, haiekin jolastu behar baikenuen futbolean eta mendiko irtenaldietara joan.

Amorebieta-Zornotzako Karmeldarren Ikastetxea egoitza eder bat zen. Komentu hartan emakume errepublikanoak egon ziren preso 1937tik 1943ra arte, eta bertan igaro nuen nik ere 1957-1958 ikasturtea. Hantxe hasi nintzen euskaraz irakurtzen eta idazten aita Felix zuzendariaren babespean, aita Villasanteren *Jesukristo*ren biografia irakurtzen eta nire egunorokoak idazten. Oroitzen naiz mintzatu bezala hasi nintzela eskribitzen: *gaur au indut*… eta horrelakoak. Aita Eliseo izan genuen aitorle eta matematika-irakasle. Maite ninduen, kaskarrekoren bat edo beste ere irabazi nuen eta bere masaileko bizarraren zakarra ere probatu nuen aitortza uneetan. Kantuari ere eskaintzen genizkion gure ordutxoak *Aurtxo denok alkarturik jolastutzera orain goaz, bai,* abestia buruz ikasi genuela-eta, meza euskaraz lehen aldiz kantatzen ikasi genuen. *Bedeinkatua datorkiguna Jaungoikoaren izenean, Hosana zuri, Ho-*

sana beti, zeru goietan ta lurrean. Eta horrelakoak. Benetan duo ederrak egiten zituzten Azkoitiko larrañagatarrek.



Irudia 18: Karmeldarren Zornotzako komentuko patioan
Ama Birjina Karmengoaren egunez.

Festa handietan Larreako komentura joaten ginen, han kantatzera eta sermoiak entzutera; han, ene oroitzapenen irudira, gipuzkera zen gailen. Fotografia batean ikus dezaket nola janzten ginen horrelako okasioetan. *Esklabina* deitu kapa zuri laburra, gerriko zabal zuria eta sotana marroia, karmeldarren kolorea, botoiz betea. Oinetakoak beltz eta oso ongi lustratuak, noski. Ni nagoen fotografiako leihoaren atzeko gela ttipian futbolean aritzeko eta mendira paseatzera ateratzeko abarkategia zegoen, bertako laurogei mutikoen oinetako eta galtzerdien izerdien usainek edozein pertsona seko utz zezaketenak, baina gure sudurrak ohituz joan ziren.

Gogoan dut paseoetan inguruko mendietako pinudietarantz igotzen ginela, Bizkargi begien bista aurrean geneukala, eta haien abaroan kontu-kontari egoten ginela, eta behin batean Lemoizko mendixkara igo ginela bertako lubakietan ikusten zirelarik gerrak utzitako urratsak, eta, jakitunek ziotenez, bertako ur minerala oso ona omen. Beste batzuetan, Larrea ondoko erreketan oin hutsik sartzen ginen eta erreketako karramarroak harrapatzen saiatzen.

Eguerdi zenbaitetan, otordua atseginago egitearren, bazkalondoan kanta saioa izaten zen eta gaztelaniaz kantatzen genuen pulpitu batera igorik. Larrañagatarrek *Tengo yo dispuesto en mi testamento*… Nafarroa aldekoek *Las golondrinas cantaban a las orillas del Arga…* eibartar batek *Es el equipo del Eibar un equipo colosal…,* eta nik Zurriola aldeko *Colegio del Corazón de María*n, egun *Mariaren Bihotza Ikastola* denean ikasitako hura: *San Sebastián tiene cosas que no tiene el mundo entero*…

Banuen, oparituriк, Orixeren *Urte Guziko Meza-Bezperak* liburu ederra, Zabalo´tar Pablo ta Xabier´en apaingarriekin Frantzian, Tours aldean argitaratua 1950ean Mame inprimategian. *Bi Itz* zituen sarrera gisara eta hantxe ikasi nuen nola itzuli euskaraz *Virgo* hitza, hauxe baitzioen zehazki Nikola Ormaetxeak: *Emazteki nasi gabeari* neska *esan oi zitzaiona Euskalerri guzian lenago, zenbait tokitan zakartu bada ere,* neskatxa *izen ederra ta aukerakoa daukagu, ta emaztekiaren birjintasuna adierazteko* neskaxtasuna… Ez nuen, egia esan, sakonki konprenitzen ia deus, ez eta gauza handirik Goierrin eta Bizkaian *neskea* deitzen zutenaz zioena. Halere, esku artean eduki nezakeen euskal liburu bakarretakoa zen eta gainera hantxe ageri zen liburu erdian Lezoko Gurutz Donearen irudia.

Matematikan ateratzen nituen notarik hoberenak eta problemak egiten oso iaioa nintzen. Latinean, nire lehen kurtsoa zenez, pixka bat atzeratua nenbilen, eta Txoperena igantziarrari, pilotari mutil argiari, eskatu zioten niri latinean laguntzeko. Baina hori bai, garai haietan Sagasti bizkaitarra zen pilotaririk hoberena, nire ustez. Hantxe ikasi genituen aliketaz eta alanbrez arrosarioak egiten eta hariz jirabiraka kixki-pilotatxiki bati pilota borobila osatzen, eta ondoren larruz josten. Gogoan dut, baita ere, futbolean ez nuela gaizki jokatzen, baina Compás alesbestarra iruditzen zitzaidan abilenetakoa. 57-58ko ikasturte hartan kurtsoak erraz gainditu genituen, hots, latinoen lehen bi urteak. Eta prestatuta geunden jada Nafarroa aldera joateko beste hirurak egitera.

58ko irailean, Donostiako geltokian bildu ginen talde bat aita Eliseorekin, eta galdetu zidan lehen gauza izan zen, bera ere oso futbolzale eta Athletikzalea baitzen, ea oporretan futbolean jokatu nuen, eta nik ez asko, gehiago aritu nintzela igeri erantzun nionean, kopeta aski zimur eta ilun ezarri zuen eta iruditu zitzaidan lanak izango nituela lehen ekipoan jokatzeko.

Bidaia luze baten ondoren iritsi ginen Villafranca de Navarrako RENFEko geltokira. Hamabi urte bete berriak nituen eta ez nuen pentsatzen hiru ikasturte igaro ondoren, hemendik hartuko nuela etxerako itzulia, inoiz gehiago ez itzultzeko, zeren eta injustuki, pentsatzen nuen, *expulsatua*, bidalia izan bainintzen kolegiotik, eta apaiz izateko gogoa, misioetara joateko gogoa bainuen oraindik. Dena den, azkoitiar fraide zakar, buruhandi eta latina irakasten zigunak esan zidan, hartua nuen bideari jarraikitzen banion, fedea galduko nuela eta horregatik erabaki zutela ni etxera bidaltzea. Ikaskideentzat etsenplu txarra izango nintzen nonbait. Asmatu zuten, alajaina! Baina ez ditzagun kontuak arinegi aurkez.

Hautsez eta buztinez beteriko bidea egindakoan, bakoitza bere maletarekin, iritsi ginen eliza-dorre luze eta garai baten ondoan zegoen komentu eta kolegiora. Adreiluzko horma zahar haiek aski beldurgarriak zitezkeen baina gu pozik gindoazen kurtsoko kideekin.

Errepasa dezadan egun arrunt bateko programa. Goizeko sei eta erdietan esnatzen ginen tinbre zatar baten zarataz, aita Heliodoro pasatzen zelarik lo leku amankomun hartatik. Ehun eta hamazazpiren bat gela izango ziren bi metro gora zuen tabike zuri eta gortina batez soilik bereziak, burdinazko ohe xume bat eta takila bat. Besterik ez. Egin behar genuen lehen gauza zen gortina korritu eta, galtzak jantzita, aurpegia garbitzera joan ahalik eta arinen. Bata jantzirik genuela igotzen ginen kapillara eta han lehen errezoak egiten hasten ginen. Gero meditazioa zetorren, meza aurretik. Hura bukatutakoan, gela behar bezala uztera jaisten ginen, alegia ohea egitera eta ilaran ezartzen gintuzten gosaltzera joateko unean.

Errefektorioan, jantokian alegia, katilu handi bat esne edaten genuen ogi puska batekin zopak eginik. Dena isil-isilik. Norbait komuneko bidea hartzeko larrialdian bazegoen, baimena lortzeko aski zuen esku bat altxa eta besteaz sabel gaina seinalatzea. Zortzi eta erdiak inguruan, estudio gelan egoten ginen jada kokatuak. Eta bederatziak iristean ikasle kurtso bakoitza hantxe zihoan, ilaran eta isilik, zegokion gelara. Lehen gaia latina zen. Lehen urtean Zesarren *De Bello Gallico*rekin hasi ginen. Geroago etorriko ziren Zizeron, Horazio, Salustio, Virgilio, eta beste zenbait. Bidelagun Ignazio Errandonea, Beran jaio eta Donostian 1970ean hil zen jesuita klasizista ospetsua bilakatu zenaren *Gramática Latina* (1917) izan genuen. Honek, Oxfordeko Unibertsitatean ikasi ondoren, 1923an bere tesia Sofoklesen koruei buruz idatzia zuen, eta Donostiako EUTGren sortzaileetarikoa ere izan zen. Eskura izaten ge-

nuen eta oso maiz erabiltzen genuen Raimundo de Miguel y Navasen *Nuevo diccionario latino-español etimológico*a, noski. Halaber, Jaime Berenguerren *Gramática Griega* liburua, non gizonezkoen eskultura biluzi guztiak tinta urdinez tapatuak baitzeuden *trinidadeaz* jabetu ez gintezen, eta non ikasten genituen grezierako deklinabide eta aditzak ere.

Latinaz, grezieraz, eta ingeles apur batez aparte, batez ere Luis Alonso Schökel (Madrid, 1920) jesuitak idatzitako *La formación del estilo* liburua zerabilen beste irakasle batek. Jakina den bezala, liburu honek arrakasta handia izan zuen, 1947an lehen aldiz argitaratu zenez geroztik, eta idazten ikas genezan erabiltzen zuen gure literatura-irakasleak eta bertatik zenbait zati luze irakurtzen zituen: Unamuno, Azorín, Foxá, Machado anaiak, Baroja, Buzzati eta besterenak.

Klase bakoitzaren aurretik, ia ordu bateko prestakuntza izaten genuen gehienetan, eta ez zen metodo txarra. Gertatzen zen batzuetan, leihoa gertu bainuen, enaren etengabeko jirabira arin zuri moreei begira egoten nintzela, eta aldameneko ikaskidearekin berriketara jotzean, puntuak galtzea eta, galdutako puntuak pilatzean, zinema-ikuskizunik gabe gelditzea. Hala, noizbait horrela gelditu izan ginen, *sin cine*, eta besteak aretoan zeuden bitartean, guk *estudioan* egon behar izaten genuen zigortuta, baina han egon ordez, atzeko partetik alderantziz ikusten genuen botatzen zuten filma, zinema-aretoaren pantailaren atzeko aldean zegoen gelatxo ezkututik.

Musika-klasea eta kanta-entseguak ere oso garrantzitsuak ziren gure formakuntzan. Pentagramako notak irakurtzen eta kantatzen ikasi genuen eta elizkizunetarako koru ederra osatzen genuen. Tiple-tinbre dotorea omen nuen, gero ahots-aldaketarekin tenorra bilakatuko zena. Baziren saskibaloi-pistaren ondoko geletan piano batzuk, eta hantxe hasi ziren ikasten Txoperena bezalako mutil argiak. Hau ilaran zihoala edota estudioan zegoela edo beste edozein lekutan, bere behatzekin goiti eta beheiti ibiltzen zen, memoria izugarri ona zuelarik. Niri ordea, ez dakit zein arrazoi zela medio, ez zidaten pianoa ikasteko biderik eman, eta arantza hori beti izan dut barrenean sartua, inbidiak jaten nauela Patxi Intxaurrandietak, Jan Battit Orpustanek edota Mikel Arregik hain ongi nola jotzen duten entzutean.

Eguberriak iristen zirelarik, kolegioan bertan geratzen ginen eta, klaserik ez zegoenez, abestiak eta teatro-piezak prestatzen genituen, lehenik geuk gure rolaren testua koaderno batean kopiatu ondoren. Arretaz

egiten genuen, gainera, ahalik eta kaligrafia hoberenaz. 1959-1960ko Eguberrietan, Muñoz Secaren *Los Chatos*, frai Mauroren zuzendaritzapean prestatu genuen, eta fotografia zahar batean honako aktoreok ageri gara: zutik, ezkerretik eskuinera: Amundarain, Irazabal, Bonilla, Garzaron, López (?), Madariaga, Iturraran, Saez, Zabaleta, Trokoniz eta ni; behean, ezkerretik eskuinera: Perez, Borda, Arrizabalaga, Bilbao, Etxebarria, XX, eta Pérez II. Fotografia Juan Mari Arrizabalagari zor diot.



Irudia 19: Villafranca-Alesbes. 1959-ko eguberrietan Muñoz Secaren *Los Chatos,* Fraidekume Teatrogileak. Erdiko lerroan, eskuinean neu.

Amundarain ez zen pilotari txarra; Altzo aldekoa zela uste dut. Bonillari *Pasar yo vi la alegre primavera*… kantatzea gustatzen zitzaion erruz, eta bere herriko –errioxarra zela uste dut– elizako koruan ere behin kantatu zuela, halaxe kontatu zigun oporraldi batzuen bueltan. Madariaga, oso pianista ona zen eta, Arrizabalagak esan zidanez, Picasso ez zitzaion gustatzen komunista zelako. Saez, gu baino urte batzuk zaharragoa, betaurreko lodidun donostiarra zen, bokazio berantiarra esaten zena. Zabaleta mutil azkarra eta futbolari abila, uste dut azkoitiarra zela eta gerora mediku-ikasketak egina. Trokoniz, ikasgai gehienetan aski eskas zena, Kimikan izan ezik. Borda, Vienako Unibertsitatean irakasle izandakoa. Beheko aldean eskuinean, Perez, estudio-aretoan nire aldameneko pupitrean suertatu zitzaidana, mutiko fin eta delikatua. Erdialdean, Bilbao, ilaran gindoazela beti hiztegia eskuan zuela irakurriz zihoana, hitz guztien esanahia memorian sartu asmoz eta gogoz.

Urte batetik bestera, Unibertsitatean ikasitako aita bat –ez naiz oroitzen orain izenaz– etorri zitzaigun Iruñetik Literatura irakastera; horrekin iraultza handia gertatu zen. Muñoz Secaren *Los Chatos*en ordez, Graham Greeneren *El León dormido* antzerkia irakurri baikenuen ikusleria isil baten aitzinean. Bera mintzatu zitzaigun Valmikiz eta autore modernoez lehen aldiz.

Urteak pasa eta Madrilen lortu dudanean *La Celestina* teatro gaietako liburu dendan, *Biblioteca Teatral, Revista de Obras Teatrales* delakoan, hiru ekitalditan partiturik Pedro Muñoz Seca eta Pedro Pérez Fernándezek idatzitako *Los Chatos,* zeina 1924an Madrilen estreinaldiz eman baitzen *Teatro del Centro* delakoan, eta irakurtzen dudalarik pertsonaien zerrenda eta haien hizkera, dudak sartzen zaizkit. Nork egingo zuen Miss Brighten rola edo *Suspiritos*ena, zeinak Irene Gutiérrez Cabak eta Julita Gutiérrez Cabak antzeztu ohi izan zituzten. Garbi dago, moldaketa huraxe zentsuratua zela, eta gure elkarrizketa haiek laburtuak. Lezoko semea Sevillako doinuz hitz egiten saiatuz. Alajaina! Baina nazional-katolizismoa gailen zegoen urte haietan, modan zegoen 1936ko azaroaren 28an Paracuellos del Jaraman gorriek fusilatu zuten bibote luzedun hura. *La venganza de Don Mendo* eta Alfonso Pasok zinemara pasatutako *Los extremeños se tocan,* izan ziren bere obra oparoaren beste titulu batzuk. Momentu tragikoetan astrakanadak, jostirudi irrigarriak, maiz jokatu ohi dira arrakasta handiz.

Adibidez, *Jarrai*, Donostiako antzeztalde abangoardistak 1962an Joseph Priestleyren *An Inspector calls –Ertzaiña etxean–* Julian Lekuonaren itzulpenean, azaroaren 15ean Etxarri Aranatzen antzeztu zuenak, 1960an Muñoz Secaren *La cartera del muerto –Nor da erruduna–* plazaratu zuen. Bidenabar esan dezadan, Mikel Azpiazuk idatzi *Actividad Teatral Donostiarra (1950-1975)* liburu informazioz beteak *Nor da erruduna* obran parte hartu zutenen fotografia dakarrela, hala nola *Ertzaiña Etxean* antzerkiarena, honen azpian hau dagoelarik idatzita: *Escena de "Ertzaina etxean". En primer plano, Eustakio Sukunza, detrás J.A. Arozena y M. Mugica*. Alabaina, nire begiek ez banaute engainatzen eta okerrera eramaten, esango nuke eserita eta zigarroa erretzen, pentsakor dagoen aktorea ez dela Eustakio Sukunza, baizik eta esku programan ageri den bezala, Eric gisa jokatzen duen Ramon Saizarbitoria.

Graham Greeneren *El león dormido*, José Luis Alonsoren bertsioa eta Manuel Benítez Sánchez-Cortésen zuzendaritzapean *Teatro-Club Reco-*

*letos*en estreinatu zen Madrilen 1957ko urriaren 16an, eta guk Teatro Irakurria gisa, hots, *lejiteatro* moduan kolegioan 60an edo 61ean. Gogoan dut Dr. Kautzerren papera suertatu zitzaidala. Hona nola joanen zen irakurketa Mary eta Krautzer Doktorearen artean obraren amaian, euskarara gaztelaniatik itzultzen dudalarik:

> MARY. –Ez; baina oso gertu nago. *(Argia itzaltzen du eta ateratzera doa).* Ez du sentitzen batzuetan, Krautzer doktorea, gauza batzuk deusezteko, ezabatzeko, suntsitzeko gogorik?
>
> KRAUTZER doktorea. –Ez, nik nahiago dut gaur gauza bat pentsatu, eta bihar bestea… Aukera guztiak desegiten baditugu, zailagoa da heriotzako orduan mamurik inguruan edukitzea.
>
> MARY. –Nik uste nuen berorrek egia bilatu nahi zuela, egia maite zuela.
>
> KRAUTZER doktorea. –Ez. Soilik, egia erlatiboa. Hau baita bizitza jasangarriago egiteko modu bakarra. *(Leihora hurbildu da).* Begira. Giltza bat. Hementxe, lurrean. Norbaiti erori zaio. Oh! Esaten genuena entzuten egon da norbait…

Oroitzen naiz oraindik nola esaten zigun edozein libururen gainean lan bat egiteko hiru gauza behar zirela. Lehena, liburua osorik irakurri, oharrak hartuz; bigarrena, besteek ziotena irakurri eta norbere oharrekin konparatu; eta azkena, ondorioz, modu argi eta zuzenean idatzi komentarioa. Ez zebilen batere erraturik gure literatur irakasle gaztea.

Batzuetan errefektorio-lanak ere egin behar izaten genituen. Eta denen platerak eta ontziak jaso ondoren, eltze batzuk urez bete, ongi berotu eta hantxe egoten ginen plateretan itsatsitako gantzak ezin kendurik, 1960ko otsailaren 9an karmelita misiolari lekaimeak sukaldeaz, arropaz eta sakristiaz kargu egin ziren arte.

Heziketa espartarra izan genuen. Bardeetan –*Las Bardenas* deitzen genituen– barrena ibilaldiak egiten genituenean, batzuetan bost ordu eman genitzakeen ia gelditu gabe eta, neguan, *Moncayoko ziertzoak*, hots, haize hotzak jotzen zuelarik eta guk soinean bata gris fin bat besterik ez jantzirik, eskerrak abiadura bizian genbiltzala, bestela hotzez akabatzeko arriskua ere izango genuen-eta. Urrunean ikusten genituen zezenak lasai-lasai beren bazkalekuetan, eta ardi galdu edo abere hilen

baten bila miruak, gabiroiak, putreak… Beste egun batzuetan Milagroko zubiraino joaten ginen, eta hantxe saiatzen ginen ea harri jaurtiketetan nork lortu xaplada gehien Arga ibaiarekin elkartu ondoren aski lodi zetorren Aragoi ibaiaren ur azalean.



Irudia 20: Futbol ekipoan, zutik eskuinean lehena ni.

Garai haietako fotografia batean, futbol ekipo nagusia ageri da. 1961ean gaude jadanik. Zutik, ezkerretik eskuinera: Aita Ramiro, Garrido, Paternain, Bonilla, XX, eta ni. Behean: XX, Larrañaga, XX, Compes, Zabaleta, XX. Hoberena eta abilena erregatean Compes alesbestarra zen, esan bezala. Garrido ere Villafranca de Navarrakoa zen, Goitia apaiz frantziskotarra osaba omen zuen. Defentsa, Paternainek, Bonillak eta neuk osatzen genuen, eta kontrarioen erasoak gelditzen saiatzen ginen, hala nola gure aurrelari abilei pase luzeak ematen. Aita Ramiro ere saiatzen zen batzuetan gurekin jolasten, abitua altxaturik galtza luze batzuk ageri zitzaizkiola zango finen gainean, jokaldi mareagarri eta driblinak egiten entseiatzen zen aurreko aldean, baina bere joko propioan nahasten zen maiz. Ekipoan bost nafar, lau gipuzkoar, errioxar bat eta santandertar bat geunden. Klaseko futbol ekipoko partaide izatea ez zen batere txantxa, ohoretzat geneukan (nik bederen).

Halabertsu, denborarekin palista on samarra bilakatu bide nintzen eta nire adiskide Txoperena igantziarrarekin, gero esku hutsez afizionatu mailan Espainiako txapeldun izango zenarekin, jai batean jokatu izan genuen irakasleen kontra, eta irabazi. Oso gustuko nuen ikustea nola jokatzen zuten irakasle batzuk, etxeko diru-laguntzaile, benefaktorea zen Glaría aitarekin.

Glariatar hauek ere oso futbolista onak gertatu bide ziren, lehen dibisioan jokatu baitzuten, eta bazuten zinema-areto bat herrian, bertan doan fraidekumeok ikusi ahal izan genituelarik erabat txundituta utzi gintuzten filmak: Luis Lucíaren *Molokai, la isla maldita* (1959), Javier Escrivák egiten zuelarik San Damianen rola, eta *Diálogo de Carmelitas* (1960), besteen artean. Jakina den bezala, Philippe Agostini eta Raymond Leopold Bruckberger zuzendariek Frantses Iraultzaren garaian kokatu filmak beti miretsi izan dudan Jeanne Moreau eta Alida Valli zituen protagonista.

Beste fotografia zahar batean, Borda eta biok adiskide on bezala ageri gara. Ni baino ikasturte bat zaharragoa zen Borda. Bapoa, azkarra eta ona. Balirudike bere beso maitekorraren gerizpean zaintzen nauela-edo. Ni txapelarekin eta ohiko abarkekin nago. Artilezko galtzerdiek, izeba Mariak eginek, defentsa bezala ere balio zuten futbolean jolasten genuenean. Urrutian ikusten den makaldia benetan ederra zen. Askotan handik barrena bakar-bakarrik abiatu izan nintzen ahots goran errezitatuz ikasten genituen poemak, bai gaztelaniazkoak bai latinezkoak. Harantzago Aragoi ibaia zegoen eta, haren beste aldean, Milagro herria. Aragoi ibaia Argarekin biltzen zen historia tragikoa duen Peñalén mendixkaren oinetan. Goiti beheiti bota omen zuen bere anaiak Santxo III.a, geroztik Peñaléngoa deitua. Oso historia aipatua zen hura.

Izan nuen, ordea, osasun arazo ttiki bat, aski kronikoa izan dudana, alegia, belarri batean halako burrunba hotsa. Erabaki zuten, bada, Tuterara joan behar nuela otorrinolaringologoarengana, edo laburrago beren burua errepublika garaian iragartzen zuten bezala, *Begi-Belarri-Eztarri* medikuarengana. Aita Liberatok autobuserako sos batzuk eman zizkidan eta hantxe joan nintzen bakar-bakarrik. Oroitzen naiz oraindik zenbat gustatu zitzaidan katedraleko ataria, harri landuzko irudiekin, eta, hotz izugarria egiten zuenez, autobusa hartu bitartean liburu-denda batera sartu nintzela eta, ongi arakatu eta begiratu ondoren, *Austral* bildumako Pedro Salinasen *La voz a ti debida* poesia liburua, urtetan neure adiskide on-ona bilakatu zena, hamazazpi pezetaren truke erosi nuela.

Latina eta greziera, eta batez ere gaztelania, aski ikasi genuen arren, Alesbesen igarotako hiru ikasturteetan, aita Heliodororri esker, gure euskara ez nuen galdu erabat, *Xabiertxo* liburutto ederraren ale batzuk banatu baitzizkigun eta bertatik hasi baikinen *Ikusten dezu goizean* (gipuz-

keratua) bezalako kantak buruz ikasten, eta bertako marrazki ederrak, Txikiren edergarriak dastatzen. Gramatika apur bat ere ikasi genuen aita José de Zabala-Arana klaretarrak idatzitako *Gramática Vasca gipuzkoera,* liburuarekin. Honelaxe bukatzen zen hitzaurrea: *No quiero poner punto final sin antes rogarte encarecidamente, que no cejes en tu noble empeño hasta conseguir que puedas decir con verdad y la frente bien alta: Euzkeldu-na naiz.* Hantxe irakurri nituen lehen aldiz *Iztia* (Vocabulario), bazirela *flexiones objetivo-receptivas, flexiones con dativo* eta *conjugación sintética intransitiva* delakoak. Hantxe irakurri nuen orobat, bazirela notin-izenak, besteren artean nirea lehen aldiz, alegia, *Patirki*. Dena den, Mitxelena maisuak zioen bezala, metodo eskasenetik ere ikas daiteke beti zerbait. Eta ez dira ikasi beharrezkoak aditzari bagagozkio, logikoki eta matematikoki sor litezkeen aldaera guztiak, milaka bagenituela frogatu nahi izan zuen bezala Ignazio Maria Etxaide ingeniariak, Jon Etxaide eleberrigilearen aitak, 1952tik 1962ra Euskaltzaindiko zuzendari, eta telefonia-kontutan aditua zenak *El verbo vascongado* (1923) titulupean.



Irudia 21: Borda ikaskidearekin Aragoe ibaia ondoko makaldi artean.



Irudia 22: Euskaldun unibertsitariak Ávilan (1968 ing.).
Ezkerretik eskuinera: Leonardo Jaka zumarragarra, Mikel Peciña gasteiztarra, eta Jesus Mari Mendizabal tolosarrarekin.

III

IKASLE DONOSTIA, MADRID ETA SALAMANCAN

1962-1970

HAMAIKA aldiz gogoan eduki izan dut zergatik bota ote ninduten kolegiotik, eta duela gutxi adiskide karmeldar bati galdetu ondoren ere, ez nuen gauza argirik atera. Ez nintzen ez bihurriena, ez gaiztoena ez eta tontoena ere. Hala ere nire merituak banituen eginak, antza. Bat: *Física cuántica* eta Einsteinen erlatibitateari buruzko liburu bat eraman izana, eta modu sokratikoan *Ensayo sobre el universo* delako bat idazten hasia saio-lagun *Enciclopedia Herder* nuela. Bi: nire adiskide Txoperena abenturetako nobelatxo bat Brasilen kokatua idazten ari zen bezala, nik beste bati heldu niola eta *Un vecino comunista* izendatu. Hala bada, oroitzen naiz Aragoi ibairako ibilaldi batean, Erriberako ur arrez erdi betetako kanaltxoen ondotik doazen lur hautsez bete eta lohitsuetan, inguratu zitzaidala Begoñan Teologia ikasten ari zen gazte argal eta garai bat, eta hitz egiten hasi ginela. Ikasle ona izanez gero, burutsuenak Erromara joateko aukera izaten zutela eta beste. Nik, ordea, garai hartan misioetan besterik ez nuen pentsatzen. Kolonbian karmeldarrek zituzten misioei buruzko liburuak irakurtzen baikenituen errefektorioko pulpitura igota maiz samar.

Dena den, 1962ko udan etxean nintzen berriro. Anaia Joxeba Alicanteko itsaso mailatik 34,5 metro gora den Lezo-Errenteria geltokira bila joan zitzaidan, eta berehala uxatu zituen nire beldur eta kezka guztiak. Ez zituen, antza, batere gogoko fraideak, komentuak eta horrelakoak, eta ni etxean esku-zabalik errezibitu ninduten familiako denek, seme hondatzailearen antzera, amets gaizto guztiak desagerraraziz.

Aldaketa garaia zen eta aitak eskaturik, 1962ko abuztuaren 17an makinaz jotako gutuna zuzendu nion Udaletxeari herriko arrantzaleen izenean, eskatuz bidera zezan zegokion erreklamazioa Portuko Aginteari, *Junta de Obras del Puerto de Pasajes* delakoari, moilak egin zirenean

betiko arranpa edo behar bezalako eskailera batzuk egin zitzaten, zeren eta aipatu industriak egindakoan desagertzen ari baitziren beren antzinako moilak.

Nola esku erdi hutsik bidali ninduten Alesbesetik, batxiler elementala ateratzeko errebalida azterketa egitea izan nuen lehen betebeharra. Bakar-bakarrik Donostiara joan, han Bilborako trena hartu eta hantxe joan nintzen karmeldarren Begoñako komentura agiri bila. Berehala ohartu ziren nire kasuaz, eta egin zidaten agiri bat, esanez nota on batekin burutuak nituela *Los cinco años de Estudios Latinos*. Haien konbalidazioa egin, klase batzuk prestatu Lezoko maisu zen Don Joaquínekin eta oroitzen naiz nola gainditu nuen etsamina notable batekin. *Bachiller elemental* zeritzan titulua bederen lortua nuen. Baneukan, beraz, estudiatzen aurrera jotzeko aukera. Egun batez, ama gelditua zen elkarrizketa bat egiteko Errenteriako banku bateko zuzendariarekin han *botones* lanean hasteko, baina bidean esan nion, *ama, nik estudiatzen segitu nahi dut*, eta hain zen erabaki sendoa nirea non ez baitzitzaion bueltatzea beste erremediorik gelditu.

Libro de Calificación Escolar delakoan ageri diren sinadurak gero urteetara lankide izango nituen Juan Amorós zuzendariaren eta Santiago García idazkariarenak dira. Hasi nintzen, bada, goiz eta arratsaldez Donostiako Urbieta kalean zegoen *Academia de Estudios Generales* delakoan Joxan, ez dut gogoan abizena, irakaslearekin prestatzen; hurrengo ikasketak-eta libre moduan gainditu nituen 5.a, 6.a eta errebalida, alegia, *Bachiller superior* deitzen zena 1962-63 ikasturtean.

Gogoan dut oraindik fraidetegitik salbatu ahal izan nituen idatzi eta liburu bakanetarikoak izan zirela koaderno bat *Composición Castellana* deitua, eta Tuteran erositako Pedro Salinasen *La voz a ti debida.* Hurrengo urtean saiatu nintzen makinaz jotzen konposizio labur haiek, geroago Akademiara joaten zen J. M. López adiskideari utzi nizkiolarik irakurtzeko. Hark ohar batean honela definitzen zituen: *Patricio, es para mí la cámara fotográfica capaz de darnos todo el contenido poético de un estado de espíritu.* Testuak laburrak dira eta tituluak hauexek: *Pesca al amanecer, El Aseo, Tarde de otoño, La Nube, Día de Difuntos, La Plaza, La Lagartija, El campanario, La Hoguera, El Pupitre de mi clase, El Buey, El Pozo*… Adibidez, hona pupitreaz idatzita utzi nuena:

> *Calla, compañero inseparable. Tu silencio me saluda en mi imaginación errante por el infinito. Fibras de ondas caprichosas reflejadas en*

un mar de cera, tatuado de tinta, salpicado de poros crueles incrustados de polvo. Piel de ligero amarillo, rasgada, en lecho de lápices, confundida en aire gris ANDRÉS. Hincados en tí los codos, abatido, te confío mis penas y tú… sonríes. Siempre compartes alegrías y dolores resignado. Me contemplas y el silencio reina a gritos. Y el tintero sumergido en Watermans hablándome en la soledad.

Bai, gure irakurgai nagusietakoa, klaseetan erabiltzen genuen *Preceptiva Literariaz* aparte, Juan Ramón Jiménez izan zen, eta haren *Pastorales, Piedra y cielo, Platero y yo, Diario de un poeta recién casado…* oso emozio handiz irakurri nituen. Noski, ohiko eta nahitaezko Nacar y Colungaren Bibliaz at.

Garai hartako egun arrunt baten gorabeherak hauexek ziren: goizean goiz jaiki; seiak inguruan, anaiari lagundu gauez aitak eta beste anaiek egindako arrantza saltzen Pasai San Pedroko arrain-merkatuan; gero etxera itzuli autobusean erdi lotan portuko argi distizarien liluрapean; gosaldu eta liburuak hartuta korrika tren geltokira. Oroitzen naiz nola korrika egiten genuen zubian Irun aldetik trena bazetorkigula ikusitakoan. Bederatzietatik ordu batera klaseak Akademian. Ordu bat eta erdian berriz trena hartu eta etxera. Geltokian, sosen bat gelditzen bazitzaidan, liburu merkeren bat erosten nuen. Bazkalondoan arratsaldeko ariketak; batik bat matematikakoak prestatzen nituen, eta haiek bukatutakoan beste gaiei heltzen. Trenaren ordez seietan Errenterian Topoa hartzen nuen eta han Akademiara zihoazen Bravo izeneko bat eta beste batzuekin elkartzen nintzen. Goizeko klaseak bosgarren kurtsokoak ziren, arratsaldekoak seigarrenekoak eta bederatzietan bukatzen zen. Topoa berriro hartu, gaur egun Ertzaintzaren egoitza dagoen lekua baino pixka bat lehentxeago eta han joaten ginen berriro etxe aldera. Amarako paraje guztia, baserri bat kenduta, ia ihitza eta lintzura besterik ez zen. Ez dut gogoratzen inolako neke-sentsaziorik.

Banuen astia eta afizioa idazteko ere. Beraz, *Un Iluso* tituluko ipuina idatzi nuen, eta Errenteriako Santa Maria Magdalena sarira aurkeztu. Epaimahaiak lehen eta hirugarren sariak Santiago Aizarnari eman zizkion eta niri bigarrena suertatu zitzaidan. Gogoan dut sari gisa tomo lodi bat eman zidatela. Vicente Blasco Ibañezen nobelak. Dena den, kalean topatu nuenean Jose Manuel Toledo lezoarrak, ordurako ZERU-

KO ARGIAn idazten zuenak, esan zidan ea zergatik ez nintzen hasten euskaraz idazten, banekienez gero, eta hura ziri baten modukoa izan zen berariazko jaidurari heltzeko. Aholku eskergarria.

Joxeba anaia ikastaroren bat egiten ari zen sortu berria zen eta Nafarroako ibilbidean zegoen EUTGn, eta lortu zuen aita Elespe jesuitaren bitartez beka bat eman ziezadaten. Hau, geroago hemerotekan irakurri izan dudanez, *Acción Social* zeritzan mugimenduan sarturik zebilen. Urtea amaitutakoan Valladolidera joan ginen *Preuniversitario* zeritzanaren heldutasun-probak egitera, proba arruntaren kalifikazioa irailaren 26an, eta espezifikoarena urriaren 2an. Gainditu nuen bada aro hura, eta Unibertsitatean sartzeko prest eta gertu nintzen. Baina mintza nadin zertxobait ikasturte hartaz, alegia, 1964ko promozioaz.

Berrogeita hamar urte pasatu direlarik, aurten bildu gara mende erdia igaro ondoren, bizirik gaudela ospatzeko eta garaiko kontakizunak elkarri oroitarazteko. Han bildu ginen *El Príncipe del Colegio* izana zen Juan José Solozabal, gaur egun *Cuadernos de Alzate, Revista vasca de la cultura y las ideas* deritzan errebistako zuzendaria dena, eta garai hartan *El Diario Vasco* egunkarian errege berriaren apologia idatzi zuena; Andrés de Blas, Ramon Urkizu kirurgialariak behin esan arren, *es de la bodeguilla del Felipe,* UNEDen urte batzuk geroago lankide eta Londresen azterketetan elkarrekin egonen ginelarik, aski gizon jakintsu, interesgarri eta errespetagarria iruditu zitzaidan, *El País*eko bere artikuluekin ados ez egon arren; Andoni Sagarna, Klaudio Harluxet Fundazioak 1995ean argitaratu zuen *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa* liburu mardularen arduradun nagusia, eta egun Euskaltzaindiaren Hiztegiaren zuzendaria. Oroitzen naiz nola Andonik aipatu zidan eta nik lehen aldiz entzun, bazela jesuita bat Antonio Zavala izenekoa herriz herri eta baserriz baserri zebilena bertsoak biltzen eta *Auspoa* bilduma sortu zuena. Lehen liburutxoak Ramon Artolaren *Sagardoaren graziya eta beste bertso asko* titulua zuela eta Zarauzko *Itxaropena* argitaletxean plazaratu zela 1961ean. Sansinenea, beti apal eta lagun on; Otegi, Lezon osabak zituena, gazte argi eta bikaina. Oñatibia errenteriarra, mediku eginen zena, eta beste. A, bai, eta nola ahaztu kurtso bat beherago zegoena, eskubaloiz eta gero futbolean lehen mailan jokatuko zuen Boronat, burdinazko gizona. Beste anitz ere banituzke aipatzeko baina barka nazate ez badut hemen lekurik hartzen…

Kolegioak eskolaz kanpo antolatzen zuen ekitaldirik niretzat garrantzitsuena eta gustukoena Zinekluba izaten zen. *San José de la Montaña* kalera ematen zuen egoitzaren zinema-aretoan ikusi ahal izan genituen Alfred Hitchcocken *Pero quién mató a Harry* (1955), Shirley MacLaine aurpegia orinez bete anddere xarmangarria protagonistetarik bat zuena, Erdi Aroan eta izurrite beltzaren garaian kokatu Ingmar Bergmanen *El Séptimo sello*, edota Kafkaren eleberrian oinarritu eta Orson Wellsek filmatu *El proceso* (1962), Anthony Perkins eta Jeanne Moreau zituelarik, bere buruaz aparte, antzezle nagusi. Eta ondorengo elkarrizketa, komentario eta eztabaida interesgarriak. *Film Ideal* errebista irakurtzen genuen garaiak ziren.

Jesuiten Kolegioko ikaskideekin bizitako beste esperientzia *Viaje Fin de Estudios* deitzen zena izan zen. Ni saiatu nintzen nire fotografia-makina berriaz zenbait irudi jasotzen, baina antza denez ez nintzen horretan oso iaioa. Joan ginen bada autobusez, kantu kantari, *El Valle de los Caídos* deitu lekua bisitatzera, Francok gorrien odol eta izerdiarekin eraiki zuen munstro arkitektonikoa ikustera. Eliza barrenean, itzalean zegoen nire aitak hainbeste estimatzen zuen Kristo gurutziltzatuaren taila, Julio Beobide zumaiarrak moldatua. Ondoren, *El Escorial* ere ikusi genuen eta Felipe II.aren tronua, zeinaren azpian ikus zitekeen erregearen pixa-kakak biltzeko ontzia. Madrid, Zaragozako *Pilarica*, Bartzelonako *Barrio Chino*a eta *El Pueblo Español*, eta azkenean Andorra, non gelditzen zitzaizkidan sosekin esku irratirik merkeena erosi bainuen. Etxetik urrun egin lehen bidaiaren esperientziari, mende erdiko distantziaren ikuspegiaz begiraturik, benetan eskas, triste eta ezdeusa deritzot. Jesuitekin hitz egitean nire iritzia eskatu zidaten, zeren eta beste luma batzuek, gaztelaniazkoak, noski, bidaiaren egunerokoa idatzi zuten, nire oso gogoko izan ez ziren arinkeriak, hain zuzen.

Ikasturte horretan hasi nintzen nazionalismoaz ere lehen gauzak irakurtzen. Bazen dotrina antzeko liburuxka bat, eskuz esku zebilena, Martin Zubeldia Inda "Gumersindo de Estella" kaputxinoak idatzitakoa, *Historia del País Vasco,* ez banaiz oker ari, eta Euskal Herriaren Historia galdera-erantzun gisa kontatzen zuena. Aski elementala iruditu zitzaidan, edo susmo horrekin geratu nintzen bederen. Hala bada, ausarta bainintzen, egun batean aita Arinen klasean inguruko ikaskideek zirikaturik galdetu nion, *¿Y usted, señor profesor, cómo definiría el concep-*

to de Nación? Aldameneko begietan halako kidetasun bihurria nabaritu nuen, baina ez dakit oso ongi konprenitu ote genizkion eman zizkigun adierazpenak.

Garai hartarako hasia nintzen klase batzuk ematen, batik bat matematika eta euskara *Colegio de Padres de Familia*, Lezoko Guraso Elkarteen eskolan, zeinetan nire arrebaren etxean bizi zen Doroteo Esnaola apaiza baitzen zuzendaria eta *alma mater.* Doroteo, Lazkaon jaioa zen eta Cuban egondakoa Batista diktadorearen garaian. Gero, Fidelekin, uhartetik alde egin zuen eta Lezon hasi zen bizitzen. Predikari ona zen, liburutegi ederra zuen, batik bat, zegokion bezala, erlijio kontuez. Bazituen tartean Charles Möeller apaiz belgikarrak idatzitako *Literatura del siglo XX y cristianismo* obraren lehenengo lau tomoak. Lehenean, Albert Camus, André Gide, Aldous Huxley, Simone Weil, Graham Greene, Julien Green eta Georges Bernanos aurkezten eta ikertzen zituen.

Möellerren arabera, hala Camusek nola Gidek Jainkoaren isiltasunaren aurrean aro klasikoan gizon jatorrak hartzen zuen jokabidea hartzen dute. Gizonaren aurrerabidea, oztopo guztien gainetik diren bitartekoekin sostengatzea dela Gideren azken mezua; eta izurritearen aurka duintasunez borrokatzea, inolako esperantzarik ez eduki arren, Camusena. Graham Greene, Maurice Bernanos eta Julien Green idazleen mezuak hauexek dira. Lehenarena, itxaropena edukitzea, edozer gertatzen delarik ere. Bigarrenarena, alaitasunez eta askatasunez maitatzea, amodioaz besteak jabe daitezen. Eta hirugarrenarena, ezin ikus daitekeen horretan fidatzea. Makinaz jo nituen laburpen batzuk gaztelaniaz. Hala nola *Julien Green, testigo de lo invisible*, eta ondoren modu berean itzultzen dudan beste honako hau: Julien Green-ek fedearen bertute teologalaren lekukotasuna ematen du. Baina fede hori Jainkoaren karitatean amaitzen da, Jainkoaren gureganako maitasunean, karitate horrek sortu eta salbatu baikaitu. Hona kapitulu hau bukatzeko bi testu eder. Orain arte gorde ditut idatzi dituen ederrenak direlako. 1950eko apirila aldean ageri dira bere Egunkarian:

> *Gaur gauean alde egin beharko banu eta galdetuko balidate zer den mundu honetan gehien hunkitzen nauena, erantzungo nuke, Jainkoak gizonen bihotzetan egiten duen bisita dela. Dena galtzen da maitasunean, baina egia da eman dugun amodioaren neurriaren arabera epaituak izanen garela ere, zeina Jainkoa besterik ez den.*

Karitaterik ezari Gaizkia deituko bagenio, giza-soina madarikazio honekin zigortu ordez, kristautasun faltsua hondoratuko genuke, eta arima gehienei zeruko ateak irekiko litzaizkieke…

Bazuten irakurketa haiek akats nagusi bat, hau da, irakurri gabeko obren gainekoak zirela komentarioak, beraz, hutsune baten gainean zegoela eraikia okerra. Eta Antoñito Amiano, amianotarren arteko anaiarik zaharrenak irkaitzez esan zidanean, ezer konprenitzeko gauza al nintzen, nire urguilua zertxobait zauritua sentitu banuen ere, ez zitzaion arrazoirik falta.

Baditut bi fotografia, Lezoko kuadrilla bat, luistarrak taldeko neskak eta mutilak, Lourdesera joan ginenekoak. Lehenean, goian ezkerretik eskuinera: Martin Goia, Rikardo Salaberria, Kepa Pikabea, Patxi Larrea eta X. Fraile. Behean. Joxe Migel Amiano, ni eta Justino Sarasola. Bigarren fotografian: Zutik, ezkerretik eskuinera: Manoli Goia, Belen Bidegain, Rikardo Salaberriaren andregaia, Patxi Larrearen andregaia, X. Fraileren andregaia, Justino Sarasola eta ni. Behean: Martin Goia, Patxi Larrea, Kepa Pikabea eta Xabier Pikabea. 1964koak behar dute izan, seguruena.

Kontua da, esan bezala, 1964ko urrian Madrila joan nintzela, Pio XII.a Ikastetxe Nagusira, eta *Escuela de Ingenieros Industriales* deritzanean matrikulatu. Berriro etxetik kanpo nintzen, baina oraingoan jesuiten babes arinagoaren pean. Internetera joz gero, bada Pedro Barahonak egin akuarela eder bat non ikus dezakegun *Colegio Mayor Pío XII*, deitua. Hementxe bizi izan nuen 1964-65 ikasturtea jesuiten seigarren solairuan. Seguran jaioa zen Dionisio Aranzadi, geroago Deustuko Unibertsitateko errektore izango zenaren eta *Lo social y yo* obraren egilearen begirada zorrotzaren pean… Han ere parte hartu nuen teatro-irakurketan Jean Cocteau (1889-1963) letra-gizonaren itzulpen batean, berriro lejiteatro modalitatean, *L'aigle à deux têtes, El águila de dos cabezas,* hau da, *Bi buruko arranoa* zeritzanean.

Gide, Proust, Rilke, Stravinsky, Picasso eta beste hainbat artistaren adiskidea izan zen Cocteauk obra handia eta gorabeheratsua du. Ugaria bai pinturan, poesian, zineman eta teatroan. Bere antzerkiek mito klasikoak berritu zituzten *(Orphée, Oedipe Roi, Antigone…)* eta drama erromantikoak idatzi zituen zenbaitetan antzokietako izarren luzimendurako. Tartean, *La Belle et la Bête* (1945) eta *L'Aigle*… (1948). Guk,

beraz, Javier Olavidek 1950ean gaztelaniara itzuli eta Bartzelonako José Janés editorialeko testua irakurri genuen. Hona bukaera aldeko Stanislasen eta Erreginaren arteko elkarrizketa:

> STANISLAS. – Arren, eten ezazue tortura!
>
> ERREGINA. – Jainkoak ez ditu maite koldarrak. Zure eginbeharra zen kamaradak ez salatzea. Zugan fidaturik ziren. Zu zinen euren arma. Eta zuk ez diezu bakarrik traizioa egin, baizik eta areago, gartzelarazi egin dituzu. Zeren Foëhn mintzatu zait taldeaz. Ezagutzen zuen. Bibliotekan gorde zintudanean beldur nintzen seinaleez ez ote zinen ohartuko. Lelotzat hartu gaituzu. Nola eduki nezakeen konfiantzarik bereak salatzen zituen batengan. Zertan oinarritzen zinen pentsatzeko ni egiatia izan nintekeela, zeuk nire begien aurrean faltsu baten gisa jokatzen zenuelarik?
>
> *(Stanislas bizkarra emanez zegoen butakatik altxatzen da. Aurrez aurre ezezagun ageri da, bista galdua bezala, ilajea orraztu gabe…)*

Egoitzaren beheko solairuan zinema-forumak. Federico Fellinik zuzendutako *Le Notti di Cabiria* (1957), Giulietta Masina aktore miresgarriarekin, ere ikusi genuen bertan. Hemen Arana iruindarra, Caballero gasteiztarra, San Sebastián bilbotarra, Xabier Galdos oñatiarra, eta beste zenbait ere ezagutu nituen. Andaluziarrak, katalanak, galegoak, orotarikoak… Bazen mendizale taldea ere, tartean bilbotar gazte bat, eskalatzaile amorratua eta burdina bezain gogorra. Esaten zidan nik adina euskara jakingo balu, berak ez baitzekien deus, itzulpenetara dedikatuko zela. Biologia ikasten zuen eta oso nota onak ateratzen zituen. Erakutsi zigun *La Pedriza*n sokaz eskalatzen, iltze salomonikak mailuz nola sartu harkaitz zirrikituetan. Nahiko igoera zail eta arriskutsuak egin genituela uste dut, baina leher eginda bukatzen genuen, *agujetak* aste osorako gelditzen zitzaizkigularik.

Aipatu *Escuela Técnica de Ingenierios Industriales* delakoan –hala zioen harriz zizelkaturiko domina klasiko baten gaineko iragarkiak–, igaro nuen unibertsitateko lehen ikasturtea. 1964-1965. *Matemáticas, Física, Química, Dibujo…* Bertako koruan parte hartu nuen eta Madrilen zehar abestu ondoren, ostatuetan barrena ibili. Eskolako kantaren estrofa nagusia oraindik ez dut ahantzirik. Hona hemen: *Escuela, pa-*

lenque honroso de ingenio e investigación, fragua, crisol, yunque, forja de armas contra el error. Eta beste. Benetakoa izan balitz errealitatea, hots, hitzek ziotena, ez zegokeen gaizki. Dena den ekainean bostehun ikasletik asignatura guztiak aprobatutakoak sei bakarrik zirenez, eta ni ez bainintzen tartean, etxera itzuli behar izan nuen, beka galdu ondoren.

Baina ikasturte lezioz betea izan zen hura. Euskal mezetara joaten hasi nintzen eta hantxe ezagutu nuen Madrilen desterratuta zegoen Manolo Odriozola, apaiz abertzale seinalatua. Hark animatu eta ez zekitenentzat euskara klase batzuk antolatzen nituen aldamenean zegoen Juan XXIII izeneko egoitzan. Oroitzen naiz, ongi gainera, nola 1965eko otsailaren 24an Pio XIIko ikaskide batzuekin lehenik *Universidad Complutense*ko *Filosofía y Letras*etako anfiteatrora joan eta han mitinlarien solasak entzun ondoren, eta oihu zenbait botatakoan, manifestazio isil batean parte hartu genuen. Korrika dexente egitea ere suertatu zitzaigun grisengandik ihesi, eta haien kamioiek jaurtikitzen zuten tinta likidoz ez bustitzearren. Protesta haien ondorioz, espedientatuak gertatu ziren, besteen artean, honako irakasleok: Jose Luis Aranguren, Alfredo Bayónen tesi-defentsan ezagutuko nuena, Agustín García Calvo adiskide bilakatu zitzaidana UNEDen lan egiten zuen bere musa Isabel Escudero bitarteko, eta Enrique Tierno Galván, Madrileko alkate izatera iritsi zena.

El juicio titulua daraman paper puska zahar bat aurkitu dut, non kontatzen dudan nola joan ginen Manolo Odriozolarekin hego-haize egun batez taxian Justizia Jauregira. Eta zuzenbidea eman genionean erantzun zigula, taxista lodi eta umoretsuak, *Da lo mismo ir al Mercado de la Cebada,* eta guk barrezka erantzun ondoren, *Si todos los curas llevaran los treinta años que llevo yo pasados con la que es mi mujer, hasta el Papa se divorciaba.* Legea itsu dela eta *Dura Lex Sed Lex* idatzita zeukan egoitzak aurreko aldean. Sartu ginen Audientzian, alegia, Auzitegi Nazionalean burdinazko ate batetik pasatu ondoren. Paco Iturrioz gero Patxi izango zenaren epaiketa zen. EGItik ETAra iragana zen 1959an eta 1963an atxilotua. Ohartu nintzen edo nire susmoa izan zen bederen, fiskala eta abokatuak –Mujika Herzog anaiak, Enrike eta Fernando ziren–, eztabaidan hasten zirenean, hauek presoaz ahanzten zirela eta legearen artikuluak goiti eta beheiti, ea nor gehiago luzitu zebiltzala, norgehiagoka dialektikoan. Politika bidean Enrike Justizia Ministro izatera iritsi zen eta Herriaren Defendatzailea 2000tik 2010 arte. Fernando,

aldiz, zoritxarrekoa izan zen, ETAk akabatu baitzuen 1996an. Fatuen irkaitza. Defentsari izatetik defendituen sailekoek eraila izatera gertatzea. Beste batean ere errepikatu genuen auzitegiaren bisita, oraingoan apaiz bizkaitarrak zirelarik presoak.

Urte hartan Madrileko parte zaharrean, Puerta del Soletik Plaza Santa Anara doazen kaleetako tabernetan, *Gernika* izenekoan adibidez, makina bat aldiz ibili izan ginen euskaldunak eta makina bat bider kantatu izan genituen gaztelaniaz *En el monte Gorbea…*, *Por el río Nervión pasaba un cerdo blanco…, Desde Santurce a Bilbao…,* baina baita euskaraz ere *Donostiako hiru damatxo…, Boga boga marinela…, Gu gera Euskadiko gaztedi berria…*, eta *Gernikako arbola…* bukatzeko. Hura zen bai hura, euskal giroko errepublika ederra, erbestean herriminak eta euskaltzaletasunak bildua.

Ongi oroitu ez arren, Aste Santuko oporrak zirela eta, argi dut nola 1965eko Aberri Egunean Bergarara iristen saiatu ginen. Lezo, Errenteria eta Trintxerpen gelditu ondoren, jende gazte sutsuz bete zen autobusa. Abisua pasatua zen kontrolak zeudela karreteretan eta gure kontsigna zela Arantzazura gindoazela Ama Birjina bisitatzera. Halako bazter batean igo ziren *txapelokerrak*, beti bina, noski. Alegia, kasko hiruadarduna zeramatenak hura ez zela Arantzazura joateko bidea, eta desbideratu egin gintuzten. Bergaran, bide nagusitik sartzen uzten ez zutenez, mendiz abiatu ginen. Eguraldia nahiko euritsua zen. Parajeak zatarrak, pinuz beteak, baina bihotza bero eta kantak ahoan genituen. Bergarara jaisterik ez eta azkenean manifestazioa Eibarren egin genuen. Zerbait edan genuen taberna zuloren batean eta etxera misioa bete izanaren kontzientzia onarekin. Etxera, noski, anaia Joxebarekin batera iritsi nintzen, bera baitzen bide erakusle.

Itzuli nintzelarik Madriletik Donostiara, pentsatu nuen beste ahalegin bat egin behar nuela ingeniaritzan, eta Artzain Onaren ondoan zegoen OPUSeko egoitzan hasi nuen errepikapena. Goizero egun KM kulturunea dagoen lekura joaten nintzen matematika, fisika, kimika eta marrazkigintza ikastera. Baina letretan ere EUTGn matrikulatu nintzenez, arratsaldero beste mota bateko klaseetara joaten nintzen, neska multzo eder baten artera. Mutilak gutxi ginen: Henrike Knörr, Alvaro Moreno, Juan Carlos Jimenez de Aberasturi, Anton Mendizabal, Ramon Garmendia… Patxi Altunak latina, Manuel Agudek greziera, Jose

Goenagak Filosofia, Milagros Bidegainek Europako Historia, Jose Solak *Lengua y Literatura española*… Nola *Filosofía y Letras* zeritzan karrerako lehen asignaturetara Zaragozako Unibertsitatean aurkeztu nintzen, eta aprobatu egin nituen –garai hartan EUTGk akademia partikular baten antzera funtzionatzen zuen–, ikusi nuen ingeniaritza ez zela nire bidea eta alde batera utzi nituen ia betiko loa galarazten eta amets gaiztoetan murgilarazten ninduten gai haiek. Bigarren urtean, Espainiako Historia Luis Murugarren "Kokotx"ek eman zigun modu aski entretenituan, eta Filosofia, garai hartan *El Diario Vasco* egunkariko orrialdeetan idazten zuen Alfredo Tamayok, hiru hilabete pasatu zituelarik gutxienez bere letra handi harekin arbelean Marxen obrari buruzko oharrak idazten, azkenean marxismoaz askorik jabetu ez ginen arren.

Idazteko afizioa, pozoia, sartua nuenez, oroitzen naiz orduan hasi nintzela nire lehen poemak taxutzen, euskaraz idazten. Egun batez Patxi Altunak bere bulegora deitu eta hantxe leitu zizkidan berak ere ia ezkutuan idazten zituenak. Bartzelonako estudianteak aipatzen zituen poema bat zen. Txukun idatzia zegoela ez dut inolako dudarik. EUTGko liburutegian ordu mordoxka pasatzen nituen klase ordua iristen zen arte. Han irakurri nituen batez ere teatrogile moderno zenbait: Ionesco, Camus, Sartre, Büchner… Buenos Aireseko Losada argitaletxeko bilduman.



Irudia 23: Hiru Erregeen mahaian (2428 metro). Urdaburu eta Irungo mendigoizale batzuekin: Imanol Mitxelena, Zendoia, Joxe Iriarte "Bikila", Itziar Idiazabal… ni txapela buruan eskuinaldean.

Lezoko kuadrillako lagunekiko harremanak (amianotarrak, gurrutxagatarrak, zapiraindarrak…) gutxiagotzen joan ziren eta Errenteriako Urdaburu mendi taldekoekin maizagotzen. Hala, ikusten dut baditudala bi fotografia zahar, non batean Errenteriako elizaren atarian Gabon Kanta txapelketa batean gauden eta bestean *Hiru Erregeen Mahaia*n. Lehenean ageri gara Pitti Pikabea, Mikel Idiazabal, Jesus Mari Gurrutxaga, ni… Eta bigarrenean, besteak beste, Imanol Mitxelena, Zendoia, Joxe Iriarte "Bikila", Itziar Idiazabal eta neroni, txapela buruan eta zahatoa eskuan.

Garai hartan *Allerru* eskubaloi taldean ere jokatzen nuen. Fotografia batean ageri gara beste zenbaiten artean: Jesusin Narbarte delegatua (garai batean herriko danborraria), Izulain, Julito atezaina, Etxaide tolosarra, Larrea errenteriarra, eta ni. Eta beste batean, zutik, ezkerretik hasita: Aitor Osa, Julito, Jenaro Kortajarena, … eta azkena Juantxo Villarreal, Bidasoa taldearekin Europako txapeldun izatera iritsi zena. Behean, ezkerretik hasita: Etxaide bigarrena, ni, Larrea, Garro eta Berasarte. 1965-66ko denboraldia izango zen, gutxi gorabehera.



Irudia 24: Allerru eskubaloi taldearekin (11).

Mila bederatziehun eta hirurogeita seiko urtarrilaren hogeita hiruan (1966-I-23), nire oroitzapenak ondo baldin badaude, Victoria Eugeniako aretoan jaialdi bat ematen zuten, eta hantxe Lourdes Iriondok Martxa Luzeari buruzko *Lin-Pan* mendiko kontua (kantua ere badena), besteak beste, kantatu ondoren, On Nemesio agertu zitzaigun, sotana luze harekin, *Baratzeko pikuak hiru txorten ditu, Kwai ibai gaineko*

zubia… kantari. Dudarik gabe, ahots izugarririk ez izan arren, grazia aparta zeukan apaiz moderno hark. Eta gertakizun horrek beretzat ere nahiko interesa izango zuen nonbait, honelaxe aipatzen baitio Andima Ibiñagabeitiari idatzitako gutun batean:

> *Ilbeltzaren 23an, Donostiako VICTORIA EUGENIA Antzokian, zoragarrizko jaialdia izan genduan. Gure gazteak esnatu dira, gu ez aiña, ta or atera zaizkigu, teatro betearen aurrean gaurko kanta berri ta ye-ye aldeak euskeraz jantzita ematen. Ba-zan antxe jendea ta txaloka beroa.*
>
> *Beti bezela, izan da norbait orrelakorik euskeraz ez degula bear esan duana; baiña iñosokeri oietan astia alperrik galtzeko biderik ez degu. Aurrera joan beharko degu, gure izkuntza gaurko jolasetan sartzen. Gaztediaren sailetan, euskera entzun dedila, ta joan ditezela zakurraren zerera, euskeraz sermoiak bakarrik entzun nai dituztenak (1966-II-6).*

Gutun horretan bertan beste komentarioen artean Txillardegiren liburu argitaratu berriari buruz iruzkin aski mingotsak zituen, bizitzaren laburra aipatzen, eta nola ez, fede kontuan sentitzen zituen krisiak. Gu garai hartako gazteok –hemeretzi urte nituen nik orduan–, esna geundela uste genuen, baita ere, eta gure argien eskasiak erakusten zigunaren arabera egin genuen gure bidea. Kanta izan zen, dudarik gabe, garai hartako kontzientzia suspertzaile, eragile eta biziarazlerik garrantzitsuenetakoa. Baziren urte batzuk Etxanizek berak *Kanta-kantari (Aur-jolasak; Maite-kantak; Izadi-abestiak)* liburua plazaratu zuenetik (1952). Urte horretan bertan moldiztegira emanak zituen bere bi antzerki, *Izeko Aberatsa* eta *Irulearen negarra*. Kontrazalean Manuel Lekuonaren gaztelaniazko hitz batzuk zekartzan, tartean honako hauek:

> *Un propósito de apostolado, es el que estos últimos años le decidió a lanzarse a la publicidad. Un propósito de moralización de la canción callejera. Tal es el propósito que anima su precioso tomito de poesía vasca que ha hecho popular el expresivo título de KANTA KANTARI. Canta cantando bella y graciosamente, desterrar la canción procaz que está a punto de desoxigenar el ambiente moral de nuestras poblaciones y aldeas.*

Beraz, garbi dago apaiz haren helburua zein zen.

Lur berri bila argitaratu zuen 1966an. Titulu ederra, aski potoloa, non orotariko generoak aurki daitezkeen. Eleberri laburra, ipuinak, irratsaio-txangoak, irratirako ipuin antolatuak, irrati-antzerkiak, olerkiak eta kantak. Gazte abestien artean aurkitzen ziren jaialdi hartako zenbait: *Kwai ibai gaineko zubia*, film ospetsuaren moldaketa; *Txa, txa, txa, gure neskatxa motxa;* gaztelaniaz hainbestetan kantatua genuen eta euskaraz hobeto dagoen *Maite, Eguzki eder,* eta abar. Sarreran zioenez, *Euskaldunok olerkietan beste erritakoen mailla ondu al izan degu. Baiña euskal antzerki ta nobela, oraindik idazle yayo baten zai daude; ta beste sail batzuetan ere, atzeratxo gaude, noski.* Ez zitzaion batere arrazoirik falta.

Urte bat lehenago, 1965ean Santi Onaindiak antzeko bilduma argitaratua zuen Bilbon: *Jolasketak*. Genero eta idazle ezberdinak biltzen zituen, batik bat bizkaitarrak; bazen bestelakorik ere: Julene Azpeitia, Nemesio Etxaniz, Jon Oñatibia, Lezo´ko Joseba, Jon San Martin, Manuel Lekuona…

Errenteriako kuadrillarekin tabernaz taberna ibiltzen ginen. *Leku zarra, Juli, Maite, El Romeral, El Paraíso, El Sindicato* eta bestetan basoerdika, politikaz mintzo eta kantari. Gogoan dut taldeak doinu ederra sortzen zuela eta batzuetan Pittik bere baxu ahotsarekin, eta beste batzuetan neuk tenor ahotsez, abesti ezagun zenbait kantatzen genituela: *Agur, agur, agur, hilargira noa…, Gu gara Euskadiko gaztedi berria…, Goiko mendian elurra dago…, Zibilak esan naute…, Gazte gara gazte, eta ez gaude konforme…, Anttoni, Anttoni, zure atean nago ni…, Loriak udan intza bezela, … Aizak, hi, kalean beldurrez hoan hori…*

67ko maiatzaren 7a, garai hartako kazetak begiratzen ari nintzela topatu dut eta oroitu naiz nola Arabako Kantabriako Mendikatean *Federación Vasco-Navarra de Montaña* zenak, zeinaren burua Pedrotxo Otegi sabel-handi errenteriarra zen, baina Espainiako Federazioak, Andesetara joandako mendizale euskaldunek bandera espainolaren ordez ikurrina altxatu zutelako kargutik berriki kendua, antolatu zuen akanpadan, bada, *Canción Montañera* delako Bigarren Txapelketa. Goñi musikariak prestatu gintuen Urdaburuko egoitzan *Jaiki, jaiki*, eta *Binbilin-bonbolon*… kantatzen. Taldea osatzen genuen Gurrutxaga, Bengoetxea, Pikabea, Mujika, Mendizabal, Arozena eta beste batzuek. Igo ginen Toloño gailurrera eta handik bueltan Tolosako eta Lizarrako eta beste zenbait

abesbatzen artean garaile atera ginen, eta ni koru zuzendari. Ausarta nintzen, alajaina, nire ezjakintasunarekin zuzendari keinuak egiteko.

Bi egun geroago, Errenteriako *Alameda* zineman *Jarrai* teatro taldeak Albert Camusen *Gizon zuzenak*, [ikus testua EGAN 2017 aldizkarian] biolentzia erreboluzionarioaz edota etika eta politikaz moldatu antzerkia eman zuen. Uda hartan, Fede Mendibilek gonbidaturik, Makazaga andereñoa, Txato Agirre eta beste zenbaitekin Narbaizako kolonietan izan ginen haurrak zaintzen. Barrian zeuden beste kolonietako haurrei ere bisita egin genien. Eta Fedek kontatu zidan nola ohartu zen *Gizon Zuzenak* ikusten ari zen ETAkide batek negar malkoak isurtzen zituela.

Horrela, jende askorekin harremanak izaten genituen, eta 1967ko uda partean bururatu zitzaidan Parisera joan gabe ezin nintzela bizi, eta Txomin Izagirreri, apaizgai izandako eta Parisen ikasten ari zenari esker, lortu nuen Pariseraino doan joatea *San José* kamioietariko batean. Hendaian agertu eguerdiko ordu biak aldean haiek zeuden lekuan eta kamioilari ezezagun batekin arratsalde eta gau osoa bidean igaro ondoren goiz-alban, zazpiak inguru zirela, iritsi ginen Parisera. Ia inor ez zebilen karriketan, *c'est la grève,* zioskuten, eta nik pentsatu nuen gauza graberen bat gertatua zela. Txomin moja-komentu batean baratzezain lanak eginez bizi zen, eta *Eskual Etxea* egoitzara bideratu ninduen. Han apaiz arduradunarekin hitz egin, eta gela handi bateko koltxoneta eta bi maindire alokatu zizkidan bi libera eguneko ordainaren truke. Aski merke zen, dudarik gabe. Baina, nola hamabi ginen bertan, batzuen zurrungak ere galantak entzuten ziren gau osoan. Hemen ezagutu nuen Jesus Mari Mendizabal "Triki", Donostiako Seminarioan ere egona eta Salamancako Unibertsitatean hasia zena *Filologia Románica* ikasten.

Mendi izan zen nire Pariseko biderakusle, bidaide, gelakide eta *tortilla española* nola egin behar zen erakutsi zidana. Sorbonako hitzaldiak entzutera joaten ginen, nire frantses maila apala izan arren. Hantxe entzun genion Raymond Aron filosofo, soziologo eta komentariogile politikoari. Erabat modan zegoen Jean-Paul Sartreren obraren zenbait atal kritikatu zituen eta batik bat marxisten determinismoa. Ez zen Sartre bezain arrakastatsua, baina bere gogoetak aski libre eta sakonak izan zitezkeela iruditu zitzaidan.

Uztailaren 14aren bezperan, Parisen gauez ibili ginen, eta jai handiaren bezpera zenez, kioskoen inguruetan bazen musikarik eta dantzari-

rik. Mendi eta bioi, beste bi neskatxa –biarnesak zirela uste dut– lagun baikenituen, ez zitzaigun entretenimendurik falta izan gau hartan.

Igandeetan biltzen ginen eta hantxe kantu-kantari ibiltzen ginen Donato Unanue zuzendari genuela. Bazen gizon argal bat ere, tolosarra, garaia eta *Eskual Etxea*ko pianoan oso ongi jotzen zuena, eta nola lantegi on batean egiten zuen lan zenbait *demi, zurito* edatera gonbidatzen gintuen, gu oso pozik geundelarik, eta bera ere bai inguruan entzule eta kantari gazteak izanik. Ordurako hasiak ginen jadanik Errenterian Yerobi eta beste zenbait, Ansorena fraidearekin koru-saioak egiten eta ahotsa lantzen.

Hasi nintzen bulego batean lanean enkarguak egiten, baina oso denbora gutxi iraun zuen lan hark, Salamancara itzuli beharrean aurkitu bainintzen ikastera, eta joatea erabaki bainuen Jesus Mari Mendizabalekin. Han zegoen, gainera, irakasle txit famatua zen eta Patxi Altunak gomendatu zidan Koldo Mitxelena. Nire lantxoa, handik agertu zen Mikel Azurmendi ETAn izandakoari pasatu nion, zeinari buruz dioen Julen Madariagak bere memorietan (*Egiari zor,* Erein 2014, 142), *antropologoa, denboraz abertzaletasunetik espainolkeriara bidegaltze ikaragarriena ukan zuena, ETAren historia osoan.* Institutuan lankide izan nuen aita Urrutia, grezierako irakasleak zionez, mutil argia eta azkarra.

Oso zinemazalea nintzen, eta naiz oraindik ere; horrela bada, maiz joaten nintzen filmak ikustera, bat gelditu zitzaidalarik memorian bereziki txertatua. Eric Rohmer zuzendariak filmatutako *La Collectioneuse* (1967) pelikula, non Haydée Politoff gaztetxoak liluratu ninduen, inolako kezkarik ez arazorik gabe oheratzen baitzen*, à droite et à gauche* ohaideekin zituen solas filosofiko existentzialistekin.

SALAMANCA 1967-1970

MATRIKULATU nintzen, bada, *Filología Románica* delako espezialitatean, eta Koldo Mitxelenaren aurrean presentatu ginen Ramon Garmendia eta biok Jesus Mari lagun genuela, hark lehendik ezagutzen baitzuen. Ramonek eta biok hartua genuen gela bat *Libreros* kalean. Berrogeita zazpi urte geroago Salamanca zaharreko kale hura berriro bisita-

tu dudanean, interesgarrienetakoa iruditu zait; informatika akademia bat dago nire gela zenaren azpian, gaur egun. Hogeita hamar pezeta egunean ordaintzen genuen bakoitzak lo egin eta arropa garbiketaren truke. Mitxelenak galdetu zidan ea zein espezialitate hautatu nuen eta nik *Románicas* erantzun nion. Ez zitzaion gaizki iruditu, eta euskaraz idazten ongi ikasteko zer egin behar nuen galdetu nionean, erantzun zidan egunero ordu erdiz aritzeko, ahalegintzeko zerbait idazten edozertaz. Nire idazte-jardunak ez du egunerokotasunik, ordea, beti izan ditu jauziak.

Beste euskaldun multzo bat ere ezagutu nuen, gehienak Medikuntza ikasten ari zirenak: Jaka anaiak (Leonardo eta Iñigo), Fernando Kristobal, Jabier Ojenbarrena, Juan Aranzadi, Koldo Daniel Izpizua, Jesus Etxamendi, Mikel Peziña, Baleriano Yarza, Luis Manterola, Jose Anjel Tamayo,… Eta nesken artean: Itziar Ezkerra, Ixabel Mujika, Rosa Casares, Susi Urbieta,…

Irakasle izan nituen Fernando Lázaro Carreter, Luis Pensado, Luis Cortés, Paulette Gabaudan (Madame Cortés), César Real de la Riva, Eugenio Bustos, Rauta Printzea, José Antonio Pascual, Santiago de los Mozos, Ricardo Senabre, … Ospetsuak ziren hauek ere: Miguel Artola historialaria, jaiotzez donostiarra, Luis Michelena hizkuntzalaria, jaiotzez errenteriarra, Martín Sánchez Ruipérez klasizista salamancarra, José Luis Melena donostiar mizenaseran aditua, Federiko Krutwigen kritiko zorrotza…

Klaseak *Palacio de Anaya* deituan ematen genituen, bigarren solairuan. Neska-mutilen proportzioa, nesken alde hiru eta bi. Lehen klasean adierazi zigun azentu galegoa nabarmentzen zitzaion Pensado irakasleak ikusten zituela batzuk zutik, eta beraz, aski aspergarria egingo zuela, hurrengo egunean denak eserita egon gintezen –eta halaxe izan zen nonbait, bibliografia besterik ez baitzigun eman, alemanezko tituluak ere bai–. Hurrengo egunean denak geunden eserita.

Mitxelenak, hizkuntza erromanikoetan irakasle ez izan arren, *Lingüística Indoeuropea* katedra lortua baitzuen, bazeukan bere esku Antonio Tovarrek sortu Larramendi katedra deitua ere, eta oroit naiz nola euskal idazleen zati bereziak gaitzat hartuz, kurtso bat eman zigun. Oraindik gordetzen ditut eman zizkigun fotokopiak eta garaiko oharrak, non honako testuak ageri diren: Milia Lasturkoaren eresia, Bernat Etxeparek Bernard Leheteri egin eskaintza eta *Contrapas*a (1545), Joanes

Leizarragaren *Testamendu Berria*ko *Heuskalduney* (1571), Atsotitzak eta Errefrauak (1596), Juan Perez Betolazaren Dotrinaren zatiak (1596), Estebe Materreren aitzinsolasa eta zatitxoak (1617), Joanes Etxeberri Ziburukoaren *Balea zaleen othoitzak, Manual devotionezcoa*tik hartuak (1627), Joanes Haramburuen *Debocino escuarra, mirailla eta oracinoteguia* (1635) liburuko *Tormentan*, Pedro Agerre "Axular"en *Gero* (1643), Bernard Gasteluzarren *Egia catholicac* (1686), Voltoireren *Tresora Hirur Lenguayetakua* (1620), Piarres Etxeberriren *Ixasoco navigacionecoa* (1677), eta Mongongo Dassançaren *Laborarien abissua* (1692) obren zatitxoak. Beraz, eta ordena honetan emanak, XVIII. mende arteko euskal idazle nagusien zati interesgarrienetarikoak. Oroitzen naiz gure irakasle zen Jose Antonio Paskual jauna ere joaten zela klase haietara eta segitzen zituela esplikazio guztiak arreta handiz. Eta orobat Alfontso Irigoienek… Ohi bezala, beti zen originala planteamenduetan, topikoen kontrakoa, eta batzuetan, norbaitek idatzitakoarekin haserretzen zenean, jenio bizikoa.

Hizkuntzaren historia pixka bat, Arnaud Oihenarten *Notitia Utriusque Vasconiae* liburuaz, eta bertan ematen den euskal deklinabide mugatu eta mugagabeaz oharrak. Esteban Garibaiz, eta Etxabez Claveriak idatzi bertso antiapologista haiez, *Burlatzen naiz Garibaiez / bai halaber Etxabez / zeinak mintzatu baitire / erdaraz Eskaldunez. / Ezen zirenaz geroztik / euskaldunak hek biak / eskaraz behar zituzten / egin bere historiak.* Erantsiz Larramendiren gaztelaniazko testuek onura franko ekarri ziotela euskarari, behar bezala baliatzeko euskara eta beste jende batzuk idaztera animatzeko balio izan zutelako. Egun ere, nabarmen da euskara ez diren beste erdarek balio dezaketela euskal gauzen zabalkunderako eta munduan barrena ezagutarazteko euskaldunen fruituak.

Nire aldetik, eta nire gisara maisuaren irakaspenei jarraiki, itzultzen eta idazten hasi nintzen. Paper zaharren artean ageri zaizkit euskaraz burutu nituen itzulpen zenbait, hala nola: Martin Codaz, Jehuda Halevy, Gonzalo de Berceo, Alfonso Alvarez Villasandino, Carvajales, Lope de Sosa, Escrivá komendadorea, Zaragozako kantutegitik poemaren bat, Gil Vicente, Maria do Ceo, Manuel Machadoren *Ni, poeta eroria*, Antonio Machadoren *Duero gailurreko kantuak*, Miguel de Unamunoren *Gaztela,* Charles Baudelaireren *Pipa*, Rafael Albertiren *Sasi loratua*… Saio bat egin nuen Federico García Lorcaren *Yerma (Andere Igartua)*

itzultzen, Maria Dolores Agirrek *Iturri Agor* gisara itzuli eta 1968an aurkeztuko zuena ere.

Hala bada, Bilbon antolatzen zuten *Miguel de Unamuno* ipuin-lehiaketan saritu zidaten euskaraz idatzi nuen lehen ipuina "Zomorro ta Kazkazuri" *Euskal Elerti 69* bilduman plazaratuko zena, Ibon Sarasolak bere *Euskal Literaturaren Historia* (Lur, 1971) aski modu zakar eta etsigarrian kritikatuko zuena.

Unibertsitateko koruan hasi nintzen kantatzen, eta oroitzen naiz nola kantatu genuen behin Pablo Serranok zizelkatu Miguel de Unamunoren estatuaren inaugurazioan, 1968ko urtarrilaren 30ean. Beste batean, Udaberriaren ospatzea zela-eta, Portugaleko mugan zegoen herrixka batean, La Fregenedan, hain zuzen, *El día del almendro* deituan antzinako *Marzas* deituak ziren kanten oroigarri. Benetan udaberri lorez estalitako El Duero ibaiaren paraje hauek txundituta utzi ninduten beren edertasunaz. Kantatu genuen errepertorioa klasikoa zen: *Gaudeamus, igitur, juvenes dum sumus…* kantarekin hasi eta Ávilako Tomas Luis de Victoria, Errenazimentuko polifonistaren zenbait kanta ahots ezberdinez, Giovanni Battista Pergolesiren *Stabat Mater*, Erromantze Anonimoak, hala nola *Triste está la reina, triste, / triste está, que no reyendo,* eta beste.

Goizero jaiki, Mikel Peziñarekin hasieran korrika egitera joaten nintzen Tormesen beste aldean zegoen *Campo de Tiro* deitura, han frontoi bat ere bai baitzen. Geroago, *El Botánico* deitzen zen kiroldegira hasi ginen goizero joaten, gertuago baitzegoen. Eskuz eta palaz jolasten ginen, batzuetan *torerilloek*, Litriren jarraitzaileek, beren paseak hantxe bertan entseatzen zituzten bitartean. Dutxatu, liburuak jaso eta *Casa de las Conchas* egoitzan zegoen dendatxo xume batean piramide bat esne eta raketa bat gozoki, eta joaten ginen, bidean irentsiz, Anaya jauregira klasera, aurretik pasatzerakoan, Miguel de Cervantesek *El licenciado Vidrieran* utzitako hitz ospetsu haiek irakurtzen genituela: *Salamanca que enhechiza la voluntad de volver a ella a todos los que de la apacibilidad de su vivienda han gustado.*

Unamunoren oroitzapenak oraindik bizirik irauten zuen. Denek goraipatzen zuten haren erantzun ausarta Millán Astray militar frankista basatiak euskaldunen, katalanen, adimenaren eta biziaren kontra eginiko diskurtso hartan: … ¡Muera la inteligencia! ¡Viva la Muerte! burugabeko oihuari erantzuten jakin zuela maisuki, … *Venceréis, porque tenéis*

sobrada fuerza bruta, pero no convenceréis. Hots, *Biba Herio* esaldiaren aurka, *Irabaziko duzue, baina ez duzue konbentzituko,* ihardetsi ziola kuraiaz bilbotarrak.

Asteburuetan, Euskal Mezara joaten ez ginenean, txangoak ere antolatzen genituen. Fotografia batean, Béjar aldeko mendietan 1967ko udazkenean ageri gara. Ezkerretik eskuinera: behean, Leonardo Jaka eta Ramon Garmendia; goian: Jesus Etxamendi, ni eta Jesus Maria Mendizabal. Etxamendi Ipar Ameriketan artzain egona zen urte batzuetan, diru pixka bat egin arte, eta aurreztutakoarekin Salamancara joana zen Filosofia eta Letretako karrera bukatzera. Basoerdi batzuk edandakoan, oso gogoko zuen kantatzea, *Vasconavarro soy del valle roncalés*…, eta *Estrellita de lejano cielo*… Eta goialdeko notetan bere ahotsa probatzea. Leonardo oso gizon samurra eta bihozbera zen, beti irritsu. Bere aitak Zumarragatik bidaltzen zizkion gaztak dastatu izan ditugu neguko arratsalde luzeetan, munduan zehar gertatzen ziren iraultzez irakurri berria genuena komentatuz. Garmendia kurtso eta gelakidea zen, eta Jesus Mari Parisen ezagutua.

Larunbat batean bizikleta batzuk alokatu genituen *el puente romano* deitzen genuen inguruan, eta hantxe joan ginen Alba de Tormeseraino, nongo karmeldarren komentuan gordetzen zen Teresa de Cepeda y Ahumadaren, alegia Santa Teresaren gorpua eta beso usteldu gabe famatua.

Mila bederatziehun eta hirurogeita zazpiko Eguberrietan, Peziñak bere aitak Gorbeako magalean zeukan *Zaldibartxo* mendi-borda dotorera egun batzuk igarotzera gonbidatu gintuen. Hotz egiten zuen, baina Gorbeako puntaraino igo, eta bertan ikurrina geneukala fotografia bat atera ondoren, beheko suaren inguruan ekintza komentatuz goxo egoten zen. Jokatu ere egin genuen han inguruan zegoen putzuan bainatzeko nor zen gai, eta Mikel eta biok irabazi genuen dema. Prest geunden edozein eguraldiz, zitekeen kaxkarrena izanik ere, mendi gailurreraino igotzeko, putzurik hotzenean igeri egiteko eta horrelako balentrietarako.

Bainualdia ez zen oso luzea izan, halere, eta gero hantxe, bordako berotasunean, irakurri genituen ahots goran Gabriel Celayaren *Rapsodia euskara* eta Henrike Knörr adiskideak eramandako Gabriel Arestiren *Harri eta Herri*. Lehena, *Biblioteca Vascongada de los Amigos del País*ek 1961ean argitaratua zen –gaztelaniaz, hitzen bat edo beste euskaraz–, edota Juan Gorostiagak prestatu bilduma bereko *Antología de poesía po-*

pular vasca (1955) poemaren bat, hala nola: *Eierra zira, maitia! / erraiten dizut egia. / Nurk eraman ote dizu / zure lehen loria?* Celayaren poema bat *Sin Lengua* titulua daramanak honela du hasiera:

Mar de Euskaria, patria abierta,
Tú que no tienes frontera
Dí en las playas extranjeras,
Ola más ola, mi pena.

Euskaraz eta gaztelaniaz irakurri genuen *Harri eta Herri,* Zarauzko Itxaropena argitaldariak 1964an plazaraturiko *Zorrotzako Portuan Aldarrika*. Eta poemaren bukaera hark hunkitzen gintuen bere xumetasunean: *Beti paratuko naiz / gizonaren alde / Gilen. Anton*. Poesia sozialaren garaiak ziren. Eta Euskal Herriko mendietan ez ezik, Salamancan ere ohikoak ziren poesia-irakurketak eta kantaldiak, ez soilik Letretako fakultatean eta aretoetan, Medizinako Anfiteatro handian ere bai.

Udako oporretan, abuztuaren 20an, Nuria Espert eta Adolfo Marsillachek zuzentzen zuten konpainiak Printzipe Aretoan Jean Paul Sartreren *La P… respetuosa* eta *A puerta cerrada* obren antzezteak ikusten izan nintzela gogoratzen naiz. Alfonso Sastrek egindako bertsioa zen eta martxoan Victoria Eugenian antzeztua jadanik. Eta oraingoan ere arrakasta handia izan zuen, sesio doble honetan ez baitzitzaion seriotasun eta sakontasun filosofikoari umore finik falta. *La putain respectueuse,* estreinaldiz 1946an jokatua, arrazismoaren aurkako kritika bortitza da. Ongi eraikia, borroka-antzerkia eta, noski, ideia ezkertiarren propaganda, eta horrexek amorrarazten zituen ikusle kontserbadoreak. *Huis-clos*, bestalde, lehenxeago estrenatuak, 1944an hain zuzen, honako pertsonaiok ezartzen ditu agerlekuan, gela erabat itxi batean: Garzin desertorea, Ines lesbiana eta Estela bere haurra hil duena. Infernu horretan ez dago tortura-tresnarik, baina bakoitza bestearen torturatzaile bilakatzen bide da. Eta egoera hori aldatzeko beren ezintasuna adierazten dute, ezin dituzte beren biziak aldatu, eta horrexek frogatzen du jadanik hilak daudela, eta hilak bere sorkuntza ahalmena galdu du, eta gu geu hilak bezalaxe bizi gara, askatasunik gabe besteen menpe. Infernua besteak dira. *L'enfer, c'est les autres*… esaldia ospetsu egin zen. Marsillachek urte batzuk geroago kontatuko zuen bere biografian (*Tan lejos, tan cerca, mi vida*. Tusquets, 1998) zentsurarekin izan ohi zituen istiluak eta zein nolako konponbideetara iristen zen.

Nacional-catolicismo delakoaren zentsura indarrean zegoen oraindik, *puta respetuosa* idatzi ezin eta *p…* idatzi behar. Halaxe gertatu zen Manuel Lekuona apaizak 1954an Itxaropenak argitaraturiko Axularren edizioan ere, *putaner bat, gaixto da, p…ner bat, gaixto da* bilakatu baitzen. Gezurra dirudien arren, eta ikusten dugunez, hertsiago ziren kasu batzuetan XX. mendean XVII.ean baino.

Lehen ikasturtea ongixko gainditu ondoren, gogoratzen naiz nola irailean nire aitarekin, Iparraldeko gauzei oso atxikia baitzen, bertan erbesteratua izan zenez, ikusi ahal izan genuela Donostian, Trinitateko plazan antzeztua, benetan hunkitu ninduelarik, Pierre Bordazarre «Etxahun Iruri»koaren *Chiquito de Cambo*. Lehen aldia zen pastoral bat ikusten nuela, non Jesu Aphesteguy kanboar pilotari ospetsuaren bizitza-zertzeladak, besteren artean 1914ko gerrako gertaldiak kontatzen zitzaizkigun. Noski, giriztinoak frantsesak ziren eta turkak boxak. Maulen oholtzaratu zuten lehenik, errejentak *Etchahoun*, Jean Urruty eta Antoine Lapeyrine izan zirelarik. Sarrerak erakusterakoan, oroitzen naiz nola norbaitek komentatu zuen, *hori Ramon Saizarbitoria da*, *Jarrai* antzeztaldeko gazte sendo, garai eta etorkizun handikoa, aulkietarantz jendea bideratzen zebilena.



Irudia 25: Arantzazuko Euskaltzaindiko Biltzarra 1968.
Lehen lerroan erdian … Piarres Lafitte, Luis Villasante…
Bigarren lerroan erdian Villasanteren atzean Koldo Mitxelena.
Laugarren ilaran eskuinetik ezkerrera: Monja, ni, Joseba Arregi,
Ramon Saizarbitoria.

Mila bostehun eta hogeita hamargarren urte inguruan, Bernard Leheteren etxea Bordelen artista humanisten egoitza bilakatu ohi zen eran, Mitxelenaren etxea ere euskaldunena bilakatu zen Salamancan, Matildek egiten zituelarik sukaldeko lanak, tortilla paregabeak prestatuz. Hala bada, egun batez Koldok testu bat eman zidan irakurtzeko, eta ea zer iruditzen zitzaidan galdetu zidan. Niri gustatu egin zitzaidala eta tankera Xenpelarren euskararena aurkitu niola. Nola ez zidan esan norena zen testua, berea baitzen, barrendik barrez lehertzen egongo zela pentsatzen dut, eta hala, arrazoi biologikoa ager zedin, Ibon Sarasola, Ramon Saizarbitoria, Rikardo Arregi eta beste zenbait bezala, Arantzazuko Batasunaren Biltzarrera gonbidatu ninduen. Oroitzen naiz Pascual irakasleari Martineten teoriak entzun berria nintzela eta hizkuntzen ekonomiaz eta emankortasunaz aritu nintzela une batez. Iruditu zitzaidan moderatzaile lanak oso ongi bideratu zituela Jose Maria Satrustegi apaiz nafarrak, eta Patxi Altunak idazle moderno bat proposatu behar zela esan zigun, alegia, Axularrek XVII. menderako balio baldin bazuen, XX.erako beste bat behar zela, eta egokiena *Euskararen batasun bideak* txostenaren egilea bera zela, hots, Koldo Mitxelena. Geroago hainbat aldiz esplikatuko zuen bezala, lapurtera, bertan zegoelako tradizioa (Axular), eta gipuzkera, euskararen indar soziologikoa nahasiz goi nafarrera zertxobaitekin. Erdialdeko euskalkien lotura saiatuz, gehien ezberdintzen zirenak zuberera eta bizkaiera zirenez.

Atsedenaldi batean, Arantzazun urte batzuk lehenago Jorge Oteizak bere apostoluak etzanda zizelkatzen eduki zituen lekutik –zeinen *Quosque tandem* (sic) kontsideratzen baitzuen Koldok *como un amasijo de lecturas mal asimiladas,* hots, irakurketa gaizki hausnartuen nahaste-borraste bat– Piarres Xarritonekin, Iparraldeko apaiz sutsu, zakartsu eta serora sekularizatuarekin paseatzen nindoala, honek gipuzkoar inperialismoaz eta beste gauzez esan zizkidanak oraindik buruan dauzkat eta ez esatekoak hobeto dira. Hantxe ezagutu nuen Gabriel Aresti ere, hark nire lehen ipuin sarituaren aitzakiaz esan zidalarik denbora luzez txundituta eta pentsakor utzi ninduen esaldi bat: *ez izan hain abertzalea*.

Pixka bat geroxeago, azaroaren 6an, jaso nuen kontserbatzen dudan Rikardo Arregiren gutun bat, non *Lur*-en parte hartzeko gonbidapena egiten zidan. [Ikus www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 1.)]

Hasieran, arratsaldeko ordu gehienak Fakultateko biblioteka orokorrean igarotzen banituen, gerora *Clásica* eta *Románica* espezialitateek

zeukaten liburutegi xumean pasatzen nituen orduak, bertan bazirelako zenbait euskal liburu eskura. Horrela gertuagotik ere ezagutu nituen irakasleak. Behin baino gehiagotan, arratsaldeko bederatziak inguru zirenean, lagundu izan genion Mendik eta nik Koldori *Canalejas* kalean zegoen bere etxeraino, bidean gerrako historiak kontatzen zizkigularik, hala nola geroago Eugenio Ibarzabalek bilduta dakarren *Koldo Mitxelena* (Erein, 1977) Eduardo Txillidaren portada daukan liburuan.

> … Eraman gintuzten, bada, Gernikara eta Foruako irteeran dagoen Agustindarren komentuan ezarri. Hemen *Itxarkundia* batailoiaren partaide izan ginen. Gero handik Bermeoraino joan ginen *Batallón Saseta de ametralladoras* gudari taldearekin eztabaidarik izan genuelarik. Sesioak izan ziren, baina azkenean bermeotarrak, beraiek ere herritarrak izaki, Plaentzia eta Tolosaldeko herritarrekin hobeto konpondu ziren donostiar señoritoekin baino. Halako batean, Sukarrietara eraman gintuzten, handik berriro Gernikara eta kamioietan Ubidea aldera. Urduñako San Pedron eraso txiki bat izan zen, baina benetako helburua Legutio zen, eta haren atzetik, Gasteiz, noski.
>
> Gu ez ginen batere gudari onak, baina lagun batek deitzen zituen bezala, *mandoak* askoz ere okerragoak ziren, esan nahi dut profesionalki, alegia, gerra kontutan. Azken orduan gudari oste batzuk kendu ziren frente honetatik, faszismo internazionalak Mondragoe eraso behar zuela-eta, ez dakit noiz eta nondik. Nire ustez, orain gertatzen den bezala, *à la guerre comme à la guerre,* jokatu behar dela, hau da, baliabide guztiak, denak, ezarri behar direla helburua lortzearren. Irakurri berriak ditut Montauten ohoretan laudorioak. Ez diot ukatuko jakituriarik, baina konpreniezinak egiten zaizkit egiten omen zituen iruzkinak: *Total, lo mismo da. De una forma o de otra vamos a fracasar…* Horrela pentsatzen duena intendentziara pasatu behar da, edo neurri gogorrak hartu berarekin…
>
> Meabe IIak inolako oztoporik gabe zapaldu zuen Nafarrateko gailurra. Ez dudana konprenitzen orain, bertatik igarotzen naizen bakoitzean, zergatik sartu gintuzten han, arratsaldeko hiruretan, zelai erabat agiri batetik edonork metraileta batez elizako kanpandorretik denak akabatzeko arriskupean. Hantxe gindoa-

zen, bada, astoak bezala zamatuak, manta, motxila eta armamentuarekin. Armak salbuespen, beste dena zelaian gelditu zen sakabanaturik, ez baitziguten esplikatu bazirela gerran pelotoiak, sailak, konpainiak eta batailoiak, eta bakoitzak bere egitekoa duela. Zehatza gainera. Enfin, Sasetari esker, aurrera joan ginen eta derrepentean ibai batekin topo egin genuen. Garai hartako mapetan ez zen agertzen; oraingoetan *Angelu* du izena. Operazioen buru karabineroen kapitain bat zen, Cueto izenekoa, Villarreal bertakoa. Hau eta bere anaia geroago Bilbon gelditu ziren, eta han fusilatu egin zituzten.

Ibaia ez zen oso zabala baina nahiko loditua zetorren, azaroaren 30a baitzen, eta hotzak akabatzen gintuen. Ni igeri egiten ohituta nengoen, eta urak beste aldera pixka bat beheraxeago eramatea erraza zela pentsatu nuen, baina Zabalak, nirekin zetorren gudariak bere burua bota zuen animaturik uretara ohartu gabe ez zekiela igeri, eta aski lan izan genuen hura salbatzen; ezin izango genuen bidean enbor batzuk topatu ez balitu. Ni blai bustita nengoen eta Constantino, Araba batailoiko tenientea eta haren gizon banaka batzuk topatu nituen.

Koldoren etxe ondoko kafetegi moderno batean geunden atseden hartzen eta zerbeza batzuk edaten, eta txaketa poltsikotik zigarro paketea atera eta bati heldu zion: –*Ducados* bat nahi? Galdetu zion Jesus Mariri, eta hark bere partetik *Celtas* pakete txikia atera zuen eta erretzen hasi zen ez dakit zenbatgarrena. Koldok erantzun zion berehala, erantzuna esperatu gabe: –*Oso ongi, zerbaitetan berezi behar dira katedratikoak eta estudiante unibertsitarioak*–. Eta Villarrealgo erasoa kontatzen jarraitu zuen:

… Gasteiz aldera ematen duten Villarrealgo etxe batzuen ondora iritsiak ginen ez genekiela zer egin, Constantino tiro batez zauritu zutenean sabelean. Berriro ibaian atzera jo behar izan genuen, aski zail eta penagarri gertatu zitzaiguna, ez baitzuen bizirik iraun. Bestetik pasabidea, ibia aurkitua genuen pixka bat beheraxeago, baina gau iluna zen jadanik eta sakabanatuta genbiltzan. Sasetak ere erretiratu egin behar izan zuen zauritua, eta gelditu egin ginen. Goiz-alban berriro eraso egin genuen iritsi zitzaizkigun indar berriekin.

> Legutiokoa da euskal gudarostearen lehen erasoa arma berriekin, baina ez ziren aski ez eta behar bezain onak. Lehen Mundu Gerran erabiliak ziren eta maiz egiten zuten kale. Bestalde, garbi zegoen, abioirik gabe ezer gutxi lortuko genuela, etsaiak faxista italiarren eta nazi alemanen laguntza baitzuten. Zenbat gautan gerora kartzelan nengoela, gertakizun hoiek oroituz, loak ezin hartu ninduen…

Badut beste fotografia bat non argi eta garbi ageri diren Ávilako murruak. 1968koa behar du izan, eta hiri honetan bildu ginen Madrileko eta Salamancako euskal ikasleak. Erdibidean. Bertan gaude: Leonardo Jaka txamarra, betaurrekoak eta txapela ezker alderako joerarekin, Mikel Peziña gabardina, txapela eskuin alderako jaidurarekin eta patrikatik errebolberra ateratzera bailihoan, Jesus Mari Mendizabal jertse hutsez, eta ni berokiz. Laurak bizar xume batez apainduak, modan baitzeuden Arestik sortu bertso haiek, *euskara salbo ikusi arte, ez dut moztuko bizarra*.

Leonardorekin makina bat barre eginak gara tabernaz taberna kantari. Peziñarekin, Basauriko kartzelatik aske utzi zutenez geroz, Parisen egona naiz zenbait aldiz. UNEDeko irakasle tutorea historia arloan eta gaztelania hizkuntzan. Jakituria handia zuen gerra zibileko kontuetan eta batez ere anarkista mugimenduetan eta Arabako kontuekin zerikusia zuten gauzetan. Jesusek, esan bezala, Pariseko euskal etxean erakutsi zidan nola egiten zen arrautzopila, *tortilla española*, eta emakumeen zureganatzeko ez dagoela kontalari ona izatea bezalakorik.



Irudia 26: Zutik Bejarren Jesus Etxamendi eta Jesus Mendizabalen artean. Behean Leonardo Jaka eta Ramon Garmendia.

Meliton Manzanas torturatzaile ezaguna eta askok sufritua, ETAk 1968ko abuztuaren bian hil zuen Irungo bere etxe aurrean, eta albistea berehala zabaldu zen jendartean. Gogoan dut gertakizuna nola komentatu genuen isiltasun handi batez inguraturik, Mikel Urkola, *Sekularrak apaiztu* liburuaren egileak eta neronek Hondarribitik Donostiara zihoan autobusean. Hurrengo egunean, Gobernuak Gipuzkoarako *Estado de excepción* delakoa dekretatu zuen, eta asko eta asko pasatu ziren kartzelatik, hala nola nire anaia Joxeba, lehendik ere Martutenen egona, Joseba Arregi, eta Errenteriako bi adiskide, Antton Gogorza eta Jesus Mari Zugarramurdi…

Behin, 1969an, *Els Setze Jutges*ekin urte batzuk lehenago jada kantatzen hasia zen María del Mar Bonet, Menorkatik inguratu zen Salamancara Medizinako Anfiteatro zabalean kantatzera; benetan hunkitu gintuen haren ahots fin, eder eta miresgarriak –urte zenbait geroago, Elxeko Misterioa ikustera joan ginenean, Sibilaren kanta bere ahotsez entzun genuen bezala–, single batean jaso zen *No trobaràs la mar* poemarekin:

… No trobaràs la mar,
la mar fa temps que va fugir:
un dia se'n va anar
i em va deixar aquí.

Hurrengo eguna euskal kantari eskainitakoa zenez, euskaldun batzuek gitarra lagun eta neroni ere tartean, zenbait abesti kantatu genuen ahal genuen modurik finenean. *Gogo eta gorputzaren zilbor-hesteak, Bi kate; biak ebaki beharrezkoak / bat gorputzaren bizitzeko / bestea gogoaren askatzeko…* Joxan Artzeren hitzak eta Mikel Laboaren musika. Bertolt Brechten letraz *Gaberako aterbea. Kontatu didate Nueva York-en / Broadway eta 26 karrikaren kantoian, / negu gorrian, gizon batek gabero / jendeari otoi eskatzen / aterbea bilatzen duela / bilutsirirk daudenentzat…* Mikel Laboak moldaturiko doinua, gure kasa interpretaturik eta beste.

Oroitzen dut nola Anibal Núñez oraindik ezezaguna zen poetak, Madame Gabaudanen klaseetan topatzen genuenak, Katulo, Rimbaud eta beste poeta zenbaiten itzultzaile eta gazterik hil zenak galdetu zigula ea gure helburua, euskaldunena ote zen estatu teokratiko bat sortzea.

Neronek erantzun nion, inolako lotsaizunik gabe, ez zegoela gure gogoan horrelako pentsamendurik, eta aspalditxo esana zeukala Friedrich Nietzsche filosofoak: *Jainkoa hil da*.

Santa Ageda bezpera iritsi baino lehen, urtero hasten genituen gure entseguak gau horretan plazaz plaza, txapela buruan eta makila eskuan, Euskal Herriko neskak ziren ikastetxe nagusietako atarian abesteko, non suertatu zitzaidan bakarkakoren bat edo beste jotzea: *Eder zeruban izarra / Erreka aldian lizarra, / Etxe honetako Nagusi Jaunak / Urre gorriz du bizarra…*

Salamancan hirugarren ikasturtean eta karrerako bosgarrenean nengoenean, hau da, azkenekoan, Canalejasko etxebizitzan gela bat eskaini zidan bertako abade nagusia zen Fernando Kristobalek. Zortzi geunden pisu hartan: Kristobal, Gómez "El rubio" deitua, Ereño, Fede, Patxi, Rafa, Bernardo eta neroni. Bost bizkaitar, bi nafar eta ni. Lehengo bi ikasturteetan euskarazko klaseak Itziar, Beni eta Bel-en etxean ematen banituen bazkalondoan hiruretatik lauretara, hau da Alemania ibilbideko 27an, Tañares, Mantte eta Peziña bizi ziren solairuaren azpian, non fotografia baten arabera, Che Guevararen poster baten aldamenean aski bizar handiarekin ageri naizen, ikasturte honetan nire Canalejas kaleko gelan ematen genituen. Egia da, baita ere, ohe bakarreko gela zela hura, ez dakit zer pribilegioz suertatu zitzaidana.

Gertatu zen halako batean, poliziak miaketa bat egin zuela Alemania 27ko etxean, eta bertan aurkitu zituen zenbait panfleto eta liburu eraman zituela, Peziñak komunetik bota ahal izan arren, ETAren liburuxkaren bat. Oroit dut nola han irakurria nuen, errebista frantses batean, Daniel Cohn Bendit, Dany gorriarekin egindako elkarrizketa, zeinaren iritziak mirespen handiz irensten genituen, Pariseko barrikada artean Irudimena Boterera iritsi zelako eta Iraultzaren hasiera bertan zegoela uste genuelako. Kontua da Mikel preso hartu zutela, eta Salamancako eta Gasteizko komisarietatik pasatu ondoren, eta krudelki jipoitu gainera, Basauriko kartzelara eraman zutela, apirilaren 30ean sartu zutelarik bertan. Noizbait entzun nuen Basauriko ziegatik ihes egin zutenen artean zegoela; dena den, nik geroago Parisen topatuko nuen eta elkarrekin izandako berriketetan pasadizo horiez ez hitz egin arren, aitortu ohi dit zama hori sufritu izan duela Frantzian Administrazioaren tratu txarragatik bere bizitza osoan. Baina ez ditzagun historiaren hariak aurreratu.

Medizinako Anfiteatro handi hartan ikusten dut orobat nire burua asanblada jendetsu baten artean, garai hartan sendagile karrera ikasten ari zen Juan Aranzadi liderrak zuzenduan. Gaztea zen baina hitz jario arin, argi eta azkarra zeukan. Trebea guztiz. Hiriko kaleetan zehar ibili ginen oihuka eta Letretako Fakultate zaharraren aurreko aldean, igela burezur baten gainean aurki daitekeen plazan, Fray Luis de Leonen estatuaren babesean egon ginen lurrean eserita protesta gisa, aldamenean kanariar neska begi-urdin, pollit, xarmant eta maitagarri bat neukala. Irudimenak boterea har zezala nahi genuen eta katedratikoek defini zezatela beren jokabidea munduan gertatzen ari ziren protesten eta eskaeren aurrean, espainiar unibertsitateak zeuzkan defizit demokratikoen aitzinean. Gazte ginen eta ez geunden konforme; Luis Villar Palasí Hezkuntza Ministroak ezarri nahi zituen erregelamendu eta arauen kontra ginen.

Lortu genuen irakasle eta ikasleen artean asanblada bat edukitzea ere. Lehen lerroetan nengoen, eta buruan dut nola Mitxelenak hitz egin nahi izan zuenean beste irakasleek lasaitzeko eskatzen zioten.

Fernando Lázaro izan zen, seguruena, urte horietan izan genuen irakaslerik argiena, edo bederen mintzalaririk dotoreenetarikoa. *Crítica Literaria* urte batean eta bestean *Gramática General* irakatsi zigun. Marxismoa eta estetika, Errusiar Formalismoa, Estilistika, Amerikarren New Criticism eta New Humanism direlakoak… Charles Baudelaire poeta paristarraren *Les Fleurs du mal* (1857) poesia liburuko *Correspondances* sonetoaz egin zuen komentarioa gogoangarria izan zen. Bigarren hiruko nagusiaren bukaera hartaz *Les parfums, les couleurs et les sons se répondent* egiten zituen iradokizunak benetan interesgarriak ziren. Halaber, Arthur Rimbauden *Une saison en enfer* (1873) –diamantezko prosan idatzitako autobiografia psikologiko miresgarria, Paul Verlaineren hitzetan–, egin zizkigun aurkezpenetan, edota Francisco de Quevedoren soneto ospetsuenaren beste amaiera hura, *Polvo será, más polvo enamorado*, egindako iruzkina, hala nola nobela pikareskaz, edo *La Celestina* tragikomediaz eman zizkigun lezioak benetan solas eredugarriak ziren. Hauexek, bada, balio izan zidaten nire lehen euskal liburua moldatzeko, *Literatura eta Kritika,* Paseo Arbola Villa Zutiken kokatua zen Lur argitaletxeak 1970ean argitaratu zuena, eta Rikardo Arregiri eskaini niona.

Modu ezberdinean izan nuen harreman berezia beste irakasle batekin ere. Luis Pensado galegoarekin. *Latín vulgar, Lingüística Románica*

eta *Gallego-portugués* irakasgaiak eman zizkigun. Azken gai hau hiru ikaslek bakarrik genuen hautatua, bi galegok eta nik. Galegoen deituraz ez naiz oroitzen, bat uste dut Soto deitzen zela eta Vigo aldekoa zela, baina ez nago ziur. Lehen klasera joan ziren baina ez ziren berriro agertu, nahiago baitzuten Ateneoan egunkariak irakurtzen denbora pasatu eta Kubako Iraultzaz mintzatu, klaseetara joan baino; beraz, hantxe egon ginen mintegiko gelatxo batean Pensado eta biok. *Cantigas de scarno e maldizer* batzuk ere irakurrarazi zizkidan, eta zuzenketatxo labur batzuen ondoren, pentsatu zuen hobe nuela ikerketa bidean murgiltzearren gauza praktikoa egitea. Hala bada, XVIII. mendeko Martin Sarmiento beneditarraren eskuizkribuak argitaratzen ari zenez, haietako bat transkribatzeko agindu zidan, eta era horretan hasi nintzen filologia-praktiketan eta hizkuntzen arteko konparaketan trebatzen.

Frantses Literatura Cortés senar-emazteek ematen ziguten. Erdi Arokoa Luis Cortések –klasera beti *kapa txarraz* agertzen zen, hots, salamancarraz jantzita, eta gazteoi bere ahalmen fisikoa erakusteko gai zen klasean buruz behera jartzeko, *pinuarena* eginez, irakasle mahaiaren gainean–; bere jakituria neurriz gain balioesten zuen. Eta Garai modernoa, haren emazte zen Paulette Gabaudanek. Biak ziren bikote txit berezia. Paulettek bazeukan barneraturik frantses metodoa literatur kritikagintzan eta liburu interesgarriak irakurri eta iruzkintzeko hainbat lan eginarazi zigun. *La peau de chagrin* Honoré Balzacena eta *Madame Bovary* Gustave Flaubertena, besteak beste. Bere aktibitateei esker ikusi ahal izan genuen *Les Belles de Nuit* René Clairen filma ere eta, zenbait ikaskidek antzezturik, Jean Paul Sartreren *Le diable et le bon dieu* lehen urtean (1968-III-15), eta *Les Fables de La Fontaine*, bigarrenean.

César Real de la Riva, *Literatura Hispanoamericana* zeritzan kurtsoaren arduraduna, aretoan kapelu lumadun batekin agertzen zen –Mendik irribarre sotilez kontatzen zidanez, alaba bakoitzeko lanpostu bat omen zeukan, eta hamaika zituen–; irakurtzen hasten zenean, esku artean zituen folio horixka zaharkitu haiek batzuetan halako emozioz irakurtzen zituen, non negar malkoak isurtzen zitzaizkion begietatik. Benetakoak ote? Batzuetan teatro hutsa ziruditen.

Beste kurtso interesgarrienetakoa Ricardo Senabre irakasleak eskaini ziguna izan zen: *La novela española de la postguerra.* Garai hartan *El Mundo* egunkariko *El Cultural* errebistan nobela espainolari egiten dizkion

kritikak erreakzio sutsuak jaso ditu, iraingarriak ez esatearren, zuberotarren hitzetan ahapaldi beroak liratekeenak, noski. Dena den, gure gazte garai haietan izugarrizko laguntza izan zen nobelen argumentuen gaiez eta harien bilakatze estilistikoez hausnartzeko eta kontuan hartzeko.

Beste hitzaldi interesgarriak ere izan genituen noizbehinka, atzerriko unibertsitateetarik iritsitako irakasleek, edota idazle ospetsuek emanak. Hala 1969ko martxoaren 11n Margit Frank, Mexikotik etorriak, *Lirica medieval de tipo tradicional* izan zuen mintzagai, eta benetan ongi egin zuen hitzaldia, ahots eder batez eta kantez lagunduz eta apainduz. Edota errumaniera irakasten zigun Rauta printzeak gonbidaturiko Vintila Horia. Hau ospetsua zen jadanik Goncourt saria irabazia zuenez, bere *Dieu est né en exil* (1960) eleberriagatik.

Ikasten genituen gaiekin zerikusi zuzenik ez izan arren, joan izan nintzen beste zenbait hitzalditara ere, hala nola Enrike Freijo apaizak eta katedradunak Freuden psikoanalisiaz eman zituenetara. Bestalde, euskarazko meza batean laguntzaile aritu izan nintzen, bai eta gero basoerdi batzuk edaten. Gogoan dut, egun batez Jose Ignazio Telletxea Idigorasek eman zigula hitzaldi bat, historia non eta nola ikasi, eta euskaldunen aztarnak aurkitzeko nongo artxiboetara jo zitekeen argituz.

Garai hartan Salamancan *Clásicas* deitu espezialitatea egiten ari ziren bi euskaldun. Bata, Alfontso Irigoien, maiz saunara joaten zena gainetik gantzen zamaren bat uxatu nahiz, antza, eta euskaldun ezagunen bat aurkitzen zuenean gai zena klasean entzundakoa osorik errepikatzeko, entzuleak aitzakiaren batekin ihes egitea lortzen ez bazuen. Bestea, apaiza zen, Usabiaga deituraz, baina *Okobio* izengoitiz ezagunagoa. Oso euskaltzalea zen, eta gogoan dut nola igande batez bere motoan joan ginen herri txiki batean desterratua zegoen Arantza Arruti, ongi oroitzen banaiz eta oker ez banago, euskaldun emakume fina bisitatzera. Itzuli ginenean motoaren atzean, Vespa markakoa zela uste dut, hura bai hotza pairatu genuena.

Urte batzuk lehenago, 1957an, nire anaia Joxebak mundu guztiko nazioetarik joandako gazte langileekin batera egin zuen bezala, 1969ko udan Erromarako bidean jartzea erabaki nuen. Gurasoek ez zuten nahi auto-stopez joan nendin, baina ni temati, halaxe hasi nintzen Errenteriako zumardian erromes. Aspertu nintzen orduak eta orduak karreteran itxoiten, gazteek *bon chance* desiratzen zidaten, zorte on, eta azkenean

izan nuen zorte ona, Ángel Ponce de Leon deitu pintore modernista gelditu baitzitzaidan, eta Perpignandik Cagnes-sur-mer-eraino eraman ninduen, gaua bere etxean pasatu nuelarik. Bazuen galeria bat Nicen eta erakutsi zizkidan fotografiak bera garai hartako artista ospetsuen tartean agertzen zenak: Alain Delon… Kontatu zidan nola mutikoak Sevillan harrika aritu zitzaizkion galtza koloretsuak koadro modernista bat bailitzan zeramatzalako. *Te parecen raros?* galdetu zidan eta nik konpromisoz eta errespetuz erantzun nion ezetz, eta Salamancako berri batzuk kontatu nizkion. Adierazi zidan bera exiliatu artistikoa zela ere, ez zelako Francopean benetako askatasunik… Lehoi baten larru gainean saloian etzanda, argazki eta koadroz inguratua, loak hartu ninduen gau hartan, Perpignango kanpinaren ixkin bateko lur hotz eta gogorraren gainean baino mila aldiz hobeto, noski.

Hurrengo egunean, berriro auto-stopez Mentonera iritsi nintzen, hango hondartzan bainatu eta, aspertuta nengoenez, behatza erakusten saiatu ordez trena hartu nuen Erromarako. Laster igaro nuen Ventimiglia, eta kartelak italieraz irakurtzen, eta abisuak entzuten hasi nintzen. Erromara iritsi, arropaz aldatu eta pixka bat txukunxeago Monsinore Laboarengana presentatu nintzen nire arrebaren etxean bizi zen Doroteo Esnaola apaizaren eta kurtsokide zuenaren gutun batekin. Sanjuandarrarekin elkarrizketa bitxi bat izan ondoren, Vatikanoko ertzainaren itaunketa areago baitzirudien, zergatik nahi nuen ikasi italiera, Dante irakurtzeko eta itzultzeko, zer pentsatzen duzu Juan Karlos printzeaz, ez dut maite. Eta ea printzesa baten haur baten tutore izan nahi nuen galdetu zidan, nik erantzun niolarik karrera Salamancan bukatu behar nuela, okasio on bat galduz. Hala bada Sergio Guerraren zuzenbidea eman zidan. Hau benetan gizon maitagarria zen. Bere etxean lekutxo bat egin zidan. Berarekin joaten nintzen afaltzera, lanak bukatuak zituenean, berarekin eraman ninduen Erromako herri inguruak ezagutzera, Laboratorio Farmazeutiko batzuen bisitatzaile baitzen.

Horrela elkarrekin bisitatu genituen Tarquiniako etruskoen hilobiak. Bertan dastatu ahal izan genituen *crassi etruschi* haiek utzitako irudiak, non pirata gisara itsasoan zehar pilatu aberastasunen erakusgarri, haien bizitzeko alaitasuna, jan-edanak, dantzak, etzanleku modura esklabo beltzak, eta beste ikus zitezkeen. Gero hiri hartako bertako mediku bat bisitatzean, honek kontatu zigun nahi eta gustatu izanez gero, bazire-

la oso prezio onean hilobi-lapurrek saltzen zituzten bi mila urte baino gehiagoko eskulturatxoak eta edontzi margotuak.

Erromako *ferro caldo*tik, bero kiskalgarritik ihesi genbiltzalarik, behin bazkalondoan saloiaren itzalean italiar telebista ikusten, hara non agertzen zaizkigun Estatu Batuek bidalitako *Apolo 11* misioko astronautak ilargian jauzika. Armstrong eta Aldrin ziren. 1969ko uztailaren 21a. Egia ote da begi bistan daukaguna, galdetzen genion geure buruari, eta Urtziaren jabetza-abenturan nor aterako da garaile? Sobietarrak ala estatubatuarrak? Oraingoz, bazirudien hauek zihoazela aurretik.

Garai hartan bazen Erroman nafar bat, Anjel Amezketa. Poetatzat zeukan bere burua, baina libururik ez diot ezagutu. Erbesteratuta zegoen, omen, soldaduska ez egiteagatik, nik uste. Sergiok presentatu gintuen. Gazte garai, argal eta harroputza zen. Cervantesen ondoren bera zela idazlerik onena gaztelaniaz, zioen, ehun metro hondartzan korrika hamaika segundoan egiten zituela eta neska ederrak euliak eztira antzo zetozkiola, eta haiez inguratua bizi zela. Bere neskaren apartamentuan bizi zen, non pintura koadro batzuk baziren, andere biluzi eta desertuko dunak ziruditen titi erraldoi batzuekin. Ez nekien zertaz bizi zen, ez nuen inoiz erronda bat pagatzen ikusi, eta Carmen Postigok, Italian EFE agentziarako delegatua zenak *El Confidencial*-eko (2010-X-13) orrialde batean eman dit haren berri, berrogei urte deusere jakin gabe egon ondoren. José Acosta Montero, *El Diario Vasco* egunkariko korrespontsalaren etxean ere izan ginela oroitzen naiz, baina aski modu lanbrotsuan.

Sergiok oporrak hartu zituen; Donostiara itzultzeko gogoa sartu zitzaion, emaztea donostiarra baitzuen, eta bidean Aix-en Provencen bisitatuko genuen, bertan ikastaro bat egiten ari zenez. Kontu asko kontatu zizkidan Italiako gorabeherez, eta nik kanta asko ere abestu nizkion, bide aringarri gisara, ez bainekien oraindik gidatzen. Hala bada, pentsatu baino lehen egin nuen Italiako itzulia, baina Sergioren eskuzabaltasunari esker, sos batzuk bainituen aurreztuak, tokadisko baten jabe iritsi nintzen etxera, esperientzia aski interesgarriak bizi ondoren.

Esan bezala, *Filología Románica*ko bosgarren urtea Canalejaseko etxean igaro genuen. Bertan zegoen Patxi Aranburu ere, Arantzazun fraidegai izana, Medikuntza ikasten, eta hark ekarritako euskal liburu batzuez baliatu izan nintzen. Bat, aita Luis Villasantek Axularren *Gero*z egindako edizioa izan zen, *Espirituales Españoles* bilduman (Juan Flors,

Barcelona 1964), eta bestea Xabier Leteren *Egunetik egunera orduen gurpillean* (Cinsa, Bilbao 1969). Liburu hauek eta Filologiako Mintegian aurkitzen nituen euskal autoreen edizio zaharrak izan nituen euskarazko irakurgai nagusiak, eta orobat *Jakin* eta *Zeruko Argia*.

Kirola egiten ere jarraitzen genuen eta, bai eskuz bai eta palaz, aritzen nintzen pilotan. 1968ko abenduan *Trofeo Colegios Mayores*-edo deitzen zena pilotaz irabazi nuen. Arlo honetan benetan oso jolaskide ona aurkitu nuen: Joxe Manuel Tomasena, urnietarra eta ezkerra, gerora urte batzuez profesionaletan arituko zena. Harekin hasi nintzen Salamanca ordezkatzen; La Rúa kalean argitaratzen zen *El Adelantado,* garaiko egunkaria, da lekuko, Cáceres, Valladolid, Madrid eta beste zenbait lekutan ere jokatzen genuela. Salamancako herri batzuetako festetan ere aritu izan naiz frontoian zuriz jantzita, hiru hiruren kontra, ez ezker ez eskuin paretarik gabeko eta zoru aski petralean. Onena, dutxatu ondoren alkate, maisu edo laborariren baten etxean ospatzen genuen merienda izaten zen, urdaiazpiko eta txorizo pixka batekin basoerdi batzuk hartuz herriko gorabeherak komentatzen genituenean. Herriko jai giroa eta berbenarako prestaketak ikusten eta musika entzuten genuen bitartean autobusez hirira itzuli beharra izaten zen pena.

Aipatu dudan bezala, 1969ko apirilaren 27an Salamancan Avenida Alemania 27an bizi ziren Castañares, Madinabeitia, Manterola eta Peciña atxilotu zituzten. Azken honek Interneten dagoen artikulu batean (M. Peciña, *Los pasos perdidos*) kontatzen duenez, Julio Sánchez ezizena erabiltzen zuen eta horrela iristen zitzaion ETAren propaganda. Bertan irakurri ahal izan genituen zenbait folleto eta 1968ko Pariseko Maiatzeko manifestazioak kontatzen zituzten errebista batzuk. Beheko solairuan Beni, Bel eta Itziar Ezkerra bizi ziren, eta hauek libre uzten zuten gela batean euskarazko klaseak ematen nituen, Patxi Altuna jesuitaren *Euskera, ire laguna* gidari.

Horrela bada, 1970eko irailean karrerako azken asignaturetara aurkezten ari nintzelarik, Xabier Ojenbarrena, Luis Castells, Koldo Daniel Izpizua eta bestek zuten etxebizitzan agertu zitzaidan bisitan aita, arreba Marikrutx, Isidro koinatua eta Miren Lourdes ilobarekin. Lehen aldia zen aitak bere bizitza osoan oporrak hartzen zituena, eta jakin nahi zuen bere semeak zer egiten zuen. *Estudiante tunante* ote zebilen, kanta zaharrak zioen bezala, ala estudiatzen ote zuen zerbait fundamentuz. Plaza Mayor


delakotik igaro, bertako harriz zizelkatu dominak miretsi eta hainbat bikote eta estudiante besarkaturik ikusitakoan, erabat liluratu eta txunditurik geratu zen. Esaldi hau maiz entzun nion egun haietan harriturik utzi zutela nola *benetan asko maite duten elkar hemen oraingo ikasleek*.

Berria zabaldu zen orobat nola Munduko Pilota Jokoak ospatzen ari zirelarik Donostiako Anoeta frontoian, irailaren hamazazpian, Joseba Elosegik, EAJko gudari ezagunak, gerra garaian Saseta batailoiko kapitain izanak eta gero heriotzara kondenatua izan baina azkenean libratuak, soineko arropak gasolinaz ongi busti ondoren, su eman zien eta bontzo baten gisara goiko parteko esalkietarik behean zegoen publikoaren aurrera eta Francoren aitzinera bota zuen bere burua *Gora Euskadi Askatuta* oihukatuz. Ez zen hil, hala ere, eta oso sonatua izan zen ekintza.

Licenciado en Filosofía y Letras (Sección de Filología Románica) delako titulua neureganatu nuelarik, eta jada Institutu batean lan egiteko promesa egina, Konstituzioko Plazan zegoen *Librería Lagun* dendan adiskide egin nuen Joaquín Forradellasi esker, hain gogoko neukan Parisera beste bidai bat egitea non erabaki bainuen ikasturtea hasi aitzin joatea. Halaxe, bada, ikusten dut nire burua fotografia batean Nôtre Dameko atarian, Adan eta Eba Paradisuan harrizko irudiaren oinetan. Oraingoan Salamancan ezagutu nituen Bel eta Beni medikuntza-ikasle lirain eta atseginen konpainian egin nuen bisita. Hauetariko batek ateratakoa behar du izan fotografiak. Zamarra txanoduna bizkarrean, bizar beltza eta biboteak ongi moztuak, pana beltzezko galtzak eta niki mahuka-motz batekin soinean, begirada erromantikoz hantxe nintzen lizentziatu berria. Bizar hura mantendu nuen Arestiren kantari ohore eginez soldadutzara joan arte.

Donostian, 1969ko urtarrilaren batean Kursaal teatro-egoitzaren barnean areto txiki bat zabaldu zuten *Inessa de Gaxen, sala de arte y ensayo* deitu zutena. Honek filmak bertsio originalean proiektatzen zituen, lehena Alain Resnaisen *Hiroshima mon amour* izan zelarik. Oroitzen naiz nola aktore frantsesa japoniar batekin oheratzen den, baina gelditu zaidan inpresioa, Marguerite Durasen gidoi hura aski aspergarria zela. Askoz ere gehiago gustatu zitzaizkidan uda partean ikusi nituen Glauber Rocharen *Antonio das mortes*, gerrillari brasildarraren abenturak *sertão*an, Mexikon filmatu Luis Buñuelen *El ángel exterminador,* non burges batzuk jauregi bateko aretoetatik ezin irten eta salbaien gisan

portatzen diren; François Truffauten *Jules et Jim* ixtorio hunkigarria, non Jeanne Moreauk Catherineren rola miresgarriro jokatzen duen eta Oskar Wernerek eta Henri Serrek, Jules eta Jim interpretatzen dituzten, eta elkarrez maitemintzen diren, hiruko berezia sortuz, eta Peter Brookek 1967an filmatu *Marat-Sade* antzerkia, zeina Charentongo zoroen etxean kokatzen den Iraultza garaian. Hauek eta besteek, hala nola *Els Joglars*en ekitaldiak (*El Joc*, 1970) halako giro abanguardista ematen zioten hiriari.



Irudia 27: Parisen. Nôtre Dame-ren aurrean.



Irudia 28: Ezkontza eguna Elena Adriánekin.
Donostiako San Ignazio elizaren atarian (1972-VII-1).

IV

IRAKASLE DONOSTIA ETA ERRENTERIAKO INSTITUTUETAN

1970-1985

SALAMANCAN *Filología Románica* delakoaren espezialitatean lizentziatura lortu ondoren, 1970-1971 ikasturteko urrian hasi nintzen lanean Peñaflorida Institutuan, Joaquín Forradellas Literatura irakaslearen babesean. Amara auzoan zegoen, Gobernu Zibilaren aldamenean, aurrez aurre. Bertan ezagutu nituen besteren artean Juan Amorós zuzendaria, Koro Galarza, Pili Mendoza, Beatriz Bea, Bizente Argomaniz latin irakaslea eta Manuel Agud grezierakoa. Honexek bultzatuta, hasi nintzen joaten Diputaziora, Koldo Mitxelenarekin batera zuzentzen zuen *Anuario de Filología Julio de Urquijo*ko egoitzaren bulegora, eta hango liburuak aztertzen eta eskuizkribuak ikertzen. Erlijioa ematen zuen Luis Murugarren "Kokotx" Donostiako historialariak lupa bat oparitu zidan eta, berak iragarri bezala, huraxe izan zen, bai, pozoi baten antzekoa.

Goizez eta arratsaldez, nituen klaseak, baina haien artean aski hutsune ere bai. Fernando Lázaro Carreterren testuak, Anaya argitaletxerako eginak, eta maila ezberdinetakoak, alegia, lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren kurtsoetakoak nerabiltzan. Azken kurtsoetara tokadisko batekin joaten nintzen maiz eta Pako Ibañez eta Joan Manuel Serraten diskoak jartzen nizkien. Juan Ruiz, Hitako Artziprestearen *Lo que puede el dinero*, Santillanako Markesaren *Coplas a la muerte de su padre,* Francisco Quevedoren *Poderoso caballero es Don Dinero,* Rafael Albertiren *Balada del que nunca fue a Granada*, Antonio Machadoren *A un olmo seco*, Miguel Hernándezen *Andaluces de Jaén, aceituneros altivos,* Gabriel Celayaren *La Poesía es un arma cargada de futuro,* José Agustín Goytisoloren *Erase una vez un lobito bueno,*… Eta ikasleak pozik.

Mila bederatziehun eta hirurogeita hamarreko abenduaren batean ETAk Donostian bizi zen Bëilh kontsul alemana bahitu zuen. Geroa-

go kontatu zidatenez, Zuberoako Montori herrian eduki omen zuten gordeta. *Higanautak Montoriko,* zioen aspaldiko esaldiak, eta zaindariek egun batez bakarrik utzi zutela eta eliza inguruko taberna bakarrera agertu eta bertako ostalerrak edatekoa godaletan zerbitu ondoren, bere lekura itzuli zuela, omen. Haiek garaiak!

Inuzenteen Egunean ordaindu zidaten lehen soldata, hau da, abenduaren 28an, haurtxo errugabeen eguna oroitzen denean, iritsi zen Institutura *habilitada* deitzen genuen diru-banatzailea, eta hura nire poza hogeita zortzi mila pezetatik gora poltsikoratu nituenen, ohiko sobre batean. Etxerakoan, han denak ere pozik zeuden, nola ez, bukatu baitziren amari egiteko diru-eskaerak.

*Academia Lakunza*n hasi nintzen ingelesa ikasten. Irakasleak Patrick zuen izena, eta esango nuke, oker ez banabil, *Argia* astekariko 2.422. zenbakian (2014-VII-06) portadan ageri den Pat Rice zela. Artikuluaren titulua: *Mespretxutik duintasunera,* Xabier Letonak egin testu eta argazkiekin. Bertan kontatzen duenez, *1968tik 1971ra Donostian bizi izan nintzen.* Beraz, baietz esango nuke. Adiskide egin ginen, eta klaseak bukatutakoan, oroitzen naiz nola arratsalde batez joan ginen elkarrekin ASJUk Diputazioan zeukan gela batera. Hantxe irakurri genuen Antoine Meilletek eta Marcel Cohenek *Les langues du monde* liburuaren bigarren edizioan (*Champion,* 1952), bai euskarari buruz, bai eta gaelikoaz ziotena. Pozten naiz gaur egun, hainbeste urteren buruan, berriro aurpegi atsegin hura ikusita, eta jakinik badela talde bat Irlandako hizkuntza zaharrari eusten diona.

Aracama akademian ere hasi nintzen, gidari karneta ateratzeko klaseetara joaten. Oso jatorrak ziren, eta denborarekin jakin izan dut nagusiak Bigarren Mundu Gerran *Comète* Sarearen garaian kolaboratzen zuela beren beribilez, naziengandik ihesi zetozen soldadu aliatu eta juduei laguntzen, baina baita bere amarekin erbestean bizi zen donostiar gazte batek, hasieran ihesaldietan lagundu zuenak, Baionan salatu zituen eta kartzelaratu zituzten. Eta hura, amaren adiskideak Baionara bisitan joaten zitzaizkienean, armairuan gordetzen zela, eta kontzientzia arazoak zituela, antza denez, eta bere buruaz beste egin zuela Akizeko hotel batean.

Motoa eta beribila gidatzeko karnetak atera nituelarik, 1971ko otsailaren 15ean Juan Amorósek bere SEAT 600 zaharra saldu zidan zortzi

mila eta bostehun pezetaren ordainez. Haren aberiak konpontzen diru pila xahutu nuen. Beribil honekin iristen nintzen goizero Institutura abiada bizian. Aurre-aurrean aparkatu, eta gero gauez zenbat abentura ez zituen izango kotxe kaxkar hark kontatzeko. Nola ibili zen Alderdi Ederren tamarindo okerren artean eta, ranpatik jaitsita, Kontxako hondartzan barrena.

Aste Santuan, Errenteriako lagunekin (Maite Lasa, Txoko, Jesus Mari Gurrutxaga eta Fidel *Txikierdi*rekin) Lizarra inguruko herrixka batean ibili ginen, eta baita Lizarran bertan ere, prozesioak ikusten eta tabernak bisitatzen. Salamancaraino ere eraman ninduen behin, eta itzulerakoan, Lerman utzi ninduen, motorrak aurrera ezin eginda. Beste gau batez, Helenarekin nindoalarik Loiola inguruko bihurgune batean, hantxe joan zen ezponda txiki batetik behera. Zorte handia eta miraria izan zen biak batere kolperik gabe ateratzea bertatik. Hura izan zen bere azkena, handik kotxeen kanposantura eraman baitzuten. Ikasturte horretan, Hernanin PNNen afaria zela-eta, ezagutu nituen bertan, besteen artean, Fernando Odriozola, dominiko ohia, Filosofia irakaslea eta Marta Cárdenas pintorea. Honen arte lanak izugarri miretsi izan ditut beti, eta elkarrekin adiskidantza gozoa mantentzen saiatu naiz orduz geroztik.

ESTATU BATUETAKO BIDAIA

Uda hartan ingelesa zertxobait ikastearren, Ipar Ameriketarako hilabeteko bidaian apuntatu nintzen, beste ezagun batzuekin. Eta Los Angeleseko aireportuan lurreratu ondoren, beltz bat izan zen ikusi nuen lehen pertsona, erratza eskuan zuela. Familia amerikar batekin suertatu zitzaidan egotea San Clementen.

Goizetik, etxekoekin gosaldu ondoren –esnea zerealekin eta arrautzak plantxa gainean oliorik batere gabe–, ama amerikar benetan eder eta atseginarekin, bi alaba eta hiru semeekin hondartzara jaisten ginen. Han, uhin erraldoiak hartzen zituzten hamasei eta hamalau urteko bi seme surflariak eta hango mutil luze eta sasoitsuen tamaina eta garaitasuna ikusirik, orduan ohartu nintzen benetan nire ttipitasunaz. Aitak

arratsaldean, lanetik itzultzean, judo pixka bat egiten zuen lorategian (Nixonen bizkarzaina izana zen) eta gaztelaniaz *gaita de fole* deitzen dena ere jotzen zuen, arbasoak Eskoziakoak zituela oroituz.

Furgoneta batean, amak Utahn familiakoren bat bisitatu behar zuela-eta, hantxe joan ginen Estatu Batuetako mendebaldeko desertuetan barrena. Bidean gurpilak hondatu zitzaizkion furgonetari eta tailer batean konponarazi zituen, baina haserrez sinatu zuen tailerrak erakutsi fakturaren txekea. Indio erdi-abandonatuak ikusi genituen sakabanaturik eta gasolindegi inguruetan; Arizonatik ere pasatu ginen, Colorado ibaia, *Grand Canyon*a, eta Estatu Batuetako presidenteen aurpegi erraldoiak harrian zizelkatuak. Desertuko haizeek airean eraman ez gintzaten, nahikoa lan izanik gidari nintzela batzuetan, Las Vegasera iritsi ginen. Han, hotel bateko piszinan igeri egin, freskatu eta garbitu ondoren, ama amerikarra eta biok jokalekura sartu ginen, makinetan zoria tentatzera, baina Fortuna jainkosa ez zebilen gure alde gau hartan.

Egun batez, Los Angeleseko Museo Modernoa (*Los Angeles County Museum of Art,* LACMA) ikusteko aukera paregabea izan genuen. Antzinateko arte asiriarra, egiptoarra, greziarra, erromatarra, Kolonaurrekoa… eta modernoen artean zenbait koadro ahantzezinak: Diego Rivera, Pablo Picasso, Henri Matisse, René Magritterenak… Nola zitekeen hainbeste balio neurrigabeko ikusgarri hantxe dastatu, harri eta zur, txunditurik gelditu gabe…

Beste batean San Franciscora joan ginen. Hango txinatar auzotik autobusez iragan ginen. Euskal Etxera joan nintzen eta errenteriar amerikataratu batekin euskaraz hitz egiteko aukera izan nuen. Baita zarauztar batzuek zabaldutako jatetxe batean beste bidaialagun batzuekin paella on bat dastatzekoa ere, eta ondoren etxeko semearekin, haren beribilean kaleetako aldapa goiti-beheitietan nire lehen porroa erretzekoa. Lehen film pornoa ere ikusi nuen, baina ez nuen iraun denbora luzerik aretoan.

Berkeley Unibertsitateko Bibliotekan ere izan nintzen, eta Donibane Lohizuneko Eskolako XVII. mendeko zenbait euskal liburu ikusteko aukera ere izan nuen. *Departamento de Español* delakotik pasatu nintzen eta bertako liburu espezializatuen eskasiaz ohartu ere bai. Campusean jendea biziki libre ikusten zen, eta baziren multzoak, jendea predikari inprobisatuen inguruan pilatuta, bat-batean oihuka hasten zirenak…

Sausalitoko portura eraman gintuzten eta hantxe ibili ginen dendaz denda, eta erabat ernegaturik eta susmo txarrez geratu nintzen, urte batzuk barru euskal kostako portu ia birjinak berdin, *giriz* beteta, egon zitezkeela pentsatuz.

Party batera gonbidatu ninduten, eta kanariar batzuei, nire bizarrak nonbait ez zien graziarik egiten eta halako batean gustu txarreko txantxa bat egin zidaten, zeren atzetik bultzatuz piszinara –*pezinara* arabar hizkuntza zaharrean– bota ninduten. Ez nuen benetan oso gogoko izan ekintza hura, baina borrokalari onen gisa jasan behar izan nuen detailetxoa, arratsalde osoan toalla bat luzituz, eta baita zenbait kanta eder kantatuz ere, aldamenean ni baino helduagoa zen bizkaitar neska bat neukalarik.

Itzuli nintzenean hausnartu nuen han gera zitezkeela Estatu Batuak estatubatuarrentzat, paisaia miresgarri haietatik aparte, amerikar konstituzioak jasotzen zuen hura salbatzen nuelarik: …*that all men are created equal, that they are endowed by their Creator with certain unalienable Rights, that among these are Life, Liberty and the pursuit of Happiness…* Gizonak oro berdin sortuak dira, Sortzaileak besterendu ezinezko eskubide berberez hornitu ditu, eta horien artean daude bizitzarako, askatasunerako eta zorionerako eskubidea. Hala bada, noizbait proposamenik izan dudanean (Rose Frank, Gregorio Monreal) edo tentatu izan nautenean Renoko Unibertsitatera joateko, ezezkoa eman diet, batzuk Estatu Batuen liluraz baldin badoaz, nire ustez Europan aurki daitekeelako Unibertsitate eta ikasteko sistema, irakasle hoberik. Erbesteko euskaldunekin, diasporakoekin topatzeak Iowan, New Yorken edo beste nonbait ez baita benetan beti interesgarria, ez bada Mario Salegi edota Joseba Gabilondorekin…

BERRIRO PARISEN

Soldaduskara joan behar bainuen derrigorrez, eta nahita nahiez urrian, iraila ongi aprobetxatu nahi izan nuen eta Parisera joan nintzen berriro, bertan topo egin nuelarik Mikel Peziña eta Lasarekin. Ez naiz oroitzen azken honen izenaz. Badakit honek Rue Cassetteko bere gelatxoan onartu ninduela gau batzuetarako libera batzuen truke, zeren

lehen aldiz bainengoen Parisen sos batzuekin, Institutuan zaindutako azterketa batzuk ongi ordaindu baitzizkidaten. Garai hartan ohikoak ziren *chambre de femme de ménage* edo neskame gela horietakoan, seigarren solairuan eta igogailurik gabe, baina adin hartan axola gutxi. Malakoff auzoan bazen euskaldun talde bat etxe batean bizitzen, OASeko batena izana zena edo, lorategi eta guzti. Metroa urrun zegoen, baina bertako giroa hain zen berezia… Oroit naiz nola *dictée*, frantses diktatuak egiten genituen frantsesez trebatzeko. Maspero liburu-dendaren garaiak ziren, eta entzuten genituen liburu-konfiskatze kontuak; ezkertiar hark hainbeste apal hustu ondoren, peko erreka jo zuen, tamalez.

Pariseko Liburutegi Nazionalera ere joaten nintzen. Hantxe erreserban ikusi eta ukitu nuen lehen aldiz Bernat Etxeparek idatzi eta argitaratu euskal lehen liburuaren ale bakarra, *unicum*a, François Morpainen etxean, Bordelen 1545ean inprimatua: *Linguae Vasconum Primitiae*…. Ezagutzen nuen lehenagotik RIEVen (1933) Julio de Urquijok plazaratu faksimilea, baina gauza ezberdin bat sentitu nuen altxor bakan hura eskuetan ezarri zidatenean. Kopiatu nituen zenbait eskuizkribu ere, bi xaribari, besteak beste, arkatzez soilik, geroago ASJUn emango nituenak.

Filmen bat edo beste ikusi, pasealdi batzuk egin hirian, liburu-denda batzuk arakatu, eta erabat liluraturik geratua nintzen. Eta horrela bueltatu nintzen etxera.

Itzuli eta lehenik Donostiako Nazioarteko Zinemaldian Helenarekin hainbat film ikusi nituen. Egunen batean bost pelikula ikustera iritsi ginela uste dut. Azkenerako irudi guztiak nahas-mahas zebilzkidan buruan, eta ez nintzen oroitzen egunaren buruan goizeko lehen filmaren argumentuaz. Eric Rohmerren *Le génou de Claire*k irabazi zuen Urrezko maskorra. Ez zen erabaki erraza, lehiaketan bai baitziren film ederrak, hala nola Claude Chabrolen *Juste avant la nuit*, Robert Altmanen *Brewster Mc Cloud*, edota Andrei Kontxalovskiren *Dyadya (Osaba) Vania*. Laurence de Monaghan eta Béatrice Romandek jaso zuten saria, zuzendariak ez baitzuen gogoko festibaletan agertzea. Garai hartako kazetek jasotzen dute, orobat, Vittorio Gassmanek jaso zuela aktore onenaren saria, txistu artean, Mario Monicelliren *Brancaleone alle crociate*n jokatu rolagatik. Itxiera-zeremoniara joandako ikusleen umore eskasa. *Arte y Ensayo* deitzen ziren aretoen, eta *Cahiers du Cinéma*ren garairik hoberenak ziren, antza.

SOLDADUSKAN 1971-1972

HOGEITA bost urte beteak eta lana zuenarentzat soldaduska egitea denbora alferrik galtzea zen. Hamabost hilabete igaro behar, teknikoki bizpahiru aski direnean han egiten denaz jabetzeko. Teorikak eta praktikak deituak erakusten zizkiguten han. Formazioan behar bezala errenkan jartzen, pausoa behar den zangoaz hasi eta luzatzen, erritmo jakinari jarraiki, hotzak eta beroak behar bezala pairatzen ikasi. Arabako lautadan zegoen Arakan konpainia batean beste ehun bat pertsonarekin lo egin armairutxo baten ondoan. Dutxa eta komunak irekiak. Azken hauetan kontu handiz zaindu beharra zegoen batik bat buruko txanoa, denbora guztian kontrolatua edukiz, bestela lapurtzeko arriskua baikenuen, eta formazioan hura gabe agertuz gero, zigorra segurtatua baikenuen… Furriela izaten zen posturik garrantzitsuenetarikoa, hark hornitzen baitzizkigun arropak eta burdin-jantzi kontuak. Botak, galtzak, gerrikoak, alkandorak, xamarrak, gorrak, mantak eta soldaduaren *atrezzo*arekin zerikusirik zuen zernahi gauza. Zorte ona izan nuen, zeren eta Errenteriatik adiskide nuen Karlos Uranga "Zazkarro", baitzegoen furriel funtzioetan.

Txorta berriak *conejo* batzuk ginen, eta zaharren harropuzkeriagatik *novatada,* txantxa dexente sufritu beharrean aurkitzen ginen, baina honetan ere nire adina zela edo ez dakit beste zein arrazoirengatik, ez nuen sufritu behar izan demasiarik.

Urbasako mendietan mando eta morteroekin maniobrak eta tiro saioak egin genituen. Mandoak gaixtoak ziren benetan, soldaduen gaiztakeriek okertuak, eta ostikoka hasten ziren gaizki tratatuz gero. Halako batean, ia mortero bat sudurraren puntan lehertu zitzaigun, ez baitzen hasieran atera eta bazirudien berotasunarekin *bum* egitera zihoakigula, lehena bertatik erretiratzen sarjentu galego maltzur erreengantxatu bat izan genuelarik. Bukatutakoan, bada, eta *Jura de la bandera* delakoa ere egindakoan Bentetako kuartelera bidali gintuzten. Pozik, beraz, etxetik gertu izango baikinen. Hemen ere zorte ona izan genuen, zeren aldameneko herritan bizi ginenei *pase pernocta,* etxean lo egiteko baimena eman baitziguten, horrela kapitainak gure arrantxoaren, bazkariaren eta afariaren kostua bere poltsikora pasatzen zuelarik.

Gure karnet berezia ere bagenuen. *Tarjeta de identidad de tropa. Unidad. Rgto. C.M. Sicilia 6º Bon. Colón XXIV,* 1972ko urtarrilaren 11n *El jefe del Cuerpo*k sinatua.

Atletismoko taldean eta eskubaloikoan sartzeko aukera eman zidaten eta nire dohain edo ahalmen edo ez dakit zerengatik libratzen ginen zenbait betebeharrez. Horrela joaten ginen, ni aski kaxkarra izan arren, baina ez denetan azkena, Burgosera eta Tolosara Beotibarko atletismoko pistetan korrika egitera. Bazen garai hartan korrikalari on bat gure artean, Bixente Artola, kroslari aparta, denborarekin Aimar Olaizola eta beste pilotari handien masajista bilakatu dena.

Otsailaren 6an larunbata zen. Helena, Isabel Sese eta bere laguna eta ni, laurak joan ginen Miarritzera *Le dernier tango à Paris* ikustera. Bertolucciren filmak arrakasta handia izanen zuen. Bertan bi pertsonak, bata heldua, Marlon Brando, eta bestea gaztea, Maria Schneider, harreman sakon, sarkor, esperantzarik gabean, elkarren izenik ere jakin gabe aurkezten baitziren. Sexuaren eta komunikaziorik ezaren inguruko irudi haiek, harreman bitxi haiek hunkitu gintuzten.

Mugan denbora luze samarrean eduki gintuzten arren, ez nuen pentsatzen zer gerta zitekeen, ohikoa baitzen, baina etxeratu nintzenean, jakin nuen anaia mugan atxilotu zutela bere emaztearekin beste aldera zihoanean. *El Caso*k hurrengo egunean ekarri zuen Bizkaiko ETAko Frente Militarraren arduradun bezala hartu zutela preso.

Eskubaloian trebeenetakoa bainintzen, Irungo Lasallen jokatu izan genuen edota Loiolako kuartelean, emaitza aski onekin. Dena den, kirol honetaz arduratzen zen teniente mozkor baten eskutik sekulako masailekoa jaso nuen behin, horretarako inolako meriturik egin gabe. Halako bidegabekeriak maiz gertatzen ziren kuartelean.

Iritsi zen une bat non hain sufriezina bihurtu zitzaigun bertako giroa, ezen baimenak lortzeko edo eskakeatzeko prest baikeunden gehienak, eta neroni ere bai, zernahi gauza asmatzeko, egiteko eta burutzeko. Hala bada, uztailaren batean ezkondu egin nintzen Helenarekin eta hogei eguneko baimena eman zidaten. San Ignazio elizan, Groseko auzoan ezkondu gintuen arreba Marikrutxen etxean bizi zen Doroteo Esnaolak eta Donostiako Orfeoiko soprano batek kantatu zigun *Ave Maria.* Bazkaria Oiartzungo Gurutze ostatuan ospatu genuen. Abioia arratsaldean

goiz ateratzen zen; beraz, adiskideak (Juan Karlos Rodriguez, Itziar Arana, Isabel Sese, Mikel Elorza, Elena Etxart…) eta familiakoak utzi, agur kanta bat abestu, eta hantxe joan ginen biak Hondarribiko aireportura. Bartzelona, Mallorca, Ibiza eta Formenterara. Azken uharte honetan bizikletak alokatu eta laster zeharkatu genuen batetik bestera. Siesta orduan, Alejo Carpentier kubatar idazlearen *El siglo de las Luces* irakurri nuen. Hondartzan jendearekin futbolean aritzen nintzen, eta 73 kilora jaitsi nintzen. Gogoan dut hori, geroztik ez baitut sekulan lortu balantzaren markagailua zifra horretaraino beheratzea.

Eztei-bidaiatik itzulitakoan, Josean Gurrutxaga adiskide onak galdetu zidan ea nahi ote nuen Jaizkibelen egon soldaduska egiten, zeren eta bere aitak, Gipuzkoako Diputazioko mendi-guarda zenez, zaindariak lortzeko aukera baitzuen. Nola ez, erantzun nion, horrela etxetik gertuago egongo bainaiz, eta nazkatu samar nago, gainera, kuarteleko giroarekin. Halaxe, bada, hasi nintzen Jaizkibelen Militarren Borda zaintzen. Etortzen ziren soldaduak maniobretara eta batzuetan guardia zibilak ere tiro-saioak egitera; ¿podemos disparar? galdetzen zidaten, eta nik erantzuten, *sí, hombre, sí.*

Hiru soldadu geunden zerbitzu hura egiteko. Goizeko zortzietan, puntu-puntuan telefonoa hartu, Loiolako zenbakia markatu, eta *Aquí, Jaizkibel, sin novedad,* esatea zen lanik garrantzitsuena. Iraila eta ikasturte berria iritsi zenean itun isil bat egin nuen beste bi kideekin eta nik borda asteburuetan, larunbat eta igandeetan zaintzen nuen bitartean, beraiek astegunetan. Horrelaxe, beraz, denak kontentu. Nik, batik bat astegunetan lortu bainuen berriro lanera, klaseetara itzultzea. Lehen bi asteetan Zumarragaraino joaten nintzen; han Baleriano Yartza Salamancako ikaskidearekin egin nuen topo. Hala ere, lortu nuen nire herriko plazako etxebizitza berrira hurbiltzea, eta, Joaquín Forradellasi esker, Errenteriakoan hasi nintzen, Erviti nafarraren zuzendaritzapean, bertan urte mordoxka eman nituelarik.

Eskuizkribu plazaratu gabeen artean, edo hobeto esatearren, makinaz jota daukat testu zahar bat garai honetakoa dena, Mikel Elorzarekin batera egina, Donostiako sari batean sariztatua izan zena, *Zenbait mitoren desegitera* titulua daramana, eta Roland Barthesen hitz hauek aipatzen ditu hasieran: *Mitoa mintzatzeko modu bat da*. Aitzinsolas batez eta bukaerako material zenbaitez at, hiru kapitulu nagusi ditu: a)

Apologistak eta hiztegigileak XVII. eta XVIII. mendeetan, b) Xaho eta nazionalismoa, eta d) Abandoko maisuarengandik Arantzazuko Biltzarrera. Denborarekin gai hauek hobeto eta sakonago aztertuko nituen.



Irudia 29: Sekulorun Sekulotan.

Nire liburu zaharrei begiradatxo bat ematerakoan, ohartu naiz *Sekulorun Sekulotan (nobela)* Kriseluk argitaratu bazuen 1975eko otsailean, bukaeran idatzita duela, …*borrokak espero dik… Jaizkibelen, 1972-ko irailean.* Ramon Saizarbitoriak moldatu aitzinsolas luze eta interesgarria dauka. Gogoan dut makinaz jotako testu hura Gabriel Arestiri erakutsi niola Durangoko Ferian, aski harrituta gelditu zelarik ikusteaz nola lerro guztien amaierek koadratzen zuten eta orrialdea mantxa errektangular perfektua zen, hitzen bukaerek beste lerroaren bidea hartu bazuten ere. Garbi zegoen, Alain Robbe-Grilleten *Pour un nouveau roman* (1963) *Por una nueva novela* gaztelaniazko bertsioaren eragina. Eta Saizarbitoriak zioen bezala, *Eser zaite, beraz, eta idek lehendabiziko orria. Belarri handi bat somatu behar duzu. Zure inguruan eta Urkizurenean apurtua, zatitua, pitzatua, izorratua, agerian eta ezkutuan dagoen errealitatea entzun eta ikusi behar duzu…*

Gizartearen ahots ezberdin haiek modu kaotiko batean entzuten ziren, ia inolako ordenamendurik gabe, ez ikur ortografikorik, ez koma, ez puntu, hauetarikoak kapitulu amaieretan salbu. Kontatzen ziren pilota-partiduetako tantoak, Ameriketako eta Italiako bidaiak, euskal

baleazaleek Ternuako indioekin asmatutako *lingua franca* hura, geroago doktore tesian agertuko ziren Pierre d´Urteren *Dictionarium latino-cantabricum* eskuizkribuko zenbait hitz eta definizio, borroka-ixtorioak, … hitz batean, testu eta panfleto kaotikoa, inguratzen ninduen mundua nire barrenean sentitzen nuen legez; eta halaxe inork gutxik konprenituko zuen eta eskandalu-harri zen bilakatu, edota, gure etxean Errenteriako lankide zen Teresa Sanchezekin ikasturte batez bizi izan zen Joxanjel Tamaio adiskidearentzat, gau irakurketa loarazlea.

Liburuxka honen muina bezala kontsidera nezake *Egan* aldizkarian 1976an *Gaztarrotz* ezizenez Juan San Martinek argitaratu zuen *Muga* ipuina, 1972ko *Gure Xokoa Alkartea*k Bera Bidasoako Pio Baroja sarira aurkeztua. Mitxelenari aditu nion, bera epaile izan baitzen, aztertzea oso ona ala txarra zen jakiteko, duda-mudak argitzearren, denborak luze joko ziela eta erabaki zutela *aipagarria* kontsideratzea eta saria Luis Haranbururen ipuinari ematea.

Gabriel Arestirekin, Donostiara etortzen zenean biltzen ginen Lur taldekoak, eta hala oroitzen naiz nola behin Gipuzkoako Plazan kokatua zegoen Bidasoa tabernaren arkupetan egon ginen; Ibon, Enrike, Gabriel, besteren bat eta ni, besteak beste. Urteko programazioa taxutzen genuen han. Testu klasikoren bat (Joanes Leizarraga, *Euskal protestantismoa zer zen*, Bilboko Liburutegian letra maiuskulaz Gabrielek osorik kopiatua (1971); Jakes Oihenarte (Zibitze, 1821 - Uharte-Amikuze, 1859) behenafarraren *Kaniko eta Beltxitina* (1971), Joanes Etxeberri Sarakoaren *Lan hautatuak* (1972), testu marxistaren bat (Marx, Engels, Fanon,…) eta sorkuntza-lanak. Gogoan dut nola Mario Onaindia Cáceresen kartzelan zelarik, Enrike Villarrek esan zuen, *bidaliko diogu Leon Trotskiren biografia, ea pixka bat internazionalizatzen den.* Hark *Louis Bonaparteren Brumaire-aren hamazortzia* itzuli zuen eta 1973an plazaratu Lurren, Frantses Iraultzako itzultzaileek jada beren kalendrera errepublikanoan egokiago itzulia zuten *Brumaire-Lanhote* gisara

Gabrielek zioen kantu festibaletara gonbidatzen zutenean bere ahots hautsi harekin ez zuela deus egitekorik euskararen erabileran artista zirenekin konparatuz gero, hala nola Joxan Artze "txamana"rekin, Xabier Lete oiartzuarrarekin edota Benito Lertxundi oriotarrarekin, baina aurkitu zuela soluzioa. Natxo de Felipe eta Oskorri taldearekin joaten zela eta horrela orekatzen zirela konparazioan eta balantzaren orratza bere alde ezartzen.

Behin *Lur* taldeko batzuk, 1972ko udazkena izango zen, Baionara joan ginen beribilez Euskal Museoan hitzaldi bat ematera konbidatu baitzuten Aresti. Espresuki egun horretarako testu bat prestatu zuen, nahiko ausarta eta gogorra. Anjel Zelaietak aipatzen du *Gabriel Aresti biografia* liburuan (Susa, 2000, 197-198) eta komentatzen nola *Euskaldun burjesak eta euskaldun proletarioak jo-muga berberak ezin dituzketela…* eta bukatzen *zuek biok, Sabino eta Txabi, zuek arranoak, ni usakumea, oraino hegaz ikasi ez dudana, zuek haitz-artean, ahuntz saltokariak harrapatzen zenituzten, ni berriz, akerrek ere bere adar okerren artean hartzen naute.* Natxo eta bere Oskorriko kide emakumezkoek zenbait poema kantatu zituzten, oroitzen ez dudan izeneko neskaren ahotsa izugarri gustatu zitzaidalarik. Hala ere, ez zen gertatu hitzaldi- eta kanta-emanaldi hura eztabaidarik gabe, zeren eta Jokin Apalategi eta Maite Idirin hantxe atera baitzitzaizkion sutsu kontra, azkenean enbataren uhinak baretzen nahiko lan izan zuelarik Museoko zuzendari zen Jean Haritschelharrek.

1973ko Aste Santuko oporretan eguzki pittin baten bila joan ginen Benidormera. Nire lehen eta azken aldia izan zen. Hotel xume batean, oraindik eraiki gabe baitzeuden gerora sortuko zituzten hodei-orratzak. Hondartzan atzerritar batzuk, alemanak gehienak, beren hilobia, hobeto esan zuloa prestatzen zuten eguzkia bertan sartuta hartzearren eta haizeak altxatzen zuen hondar ale zirikatzailetarik ihes egiteko. Jakin genuen, egunkaria irakurrita, Eustakio Mendizabal, "Txikia", Ostegun Santuan, apirilaren hemeretzian hil zutela Algortan. Iritsi zen bada Pazko eguna, Aberri Eguna, eta hondartzan ibili eta bainatu ondoren hotelera joan ginen bazkaltzera. Bazkari guztia arrautza bat, arroz kikara bat eta postretarako laranja bat izan zen. Nire harro puntua asaldatu egin zen etxean ospatzen genuen bazkariarekin konparatuz eta erabaki genuen Segoviako kartzelara joango ginela anaia bisitatzera. Han ohikoak ziren zaindarien *hablen en español,* eta horrelako mezuak, eta tripetako mina gaindituz eta beti elkarrekin euskaraz mintzatu ginen anaiek gaztelaniaz mintzatu behar izaten genuen, kartzelazaina inguratzen zitzaigunean. Ez genuen izaten denbora askorik agurrak eta ohiko desio onez aparte, politikaz sakon mintzatzeko.

Gogoan dut orobat 1973ko udan lehen aldiz Londresen nola izan nintzen. Joxan Arretxe, Elena Sanz, Helena Adrian eta laurok, Joxani ai-

tak utzitako beribil ederrean. Despentsarako ere urdaiazpiko zango eder bat oparitu zion. Calaisetik igaro ginen, ohitu ere ezkerretik gidatzen autopistetan besteak eskuinetik igarotzen ziren bitartean. Halako batean, gasolinarik gabe ere gelditu ginen, baina laguntza ere ez zitzaigun falta izan auto-stop egindakoan. Londresko kaleak, autobus eta telefono kabina gorriak, British Museum, British Library, Museum of Science, Tate Galery (William Turnerren itsasoek, ekaitzek, ilunabarrek txunditurik utzi ninduten), Piccadilly, Hyde Park, … gauean zerbezak bukatuz txintxarriak jo arte, eta kanpinera abiatu aurretik. Beraz, esperientzia zoragarria. Gazteak ginen eta ezer gutxirekin konformatzen. Oxfordeko Unibertsitatea eta William Shakespeare teatro-gizon eta poeta handiaren sorterria eta jaiotetxea Stratford-upon-Avonen ere bisitatu genituen mirespenez.

Urte hartako gertakizunik garrantzitsuenetarikoa Luis Carrero Blanco, Espainiako gobernu presidentearen hilketa izan zen, abenduaren 20an, Claudio Coello kalean, ETAk buruturiko *Operación Ogro* deituan, *Comisiones Obreras*ko hamar partaideren kontra *Proceso 1001* hastera zihoan egun berean. Egia esan behar bada, magnizidio hark ez zuen jendearen kontzientzia morala gehiegi astindu ez eta kezkatu ere orokorrean, pozik hartu baitzuen, Euskal Herriko jende askok eta askok bederen, hala nola PCko zenbait militante ospetsuk, Donostian ekintza hori jauzi kualitatiboa zela kontsideratuz. Bazen Fray Luis de Leónek Portocarrerori eskaini poema hura irribarretsu oroitarazi zuenik ere:

A don Pedro Portocarrero

No siempre es poderosa,
Carrero, la maldad, ni siempre atina
la envidia ponzoñosa,
y la fuerza sin ley que más se empina
al fin la frente inclina;
que quien se opone al cielo,
cuanto más alto sube, viene al suelo.

Nire oroitzapen lanbrotsuen artean dago anaiari Carabanchelen egin nion bisita ere. Nola geletara sartu baino lehen, kanpoan zebilen ijito mordoa suaren inguruan beren txalo, dantza eta *cante jondo.*

Jose Muñagorri, "Joselito", soldaduskan zegoen lagunari esker, izan ginen Helena, Teresita eta neu Rafael Conte literatur kritikariak utzi zigun etxean. Haren liburutegia benetan ona, oparoa eta interesgarria zen, batik bat XIX. eta XX. mendeetako autoreei eta literatur kritikagintza frantsesari zegokienez.

*ABC*ren hemeroteka jarraikiz –memoria baino fidelagoa baita gauza batzuetarako, 1974ko uztailaren 11n bizitza kulturala dela-eta, Donostian Eduardo Chillida eskultoreari bezperan egin zitzaion omenaldia, CATek eta herri sozietateek antolatua, aipatzen da. San Telmo Museoko elizaren areto handian 300 afaltiar bildu zirela. Udaletxeko eta Aldundiko eta *Ministerio de Información y Turismo*ko ordezkari eta arduradunekin ekitaldiaren buru Txillida bera izan zelarik. Txillidak nola esan zuen, apaltasun guztiaz, omenaldiak bere meritu guztiak gainditzen zituela, bere lana euskaldunen izpiritua ahanzturatik salbatzea baizik ez baitzen izan. Gogoan dut afari hura, zeren Lur-ekoek gonbidaturik bertan izan bainintzen, Gabriel Aresti, Ibon Sarasola eta beste batzuekin. Komentatu nuen zortzikotea eskasa iruditu zitzaidala, baina komentario hau ez zuen begi onez hartu Ibonek. Bukatutakoan gogoratzen dut nola *Basque* kafetegian zerbeza batzuk edaten egon ginen, gaua ederra eta giroa aparta baitzen, eta nola bi Gabrielek, Arestik eta Zelaiak, karlistadez eta euskararen gorabeherez eztabaidatu zuten edo aipatu zituzten. Aitortu behar dut, baita ere, ez dakit orduagatik ote zen baina solasa ez zitzaidala batere goi mailakoa iruditu.

Paper zaharren artean aurkitu dut testu bat *Kolax* 1974 izenekoa, non Iraultzaz elkarrizketa eta bertso batzuk ageri diren. Stalinen karkaila handi batez bukatzen da pastoraltxoa. Gogoan dut ez zela saritua izan, Arestik une batez laudatu arren, baina ez dut inolako asmorik antzerki tipi hura inoiz argitaratzeko.

Mila bederatziehun eta hirurogeita hamabosteko urtarrilaren bederatzian Urtzi jaio zitzaigun *Nuestra Señora del Pilar* ospitalean. Egun batzuk lehenago amets egin nuen, beltxaran eta begi beltz borobilak izanen zituela. Poz handia izan zen niretzat, bederen, eta uste dut Helena eta bion familia osoarentzat ere bai. Ospitalera alderdikide politiko guztiak joaten zitzaizkion bisitan, baina nabarmen zen ez zirela asko, taldetxoak, KB-UC, Komunisten Batasuna–Unificación Comunista, Donostia inguruko jarraitzaile gutxi batzuk besterik ez baitziren, eta ez

zuen iraungo denbora luzean desegin gabe, edota partaideak beste talde handiago batera pasatu gabe.

Franco hil baino hiru egun lehenago atera zen kartzelatik Joseba. Garai hura bizi izan dugun denok oroitzen dugu nolazpait, eguneroko *el parte médico habitual.* Jendea zain zegoen noiz emango zuten heriotzaren berri, zeren eta hainbeste aldiz entzuna eta esana zen *ya viene la vuelta de la tortilla,* non aspalditik espero baitzen galiziarra desagertzea, batzuk jada hilezkor zela sinestera ere iritsiak baziren ere.

Egun berean topatu nuen Donostiako Konstituzio Plazan *Astelena* tabernan, non izkina bakoitzean partidu politiko bana kokatzen zen trapuzar-pintxoa eta kroketak janez eta txakolin txinpartatsua edanez, Jose Manuel Castells, beti lagun ona izan eta benetan estimatzen dudana. Edan genuen hilaren ohoretan, eta esan zidan nola Zuzenbide Fakultatean izanak ziren Dekanoaren bulegoan eta esan zioten bertan zintzilikatua zuen Francoren fotografia kentzeko, eta nola ez zen ausartu egitera, beraiek buelta eman ziotela paretaren kontra zigortuz. Festa handiak izan ziren bazter guztietan eta ez Euskal Herrian bakarrik.

Urte ona izan zen, beraz, 75a, eta diktadorearen ehorzketarekin esperantzari irekia, eta nire sorkuntza- eta ikerketa-lanak hor zeuden berpizten ari zen euskal literaturaren barnean. *Euskal Teatroaren Historia* Kriseluk argitaratu zuena, *Agora* sariaren irabazlea eta Gabrieli eskainia *samintasunaz*. Haren azken eta hamargarren kapituluaren titulua *Euskal teatro berri baten bila* deitzen zen; bertan Roland Barthesen hitzei jarraituz, nioen ezen *mitoen kritika razionala nahitanahiezko arma dela antzerti desalienatu bat eraikitzeko. Beraz, kritiko baten lana dela burgesiaren zerbitzupean dauden antzerki motak desenmaskaratzea, eta antzerti desalienatu horrek nolakoa beharko zukeen adieraztea*, eredugarri ezarriz *Els Joglars* katalan taldeak Anoeta frontoian 1974ko abenduan jokatu zuen *Alias Serrallonga* izeneko ikuskizuna.

Halaber Patxi Aldabaldetrekuk, Jose Ramon Rekaldek eta Karmelo Urdangarinek moldatu liburuaren itzulpena burutu nuen: *Deba. Euskal kosta nuklearra.* Lehenago literatur kritikaren terminologiarekin borrokatu behar izan banuen, oraingoan fisika nuklearrarekin suertatu zitzaidan, eta errepaso ona eman nien eskura neuzkan hiztegi guztiei. Urteak pasata lan hura berrikusten dudanean, konturatzen naiz nahiko hutsune zituela, noski, euskal moldaketak, irudi eta grafikoei zegokienez batez ere.

Errenteriako Institutuan jarraitzen nuen *Lengua y Literatura Española* deituak irakasten, mintegian Migel Sagues, Mikel Arregi eta beste suertatu zitzaizkidalarik. Euskara oraindik ofiziala ez zen arren, goizero zortziak eta laurdenetatik bederatziak arte irakasten nuen euskara poxi bat dohainik. Elixabete Perez Gaztelu eta Idoia Jauregi izan nituen ikasleen artean. Garbi zegoen etorkizun handiko neskatilak zirela, benetan ikasle zintzo, on eta azkarrak, bat gaur egun Deustuko Unibertsitatean baitago eta bestea Euskadi Irratian lanean.

Euskal Kultur Asteak antolatzen hasi ginen eta haietako batean Manuel Lekuona, Oskorri eta beste etorri zitzaizkigun. Urtaroez eta euskal festez mintzatu zitzaigun On Manuel. Agurtu nuelarik galdetu zidan –*Zein da zure grazia*? Eta nik duda unetxo baten ondoren: *–Ah, bai, Patrizio Urkizu, Lezokoa*. *–Badakizu zer zioten garai batean Lezoko baserritarrez astelehenetan feria zela-eta Oiartzunera joaten zirenean?*. *–Ez, nola, bada?*. *–Bitakoak*, *alegia; dakizun bezala oso garrantzitsua da jakitea uztarrian lotzean behia ezkerra ala eskuina den. Ba, Lezokoek beti esaten omen zuten, bitakoa zela animalia*. Bazuen ziri-puntua kontuak, zeren eta aste hartan kantatu zuten gorritzat jotzen ziren Oskorri taldekoek ere, Natxo de Felipe buru zela, eta abizenak hain fama txarra zuela, Donostia inguruko abertzaleen artean. Xabier Azurmendi, garai hartan ikastolan klaseak ematen zituena, greziar mitologiaz eta euskal ipuinez aritu zitzaigun.

Nire gutundegi partikularrean baditut hiru gutun Tübingenen datatuak (1976-VI-4, 1977-V-4, eta 1983-V-3). Hauetan Hans Scherteck hizkuntzalaria, Manuel Agudek iradokirik, nigana zuzentzen da euskara ikasteko asmoz. Familia euskaldun bat behar zuen euskara-munduan pulunpatzearren eta egunero bi ordu eskainiko zizkion irakasle bat. Hitz egin genuen eta Zubitxo kalean bakarrik bizi ziren nire gurasoak prest izan ziren familia aleman hura errezibitzeko. Pozik zeuden senar-emazteak, nahiko leku ere bai baitzuten bost eta sei urteko neska-mutikoentzat. Irakaslea ere aurkitu nion. Luis Manterola, *Mantte*, irundar itzultzaile eta adiskidea, eta hain gustura geratu ziren non errepikatu egin baitzuten hurrengo urtean. Hans Tübingeneko Unibertsitatean irakasle izan zen eta liburu hau plazaratu zuen alemanez: *Strukturen Baskischer Verformen* (1984), eta gaztelaniaz euskal lexikografiaz zenbait artikulu ere *Fontes Linguae Vasconum* delakoan, geroago. Garai hartako anekdota bitxi bat badaukat, zeinetan ageri den aleman ohituren eta

izatearen adierazle. Anoeta frontoia non zegoen galdetu zidan, Xabier Letek kantatu behar baitzuen han. Eta non zegoen esan niolarik, hurrengo egunean esan zidan joanak zirela eta ez zela izan kantaldirik. Nik erantzun nion baietz, eta galdetu ea zer ordutan joan ziren. Berak erantzun zidan, goizeko hamarretan….

Euskaltzaindia zen garai hartan euskara tituluak emateaz arduratzen zen erakundea, oraindik ez baitzegoen Euskal Herriko Unibertsitaterik. Aurkeztu ginen bertara, eta azterketa egiten ari nintzelarik Alfontso Irigoienek galdetu zidan ea zergatik nintzen han, eta nik erantzun nion, inoiz ez dela jakiten noiz eta non eskatuko dizuten instituzioetan paper ofizial bat. Berak erantzun zidan ez zuela inolako azterketarik egin. Burutu nuen eta 1976ko azaroaren 3an J.J. Zearreta, Batzordeko idazkariak, honela idatzi zidan: *Agur t'erdi. Atsegin zait aditzen ematea, D mailako irakasle titulua lortu duzula. Mahaipuruaren erabakiz zure kalifikazioa OSO ONGI izan da…*

1976ko martxoaren 3an Gasteizen triskantza izugarria gertatu zen Zaramagako auzoan zegoen San Frantzisko Asiskoaren elizan. Grebalari eta manifestariak elizan sartu ziren babesleku gisara, baina ministroa zen Manuel Fraga Iribarnek agindua eman zuen tiroka hasteko eta ondorioz bost hil eta ehun eta berrogeita hamar zauritu gertatu ziren. Hemeroteketan aurki daitezke jaso ahal izan ziren polizien arteko elkarrizketak: *Charlie a J1, Charlie a J2, Charlie a J3, dile a Salinas que hemos contribuido a la paliza más grande de la Historia. Aquí ha habido una masacre. Cambio…*

Polizien hitzek ez dute iruzkin beharrik. Halakoak ziren garaiak. Manifestazioak non-nahi eta poliziengandik ihesi denbora guztian. Beldurra eta asaldamendua nabari zen bazter guztietan. Ez da harritzekoa, bada, kontutan hartuta 82 ETAko kide edo bazirela kartzeletan sakabanaturik Espainiako hamahiru kartzela ezberdinetan. *Berriak, Semanario vasco de Información* bere lehen alean (1976-IX-16) portadan agertzea *Amnistia Denontzat* eskaera, eta orobat poliziak Hondarribian hildako Jesus Mari Zabalaren fotografia.

Zuzendaria Eduardo Magallón zen eta zuzendariordea Jazinto Pérez Iriarte, institutuko nire lankide zen Mari Karmen Navarro Bartzelonakoarekin ezkondua eta nire seme Urtziren adiskide handiak izango ziren bi semeen ama: Unai eta Alex. Egitura aski borobila zuen errebistak.

Jazinto iruindarra zen eta oso profesional ona, *La Voz de Españ*an ere aritua. *Berriak* astekariaren karga nagusia berak eraman zuen, 1976ko irailaren 16tik, 1977ko apirilaren 20an kalera irten zen azken alera arte (30. zenbakia). Bide horretan zenbat ez ote zuen sufritu, ideia eta aldarte ezberdinetako jendeak lanean ezartzen. Berehala hasi ziren agertzen pintaldiak Donostiako egoitzan: *Cochinos separatistas.* Bonba- eta hilketa-mehatxuak ere jaso zituzten zuzendariak eta zuzendariordeak, *Orden Nuevo Adolfo Hitler* komandoak sinatuta…

Urte berean beste bi astekari ere sortu ziren. Bata, *Garaia,* Donostian, eta bestea, *Punto y Hora de Euskal Herria* Iruñean. Lehena, 1997ko apirilean desagertu zen arazo ekonomikoak ere bazituelako, eta bigarrenak, Mirentxu Purroy zuzendari zuelarik, eta 1977ko irailaren 5ean *Triple A*k jaurtiki bonbaz erredakzioa suntsitu arren, 1990era arte iraun zuen.

*Berriak*eko euskal ekipoan lan egiten genuen Anjel Zelaietak, Martin Berasainek, Luis Haranburu Altunak, Mikel Arregik, eta nik. Artikulu labur eta luzexkak plazaratu nituen bertan. Liburu-erreseinak eta nekrologikoak, hala nola: *"Inprimategia eta euskal lehen liburuak"*, *"Euskara eta iraultza frantsesa (1789-1795)"*, *"Elekzioak Ipar Euskal Herrian duela ehun urte (1881)"*; *"Bertsolariak, Xalbador joan zaigu", "Antonio Arrue hil da"*, *"Irakaskuntzako pariak, peneneak"*, Euskararen etorkiaz eta kaukasiar hizkuntzekiko ahaidetasuna zela-eta, Ilia M. Tabagouaren iritziez, Jon Juaristiren *Euskararen ideologiak,* Kriselun 1976an argitaratu saioaz…

Aipatzen nituen liburuen berrietan, Undeground estilo sakon, ironiko eta benetan euskal senari dagokion fineziaz beterikakoa zen *Zorion ustela*, Koldo Izagirrek eta Ramon Saizarbitoriak zuzendua. *Ziutateaz* (I), (II) Bernardo Atxagak *Kriselu* argitaletxean plazaratu 20, 21 aleez (1976) komentarioa burutu ondoren, bertako teknikak eta jenero ezberdinen apurtzeak, eta zenbait iturri aipatuta (Gabriel García Marquez, Mario Vargas Llosa, Miguel Ángel Asturias, Fiodor Dostoievski, James Joyce…), honela bukatzen nuen: *Besterik gabe gure idazle gazte honi bizitza ugaria opa diogu jarrai dezan bide berriak urratzen euskal kultur eta literaturaren onerako eta ohorerako…*

Bertso zaharren txokoan eman nituen *Zumalakarregiren kantia*, Iturriagak eginikoak lehen karlistadez, *Muñagorriren kantak*, Nafarroako

bertsolari andere baten bertso berriak 1830. urtean eginak *sazerdote* batek egin zion haurraz. *Txikitoka*, Zuberoako ohitura zaharraren eran, ziri gordin eta kritiko zenbait bota izan nituen eskuineko kontserbadoreen kanta ohikoak zirela eta, hala nola modan zeuden haiek, *Gorriek ez dute deustako balio, bakarrik bakarrik izorratzeko…* Eta halakoxeak. Dena den, Jon Zabaletaren *Xua, Taka eta Klok* marrazki poetikoek, irudimenez, fineziaz eta graziaz beteek artikuluen astuna arintzen zuten maiz.

Hala bada, ene uste apalez Euskal Herriko lau hiri nagusietako egitura garestiegia zela-eta, hasieran hogeita bost mila ale saltzeko asmoek porrot eginen zutelakoan, edo ez ziotela etekin politiko handirik ikusten, kontua da 30 ale bakarrik plazaratu zituela, aldizkari zenbaiten bizitza galkorra, luzapen handirik gabekoa, baieztatuz.

Giroa urte haietan aski gogorra zen, eta halaxe adierazten du Imanol Esnaolak idatzitako *Lezoko Euskararen historia soziala* liburuak (1999), baina bertan esaten diren eta baieztatzen diren zenbait gauza zuzendu beharrekoak dira. Adibidez, dionean: *Ezkerreko joera zutenen artean ere ez ziren gora-beherak falta izan. Euskal Herriaz zuten ikuspegiaren arabera nabarmenak ziren diferentziak. Agustina Pontestak zuzen-zuzenetik ezagutu zuen egoera hau eta horren adibidetzat jartzen digu Imanol abeslariari gertatutakoa: Liga Comunista Revolucionariako jarraitzailea zenez, eta honek marko politikorako espainia (sic) hartzen zuenez, espainolista zela leporatuz, harrika bidali zuten Lezotik kantaldi batean.* Ez dakit zer urtetan eta noiz gertatu zen hori, baina garbi dago Imanol ez zela izan *Liga Comunista Revolucionaria* taldekoa. Egia da ETAn izan zela garai batez eta geroago harremanak izan zituela KB-UCkoekin baina ez zen izan, inoiz, nik dakidala, Ligakoa. Bestalde, harrika inor bidaltzeak ez du merezi izenik, edo ez naiz ausartzen hemen esatera.

Halaber, dioenean Doroteo Esnaola izan zela ikastolari eragozpenak jartzen saiatu zena. Doroteo lazkaotarra zen, bere anaia-arrebak bezalaxe (Leonardo, Demetrio, Teresita…) eta denak euskaltzale handiak izan dira eta inoiz ez ikastolaren kontrakoak. Eta hau dela-eta, historia triste bat kontatzera noa. Une batez gertatu zitzaidan gau-eskoletan euskara emateaz gain, ikastolako juntakoa izatea. Bertan zegoen Patxi Larrea ere, antzezlaria, dantzaria eta harakina, eta egun batez esan zigun institutuan lanean ari ginenok herriaren kontra ari ginela. Beste batean,

nire harremanak zirela-eta, bi lizentziaturen izenak eskatu zizkidaten, tituluak eta irakasle onak falta baitziren ikastolan. Bi izen eman nituen: Maixus Zugasti, Salamancan lizentziatua, eta Arantxa Urretabizkaia, hau *Lur*-eko kidea. Hasieran Arantxa Urretabizkaia onartu zuten, titulua baitzuen, baina komisario-edo batek –kontatu zidatenez eta ez naiz gogoratzen izenaz, baina Lezora kanpotik etorritakoa inondik ere–, ez dakit ze informe mota eman zion Markos Zabaleta apaiz zegamarra zen ikastola zuzendariari, zeren honek, edo honen aginduz beste norbaitek, ez nago seguru, Arantxak dagoeneko bi aste lanean gustura eginak zituela, eta haurrak ere pozik, hilabeteko soldata poltsikoan sartu eta bidali egin zuen esanez: *ez etorri gehiago hemendik*. Arantxaren bizitzako disgusturik handienetako izan zela uste dut. Noski, abertzale batzuengan nuen fidagarritasunak ere peko erreka joa zuen, antza denez.

[Hau idatzita daukadalarik *Berria* egunkariak (2014-VIII-17) Miel Anjel Elustondok Arantxari egin elkarrizketa dakar bi fotografirekin, non aski begirada tristea daukan, eta besteren artean Pamielak argitaratuko dion errelato biografikoan dioen: *Hurrengo urtean Patri Urkizuk Lezoko ikastolan lana inguratu zidan. Lanean hasi eta astebetera, gurasoak etorri zitzaizkidan; tartean, ama bat, nire gelako ume baten ama. Bailarako bilera egin zutela esan zidaten, eta Egiako ikastolatik bota nindutela jakin zutela, eta ezin nuela nik han lan egin, lotsagarri zitzaiela…*]

Bestalde PNNen borrokan jarraitzen genuen, hau da, irakasleen lan-baldintzak hobetzeko lanean, hala nola euskara Institutuetan eta Irakaskuntza ofizialean sartzeko ahalegin guztiak egiten. Lankide nuen Jose Antonio Meokik *ORT En lucha, Proletarios de todos los países y pueblos oprimidos unámonos,* zeritzan eta goiburua zuen aldizkariaren 1977ko apirilaren 3ko alean zioenez, bageneramatzan Estatu osoan hilabete eta erdi huelgan, zeren hirurogei milatik gora baziren irakaskuntza ertainetan inolako egonkortasunik gabe ez lan kontratu zehatzik gabe zihardutenak. Gogoratzen dut, orobat, nola *Triunfo* aldizkaria besapean genuela gelditzen ginen zitetarako probintziako hirietan, institutuetako borroka-bilerak antolatzeko eta kontsignak aurrera eramateko. Bazen orduan aldizkari elebidun bat ere, *Irakasle* izenekoa, non itzulpen-lantxo batzuk ere egin nituen. Eta oroit naiz nola behin Usandizaga Institutuan gau osoa itxita igaro genuelarik, kantaren bat asmatu genuen eta irratian eman: *Peneneak, peneneak, otso beltzaren aurkako…*



Irudia 30: Dorrejilko kanta.

1977ko uztailean Kriselun plazaratu nuen *Askatasunaren alde erori diren eta borrokatzen ari diren guztiei* eskainitako poesia liburua, *Dorrejilko kanta,* aste honetan Susak ezarri duena Interneteko sarean komentario honekin:

> *Dorrejilko kanta, nekeen balada*. Patri Urkizuren senak, ezagutzak eta inplikazioak sortutako *Dorrejilko kanta* (Kriselu, 1977) herri xehearen nekeak islatzen dituen balada dela esango genuke gaur egun. Balada, kantore edo erromantze, kantagarri bat dugu inondik ere lan hau, ahozkotasunaren tradizioan kokatzekoa, Arestiren hainbat lan poetiko bezala: gure lirika zaharrak bideratua da. Alabaina, frankismoaren aurkako borrokaren gorienean kokatzen da Urkizurena: zanpaketa, heriotza, kartzela… eta esperantza handi bat, suminduraren adinakoa. Erreforma esan zaion iruzurrak Euskal Herrian ekarri zuen desengainuaren eta sufrimenduaren isla da Dorrejilko garrasia, poema bakarra osatzen duten lauko txiki guztiak lotzen dituen kontzientzia harro baten ahots herrikoia.

Baina ez ote zuen egileak eskubiderik liburu hori gehiago ez argitaratzeko, edo baimena Kriseluk baldin bazuen, eskatu ote dio Susak, edota nik liburuttoa zuzentzeko (grafiak, morfologia, egitura…) eta beste poema batzuekin poesia-liburu mardulago bat ateratzeko asmoa izan

badut, zer egin dezaket orain? Lehen gauza ez ote zen galdetzea sortzaileari ea nahi ote zuen edo interesatzen zitzaion berrargitaratzea edo baimena eskatzea, bederen?

Bada errebista bat *Renteria. Amnistia* titulutzat daramana, Euskadiko *Amnistiaren aldeko batzordeak* sinatua eta besterik gabe, aurkezpena ekaina 1977an egina duena eta honela hasten dena:

> Maiatzaren 12an eta hurrengo egunetan berri hunkigarriak sortu ziren Euskal Herritik. Berriro Erandio, Gasteiz, Jurramendi, Hondarribia eta hainbeste lekutako gertakizun tragikoak; berriro "ordenaren" indarrek herriaren kontra tirokatzen eta bizitzak mozten zituzten. Eta berriro ere Euskadiko herri osoa altxatzen zen adierazteko greba orokorraz eta kalean, bere elkartasun ikaragarria eta bere borroka gogoa…

Hilen eta zaurituen zerrendak ageri dira bertan, eta haien artean ageri da nire lehengusu txiki bat, errenteriarra, 62 urte zituela tiroz hila bere etxeko balkoian: Gregorio Maritxalar Aiestaran. Barrikada- eta manifestazio-garaiak ziren eta haietan oihukatzen genuen: *Herriak ez du barkatuko… Cuerpos represivos disolución (al paredón)*. *Eusko gudariak gara Euskadi askatzeko…*

Beste aldizkariak, uztailean datatuak, *Gogoan har dezagun* lematzat daukanak, Errenteriako asanbladaren ikerketa-lana izan zenak, Germanen (Iruñea, 1978-VII-8) eta Joseba Barandiaranen (Donostia 1978-VII-11) gorpuen eta barrikada baten fotografiak dakartza kontrazalean. Errenteriako asanbladaz at, Donostiako auzoen borroken gorabeherak ere (Larratxo-Alza, Herrera, Intxaurrondo eta Astigarraga) badakartza. Baita ere *Panier* aldetik, hau da, jatetxe ospetsutik, Oiartzun ibaiaren beste aldetik hartuta polizia batzuek gozotegi batetik pastelak nola lapurtzen zituzten erakusten duen argazki bat ere. Balirudike ezen Martín Villak baimen osoa eman ziela Miranda de Ebrotik etorri ziren FOPeko indar gosetu basatiei eta bortizkeriaz ezin asetuei zernahi gauza egiteko.

Oroitzen naiz grebak benetan orokorrak izatera iritsi zirela. Goizean goiz ateratzen ginen etxetik eta pinudiren batean biltzen ginen, haren babesean hegan zebiltzan guardia zibilen helikopteroek kontrola ez gintzaten. Batzuetan, Lezotik Oiartzuneraino joaten ginen, oinez noski, eta hantxe ezkutuan hasten zen bilera. Askotan Rafa Egiguren, gerora poeta

eta txinerako itzultzailea izango zenak zuzendua. Lehenbizi inguruko enpresen egoeraz informatzen zen. Zein zegoen paroan eta zein ez, eta haietara joan behar zen ala ez laguntzera, langileek beren erabakia har zezaten. Eta probintziako eta beste herrialdeetako albisteak kontatu eta ongi ausnartu ondoren, erabakitzen zen greban jarraitzea edota uztea, erabakia Errenteriako Eliza Nagusiaren aurrean egingo zen asanbladan hartzeko.

Luis Haranburuk urte batez Irun Sariak zirela eta *Caridad* izeneko nobela aurkeztu zuen eta saririk irabazi ez zuenez, eta argitaratzeke gelditu, euskarara itzultzeko eskatu zidan eta horixe egin nuen, gero M.A.k zuzendu zuelarik eta orraztu. Oso harrera ona izan zuen, Txuma Lasagabazterrek hitzaldi batean laudorioztatu baitzuen eta Karlos Santistebanek beste gauzen artean honakoa zioen:

> Irakurri dudan azken liburua Luis Haranburu Altunaren "Caritate" izan da, eta ezin gera naiteke sorterazi didan mirespena nolabait adieraztera eman barik. Irudimenaren mundu malgua da hain zuzen eskaintzen zaiguna etenik gabe. Imaginazioaren ostatuan aritzen da jo eta ke hitzaren mailu trebe den Altuna. Esan beharreko oro soineko hegalariz hezurmamiturik aurkitzen dugu, eta ezin, alferrik, jaietako jantzirik bilatu, oro dagerkigu adierazpidearen estalki berritsu. (Zeruko Argia, 1980-I-20, "Caritate": irudimena nagusi).

Iruzurraren partaide izan al ginen? Sosak ongi etorri zitzaizkigun familia aurrera eramateko eta, jakina da, gainera, beltzen tradizioa luzea dela literaturaren munduan. Haranburuk baten ordez bi zeuzkan, gutxienez.

Sanferminetako historia odoltsua ere aipagarria da, eta ez bakarrik zezenek hildakoengatik, zeren eta 1978koetan guardia zibilek Germán Rodriguez hil baitzuten manifestazio batean. Duela gutxiko *Argia* batek (2014-VII-20) oroitarazten zigun gertaera eta azpimarratzen nola 36 urteren ondoren senideek ez duten inolako azalpen ofizialik jaso eta epaileek ez duten inor zigortu.

Haranburu editorialean 1978an gaztelaniaz argitaratu nuen lehen liburua, batxilergoko ikasleentzat prestatua, *Lengua y Literatura Vasca* deitua, *Koldo Mitxelena maisuari* eskainia zen. Bi parte zituen. Lehenengoan hizkuntzaren sarrera ematen zen, eta bigarrenean euskal litera-

turaren historia, testuen bidez, testuok euskaraz eta gaztelaniaz zeudelarik. Poesia, teatroa, nobela, saioa eta bestelako generoak aipatzen ziren modu xume eta xaloan. Joxe Azurmendik *Egin* egunkarian, 1978ko azaroaren 19an, igandez, artikulu bat aski interesgarria atera zuen erreseina moduan-edo nire liburuttoa aitzakiatzat harturik, titulu honekin: *Saioa dela-eta, euskal literaturan.* Noski, Montaigne aipatzen zuen, baina baita Axular, Etxepare, edota Mitxelena ere…

Oroitzen naiz zuzenketak egiteko, garaian modan zegoen analisi morfosintaktikoa zuhaitzen bidez ilustratzea eta inprentara agudo iristearren, Bilbon baitzegoen, Luisek utzi zidala bere beribila, diseinu futurista zeukan Citroen markakoa, tiburoia deitzen zen haietakoa. Aurkezpena *Juanito Kojua*n, Donostiako Parte Zaharrean egin genuela ere bai, Juan Ignazio Paul Arzak adiskideak, gerora Zubieta aldera bizitzera eta Nafarroako gauzez arduratua, *Eibarko sozialismoa* aurkeztu baitzuen kazetarien artean. Tartean Juanito San Martin ere hantxe zegoen. Liburuak Itxaropena argitaletxean Zarautzen moldiztegiratu ziren.

Bestalde *Ministerio de Educación y Ciencia* delakoak egina zuen deialdia (1977ko otsailaren 17ko Ordena), zeinetan zenbait Institututako plaza gelditzen ziren *Concurso de Oposición Libre,* Oposizio Libreko Norgehiagokarako. Ohi bezala Jauregiko gauzak mantso baitoaz, Matilde, Koldo Mitxelenaren emazteak errepikatu ohi zuen bezala, Bilbon egin genituen eta gainditu… Gogoan dut *encerrona* deitu proban–kontatzen zutenez, bat baino gehiago urduri jarrita leihotik salto eta azterketatik ihes egina zela–, *Literaturas catalana, gallega y vascas actuales* izan zela gaia, eta prestatzeko informazio gisa zenbait liburu erabili nituela, hala nola Germán Beilberg eta Julián Marías irakasleek *Revista de Occidente*rako prestatu *Diccionario de Literatura Española* (4. ed. 1972) delakoa. 1978ko uztailaren batean eman zen behin betiko erabakia eta nire izena zerrendan ageri zela, Itziar Michelena eta Miguel Sagües eta beste anitzen artean. Eztabaida franko gertatuak ziren PNNen artean oposizioetara joan ala ez joan, boikot egin ala ez, eta alternatiba gisara lan-kontratu zehatz bat eskatu. Baina gauzak zeuden bezala, beti irakaskuntzan behatzez eginiko izendapenak baino bidezkoagoa zela epaimahai zuzen eta aditu batek kontrolatzea eta plaza probak egokien egiten zituenari ematea, pentsatzen genuen. Noski, gerora ere plazadunaren lana behatzaileek kontrolaturik, erosotasunak, utzikeriak eta alferkeriak kutsa ez ditzan.

Nire Lezoko etxeko ganbaran liburu zaharren artean duela gutxi begira ari nintzela, garai hartan idatzitako soneto bat aurkitu dut, *Euskal poetak eta artistak G. Aresti-ren omenez* deituan agertzen dena, eta hona ekartzea bururatu zait une hartako oroigarri gisara:

HARRIZKO HAMALAUKOA GABRIEL ARESTIRI

Non-nahiko taberna zuloan zure bozak
Aspreki, solasetan oro zuen lehertzen;
Gero, kaleetan zehar zinen paseiatzen,
Haizatuz memorietako ezin pairatu lotsak.

Gazte kezkatioi zure ele garratzak
Zorroztasun bidea zigun adierazten,
Non diren benetan beharrak oroitarazten,
Nola jo dituen euskal herriak zigor gaitzak.

Alabaina, bizi ezinaren eskoletako
Zelaietan zenbiltzan soil, eta armaturik
Dialektikaren suaz usua askatzeko.

Gaur, elurra urtu da, belztu da tristaturik
Karrikan haurtxoari negarra baitario,
Eta estratak odolez baitaude gorriturik.



Irudia 31. *LEZOKO INDEPENDIENTEAK*
1979ko lehen hauteskunde demokratikoetan. Beheko ilaran lehena eskuinetik: Patri Urkizu, alkate hautatuko zutena.



Irudia 32: Korrika 1981. Lekukoarekin neu.

V

LEZOKO ALKATE

1979-1983

MIGEL ANJEL BASURKOK, Institutuko adiskide mutrikuarrak, *Burumendi* futbol-ekipoko *alma mater* izanak, eta Erlijioa irakasten zuenak, *el padresito de los botines de oro, Copa de Libertadores* ospetsuan Ekuadorren gol famatua sartu zuen Juan Manuelen anaiak, kontatu zidan Udaletxeetarako lehen hauteskunde demokratikoak konbokatu zituztenean, Mutrikun nola organizatu ziren talde independenteak. Horrek Lezon gauza berdintsua antola genezakeela pentsarazi zidan, eta zenbait pertsonarekin bildurik (Mikel Arrizabalaga, Joxan Arretxe, Jose Manuel Toledo…), **Lezoko Independienteak** kandidatura aurkeztera animatu ginen.

Errenteriako Institutuan ikasketaburu izendatu ninduen sortzez errenteriarra eta Historiako irakasle zen Maite Gabarain zuzendariak, eta ahaleginak egin genituen bertan euskara lan-erreminta eta ikasgai izan zedin. *Literatura Española*ko irakasle gisara iritsi zen Beatriz Monreal donostiarra, eta idatzia du hor nonbait bere bizitzako lan-ordutegirik hoberena izan zuela, eta bertan aurkitu gintuela Mikel Arregi eta biok, *jóvenes, guapos, pelotaris, poetas, parecían sacados de cualquiera de las novelas de Baroja ambientadas en el País Vasco.* Beraz, horrelako lankideekin ez zen batere zaila lan egitea eta Institutuak halako garai gogor eta gatazkatsuetan ongi funtzionatzea. Droga-giroa ere bazen non-nahi eta zenbait gazte kanpotik ikastetxeko barrutira etortzen zirenean inoiz gertatu zitzaidan handik kanpora bidali behar izatea eta taldeko harroxkoenari *¿Lo rajamos?* entzutea.

Lezoko Independienteak bezala aurkeztea erabaki genuen, bada. Lehenik, galdera batzuk herriko elkarteen artean banatu genituen beren ustetan herriak zituen behar nagusiak zein ziren zehazki jakin nahiz. Erantzunen arabera programa labur bat prestatu genuen eta Joxan Arre-

txeren laguntzaz, berak irudiak eta nik bertsoak jarriz, kartel eder batzuk prestatu genituen, eta bere osaba Iñaxito Intxaustiren inprimategian argitaratu genuen. Bilera batean bozkatu genuen ea nor izango zen zerrenda-buru, eta nire izena agertu zenez aldeko gehien zituena bezala, onartu beharra gertatu zitzaidan aukera demokratiko hura.

Iritsi zen botazio eguna eta gogoan dut nola *Unidad, periódico de la tarde,* mugimenduaren prentsa izan zenak zinegotzi bat soilik aurreikusten zuen gure kandidaturarentzat, baina, aurreikuspen anitzen balio eskas eta ezdeusa frogatuz, lau lortu genituen. EAJk bost, EEk hiru eta EMK-k bat. Ni atera nintzen hautatua zortzi botorekin, EAJkoek bere hautagai Mikel Susperregiri aukera eman ziotelarik. Pello Garbizu izango nuen ordezkoa, hau da teniente alkate, eta, EE desagertu ondoren, Pello izan da Lezoko Udaletxean urte gehien iraun duena, alkate ere izan delarik, EAJren ordezkari gisara. Munduaren eta pertsonen jirabirak!

Imanol Esnaolak honela laburbiltzen du lau urteko lana aipatu liburuan:

> "1979: Patri Urkizu izan zen aro honetan demokratikoki hautatutako lehen alkatea eta berak eman zituen euskara udal bizitzan normaltzeko lehen urratsak. Lehen egunetik plenoak euskaraz egiten hasi ziren, eta ulertzen ez zuenari besteren batek itzultzen zion "eta aurrera", halaxe dio Patri Urkizuk berak. Horretan idazkariarekin arazoak zirenez, aktak eta gainerakoak euskaratzeko eta behar bezala jartzeko itzultzaile bat kontratatu zuen udalak. Euskal Herri osoan aro honetan udal lanetarako hartutako lehen itzultzailea Lezoko udalarena izan zen. Eta geroztik euskarari ordura arte izan ez zuen edo ukatu zitzaion lekua emateko urratsak hasi ziren: akta guztiak euskaratzea, jaietako programak elebitan, UEUra joateko laguntzak, ikastolarentzat ere bai, lanpostu berrietan euskara balioestea… "Gure neurri apalean ahal genuena egin genuen" honelaxe laburbiltzen du Patri Urkizuk urte haietan egindako lana. Bere iritziz "oso bide naturala izan zen, ez genuen arazorik izan. Aurrekontuetan ere euskarari egin genion lekua, eta honetan adostasuna zen gure artean, alderdi guztien artean" (EAJ-PNV, EE, EMK, Independienteak)."

Baina ez ditzagun gauzak hain azkar pasa eta barne-historiari apurtxo bat begira diezaiogun.

ETAk Lezon 1976ko martxoaren batean Emilio Gezala hil zuen polizien salatari izatea leporatuta. Albaitari-lanetan aritua zen baina azken aldian Hondarribia-Donostia autobusean inspektore-lanetan zebilen. Nire gurasoen etxebizitzaren gainean bizi zen, Zubitxo kalean. Eta gauza bera Rafael Rekaola ere, lehengusu txikia nuena, 1978ko urriaren 2an hila, Orbegozo fabrikan lan egin ondoren bere motoan zihoala, salatzaile zelako aitzakiaz. Bestaldetik 1980ko urtarrilaren 16an GAE *(Grupos Armados Españoles)* taldeak Amnistia batzordekoa zen Karlos Saldise hil zuen.

Udalbatza berriaren Lehen Biltzar Nagusia (1979-IV-20) hasi baino ordu erdi lehenago joan nintzen areto nagusira eta hantxe ikusi nuen Jesusen Bihotza goitik begira apal batean. Bi aldiz pentsatu gabe hartu nuen eta alkatearen eserlekuaren atzean zegoen gortina baten gibelean zegoen hutsune batean laga nuen; lau urtez egon zen bertan, beste herrietako eztabaida antzuetan denborarik batere galdu gabe. Honakook osatu genuen lehen udal demokratikoa dei genezakeen hura: Alkate: Patri Urkizu (Lezoko Independienteak, LI). Lehen Teniente Alkate: Pello Garbizu (Euskadiko Ezkerra, EE). Kontzejalak: Mikel Susperregi (EAJ), Arantza Zeberio (EAJ), Sebastian Garmendia (EAJ), Ramon Zapirain (EAJ), Xabier Isasa (EAJ), Mikel Arrizabalaga (LI), Anton Ibarguren (LI), Julian Berasarte (LI), Markos Eizagirre (EE), Isidro Ormazabal (EE), Patxi Lazkano (EMK). Idazkari: Eladio Santander. Nik zortzi boto izan bainituen eta Mikel Susperregik bost. Aho batez onartu zen batzar hartan agiriak oro euskaraz eta gaztelaniaz idatziko zirela.

Gure seme Urtzik hiru urte zituen eta goizetan gosaltzen eman ondoren, nire adiskide Joana Mari Salaberriak zuzentzen zuen haurtzaindegira eramaten nuen. Gero Errenteriako Institutura joaten nintzen klaseak ematera, nire ikasketaburu lanak eta asignaturak jarraitzera, eta haiek bukatutakoan hamabietarako bueltatzen nintzen Lezora, herriko arazoak ahalik eta modurik hoberenean konpontzen saiatzera.

Egun batez gobenadore zibilak deitu eta esan zidan Udaletxeko balkoian zintzilik zegoen ikurrina ken nezala. Erantzun nion, aurreko Udaletxekoek erabakia zutela bertan ezartzea, eta nahi baldin bazuen konbokatuko nuela biltzar bat gaia tratatzeko. Erantzun zidan ezetz, ez zela beharrik. Baina egun batzuetara bonba bat lehertu zen Udaletxeko atarian, atea txiki-txiki egin zuelarik. Plazan bertan bizi nintzenez,

ohetik entzun nuen eztanda, eta jantzi ondoren, inguratu nintzen ea zer gertatu zen ikustera. Ertzainak hantxe zeuden eta hitz egin nuen beraiekin. Baita guardia zibilen artezilariarekin ere, zeinak esan baitzidan bera horrelako gauzen kontra zegoela erabat. Ikurrina balkoitik lapurtua zen, eta handik hilabete batera jaso nuen *Tintorería Garbi*tik pakete bat, ikurrina txukun garbitu eta plantxatua itzultzen zitzaigula.

*El Diario Vasco*k ohar bat ekarri zuen, izenburu honekin: *Atentado de Lezo: Condena de la Consejería de Administración Local.* Eta halako gertaera kriminalen kontra postura hartzeko kontseilaritzak zeukan erabaki sendoa azpimarratzen zuen, euskal gizartearen bizitza baketsuaren aurkako erasoak besterik ez baitziren.

Giroa ez zen batere lasaia eta hala, goiz batean, gurpilak zulatuak zituztela agertu ziren zenbait beribil, nirea besteren artean. Eta beste batean heriotzaz mehatxatzen ninduen *Batallón Vasco-Español* delakoak, postal batean. Berehala txiki-txiki egin, hautsi eta esku artean nituen gaiak tratatzera pasatu nintzen, barnean halako zimiko izugarri bat sentitzen nuela.

Mendekoste oroituz, Lehen Festak ere ospatu genituen ekainaren 2an, 3an eta 4an, hau da, larunbat, igande eta astelehenean. Gogoan dut –eta halaxe dio programak– larunbatean, gaueko 11etatik goizeko 4retara izan zela dantzaldia *Eskutik* orkestrarekin, eta gero, gazteek antolatuta, *Baratxuri Zopa*. Azken hau benetan penagarria izan zen, zikinkeria eta zaborra besterik ez baitzuen sortu eta goizean goiz kale-garbitzaileei aparteko ordu batzuk eginarazi genizkien, jaia ospatzeko garbi egon zedin.

Energia nuklearraren aurkako mugimenduak hedatuta zeuden Euskal Herrian, Lemoiz zela-eta. Donostiako Egia auzoan bizi zen Gladys del Estal Terreño hogeita hiru urteko neska José Martinez Salas guardia zibilak tiroz hil zuen Tuteran, Ebro gaineko zubi ondoan (1979-VI-4). Berehala biltzar berezira deitu genuen eta hautetsi guztiok aho batez kondenatu genuen ekintza basati hura.

Aurreko alkateak zigarro-puro kaxa bat utzia zuen alkatearen mahai gainean eta hura handik kentzea izan zen egin nuen lehen gauza. Alkate hark bazituen gasolina bale batzuk ere, alkatetza utzi eta gero ere erabili izan zituenak. Ezin nuen konprenitu nola egin zitekeen halako gauzarik. Halaber, *Acha* fabrikatik, Eguberriak zirela eta, opari batzuk iritsi zitzaizki-

danean, itzultzeko agindu nuen. Zuzentasuna eta behar bezalako portaera berreskuratzea nahita nahiezkoa zen, eta lehen egunetik entseatu ginen hori egiten. Kontratista eta etxegileak etortzen zirelarik, koadernoa atera eta esaten zizkidatenak apuntatzea izaten zen lehen gauza; horrek erabat harritzen zituen haiek. Beste batean, etxe bateko biztanleen ordezkariak ere iritsi zitzaizkidan esanez, *el administrador no nos deja colgar la ropa en el patio…* Haien ustez aski zen alkatearen hitza, arazoa konpontzeko.

Oposizio batzuk ere prestatu genituen, gai bakoitzeko adituak ekarriz; proba zenbait nire kabuz ere asmatu nituen. Horrela, bada, 1979ko uztailaren 6ko ohiko biltzarrean, honako langile berriak izendatu genituen aho batez: itzultzaile, euskara-irakasle eta liburuzain, Lourdes Pikabea lezoarra; aholkulari juridiko, Marta Armendariz abokatu ordiziarra; eta asesore tekniko, Xabier Garbizu arkitekto donibandarra. Hirigintzako komisioak nik zuzentzen nituenez, haren laguntza handia izan zen benetan niretzat eta asko ikasi nuen harengandik.

*Zeruko Argia*rako harpidetzea eta Udako Euskal Unibertsitaterako diru-laguntzak ere bideratu baikenituen, iruditu zitzaidan egoki izanen zela zerbait ikastera joatea Iruñera, Larraona ikastetxean ematen ziren hitzaldietara. Garai hartakoak dira zenbait eztabaida, lehenago adiskideak izan ziren Henrike Knörr eta Txillardegiren artean ofizialtasunaz eta Euskal Herriko Unibertsitatea zela-eta… Hantxe entzun nuen Andolin Eguzkitzaren testu-komentario bitxi bat Jon Miranderen soneto batez. *Hits* hitzarekin soilik beste mundu batera eramana zirudien, baina norbaitek zigarrotxo bat piztu zuenean jenio eta deabru guztiak sutan ezarriz, garrasika hasi zitzaigun. *Orhoituz (Poema guztiak)* tituludun liburutxoa plazaraturik zuen Kriselun 1976an. Geroago frogatu denez, aski arriskugarria da autore baten poema guztiak hor doazenak direla esatea. Joseba Sarrionandia ere hantxe zegoen Koldo Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca* irakasten. Eta Jon Casenave heletarra ere bai.

Azken bi hauek egun batez, une hartan sosez gaizki ez nenbilenez, Gazteluko Plaza ondoan zegoen *Europa* jatetxera gonbidatu nituen; eserita geundelarik, non ikusten dugun katedraleko kalonje bat sotana, kapelu eta guzti bertara iristen, eta, komentatu ere komentatu genuen ez zela han gaizki bazkalduko, halako pertsonaiak kapela buruan zutela sartzen baziren bertan. Janariari begiratu baino areago, oso ona izan arren, Sarrik esaten zituenak entzuten genituen gustura. Irakurketa-pu-

tzu sakon hondorik gabea zen. Eta erabaki genuen hilero behar genuela halako otordu literarioren bat egin Iparralde, Bizkaia eta Gipuzkoan; tamalez, ez zen bete.

Gauetan hantxe ibiltzen ginen kantu-kantari tabernaz taberna, zuzendari Luis Bandres eta Balere Bakaikoa genituela. Kanta nafarrak, xuberoarrak, abertzaleak, lizunak, orotarikoak… Gogoan dut, baita ere, nola egun batez Tuteran antzerki bat jokatzen zutelarik, Idoia Jauregi, nire ikasle kuttun izandakoa, une hartan Prentsa taldekoa zena, eta beste batzuk joan ginen hura ikustera. Nola antzezkizuna amaitutakoan oso solas aberatsa izan genuen, dantza, kanta eta afaria ere egin genuen, igela-zangoak ere probatuz. Berandu zenez, Ebro ibaiaren ondoan atseden pixka bat hartu eta goizean goiz abiatu ginen berriro gorantz, eta gosarirako iritsi ginen Larraonara.

Euskal Gobernu Berria sortu berria zen 1979ko ekainean zenbait elekzioren ondoren, eta bertako Lehendakari Karlos Garaikoetxea nafarra izan zen (EAJ) denbora labur batez *Consejo General Vasco* (1978-I-4) delakoaren Presidente Ramon Rubial izan ondoren. Lehen Gobernu hartan PNV, EE, PSE-PSOE eta UCDkoek parte hartu zuten… Aro berri baten hasieran geunden.

Uda hartan Helenak erabaki zuen betidanik gogoan eduki zuen Errepublika Sobietar Batasunera bidaia egitea eta halaxe egin genuen, bertako zertzeladak idatzitako ohar batzuez baliatuz egunkari antzeko bat idatzi nuen *Bidaiak* sailean irakur dezakezuna [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak ODESA 1979)].



Irudia 33: Atenas. Kariatideak.

1979an, Autonomia Estatutua onartu zelarik, beste dekretu batek (1979-V-10) euskarazko lehen katedrak institutuetan bideratzen ziren *(con el objeto de la progresiva incorporación de la enseñanza de la lengua y cultura vasca a los planes de estudio de Bachillerato se procederá a la creación de cátedras de Lengua y Cultura Vasca en los Institutos de Bachillerato)*. Koldo Mitxelenak prestatu zuen 59 gai ezberdinen zerrenda ahalik eta sakonen prestatzeari jarraiki geniona. Deialdiak honelaxe zioen, *Los ejercicios escritos se realizarán en Euskera Batua.* Epaimahaia honakoek osatu zuten: Buru, Koldo Mitxelena, Unibertsitateko katedraduna, beste laurak Batxiler Institutuetako katedradunak zirelarik: Rosario Igeregi, Lupe Artola, Agustin Zubikarai eta Ignazio Usabiaga. Proba batzuk pasatu genituen. Gogoratzen naiz tartean bazirela bi testu komentatzeko. Bat Iban de Tartas zuberotarraren *Onsa hilceco bidia* (1666) liburutik hartua eta bestea Bernardo Atxagaren *Ziutateaz* (1976) eleberritik.

BOEn agertu zen 1980ko irailaren bateko Ordenak honelako zerrenda eta ordena argitaratu zuen: Javier Quintana, Alfonso Irigoien, Patricio Urquizu, Jose Antonio Mujica, Juan Antonio Letamendia, Miguel Arregui, Javier Alcibar, Miren Egaña eta Javier Olarra. Bakoitzak zuen destinua, lan-lekua jada hautaturik. Nik Errenteriakoa aukeratu nuen, Hondarribia eta Donostia artean dudatan egon arren, baina nengoen lekuan jarraitzea erabaki nuen. Hamar hauetarik batzuek gero Unibertsitatera edo itzulpengintzara joko zuten, baina izan ziren batzuk, Mikel Arregi adibidez, Batxillergoko destino ezberdinei beti fidel eutsi zietenak.

Beraz, nire eguneroko lanak bazituen lau sail ezberdin: etxea (Helena eta Urtzi zaintzea), Institutua (bizirauteko beharrezko lana), Udaletxea (herritar gisara betebeharra, konpromiso politikoa) eta Literatura (ene afizio sakona). Halako batean, Jexux Ijurko etorri zitzaidan etxera eta *Argia*rako elkarrizketa egin zidan; nire izena portadan agertu zen, azpititulu honekin: *Patri Urkizu: Literatur Heterodoxoa eskaintzen.* (1980-XI-2). Hartan *Pott* eta *Oh! Euskadi* aldizkariak aipatzen nituen, baina baita *Igela* ere, Parisen Jon Mirandek eta Txomin Peillenek sortu *euskaldun heterodoxoen errebista.* Eta baita euskal idazle protestanteak ere: Joanes Leizarraga, Jakes Belakoa, eta Pierre d´Urte; XVI., XVII. eta XVIII. mendeetakoak. Eta nola ez, Astolasterrak …

Handik gutxira Carabancheleko presondegitik gutun bana bidali zidaten Juan Trecet lezoarrak, Errenteria eta Lezoko asanbladatan ezagu-

tu nuenak, eta Joseba Sarrionandia iurretarrak. Bertako egoera nolakoa zen adierazgarri kontsideratzen baitut, Treceten aitari laguntza ematen genion herri-lur batzuk utziz, barazkiak erein eta landu zitzan eta haien salmentez bizitzeko zerbait eduki zezan. Bizitzaren gorabeherak. Bazen ezagutu zuenik Lezoko prozesioetan bandera espainola zeramalarik estandarte gisara. Semearen gutuna ekarriko dizut hona, esan zidan.

Karabantxelen, 80eko azaroaren 26an

Kaixo Patri,

Zer moduz? Harrituta geldituko zara eskutitza hau hartzerakoan. Orain dela gutxi zuri egindako entrevista bat irakurri nuen "Argia" aldizkarian. Heterodoxiari buruz ez dakit ezerez, baina nobela eta ipui batzuk idatzi zenituela jakitean, ba nirekin dagoen zeldan eta ni, gustora hartuko genituzkela pentsatzen dugu.

Ni euskaldun berri izan arren, agian zaila izango zitzaidan baina, piskanaka eta hiztegiaren laguntzarekin, zer o zer egingo dut. Ikusten duzunez oraindik Karabantxelen gaituzte, lengo epaiketa, suspenditua izan zen, eta berriro egin behar dute urrengo Otsailaren hamazazpian. Eukitzen baduzu liburuak, eman nere aitari, eta berak ekarriko dit bisita batean.

Roilo hau aparte, hemen dago tipo bat lehengo urtean, eta Lezoko jaietan zurekin egon zena eta ikusiko duzun bezala hemen doa bere eskutitz bat.

Hematen duenez honek ere luzerako dauka asuntoa, lehenago ez bada itxaropen dugun gauza hori gertatzen. Horrela ez bada ere, nahiko osoak gaude eta iraungo dugu. Txape, berriz, hemendik urte bat eta erdira edo irtengo dala uste dut.

Frantses putakume horiek egin gintuzten putakeri hura sinetsezinezkoa izan zen. Gorrotatzen ditut, baina, baina…

Beno, Patri, bukatzera noa, ondo jarraitu eta gorintziak horko jendeei

Laister arte. (Esperemos)

Juan Trecet

Eta Sarri adiskideak *Carabanchel Palace*tik bidalitako gutuna, horiei dagokien sailean irakur dezakezu [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 3)].

Lezoko herriko festak hiru aldiz egiten ziren urtean zehar, baina urtean birekin aski zela erabaki genuen. Mendekostekoak eta Gurutze Santuaren omenez Irailaren hamalauaren inguruan egiten zirenak. Beraz, maiatzeko Santakrutz txikiak kendu genituen eta Santakrutz handiak bakarrik utzi. Sokamuturrak, harrijasotzaileak, aizkora-apustuak, bertsolariak, pilota-partiduak. Bazen orotarik. Eta idi-demetarako harrizko plaza prestatu genuen. Irazu izan zen pista egilea, Igeldoko harriarekin borobildu zuena. Bertan *Olatzar* baserriko nire lehengusu Agustin Sarasua "Patillas"ek bere seme sasoitsuekin parte hartzen zuen eta oso pozik zegoen beste baserritarrak bezala plaza berriarekin. Bertsolari, aizkolari eta horrelako giroko jolasak, ohiturari jarraiki, Fernantxo Intxaurrandietaren eskuetan utzi zituen Jaietako Komisioak. Eta pilota partiduak eta txapelketa etxanditarrenean.

Anjel Zelaietarekin banuen harreman txiki bat aspalditik *(Lur, Berriak),* eta halako batean, honako gutun bitxia jaso nuen bere bizkaiera bizian idatzia. Alkate jauna gisara tratatuz eta nobelaren bat prestatzera animatuz, bera Arestiren biografiarekin ari zela-eta… Post-datan esaten zidan nola Durangoko Liburuen Feria denboran batzar bat izan zen UEUko irakasleen artean eta nola idazkari nagusi zen Orbe apaizak esan zion ea osatzen zuten lau edo bosteko talde bat eta ni prest nengoen zerbait egiteko, bera Mikoleta prestatzen ari zela eta ni zergatik ez Bela (?), eta ezer egitekotan, guztiz premiazkoa ikusten zuela programa taxuzko bat agertzea publikoari.

Mila bederatziehun eta laurogeita bateko otsailaren hogeita hirua, 23F bezala ezagutua izan den eta *tejerazoa* deitu estatu-kolpearena, edota *Argia*n (1981-III-8) Errikotxiak sinatu bertso batzuetan zioen bezala *tejerada*rena izan zen. Ale berean, *Luma zorroztu* sailean, Mikel Hernandezen *olatu berria new wave,* artikulua musikaz, Mikel Antzaren *aupa nibolari,* eta nire *Ihauterietako hiztegia* agertu ziren.

Margarita Ricak eta Lourdes Oñederrak, aspalditxotik ezagutzen nituenak eta Iowa Universityn ikasten eta lanean ari zirenak, postal oso iradokitzaileak idatzi zizkidaten Ameriketatik. Ilargipean marinel bat badoa itsasoan kaiak batean arraunean. Geroago, Margarekin bizitzen

jarri nintzelarik (eta 83az geroztik elkarrekin jarraitzen dugu), makina bat bider gau hura oroitaraztean kontatu izan dit zenbat malko isuri zituen hango telebistan Tejerok Parlamentuan bota zituen tiroak ikusterakoan. Postal batean atso batzuk ageri dira bandera amerikanoa brodatzen sutondoan eta hona zer idatzi zidaten amultsuki:

> …Hemen gaude beste lagun batzuekin Iowa Cityko batzokian ikurrina brodatzen… ea kapitaina kantatzen hasten zaigun. Bueno, hobe dugu amets txoroak alde batera utzi eta datorren abendurako sagardotegiren batean gelditu (eta han kantatu). (Lourdes). Askotan esaten degu, ai Patri zein majo! Ez dago hemen horrelakorik, la, la, la! Besarkada haundi bat/ bi. (Marga).

Poztekoa, hain neska argi eta ederrek horrelakoak idaztea bati, ezta?

Mila bederatziehun eta laurogeita bateko martxoaren bederatzian Telesforo Monzon Baionan hil zen eta Bergaran hilobiratu zuten. Ezaguna nuen aspalditik. Behin Alfontso Otazurekin, *El Igualitarismo Vasco* liburuaren egilearekin bisita egina bainion, eta berak erakutsi zizkidan Mende Berriko etxean liburutegian zituen altxorrak. Erdi Aroko pergaminoak, XVI. eta XVII. mendeetako euskal liburuen edizioak, eta beste. Behin trenean ere topatu nuen Bordeleko bidean Urko kantariarekin batera. Honek, disko baten testuak zuzendu eta hobeto aurkeztu behar zirela esan nionetik, ez zidan bisita gehiago egin. Eta hau gaitz orokorra dela esango nuke, alegia, diskogintzan normalean oso arreta handia ezartzen dutela grabazioan, legezkoa denez, baina penagarria da ikustea testu aurkezpenean zein arreta eta ardura eskasa jarri ohi duten. Zein gutxi landuak dauden ortografia eta puntuazioa, zuzentasuna.

–Nahi duzu gurekin etorri Yeu uhartera, bertako errefuxiatuak ikustera?

–Joango nintzateke, bai, esan nien, *baina beste lan bat egitera etorri naiz, gure euskararen altxorra arakatzera liburutegian, ea egunen batean eskuizkribu horiek plazaratzen diren.*

Hitz batzuk ere egin genituen egoera politikoaz, eta euskal burgesiaren jokaeraz; Monzonek goraipatu egin zizkidan burgesiaren alde onak: *–Ederra da benetan burges izaitea*… Nire aukerak garai hartan euskal proletalgoarekin bat zirelakoan nengoen, eta Mably kaleko liburutegian

sartu nintzenean *rara avis*, intsektu arraro samar bezala sentitu nintzen, paper zahar haien hautsez elikatzen hasia bainintzen…

1981eko Santakrutzetan programa honako agurrarekin inprimatu zen, alegia, neronek prestatu bi bertsorekin; ondoren lehena bakarrik ematen dut. Bazen hautetsien artean EAJko bat, buruz ikasi zuena:

Lezoko herri guztiz maitea,
Hauxe da gure atsegina,
Jai nagusiak iritsi dira,
poza izkutu ezina.
Udaletxeko arazo denaz
Egiten dugu ahalegina,
Baina konponduko lirateke
Denak batuko bagina.

Errenteriako Institututik 1981eko irailean Donostiako Zurriolakora pasatu ginen irakasle batzuk, eta beste irakasle zenbaitekin topo egin genuen, hala nola: Aita Urrutia, Migel Sagues, Juan Albarez, Helena Adrian, Margarita Rica, Mertxe Berasain, Rosa Casares… Bukatuak ziren zentroetako funtzionamendu demokratikoen aldeko borrokak. Jada Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Kontseilaritzak izendatzen zuen Delegaziotik antolatzen ziren gauzak, Ignazio Zumeta apaizak inspektore lanetan jarraitzen zuen arren…, baina protesta eta manifestazio garaiak atertuak ziren.

1982ko Mendekoste jaiak, maiatzaren 29, 30 eta 31n ospatu ziren. Azken egunean Mitxelena oiartzuarra eta Lazkao Txiki bertsolari izan genituen eta gero elkarrekin bazkari eder bat egin genuen Tiñelun. Programan euskaraz Lezoko kale izendegiaz zenbait ohar idatzi nituen, eta gaztelaniaz ere eman nituen *"Notas sobre el nomenclátor callejero de Lezo"* (Guillermo de Lazon, Lope Martinez de Isasti, Francisco de Gainza, Eugenio de Ochoa, Elias Salaberria, Lexo bertsolaria, Maria Zapiain de Pildain, Agustina Lizarazu, Hipolito Gezala –ETAk hildako semearen aita organista eta Lezoko haurren solfeo-irakaslea– eta Antonio Pildain, Francok Kanariar Uharteetara erbesteratu apezpiku lezoarrari buruzko mikrobiografia batzuk eginez). Eta oso harrera ona izan zuen.

Hamaika mozio, eskaera eta aldarrikapen egiten genituen Udaleko biltzarretan, bai euskararen alde, bai bortizkeriaren eta okupazio-tropen

kontra, erbesteratu eta preso politikoen alde, hala nola haien familiei laguntzeko beren seme-alaben bisiten gastuak arintzearen alde, eta beste. Halaber izan genuen mozio bat, EMK-koa zen Patxi Lazkanok aurkeztua, emakumeek abortatzeko zeukaten eskubideaz, eta eztabaidatu eta beharrezko ziren argitasunak eman ondoren, zeren hautetsiren batek ez baitzekien zehazki abortua zer zen ere, onartu egin zen aho batez.

Beste gai eztabaidatsua izan zen Haurtzaindegiaren ardura Udalaren esku uztea, eta esan dezaket nire garaipenetariko bat izan zela, zeren hasieran ez baitzituzten gauzak oso garbi ez EAJkoek, ez eta nire taldekoek. Azkenean hain alde sutsu eta argudioz betea ikusi ninduten, non baiezkoa eman baitzuten.

Markesane, alegia, Udaletxearen aldamenean zegoen parkea, herriarentzat bilakatzea izan zen beste borroka handienetakoa. Kartagoko Markesarena izana zen lur zati hura, berrogeita hamarretan *Acha* Fabrikarena (*Aserraderos* eta *Chapas* deitua) izatera iragan zen arte. Enpresa horretako langile hautatu batzuk izanak ziren alkate ere. Nire amak bertan lan egin zuen nire arreba Marikrutxek hamalau urte bete zituen arte, honek haren lekua hartuz. Herrian jende askok lan egin zuen han, baina nagusiekiko negoziazioak ez ziren batere errazak izan. Eztabaida anitzen ondoren, azkenean ongi ordainduz, herriarena izatera pasatu zen lur sail hura. Lezoko historia oroitarazteko, tona mordoxka zituen, eta portuan abandonatua zegoen ainguratzar bat ezarrarazi nuen, garai bateko ontziolen sinbolo gisa. Gainera, kateak ipini genizkion Garbizu arkitektoak asmatu plataforman, antzinakoen eta gaurkoen artean katea ez dela eten adierazteko.

Erakundeek bazuten, aspalditik programaturik, Lezorako urbanizazio eta etxegintza multzo handia, baina lezoar gehienek ez genuen nahi Altamira izeneko muinoa beste Beraun bat bilaka zedin. Horrela, Jose Ramon Marticorena, *Delegado provincial del Ministerio de Obras públicas y Urbanismo de Guipúzcoa* zenak deiturik, Lezorako zeukan egitasmoa erakutsi zidan. Bidenabar, une hartan egiten ari ziren transferentzien balioaz mintzatu zizaidan. Konfiantza sortzen zuen gizon hark harremanetan, eta esan behar dut Altamiran eraiki zen *Joanes Etxeberri* eskola berriko haurrek egindako kartel handia, zuhaitz askoren eta laku baten ondoan ahateak igeri ageri zirena, eraman nionean, izugarri gustatu zitzaiola eta bere andreari garai hartako herriko bibliotekari-buru

zenari erakutsi egingo ziola esan zidan. Lortu genuen, bada, hasierako 700 etxebizitzetatik, 150era jaistea eta gero kopuru horretatik 102ra. Okasio ona zen etxebizitza sozialak egiteko. Tamainaren arabera milioi eta erdi pezetatik bi milioi eta erdira balioko zuten gutxi gorabehera. Arkitektoa, hiri-eraikuntzetan aditua zen Joaquín Montero gertatu zen hautatua. Honekin gogoan dut Madrileko *Nuevos Ministerios* deitu eraikuntzara bertako ordezkari batekin hitz egitera joan nintzela ere, eta ordudanik adiskide ona daukadala. Donostian ikusten dut noizbehinka eta berak moldatu parkeak erakutsi izan dizkit argitasun eta xehetasun handiz. Obrak bukatutakoan, herritar gazte eta zaharren beharren araberako zozketa egin zenean, udal-aretoa beteta zegoen. BOEk zioena irakurrarazi nuen, eta jendearen artean giltza berriak banatu ziren, lortu zituztenak aski kontentu gelditu zirelarik. Soilki ijitoen buru zenak, legearen arabera banaketatik kanpo gelditzen zirela adierazi nienean, aretotik atera ginenean ahopetik eta gorrotoz esan zidan: *usté saldrá de esta sala con los pies por delante*. Bigarren heriotza-mehatxua nuen. Ez zen nolanahiko kontua eta ondoriorik gabea alkate-erantzukizunak ahalik eta modurik zuzenenean betetzea.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Unibertsitateko Kontseilaritzak deialdi bat egin zuen doktoratutzako bekak emateko. Nik hiru egitasmo (sekulan ez zait falta izan proiekturik…) aurkeztu nituen. Lehena, Pierre D´Urteren hiztegi argitaratugabearen edizioa. Bigarrena, Anton Abbadiak sortu Lore-Jokoak. Eta hirugarrena, Astolasterren bilduma.

Hirurak ziren ikertu eta argitaratu gabeko lanak, bi literaturarekin lotura estua zeukatenak eta besteak lexikografiarekin. Epaimahaiak (artean Jean Haritschelhar zegoelarik) erabaki zuen normalizazio bidean abiatuak geundelarik, donibandarraren hiztegia lehenestea, eta halaxe egingo nuen. Lehena, Mundaizen argitaratuko zen 1989an, Anton Abbadiaren obra Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiak plazaratu zuten 1997an, eta Astolasterren bilduma Izpegik 1998an. Baina ez gaitezen aitzina sobera, iritsiko baikara hauek xehekiro aurkeztera.

Pierre d´Urteren bizitzaz gauza handirik ez genekielarik, Vinsonek bere *Bibliographie de la langue basque…* liburu bikoitzean ematen zituen datuez at, erabaki nuen institututik eta udaletxetik hilabeteko aisia hartzea; eta, hala, Londresera joan nintzen 1982ko urtarrilean Urteren urratsen jarraika. Goizero joaten nintzen akademia batera hiru orduz

ingelesa ikastera eta beste orduak Londresko liburutegietan igarotzen nituen donibandarraren aztarnak bilatzen. Eskuizkribuak Shirburn Castlen, hau da, Earl of Macclesfielden gazteluan, zuzenean aztertzeko eskariari ezezkoa erantzun zidatenez, *Guildhall Library*n ezkontza agiriak arakatzen aritu nintzen, *Public Record Office*n *Église du Tabernacle*-ko jaiotze-agiriak, *Westminster Library*n Sohon zegoen St. Annekoak eta beste… Eta 1699ko irailaren hogeita lauan, Pierre d´Urte Tabernacleko elizan Judith Gautereaurekin ezkondu zela, eta, geroago alargundu zelarik, 1719ko urtarrilaren hamarrean St. Annekoan Magdalen L´Hermettekin ezkondu zela aurkitu nuen.

Denbora osoa niretzat nuenez, zenbait adiskideri idatzi nien eta baita erantzunak jaso ere. Paper zaharren artean aurkitu dut bat (1982-I-19), Margarena, non beste gauzaren artean honakoa irakurtzen dudan:

> […] Guztiz positibo agertzen da zure bidaia, ezta? Otza aparte utzita, noski. Ingelesa ikasi, beste leku batzuk ikusi, pentsatu… bizi modu atsegina bezela ikusten det. Zure burua *txapuzero* edo honelakoren bat bezela ikusten dezunean *masokista presuroso* bezela ikusten dezu. Idazleak idazten egiten dira, n´est-ce pas?, eta zure idazlanak (así se dice?) de la primera etapa direnez gero ez dute, maybe, zure posibilitateen neurri osoa ematen. Asi ke ánimo eta jarrai (bietan).
>
> Hemen ez dago berri haundirik. Periodikoetan agertzen direnak irakurriko dituzu pentsatzen det: sekuestroak…
>
> Gaur San Sebastian bezpera eta etxean gelditu naiz. Azkeneko hiru egun hauetan faringitis fuerte batekin de baja gelditu naiz eta gaur ez naiz atera. Nere inguruan ez da plan politarik sortu (todo el mundo está de mala leche, chico) eta tumulto hori anbienterik gabe ikustea txorakeri bat iruditu zait […]
>
> Ikusten dezu, Patrizio, betiko txorakeriekin jarraitzen dedala. Txisme objetivo berririk ez dago kontatzeko, zuk ekarri behar dezu hortik serie on bat. Hortarako ongi, ongi pasa, esperientzi bitala aberastu (erredundantzia bainan honela etorri zait lumara) eta dana buruko sukaldetxoan prestatu lagunei pixkatxo bat eskeintzeko.
>
> Tanti baci.
>
> Marga.

Hotz egiten zuen Londresen, baina horrek ez ninduen batere izutzen. Hilabete hartan sei kilo jaitsi nituen Londresko parke eta kaleetan barrena arin-arin ibiliz eta jan-edanak neurriz hartuz. Azken egunean panazko traje dotore bat erosi nuen, soinera nahiko ongi zetorkidana eta tamalez ingeles gehiegirik ikasi gabe itzuli nintzen Groseko institutura berriro lanera.

Katedradun ginenez, epaimahairen bat edo bestean egotea ere suertatu zitzaigun, hala nola Bilboko *Escuela Oficial de Idiomas*en Euskara katedra neurtzeko lehen tribunala antolatu zenean. Bertan izan ginen Mikel Arregi, Miren Egaña, Alfontso Irigoien, XX eta neu. Eta hori zela-eta, Alfontso tribunaleko presidentea zenez, gutun bat bidali zidan (*Gutunak* 5) 1982ko irailaren hamalauan Bilbo aldean agertzeko adieraziz.



Irudia 34: Eskuinetik: Tomas Garbizu, Patxi Intxaurrandieta, Juan Padrosa eta ni.

Tomas Garbizu Lezoko seme eta musikagile ospetsua zenari hiru eguneko omenaldia eskaini zitzaion 1982ko abenduaren 17, 18 eta 19an. Lehen egunean Lezoko seme kuttun izendatu genuen eta beste zenbait laudorio artean, honako hitzok esan nituen, besteren artean: *Jakin, oso ongi dakigu, Euskal Herriari eta musikazale guztioi eskaini digun bere obra guztiarengatik hau ez dela nahiko ordaina, zeren eta hain eztiki mamitzea lortu duen Euskal Herriaren izpirituaren musikazko adierazpena sortzen gorputz eta arimaz bizitza guztia eman duenaren lana ezin baita ordaindu eta kitatu merezi duen neurrian …*

Meza Nagusia eskaini zitzaion goiko elizan eta aita Jean Diharze "Xabier Iratzeder"ek ospatu zuen hamabi apaizez inguratuta. Donostiako

Orfeoiak Tomasek sortu eta harmonizaturiko *Missa Benedicta* kantatu zuen. Meza ondoren, dantzariek dantzaldia egin zioten, eta hantxe joan ginen atzetik Mikel Arrizabalaga, neu eta besteak… Kontzertu eder bat ere eman ziguten Tomasek herri kantetan oinarrituz sortu eresiekin Juan Padrosa pianista eta Nekane Lasarte sopranoak.

Udalak enkargu berezi bat ere egin zion: *Lezoko Himnoa* sortzea. Hau bazkalondo askotan kantatu izan dugu urtetan Ixkulin Elkartean, eta berak asmatu letra, Joxe bikarioari gehiegi gustatu ez zitzaiona, hauxe izan zen:

Itsaso gainetik
Jaizkibel mendia,
mendi gibelean
Jaizkibel oinetan
Lezoko herria.
Hemen biltzen dira
euskaldun jendea,
aitzinetik baita
guztiz ezaguna
Gurutze ahalduna.
Ezker eskubi
zelai baserri,
ondorengoen oinarri,
ohitura zaharrak,
agurgarriak,
herriko seme argiak.
Gora, gora Lezo
hain izen handiko,
gure aurrekoen
sorleku garbia
Euskaldun Herria.

Tomas *herriko seme argiak* aipatzera iristen zenean, umore eta malezia puntu batez eransten zuen, *hauen artean gu ere egongo gaituk, ezta*. Halaxe ere Altamirako etxeetako kale izenaren estalkia kendu eta *T. Garbizu kalea* agertu zenean, inguratu zitzaidan eta seriyo-seriyo esan zidan: *eta hemengo etxebizitza bat nire izenean ez al litzateke hobeto?* Benetan ez zitzaion falta ziria sartzeko abileziarik, ohorea eta fama baino gauza

materialagoak gogokoago zituen, noski. Maiz aipatzen zuen Unamuno, eta hark behin esandakoa: *Gracias por haberme ofrecido esta distinción tan merecidamente.*

Nolabait Tomasi bere herriarekiko jarrera ona eskertu nahirik, bera eta bere anaia Don Liborio, Ainhoako *Ithurria* jatetxean bazkaltzera gonbidatu nituen egun batez, eta oroitzen naiz bertan izan ginela nire adiskide Maria Jose Vía, Artzentalesko alaba, Don Liborio gerran Gipuzkoatik desterratu zutenean han egona baitzen, bere laguna Joxeba Bilbatua, Margarita eta neu. Oroitzapenean gelditzen diren bazkari horietakoa izan zen benetan hura.

1989ko azaroaren 29an hil zelarik, Patxi Intxaurrandieta eta biok, Lezoko Udalak ordaindurik, bi liburu eder eskaini genizkion. Bata, berak proposaturiko tituluaz 1991ean argitaratua: *Garbizu Anaiak: "Zubigar", "Iruzubi", "Tege", 1921-1936.* Eta bestea J.I. Tellechea Idigorasen hitzaurrearekin: *Tomas Garbizu 1901-1989*. Bere obraren katalogoa eta CD bikain batekin, Patxik egina ia dena.

Udaletxeko lanak nahikoa buruko min eragiten zizkidan. Migraina handiak sortu eta loak hartzeko *valium 10* pastillak hartu beharrean izaten nintzen batzuetan. Helenak ere alde egin zuen Lezotik. Udaletxean beti aurkitzen nuen bueltaka, inork deitu gabe, herriko ondarea aseguratu behar zela eta HBko komisarioa iruditzen zitzaidana –ez dut haren izenik esango–, eta nabaritu nuen jada Independiente gutxi zela gure taldean eta ezkutuan hasiak zirela HB sortzen. Egiten nituen proposamenak, beti saiatzen bainintzen arrazoizko gauzak aurkezten eta talde guztiek onartzeko modukoak izan zitezen, aho batez bozkatzekoak aurkezten, atzera botatzen hasi ziren, eta beraz hurrengo hauteskundeetan, batzuek berriz aurkezteko eskatu arren, ez nintzen presentatu. Pentsatu nuen inor ez dela erabat beharrezkoa eta gelditzen zirela beste lanak aurrera ateratzeko eta agian ni gabe errazago aterako zituztela beste taldeek, hala nola EAJk. Beraz, azken bilera (1983-V-19) idazkari Trinidad Sukia, gerora kardinala izango zenaren iloba zelarik egin genuen. Esan nien nire lau urteko esperientziaz baliatu nahi bazuten prest nengoela edozein mementotan laguntzeko, baina osterantzean ez zuten nire beharrik ikusi, antza, eta ni pozik, kargu eta karga hura lagatakoan. Politika mota bat abandonatu nuen, edo politika egiteko era batek utzi ninduen eta Margaritarekin bizitzera joan nintzen Donostiara.

Benetan esperientzia aberasgarria izan zen, harremanak izanak nituen jende interesgarri askorekin bai Lezon, bai Errenterian (Sabin Olaizola alkatearekin edo Joxe Jabier Uranga arkitektoarekin), bai Gipuzkoako Diputazioan (Xabier Unzurrunzaga arkitektoarekin) edota Gasteizko Gobernukoekin. Edota alkate-bilera orokor batean Bizkaiko Ahaldun Nagusi zen Makua jaunarekin, eta EAJko Arantxa Zeberiori alkate-sinboloa den zumitzezko uzta pasatu nionean, *ea zuk bezain ongi egiteko gauza naizen* esan zidan kortesia handiz.

UDALETXEKO lanetatik libre gelditu nintzelarik, erabakia hartu nuen euskal kulturaren mugimenduan buru-belarri, lehen ere hala ari nintzen arren, ardura eta arreta gehiagorekin sartzea eta bertan eskaintzea nire ahaleginak, ahalmenak eta jakite apurrak. Eusko Jaurlaritza eratu zenez geroz, Karlos Garaikoetxea lehendakari zelarik (1980-1985), Ramon Labaien hautatua izan zen Kultur Kontseilari bezala. Haren helburuetako bat, Euskal Irrati Telebista sortzea, 1982ko abenduaren 27an lortu zuen, egun hartan eman baitzen lehen emanaldia. Halaber, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa sortu zuen 1982an, eta Antzerti Zerbitzua. Euskal Kulturaren hiru zutabe izan behar zutenak: Irrati Telebista, Musika eta Teatroa.

Eugenio Arozena oiartzuarrak, *Intxixu* taldeko zuzendaria izanak eta une horretan *Antzerti* erakundekoa zenak, deitu ninduen eta *Antzerti Berezia* aldizkarian parte hartu genuen; haren lehen alea 1982ko urrian argitaratu zen eta hamahirugarrena 1986an. Halaberki, *Antzerki zabalduderako aldizkaria,* hots, antzerki-testuak, gerra aurreko Antonio Labaienek zuzendu izen bereko aldizkariaren ildoari jarraiki, plazaratuz joan zen; lehen alea (55.a) 1982an argitaratu zen: Abelino Barriolaren *Goi-Argi.* Eta azkena, 1985ean, William Shakespeareren *Richard II.* Orotara, beraz, 13 teatro-errebista eta 28 antzerki ezberdin, bai teatro zaleen irakurketagai izateko, bai antzeztaldeen errekurtso eta iradokizun emaile izateko balio zezaketenak.

Antzerkigile jatorriz euskaldunak eta atzerritarrak. Hauen artean: Carlo Goldoni *(Arlekino, bi nagusiren zerbitzari)*, Dario Fo *(Izuaren aurpegia)*, August Strindberg *(Herio Dantza)* eta William Shakespeare *(Julio Zesar, Zeuk nahi duzunez, Endrike VIII, Neurriari neurriaz,* eta *Richard II)* Xabier Mendiguren Bereziartuk itzuliak, Euripidesen *Troiako emakumeak* Iñaki Begiristainek moldatua, Alfonso Sastreren *Bazte-*

rrean utzitako panpinaren ixtoria Mikel Lasak itzulia, Alfonso Castelaoren *Agureok maitemindu behar ez* Antonio Labaienek itzulia, Manuel Mariaren *Berengela izeneko otarantza baten ibilketak eta biribilketak* eta *Maiatza zorabiatuaren pastorala* Koldo Izagirrek itzuliak, eta Jean Paul Sartreren *Nekrassov* Xabier Olarrak itzulia. Eta egile euskaldunak: Estanislao Urruzola "Uxola", Joxeba Olaizola, Jose Maria Agirre "Lizardi", Enkarni Genua & Manolo Gomez, Augustin Zubikarai, Eugenio Arozena, Marzelin Heguiaphal (errejenta moldatzailea), Iñaki Begiristain, Patri Urkizu (*Astolasterrak*, bilduma egilea), Guillaume Irigoyen, Piarres Larzabal, Taupada antzeztaldea, eta Imanol Elías Odriozola. Beraz, zaharrak eta berriak, lehengoak eta oraingoak, bertakoak eta kanpotarrak. Tamalez, 1986an Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen bide hura moztea, Luis Bandres ingeniari eta irakasle ezaguna Kultur zuzendari zelarik. Zergatik ote da gehientsuenetan gobernuek presupuestoetako diru-murrizketak hasten dituztenean kulturari suertatzea jaitsiera?

Errebista eta testu bildumaren arduraduna eta *alma mater* ingelesez ere ongi moldatzen zen Elisabet Albisua andoaindarra izan zen. Nik nire ahalegin guztiaz lagundu nion, Antzerti Eskolan euskal teatroaren historia ere emanez. *Antzerti Bereziar*en 5. alean (55.or.) *Antzertiteka* bat, liburutegi espezializatu bat sortzea ere proposatu nuen, non testuak, erreseinak, argazkiak, bideoak, ikerketak, esku-programak eta beste jasoko ziren. Tamalez ez zen aurrera eraman egitasmo hura eta halaxe gaude gaur egun ere, antzerki-testu guztiak barreiatuta, sakabanatuta liburutegi publiko ezberdinetan eta galduta, edo partikularren eskuetan daudela hortik zehar.

Ricard Salvat, Alfonso Sastre, Xabier Fabregas, Manuel Lorenzo, Luis Iturri, Jean Haritschelhar, Txuma Lasagabaster, Mireille Saunier, José Monleón, Wiktor Wojciechowski eta neroni izan ginen errebistan maizenik idatzi genuenak, halako oreka bat lortu zelarik hizkuntzen trataeran, hots, euskara eta gaztelaniaren artean. Bestalde, Salvatek zioen bezala, Espainiako teatro-informaziorik osatuena ematen zuen errebista izatera iritsi zen eta Elixabeteri esker fotografiaz oso ongi horniturik zegoen. Gogoan dut nola 83ko Sitgeseko festibalean Salvatek afaltzera gonbidatu ninduen eta elkarri egin aitorpenetan ageri zen biak politikoki independenteak ginela, garai hartako giro politizatuan edozer aurrera eramateko unean zituen ondorio eta eragozpenekin. Bere burua eskaini

zuen *Antzerti* egitasmoa aurrera eramateko, prest zegoelarik Donostiara bizitzera etortzeko eta baita euskara ikasteko ere, baina mezuak ez zuen oihartzunik izan Eusko Jaurlaritzaren partetik.



Irudia 35: patri urkizu: euskal literatur heterodoxoa eskaintzen.
ARGIA, 1980-XI-2.

1983

HONA, adibidez, *L'Edat Mitjana i el Renaixement en el teatre* Sitgesen ospatu zelarik 1983ko urriaren 13an eta 14an, non besteak beste, Alejandro Montiel, Alfonso Sastre eta Eva Forest, Maria de la Luz Uribe, Olimpio Musso, garai hartan Bartzelonako Istituto Italianoko zuzendaria zena, eta Francesc Massip adiskideak parte hartu zutelarik *Antzerti* bereziaren 6. alean 1984ko otsailean idatzi zen kronika:



Irudia 36: Sitges 1983. Kartela: Teatroa Erdi Aroan eta Errenazimentuan.

Sitges, Mediterraneoko kostaldeko herri politean dagoen Mareel jauregian 1983. urteko urrilaren 13-14 egunetan Erdi Aroko eta Errenazimentuko antzertiaz hitzaldi eta elkarrizketa batzuk ospatu ziren, bertan Italiako, Madrileko eta Bartzelonako Unibertsitateetatik etorritako irakasle eta ikerle batzuek parte hartu zutelarik. Bakoitzak bere espezialitateko gai berezia ikertu eta sakondu zuen, oraindik argitaratu gabeko ohar, albiste eta ikerketak aurkeztuz. Erdi Aroko antzerti erromanikoaren sorrerari buruzko

teoriak eztabaidatu ziren, bai halaber Errenazimentuko italiar antzertiko gai txit espezializatuak. Alibrandini, Díez Borque, Zorzi, Massip, Salvat, Silvermann eta beste zenbaiten artean Euskal Herritik joana zitzaigun Patri Urkizu irakaslea ere euskal herri-antzertiaz mintzatzera. Aurkezpen xume honen ondoren dakargu irakurri zuen hitzaldia, interesgarri eta argigarri izango zaizuelako ustetan.

Dakusakezuenez, hitzaldiak sarrera bat dakar, eta bertan aipatzen da nola kultura eta teatro eginkizunak herrien arteko harremanen lotura-sortzaile izan daitezkeen eta muga hertsien hausle. Ondoren, gaia bi zatitan banatzen du, lehenean parateatroaz mintzo delarik, hau da, hiru adibide emanez, bertsolariez, errandoez eta maskaradez mintzo zaigu. Bigarrenean, pastorala, xaribaria eta ihauterietako tragikomeria hartzen ditu aztergaitzat. Pastoralez hitz egiterakoan, sorrerari buruz izan diren hipotesien berri ematen digu, hala nola sintesi eta ondorio tipi bat eta bere esanahiaren interpretazio garrantzizko batzuk. Xaribariez historia pittin bat egin ondoren, bere interes sozial eta hizkuntzarekikoa azpimarratzen ditu eta, ihauterietako tragikomeriez diharduenean, Ihauteriak Euskalerrian duen erro sakon eta ludikoaz mintzo zaigu, irudien adierazkortasunaz eta urtero berritzen den jokoaren misterioaz.

Amaitzeko, bi gauza planteatzen ditu. Bat: herri-antzerti horren guztiaren jaso eta argitaratu beharra, eta bestetik antzeztaldeek bere sustrai eta erroak bertan daudelarik ohartuz eta euskal senaz jabetuz eta txertatuz, hala nola gaur egun munduan diren korronte berriez ere hornituz, *euskal antzerti* bat eraiki dezatela desiatuz.

Hamabost artikulu plazaratu nituen errebista horretan gai ezberdinez. Euripidesen Troiako emakumeei buruzko tragediaz, Carlo Goldoniren *Arlekino bi nagusien zerbitzariaz*, hala nola euskal teatroaren historian garrantzia izandako Pedro Ignazio Barrutia, Frantzisko Xabier Maria Munibe eta Idiakez, Marzelino Soroa, Toribio Altzaga, Resurrección Maria de Azkue, Alfredo Etxabe, Etienne Decrept, Pierre Salaber…, teatrogile, operagile, errejent eta bestez. Gogoan dut azken honen etxean, Ozazen izan ginela Jose Mari Tuduri eta biok, eta nola

erakutsi zizkigun pastoral zaharren eskuizkribuak, eta nola zituen horman zintzilik Lehen Gerla Handian, alegia, 1914koan eman zizkioten dominak.



Irudia 37: Eskuinetik: Eugenio Arozena, Ramon Labaien, Manuel Lekuona eta ni, San Telmon Antzerti Erakusketaren aurkezpenean (1984).

Eugenio Arozenak eskatuta, euskal teatroaren historia bat prestatzen ari nintzen, eta oroitzen naiz udazkenerako bukatua behar zuelarik, irail hartan ez nintzela joan Marga, Joxeba eta Marijoserekin Balear Uharteetara oporretan. Liburua bukatu nuelarik, *Euskal Antzertia* tituluaz, Euskal Teatroaren Erakusketa antolatu nuen Tuduri tolosar fotografoaren laguntzaz. San Telmo Museoan aurkeztu zen. Estreinaldiko fotografia begiratuz, hantxe gaude eskuinetik ezkerrera: Eugenio Arozena, garai hartan Antzerti eskolako zuzendaria zena, Ramon Labaien Donostiako alkatea, Manuel Lekuona, jada zahartzaroan sartuta eta neu, erakusketaren eta *Euskal Antzertia* liburuaren egilea. Oroitzen naiz Ramonek oso ongi toreatu zituela Antzerti Eskolako ikasleak aurkezpenaren ondoren, ez baitzeuden konforme eskola zihoan bezala, eta pankarta batzuk zabaldu baitzituzten. Egia da ikasleek galdetu zidatela ea zer iruditzen zitzaidan protesta moduko bat egitea, eta nik erantzun niela egokia iruditzen bazitzaien egin zezatela. Erakusketa hura gero Baionako Euskal Museoan aurkeztu zen, eta, Museoko zuzendariaren, Jean Haritschelharren eta besteren baten ondoren hitz egin nuelarik, eta mintzatu nazioen lehiaz eta etsenplu emateaz, Joseba Arregi garai hartan Kultur Kontseilari zenak, ohiko harro-puntuaz galdetu zidala ea ni nor nintzen hitz egiteko, eta erantzun niola esposizioaren egilea nin-

tzela. Erakusketa hura Euskal Herrian zehar agertzeko eta ikusarazteko pentsatua zenez, gogoan dut Bilbo, Oñati, Maule eta beste norabait ere eraman zela.

1984

IRUNGO Hiria Poesia Sarira aurkeztu nituen poema batzuk 1983an, *Zeren azken finean…* eta, antza denez, beste poema-liburuak baino gehiago gustatu zitzaizkien Xabier Lete, Santiago Aizarna… eta beste epaimahaikideei eta Gaztelu bat oparitu zidaten, sos batzuk eta liburuxkaren edizioa. Armiarma, Interneteko euskal literatura atariak, 2014ko uztailaren 23an berrargitaratu du, galdetu gabe ea nahi nituen poema horiek berriro inprentara eraman ala ez. Pentsatzen dut galdetzea bederen zegokiola, zeren eta zuzendu eta beste zenbait poemarekin batera neronek beste edizio bat prestatu nahi izan banu, esate baterako, zer? Hona kritikari ezezagunak dioena:

> Nostalgiaren eta bizi-pozaren uztarketa gozoa dugu Patri Urkizuren *Zeren azken finean* (Kutxa, 1984): Hiroshimako bonba jaurti zuten paradisuan, eta guztizko erbestean bizi beharrak ekarri du gizakia geroztik gizakia izan dena izatera: zeren azken finean, hil eta herio, oro izango garenez haustegi kario… garen liberti, dugun maita! Mendeku handi bat jainko-jainkosen aurka. Irakurle adituak Miranderen lagun irudikatuko du Patri Urkizu Parisen eta Euskal Herrian barrena, haren ezkortasun etsiari munduaren ederra kontrajartzen diola, hedonista eta maitale. Horixe da Urkizu poetaren ezaugarri nabarmenetako bat: kultutik herrikoira, transzendentziatik unean unekora, mintasunetik sentsualtasunera, dolu existentzialetik sagardo upelera egiten duela naturaltasunez, gauzek hozkia ematen ahal badiote ere sentibera delako urtzen den elurrari beha, edo emakume konkretuaren samurrari.

1984an Kritika saria irabazi zuen poema bildumatxo honek, eta 1985ean Sari Nazionaletara ere aurkeztu zen, Koldo Izagirreren *Euzkadi merezi zuten* nobelarekin batera, baina, nik dakidala bederen, Euskal Herriaz at ez zuten inolako oihartzunik merezi izan. *Armiarma*k ez du jasotzen nire poesien erreseinarik, berriki moldatu aurkezpena ez bada, baina gogoan dut Felix Marañak Zurriolako hondartzan egin zidala elkarrizketa bat eta *El Diario Vasco*n agertu zela, ez dakit zein egunetan, eta elkarrizketa horretan elkarbizitzarako tolerantziaren beharra aldarrikatzen nuela.

Poesiaz aparte, 1984an hiru narrazio-liburu argitaratu nituen: *Nola Kursaal berria suntsitu zen; Jon Mirande*, *Gauaz parke batean: Ipuin izugarriak*, eta *Etsipenez: Jon Chahoren memorioizunak*.

*Argia*n halamoduzko elkarrizketa bat egin zidaten garai hartan eta hartako galdera-erantzun bat hautatu dut hemen ezartzeko garai hartan nituen obsesioak aurkezten baitzituen eta ipuin-liburuxkaren sortze prozeduraz hausnarketa eta kritika.

> A. – «Nola Kursaal berria suntsitu zen» liburuaren jestazioa nola izan da?
>
> P.U. – Aspalditik hasi nintzen biltzen zenbait ipuin, baina gero nolabait tendentzia hura taxutzen zenez gero, borobiltzen, sartzen, "Sekulorun sekulotan" nobelan, haiek alde batera utzi nituen eta beste ipuin errazago, ez lehengo abangoardismo eta esperimentalismoko literatur motari jarraituz, eta ulerterrezagoak, jendearentzat atseginak izan zitezkeen ipuin motak idazten saiatu naiz; eta azken urte hauetan egindakoekin, alde batetik nereak, zazpi ipuin, zazpi numero horrek badu zerbait, eta uste dut euskaldun guztientzat ere bai, herriko kontakizunekin, arrantzako baleak eta kaioak, egun batean zerbait dela bestean beste zerbait, uste dut ipuin horiek osatzen dutela, gai ezberdinak izan arren, gauza nahiko homogeneoa. Ez dira ipuin oso-oso landuak, horretarako kendu beharko genuke alkatetza, klaseak, bakarrik literaturgintzara dedikatuz, nolabait denok modelotzat hartzen dugun Borgesen ipuigintzari piskat jarraituz eta gehiago landuz dena: hasi ipuinaren kontzepzioarekin, hizkuntzaren lantzearekin, eta gero formulazio guztiarekin, estiloa, gaia, sinbolismoak. Noski, gehiago landu beharko liratekeela, baina momentu batetan esaten duzu «hortxe daude». Ez dakit, piskat lotsa ere ematen dizu zure trapu zikin horiek kaleratzea, baina, tira, hortxe daude eta norbaitentzat atsegingarri badira konforme geratzen nauk.

Ez zuten ipuin haiek harrera handirik ukan, ez baitzuen geroztik egin diren bildumetan batek ere sartzerik merezi antologia-egileen iritzian, baina bada bat Patxi Intxaurrandieta adiskideak Errenteriako Institutuan aritzen diren Lezoko neska-mutil gazteei irakurtzen eta gomenta-

tzen diena: *Nola buruhandia izarren artean galdu zen.* Herriko festetan gertatu pasadizo eta heriotza baten gainean taxutua.

Iñaki Camino dialektologoa Euskal Herriko Unibertsitatean eta garai hartan *Argia*n literatur kritikaria zenak lehenik (1984-IX-16) *Jon Mirande: Gauaz parke batean (Ipuin izugarriak)* erreseinatu zuen eta hiztegi-oharrak zirela-eta honela bukatzen zuen artikulua: *oraingo honetan lasai esan genezake Urkizuk ez duela bere lanean asmatu*. Kakabeltz delako batek *Korrok* (1984-10) errebista literarioan beste modura hartu zuen: *Ez dirudi, dena den* –eta azpimarratzen zuen– *Miranderen unibertso literarioa, iluna, makabroa, ikaragarria, baina baita ere iradokigarri, sujerente, umoretsu, zorrotz eta maitagarria.* Ipuin bilduma Koldo Mitxelenaren hitz batzuekin hasten nuen: *Euskal literaturan duen lekua egunen batean aitortuko zaio, zenbaitek aspaldidanik aitortu diogun bezela. Mirande hasi zitzaigun lehenik gerla ondoan, bide berriak urratzen…* Bi edizio izan zituen nire adiskide Joxan Arretxek egin zion portada pollit hura zeraman bildumak, bat 1984ko uztailean eta bestea 1987ko ekainean, eta bost mila ale plazaratu zituen Elkarrek. Ez zegoen batere gaizki, garai haietarako, nire ustez.

Etsipenez. Jon Chahoren memorioizunak izendatu lanak ez zuen izan, noski, aurrekoaren arrakastarik. Editoreak esan zidan bezala, egokiago zitekeen *Mirande* erabili izan banu tituluan, *Jon Chaho,* haren pseudonimoa baino, bestetik oroitzapen apokrifoak adierazteko asmatu hitz berri hark ere, *memorioizunak*, ez zuen batere jarraipenik izan. Portadan ezarritako fotografia benetakoa da –Miranderen erretratuak omen diren batzuk ez bezala–, Xohütako bere familiak bertara bisitan eta galdezka joan nintzenean lehengusina batek emandakoa baita. Eta Caminok bere erreseinan (*Argia*, 1984-XII-23) berriro jipoitzen ninduen, *70. urteko elaberria irakurri ta gero, oraingo hauetan gehiago espero,* baitzioen. Garai hartan Txomin Peillenek aitortu zidan, Joseba Sarrionandia kartzelatik ihes egin berriaren presentzian, ahalegindu nintzela eta nahiko ongi jakin nuela Miranderen baitan sartzen. Ez da gutxi, eta Verineseko biltzarrean Jon Juaristik urte hartan irakurritako euskal nobelarik onena zela adierazi zidanez, ez nengoen guztiz deskontent. Duela egun batzuk, irakurle arrunt batek ere goraipatu dit egindako ahalegina, harrituta. Mirandek EAJren euskararekiko epeltasunari eta ETAren marxismoari egindako kritikak ez zioten lagundu euskal irakurleen munduan heda-

tzen. Hala ere, neronek distantziaz gauzak ikusita eta Miranderi buruzko ondorengo lanak kontuan hartuta, uste dut hobe litzatekeela bigarren memoria-biografia bat. Baina geroak esanen du…

Baditut beste bi fotografia zahar komentatu nahi nituzkeenak. Bat, *Galeuzca*ren karietara, 1984ko ekainaren bukaera aldean egina. Bartzelonako Udaletxean idazle katalan, galego eta euskaldunen harrerari dagokiona. Alfonso Pexegueiro, Galiziar Idazleen Elkarteko idazkaria, Anjel Lertxundi, Euskal Idazleen Elkarteko burua, Maria-Aurèlia Capmany, Josep M. Castellet, Pasqual Maragall, Bartzelonako alkatea, eta Josep M. Llompart, AELCeko presidentea… Hementxe ere izan ginen entzuleen artean EIEko elkartea martxan jarri zenean. Oroitzen naiz, besteen artean, Carme Riera eta Luis Bandres ere izan zirela bertan. Eta Poblet bisitatu genuelarik, *Manifest de Poblet* delakoa sinatu genuen ekainaren 24an Galiziako, Euskal Herriko eta *Els Països Catalans*etako idazleek. Lehen gogoeta batzuen ondoren, non esaten baitzen *Constatem que només si cadascuna de les nacions aquí representades es constitueix en estat integrament sobirà, hi haurà garanties de ple restabliment,* alegia, nazio bakoitzak estatu burujabe gisa eraikita soilik izanen zuela benetako bermea bertako hizkuntzak eta literaturak, ondorengo konpromisoak onartzen genituen:

Garantir l'intercanvi d'informació sobre la producció literaria;

Posar en marxa publicacions comunes;

Impulsar traduccions mútues, així com beques destinades a afavorir el transvassament d'experiències culturals, eta


Vetllar per la defensa conjunta i solidària dels interessos professionals.

Hurrengo biltzarra Euskal Herrian egitekotan geraturik, lagun giroan agurtu genuen elkar.

Eta aipaturiko beste argazkia, Kutxak *Gilen Garateako Batxilera, Zeren azken finean* eta beste sari batzuen edizioa aurkeztu zituenekoa da. Honetan, Ondarretan kokatua zen *Txomin* jatetxean gaude. Ezkerretik eskuinera Karlos Etxepare irundarra, Mario Onaindia eibartarra begirada galdu batekin, antza denez aspertu samarra baitzegoen Kutxakoen artean, Alkain donostiarra, eta neu.

Etxepare Udako Ikastaroen zuzendaria izan zen urte askoan. Ez nuen konprenitu sekulan zergatik izendatzen zituen *XXX Cursos de Verano*

Uda Ikastaroak, eta *XXIII Cursos Europeos Europar Ikastaroak*, lehen urteetakoetan ere irakasle galegoek, madrildarrek, katalanek, frantsesek eta euskaldunek parte hartu genuenez… Oroitzen naiz Alkain eta biok ezaguna genuen Joxeagus Arrieta idazlearen ezkortasun tragikoaz hitz egin genuela.



Irudia 38: Euskal Antzertia.

1985

BARTZELONAN, 1985eko maiatzean hemeretzitik hogeita bostera *Congrès International de Teatre* ospatu zen. Zazpiehun kongresista gutxienez, berrogeita bat herrialde ezberdinetarik etorriak. Nuria Espertek ireki zituen Jardunaldiak ohiko dotoreziaz, eta gauean Shakespeareren *Lear erregea,* Ingmar Bergmanen *Dramaten* antzeztaldeak antolaturik. Ikuskizun izugarria izan zen, eszenografia, aktoreen jokoak, ahotsak, jantziak, estiloak dastatzeko aukera izan genuelarik. Suedieraz batere jakin gabe ohartu ginen historiaz, eta Teatroa beste hizkuntza bat zela. Hitzaldiak bederatzi sail ezberdinetan zeuden banatuak, batzuk anfiteatro handi batean eman ziren, hala nola Robert Wilson abangoardiako zuzendari amerikarrarena, zeinak esan baitzuen, besteren artean, prest zegoela urtero etortzeko, berriz hain ongi ordainduta izanez gero. Airearen eta argiaren bibrazioez sortutako sentsazio kromatikoetan oinarrituz eraikitzen da haren antzertia, Wikipediak dioenez. Horregatik elektrizista on bat zela komentatu zuen norbaitek. Beste zenbait hizlariren artean: Adolfo Marsillach, José Sanchís Sinisterra, José María Díez Borque, Sitgesetik ezaguna, Manuel Ángel Conejero, Shakespeareren itzulpenetan aditua, Patrice Pavis… Nik ere nire txosten ttipia aurkeztu nuen, 1988an *Mundaiz* errebistak argitaratuko zuena: *Introducción a las farsas chariváricas vascas.*

Donostiako Konstituzio Plazan zegoen *La Primitiva Casa Baroja* argitaldarira deitu gintuen Mikel Azurmendik (emaztea Barojatarren familiakoa zuen) eta haren babesean, antzinako tipoak erabiliz, *Literatur Gazeta*, bizitza laburreko errebista kaleratu zen: hiru ale 1985ean, urtebeteko geldialdiaren ostean 1987an lau ale, 1988an hiru eta 1989an bat. Bi artikulu eta antologia bat plazaratu nituen han. Bat *Strindberg Euskadin* (1. zenbakia, Uztaila) eta *1965-1985. Nueva poesía de las lenguas de España* (2. zenbakia, Urria), bestea.

Honelaxe bukatzen nuen lehen artikulua:

> …Norbaitek iraingo dit esanez gure herriko egungo egoera larri eta trajikoan horrelako deabru eta satan gaizto eta beltzarik ez diagula behar, eta beste zerbait alaiago, gozoago eta eztiago, ba-

rregarriagorik behar dugula euskal antzokietan, ahantz ditzagun egunoroko larrialdiak eta estuasunak, ez dugula behar ipar herrialde horietako haize garbizale, ezezkor, intimistegi hori; baina nik erantzungo diet hi bezalako arima handiak, atormentatuak, sakonak, idazle benetan iraultzaileak mende batean oso gutxitan sortzen ditukela, eta pena merezi dikela hi, bitxi arraro hori, perla ezezagun hori, geureganatzen saiatzea, euskal antzokietara erakartzea eta mostratzea, eta batik bat, kasu honetan bezalaxe hain duintasun eta kalitate handiz egin denean Antzertiren Zerbitzuari esker.

Ongi etorri, Johan August Strindberg, Euskadira!

Bigarrenean kontatzen nuen nola, Las Navas del Marqués herrian hasi ziren jardunaldiei jarraikiz, Ana Puértolas «Dirección General de Cooperación Cultural»eko zuzendari iruindarrak Salamancako Unibertsitateko Víctor García de la Concha irakasleari agindu zion poeten eta kritikarien arteko topaketak antola zitzala azken hogei urtetako Espainiako hizkuntza ezberdinen poesiaren higidura eta harreman dialektikoak elkarrekin azter eta iker zitzaten. Eta nola Asturiasen, Llanesen, Casona de Verines deitu indiano etxean irailaren 3tik 7ra katalanak, galegoak, kastillanoak, asturiarrak eta euskaldunak egiteko horri heltzeko asmotan bildu ginen. Izen zerrenda honakook osatzen zuten hain zuzen: Andrés Sánchez Robayna, Fanny Rubio, Marcos Ricardo Barnatán, Antonio Martínez Sarrión, Guillermo Carnero, José Lupiañez, Rafael Ballesteros, Antonio Colinas, Blanca Andreu, Juan Manuel Bonet, Julia Castillo eta Fernando Vallés gaztelaniaz idazten zutenen artean; Alex Broch, Alex Susanna, Josep Piera, Jaume Pont, Vicenç Altaio eta Antoni Mari katalanak; Claudio Rodríguez Fer, Arcadio López Casanova, Xavier Seoane, Manuel Vilanova Rodríguez galegoak; Xuan Xosé Sánchez Vicente, Juan Carlos Villaverde Amieva, Alvaro Ruiz de la Peña, Manuel Astur eta Roberto González-Quevedo asturiarrak; eta José Irazu (Bernardo Atxaga), Jon Juaristi, Jon Kortazar, Juan Mari Lekuona eta neroni euskaldunak.

Gogoan dut Jon Kortazarrek gerraondoko euskal poesia aurkeztu zuela metodo sinboliko, antropologiko bat erabiliz. Bere azterketa eta txostena hiru poetengan finkatu zuen batik bat: Jon Mirande, Gabriel Aresti eta Bernardo Atxagaren poemagintzetan. Haritza, harria eta hon-

darra. Nietzscheren ideologia bortitzaren eragina Jon Mirande olerkari panteistarengan, Elliotena Gabriel Arestiren lehen lanetan, Juan Mari Lekuonaren hitz eta gizonarekiko konpromisoa Bibliaren eta herri espresio-moduetan moldatua, inpresionismotik espresionismorantz Gandiagak darabilen bidea, *Etiopia* antiutopia eta ironiaren mundua legez, Joseba Sarrionandiaren metaliteratura, eta oro har, baikor den abiabide lineal batetik ezkor eta borobila den ikuspegirantz doakigun poesiaren higidura.

Eta gogoan dut, orobat, nola topaketa haien errebelazioa «Bernardo Atxaga» izan zen. Txunditurik, harri eta zur, barrez lehertzen utzi baikintuen denak. Kortse akademizistak hautsiz, Lazkao Txikiren gisara hasi zen kontu kontari grazia «naif» aparteko batez. Gauza askoren artean kontatu zigun Joseba Sarrionandiak epaileari erantzun ziona, beste epaituen oihuen artean isilik zegoela ikusirik, galdetu zionean ea ez ote zuen esan behar modu berean, egiaz epaiketa hura fartsa bat zenik ez al zuen uste: *¿Entonces, me puede contestar por qué ha venido usted vestido de monja?.* Rock musikak, egungo abangoardistak, *mass media* delakoek bere ekintza literarioan duten garrantziaz, material horiek guztiak nola tratatzen zituen, eta nola baliatzen zen kontatu zigun ordu paregabe batean.

Nire aldetik *Poética* deitu ataritxo bat egin nuen eta ondoren zenbait poema irakurri. Sarrera honela bukatzen zen: *Estoy seguro que mis poemas no harán más feliz a la inmensa mayoría de mi pueblo que una bella jugada de un pelotari, pero si sirven para que algún «vasco viejo» al leerlos pase un rato agradable, o algún jovencito se interese por la lectura estaría satisfecho, y sería constatar una vez más como dice Pessoa que el arte es una forma de crítica, pues hacer arte es confesar que la vida no sirve o no es suficiente.* Afarian, zergatik poemak ez nituen itzulita irakurri galdetu zidan Soledad Puértolasek, eta erantzun nion esan nahi zutena aurretik adierazi nuela eta poesian musika dela garrantzitsuena, eta euskal poesiaren doinua entzunarazi nahi niela batez ere. Ez zidan erantzunik eman. Biltzar hartako emaitza Juan Cueto irakasleak zuzentzen zuen *Los Cuadernos del Norte* errebistan aurki daiteke, titulu honekin: *El estado de las poesías* (Oviedo 1986).

*Literatur Gazeta*rako prestatu nuen antologiaren titulua *Eros, Eros… (Bertso eta poemak)* izan zen. Asmoa, poema batzuk biltzea besterik ez

bazen ere, errebistako zuzendaritzari egoki iruditu zitzaion *Separata* bat egitea. Caminok (*Argia*, 1986-I-12) honela aurkeztu zuen:

> Askoren gustoko izanen den bilduma lana egina digu Patri Urkizuk oraingoan. Euskal Herriko bertso eta kantuetan badira bat baino gehiago hala edo holako erotismoa ageri dutenak. Eta ez dira oraingoak. Jakina da ere, gure herrietako apezek salatu eta galerazi egiten zituztela kantu horiek beren platika eta sermoietan. Erromantizismoak ahozko herri-literatura jasotzea modan jarri zuenean, asko eta asko aritu ziren kantuen biltzen, eta baita apezak hauen artean ere. Ezagunak dira, errate batera, Azkuek hagitz kantu erotikoetan egindako orrazketa, garbiketa eta aldaketak. XX. mendean salatu dira gehiegikeria hauek eta baita ere kantu erotiko hauen behar bezala biltzen hasi. Patri Urkizuk, bertso, poema eta kantu gordin hauen bilduma bat egin digu. Casenave, Iñaki Zabaleta, Detxepare, Oxalde, Lauaxeta, Atxaga, Mikel Arregi, Lete, Mirande, Nemesio Etxaniz, Gabriela Lohitegi eta aspaldiko idazle edo kantari ezezagunen beste batzuk dituzue bilduman, Iparralde eta Hegoaldekoak…

Emaitzarekin, beraz, pozik nengoen ttipia bazen ere, Imanol kantariak bertatik bertso batzuk hartu baitzituen bere disko baterako. Eta nik egindako transkripzio oker bat, gero diskora pasatu arren, *Kopla bikiak* ordez *Kopla bitxiak* jartzen baitzuen originalak, gerora konturatuko nintzen bezala, Imanolen ahots sakon, sarkor eta belusezkoan ongi geratzen zen.

Esan dudan bezala, bidaiatzea eta herrialde berriak, bestelako jendea, hiriak, elizak, monumentu zaharrak ikustea oso gogoko nuen (baita orain ere) eta horrela 1985eko uztailean Turkiara joan nintzen Margarekin. Hendaye Plage, Roissyko aireportua kontrol handi batekin, hegazkinean xanpain frantsesa eta hamabi eta erdietarako Istanbulen, ordu batzuk irabazi baikenituen eguzkiaren kontra. Topkapi, Santa Sofia, Bazar Handia, eta haren inguruan ijito dotore bat hartz kateatu gaixo batekin ikusi nuen. Tren zahar eta dotore batean Ankara hiri nagusira. Han Museo Hitita, beheerliebe miresgarriekin. Ezin da alkoholik edan, beraz, fruta-zukuz elikatzen gara hain goxoki. Kapadozia. Autobusez iritsia zen vienar emakume eder, judu batekin afaldu genuen; termo bat atera eta ohiko kafea eskaini zigun. Hain zen atsegina eta interesantea

urtetan sartutako andre hura, non helbideak eman genizkion elkarri. Antalya. Kas. Kalkan. Hondartzan palaz jokatzen genuen eta gero ur hotzetan bainatzen, zeren aldameneko mendiak oso garaiak baitziren. Han bikote gazte batekin adiskide-harremana egin genuen. Mutila sefardi etorkikoa zen eta Toledoko etxeko giltza aipatu zigun; *paxaro* eta *dexir* ahoskatzen zituen oraindik, XV. mendean bezala. Elkarrekin afaldu genuen, ingelesez ere bai baitzekiten. Noizbehinka solasa trabatzen genuenean norbaitekin, Espainiako desarrollismoa miresten zuten, eta Turkia handik hogei urtera edo lehenago halaxe bilakatuko zela. Eraikuntzen boomaren esperoan zeuden. Rodas, Maltako zaldunen uhartea ere bisitatu genuen. Arrunt gustatu zitzaigun. Kusadasi ere bai. Han *karabansarai* deitu batean ardo zuri bat edaten ari ginelarik, turkiar bat inguratu zitzaigun eta pixka bat frantsesez hitz egindakoan, bere emazte frantsesarekin lekurik hoberentsuenera gonbidatu gintuen, eta gogoan dut nola ardo freskagarri batez gain, primerako bixigua dastatu ahal izan genuen. Oroitzapen benetan ederra Turkiakoa. Monumentu miresgarriak. Meskitak. Gaueko muezzinen otoitz-kantu zirraragarriak. Bizargileak. *Hamamak*. Taberna zahar batean frantsesez hitz eginez agure batzuekin ardo zuria dastatuz eta elkarri gonbidatuz, Margarita emakume bakarra zelarik. Eguzkia, zeru urdina, argia. Jende atsegina. Hala ere, militar eta xomorro gehiegixko aukeran …



Irudia 39: Istanbul. Topkapi.



Irudia 40: Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798).
2. edizioko portada.

VI

BORDELEN KONPAINIA ONEAN

1985-1988

1985

EGUN BATEZ, Donostiako Antiguako frontoian konpainia onean, Xabier Olarra, Mikel Arregi eta neroni gomazko pilotaz ari ginelarik, Xabierrek esan zion Mikeli ea nahi zuen Bordeleko Unibertsitatera joan bere ordez. Eta Mikelek, aurreko batean Koldo Mitxelenari esan zion bezala, bi alabak hazi eta hezi behar zituela, oraingoan Xabierri ere ezetz erantzun zion, kontuak ez zitzaizkiola ateratzen. Orduan, niri eskaini zidan Xabierrek aukera hori, *Lecteur de Langue et Civilisation Basque* izatekoa, eta nola nik ordurako hamabost urte baneramatzan institutuan, pentsatu nuen egoki etorriko zitzaidala zerbait aldatzea, bestelako esperientziaren bat edukitzea, eta horrela agian denbora gehiago izango nuela tesia bukatzeko. Beraz, baiezkoa eman nion, eta Jean Haritschelhar irakaslea Bordeleko katedra-arduraduna lehendik ezagutzen nuenez, hark pozik hartu ninduen lankide gisa.

Xabierrek esplikatu zidan egitekoa. Ez zen zaila. Bera baino lehen Koldo Zuazo eibartarra egona zen. Hark zioenez, *hau mortua duk*. Xabier saiatua zen nik utzitako zenbait poemarekin Jon Miranderen poesian sakontzen eta oso edizio polita prestatu zuen Elkarren argitaratzeko. Konturatu zen, ordea, editorial hartakoek ez zutela zuzen jokatu bere edizioarekin, eta Iruñean bere argitaletxe propioa abiaraztea erabaki zuen: *Igela*. Horrela besteek ez zioten ziririk sartuko. Bestalde, ikusia zuen autobusetan zenbat eta zenbat gazte, batik bat neskak, zihoazen liburuak irakurtzen, eta itzultzaile trebea zenez, EUTGn *Filosofia y Letras* egiten ari zela, Patxi Altuna iritzi zorrotzekoak hamar bat eman baitzion itzulpenean, pentsatu zuen ez letorkigukeela gaizki autore modernoen itzulpen onak eskura edukitzea, eta horretara saiatu zen erabat, arrakastaz, hartu bideari denborak arrazoia eman baitio behintzat.

Burokraziaren ohiko paperak bete ondoren, pasaportea, estudioetarako lan-baimena eta horrelakoak, *Université de Bordeaux III*ra, geroago *Michel de Montaigne* deitura, iritsi nintzen. Bordeleko sarreran zegoen, Pessac inguruan. Hasieran beribilez joan banintzen, geroago merkeago ateratzen zitzaidala-eta, trenez hasi nintzen joaten. Goizeko bostetan jaiki, gosaldu, beribila Hendaiako geltokiko parkingean utzi, eta hantxe joaten nintzen seietako trenean Iparralderantz, emigranteen

txartel merkea bulego berezia zeukan Castañeda jaunari erosi ondoren. *Gare de Saint Jean*era heldu, eta fakultateraino zihoan autobusa hartzen nuen. Ordu erdiko bidea gutxienez eta, horrela, bederatziak ingururako hantxe egoten nintzen. Ordutegi ona neukan, bi egunetan partitua. Sei ordu euskarazko klaseak eta beste sei liburuzain.

Biblioteka, Noël Salomon hispanista ospetsuak, *Instituto de Estudios Ibéricos e Iberoamericanos* delakoaren zuzendari izanak eta ikerlari handiak bildua. Bere tesia *Laboraria Espainiako Teatro Barrokoan* izan zen, *Recherches sur le thème paysan dans la "comedia" au temps de Lope de Vega* (Bordeaux: Féret, 1965); ikuspegi berri bat ekarri zuen hispanisten artera. Eta baita berak bildutako literatura ere, bereziki latinoamerikarra. Halaber, euskarari zegokionez, hantxe zeuden René Lafonek eta Jean Haritschelharrek urtero zegokien diru kopurutik egindako liburu erosketak. Gero Jeanek nire esku utziko zuen egiteko hori, gauzak pixka bat eguneratzeko bidean. Nire harremanak Noëlen alabarekin izan ziren, hura baitzen liburuzain nagusia. Bertan, eskatzen zidaten liburuak ikasleei emateaz gainera, Lafonen liburuekin, eta literatur errebista latinoamerikarrekin, hala nola *Bulletin Hispanique* ospetsu eta interesgarriarekin harremanetan hasi nintzen.

Egoitza ondoko jatetxe merke batean bazkaltzen nuen, eta libre nituen orduak liburutegi orokorrean ematen. Badaukat gordeta oraindik nire adiskide Francesc Massipek bidali gutun bat (1986-II-28), non Sitgeseko Jardunaldietako galeradak bidaltzen zizkidan zuzen nitzan, eta halaber galdetzen nola zihoakidan tesia. *¿Has acabado ya tu tesis? Yo estoy en ello y me doy ocho meses de plazo para finalizarla. Si la inspiración me acompaña creo que lo conseguiré.* Francesc da katalanen artean ezagutu dudan langileenetakoa, eta langileak dira, alajainkoa! Tesia *La Festa d'Elx i els misteris medievals europeus,* tituluaz, 1992an Alacanteko hirian argitaratuko zen Institut Juan Gil Albert-Ajuntament d'Elxen babespean, aitzinsolasa Josep Romeu i Figuerasek eta azken solasa, Gaspar Jaén Urbanek idatzirik. Benetako ikerketa-monumentua da.

Juan Carlos Villaverde Amieva asturiar irakasle lagunak gutun bat idatzi zidan (1986-III-1), Verinesko Jardunaldietan elkarrekin zein ongi pasatu genuen gogoratuz, eta Oviedoko Fakultateak antolaturik, eta *Academia de la Llingua Asturiana*k lagundurik, *VII Día de les Lletres Asturianes* ospatzera zihoazela, eta bertan idazle galego, katalan, euskaldun

eta asturiar batek parte hartuko zutela, eta ea maiatzaren 9an bertan parte hartu nahi nuen galdetuz. Baiezkoa eman nion eta oso oroitzapen ona daukat bidaia hartaz, lanbrotsu samarra izan arren, ez dakit sagardoaren ondorioz edota dagoeneko urrun samarra gertatzen zitzaidalako, Pelayoren mendeak ere aipatu zizkidaten, alajaina, … Gogoan dut bederen Jaume Cabré, hizkuntza askotara itzuliak diren liburu anitzen egile eta sari ugari merezi izan dituen idazle katalana bertan izan zela.

Udaberri aldera, zehatzago izateko 1986ko apirilaren hamarrean, Txillardegik gutun bat bidali zidan [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 6)] Anjel Elkoroberezibar eta Iñaki Mozosekin bil nendin aholkatuz, kultur ikerle-hirurko ederra osa genezakeela-eta…

Okendo kafetegian adostu genuen hitzordua, eta oso gazte interesgarria iruditu zitzaidan Miguel Angel Elkoroberezibar, Deustun ingeles filologia egiten ari zena eta gerora *Palamedes. Edward Spencer Dodgsonen identitateari buruz zenbait ohar kritiko* 62 orrialdeko liburuxka plazaratu zuena, *Enseiucarrean* errebistaren separata moduan; haren aurkezpena Durangoko II. Euskarazko Liburu eta Disko azokan egin zuen, 1987ko maiatzaren 30ean.

Egan, Juan San Martin eibartarrak zuzentzen zuen aldizkarian ere plazaratu nuen lan pare bat 1986an. Bata Charles August Friedrich Mähn erromanista alemanaren euskal testuen antologia, 1857an Berlinen plazaratu zuen *Denkmäler der Baschichen Sprache…,* non geroagoko apaiz folkloristen zentsurarik gabe ageri baitziren herri-kanta batzuk. Pena da liburu hura sekula euskaratua ez izana, alemanez bi edizio bederen badituen arren. Eta bestea, argitaragabe zegoen Jean Etxeberri, Uztaritzeko komentuko limosnariak Sarako eskolako neskentzat 1884. urte inguruan moldatu eta haiek antzeztu zuten *Arroltze ohoina*, sorgin sineskerien aurka euskara pollit batean idatzia, Wentworth Websterrek jasoa eta Baionako Herri Liburutegian utzia.

Bordelen, bakarrik egon ohi nintzenez, adiskide baten semea zen Fabrice eta honen neskalaguna zen Palomarekin –honek fakultatean ikasten zuen–, joaten nintzen gehienetan zinera eta gero afaltzera. Bakar-bakarrik ez, konpainia ona bainuen arno bordelesa, eta hura dastatzen hasi nintzelarik, ikerketei edo irakurketei, hala nola inguruko *eijerrei,* zuberotarrek esango luketen moduan, begiradatxoren bat edo beste emanez.

Bibliotekan aurkitu nuen liburuxka bat M. Aguilarrek 1943an titulu honekin Madrilen editatua: *Cuentos viejos de la vieja España (Del siglo XIII al siglo XVIII),* Federico Carlos Sainz de Roblesen ikerketa zeraman edizioa. Timoneda, Quevedo, Cervantes, Montemayor eta besteren artean Esteban de Garibay y Zamalloa (1533-1599) arrasatearraren ipuinak topatu nituen, eta Felipe II.a erregearen historialariaren umore beltza euskarara itzultzea bururatu zitzaidan. Hala bada, *Txertoa* argitaletxeko zuzendaria zen Luis Jiménez de Aberasturik argitaratu zidan, *Behin errementari batek… Garibairen istoriotxoak* liburuxka bere garaiko irudiz hornitua: bere garaiko goseak eta bortizkeriak ageri dira, bai eta Pernando Amezketarrarenak diruditen irtenaldiak ere. Hona haietatik hautaturiko bat:

> Behin Toledon gizon bat urkatzen ari zirelarik, zurubietatik botatzera zihoazenean, edatera eman ziezaioten eskatu zuen. Baso bat ardo eraman zioten eta, edaterakoan, gaineko bitsa haizatu zuen. Urkatzaileak galdetu zion ea zergatik haizatzen zuen aparra, eta urkabera zihoanak erantzun zion: *Giltzurrunetarako oso txarra delako*.

Baionan, Euskal Museoko Liburutegira maiz joana nintzen zenbait liburu eta eskuizkribu kontsultatzera, eta halako batean azken hauen artean *Recueil de quelques pièces de vers anciens et nouveaux (1798)* titulua zeraman bat topatu nuen, eta berehala ohartu nintzen altxor bat zela, poesiaren ikuspegitik. Hainbat poetaren lanez moldatutako lehen poesia bilduma zen: Martin Duhalde, Bernard Larregi, Jean Robin, Otsamendi Arrosakoa eta beste. Laurogei bat orrialdeko ikerketazko aitzinsolasarekin, transkripzioarekin, hiztegiarekin, adizkeren azalpenarekin, onomastikarekin eta bertsoen aurkibide bikoitz batekin prestatu nuen edizioa, eta Jean Haritschelharren aurkezpenarekin plazaratu zuen Durangoko Udalak 1987an, 1986ko Euskal Jaiak zirela-eta antolatu zuten lehiaketara aurkeztu bainuen eta lehen saria irabazi. Gerora, Haritschelharren ordez, Jean Baptiste Orpustan Bordeleko Unibertsitatera iritsi zelarik, DEUA lortzeko, hots, euskarazko diploma izateko, testu nagusietarikoa bezala ezarri zuen liburu hura. Pozgarria, noski, irakasle batentzat.

Pilar Muñoak, garai hartan Madrileko Unibertsitate Konplutentsean euskara-irakasle zenak, 1987ko maiatzaren 12an eginiko poesia-errezi-

taldia zela-eta, liburuxka bat plazaratu zuen, portadan titulu hau zuena: *Joven Poesía Vasca. Atxaga, Casenave, Juaristi, Lasa, Lekuona, Salaberri, Urkizu,* euskaraz eta gaztelaniaz. Ez ginen, noski, denak gazteak, irakurle adituak ongi jakinen duen bezala, baina poza ematen zuen halako konpainia onean egoteak. Nire poema, *Euri Heze* "Llovizna" deitua, *Zeren Azken Finean* poema bildumatik jasoa zen eta itzulpena nirea.



Irudia 41: GALEUZCA 1986.

1986

DONOSTIAN 1986an *Eremu Urriko Hizkuntzen Topaketak* egin ziren Donostiako Miramar Jauregian, bederatzi hizkuntza ezberdinetan idazten zuten idazleak: bretoiak, frisiarrak, suomitarrak, finlandiarrak, suitzarrak, georgiarrak, galegoak, katalanak eta euskaldunak. Eta Euskal Idazleen zuzendaritzarekin bat, euskal liburu batzuk mahai batzuetan erakusgarri ezartzeaz at, Teatro-erakusketa bat aurkeztu genuen. Joxan Arzek bere poesia irakurri zuen ohiko ikuskizun *xamaniko* batean, beti bezain xarmant, misteriotsu eta erakargarri. Xabier Aizarna, Diputatu Nagusia izandakoa ere izan zen bertan, eta Kultur Kontseilaritzako Antzerti Zerbitzuak argitaratu *Euskal Antzertia* liburua oparitu nion. Esan zidan ez zuela ezagutzen. Ez ninduen harritu, baina bai konpreniarazi instituzioek argitaratu liburuek batzuetan jasotzen duten tratua. Hurrengo egunean politikoaren argazkia prentsan ager dadin balio izaten dute, eta segidan sotora doaz, itzalen arteko kanposantura. Argitu eta esplikatu nien zertxobait erakustegiaren zentzuaz eta Euskal Literaturan izan zuen historia luzea, fotografien balioa…


Horrela bada, hurrengo urtean Yann Bouëssel du Bourg, urtetan *Institut Culturel*ean bretainiar literaturaren zuzendaria izan zenak eta *Gwenn ha du* bretainiar egunkari nazionalistan Bretainiari buruz artikulu asko idatziak liburuxka bat bidali zidan. Gwennole le Menn, CNRSeko ikerlearen, Renneseko hirian *Civilisation Bretonne* irakasten zuenaren *Histoire du Théâtre Populaire Breton XVe - XIXe*, 1983an frantsesez argitaratu liburua oparitu zidan. Laurogeita lau orrialdeko liburuxka txit atsegina, ilustrazio eta fotografia zaharrez hornitua. Gutun bat ere bidali zidan ingelesez [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 7)].

1986ko irailaren bukaera aldera (28-29-30), III. Galeuzca Topaketak ospatu genituen Baionan (Galizia), idazle katalan, galego eta euskaldunen artean. Gogoan ditut Baionako ostatu miresgarri hartako ikuspegi ederrak, eta nola gosaltzerakoan hantxe zegoen Juan Carlos Espainiako erregea belaontziko eskifaiarekin. Aldamenean genuen eta haren garaitasunak txunditu ninduen. Fotografia bat bidali zidan aspaldi ez dela Laura Mintegik, eta hantxe ageri gara, bera, Jose Mari Torrealdai, neroni eta beste. Hogeita hamar idazle, gehienak galegoak. Tartean, futbol joka-

larien antzera fotografoari begira, Manuel Maria dela uste dut, zeinen *Maiatza zorabiatuaren pastorala*, Koldo Izagirrek euskaratu zuen. Norbaitek esan zigun, autobusean geundela eta Maria lurraldeari buruz esplikazioak ematen ari zela, ez zegoela inor, Manuel Fraga Iribarne kenduz gero, galiziar guztiak hobeto ezagutzen zituenik. Ni haren ahots sakon eta ederrak liluratu ninduen. Urteen poderioz bakoitzak zeukan irudia askotan galtzera ere iristen da. Lagun onak egin nituela galegoen artean, badakit. Ez dakit zergatik, baina sentikorragoak gertatu zaizkit beti galegoak katalanak baino, hauek hotzago sentitu baititut, eta hobeto konpondu izan naiz, hain bereziak izanik ere, galegoekin katalanekin baino.

Anjel Lertxundi geneukan garai hartan Euskal Idazleen Elkarteko buru, eta *Egan* literatur aldizkarian (1986-5/6) komunikabideei buruz mintzatu zen, eta komunikabideak salatzeko manifestu bat sinatu zen Baionan, zeren garbi eta nabarmen baitzegoen nola gutxiesten gintuzten hizkuntza minorizatuetako idazleak. Uxio Novoneira poeta ere hantxe zegoen, eta hainbeste miresten zuen euskal neska, Mariasun Landa ere bai. Txillardegi ere, ongi oroitzen banaiz eta oker ez banabil, egon zen bertan eta Galiziako kazeta batek egin zion elkarrizketan borroka armatua defenditu zuen. Bestalde, garai hartan Raul Gerra Garridok, Salamanca aldean beste idazle bilkura batean zegoenak, Biltzarrek ligatzeko baizik ez zutela balio esan zuen, egunkariaren arabera.





Irudiak 42-43: Pierre d Urteren hiztegia. Londres 1715.
Tesia, (Azkue saria) 1987, ed. Mundaiz 1989.

1987

TESIA Koldo Mitxelena irakaslearen zuzendaritzapean burutu nuen. Lehenik faksimilea erakutsi nionean esan zidan, *ez, ez, transkripzioa egin behar duzu, tel quel*, hots, *originala kopiatu behar duzu osorik, irakurleari lana erraztu behar zaio.* Eta gero hitzaurrea aurkeztu nionean, esan zidan, *itxura ona du*. Nik uste gehiago espero zuela protestanteei buruzko azterketan, baina nik ahalegin guztiak egin nituen. Ibilia nintzen aztertzen Pabeko artxiboetan, Pariseko Liburutegi Nazionalean eta Protestanteenean, Londresko *British Librar*yn eta beste artxibo batzuetan, *Bibliothèque de Genèv*en, eta abar. Bai eta aztertzen XVIII. mende hasierako euskara eta garaiko hizkuntzalari ingelesen berri ematen ere (Edward Lhwyd, David Wilkins, John Chamberlayne, Richard Plunkett…). Eta tesi-kontuetan iristen da une bat, non moztu behar izaten den, luzamendutan ez galtzeko. Ikerketak 490 orrialde izan zituen 1989an *Mundaiz*, jesuiten argitaletxeak plazaratu edizioan, eta bigarren tomoak, transkripzioak 637 orrialde. Beraz, mila orrialdetik pasatzen ziren bien artean. Pozik gelditu nintzen gainera moldiztegiratua ikusi nuenean, zeren eta Azkuek idatzita utzi baitzuen 1928an: *es y creo será siempre obra inédita.* Iragarle gisara huts egin zuen lekeitiarrak.

Gasteizen aurkeztu nuen 1987ko maiatzaren 19an eta *cum laude* saritu ninduten, epaimahaia honakook osatu zutelarik: Jean Haritschelhar lehendakari, Patxi Goenaga idazkari, eta bokalak: Patxi Altuna, Ibon Sarasola eta Pello Salaburu. Beti esan ohi da tesia pasatzeak une txar bat, trago txarra irenstea esan nahi duela, baina doktore titulua lortzeko pasatu beharra dela. Ohituta nengoen txarragoetara, eta beraz, ahalik eta defentsa txukunena aurkeztu nuen. Patxi Altunari gogorxko iruditu zitzaizkion Urtek *Grammaire Cantabrique Basque* delakoan idatzitako frantses hitzak: *amaren sabeletik bertatik ez zuela Erromako elizaren superstizio guztiengana inolako atxikimendurik*. Poztu nintzen Sarasolak esan zuenarekin, alegia, halako tesi motak zituela gustuko, eta Salabururen lexiko-oharrak funts handirik gabekoak iruditu zitzaizkidan. Beraz, aurrera. Joan ginen, bada, garai hartan ohikoa zen bezala *Portalón*era, eta ohartu nintzen Koldo ez zegoela bere tenplerik hoberenean. Ohi bezala, deus gutxi jan zuen. Edan bai. Patxi Altunak galdetu zidan ea zer asmo neukan eta erantzun nion ez nekiela garbi, oraingoz

Bordeleko Unibertsitatean nintzela irakasle, Institutuko katedrako lana uzteko baimen batekin. Dena den, ongi etorriko zitzaidala titulua eta nahi banuen EUTGen izango nuela lana, erantzun zidan modu gozo eta amultsuan.

Uda partean Urtzi eta biok Erromara joan ginen bidaia antolatu batean. Urtzik 12 urte zituen eta oso ongi pasatu genuen elkarrekin. Erroman moja komentu batean ostatatu gintuzten eta, *mojak bakizu* esaten genion elkarri. Kale eta plazetan zehar, elizak eta Vatikanoko museoa ikusten. *Ecclesia di Jesù* delakoan San Ignaziori eskainitako aldarea, urrez betea, ikusi genuen; Xabierko San Frantziskori eskainia, berriz, zur xumez egina. Jesuitek bereizten zituzten klaseak, alajaina. Tamalez, egun batean erosketak egin eta gero –besteren artean Aldanaren errenazimentuko edizio bat–, autobusera igo ginen, poltsaz beterik, eta autobusa beteta baitzihoan, lapurrek ostu zidaten poltsa. Eskerrak gero gidariak bitartekaritza-lanetan lagundu zidan salaketa poliziari egiterakoan. XIII. Azkue sarietara aurkeztu nuen tesia eta, geroago kazetak jaso zuenez, Jose Ramon Etxebarria harrituta zegoen ikerkuntza arloko saria jasotzeko aurkeztu ziren hamahiru ikerlanen kalitate-maila goragatik. Ahozko elkarrizketa ere pasatu genuen eta azkenean Bilbo Aurrezki Kutxak ematen zuten saria bitan banatu zuten, erdibana, Iñaki Irazabalbeitiari prekozenoei buruzko tesiagatik eta niri Pierre d´Urtez egin lanagatik

Nioen bezala, azkenean, latin-euskara berregituratzean euskara-frantsesa-gaztelania-latina hiztegia bihurtu nuenez, eta Donostiako Informatika fakultateko laguntzari esker, bi mila hitz erabilienak ematen nituenez, arlo berezituetan euskara eguneratzeko ahaleginetan genbiltzan unean oso lagungarria izan zitekeen Urteren hiztegia, Larramendirenaren aitzindaria.

2013ko urrian, ordura arte Shirburn gazteluan egondako Pierre d´Urteren *Grammaire Cantabrique* eta *Dictionarium Latino-cantabricum* eskuizkribuak Londresen Sothebyko enkante batean Gasteizko *Sancho El Sabio* fundazioak 72.000 eurotan bereganatu zituen. Enkantearena jakin nuelarik, Koldo Mitxelena kultur guneko zuzendari zen Frantxis López Landatxeri deitu nion. Hura ere jakinaren gainean zegoen baina, antza denez, Gasteizko Kutxa aberatsago zegoen une horretan Gipuzkoakoa baino, Bibliaren *Ethorkia* eta *Ilkhitcea*ren itzulpena

duen eskuizkribua Bilboko notario bibliofiloa den Jose María Arriola ezagunaren liburutegian dagoelarik.

Donostian, Deustuko Unibertsitateak daukan *campus*ean, Patxi Altunak beste irakasle zenbaitekin antolatuak zituen Euskal Filologia eta *Filologia Hispánica* zeritzaten espezialitateetako lehen ikasturteak eta *Hogeigarren Mendeko Euskal Literatura* irakastea eskaini zidan eta, onartu nuenez, hantxe hasi nintzen klaseak prestatzen eta poesia, nobela, teatroa eta saiogintza irakurtzen, testu zaharrak ahantzi gabe. 1987-88 ikasturtea zen. Horrela, *Mundaiz* errebistan argitaratu nituen Bartzelonako kongresuan aurkeztu nuen aipatu xaribariei buruzko artikulua, adiskide eta lankide ona nuen Juan Mari Lekuonaren poesiaren azterketa. *Edertiaren bidetik gizonaren bila*, edota *Garibairen eskuizkiribu galdu bat (1592)*, alegia, galdutzat ematen ziren Garibairen errefrauen testuak, Pariseko Sainte Genevièveveko liburutegian aurkitu nituenak, eta orobat bulegokide nuen eta ikasle izaniko Elixabete Perez Gaztelurekin batera, *Patxi Altunari omenaldia* prestatu (1990). Hartan bere bibliografia osoa biltzen saiatu ginelarik, erakutsi ondoren esan zidan: *hainbeste idatzi al dut?*

1988

IRUN-HIRIKO Literatur sarietara aurkeztu nuen *Zuberoako irri teatroa, astolasterrak* entsegua eta, 1988an saritu egin zutelarik, pozik nengoen. Urte horretan beste bi lan ere plazaratu nituen. Bata, Serafin Barojari buruzko edizioa: *Bertsoak, Pudente, Tormesko Lazarotxoa… Txertoa* argitaletxean aurkeztua. Julio Caro Barojaren aitzinsolas eder bat dauka, gaztelaniaz idatzia, XIX. mendeko liberal euskaltzaleak aldarrikatuz. Hori eskatzera Luis Jiménez Aberasturi eta biok joan ginen bisitan Berako *Itzea* etxadi ederrera; une benetan atseginak iragan genituen elkarrekin.

Bestea, Jean Duvoisinek burutu Fénelon (François de Salignac de la Mothe) idazle frantsesaren itzulpen zatiaren edizioa Elkarren, *Telemake, Ulisen semearen gertakuntzak, Classiques Garnier*ena baliatuz. Baionako Herri Liburutegian zegoen, MS 85 bezala, ordu arte argitaragabea, non Duvoisinen itzultzaile dohainak benetan libre, argi eta garbi agertzen ziren, Bibliaren nahitaezko itzulpen hertsian baino areago. Gogoan dut liburutxoaren eta *Mundaiz* bilduman plazaratu ziren *Pierre d'Urteren Hiztegia. Londres 1715*, tesiaren bi tomoen aurkezpena egin nuelarik, Patxi Altuna bera klasean zegoela entzule, eta gustatu egin zitzaiola esan nuenean tesiak amodiozko historiak bezalaxe direla, batek gaiaz maitemindu behar duela benetan sakonki ezagutu nahi badu…

Bordelen klaseak ematen ere jarraitzen nuen, *Bietan jarrai* izan baita nire lema, noski, eta gogoan dut nola José Ángel Ascunce, gerraondoko poesia espainolaz eta erbesteaz adituarekin eta Txuma Lasagabaster literatur kritikariarekin Bordeleko eta Deustuko Unibertsitateen arteko harremanak sendotzeko asmoz, Bordelera bisita egin genuen; baina bisita hark, *Études Iberiques*eko arduradunarekin hitz egin ondoren, oso modu atseginean hartu bagintuen ere, ez zuela ondorio handirik eman, ez bazen izan elkar hobeto ezagutzea.

Bordelen zenbait ikaslerekin *Semaine de Langue et Culture Basque* titulua zeraman euskal kultur aste bat antolatu genuen, bertan zinea, artea eta beste erakusten zirelarik. Fakultatean ere eskegi ziren afixak, eta haietako batean *Litérature Basque* agertzen zen lerroan ikasle azkar eta *chovinista* batek honakoa idatzi zuen: *mais ça existe*? Antonio Macha-

do poetak idatzitako hura aplika zekiokeen hari: *Castilla miserable, ayer dominadora, / envuelta en sus harapos desprecia cuanto ignora* [Gaztela miserablea, atzo zanpatzailea / bere zarpatzarretan bildurik ezagutzen ez duena oro mespretxatzen du].

Bordeleko parte zaharreko karriketan barna gauez bakarrik nenbilela, pentsatzen nuen nirekiko, kale hauetatik ere ibili ote zen Bernat Etxepare 1545ean etorri zenean, jin bazen noski, bere *Linguae Vasconum Primitiae,* euskal lehen liburua argitaratzera eta Bernard Leheteri, erregeren abokatu zenari eskaintzera? Ezagutu ote zituen Clement Maroten eskolakoa zen Eustorg de Beaulieu, musikari, antzerkigile, poeta eta Bertranden alaba Margaritaren maisua, zeinak poema bat ere eskaini baitzion *à scientifique et très prudent Seigneur Monsieur Maistre de Lahet,* honen etxean Beaulieu, Jannequin, Cornier du Près gauerdiraino musika jotzen entretenitzen zirenean: *Toy, Blaise, & moy, chantions jusque à my nuyct.* Hotz eginen zuen benetan garai haietan, nire negu gorrian baino areago, batzuetan hamabost gradu zero azpitik egin arren, eta andere aski gazte batzuek minigonez titi-erreka oparoak ilun-argien abaroan eskaini arren.

Jose Maria Velez de Mendizabal Euskal Idazleen Elkarteko buru izan zelarik, eta bere agintaldiaren azken urtean ia ekitaldirik ez zuelarik, Biltzar batean ni hautatu ninduten buru, 1988ko urtarrilaren bukaera aldera. Horixe irakur daiteke *Argia* (1988-II-5) astekarian Gorka Setienek eginiko elkarrizketan. Lezora etorri zitzaidan bisitan, eta bere erroak ere Lezon zeudela azaldu zidan, bere aita Izeta baitzen, Realeko futbol jokalari ohia. Ez ditut sekula konprenitu pertsonen deitura aldaketak. Titularra hauxe zen: *Ahaleginak egingo ditugu euskal idazleen eskabideak zain daitezen.* Nire ganbarako oroitzapenetan daukat ez nuela *eskabideak* esan *eskubideak* baizik. Dena den, hantxe osatu zen batzorde zuzentzailea: Pello Zabaleta (idazkaria), Xabier Mendiguren (diruzaina), Mariasun Landa, Koldo Izagirre, Josu Landa eta Xabier Azurmendi.

Bilerak maizago egiten hasi zirelarik desagertzen joan ziren batzuk. Pello Zabaletarekin gogoan dut nola joan ginen Gasteizera Joseba Arregi kultur kontseilariarekin hitz egitera, Euskal Liburuaren Legea beharrezko ikusten baikenuen euskara eta euskal literatura suspertzeko, baina ez zigun ia kasurik egin. Xabier Mendigurenek gutun luze bat idatzi zien elkartekideei; ez zen batere nire gustukoa izan, doinuagatik batez ere.

Eta Koldo eta Josu ez ziren agertu ia gehiago urteko biltzarrera ez bazen. Mariasun Landa izan zen fidelena, eta hurrengo bileran batzorde zuzentzaile aukeratu genuen. Ramon Etxezarreta hautatu genuen idazkari, eta Joxan Muñoz ere partaide izan zen. Ez zitzaigun egitasmorik falta. Dokumentazio zerbitzua, Biblioteka, Topaketak, Antologia moldaketak, *Boletin* edo aldizkari berria, eta horrela euskal literaturaren kritikaren ur nahasi eta arreetan argitasun pixka bat ezartzearren ere, aldizkari berria jaio zen: *Hegats*. Lehen alea, Xabier Mendigurenek koordinaturik, 1989ko abenduan plazaratu zen *Pamiela* argitaletxeko Txema Aranazek maketatu eta ilustrazio ederrak hautatu zituelarik.



Irudia 44: Euskal idazleen arteko HEGATS 1 aldizkaria (1989…).


Saioak (lehena Iñaki Aldekoak idatzia: *Joseba Sarrionandiaren poesia: Itsasoa gartzelatuta…*), liburu-komentarioak (Jon Juaristiren *Literatura Vasca* –Taurus, 1987– liburuttoaren nire erreseina kritikoa), elkarrizketak (Ana Toledorekin *Fikziozko prosaren sorreraz* tesia aurkeztu ondoren), narrazioak (Xosé Luís Méndez Ferrínen *Percival,* Andres Urrutiak itzulia, eta Stephen Vincent Benéten *Super Flumina Babilonis,* Joseba Sarrionandiak itzulia), poemak (Iñigo Aranbarri, Jose Luis Otamendi, Felipe Juaristi…), jardunaldi-albisteak eta beste.

Juaristiren liburutxoan esaten zirenak zuzentzen saiatu nintzen. Adibidez, Larramendiren jarraitzaile guztiek *escribieron sus obras en el dialecto de esta provincia* (Gipuzkoa), probintzia horretan euskalki bat baino gehiago mintzo direlarik, zeren Sebastian Mendiburuk, oiartzuarra zenez, goi nafarreran idatzi baitzituen bere liburuak. Zuberoako teatro tradizionalaz mintzo delarik ere, hauxe dio: *no existen noticias de la misma hasta finales del siglo XVIII,* aipamen adierazgarriak XVII. mendean badira ere. Bernat Etxeparez *"ignorándose si existió alguna edición anterior o posterior a la de 1545"* dioenean garbi dago ez duela irakurri Piarres Lafittek 1967an plazaratu Arnaud Oihenartek idatzitako *L'Art poétique basque* (1665), eta Erruango moldiztegitzearena. Axularrez *"estudió, según parece, en Salamanca"*, jakina denean agirietatik bertan matrikulatua zegoela… Eta beste. Akats ortografikoez aparte, garbi zegoen edizio hura, azkarregi idatzia, irakurle ez euskaldunarentzat egina, gutxiespen aurreiritzi batzuetatik moldatua zegoela. Nire erreseina honela bukatzen nuen:

> Irakurlea ohar daitekeenez, ez dira soilik ematen oker hitzen formak, azentuak eta silabak, bertso-lerroak ere aldatuta irakur daitezke, eta bertso batean lau irakurketa gaizki eginak badira. Itzulpenak, datak, errebisten izenak eta liburuenak oker agertzen dira orobat. Honek guztiak gorago aipatu dugunaren seinale nabarmena ematen digu. Oroitzen naiz duela urte mordoxka bat Lázaro irakaslearekin kritika berriaz lan bat prestatzen hasi nintzenean adierazi niola nola euskaraz baziren eskuizkribu anitz oraindaino argitaratu gabe zirenak. Uzteko kritika lan hura (Roland Barthesi buruz zen) eta lantzeko antzertiaren esparrua erantzun zidan. Urteak iragan dira ordudanik eta Juaristiren lanak oroitzapen eta gogoeta hauexek eragin dizkit. Oraindik euskal literatura ez dugula ezagutzen ez sakon, ez axaletik, eta zaila izango dela, beraz, ikuspegi orokor bat taxuz ematea –azken urteotako ikuslari aparta izan arren–, ez badira aurre-baldintzak behar bezala betetzen. Alegia, argitaratu gabe diren euskal eskuizkribuak plazaratzen, eta hainbat eta hainbat autoreri zor zaion ikerketa sakona eskaintzen ez zaion bitartean. Eta, orduan, akaso sorpresa handiz jakingo dugu euskal literaturaren eremua ez dela pentsatzen genuen mortua, lili finez beteriko baratze eder bat baizik. Bitartean, *outsider* zenbaiten lanak txit mugatuak izango dira, eta

porrot egingo dute euskal literaturaren historia kritiko bat epaitzerakoan. Mesede kaxkarra egiten zaio, beraz, irakurleari eta azken finean literaturari berari horrelako ikuspegi mugatu, murritz eta bereziekin, elkarrenganako harremanak desegiteko baizik ez baitute balio, elkar ezagutzeko bidean lagundu ordez.

Urtetara entzun izan diot berari, baietz, presaka egindako lana izan zela hura.



Irudia 45: Orreagako Artxiboan aurkitutako pergamino agiria latinez (455. zkia), non Bertrand Lehete Baionako artzapezpikuak Bernat Etchepare izendatzen duen Zaro eta Eiheralarreko apaiz 1511n.

VII

ESKRIBU GALDUEN BILA

1988

IÑAKI MAIZA pasaitarra, garai hartan Bergarako UNEDeko egoitzan zuzendaria zena, etorri zitzaidan behin galdetzera ea joan nahi nuen Madrilera irakasle gisa, eta plaza bat sortuko zutela nire profilerako egokia, hau da, *Lengua y Literatura Vascas* izenekoa. Baiezkoa eman nuen, zeren eta Bordelera astero bidaiatzen hasia nintzenez, zergatik ez Espainia aldera, hizkuntza hobeto menderatzen nuelarik, eta beti irakaskuntza ofizialaren aldekoa nintzenez… Geroago jakingo nuen, Andolin Eguzkitzak esanda, berari ere eskaini ziotela lan hura…

Hasi nintzen bidaiatzen, hobeto esan, bidaiatzen jarraitu nuen. Serafin Barojak bere nobela bati ezarri zion tituluaren gisan, *De Madrid a San Sebastián. Amores prosaicos.* Astero joaten nintzen trenez eta bi gau pasatzen nituen Plaza Santa Ana ondoko ostatu batean, non gauetan bazen Argentinatik etorritakorik isiltzen ez zenik. Amari kontatu nionean Madrilen hasia nintzela lanean, aurrekoan alkate nintzela, *un chupatintas*, bezala presentatu baninduen, oraingoan erantzun zidan, *hori beharra!*

Senda del Rey, s/n, zenbakirik gabeko Erregearen xendran dago *El Chino* izenez ezagutzen zen eraikuntza, garai batean txinatar ikasle unibertsitarioena izana. *Puerta del Sol*en hartzen nuen Metroa eta Moncloaraino joaten nintzen; gero *Parque del Oeste* delako arboladi baten bidexkatik iristen nintzen *Puente de los Ingleses* tren-zubiraino, eta han zegoen erregearen xendra hura. Bestetan Konplutentserantz zihoazen ikasle gazteen artean iristen nintzen Paseo Sénecara eta handik behera joaten nintzen gogoetan nire irakasgaiekin lan-lekuraino.

Berehala ohiko aurkezpenen ondoren, Jenaro Costas, bertako dekano eta Salamancan Mitxelenaren adiskidea izanak, euskara-programak moldatzen jarri ninduen lanean. Galegoa zen etorkiz Jenaro, zehatzago esateko Vigokoa, Latineko katedraduna, Alemanian ikasten egona, nire garaian Salamancan urte batzuk egina, eta ni bezala futbolzalea, Barçaren faboritoa, gaztetan Errenteriako Touringez esaten genuen bezala, nire seme Urtzik deitzen zuen bezala EuskoBarçakoa, Realeko zenbait jokalarik han jokatzen zutenez. Idazkaria Pilar Usabel gasteiztar moja sekularra nuen, urtetan aurrera zihoan benetan emakume apal eta atse-

gina. Geroago, María José López de Ayalak hartuko zuen idazkaritza: bere ordenako mojetan bezala agintzen zekiena, Erromatik pasatutakoa eta, beraz, Laboa monsignore ezagunaren adiskide on-ona.

Garai hartan banuen harremanik ASJU errebistaz arduratzen zen Joseba Lakarra irakaslearekin ere, zeinak gutuna idatzi zidan animatuz zenbait lan aurkeztera [www.patriurkizu.eus (argiataragabeak/gutunak, 8)].

O tempora, o mores! Ciceronek Katilinaren kontrako bere lehen solasean zioen bezala. Edota Jakes Belakoak, Mauleko abokatu protestanteak jaso zuen erran komunaren arabera, *Nur da hire etsaia? Hire ofiziokoa.* Esan dudan bezala Garibairen eskuizkribu galdua *Mundaiz* errebistan argitaratu nuen 1989an. Eta *Corpus Charivaricum* delakoa, bukatu eta Juan San Martini argitaratzeko pasatu arren, bederatzi urte igaroko zituen *Izpegi*, Pierre Bidart eta Jean Baptiste Orpustanek zuzentzen zuten argitaletxeak moldiztegiratu arte.



Irudia 46: Zestoa (1989 ing.), euskal idazle zaharrei omenaldia.
(Beheko lerroan ezkerretik hasita lehena neu).

UNEDek badauka irakaskuntza sistema propioa, zeinaren parte berezia, tutoretzaz at, otsaileko, ekaineko eta iraileko azterketak diren. Areto batean biltzen ginen Filologiako irakasle guztiak, laurogei inguru eta, bakoitzak zerrendan zenbaki bat zuelarik, bonbo batean bolatxo zenbakidunak sarturik, denen artean zozketatzen ziren lekuak: nora

joan azterketak zaintzera. Ia ehun egoitza baitzuen Unibertsitateak, Madrilekoaz aparte, eta bazitekeen zenbakiaren arabera Bergarara joatea, ia inork nahi ez zuena, edota New Yorkera, Parisera, Londresera, Bartzelonara, Albacetera edo Pontevedrara. Horrela bada, pixka bat gehiago bidaiatzen hasi nintzen, eta azterketa-lekuan biltzen ginen zori hura izan genuenak, eta edozein Fakultatekoak izan gintezkeenak: *Derecho, Física, Química, Pedagogía, Filología, Psicología, Ciencias Políticas*… Aberasgarri zen benetan aste batez bai *letretako* jendeekin bai eta *zientzietakoekin* bizitzako ordu batzuk egitea, bereizkuntza haren errotikako okerra behin baino gehiagotan kritikatu eta argitu bazigun Mitxelenak ere.

1989

LUGON 1989ko martxoaren 31, eta apirilaren 1 eta 2an idazle galegoen Bigarren Biltzarra ospatu zelarik, Ramon Etxezarretak kontatzen duenez (*Hegats* 1), Uxio Novoneiraren *Os eidos* poetaren itzulpena, Koldo Izagirrek egina, aurkeztu zen. Euskaldun idazleek nahiko lan bagenuen euskara batua geureganatzen. Hor genituen bederen Mitxelenak ezarritako arauak, denok errespetatzen genituenak (Kardaberazkoek izan ezik), baina galegoek lanak zituzten beren hiru bideekin. Lehena, gaztelaniatik oso hurbil zegoena, *castellanista* deitua. Bigarrena, *lusista,* hau da, portugesera hurbiltzen zena, idazleak, merkatuari so bazegoen, portugaldar eta brasildar irakurleen kopurua batuta zenbaterainokoa izan zitekeen kontuan hartuta har zezakeena. Eta hirugarrena, erdibidean zegoena. Makina bat eztabaida bazuten euren artean. Otordu gozoekin amaitzen ziren bilerak, Ribeiro jaunaren eta Queimada anderearen konpainian, katedralak bisitatuz, Cunqueiro, Fole eta besteren hobietan poemak irakurriz, eta beste.

Iraultza Frantsesaren bigarren mendeurrenarenean Jean Baptiste Orpustan irakasleak Bordelen, CNRSi zegokion ikerketa saileko arduradun bezala, Baionako *Département Interuniversitaire d'Études Basques* delakoarekin batera nazioarteko jardunaldi batzuk antolatu zituen ekainaren 30etik uztailaren 1era. Bertan hamaika irakaslek hartu genuen parte, historialariak eta literatura-kritikariak denak. Emaitzak honako izenburua darama portadan: *1789 et Les Basques. Histoire – Langue – Littérature*. Eta tartean Harispe jeneralaren irudia. Orpustanek sarreran dioenez, historialariek gertakizunak beren koadroan kokatzeko lana egin dute (Jean Goyhenetche, Joseba Agirreazkuenaga, Paloma Miranda…), dagokien bezala, eta hizkuntzalari eta literatur kritikoek euskal gizartean idazleen artean gertaera handi haiek izan zuten harrera. Pierre Bidart Iraultza Frantsesak hizkuntzei zegokienez hartutako neurriez mintzatu zen; Aurelia Arkotxak testu ofizialen garaiko euskaratzeaz idatzi zuen, ohartu gabe (geroago Pello Salaburuk ere egingo zuen bezala) lana egina zela eta benetan ongitxo, Mitxelenak klaseetan erreferentziazkotzat ezartzen zuelarik jadanik Margarita Ricak egin eta ASJUn 1975ean editatu tesinan *(Traduction en basque de termes politiques*

*sous la révolutio*n). Haritschelharrek *Nazioneko besta* poemaren balioak goraipatzen zituen Jules Vinsonen iritzi ezkorraren kontra, Orpustanek Piarres Lafittek aurkitu eta argitaratu Salvat Monho (1749-1821) poetaren ziri-xehetasunak xehekiro aztertu zituen eta neronek garai hartako euskal bertsoak orokorki aztertu nituen. Hasieran, 1789ko oinarrizko aipu hura erakartzen nuelarik askatasun gogoeta gisa: *liburu egilei zilegi behar zaiote izan liburu suerte guzien egitea, kondizionereki soilki, liburu egilea eta autora bera izendatuko direla bere obretan.*

Ekainean lan-bidaia egin ondoren, uztailean beste mota batekoa egin nuen, hamarretik hogeira. Aitzakia: txosten bat aurkezten nuela Lancasterren *Sixth Triennial Colloquium* delakoan, alegia, Erdi Aroko Teatroaren ikerketarako eratu Nazioarteko Taldeak antolatu zituen solasetan. Beribilez atera ginen Antiguako Matia kaletik Xabier Olarra eta biok goizeko hamarretan. Bidean bazkaltzeko atsedenaldi bat hartu ondoren, gaueko bederatzi eta erdietarako Bruselako *Grand Place*n geunden. Benetan ederra zen. Visa hartzen zuten hoteltxo batera eta errestaurantera joan ginen; afaldutakoan ibilalditxo bat egin genuen hainbeste ordu beribilez igaro ondoren, zangoek eskertu zutena, eta hurrengo egunean Rotterdameko porturantz abiatu ginen. Ez genuen pentsatzen hain handia izan zitekeenik. Europako porturik handiena dela ikusi dut Interneten, Pasaiako portu txikira bainengoen ohituta. Rotterdam-Hull ferrya, ontzia hartu genuen hogeita zazpigarren kaian. Gauez igaro zuen Ipar Itsasoa eta hurrengo goizerako Britainia Handian geunden. Lehorreratu, eta, lehenengo gauza, Eskozia aldera jotzea egin genuen, eta han goizez sartu ginelarik, hotel batera joan eta whiskia eskatu. Tradizioarekin bete genuenean –eta benetan gustagarria zegoen zurrutada hura–, kafesne beroa ere eskatu genuen, uztaila izan arren ez baitzuen batere berorik egiten.

Edinburgora ere igo ginen eta Walter Scotten monumentua agurtu ondoren, mendebaldeko kostan zegoen Lancasterrera abiatu ginen. Aurrez aurre *Isle of Man* eta harantzago Irlanda. Massip, Quirante, Manuel Gómez, Rafael Portillo ginen Espainiatik igotakoak. Kongresuko hizkuntza bakarrak, ingelesa eta frantsesa. Ez zeuden denak oso pozik. Gauean zerbeza batzuk edan genituelarik, Xabierrek arrakasta handia izan zuen hegoaldekoen artean. Akten fotokopiez moldatu liburukotea jaso genuen. 65 txosten, eta ia denak interesgarriak. Lancaster utzi eta

Banburyra inguratu ginen, han baitzegoen Urtzi, familia batean ingelesa ikasten. Elkarrekin ordu batzuk eman eta Londresera jo genuen; bidean Shirburngo gazteluari begiradatxo bat eman genion. Hango Earl of Macclesfield jauntxoaren liburutegian zeutzan Pierre d´Urteren eskuizkribuak, baina partikularrentzat itxita zegoen, eta jauregira igarotzeko bidea krokodiloz beteriko urtegi batek inguratzen zuen. Zehatzago esateko, lubaki gaindiezin batek.

Londresen, bila zebilen nobela beltzak aurkitzen lagundu nion Xabierri. Baziren liburu-dendak benetan gertaturiko krimenez betetako apal osoekin. Gogoan dut hauetariko andere historiagile baten etxera ere joan ginela eta aurkitu zuela Xabierrek bila zebilen nobela. Nik ere erosi nituen liburu batzuk, gaeliko hiztegiak, musika bildumak, Bédierren *Les légendes épiques* edizio zaharra libera erdian, eta zortzi liberatan Captain Leslie Richardsonek Londresen 1927an argitaratu *Things seen in The Pyrenees French & Spanish,* fotografia ederduna. *Tate Galery* eta *British Museum* ere bisitatu genituen. Egiten zuen beroarekin biak bibotedun eta janzkera berdintsuarekin, ea anaiak al ginen galdetu ziguten behin baino gehiagotan. Ia planorik gabe, mendian ibiltzeko jaidurak lortzen zuen gauez Londresko kaleetan zehar hotela aurki genezan.

Xabierrek itzultzeko hegazkina hartu zuelarik, abuztuaren 21ean iritsi zen Marga, eta oraingoan Gales aldera abiatu ginen. Bath hiritik, erromatarren garaiko bainutegia, abadia zaharrak eta etxe dotoreak zituenetik pasa eta gora jo genuen, Eskozia aldera, baina oraingoan mendebaldeko kostatik. *Isle of Sky*. Uharte honetan ere izan ginen *Talisker* whiski destileria bisitatzen. Hango lakuak, mendiak, basoak, hango hodeiak batetik bestera igarotzen eta lakuetan zilarrezko eta berunezko koloreak pintatzen, benetan parajerik erromantikoenetakoa bilakatu zitzaigun biontzat. Gaztelu urrun batean eskoziar gonaz jantzitako etxeko nagusiarekin afaltzea, benetan liluragarria. Pena ura hotz samarra zela eta ez ginela bainatzen ausartu. Glasgowera jaitsi eta hango portutik Belfastera pasatu ginen. Benetan gerra egoera zegoela zirudien, zeren eta hirira sartu ginenean hantxe ikusi genuen burdinazko ate handi bat, hesi beltz bat hilen koroez betea. Aparkatu eta pub bat bilatu genuen. Han bai, barrenean atsegin zegoen. Zerbeza eta janaria ona zen eta jendeari ez zitzaion umorerik falta balada zaharrak kantatzeko. Liburuak ere baziren eskura esalkien ondoko apaletan. Kale batetik bestera pasa-

tzeko zentzu bakarreko burdinazko ate birakariak igaro behar genituen eta poliziaren furgonetak erabat grisak ziren. Ez zuten ez matrikularik, ez inongo seinalerik, munstro beldurgarriak ziruditen.

Beraz, handik Dublin aldera alde egitea erabaki genuen. Bidean gindoazela, soldadu talde ingeles bat ikusi genuen korrika gure aurre--aurrean karreteran batetik bestera pasatzen. Atentaturen bat gertatu berria behar zuen izan, edo entrenamendu-maniobraren bat. Uztailak 30 zituen goizean beribila hartzera joan ginenean, eta dagoeneko Dublinen geundelarik, ohartu ginen leihatila hautsita genuela eta atzeko partean ziren liburu, gabardina eta poltsak lapurtuta. Poliziarengana jo genuen eta hauek dagoeneko bilduak zituzten hantxe lapurtutako gauza guztiak. Garaje batera joan ginen leihatila konpontzera eta honelako lanetan goiza galdu genuen. Eskerrak gauean pub batean barre aski egin genuen mutil zahar batekin. Sekula ez zuen ardorik probatu eta aita santua ere ez zuen gehiegi maite. Benetan gauza arraro eta bitxia hain leku katolikoan.

*Trinity College*ko liburutegian egon nintzen, eta esku artean eduki nuen Edward Lhwydek eginiko latin-euskara-ingelesa hiztegia (MS 1320-9): *Abhinc-handic-thoce, Bellum, batalla, guerla, war…, Curro, laster, irun…, Dominus, Jauna, Sir…, Heri, atzo, yesterday…, Ita, bada, hala, so…, Vulnero, lot ceçaten lagun gazte, wound*eraino zihoana. Kopiatu nituen orrialde batzuk, baina egia esan ez zen interes handikoa, Joanes Leizarragaren *Testamentu Berria*ren itzulpenetik jasoak baitziren euskal hitz haiek, eta, beraz, *codex descriptus* bezala kontsidera zitekeen. Hots, berrikuntza batere ez zuena, bitxikeriarena baizik.

Galwayra joan ginen. Corrib ibaiaren bokalera inguratu ginenean, hura edertasuna. Dena zegoen zisne zuriz beteta. Gaeliko pixka bat ere entzun genuen, andereño eta haur batzuen ahotan. Pub batean mozkorturik builaka eta garrasika zeuden zelta zibilizatu gabe batzuk, eta Margaren truke libera batzuek eskaini zizkidaten, begi ezti kolorekoak baitzituen eta ile kixkur ilunekoa baitzen orduan. Irrintzi euskaldun batez erantzun nien izuak eraginik eta alde egin genuen. Corkera. Han itsasontzia hartu genuen Le Havre aldera. Gogoan dut Margak oso gau txarra iragan zuela, erabat mareaturik. Hiri frantsesean askoz hobeto sentitu zen eta Donostiara iritsi ginenean, Eskoziako paraje miresgarriak garaile irten ziren oroitzapenen ganbaran.

Donostian *II Nazioarteko Literatur Topaketak. Narraziogintza eta Kritika* prestatzen hasi ginen. Itzulpen sistema, idazleen hautaketa eta beste. Urriaren bitik laura iraun zuen, eta entzule gehiegirik ez zen izan, tamalez. Harrera hitzaldia Imanol Murua, Diputatu Nagusiak egin zuen. Hitz batzuk prestatuak nizkion, Diputazioak euskararen historia mantentzen izandako zeregina aipatuz, hala nola lehen euskal gramatikaren ordaintzen, hau da, Salamancan 1729an argitaratu zen Larramendiren *El Imposible Vencido*n. Gorde dudan fotografian agertzen garenak: Anjel Lertxundi irribarretsu, Imanol Murua irakurtzen bere traje eta gorbataz jantzia, Txomin Peillen bere ohiko tximeletarekin eta neu, jertsea bizkarrean, Arzallusen eran…

Joseba Arregi, Kultura Sailburuak *Hegats*ek eskaini sarrera hitzetan zioen, *Handia zuen erantzukizuna, hitza argi bihurtu beharrean ilundu dezakezutelako, garden egin beharrean, norberaren ispilu huts, sortzaile, aldatzaile eta askatzaile bihurtu beharrean, lotura huts bihurtu dezakezutelako absolutismoaren liluraz, dogmakeriaz, arinkeriaz…* Beraz, erne egon gintezen abisatzen zigun, idazleon arriskuez ohartarazten… geroago berak idatzitakoei ere, argi eta garbi bere buruari aplika zekiokeelarik.


Itzultzaile talde batek lagundu zigun testuak euskaratzen eta hauexek izan ziren zehazki. Xabier Mendigurenek Paola Traversoren testua. Paola, gure adiskide Bernhard Hurch hizkuntzalariaren neskalaguna, psikokritikan aditua zen eta Wuppertalgo Unibertsitatean, Engelsen jaioterrian irakaslea; oso une atseginak igaro genituen elkarrekin. Koldo Bigurik Vincenzo Consolo eta Danilo Maneraren testuak. Azken hau Milango Unibertsitateko irakasle eta hispanista ezaguna; Xabier Kintanaren laguntzaz Ramon Saizarbitoriaren *Cento Metri* (1985) eta Bernat Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae…* (1995) itzuli ditu italierara. Alemaniatik eta, zehatzago esateko, Hamburgetik iritsiak ziren Juta Heinrich eta Angela Pietrzik, bi walkiria marginaliaren antzutasunaz eta literatur postaz hitz egitera. Finlandiatik Jarkko Laine eta Ingmar Svedberg, Frisiatik Tsjêbbe Hettinga eta Wilco Berga, Irlandatik Seamas Mac Annaidh, neuk kontaktatua, Maite Gonzalezek itzuli zituenak; Norvegiatik John Gustavsen eta Estoniatik iritsi Aivo Lohmusen txostenak, Koro Navarrok. Halaber Galeuzcako ohikoak: Galiziatik Francisco Salinas, Bego Montoriok itzulia, Kataluniatik Marta Nadal eta Vicenç Villatoro, Josu Zabaletak itzuliak, eta Euskal Herritik Txuma Lasagabaster, Txomin Peillen eta Andu Lertxundi, azken honek bere obrari buruz.

Lasagabasterren titulua hauxe zen: *"De Arranondo a Obaba, pasando por Madrid"*. Txumaren analisia, ohi bezala, oso dotore idatzia zen; Parisen Roland Barthesen ikasle izana, EUTGn Literatur Kritika irakasten zuen eta bereziki *Narratologia*. Kurtso bereko ikasle eta jarraitzaile dira Maria Jose Olaziregi, Iñaki Aldekoa eta Joseba Gabilondo. Mitxelenak bere zorroztasunez behin hala definitu zuen, *"parvenu" bat da*, iritsi berria zela euskal letren mundura; noski, tesia Aldekoaren nobelagintzaz gaztelaniaz burutua zuen eta ez beste askorik gehiago. Baroja ahantzirik geneukala, formaren inflazioa emateari zela-eta, euskal literaturari egin geniezaiokeen mesederik handiena euskara ahaztea zela zioen; euskal narratiba ez ukatu arren, zalantzan jartzen zuen *su consistencia y su calidad, no sólo estética, sino narrativa y hasta lingüística*, alegia, kalitate estetikoa, narratiboa, eta hizkuntzari zegokiona, berak ongi menderatu ez arren, bai. Eta Atxagaren literatura goraipatzen zuen, tradizio kultua eta herrikoia lotzen jakin izan zuelako. Horixe preseski izan zen Euskadi Saria eman genionean eta elkarrekin epaitu genuenean neuk idatzi nuena. Dena den, beti pentsatu izan dut zein-nahi hizkuntzatan idazten delarik ere, ezinezkoa dela hizkuntzaz *liberatzea*, bere lehen materia denez. Topaketen aktek *Hegats 2 Literatur Aldizkaria* osatu zuten eta 1990eko maiatzean plazaratu ziren. Beraz aski azkar, ohiko atzeramenduak kontuan hartzen badira.

Urriaren 25, 26 eta 27an *Liburuaren III. Europako Batzarra* ospatzen zen Valentzian eta haraxe joan ginen. Hiriak izandako modernizazioak benetan txunditu gintuen, basakeria iruditu arren hiri bati ibaia kentzea. Hantxe ibili ginen agintari, liburugile, ikerle, zabaltzaile eta dendari mordoxka: suediarrak, holandarrak, ingelesak, frantsesak, italiarrak, alemanak, portugesak, poloniarrak, hungariarrak, galegoak, katalanak eta euskaldunak… Asmo oneko biltzarra zen, baina ez dakit ondorio on askorik izan zuen. *Associació d'Escriptors en Llengua Catalana, Asociación de Escritores en Lingua Galega* eta *Euskal Idazleen Elkarte*ko ordezkariek (Jaume Pérez Montaner, Uxio Novoneira eta neu) hemen honela laburtzen dudana aurkeztu genien biltzarkideei. Bat: Eremu Urriko Literatura guztiak sartzea Europako Komunitatearen Biblioteka Ondarean. Eta bi: hizkuntza hauetako literatura Europako hizkuntza orotara itzultzeko eta argitaratzeko funts ekonomiko bat sortzea.

Azaroaren 17tik 19ra Santiagon *VI. Galeuzca* ospatu genuen idazlearen konpromiso politiko eta literarioez; solas ugari sortu zen, batzuk interesgarriak, besteak aski aspergarriak.

Beraz, 1989. urtea anitz alorretan emankorra izan zela esan dezaket. Alde batetik, 1989ko urtarrilaren batetik aurrera UNEDen *Profesor Titular de Lengua y Literatura Vascas* nintzen, oposizio-proba gainditurik, eta zegozkion lanetan murgiltzen hasia nintzen eta, bestetik, EIEn, hots, Euskal Idazleen Elkartean, euskal literatura munduratzeko ahaleginetan jo eta ke nenbilen, eta Madrilen martxan jarria geneukan *Revista de Lenguas y Literaturas catalana, gallega y vasca* delakoa, egun Interneten digitalizatua dagoena. Donostian *Hegats*en lehen alea plazaratzea lortu genuen, zeinari Anjel Lertxundik bere ohiko zutabetxoan, ez zion etorkizun handirik ikusi, orokorrean literatur errebistak bizitza laburrekoak omen zirenez… Dagoeneko 52. alera iritsia zaigu.



Irudia 47: Jose Luis Zumeta, GALEUZCA, Iruñea 1991.

1990

BI TESITAKO epaimahaietan egotea suertatu zitzaidan 89/90 ikasturtean. Bata, Aurelia Arkotxak Bordeleko Unibertsitatean Gabriel Arestiren *"Maldan behera"* poemaz egindakoan; ASJUn argitaratuko zuen 1993an [*Imaginaire et poésie dans Maldan behera de Gabriel Aresti (1933-1975)*]; sarreran eskertzen zizkidan, utzi nizkion nire Gabriel Arestirekiko harremanetan gordetako poemak *du plus haut intérêt,* alegia, interes handiko gertatu zitzaizkiolako. Bestea, Juan Kruz Igerabidek Euskal Herriko Unibertsitatean defenditu zuen *Herri poesia eta gerraurreko lirika: Lizardi, Lauaxeta, Orixe.* Biak, inolako nobedade handirik ez ekarri arren, nahiko ongi taxutuak zeudenez, notarik hoberenarekin pasatu ziren aurrera.

Madrilen Fakultateko lanak bukatutakoan, maiz joaten nintzen *Café Central*era zerbeza bat edanez jazz entzutera; behin baino gehiagotan entzun izan dut han Rupper Ordorika kantari. Zerbitzaria ezagutzen nuen, eta halako elkarrizketa batean, jende askorik ez zegoen arratsalde batean kontatu nion nola suertatu zitzaidan UNEDekin Argentinara joatea azterketak zaintzera. Berak erantzun zidan egona zela bertan eta nik galdetu nionean ea ezagutzen zuen hotel merkerik Buenos Airesen, Asturiaseko batzuek zeramaten bat gomendatu zidan.



Irudia 48: GALEUZCAko euskal idazleeen taldea, 1990.

Hartu nuen bada hegazkina Madrilen Buenos Aireserat, Victor, UNEDeko bidaia-bulegoaren arduradunak emandako txartelekin. Madrid-Buenos Aires-Rosario-Río Janeiro-Madrid. Horixe zen arruta. Tenerifen lur hartu genuen gauez, eta ordu batzuk itxaron ondoren, berriro abiatu ginen Argentinarantz. Aldamenean ni baino urte batzuk zaharragoa zen mutiltzar bat eseri zitzaidan; Kanariar Uharteetan emakumeekin izandako abenturak kontatu zizkidan. Amorante herrena dei nezakeen. Ez zuen Buenos Airesen hotelik aurrez alokatu eta lapak bezala itsatsi zitzaidan. Eta ez soilik lo-lekua aurkitzeko, asturiar atsegin batzuek zuzentzen zuten Florida kalean, 334 zenbakian eta *Eibar* izena zueneraino. Afaltzera eta ondoren lunfardoz tangoak kantatzen zituzten lekura, *Café Tortoni*ra, noski, entzutera nirekin ere bazetorren, eta edariak ia beti nire kontura ohi ziren. Ernesto Sabatoren liburutxoa irakurria nuen. *Kantatzen eta dantzatzen den tristeziaz beteriko gogoeta da tangoa.* Gizonaren barneraino sartzen den aire malenkoniatsua. Nire aitaginarreba Manolok bazkalondoetan hain ongi kantatzen zuen hura ere entzun genuen XX. mendeko patuaz:

¡Hoy resulta que es lo mismo
ser derecho que traidor!…
¡Ignorante, sabio o chorro,
generoso o estafador! ¡Todo es igual!
¡Nada es mejor!
¡Lo mismo un burro
que un gran profesor!

Hiribide erraldoi haiek txunditu ninduten eta bankuen ondoetan jende ilarak ikusten nituen. Esan zidatenez, jendeak ilaren hasieran despentsa eta freskerak betetzen zituen eta gelditzen zitzaizkion pesoak dolarretara aldatzen. Liburu-dendak oso xumeak iruditu zitzaizkidan, eta gauza berezirik erosi gabe joan nintzen hegazkinez Buenos Airesetik Rosariora, amorante herrena abandonaturik.

Rosarion, UNEDen eta ICADEn lan egiten zuen Blanca Lozano irakaslea topatu nuen. Gaztea eta atsegina zen. *Derecho Administrativo*ko irakaslea zen. Bere aitak Panaman enbaxadan lan egiten zuenean monsignore Laboa ezagutua, zeinak sanjuandar umoretsu gisara txiste berdeak ere kontatzen baitzizkien neska gaztetxoei. Baneraman gutun

bat etorkiz Idiazabalgoa zen Nora Mujikarentzat. Nire adiskide Ixabel Mujikaren ahaidea zen. Unibertsitatean latina irakasten zuen eta handik urte batzuetara argitaratu berria zuen *Gramática nodal* deitua bidali zidan. Bere etxean oso ongi errezibitu ninduten eta bere senarra zen Eduardo Fignoni jaunarekin –medikua bera– adiskide ona egin nintzen. Ezagutu dudan gizonik alaiena eta interesgarrienetakoa. *Zazpirak Bat*eko frontoian jokatzen nuen berarekin eta gero afaldu eta kantatu egiten genuen jende askorekin. Behin, hirian *Centro Navarro* bat eduki arren, semea Euskal Etxera bidaltzen zuen tafallar baten yatean Parana ibai handi hartan ibili bat egitera joan ginen elkarrekin eta txango liluragarri bat egin genuen, erdia baso zen uhartetxo batean gosaldurik.

Blancarekin Asunciónéraino joan nintzen eta han, hiriaren bisita labur bat egin ondoren, eta taxi bat hartuta, ia autobusa galdu genuen; Iguaçuko ur-jauziak ikustera joan ginen. Hango ibaien handia kontenplatuz harri eta zur geunden, eta indioei zenbait oroigarri erosita, Río Janeirora joan nintzen bakarrik; Blanca, berriz, Madrilera itzuli zen.

Praia de Copacabana inguruko hotel batean hartu nuen gela hiru gauerako. Lehenengo goizean euri zaparrada beropean hiriaren itzulinguru luze bat egin nuen itsasertzetik eta taberna txiki eta xume batean berriketan eta musika entzuten oso modu atseginean egon ondoren, gauean hondartza ondoko jatetxe batean afaltzeko asmotan atera nintzen, baina halako batean, pauso-hots batzuk sentitu nituen gibelean eta, handik une batera esnatu nintzenean, lurrean nengoen, konorterik gabe utzi baininduten buruan kolpe bat emanda. Poltsikoan neramatzan diruak, hogei bat mila pezeta eta erlojua kendu zizkidaten, neraman karnabaletako errebista aldamenean utzita. Bidaiako unerik tristeena izan zen. Gelditzen zitzaidan astian ez nintzen hoteletik atera, beldurtuta, kolpe haren eraginez. Igerilekuan bainatzen eta eramandako nobelak irakurtzen egon nintzen. Brasilgo gertakari honek bertara berriz itzultzeko gogoa kentzeaz gain, Madrilen ere, gauez bakarrik nenbilenean, ordu arte sekula sentitu ez nuen bezalako izu-zimikoak kosk egiten zidan.

Presaka, Juaristik idatzitako *Literatura Vasca* eskas eta gaiztoaren, hantustez eta aurreritziz betetako ehun eta berrogeita hamar orrialdeko Ibon Sarasolaren *Euskal Literaturaren Historia*, Joxe Azurmendiren hitzetan *azterketa pobrea* zenaren aurrean, haien hutsuneak betetzearren,

Piarres Lafitteren artikulu bilduma prestatu nuen, *Euskal Literaturaz* (Euskal Klasikoak, Erein 1990), non lehenik Herri Literaturaz bost ikerketa-lan serio biltzen ziren, eta gero XX. mendekoari hogeita bi eskaintzen. Hiztegitxo bat eta aipatutako idazle eta idazlanen zerrenda gehitu nion. Orotara 377 orrialde trinko osatzen zuten.

Baionan egiten nituen ikerketa-saioetan, liburu gisa plazaratu gabeko nobelatxo bat aurkitu nuen, *Herria* astekariaren 1946. urteko urtarrilean hasi eta abuztura arte epeka argitaratua. *Antton* zuen titulua eta Jean Pierre Iratchet egilea. Hain modu arin eta erakargarrian idazten zuen bidarraitar hura nor zen jakin nahirik, *Etor* argitaletxearen eskutik eskubide gisa sos batzuk hartuta, Bucloseko misiotegiraino joan nintzen nire seme Urtzirekin, eta hiruok elkarrekin bazkari goxo bat egin genuela oroitzen naiz. Esan zidanez, lehen aldia zuen euskaraz idatzitako zerbaitegatik ordaintzen ziotena, eta hamaika kontu kontatu zizkigun, grazia handiz, alemanen okupazioko garai tristeaz. Gaia Marixan eta Anttonen harremanez zen eta nabari zitzaion, aitzin-solasean nioen bezala, *prediku aireñoa, euskara, herria eta ohitura onak abandonatuz hiri hantuste eta fantesia hutsez beterikakora doan andere buru-arinaren kritikan.* Hala ere, erritmo azkarra, euskararen aberastasuna eta bidarraitarraren umore aparta azpimarratzen nituen.

Jardunaldiak prestatzen ere jarraikitzen genuen Euskal Idazleen Elkartean eta, horrela, Mallorcan urriaren 11tik 14ra *La creació literària davant l'homogeneïtzació cultural* topaketa antolatu genuen, hau da, kultur berdineratzearen aurrean literatur sorketaren betebeharraz, gai nagusitzat.

Honako testuak irakurri zituzten bertara inguratu ziren euskal idazleek. Lehen sailean: Joserra Garzia *(Homogeneización de la cultura)*; Koldo Izagirre ez zena jardunaldietara joan, baina txosten bat bidali zuen beste norbaitek (Iñigo Aranbarrik) irakur zezan; honela hasten zen: "Ante celtas latinizados, ante fenicios romanizados, es comprensible que un vasco se presente con cierta arrogancia" *(El puente de Roma)*. Henriette Aire, Xalbador poeta-bertsolariaren alabak *Kultur homogeneizazioaren aurrean Euskal Herri Iparraldeko literatur kreazioa* gaiaz jardun zuen. Miguel-Anxo Fernán Vello, poeta, editore eta politiko galegistak, bere soin argal, jantzi beltz eta bizar luzearekin bardo erromantiko tipikoa zirudienak, *Homoxeneizacion cultural? No, thanks* zioen artikulua,

eta Vicenç Villatoro, telebista katalanean programa bat zeukanak, beste honako hau: *Una qüestió de tint.*

Bigarren gaia *Historia eta Narratiba: egungo dialektika*. Bertan parte hartu genuen Xosé Manuel Martínez Oca galegoak, Maria Antònia Oliver katalanak, Joan Mari Irigoienek, Josemari Iturraldek eta neuk. Nire testuak honako titulua zeukan: *Ohar labur batzuk euskal nobela historikoaz.* Borgesen *Otras Inquisiciones* liburuko aipamen batekin hasten nintzen; hartan zioen Saxo Gramáticok arrazoiz idatzi zuela bere *Gesta Danorum*etan Thuleko (Islandia) gizonek atseginez ikasten eta erregistratzen zutela herri guztien historia, eta besteen bikaintasunak beraienak bezainbateko ospez kontsideratzen zituztela, eta ez saxoiak bere hitzak esan zituen egunak, baizik eta etsaiak betikotu zituenak seinalatzen duela data historiko bat. Oraindik etorkizunean dagoen zerbaiten data profetikoa: odol eta nazioen ahaztea, giza generoaren elkartasuna. Halaber, aipatzen nuen Amado Alonso irakasle nafarraren *Ensayo sobre la novela histórica,* eta azpimarratzen idazleen arrakasta iraunkorraren arrazoia ez datzala egilearen arte arkeologikoan, ez eta ezaguera erudituan, bigarren mailako edo aldez aurretiko baldintza baita hori, bizitza batzuen tentsioa garbi eta argi, edertasunez azaltzeko gaitasunean baizik. Eta beste autore atzerritar eta euskaldunen artean, Marguerite Yourcenar eta haren *Mémoires d'Hadrien,* Joxe Austin Arrietak euskarara itzulia eta goraipatua ere aipatzen nuen, eta nola Yourcenarrek barrutik, mendeko arkeologoek kanpotik egin zutena berregin nahi duen, eta Jean d'Ornessonek Frantziako Akademian lehen emakumea sartzean erantzun-diskurtsoan esan zituen hitz haiek ere gogora genitzakeen :

> *Il faut faire ici un aveu que je n'ai fait à personne: je n'ai jamais eu le sentiment d'appartenir complètement à aucun lieu, pas même à mon Athènes bien-aimée, pas à Rome. Étranger partout, je ne me sentais particulièrement isolé nulle part.*

Eta eransten nuen: *Nork hitz egiten du? Nor da testuaren egilea? Adriano, Marguerite, Borges ala gutariko edonor…?*

Poesiaren krisia gizarte teknologikoan izan zen hirugarren gaia. Gai horretan Iñigo Aranbarri, Jose Luis Otamendi, Edorta Jimenez eta Jon Kortazarrek hartu zuten parte euskaldunen artean.

Hitzaldiak eta elkarte-afariak bukatutakoan, gauez batzuk ohera joaten ziren edo ligatzen pasatzen zuten beren astia; beste euskaldun talde bat –Iñigo Aranbarri, Xabier Azurmendi, Joxerra Gartzia, ni neu eta beste batzuk– zerbezak, kubalibreak eta gin-tonicak edaten eta literaturaz eztabaidatzen geratzen ginen berandu arte, batzuek bertsotan egiteko ahalmena, gogoa eta artea ere bazutelarik. Animatuta geunden euskal talde kantaria ginen, tradizioari jarraikiz. Kolore politiko ezberdinetakoak baginen tartean, baina bazen lotura sakonago bat gure artean…

Oso gustura itzuli ginen etxera, eta Donostian azaroaren 12tik 16rako *XX. mendeko euskal literatura* jardunaldiak prestatzen hasi ginen elkarteko lankide ziren Maite Gonzalez eta Begoña Andonegirekin. Aste osoa hartu genuen euskal literaturaren mendeko zutabe nagusiak aztertzeko; EUTGn eman nituen klaseen egiturari erantzuten zioten. Planteamendu irekia zuen, bost epe nagusitan banatua, bertan irakasle, poeta, saiogile eta nobelista garrantzitsuenak bilduta; sail bakoitzaren bukaeran mahai inguru bat antolatzen zen. Hauek izan ziren sailak eta partaideak:

1 Mende hasiera (Jean Haritschelhar, Ana Toledo eta Piarres Xarriton).
2 Errepublika garaia (Juan Kruz Igarabide, Paulo Iztueta, Jon Kortazar eta Patri Urkizu).
3 Erbestea (Joan Mari Torrealdai, Martin Ugalde, Josemari Velez de Mendizabal, Eduardo Gil Bera).
4 Bide berriak (Aurelia Arkotxa, Elixabete Perez Gaztelu, Santi Onaindia, Joxe Azurmendi).
5 Gaurko Literatura (Bitoriano Gandiaga, Bernardo Atxaga, Itxaro Borda, Joan Mari Irigoien, zeinari *Babilonia* eleberria zela-eta, Euskadi saria eman berri genion epaimahaikoek). Mahai ingurua.

Literaturzale ororentzat, bai ikasle, bai maisu, bai idazle, bai interesatu, edonorentzat antolatuak ziren, iritzi trukerako leku. Azken sailean, bakoitzak bere obraz hitz egin behar zuen, eta hala egin zuen, Atxagaren kasuan izan ezik. Hark, bere mundu presati eta bidaiez betean, ez baitzuen gaia ongi jaso, antza denez, eta *Gogoetak euskal literaturaz* be-

zalako testu bat bidali zuen. Iparraldeak, Bizkaiak eta Gipuzkoak bazituzten ordezkariak, noski. Eta, oro har, esan dezaket pozik geratu ginela orobat entzuleen parte hartze handiagatik. Gogoan dut nola Bernardoren hitzaldian, zeinetara Donostian barrena galduta beranduxeago iritsi baitzen Lisboatik hona gauez egindako bidaiaren ondoren, eserleku guztiak beteta eta jendea lurrean eserita zegoen. Elkarrizketa sutsua izan zen, eta erasoak baretzeko asmoz, galdetu nion ea zein egitasmotan sartuta zebilen, zein izango zen bere hurrengo nobela.

Hitzaldietako eta mahai inguruetako eztabaidek, non besteen artean Juan Mari Lekuona, Mikel Hernandez Abaitua edota Joseba Barriolak parte hartu baitzuten, 266 orrialde mamitsu betetzen zituzten, eta azken hitza apaizek bere ohi dutenez Bitoriano Gandiagari eman zitzaion, zeinak hau esan zuen: *Bukatzeko baldin bada, gustora esango dut. Nik neuk ez dut irakurtzen neuk idatzitakorik berriro, nahiago dut denbora besteek idazten dutena irakurtzen pasatu. Amen.*

1991ko ekainean argitaratu genuen *Hegats 4*a, ordu arteko lodiena baina baita XX. mendeko euskal literaturaz ikuspegi zabalena eta sakonena ematen zuena ere, eta ausartuko nintzateke esatera oraindik liburu batean bilduta, geroztik sortu obren hutsuneekin, noski, saio antologiarik osatuena dela.

Urtea bukatzeko, eta *Manuel Larramendiren Heriotzaren Hirugarren mendeurrena* zela-eta (1690-1766), Euskaltzaindiak antolaturik, Andoainen abenduaren 21-22-23an hitzaldi zenbait eman ziren (hogei), Euskal Herriko agintarien eta herri xumearen aurrean, hiru sailetan banaturik: Biografia, Patxi Altunaren eta Ignazio Telletxearen eskutik; Historia, Gregorio Monreal, Antonio Elorza eta beste zenbaiten eskutik; eta sailik oparoena, hizkuntzarena: Joseba Lakarra –hark plazaratu zituen 1992an akten bilduma eta hitzaldietara joandakoen erreportaje grafikoa–, Larramendi aurreko hiztegigintzaz mintzatu zen; ni Hiztegi Hirukoitzak iparraldeko zenbait idazlerengan izan zuen eraginaz; eta Elixabete Perez Gaztelu, *Larramendi Mitxelenaren begietan* gaiaz. Irakasle argi honekin lan egin nuen bulegoan EUTGn, eta hizkuntzalaritzako gaia –*ezezko perpausak euskaraz*– buruan aurrera ezin aterata zebilenez, eta bera errenteriarra zenez, Mitxelenaren hiztegiaz egin zezala konbentzitu nuen eta halaxe egin zuen, egin ere, eta Errenteriako Udalak plazaratu zion tesia bi tomo ederretan banatuta 1995ean. Patxi Altunak

eta Joseba Lakarrak 1990ean *Manuel Larramendi. Euskal testuak*, bilduma plazaratu zuten, non besteren artean aurkitzen den Larramendik Andoainen Agustin de Leizaren omenez egindako sermoia, Madrileko *Academia de la Historia*ren artxiboan aurkitu nuena eta Patxi Altunari pasatu niona.

Nire artikuluan Michel Ange Marin (1697-1767) idazle aszetiko frantsesa eta haren euskal itzultzailea zen Jean Robinen (1738-1821) lana, *Birjinia edo Donceil Christaba* aipatzen nituen. Honen hitzaurrea ematen nuen aitzin solasaz Marchese-Forradellasek (1986) ziotena, hau da, asturuak alde direnean ez dela brindisaren modu edo azpiera bat, baizik eta kritika saihets-mota. Nire liburutegian dauzkat, hain arrakastatsua izan zen liburuarenak, *Virginia ó La doncella Cristiana,* Cayetana de Aguirre y Rosalesek frantsesetik gaztelaniara itzulitakoaren bi edizio ezberdin. Eta 2010ean Jose Antonio Mujika idazleak *Euskararen Lekukoak 24*an lan handi bat eginez artoski plazaratu zuen.



Irudia 49: Ezkerretik: Ramon Labaien, Jose Luis Alvarez "Txillardegi", eta ni. Nazioarteko bilkurako teatro esposizioa erakusten (Donostia 1991).

1991

MADRILERA astero joaten jarraitzen nuen eta 1991n zenbait lan plazaratu nituen gaztelaniaz, irakurle espainol kultuak bederen ezagutu zitzan. Bat *Introducción a la Filología Vasca*, Jenaro Costas dekanoak eginiko hitzaurre batekin, non esaten zuen, *constituirá una herramienta imprescindible para nuestros alumnos, pero también para cuantos estudiosos deseen adentrarse en el conocimiento de esta lengua milenaria.* Eta Mitxelenaren oroitzapenarekin bukatzen zuen, maisuaren adiskidantza eta *su aguda crítica y su innata "libertas"* eskertuz, alegia, haren iritzi zorrotza eta etorkizko liberaltasuna. Halaber, *Epos* errebistan pastoralei buruzko artikulu bat aurkeztu nuen, eta gerora nire azterketagai nagusietarikoa izango zen *"Antoine d'Abbadie y el resurgir literario vasco en la segunda mitad del siglo XIX"*, Julia Butinyàk eta neuk plazaratzen genuen *Revista de Lenguas y Literatura catalana, gallega y vasca*n.

Josu Pikabearen tesian egotea suertatu zitzaidan. Titulua: *Literatur lapurteraren bilakaera XVII, XVIII, eta XIX. mendeetako lapurterazko testuen bilakabide historikorako lehen urratsak.* Ibon Sarasolarekin eztabaidatxoren bat izan nuela ere gogoan dut, Agosti Chaho bezalakoak "marzianoak" zirela esan baitzuen aski modu zakarrean…

Patxi Intxaurrandieta lezoarrarekin lan ederra burutu genuela oroitzen naiz. Hizkuntza musikalean dudan eskasia berak bete baitu elkarrekin paratu ditugun hainbat liburutan, bere transkripzioak pentagrametara benetan oso onak izan baitira. Hala bada, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako Bertso eta Kantak* bi liburukitan prestatu genuen eta Etor argitaletxeak plazaratu. Lehenak, 910 orrialde zituen, eta bigarrenak, 936. Gogoan dut aurkezpena Donostiako *Sociedad Gastronómica*n egin zela eta Jean Haritschelharrek lagundu zidala bertan. Patxirekin batera burutu nuen beste lan bat Lezoko Udalak argitaratuko zuen: *Garbizu anaiak: Zubigar, Iruzubi, Tege (1921-1936),* non gerraurreko literaturan murgiltzen ginen erabat. Maiz erabili izan dudan irudiarekin nioen, Euskal Herrian Everest bezalako mendi garairik ez izan arren, badirela beste mendi apalagoak, gailur ederrekin, non ikusmiratu eta dastatu lore xorta pollitak.

Entsegu Sari Nazionalean egotea suertatu zitzaidan, eta hainbat saiakera irakurri ondoren, Martí de Riquer irakaslearen *Aproximació al «Tirant lo Blanc»* liburua, zaldun-eleberriez eginiko ikerketa miresgarria, saritu genuen; Joaquín Forradellasek zioen bezala *'el manco de Lepanto'*, eskumuturra gerran hondatua baitzeukan Martík. Gure bulegoan ere egona zen, Juliaren irakasle izan baitzen, eta harrituta geratu zen gela barnean fotokopiagailua geneukala ikusita.

Eta *Galeuzca 8. 1991. Iruñea. Urriaren 31tik azaroaren 3ra Nafarroako Museoan*, jardunaldiak izan genituen, Zumetaren kartel koloretsu, gorri eta beltz bizietan zioen bezala. Biltzarreko gaiak: 1. *Saioa Filosofia eta Literatura artean* (Eduardo Gil-Bera, Antoni Mari, Josep Ballester, Jaume Pérez Montaner, Maria Xosé Queizan, Joxe Azurmendi, Patziku Perurena…); 2. *Poesia tradizioaren eta hausturaren artean* (Margalida Ponsa, Juan Mari Lekuona, Xosé Maria Alvarez Cáccamo, Aurelia Arkotxa, Iñigo Aranbarri…); 3. *Irakurle arruntarentzat ala kultoarentzat idatzi?* (Vicenç Llorca, Manuel Riveiro, Mikel Hernandez, Inazio Mujika, Ramon Saizarbitoria, Bernardo Atxaga…).

Jardunaldi hauek antolatzeko hitz egitera udaletxera joan ginen eta oso ongi errezibitu gintuen bertako Kulturako zinegotziak, EAko Petrizan zela uste dut, eta leku aproposa aurkitu zigun: Nafarroako Museoa. Hango hitzaldi eta eztabaidetan adierazi ziren iritzi interesgarriak hemen laburtu ezin ditudanez, osoki irakurri nahi dituenak Interneten dauzka testuak (www.aelg.gal-en).

Ramon Saizarbitoria euskal letretarik pixka bat urrunduta soziologia lanetan ari zelarik (dena den, Ur Apalategik ematen dituen hemeretzi urteak baino gutxiago), iruditu zitzaidan egoki izango zela bertan hitzaldi bat edo aurkezpenen bat egin zezan gonbidapena egitea. Kasu Bernardo Atxagarena. Ramon hiru orrialde trinkotan bere belaunaldiaz eta hurrengoaz mintzatu zen, Bernardori egin aurkezpenean. Beharrik ez zuen, noski, baina neronek ezarri nion idazleon barrutira erakartzeko puntua. Sarreran nitaz zioen, e*xzentriko samarra baita, bere izate akrata modukoaren aginduz, arauak hausteko joera nabarmenarekin batera, hain zuzen ere, ohitura zaharkitu eta solemne modukoei eustea gustoko duen hoietakoa.* Baina, zuri dezadan ene burua, ez hain arraroa, oso arrunta baita, unibertsitate-ohitura, autore bat aurkezteko bere obran aditua den norbaiten esku uztea aurkezpena. Geroago zenbait hitzalditan era-

bili izan dituen bi ixtorio aipatzen zituen. Bata, Balentin Berriotxoaren esaldi hura, *quiero ser santo para que un santo tenga Bizkaia,* eta euskal nobelagintza europartzeko egiten zuen bere ahalegina Berriotxoaren haren oihartzuna bezala kontsidera zitekeela.

Bestea, *Jarrai* taldearekin behin Azpeitian antzeztu zutela *Ertzaina etxean* –honelaxe itzuli zuen Julian Lekuonak John Priestley ingelesaren *An inspector calls* (1940) *'Llama un inspector'* 1951ko maiatzaren 25ean Teatro Españolean estreinatua–. *Jarrai* taldeak 1962an Antzoki Zaharrean antzeztu zuen lehen aldiz, eta Nemesio Etxanizek bere gutun batean dioen bezala, *oso ederki*. Bidenabar azpimarra dezadan, 60ko hamarkadan *Jarrai*koek euskal teatroa eguneratzen eginiko ahalegina, eta John Priestley (*Ertzaina etxean,* 1962), Tennessee Williams (*Kristalezko iruditxoak,* 1962), Eugenio O´Neill (*Bestelakoa*, 1964), Henri Ibsen (*Andere etxea,* 1965), Albert Camus (*Gizon zuzenak,* 1966), Arthur Miller (*Denok nere semeak,* 1967) bezalako autoreak eta obrak geureganatzeko ahalegina guztiz laudagarria zela, baina izan zituela kontrako ahotsak ere, hasieran txalotu zituen Nemesio bera. Ramonek Azpeitian antzeztu zuenean hemezortzi urte zituen, eta, irkaitzez dioen bezala, *emakume batek uste zuen gaztelaniaz entzun zuela.* Hau da adierazi nahi duena, alegia, prosaren sinesgarritasuna, egiantza oso garrantzitsua dela, eta badela *itzulpen jarduera faltso eta penoso*aren arriskua ere, zeinetatik belaunaldi berriak (Bernardo Atxaga, Koldo Izagirrek,…) ihes egitea lortu duen. Eta bidenabar aipatzen du *Ustela* aldizkari literarioa ere (1975-76), non parte hartu zuten Koldok, Bernardok eta Ramonek berak, baina, antza denez, Bernardok ez zuen bere burua haien artean oso ongi sentitzen eta Bilbora joan zen, eta han *Pott* sortu (1978-80). Literatura konprometituaren eta literaturaren autonomiaren aldekoen arteko lubakia ez zen gainditu ahal izan, antza, nahiz eta muga zehatzak ezartzea ez izan inoiz oso erraza, eta are gutxiago *Pott*en parte hartu zuen Sarrionandiaren kasuan, adibidez.

Ramonek kontatu izan du nola Iruñean harriturik ohartu zen gau ibilaldi haietan euskal idazleen *kapillitak*, taldetxoak eraturik zeuden dagoeneko, zein bere abiaduraz eta joeraz. Lotarako ez zuela aurkitu lekurik eta Donostiara itzuli izan behar zuela gauez, bakarrik. Noski, hori nire errua edo bederen Elkarteko intendentziaz arduratzen ziren Maite eta Begoñarena izango zen, agian.

Saran Euskaltzaindiak antolaturik 1991ko abenduaren 20an eta 21ean Jean Baptiste Elizanbururen heriotzaren mendeurrena zela-eta, jardunaldi batzuk ospatu ziren haren obran sakontzeko asmoz. Nik gai bat hautatu nuen: *Lau andren besta.* Lan horrek bere zortzi edizioetan ukan zituen aldaerak aztertzen nituen, eta Robert Marichal paleografo eta artxibista frantsesak *Testu Kritika*z eginiko lanean esandakoak gogoratzen nituen, hartan baitio *une édition est une copie…*, edizio bat kopia bat da, eta kopia dioenak aldaki dio, oharkabean eta ia beti egiten baita, baita testu inprimatua denean ere, eta zer esanik ez originala eskuizkribua bada. Gogoan dut nire hitz egiteko unea iritsi zenean, batzuk altxatu (apaizak) eta mezetara joan zirela. Errespetu eskaseko portaera hark ez ninduen hala ere nire onetik atera irakurketa unean, harrotasunez pentsatzen bainuen beraiek zirela galtzaile.

1991n, aipatu liburuez aparte, beste bi argitaratu nituen, autore zaharrak eta ia ezezagunak ezagutarazteko entseguan. Bata, Xabier Azurmendi zegamarrarekin: *Klaudio Otaegi olerkaria (1883-1890),* haren mendeurrenean eta Euskaltzaindiak antolaturik Hondarribiko Udalean eman nuen hitzaldiaz baliatuz. Eta bestea, aldika Donostian Leon Olalkiagak argitaratzen zuen *Baserritarra* (1904-08) aldizkarian agertu zen Santiago Ezenarro "Gatz-Errota" idazle ia ezezagunaren nobela-foiletoi irrigarria, non *Lapikozarko islan* euskal soldaduek izandako gorabeheren berri ematen baitzuen umore handiz. *Kintoak,* alegia, tamalez lehen kapituluak falta zituena.

Euskaltzaindiak antolatzen zuen Mikel Zarate saiakera-saria irabazi nuen 1991n, *Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak 1811-1858* entseguarekin. Bertan Atharratzeko Udalean, Baionako Herri Liburutegian eta Pariseko Liburutegi Nazionalean egindako ikerketak biltzen nituen. Epaimahaikideak Alfontso Irigoien eta Andolin Eguzkitza izan zirela uste dut, besteren artean. Eta benetan poztu nintzen ohartuz nire ahalegina hoberenetsi zutelako. Dena den, asko haserretu nintzen, nire amorrua isilik pairatu behar izan arren, hurrengo urtean BBK-k, Leopoldo Zugazaren eskutik, egindako edizioa ikusi nuenean. Irakurleak begiak hondatzeko eta galtzeko arriskuan jarri behar zituen, hain letra ttipiz egina baitzen edizioa, merke-zurrean. Halaber, aurkibiderik gabe aurkeztu zen; honelakoa beharko zukeen: *Aitzin-solas* (9.or.); 1. *Atharraztarra niz sortzez baita bihotzez ere* (11-20. or.); 2. *Gazterik juan nintzen*

Pariserat… (21-55. or.); 3. *Biba Independentzia!* (56-77. or.), 4. *Hemen datza Agosti Chaho* (78-93. or.); *Bibliografia* (95-98. or.).

Zenbait denbora geroago, Dupré-Morettik zioenez, obra hau zen *sans doute l'étude le plus complète actuellement*, alegia lanik osatuena ordu arte; horrek poztu egin ninduen, noski; hizkuntzalaritzatik eta literatur kritikagintzatik eginiko hurbiltze-saioa horrela estimatua izateak. Aitzindari eta iraultzaile haren abertzaletasuna nola zegoen sustengatua lau zutabe nagusitan: geografia aldetik lurraldeak duen batasuna, hizkuntza, historia eta eskubideak. Eta hauei erantsi beharko geniekeen populuaren borondate politikoa. Eta orobat artikulu interesgarriz eratu Herri Iberikoen Federazioaren Konstituzioa, hau da, *Organización de la República Federal Ibérica* delakoa, *Ariel*en argitaratu zuena (1851-IX-30) aurkitu izanak anitz pozten ninduen.


1992

HALABER urte berean, hots, 1992an, *Erein* argitaletxeak plazaratu zituen aurkitzen hain zailak ziren Chahoren euskal lanak, titulu honekin, *Azti-Begia eta beste izkribu zenbait*. Han kontatzen nuen nola gazterik hasi zen bere irudimen sutsua eta luma zorrozten, *Azti Begia* 1834koa baita, eta nola era berean errepublikaren askatasunaren, jende xehearen eta Euskal Herriaren aldeko borroka etengabean jardun zuen bazterrak astinduz 1844. urtean sortutako *Ariel* aldizkariaren eta beste argitalpenen bitartez. Gazetak zortzi urte iraun zizkion, tartean (1848) *Ariel Uscal-Herrico Gazeta* lehenbiziko euskal gazeta baten saioa ere eginez, Charles Louis Napoleon Bonaparteren estatu-kolpearen ondoren itxi eta desterrura igorri zuten arte. Itzulitakoan politikagintzaren saltsa-maltsa eta arnasa falta zitzaizkiolarik, bertatik erretiratzea sinatu behar izan baitzuen Baionara itzultzeko, hainbat amets eta egitasmo burutu gabe zendu zen, bere hilarrian hitzok idatzi gogoz: *Ci-gît Chaho, qui n'a rien été / Pas même simple deputé.*

Frantziako II. Errepublika (1848) eta ondoko iraultza frakaso bat izan ziren neurri handi batean, literatur arloan sortu ziren lanak liratekeelarik agian salbagarrienak, prosa poetikoagoa bilakatu baitzen eta literatura eguneroko arazo politikoetan murgildu, iraultzaren oihua edertasunaren ametsarekin nahasiz eta artea erreboluzioaz kutsatuz. Garai hartako artistetarik bat dugu Agosti Chaho, eta ez ttipiena, tamalez bere euskal esparrua gutxiegi ezagutzen delarik. Espero dezagun aurrerantzean liburu honetako testu bilduma dela medio, ezagunagoa izango dela atharraztarra eta aldatuko dela zenbait idazleren iritzi ezkorra. Liburu honetan jasotzen nuen orobat Jean Baptiste Chaho anaiak *Revue de Voyans* (Paris, 1938) delakoan Pierre Topet Etchauni buruz idatzia, beste anaia batek, Jean Pierrek burutu artikuluaren itzulpena, *Barde baten izaitia,* zein kontsidera dezakegun euskal literatur kritikagintzan lehenetariko lana.

Otsailaren 10etik 15era Cádizen azterketak behatzea suertatu zitzaidan, eta han igaro nituen egunak ederrak izan ziren benetan. Azterketako gelak txikiak eta aldrebesak izan arren, egoitza pollita zen, eta lanak bukatzean benetan ibili ederrak egiten nituen, zilarrezko kikeran

itsasontziak Gibraltarreko itsasarterantz nola zihoazen kontenplatuz. Ilunabarrean *fino* bat edo beste dastatzen nuen, edota *ajoblanco*. Urrutitik inauterietako saioetako umorez eta ziriz betetako koplak eta kantak ere entzuten nituen.



Irudia 50: Agosti Chahoren biografia. Mikel Zarate saria.

Apirilaren 13an Amsterdam ikustera joan ginen Marga eta biok. Eguratsa hotza eta euria ari zuen, alabaina oso ongi igaro genuen kanalez beteriko hiri ireki hartan. Egun batez, Leidenera joan ginen eta han *Bibliotheek der Rijksuniversiteit* delakoa bisitatu nuen. Eseri nintzen mahai eder batera Joseph Justus Scaligerren erretratu ederraren babesean, eta euskal liburu bat eskatu nuenean, hantxe ekarri zizkidaten XVII. eta XVIII. mendeetako zituzten edizio zahar guztiak. Ez dut sekula halako harrera onik izan inongo liburutegitan.

Nire ikerketetan jarraitzen nuen Madrileko Liburutegi Nazionalean, eskuizkribuen *Sala Cervantes* bisitatzen, *Archivo Histórico Nacional* delakoan, Madrileko Museo Navaleko Vargas Ponce Bilduma arakatzen,

Biblioteca Francisco Zabalburu, Ateneoko eta CSICeko liburutegietan entretenitzen eta denbora pasatzen…

Arnaud Oihenart (1592-1667) historiagile, politikari eta poeta mauletarraren omenez laugarren mendeurrenean, Euskaltzaindiak egun batzuek ospatu zituen Maulen irailaren 20 eta 23an, eta Donapaleun 24 eta 25ean; haien agiriak Euskaltzaindiak prestatu *Iker 8*an (Bilbo, 1994) jaso ziren. Baina Euskal Idazleen Elkarteak, hainbeste atzeratu gabe, urte bereko abenduan ale berezi bat plazaratu zuen: *Hegats 7*, non hamar egileren lanak bildu nituen, Rafael Ruiz Balerdiren marrazki argitaragabeko anitz eta dotoreez apaindua, Gabriel Arestik Ruiz Balerdiri eskaini poemarekin, urte horretan bertan hila baitzen, istripu baten ondorioz, eskola xumeetan irakasten zuen donostiar pintore apal, on eta eskuzabala. Biltzar horretan lan hau aurkeztu nuen: *Oihenarteren atsotitzak eta poetika berrirakurriz,* zenbait atsotitzen irakurketa zuzendu ondoren, eta bertan ematen nuen, euskaratuta, 1665ean idatzi zuen *L'Art Poétique Basque*. Patxi Altunak, Jean Baptiste Orpustanek, Xarles Videgainek, eta neronek bi argitalpenotan parte hartu genuen.

Galizian, 1992ko urriaren 29tik azaroaren 1era ospatu zen *Galeuzca IX*.aren karietara, *Galeuzca*ko literaturetan europar eragina aztertu genuen elkarren artean. Iñaki Aldekoak ireki zituen hitzaldiak bere txostenean *Nietzscheren eragina Mirande eta Arestirengan* gaiaz mintzatuz eta paristarraren eta bilbotarraren artean zein alde handia zegoen azpimarratuz. Inazio Mujika Iraolak *Europa euskal literaturan* aztertu zuen xehekiro, garbi utziz Frantziako eta Espainiako literaturek gure letretan izan duten eragina neurriz gainekoak izan direla. Etxepare, Oihenart, Lauaxeta eta Lizardirengan, batzuk bakarrik aipatzearren, eta nola gure mendeetako atzerapenak berak alderdi onik ere baduen, *alegia, lurra landu gabea izatea, eta horrek dakarren hutsetik hasi beharra, bizio ekarririk gabe…* Joan Fuster katalana *Ensaio e conciencia nacional* atalean omentzen zen, Xosé Manuel Beiras politikoa, Espainiako Parlamentuan bere zapataren irudiagatik ospetsua, mintzatu zen eta zehazki zioenez, *Ensaio e conciencia nacional son, xa que logo, termos indisociábeis na dialética da cultura e da prática colectiva du pobo. Ou cando menos, o "caso" galego a experiencia de traxectoria histórica da nación galega nos dous últimos séculos decorridos da sua andaina no planeta, asi o fan pensar, asi o poñen de manifesto.* Hots, azken bi mendeetan erabat loturik ibili

zirela, galegoaren kasuan bederen, entsegua eta nazio arazoa. Bere aldetik, Ramon Etxezarretak estilo berezian bere burua aurkeztean honakoa zioen, *Al rechazar la invitación los verdaderos ensayistas, los de altura, a este gacetillero no le ha quedado más remedio que aceptar el reto.* Alegia, organizazio arazoak izan zirela eta azkenean, *kazetaritxoari* ez zitzaiola zezena adarretik hartzea baizik geratu, eta zergatik ez, kongresuaren gaiari buelta eman eta zergatik ez galdetu Europan izan dugun eraginaz? Noski, ezinezkoa zitzaion ahanztea Loiolako Inazio, herrikide, espainol soldadua eta jesuiten ordenaren sortzailea.

Santiagon egin genuen ezohiko bilera batean, Koldo Izagirrek, Elkartearen martxa eta pauso motela ikusirik, idazkariz aldatzea proposatu zuen, baina nik harremanak idazkariarekin astero nituelarik, eta jakin arren Maite ez zela Bego Andonegi bezain langile amorratua, honekin denak oso pozik baitzeuden, esan nuen ni zuzendari nintzen bitartean eta nire esku bazen bederen, inor ez zela lanik gabe geldituko paroan. Hurrengo urtean lekukoa, ontziaren lema, berarekin hitz egin ondoren, Joserra Gartziari pasatu nion, zegokion Biltzarrean hautatua izan zelarik.


Julia Butinyà, UNEDeko bulegoko lankide katalanak bultzaturik, oso irakasle eraginkor eta geldirik ezin egona baitzen, berak katalanaren antologia bat moldatzen zuen legez, nik euskararena egin nuen, 146 orrialdeko liburuxka batean euskaraz eta gaztelaniaz hainbat testu sartuz, beren euskarazko grabazioarekin. *Antología de la literatura vasca: guía didáctica. Grabación sonora. Audio 3 casetes*. Lan honetan Nekane Maritxalar eta Fernando Odriozola institutuko irakasleek eta Xabier Lizarraldek lagundu zidaten, besteren artean. Fernandok oso ahots pollita du, sakona, ohiko domingotar bati dagokiona, agian garai bateko inkisidoreek eduki zezaketenaren antzekoa, eta gogoan dut nola madrildar neska grabatzaileek Miranderen poemak irakurtzerakoan pasio gehiago ezar zezala eskatzen zioten, baina berak betile bat mugitu ere gabe, batere pasiorik gabeko tonuan jarraitu zuen irakurketa.

Azaroaren 7an bildu ginen Irun Hiria literatur sarietako epaimahaikoak, eta Karlos Linazasororen *Apunte eta ahanzturak* poema bildumari egokitu zitzaion poesia saria. Felipe Juaristik *El Diario Vasco*n egin zion erreseinan, sarietara aurkeztu ohi zirenen ajea aurkitzen zion: *luzeegia gertatzen da, heterogeneoegia*. Bai eta Luis Alberto de Cuencaren poesiaren eragina omen zuen.

Ikasturteak bazihoazen, urak itsasorantz bezala arin-arin. Hiru urtetan gai hautazkoak ziren euskara eta euskal literatura, eta ez soilik Filologiakoentzat, eta niri zegokidan materialak prestatzea. Orotarik egin behar izan nuen, baina dena dela oso ikasle gutxi nituen. Batzuk presoak, besteak Cádiz edo Erromakoak. Bergara, Portugalete, Iruña, Tuterako egoitzetan ikasten zutenak ere bai. Korreoz edo Internetez dudak aurkezten zizkidaten eta ni galderak argitzen saiatzen nintzaien. Dena dela, Errektoregai galego batek zioenez, asignatura hauek, galegoa, katalana eta euskara *optativas,* hautazkoak baino areago *decorativas* ziren, apaingarriak. Horrek arlo zabalagoetan lanean egiteko astia eta aukera ematen zigun, noski, ikerketak egiteko eta kongresuak antolatzeko, adibidez.

1993

BURUTU izan ditudan lanak gehienetan arraro samarrak eta espezializatuak direnez, ez dut beti argitaratzeko erraztasun handirik izan. Horrela, nire adiskidea den Eugenio Arozenak, anartean *Antzerti*ko zuzendaria zenak, gutun hau idatzi zidan 1993ko urtarrilaren 28an: *Patri adiskidea, Saint Jaques pastorala argitaratzeko zure proposamena aztertu dugu, baina gure ahal ekonomikoak murritzak direnez esan behar dizut ezin izango zaitugula lagundu. Ulertuko duzun esperantzan agurtzen zaitu…* Denborarekin eta pazientziarekin Errenteriako Udalak antolatu Koldo Mitxelena saria irabazi ondoren, plazaratu zen 1996an, nire lagun Juan Carlos Jiménez de Aberasturi artxibozainak zuzentzen zuen *Bilduma* errebistan.



Irudia 51: Jundane Jakobe Handiaren Trageria (1634)
Koldo Mitxelena saria.

Euskal Herriko Unibertsitateak epaimahairako hautatu ninduelarik, Joseba Lakarrak burutu tesiaren defentsan egon nintzen. Gaia: *XVIII. mendeko hiztegigintzaren etorkiez.* Noizbait agindu zuen bezala, Larra-

mendiren *Hiztegi Hirukoitza*n zein hitz zen tradiziozkoa eta zein hitz asmatua, andoaindarrak sortua, erabakiko zuen. Baina urrun zegoen promesa horretatik, eta zuzendaria, Joakin Gorrotxategi, defentsan atera zen esanez Alemanian ohikoak zirela horrelako ikerketa-saio laburrak tesi gisa aurkeztea. Ez zen, bada, René Lafon, Koldo Mitxelena edota Jean Haritschelharrek burutu moldeen bideetarik egina, ezta gutxiagorik ere. Dena den, ohiko *cum laude*a jaso zuen.

1993ko martxoan hasi nintzen jasotzen Maria Bueno idazle granadarrak idatzitako gutunak, geroztik, urte askoren ondoren duela gutxi berriro *facebook* bidez berritu ditugunak. Batean kontatzen dit nola 1992ko abenduan elkar ezagutu genuen Madrilen Bernardo Atxagaren errezital batean, eta UNEDen antolatu berri genuen entsegu-sariaz galdetzen. XVIII. mendeko Torü Kiyonagaren irudia dakarren postal batean, A. Artauden aipamen bat kopiatzen zidan eta sarien gorabeherez informazioa eskatzen.

Kontuan hartuta zein ahantziak dauden orokorki katalana, galegoa eta euskara hizkuntzak, eta argitaletxe gaztelauek zein ardura gutxi duten hauetaz, eta ezezagutzatik zenbat kalte datorkigukeen, unibertsitarioek edo ikerlariek hizkuntza hauei buruz egindako lan interesgarrienak saritzeko zeuden pentsatuak entsegu-sariak, haietaz analisi hotz eta zientifikoak egin zitezen eta altxor preziatuak ezagutarazteko.

Hala, euskal hizkuntzari eta literaturaren esparruari zegokienez, sarituen artean izan ziren: Iñaki Aldekoa *(Antzarra eta ispilua)*, Joxe Azurmendi *(Espainolak eta euskaldunak)*, Txomin Peillen *(Les emprunts de la langue basque à l'occitan),* Aurelia Arkotxa *[Territoires oubliés de Terre--Neuve labourdins du XVIIe siècle; mémoire des mots, mémoire des lieux; à travers les routiers maritimes de Hoyarsabal (1579-1633) et de Detcheverry Dorre (1677)]*, eta Jon Casenave *[De L'article de presse à l'essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare]*, besteen artean.

Gehienetan aurkezpenak *Blanquerna* katalan liburu-dendan izaten ziren eta *cava* batez bukatzen, hain baitzuten katalanek leku egokia Madrilen gauza hauetarako, lehenik Serrano kalean eta gero Alcalá kalean *Círculo de Bellas Artes*en pare-parean; euskaldunek, berriz, sagardotegiak besterik ez; edo bai, *Euskal Etxea*, Jovellanos 3an, Zarzuela teatroaren aurrez aurre. Han nire hitzaldiak –Pello Aranburu zuzendari adiskideak esan zidanez, lehen aldiz eman nuen euskaraz hitzaldi bat, Enrique

Tierno Galván Madrileko alkateak eta Karlos Garaikoetxea Eusko Jaurlaritzako lehendakariak 1982ko urriaren 3an inauguratu zuten areto hartan–, liburuen aurkezpentxoak egiten nituenean, noski, bukaeran ardoa zerbitzen zen *Gure Txoko*n. Edota, poltsikoaren arabera, Irizarren afaltzen genuen.

Urtero jardunaldiak antolatzen genituelarik, beti saiatzen ginen euskal idazle eta irakasleren bat Madrid aldera eramaten, gai bereziren bati buruz edo bere obra literarioari buruz hitzaldiren bat ematera; horien artean izan dira: Jean Haritschelhar, Txomin Peillen, Ibon Sarasola, Lourdes Oñederra, Miren Azkarate, Bernardo Atxaga, Koldo Izagirre, Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria, Aingeru Epalza, Juan Mari Irigoien… horrela, Atxagaz aparte beste aurpegi, diskurtso eta esamolde batzuk ere ezagut zitezen. Batzuetan, hitzaldi hauek *Universidad Complutense* delakoan lan egiten zuten zenbait irakaslerekin batera antolatzen genituen. Hala, badauzkat garai horretako gutun batzuk Nines Ciprés okzitanistak idatziak; hona horietako bat, [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 9)] Mancietez eta Mirandez mintzatuz.

Bernat Manciet Sabres, Landetan jaiotako poeta zen, Miranderen adin beretsukoa, eta *Burua* ipuinaren itzultzailea. Jon, *Gauaz parke batean* (1984) argitaratu nuena. Geroago itzuli nintzen edo, hobeto esateko, heldu nion berriro neuk Ninesek aipatzen duen testuari, *Lo dider de Guernica,* gaztelaniara Marta Romaník itzuli eta nik euskaratu eta argitaratu nuen Antonio Dominguez Rey lankideak zuzentzen zuen *SERTA, poesía y pensamiento poético* (2, 1997, 418-428) poesia-errebistan. Geroago, hain zuzen 2012an, Luzien Etxezaharretak plazaratuko du berriro hain artoski zuzentzen duen *Maiatz* errebistan.

Cerverako bidaia interesgarria izan zen. Madriletik atera eta laster bidean poliziak gelditu zituen hainbat beribil, tartean nirea, eta irribarrez esan zidaten han geldiaraziak ziren beste kotxeetako zuzendariek, *hombre, no nos extraña nada con esa matrícula.* Isuna ordaindu eta iritsi ginen azkenean Cerverara. Udako arropa neraman, Katalunian nengoenez, jada eguzkiak berotuko zuela pentsaturik, baina benetan hotzak jota ia dardaraz egon ginen. Unibertsitatea Felipe V.aren aginduz eraikia, Katalunian ziren beste seiak itxi ondoren, hiri hori hautatu baitzen Ondorengotza Gerra deituan eskainitako laguntzagatik. Estilo barrokoan hasi eta geroago neoklasikoan bukatua 1740an. *"La influencia de*

las vanguardias europeas en la literatura vasca" gaiaz mintzatu nintzen; gure errebistan hurrengo urtean argitaratuko zen. Bertan errepaso bat ematen nion euskal literaturari, Serafin Barojarekin hasiz, eta Lauaxetaren poema ezagun hura irakurriz gaztelaniaz, noski. …*No ansiamos de nuevo cazar ballenas, sino ideas incontaminadas…*

Balerik eztogu nai gogai barrijak baño
[….]
Odiseu barri gara, lamiñik ezta baña,
Emen sortuba ezta Aprodite liraña.
Geure abenda-antzo pioneer gaste gara…

Gustura gelditu zirelakoan nago, eta beti interesgarri gertatzen ziren elkarrizketen ondoren, hitzaldiak bukatu zirenean, Unibertsitate Konplutentsean aspalditik irakasle, Madrilen katalana irakasten zegoen andere heldu, fin eta dotore bat eraman nuen Lleidara, han baitzuen etxebizitza ere. Hiri honetako arkitekto ospetsua izana zen bere senarra, eta kale bati haren izena ere jarria zioten. Taxista lanak eta elkarrizketa atsegin hark izan zuten bere oparitxoa, jatetxerik hoberenean karakolak jatera gonbidatu baininduen.

Hainbat lan eta eragozpenen ondoren lortu genuen Gasteizen ere UNEDeko Uda Ikastaroa antolatzea. *Teatro tradicional castellano, catalán, gallego y vasco,* hots, Herri Teatro Tradizionala zen gai nagusia. Bertara gonbidatu genituen Pilar Lorenzo, Iñaki Mozos, Francesc Massip…, eta Julia Butinyàk eta neronek ere parte hartu genuen, baina, hitzaldi guztiak aski interesgarriak izan arren, oso ikasle gutxi izan genituen. Gasteizko Euskal Filologia Fakultatetik inor ez. Dena den, hurrengo urtean plazaratu genuen errebistan artikuluak nahi zuen ororentzat eskura geratu ziren jendaurrean aurkezturik. Gertaera arrunta zen hau gure unibertsitateak antolatu ekintzetan, gehienetan gure ikasleak urrun zeudenez, Konplutentsetik etortzen baitzitzaizkigun, baina begien aurrean ikasle gutxi eduki arren, gure kontsolamendurako geratzen zen gure hitzek eta lanek irrati eta telebistaren bidez edota paperaren bitartez oihartzunen bat izango zutela.

1994

OTSAILEAN Ginebrara azterketak behatzera joatea suertatu zitzaidan, eta hantxe egin genuen aste bat etsaminak ematen eta jasotzen bai emigrante gisa zeuden ikasleei bai diplomatikoen seme-alaba unibertsitarioei. Margarekin izan nintzela oroitzen naiz, eta garai batean errepublika teokratikoa izandako Calvinoren hirian goiti eta beheiti ibili ginela. Laku ondoan ere bai, eta egun batez Ermenonvillera ere joan ginela Azkoitiko zalduntxoa zen Altuna bertutetsuaren lagun izandako Jean Jacques Rousseauren gaztelua bisitatzera.

Apirilaren 16an, Aitxus Iñarrak *Hilketa Azkue eta Barandiaranen ahozko ipuin eta ele zaharretan* tesina aurkeztu zuen UNEDen, epaimahaikide Jose Caparrós, Maria Victoria Fernández Savater eta neroni izan ginelarik. Bikain ezarri genion, lan ederra eta desmitifikatzailea baitzen, eta Jose Luis Alvarez Enparanza "Txillardegi"k egin sarrera batekin Editorial Iralkak plazaratu zuen haren moldaketa.

Urtero ohi bezala, *El Padre Víctor* irakasleak –halaxe deitzen baikenion Víctor García de la Conchari– berriro bildu gintuen Verinesen 1994ko irailaren 14 eta 15ean; Kulturako Ministro zen Carmen Alborchek aurkeztu zituen. Gaia *Literatura en el Laberinto* zen, eta hantxe ikusi nituen berriro lehendik ezagunak eta lagunak nituen hainbat idazle, hala nola, Xavier Seoane, Carlos Casares, Antonio Martínez Sarrión, Bernardo Atxaga, Jon Kortazar… Nire saiotxoak, *Reflexiones sobre el Minotauro Vasco* zuen titulua; hasieran labirintoaren zentzuez bi hitz idatzi ondoren (Mircea Eliade, George Neveux…), euskal mundura iraganik, Jon Miranderen poetikaz mintzatu nintzen, bukatzeko esanez Minotauroaren kontrako borrokan ez direla zilegi ez bide guztiak, ez bitartekoak oro, zeren eta Ernesto Sábatok zuzen azpimarratzen zuen bezala, *Ya no se puede dudar, después de terribles experiencias: el fin no justifica los medios, y es trágicamente ilusorio perseguir fines nobilísimos con medios innobles.* Jardunaldien bukaerako txostenean, geroago RAEko presidentea izanen zen García de la Conchak, jasotzen zuen laburzki hizlari bakoitzaren txostena, grazia eta umore handiz eta, nirea aipatzerakoan zerion etikotasuna azpimarratu zuen. *El País*ek jasotzen zuen bezala, lau hizkuntza espainolen ispilu zehatza ematen zuten hitzaldiek, bertan inolako apriorismorik ez aurreiritzirik gabe mintzo zitekeelarik.

Baionan, irailaren 27-28an, Jean-Baptiste Orpustanek zuzendurik, Nazioarteko beste Biltzar bat antolatu zen, ez guti batzuk geundelako interes apalagokoa. Gaia: *La langue basque parmi les autres: influences, comparaisons.* Alegia, euskara eta beste hizkuntzak, konparaketak eta eraginak. Bertan parte hartu zuen Jacques Allières Okzitaniako Tolosako Unibertsitate irakasle zenak. Ospetsua zen bere liburuttoa, *Les Basques* izenekoa, *Presse Universitaires de France*-k *Que sais-je*? bilduman argitaratua (nº 1.668), bere xumetasunean ematen zituen argitasunengatik, eta oraingoan *De L'aquitain au basque,* deitu artikuluan. Hartan protoeuskarak, alegia, akitanoak gaskoian, hau da, mendebaldeko lurralde hauetan mintzatu latinean utzi zituen arrastoak aztertzen zituen. Nire partetik *Jundane Jakobe* pastoralean aurkitu maileguak aurkeztu nituen, tragediaren egileak latinetik, frantsesetik, bearnesetik eta gaztelaniatik moldatu hitzak, hala nola: *arima, azote, bonerra, bugre, gandola, kozina, moro, prebosta, xefaut …*

Deustuko Unibertsitatean Juan Otaegik *Adjetiboa Euskal Literaturan* tesia aurkeztu zuen, epaimahaikoak izan ginelarik: buru, Jean Haritschelhar; idazkari, Juan Mari Lekuona; eta batzordekide: Patxi Altuna, Jon Kortazar eta neroni. Lan zehatza zen eta bertan Bernat Etxepare, Jean Etxeberri Ziburukoa, Piarres Topet Etchahun, Indalezio Bizkarrondo «Bilintx» eta Bitoriano Gandiaga idazleen obretan batik bat ezartzen zuen begia, eta ondorio bitxietara, hobeto esatearren arruntetara iristen zen: alegia, *handi, on* eta *saindu* zirela XVI. eta XVII. mendeetan gehien erabiltzen ziren hiru adjektiboak, eta Etxahunek 71 adjektibo bazerabiltzan –tartean *gaiso* eta *triste*–, Bilintxek 62 eta Gandiagak 285 zerabiltzala, beraz, azken hau agertzen dela aberatsen eta oparoena, eta honek gehien erabiltzen dituenak, hautatuenak, *zahar, zuri, berri, argi* eta *eder* direla.

1994an Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak eginiko dei irekiaren ondorioz, Charles-Louis de Secondat, De la Brède eta Montesquieuko jaun baruaren (1689-1775) *Lettres persanes-Persiar Gutunak* delako liburua, Entziklopediaren izpiritua modu benetan atseginean jasotzen zuena, itzultzea egokitu zitzaidan. Lan honetan nire emazte Margarita Rica, Donostiako Hizkuntza Eskolan frantseseko katedraduna izan zenak lagundu zidan, eta ohartu nintzen itzultzailearen lana zein den zaila. Ibaizabal argitaletxeak plazaratu zuen eta Literatura

Unibertsaleko 38. alea osatzen zuen. Roger Cailloisek obra hau iraultza soziologikotzat jo zuen, zeren eta bertan nor bere gizartean arrotz bilakatzen baita, gizarte hori kanpotik eta lehen aldiz balitz bezala ikusten saiatzen denez, eta gogo-ibilbide zail baina emankor eta iraultzailea gertatzen baita. Haren honako hitzokin irekitzen nuen liburua: *Une injustice faite à un seul est une menace faite à tous*, hau da, gizaki bati egiten zaion bidegabekeria gizarte osoari egiten zaion mehatxua dela, bizi ginen une tragikoetan gogoetagarria zitekeelakoan.

Halaber, lantxo bat aurkeztu nuen Arabako Foru Diputazioak antolatzen zuen *Becerro de Bengoa* entsegu sarira; Enrike Knörr eta Jon Kortazar epaileen oniritzia jaso zuen 1994ko azaroaren 16an, eta, hala, Ramón Jiménezek bere *Stanley, corresponsal en España del New York Herald* gaztelaniazko lanarekin irabazi bazuen, nik *Exiliatuok ez gara inongoak* titulua zuenarekin dirutxo bat eta edizioa irabazi nuen. Ikerketa honek bazituen aitzinsolas eta azkensolas bat eta tartean, honako hiru kapitulu nagusiok:

1 Atzerrian lurra garratz, oina ibini egik baratz. (XIX. mendera arteko euskaldunen ibilerak munduan zehar).
2 Ameriketara joan nintzen xentimorik gabe. (Emigrazioaren zergatikako ezberdinak, eta Ameriketako irudiak nobelagintzan) eta
3 Euskal Idazleak gerra zibilean eta erbestean. (Egunkari eta errebistak, bertsolari eta olerkariak, eleberrigileak eta antzerkigileak).


Titulua Polixene Trabudua de Mandalunizi mailegatua nion, haren bilobak honela jasotzen baitzituen gerraurrean mitinlari nazionalista ospetsua izan zenak erbesteratzeaz esandako hitzak: *Exilioak inongoa ez zarela uzten zaitu. Maracaibon nagoenean Euskal Herrira etorri nahian, eta hemen nagoela haruntza joan nahian, beti nostaljiaren menpe. Paperetan agertzen da gure nazionalidadea zein den, baina ez dute ezertarako balio, zure bihotzak bakarrik esan dezake nongoa zaren, eta gu, exiliatuok, ez gara inongoak.* Eta galdera batzuk egiten nituen aitzinsolasean. Zer-nolakoa da benetan erbestea? Zer da exilioa? Leku bat? Garai bat? Pena-sentimendu bat? Malenkonia mota bat?

Eta nire Bordeleko eta Madrileko joan-etorriak zer ziren? Zer exilio mota? Emigrazioko bidea hartu zutenen artean baziren pobreak, errogabeak, desertoreak, abenturazaleak eta baita engainatuak ere, baina exilioak arrazoi politikoak zituen, hala ere; zein zen nire egoera? Gogoan dut exilioari buruzko jardunaldietan hitzalditxo bat eman genuelarik, *El Hombre de ninguna parte,* Bingen Amezagak idatzitako ipuina irakurri nuela, eta bukatutakoan bi gazte irakiar etorri zitzaizkidala esanez benetan identifikatuak sentitu zirela Amezagak idatzitakoarekin. Mikel Aldalurrek *Euskaldunon Egunkaria*n eginiko erreseinarekin pozik geratu nintzen, honelaxe baitzioen: *Ez naiz haatik batere damutu lagunaren aholkua jarraitu izanaz. Lehen ere nolabaiteko interesik banuen exilioan idatzi zen gure literaturaz, baina lan hau irakurtzeak eremu horretan sakontzeko irrika zabaldu didala esan behar dut. Horrek harritu egin nau. Ez baitira asko, irakurri ondoren, lehenik zirrara gehiegirik sortzen ez zuen gaia ezagutzeko gogoa sortzen duten saioak, azken batez hori baldin bada ere saiakeraren asmoa gehienetan.* Bidenabar poztu izan naiz saiotxo honi esker zenbait historiagile ohartu direnean beren ikerketako iturri bat izan daitezkeela euskaraz idatzi eta bestelako ikuspuntuz mintzo diren eta ordu arte erreparatu gabe zeuzkaten hainbat bertso eta poema.

Exilioaren gaiarekin jarraituz, gogoan dut *Susa* ekipoko Gorka Arreserekin zenbait solas egin ondoren, lehen pertsonan nola kontatu nuen nire aitaren erbestea, 36ko gerrak eragina, eta berak nola titulatu zuen *Zoazte hemendik,* nik hasieran *1936ko Santakrutzak* izendatu nuena. Eta Lezon iraileko Santakrutz festetan Koldo Izagirreren eskutik egin zen liburuaren presentazioa arrakastatsua gertatu zen, entzuleak, batzar-aretoa betetzeaz aparte, eskaileretan egon baitziren adi-adi. Ondoren, Ixkulin elkartean egindako afarian, gogoan dut elkarrizketa interesgarria izan zutela poesiaz Koldok eta Mikel Arregi adiskideak. Mikel Elorza kritikariak honako hau zioen, besteak beste, obrari buruz eginiko komentario batean:

> *Aitaren gerra garaiko pasadizoen kontaketa oroimenari, Patri berarenari, eta hein berean herri batenari, hautsa kentzeko ariketa da. Historia handia osatzen duten milaka istorio txiki horietako batzuen kronika. Kronika, beraz, eleberria baino areago; gerra eta ihesaren pasadizoen gainetik giro bat islatu eta irudikatzen egin du Urkizuk asmaketarik handiena. Giroa, gainera, barnekoa bezainbeste kan-*

pokoa. Ipar Euskal Herrira erbesteratutakoen lehenengo bizipenek, liburuan toki handixea hartzen dutenek, gordin eta gogor erakusten dute orduko –eta ziurrenik oraingo– deserriratuen bizimodua. (*Argia,* 1995-XI-12).



Irudia 52: Zoazte hemendik.

Pozgarria izan zen niretzat entzutea bazela herrian baten bat euskaraz lehenbiziko aldiz irakurtzen zuena eta ez zuena inolako arazorik izan hasi eta bukatzeraino irakurtzeko. Eta baita herritarrek zertxobait gehiago jakitea ere gerra zibilean, bai Lezon, bai aldameneko herrietan, bai eta Euskal Herri osoan gertatu ziren injustiziez.

Behin edizio-kontuetarako oso begi zorrotza eta fina duen nire adiskide Mikel Arregik esan zidan, "atera duzun obrarik txukunena, Jean Elissalderen *LVII.a gerlan*". Alberdania argitaletxeak plazaratua da. Eta noski, Inazio Mujika Iraolaren eskua nabarmena da, agian gehiegixko 1914ko gudarosteen zenbakiak, nik eman bezala, ez baitziren zifra erromatarrez ematen arabiarrez baizik. Ezagutzen dut idazle bat baino

gehiago azkaindarraren kronika zehatz eta krudelekin txunditurik gelditu zena, eta orobat bere idazkera arin, erraz, garbi eta dotorearekin ere.

Eva Forest, Alfonso Sastreren emaztea, Sitgesen 1983ko Teatro Biltzarrean ezagutu nuen eta harreman ona izan genuen. Hondarribian bizi ziren eta nire anaia ere ezagutzen zuten. Emakume nekaezina zenez, bazuen etxean antolatua editorial bat, non bere senarraren lan guztiak argitaratzen saiatzen zen, eta 1989an euskal liburuen itzulpenak plazaratzen ere hasi zen, *Hiru* deitu bilduman. Horietako bat Joseba Sarrionandiaren *Ni ez naiz hemengoa*, Bego Montoriok itzulia, eskatu zidan hitzaurre batekin. Irakurketa sakon baten ondoren, Sarriren obra osoaren azterketa egin nuen eta Evari bidali nion. Hark, ordea, 1994ko abenduaren bateko gutunean bidali zidan erantzuna; beste zenbait gauzaren artean, jasotako sariaz zoriondu eta hauxe esaten zidan: *Tú prólogo es muy bueno, muy documentado, un trabajo notorio, que no iba a pasar inadvertido. De conservarlo, nos exigía pedir sendos prólogos para los otros dos –cosa que hubiera sido la mejor solución– pero para ello era ya muy tarde. Decidimos no incluir tu trabajo…* Beraz, zentsura nabarmena zen, eta Edorta Jiménezen hitzaurre labur batekin argitaratu zen itzulpena. Dena den, nire lana gaztelaniaz *Epos* aldizkarian 1996an eta euskarazko moldaketa RIEV 1997an argitaratu nuen.

Oiartzunen, 1994ko abenduaren 29 eta 30ean, beraz, urtea bukatzear zelarik, On Manuel Lekuonaren omenez *III. Herri Literatura Jardunaldiak* ospatu ziren, eta bertan hitz egin zuten, besteak beste, Jon Iñarra, Yves Beaupérin aditu frantsesak Marcel Jousseren obraz eta *Les Traditions de style oral* delakoaz, alegia, ahozkotasun-estiloko tradizioez, Juan Marik bere osaba Manuelen idatziez, Antonio Zavala jesuitak Rafael Andolfiri buruz, eta honek *Literatura oral en Aragón* hartu zuen mintzagaitzat, grazia handiz. Eta nik *Artazuriketak eta Kontagintza*z hitz egin nuen: Zerbitzari eta Orixez, eta hauek aipatzen zituzten artazuriketa eta errandoez, Larraungo eta Uitziko *lectio epistolae* famatuez, Ataungo *Zelemin eta Zelemon* jokoez, eta noski, neguko saraoetan narrazioak, kontaketak zuen garrantziaz. Nola bestela, nola igaro, hain zuzen, hainbeste ordu kontu-kontari ez bazen. Gogoan dut Joseba Lakarra ere bertan zegoela eta une batean nire Lezoko etxera etorri zela eta nire liburutegiko altxorrak erakutsi nizkiola.


1995

1995EKO urtarrilaren 23an Donostiako Udaletxeko PPko alkateorde eta Eusko Legebiltzarreko parlamentari zen Gregorio Ordoñez hil zuen ETAko komando batek. Geroago jakingo zenez, Balentin Lasartek, Frantzisko Xabier Gartzia Gaztelu "Txapote"k eta Juan Ramon Karazatorre "Zapata"k osatuak, Donostiako Parte Zaharreko *La Cepa* jatetxean zegoela, beste bazkaltiarren artean María San Gilekin. Ezagutzen nuen gizon hura tabernetan maiz ikusten baitzen, eta udalean adierazten zituen ideietatik oso urrun izan arren, artikulu bat idatzi nuen *Egunkaria*n: *Inor ez duzu hilko*. Aski eztabaidatua izan zela uste dut, nire sorterrian bederen, batzuentzat ongi baitzegoen eta funtsean bat baitzetozen han nioenarekin, baina beste batzuentzat ez hain ongi, arinegi omen, sakontasun filosofikorik gabe…

Gregorio Monreal irakasleak eta Eusko Ikaskuntzako presidenteak, Jean Haritschelharren aholkuz eskatu zidan ea parte hartu nahi ote nuen erakundean eta *Hizkuntza eta Literatura* saileko koadernoez arduratu, eta baietz erantzun nion. Miramar jauregian zeukan bulegoan Jose Mari Velez de Mendizabal gerentearekin elkarrizketa bat izan nuen; gerora, eta tratuarekin, konturatu nintzen Napoleon txiki bat zela, alegia, arrunt gustukoa zuela agintzea; elkarrizketa hartan esan zidan ideia berriak behar zituztela, bera arduratuko zela baliabide ekonomikoez. Oso ondo iruditu zitzaidan eta horrela errebista modernizatu asmoz *Oihenart* birbataiatu genuen, eta XIV Uda Ikastaroak antolatu nituen. Gaia: *Gerra irudiak Euskal Herriko idazleengan*. Hona idatzi nion sarreratxoa: *Hautatu dugun tituluagatik argi eta nabarmen denez, Euskal Herriko idazleen, bai euskaraz bai frantsesez eta bai gaztelaniaz idatzi dutenen obra, eta bereziki, gerraren aurrean daukaten jarrera aztertzea da helburua. Alegia, XX. mendeko gertakizunik odoltsuenez eta guregandik hurbilen direnez pentsatzen zutena ikertzea; honela, izpirituaren zaindaria oroimena baita, gertakizun horiek gogoratuz, irakaspenak atera ditzagun, berriro gerta ez daitezen*.

Lehen egunean, hots, uztailaren 17an parte hartu zuten: José Luis Abellánek *(La primera guerra mundial vista por los escritores vascos del 98)*, Jean-Claude Larrondek *(La prensa de Iparralde y la primera guerra mundial)*, Xabier Altzibarrek *(Lehen gerrate mundiala Kirikiño baitan)* eta

neuk (*Elissalde eta Etchepare. Apaiza eta medikua gerra-kronikagile)*. Bigarren egunean, uztailaren 18an: José Ángel Ascunce *(La guerra civil vista desde el exilio);* Jean-Claude Larronde *(La prensa de Iparralde y la guerra civil)*, Xabier Altzibar *(Eguna eta gerra zibileko prentsa)*. Eta hirugarren eta azken egunean: Juan Carlos Jiménez de Aberasturi *(La participación vasca en la II Guerra Mundial: de la derrota a la esperanza)*, Txomin Peillen *(Alemanak Parisen)*, Ana Toledo *(Euskal eleberria 1914-1945. Dardararen epizentrotik urrun)*, Bernardo Atxaga *(Mikel Salegiren nobelak: Morir en Irún, Operación Carlomagno;* eta *Gerra eta Literatura)*. Ondoren mahai-ingurua, zeinetan parte hartu genuen Gregorio Monreal, Bernardo Atxaga, neronek eta ikasleek, oso bizi eta interesgarria gertatu zelarik. Ikastaroan Tolstoiren *Guerra y Paz* nobela erraldoiaz hitz egin zela ere gogoan dut. Irekia eta arrakastatsua izan zela, oro har, kontsidera dezakegu.



Irudia 53: Jon Miranderen Gutunak (1948-1972).

Udazkenean beste jardunaldi batzuk ospatu ziren Baionan, batez ere Iparraldeko historiagile eta idazleekin, eta biltzarron emaitza *Oihenart 14* aldizkarian jaso genuen; 1997an argitaratuko zen, txosten batzuk ez baitziren nahi bezain laster iritsi: hamalau egile eta hemezortzi idazlan, orotara. Aski interesgarriak eta osagarriak ia denak.

Abuztuaren 27an, igandez geldituak ginen Marta Cárdenasekin eta Luis de Pablorekin Bidegoianen uda oro alokatzen zuten etxebizitzan. Nik Martarekin banuen harremanik PNN garaietatik eta Euskal Etxeak Madrilen antolatzen zituen euskarazko klaseetara joaten zenez, haiek bukatutakoan nirekin egiten zuen mintzapraktika. Ahalegintzen zen, bederen. Eta Magdalena kaleko arte-estudioan maiz izaten nintzen haren obrak eta koadernoak miresten. Hala bada, Marga eta biok Bidegoianera joan ginen eta hango giro lanbrotsuan pintaturiko maindireen seriea erakutsi zigun. Luisekin afaria beti bezain atsegina gertatu zitzaigun, hamaika pasadizo interesgarri kontatu baitzizkigun.



Irudia 54: Gregorio Monreal irakaslearekin Katalain, Nafarroan.

Wilhem von Humboldt hizkuntzalariaren, edo espainolek modu arinean *Don Guillermito* deitzen zutenaren omenez, Joseba Agirreazkuenagak jardunaldi batzuk antolatu zituen Oñatiko Unibertsitatean, irailaren bostean eta seian, eta hark gonbidaturik, haraxe ere agertu nintzen nire txostentxoarekin. Gai orokorra: *W. von Humboldt: zubi bat bi herrialderen artean*. Bertan agertu ziren herriko alkatea, Gipuzkoako Diputazioko Kultura arduraduna, Eusko Jaurlaritzakoa eta beste zenbait kultura-arduradun. Irakasleen artean Joxe Azurmendi, Joseba

Agirreazkuenaga, Gregorio Monreal, Jon Bagües –honek Humboldten paperen artean aurkitu euskal musikaz hitz egin zuen–, Jon Juaristik –zeinak harri eta zur utzi ninduen hainbeste alkohol edan eta hala ere hitzaldia zuzen nola eman zezakeen ikusita– *"W. von Humboldt e "ideologías". "Lingüista y político"* izendatu zuen bere gaia, eta neuk nirea: *"W. von Humboldt eta garaiko Euskal Literaturaz"*. Hitzaldiak bukatutakoan, gogoan dut, Gregoriorekin herritik ibilalditxo bat ematen ari ginela, nola goraipatu zuen hark Oñati, *Oxford txiki* bat bezala kontsideratuz. Baita ere nola afalondoan Joseba, Goio eta neroni kantatzen aritu ginen errepertorioko kanta zahar, berriak eta nafar jotaren bat edo beste.

1995eko urriaren 27an eta 28an Cuencako UNEDeko Ikastetxe Elkartuko zuzendari zen Manuel Gutiérrez Tuñónek gonbidaturik, *La Situación Lingüística en España* gaiaren inguruan mintzatzera bildu ginen irakasle batzuk eta bertan ezagutu nituen Emilio Alarcos Llorach, Salamancan hainbeste aipatzen zigutena eta Koldo Mitxelenaren lagun ona, eta Xavier Vila, katalan soziolinguista gaztea. Bertan egon ziren orobat Vidal Lamiquiz, bizkaitar etorkiko lankide ona, Francisco Ayala, ia ehun urte zituena eta ordurako nahiko lelotua, eta Josefina Martinez Alvarez, Alarcosen emaztea, ez zitzaidana oso atsegina egin, hizkuntza minorizatuez zeukan mespretxuzko ikuspegiagatik. Nik Humboldt eta Mitxelena aipatu nituen eta azken urteetako bilakaera kontuan harturik, aski baikor agertu nintzen euskararen etorkizunaz, baina Vila katalanaren geroaz oso baikorra ez baitzen, asko pentsarazi zidaten gureaz hizkuntzen heriotzez esan zituenek, eta *Studia Academica* 2 liburuan (Cuenca, 1996) irakur daitezkeenek.

Aspalditxo ohartu nintzen zenbait poeta eta poemaren giltza, izateko arrazoia autoreen gutunetan aurki zitekeela, eta horrela hasi nintzen biltzen Jon Miranderen gutundegia. Banituen batzuk jada argitaratuak zirenak, eta Jon Etxaide, Jose Mari Satrustegi, Luis Villasante eta Bittor Mujikarengana jo nuen, zeintzuek eskuzabalki erantzun zidaten [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 11-14)].

Oso poztu ninduten, esan bezala, Etxaideren erantzunak eta eskuzabaltasunak, eta liburua argitaratu zenean bisita bat egitera ere joan nintzaion Gros auzoan zuen etxebizitzara. Antzera gertatu zitzaidan Jose Maria Satrustegiren ihardespenarekin. Urte dexente geroago Urdiaingo etxe ederrera bisita egin niolarik, bere liburutegia erakutsi zidan eta benetan

gauza interesgarri, bitxi eta argitaratzeko asko zituen. Oraingoan Koldo Mitxelena eta Txillardegiren arteko gutunez mintzatu zitzaidan, bat bereziki ez omen zen komeni argitaratzea oso konprometitua baitzen.

Villasanteren erantzun amultsuak benetan poztu ninduen, berarekin izan nuen harremana beti izan baitzen ona. Hark kontatu zidan Julio de Urquijo Mintegira etortzen zenean, zenbat lagundu zion Koldok karguan, hemezortzi urtez izan baitzen euskaltzainburu, eta hala, Euskaltzaindiak omenaldia antolatu zuenean (*Iker* 6, 1992), berak Sara-Donibane Lohizuneko eskolaz idatzia gogoratuz idatzi nuen *Barkoxeko koblakari-eskola XVIII-XIX. mendeetan*, eta Eusko Ikaskuntzak Euskadiko Kutxaren Giza eta Gizarte Zientzien Saria 1997an eman zionean, pozik idatzi nuen haren *Laudatio*a, hots, laudoriozko solasa. Beste fraide batekin ere izan nuen harremana, Estibalizko monasterioan izan bainintzen Mirande eta Ibiñagabeitiaren harremanen urratsak bilatzen eta Bittor Mujikak asko lagundu zidan.

Horrela bada, Susa argitaletxeak 1995eko abenduan argitaratu zuen prestatu nuen edizioa: *Jon Miranderen Gutunak (1948-1972).* Gizalegezkoa iruditu zitzaidan Txomin Peilleni hitzaurretxo bat eskatzea eta hala egin zuen *Eskutitz aurrea* izendatuz. Gorka Arrese, Txomin eta hirurok izan ginen Susaren mahaian Durangoko ferian, eta hantxe Gorkak halako irri eta keinu adierazkorra bota zidan, zeren eta paristar idazlea, berriki hila, protagonismoa batere gustatzen ez zaiona, hantxe zegoen saltzen ziren aleak dedikatzen eta sinatzen, gutun guztiak bereak bailiran… Kontrazalean honako laburtzea eman nuen: *Nireganatu ahal izan ditudan hirurehun eta berrogeita hamar eskutitzetatik, Mirandek askoz ere gehiago idatzi zituen arren, 275 hautatu ditut entresaka egin ondoren. Politika, Filosofia, Erlijioa, Euskal Kultura, Euskal Literatura eta Euskara ditu eskutitzgai, beste zenbait gairekin batera (bidaiak, lan-arazoak, familia-gorabeherak, sexu-harremanak…), eta ohartu gaitezke benetan gutun hunkigarri hauen bitartez zenbaitek eman diguten irudia ez zela hain zuzena, eta ez daitekeela inolaz ere idazle handi honen sakona eta aberatsa klitxe hertsi eta errazegietara muga: faszista, paganoa, igarle desterratua, kristautasunaren lehenengo kritikoa euskaraz, indargintza predikatu duen lehena…* Adibide gisa hona berrogeita hamarreko hamarkadako gutun bat garaiko kezken eta bere barne-taupaden adierazgarri:

Ibiñagabeitia'tar Andima'ri

1952-XII-12

Adiskide!

Zure gutuna goizean artu dut eta, zuk nai bezela, Krutwig-i idazten diot biar etor dakigun, «Pen»-i buruz mintzatzera, Penik izan bear ba da… Zeure aitzineko eskutitzak naigabeturik utzi ninduen; ez nion erantzun, uste bai-nuen, biok soilki elkar ikusi bear genuela biar, eta zure problemetaz mintzatu âl izateko gisan.

Nik ere zuk dituzun beltzaldiok ezagutzen ditut. Orain duela denbora zenbait euskal-ekintza utzi nai nuela gogoratzen zera, neu ere euskaldunetaz nardaturik bainengoen (eta nago). Zure kausaz, ez nuen utzi… eta orain zuk duzu utzi nai. Mingarska edireiten dut ori!

Euskaldun adiskide guti ditut, beintzat asmokide guti. Peillen anaiak, Krutwig, eta zu batez ere, naiz izkuntzari buruz ez ditugun beti asmo berak. Lauzpabost lankide ukanki, zerbait lan egin dezaket, bainan guztiek bata bestearen ondotik arloa uzten badute, ez du balio jarrai nakien…

Nire famili eta ezagunen aldetik izan ditudan isekek, Euskara eta Euskadiren gatik, asetzen naute neu ere eta Euskalerri maitea bere kakan uztea gogoan derabilat gero-ta usuago. Denbora-galtze bat dut, eta gainera, eragozgarri bat nire bizipiderako.

Orra zure erabakiaren eraginak nire baitan… Alaz ere, zuk nai ukanki zerbait egin genezakela ziur nago. Txaloka ibilteaz aserik zaudela zure kritika-lanetan? Zergatik txaloka zabiltza *Ars Amatoria*-ren antzeko bertze lanik egiteko ordez; euskaldun hypokritei gaitziturik ere! Euskal idazkuntza uzten ba duzu, zedukan alde erotiko bakarra galduko du, eta bertutearen nirvânan ondatuko da osoki. *T'is better to have fought and lost than never to have fought at all.* Hau da, irlandez sinnfeiner-en parolak. *Obe da borrokatu-eta galtzea, ezen-ez batere borrokatu ez izaitea*. Ola uste dut nik ere.

Biar arte, nire agurrik laztanenak.

Jon. P.S. Borrokatu bear dela-ta, Abandotarrari erantzun gogor bat egin diot eta *Eusko deya*n argitaraz dezazun nai nuke, ene le-

nengoarenaren partea. Or doakizu, denbora dukezunean, idazkinez jo zaidazun, eta aldaki bat eni eman, otoi.

Esker onezko hainbat gutun jaso nituen eta ez nintzen batere haserre Susari esker lortu edizioarekin. Prentsan ere ez zen erreseina eta komentariorik faltatu; Josean Agirre nobelagileak *Egin*en (1996-III-31) idatzitakotik zatitxo hau ematen dut: *Orain argitara eman diren gutunotan, aldiz, erabat biluzten da eta bere sekretuak eta zauriak erakusten ditu, bereziki Ibiñagabeitia-tar Andimari idazten dizkionetan. Bere kuriositate intelektuala, bere gordinkeriak, bere umore alditan fina eta alditan zakarra, bere juduen kontrako fobiak, eta depresioak, politikari buruzko idatziak, etsipen aldiak eta beste mila zertzelada agertzen dira gutunotan, irakurlea lotsarazteraino batzuetan. Eta nik, inoiz famatu izango naizen motiborik ikusten ez dudan arren, gehiago karta bakar bat ere ez idaztea erabaki dut, bada-ezpada.* Beraz, batzuek, gazteek batik bat, gustura irakurri baldin bazuten, beste batzuk nahiko eskandalizatu zirela aitortu beharko nuke XX. mende bukaeran ia izanik ere.

Irun Hiria sarietan, esan bezala, garaile izan bainintzen poesian (1984) eta saioan (1988), ea poesia epaimahaian parte hartu nahi nuen galdetu zidaten eta, baiezkoa emanik, hantxe izan naiz urtetan, poemak irakurtzen eta epaitzen. Gogoan dut 1995eko udazkenean Jose Austin Arrietaren *Graffitien Ganbara* kontsideratu genuela poema bildumarik hoberena Xabier Lete, Santiago Aizarna, Lourdes Otaegi, Henrike Knörr eta neronek. Kontrazalerako zerbait idazteko eta ondoko lerrook bururatu zitzaizkidan:

> "XX. mende bukaera honetako euskal literatura aberatsaren ekipoa osatzen dutenen arteko fotografian badu, bere jokoagatik, leku berezia Joxeagus Arrietak. Hogei urte pasatxo prosa malgu, trinko eta iradokitsuz bere irudimenaren oparoa plazaratzen hasi zitzaigula. *Bidaia-Termitosti* (1978) *Ustela* Sailean bide-aitzindari izan zen, Koldo Izagirre eta Ibon Sarasolarekin batera. Ondoren, *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* (1979), eta *Manu Militari* (1987) eleberri mardulak aurkeztu zizkigun, bizi latz, garratz, eta tragikoaren adierazgarri suertatu zaigun. Hor dugu, Marguerite Yourcenarren *Hadrianoren Oroitzapenak* ere, hain zaila den itzulpena laudorio gorenez burutzea lortu duelarik euskal irakurleon gozamenerako.

Zure irrian dut, maitea / neure tristuren galbaea, *Arrotzarena Neurtitz neurgabeak* (1983) poema liburuan zioskunetik, zalantzez eta gogoeta sakonez beterik, hor ditugu, besteak beste, lekuko *Bertso paper printzatuak* (1986) eta *Mintzoen Mintzak* (1989). Eta bide luzea burutu du Arrietak hemen maisuki ematen dizkigun «*Peru Abarkaren Apokrifo markinarraz*» ondu elkarrizketetaraino. Poetika propioaz egiten duen hausnarketa berezi, zehatz eta zorrotzeraino. Estetika *light*etarik urrun, ur gaineko bitsetan galdu barik, sakon-sakoneraino pulunpaturik, beste idazleek diotena eta haiei dien zorra ezkutatu gabe, bere eta geure eginez baizik hizkera ederrean, barne ahots eta deiei tinko eutsiz, oreka, edertasuna bilatzen saiatu zaigu honakoan eta lortu ere egin du egungo poesiaren ostertza islatzen saiatuz *Graffitien Ganbara*n».

1996

GURE ohiko lanekin jarraitu genuen 1996an. Madrilera joan-etorrian. Antonio Dominguez Reyk zuzentzen zuen SERTA poesia aldizkarirako materialak prestatzen, *Oihenart* Hizkuntza eta Literaturako koadernoetarako gaiak biltzen, Madrilen ahal nituen hitzaldi interesgarrienetara joaten, nire ikerketatxoak egiten, batez ere Biblioteca Nacionalean eta CSICeko liburutegian.

Martxoaren 14-15ean, Jardunaldietan Koldo Izagirrek parte hartu zuen eta bere poema zenbait irakurri zituen *belusazko ahotsez*. Nire agendaren arabera, Hotel Gaudi, Gran Vía 9an hartu zuen ostatu. Anton Abbadiari buruzko lanak prestatzeari jarraitzen nion.

CASABLANCAKO BIDAIA

Irailaren 14ean, lan-bidaian, Casablancara joan beharra suertatu zitzaidan. Pasaportea berritzera joan nintzen baina, egunak joan eta egunak etorri, ez zidaten berritzen. Beraz, nola infernuan ere lagunak behar izaten diren okasioetarako, eta banekienez nire gaztaroko laguna nuen eta Udaletxean elkarrekin egon ginen Ramon Zapirainek bertan lan egiten zuela, hari deitu eta hari esker berehala eman zidaten. Esandako egunean, Gurutze Santuarenean, eta herriko festetako egun nagusian, eguzkia goiz-goizetik hasi zen berotzen. Ohar batzuk ditudanez jasoak, haiexek pasatuko ditut hona, besterik gabe bidaia hura oroituz.

> Hondarribiko aireportura joan naiz Madrileko hegazkina hartzera. Honek ez du erremediorik. Ilara luze-luzea egin da berehala sarrera batean, eta bestean inor ez. Azkenean hegan hasteko enbarkatzeko hamar minutu falta direnean, beste bi sarrera ireki dituzte. Casablancarainoko txartelak ematen dizkidate. Bidaia Barajaseraino arina egin zait, baina orain ez dute kafetxo bat ere oparitzen lagungarri; txokolatezko bonboi bat eta kitto.
>
> Madrilen aireportuan ABCa erosten dut Verinesko idazleen biltzarraz zer dioen jakitearren. Ongi oroitzen naiz Juan Manuel de Prada, *Coños* nobelaren egileak idatzitako *"Puñales y flores"*,

> Haizto eta lore, baitio artikuluaren tituluak. Bata bestearekiko ezinikusia eta antolamenduan aurkezleak erakutsitako modu onak azpimarratzen ditu. Aipatzen nau, ez ordea Ramon, goiz berean parte hartu arren. Eta hori irakurtzen dudalarik gogoratzen naiz nola joan ginen Verinesera gonbidatuta, eta beribilez eraman nituen Ramon Saizarbitoria eta Jon Juaristi. Jardunaldiak irailaren 11tik 13ra izan ziren eta mintzagaia: *La intimidad (des) velada: Del diario a la autobiografia.* Alegia, egunkari pertsonalak, oroitzapenak eta bestelako idazki autobiografikoak. Nire lantxoa hau izan zen: *"Ni ez naiz nor 'No soy quien'. Notas sobre memorias, recuerdos, diarios y autobiografías".* Eta gogoratzen naiz Alex Sussana nuela aldamenean, aurrez aurre Ramon Saizarbitoria, eta beti bezala han zeudela Carlos Casares, Antonio Martinez Sarrión, Alvaro Ruiz de la Peña, Luis Antonio de Villena… Denen aurrean Pierre Topet Etchahunen bizitzako bertso bat kantatzera ere ausartu nintzela, aitor dezaket. Etxerako itzuleran, han aritu zitzaigun, hitza eta pitza, ni eta ni, bere abentura politiko guztiak eta denetan bere protagonismoa eten gabe kontatzen Jon Juaristi.

Baina itzul nadin Casablancako bidaiara. Nazioarteko aretoetan Nieves Baranda lankidea topatu dut eta kafetxo bana hartzen dugu elkarrekin. Nik, Madrilera joaten naizenean bezalaxe, maleta txiki bat besterik ez daramat, Antonio Machadoren aholkuari jarraiki, *ligero de equipaje*, baina Nievesek maleta handi bat dakar hutsik itzuleran *kilim* edo alfonbra handiz betetzeko. Verinesko kontu eta txaskarrillo batzuk kontatzen dizkiot: Celaz eta Albertiz diotena eta benetan lotsagarria iruditzen zaidana. Nola amoranteek erabiltzen dituzten txontxongiloen erara sos batzuk lortzearren. Tribunaleko buru den Anarekin ere elkartzen gara. Hegazkinera igo eta Afrikarako bidean bere alboan eserarazten nau, andere heldu eta eder batekin lekua trukatu ondoren. Negarrez hasten zait Ana. Ez dut ia ezagutzen, baina irakasle argal, ttiki eta ezdeus honek, gero denborarekin bere boterea protokolo-buru izatera iristeraino baliatzen jakingo duenak, kontatzen dit desastre bat dela gizonekiko harremanetan, amodio historietan, dibortziatu berria dela, eta abar, eta abar. Nola hala kontsolatzen saiatzen naiz, denei noizbait, lehenago edo beranduago, horrelako zerbait gertatu izan zaigula-eta…

Gibraltarreko hertsidura iragan, eta Afrikako kostan behera jaitsiz, eta itsasoko marra goitik kontenplatuz, Casablancara iristen garenean, bero egiten du. Ordularia bi orduz atzeratzen dut, beraz, Madriletik ordu bata eta erdietan atera bagara eta ordu eta erdiko bidaia egin ondoren, berriro ordu batean baikaude. Mugako jendarmeentzat turistak gara. Taxi bat hartzen dugu eta hogeita hamar kilometro eginda, hotelaren atarian gaude: *Hotel Alcantara* da. Modernoa eta dotorea. Gela ongi dago, baina leihotik ikusten den bista nahiko eskasa da. Etxe txuri zaharkitu multzoa, patio zikinez betea. Hoteletik irteten gara bertan zerbeza bat edan ondoren. Garestia da baina freskoa bederen*: Krönenburg*. Oliokiak, espezia gustagarriz onduak. Medinan sartzen gara, bisita luzeska egiten dugu Ana, Nieves eta hirurok. Balirudike neska lagun, bizkarzaintzaile bezala hautatu nautela. Hotelera itzuli, eta berriro irten baino lehen, Ana sartu zait gelara. Non afalduko dugun begira gaude, gidan. Keinu arraroak egiten dizkit ezpainekin, eta denbora guztian ari da ezpainak pintatzen. Haur ttiki bat dirudi. Gidak eskaintzen digun eta gomendatzen digun errestaurantea itxita dago. Gizonak besterik ez dabiltzan kaleetarik paseatzen ari gara. Kafe-terrazak gizonez beteta daude. Larunbat gaua da. Azkenean, bueltaka ibili ondoren, *Al-Mounia* jatetxea aurkitzen dugu eta benetan leku atsegin, gustagarri eta lasaia iruditzen zaigu. Entsalada baten ondoren, oiloa almendraz inguratu platera ateratzen digute eta ongixko afaltzen dugu. Fotografia batzuk ateratzen ditugu eta hotelerantz itzultzen gara. Kalean gizonak bakarrik. Mukuru. Martxa izugarria, baina era berean andreentzat beldurgarria gerta dakiekeela-eta, goiz erretiratzen gara. Telebista piztu eta berehala itzaltzen dut. Bihar goizeko zortzietarako geratu gara Rabat bisitatzeko asmoz.

Igandea. Irailak hamabost. Trena ez dabil kostatik oso urrun. Guztiz lehor eta pobre ageri da ingurunea. Noizbehinka ardi galdu batzuk belar ihartu eta landare arantzatsuak jaten. Hamarrak inguruan Rabaten gaude. Abiatu gara oinez zentrorantz, baina badirudi itxita daudela ia leku guztiak. Azkenean, *Musée Archéologique*ra iristen gara eta txundituta gelditzen naiz *Volubilis*eko erromatar aztarrenekin. Gidariak brontzeen gela erakusten digu argitasun bitxiak emanez. Caton, Venus, borrokalariak, zakurrak, sukaldeko tresneria, edontziak… Benetan *Volubilis*era joateko gogoa sartu zait, mosaikoak eta Karakalaren arkua ikusteko, besteak beste. Irteeran katutxo bat ikusten dut etzanda patxada ederrean eguzki-itzalak dastatuz. Medinara goaz. Hemen beldur naiz zerbait ger-

tatuko ote zaigun, zeren Anak atso zahar bati sos batzuk ematen dizkion bitartean, Nieves fotografia ateratzen saiatu baita eta neska-mutil gazte pare bat aurrean ipini baitzaizkio argazkia galaraztearren. Kanposantuan ez dugu arazorik fotografiak ateratzeko. Ez da hilik pizten galarazi nahiz. *Alcazaba* ere bisitatu dugu gidari beltz baten esplikazioekin. Aski distantzia bada gure eta haren artean eta borondatea bakarrik eskatu digunean, zenbat ordaindu behar zaion galdetu diogu, eta honelaxe erantzun digu: *Arraina ez da ordaintzen itsasotik atera eta nolakoa den jakin arte.* Ehun dirham eman diot *Baratze Andaluza* ikusitakoan eta gehiago eskatu dit. Ezetzarekin eskua eman eta bagoaz erakutsi dizkigun dorreak bisitatzera. Mausoleoa, Giralda IIa, eta beste. Diktadoreen monumentuak eta sinboloak. Nievesek solas argigarria ematen digu ikurren esanahiez. Inguruko hotel dotore batean bazkaltzen dugu eta kafea hartzen. Ez naiz batere harritzen Anari gizonekin gertatzen zaizkionak gertatzen bazaizkio. Taxia hartzeko unean arazoak ditugu. Ez dira gelditzen. Saléra joan nahi dugu, Rabaten aurrez aurre dagoen eta hartatik Bouregreg ibaiak bereizten duen hiri bikira. Meskita Handia, XI. mendean ifrenidek eraiki zuten minarete eder batekin. Badirudi taxi ttikiek galerazia dutela zubia pasatzea. Autobusek ere ez gaituzte eraman nahi. Azkenean oinez goaz bero kiskalgarripean. Mezkitan gizonak otoitzean ari dira melopea etengabean Koraneko bertsoak errezitatuz. Patioa zoragarria da. Karratua, hutsa, lau horma zurik inguratua eta goian zerua urdin-urdin. Kale estuetatik igarotzean, etxe gehienek ateetan aldabak dituztela ohartzen gara. Zubia berriro oinez igarotzen dugu. Badira batelari batzuk jendea batetik bestera pasarazten. Arraunean zutik egiten dute veneziar gondoliereen moduan. Geltokian egunkari espainol bat erosten dut. Ez nuen uste oraindik frankisten erretorikak hain bizirik iraun zezakeenik. Ba, hementxe dirau. Balirudike Hassanek komunikabideak oro ondoxko kontrolatzen dituela. Anak, trenean gaudelarik, berriro jende guztiaren aurrean ezpainak pintatzen jarraitzen du. Hoteleko errestaurantean afaltzen dugu. Gaur Allahk proba mordoxka bidali dizkigu, eta uste dut bihar ere berdin bidaliko dizkigula, lur arrotzean gauden infidelak baikara gu. Hala ere, pazientziaz eta umorez gainditu daitezkeelakoan nago.

Astelehenean, goizean goiz joan ginen Racine auzoan aurkitzen den *Juan Ramón Jiménez* Institutura Selektibitate-azterketak zaintzera. Etsaminatzaileak Ana, Nieves, Isabel eta ni. Azterketak banatu genituen eta

hantxe hasi ziren mutil gazteak lotsarik batere gabe kopiatzen elkarri. Andere irakasleek esaten zizkietenei ez zieten batere kasurik egiten eta batean baino gehiagotan ahotsa altxatu behar izan nuen errespetua eta zuzentasuna ipintzearren. Azterketak amaitutakoan, Michel Pinseau arkitekto frantsesak diseinatutako Hassan II.aren mezkita berria bisitatu genuen. Atetzar izugarri handi eta ederrak. Ehun eta hirurogeita hamar metroko altuera duen dorrea ere bai. Dena itsasoak inguratua eta ehun mila pertsonentzako plaza zabal-zabala. Medinara berriro joan ginen azken erosketak egitera. Taldean zihoan Isabelek, neska benetan eder, xarmant eta argiak erakutsi zion ehun dolarrekoa saltzaileari eta hark hasieran prezioa bikoiztu egin bazuen ere, hantxe ikusi genuen amore ematen eta horma osoa betetzen zuen alfonbra fin, pollit, koloretsu eta miresgarria behar bezala paketetzar batean biltzen. Azken gaua zela-eta, portuko jatetxe dotore batean arrain freskoa dastatu genuen marokoar ardo zuriarekin, eta hurrengo egunean hegazkinez etxera, egindako txangoaz pozik.

Aurten plazaratu dut orobat KMko Julio de Urquijoren eskuizkribuen artean 5.237 zenbakiaz katalogatua dagoen Juan Ignazio Iztuetak idatzi *Vocabulario vascuence*. Zaldibiarra hiru aldiz ezkondu zen (1790, 1808, 1828), eta lau gerrate sufritu zituen: Konbentzioko Frantsesarena (1794-1796), Napoleonena (1808-1813), Errealisten gerra zibila (1820-1822), eta Lehen Karlistaldia (1833-1839). Justiziarekin ere topo egin zuen eta sei urte luze igaro zituen preso Ordizia, Tolosa, Azpeitia eta Logroñoko kartzeletan. Hala ere, giltzapean zegoelarik ez zuen ahazten maitea, bertan onduak baititu gure kantutegiko bertso ezagunenetarikoak diren hauexek:

Maite bat maitatzen det, maitagarria,
Begia ederra du ta guztiz argia,
Daukat urruti…

Gipuzkoako lehen historiagilea izan zen euskaraz, folklore-biltzaile eta poeta izateaz aparte, ongi ezagutzen zituen bizkaierazko testuak eta herriak eta taxuz moldatu zuen hiztegia, batez ere esamoldeak ongi hautatuak zituen eta, Larramendiren eran, ez zitzaion etimologia xelebrerik ere falta. Iztueta Fundazioak ordaindu du prestatu dudan eta Alberdaniak argitaratu duen edizioa, ediziogilearen izena ia ikusten ez delarik.

Orain argitaletxeak, bere aldetik prestatu zuen, Iñaki Urdanibia koordinatzaile zeukala, *Euskal Gaiak* deitu bilduma, eta niri gaztelaniaz antzertiari buruzko lan bat idazteko eskatu zidaten; *Historia del teatro vasco* du titulua. *Egin Bibliotekak*o parte da 116 orrialdeko dibulgazioko liburutxoa. Aski modu pedagogikoan, baina era berean informazio mailan aski osatua dela esango nuke, antzerki originalen eta itzulien katalogoak ere bai baitakartza.

Halaber Eusko Ikaskuntzak irailaren 21ean, Lizarratik Arketarako bidean muino baten gainean altxatzen den San Gregorio Ostiensen Batzorde Iraunkorra antolatu zuelarik, bertan egon ginen Gregorio Monreal zuzendari (bidaia bera Marga, Fini, Ramon Saizarbitoria eta Goiorekin 2014-IX-6an errepikatu dudalarik, jakin dut bertan ezkondu zuela Amurizak apaiza zen garaian). Oraindik bala karlisten zuloak ikus daitezkeen monumentu barroko haren barnera pasatu ginen eta, ohiko kontsiderazioen ondoren, Bernardo Atxagak beste hainbestetan bezala bere hitzalditxoa egin zigun eta ondoren bizar profetikoz horniturik zen Pablo Antoñana eleberrigile barojazaleak, mikroak funtzionatzen ez zuenez, pulpitura igo eta sermoi literario bikaina eskaini zigun, denok gustura gelditu ginelarik haren indar eta grazia apartaz.

Herrietan badugu ohitura zahar bat: *Kintoak* biltzekoa bazkaltzera eta soldaduskako edota garai zaharretako edo berrietako ixtorioak kontu-kontari elkarrekin denbora pasatzekoa jan-edanean. Eta horrelako batean izan nintzen Lintzirin hotelean azaroaren bederatzian, hainbeste erregutu baitzidaten nire adiskide Manuel Etxandik eta Martxel Arin jatorrek. Biak orain hilak, tamalez. Mutilak eta neskak bildu ginen, eta harmonia ederrean igaro genuen eguna: Arantxa Zeberio, Juana Mari Salaberria, Arrese, Dozagarat, Ibarguren, Luis Mari Intxaurrandieta, nire txikitako lagun Dabid Gomara, Boni, Txartiku, Petain… hogeita bosteraino. Lezoko seme-alaben 46ko uzta ederra!

Azaroaren 16an Irun Literatur Sariak deliberatzera bildu ginen epaimahaikoak Irungo Urdanibia aldean dagoen TRYP hotelean, beste zenbaitetan Hondarribiko Karlos V Paradorean bilduak izan ginelarik. Eta obren balioez eztabaidatu eta gure ustez hoberena zein zen erabaki ondoren, Udaletxeko Areto nagusian aldarrikatzen ziren. Halaber, areto txiki batean, aurrean agertzen ziren kazetarien galderei saritu berriak nor ziren erantzunez. Aurreko urtekoek Gaztelua eta liburu argitaratua

jasotzen zuten agintarien eskutik eta ondoren lunch bat antolatzen zen, hiriko kultur jende hautatua bertaratzen zela. Urte honetan, Luis Mari Mujikak idatzitako *Nire soneto beroak* poema-liburua hoberenestea erabaki genuen.

Eusko Ikaskuntzak, Carlos III Unibertsitatearekin batera, honen Getafeko *campus*ean hitzaldi batzuk antolatu zituen politikaz, ekonomiaz, zineaz, arteaz eta literaturaz abenduaren 10ean, ordu batetik hiruretara (13h.-15h.). Bertan Joseba Arregi, Miren Gallastegi, ez dakit nor gehiago eta neuk hartu behar genuen parte. Gallastegik Kupoaren formula beste komunitate autonomoetara esportatzea proposatu zuen, gurean baliagarria zenez. Hainbeste luzatu ziren politikoen solasak, hurrengo hizlariekiko inolako kontsideraziorik gabe, non hirurak hamar gutxitan, mundu guztia gosez akabatzen zegoenean, bukatu baitzituzten beren solasak, guri bi hitz xume esateko astirik ia ez zitzaigularik geratu, denok berehala bazkaltzera joan baikinen. Gero Pedro Migel Etxenike eta Joseba Arregi eztabaidan aritu ziren kontsultaz eta autodeterminazioaz. Josebak esaten zuen kontsulta egina zela eta bozkatzen zen bakoitzean egiten zela. Pedro Migel, aldiz, ezezkoan zegoen, bere izpiritu zientifikoa askoz ere zehatzagoa zen. Gauean Gregorio Peces Barbarekin eta haren ikasle hautatuekin afaldu genuen, kolegioan bezala bakoitzak bere izenak eta *ridiculum vitaea* laburtuz.

Fotografien artean ageri zait beste bat ere, 1996ko abendukoa, Errenteriako Udalekoa, *Jundane Jakobe handiaren trajeria (1643)* lanagatik Koldo Mitxelena saiakera-saria jasotzen, Migel Buen alkate sozialistari eskua emanez, haren eskuinean nire ikasle izandako Ana Isabel Oiartzabal zinegotzia eta eskuinean Juan San Martin euskaltzaina direla.

1997

MADRILEN, esan bezala, harreman ona nuen Pello Aranburekin, eta noizbehinka Euskal Etxeako *Txoko* tabernan biltzen ginen basoerdi bat edatera eta euskal munduaz hitz egitera. Hala 1997ko urtarrilaren 22an bertako Ekitaldi-aretoan aurkeztu nuen *Grámática de la Lengua Vasca*. Pello, Julia Butinyà, Pepe Romera, UNEDeko Filologiako dekanoa eta ni. Gelditu zaidan fotografian lehen lerroan Jose Joan Gonzalez de Txabarri, garai hartan Kongresuko diputatu eta gero Gipuzkoako ahaldun nagusia izango zen EAJko politikaria ikus daiteke. Oroitzen naiz gramatika moldatzeko zein euskalki erabili nuen galdetu zidatela eta *denak* erantzun nuela. Patxi Altunari oparitu nionean, galdetu zidan ea nik bakarrik burutu nuen hura eta baietz esan nion, akats ugari izanen zituela baina beharrezkoa iruditzen zitzaidala nire ikasleentzat. Bigarren edizioan akats haiek zuzentzen saiatu nintzen; UNEDen argitaratu zen hura ere 2007an.

Otsailaren 19an, Natxo de Felipe kantariaren gutun bat jaso nuen denborarekin faxaren paper eskasaz ia ezabaturik gelditu dena eta erabat irakurtezin bilakatu baino lehen webguneko [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 15)] sailean ipini dudana. Gai bakoitzari zegokion eran zehaztasunak emanez erantzun niolakoan nago, eta denborarekin galdera haiek erantzun aproposa izan dutela ene ustez.

Aspalditxo, 1993an jadanik hasia bainintzen bilketa-lanean eta nire sosez Frantziako Liburutegi Nazionalari Anton Abbadiaren zenbait eskuizkriburen mikrofilmak erosten, eta 1996an haren aztarnak aurkitzen *Bibliothèque de L'Institut* delakoan ibilia. Logikoa zena, bestalde, erakunde horretako presidente izatera iritsi baitzen. 1997ko urtean, beraz, Anton Abbadiaren mendeurrena duintasunez ospatzea izan zen nire helburu nagusia. Bilera bat egin genuen Euskaltzaindiko eta Eusko Ikaskuntzako ordezkari batzuek, eta Enrike Knörrek Anton Abbadiaren *Bibliografia* argitaratzea proposatu zuenean, hori egina geneukala erantzun nion eta beste zerbait gehiago merezi zuela. Horrela bideratu nuen lana Institut de Francen zegoen Abbadiaren eskuizkribu bat, karnet argitaragabe bat argitaratzeko: *Pensées, études et voyages de 1835* (1), zeinaren hitzaurre bikoitzerako Aurelia Arkotxaren lankidetza izan nuen. *Recueil de textes ethnographiques, géodésiques, linguistiques, littéraires* (2),

bi zatitan banatua, alde batetik idatzi zituen etnografia eta geodesiari buruzko testuak jasotzen zituena, Idoia Estornesen aurkezpen batekin, eta bestetik hizkuntzalaritzari eta literaturari zegozkionak, nire aitzinsolasarekin. Testu-zuzenketako lanean Fermin Arkotxak lagundu zidan. Eta hirugarren tomoa, *Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma 1851-1897*. Doinuetan Patxi Intxaurrandietaren laguntza izan nuen eta bertsogileen biografia laburretarako Piarres Xarritonena. Hiru lanok Hendaian, Urruñan eta Saran irailaren 24tik 28ra ospatu ziren gertaldietarako prest zeuden eta hitzaldien berri, hau da Nazioarteko Biltzarreko Aktak, hurrengo urtean plazaratu ziren irudiz ongi hornituriko 705 orrialdeko liburu eder batean. Txostengile eta komunikaziogileen artean 47 ikerlariren lanak jaso ziren eta hurrengo ikerketarako oinarrizko liburuak izan ziren laurak. Oso giro onean joan ziren hitzaldiak. Moderatzaile lanetan ere aritu nintzen, eta aurretiko zenbait gutun baditut hemen aurkeztekoak. Bat Chicagoko *The Newberry Library*n bilduma bereziez arduratzen zen Christine Colburn andereak bidalia. Hona lehena:



Irudia 55: Anton Abbadiaren Lore Jokoen Bilduma.

January 30, 1997

Dear Dr. Urquizu,

This letter is in response to your request for copies of *Zubernoatikako gutun bat*. Rather than incur the time and expense of billing you for these copies, I am sending them to you enclosed with this letter. Please consider making a $15.00 donation to the Library to cover photocopying and mailing costs. Please mark the correspondence to my attention.

Sincerely,

Christine Colburn

Alegia, Anton Abbadiaren lanaren fotokopien ordainez hamabost dolar, borondatezko emaitza gisara ordaindu behar nituela. Dena den, garaiz iritsi ziren eta bigarren tomoaren bigarren partean sartu ahal izan nuen lortzen zaila zen testu hau. Beti miretsi izan dudan eta Tomas Garbizuren adiskide kutun zen Iratzederren eskuz idatzitakoa ere jaso nuen [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 17)].

Jean Fagoagak Eusko Ikaskuntzako Iparraldeko buru, mediku eta hizlari dotoreak jardunaldiak igarotakoan bere esker ona adieraziz bidali zidana ere bai [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 16)].

Batzorde antolatzailekoak lagun (Jean Fagoaga, Jean Haritschelhar, Maite Ithurbide, Jose Luis Lizundia, Josemari Velez de Mendizabal) eta Prentsa zerbitzuko Nerea Azurmendiri esker batik bat, ongi moldatu ziren lanak, eta Ohorezko Batzordea osatzen zuten erakunde politikoetako buruak, alkate, diputatu kontseilari ohi, senatore eta beste ere gustura gelditu ziren. Erakutsi zitzaien, Fagoagak zioen bezala, bazirela Euskal Herrian bi erakunde indartsu bazekitenak kultura ikertzen eta modu egokian zabaltzen. Dena den, bada detaile bat ahanzten ez zaidana eta azpimarratzea merezi duena: Frantziako Instituteko buruak Sarako bazkari ondoan esan zuena, alegia, Anton Abbadiak Etiopiako bidaian bildu zituen eskuizkribu etiopiarrek gizadiaren ondare zirenez, Pariseko Liburutegi Nazionalean gelditu behar zutela, Lore Jokoetako euskal bertsoen eskuizkribuak, aldiz, gorde zitezkeela Abbadia gazteluan. Eta egundaino, hamazazpi urte geroago, *nazionalean* mantentzen dira denak, *gallica* Internet atarian aurkitu daitezkeen arren. Ezenarro, Hendaiako alkateari ere interesgarria iruditu zitzaion ideia kontatu nio-

nean, baina gaiak bere horretan dirau, eta badirudi denborarekin denak digitalizatu dituztela.

Eusko Ikaskuntzak, Jose Maria Velez de Mendizabal gerente nekaezinak zuzendurik plazaratzen zituen erakundearen berriak biltzen diren *Asmoz Ta Jakitez* argitalpenak; horrela, abenduan plazaratu 9. zenbakia Abbadiaren omenez egindako lanei eskainita dago, zuzendu nituen liburuen laburpenak bertan irakur daitezkeelarik.

Durangoko Euskal Liburu eta Diskoaren Ferian ere parte hartu nuen hitzaldi batekin eta oroitzen naiz entzuleen artean bi adiskide lezoar zeudela, biak irakasleak, Estanis Carrera eta Ander Etxebeste, eta nola esan nuen Frantziako gobernua zorretan zegoela Euskal Herriarekin ez baitzuen bete Anton Abbadiak bere testamentuan utzitako azken borondatea.

Baina dena ez zen lana izan urte honetan, zeren eta koadernotxoen artean ediren dut uda partean Bretainiara egindako txangoaren berririk.

BRETAINIAKO BIDAIA

Abuztuak 7. Zortziak laurden gutxitan Mitxelena inpimategikoekin geratu naiz Martuteneko industrialdean daukaten pabiloian. Beheko solairuan prentsa handi batzuek bi aldeetatik inprimatzen dutenak. Gizonak bertan. Goikoan ordenagailu batzuk, eta lau andre lanean. Probak egin ditugu musikarekin eta irudiekin. Ongi.

Beribilari errebisioa egin diote. Maxi berritsu. *La Venta del Curro*n bidaiarako indarrak hartzearren bi mokadutxo. Landetako pinudi eta soro aspergarriak igaro, Bordele pasa eta autopista ondoko herrixka eskas batean gelditu gara. Ogitartekoa jan eta aire, aitzina. Bidean trafiko handia. Nantesera iritsi eta aparkatu. Zazpiak inguru dira. Hotela ordaindu eta dutxa hartu ondoren, afaltzera. Afaria eskasa baina lekua ezin dotoreagoa. FNAC bisitatu, zerbeza batzuk Patxirekin eta Margarekin hartu eta, Patxi gau misiora doan bitartean, gu erretiratu egiten gara, biharamunerako planak eginez.

Nantesetik Vanneserako bidaia egiten dugu. Portua, murruak, etxeak, katedrala dena da ederra, iradokigarria. Turismo-bulegora ba-

goaz eta kilometro batzuetara dagoen etxe partikular batean aurkitzen dugu ostatu. Ongi dago eta agurea eta atsoa oso atseginak dira. Afaldu eta lotara.

Bagoaz 9an Arzeko uhartera. Lasaia, baketsua, baina itsasontzia hartzekotan goiz hartu beharrekoa. Hamarrak laurden gutxitan enbarkatzen gara eta baratxetto goaz oso pasaiari gutxiren konpainian. Itzultzerakoan, ordu bietan bidaia txartela emakume adindun batek txekez ordaindu du ordu erdiko eztabaida izan ondoren. Ohi bezala, etxeak harrizkoak dira, granito gogorrez eraikiak. Batzuek erabat abandonatuak dirudite, eta berdin inguruko lorategiak. Urte aro honetan ez dago kostaldean lo-lekurik eta barrenaldera jotzen dugu.

Pontivyra iristen gara eta hiru izarreko hotel kaxkar bat aurkitzen dugu elizondoan. Neskameak, bai hotelekoak, bai tabernakoak xeru-xeru dira *(Patxi dixit)*, oso atseginak. Pub irlandar batean zerbeza bat edaten dugun bitartean, nagusia kanta zahar bat hasten da kantatzen.

Pontivytik Lorientera egiten dugu. *Interceltic* festibalaren azken egunа da. Eta nola ez, desfilea, edo nahi baduzue herri zelten alardea ikusten dugu, denak zanpoina joaz. Eskozia, Irlanda, Lorientekoak eta ez da falta Orensetik etorritako taldea ere, hau aski txikia eta ilebeltza, ohiko zelten iruditik aski urrun. Polita da ikustea eta entzutea tabernetan musikariak bakarka, binaka, taldeka, zerbeza aldamenean dutelarik.

Lorient – Concarneau – Lorient. Bidean bainu freskagarria ordu bata inguruan. Hondartzak itsaso zabalera jotzen du eta, Donostian bezala, uhinek txanpak egiteko, jolasteko edota masaje on batzuk hartzeko balia daitezke; dena den, igeri egiteko ez da oso egokia beldur pixka bat ematen baitu, batik bat urruntzean sor daitezkeen korronteengatik. Gaztelu ondoan bazkaldu dugu muskuilu mordoxka gustagarria. Badirudi zerbitzaria, beste batzuen gisara, gazteluzaina eta haren familia direla, askazi onekoak eta leinuru zaharrekoak, baina ostatu-lanetan ez hain abilak. Hobe, beraz, errenta on bat bankuan eta gaztelurik gabe bizi –hauetarik asko baitaude salgai Frantzian–, ez gazteludun izaki eta sosik ez. Concarneau ez da duela hamar urte ikusi genuena, ontziak portuan arrainez gainezka sartzen ziren garaikoa bezala. Lorienten berriro ohartzen gara nola Bigarren Mundu Gerratean aliatuek ia osoki suntsitu zuten 1943-44an, Keromanen U-Boot urpekarien base alemana

desegitearren. Karl Donitzek eraikiarazitako bunker eta pabiloi batzuk oraindik gelditzen dira mostra moduan. Itsas portua, noski, turistentzat itxita dago, eta ikus daitekeena monumentu tzar bat da. Louis Naic (1864-1920), hiriko alkate izanari eraikia. Gidak gomendatzen duen *Pic Restaurant*era goaz arrain on bat dastatzeko asmotan. *Kari Gosse* espezia probatzen dugu langostarekin, eta gero errodabailutxoaren haragi trinko eta ongi prestatua. Borgoñako ardo zuri ezin hobetua. Nagusiak komentatzen digu atuna euskaldunek kainaberaz arrantzatua bakarrik erosten duela, sareetan harrapatua eta euren artean kolpaturikoa baino askoz ere hobea gelditzen baita. Lorientetik Bresteraino. Gauean berriz portuan dagoen taberna batean *fruits de mer* delakoak dastatzen ditugu *Port du Commerce*n. Ordu bat egin dugu zain, baina ardoaren eta elkarrizketaren konpainian ez dugu luzetsi, merezi baitzuten fruituek eta bisigutxoek. Brest ere bigarren gerratean bonbez kiskali eta desegina gertatu zen.

Abuztuaren 13an bagoaz iparraldeko kostarantz. St. Mathieuko puntan komentu desegin baten hormak ageri zaizkigu, kriseilu garai, dorre txuri, gailurra gorri eta argia itsasoan dabiltzan marinelen gidari. Bainu bat ur garbi, garden eta hotzetan. *Le Porsmeur bar-créperie*an otordua egiten dugu eta *Le Folgoët* (*Ar Folgoad* breizeraz) Finisterreko eliza bisitatu, eta bi kandela piztu ondoren, Saint-Brieucen gaude arratsaldeko zazpietan. Kafe itsusi batean, non harri zaharra eta plastikoa nahastekatzen diren, nik zerbeza bat dastatzen dudan bitartean, Patxi eta Marga gaua igarotzeko hotel bila joan dira. Aldameneko gazteek zerbezak edan eta txotxolokeriak esaten dituzten bitartean, oroimenaren ohartxo hauek jasotzen ditut. Hotelaren izena: *Le Ker-Izel*, etxe zahar eta ederra. Lasai-lasaia. Aldameneko *L'Amadeus* jatetxean lekurik ez eta afaria *Le Madure*n; beheko sua, egurrez elikatua. Giro dago eta Bouilly ardoaz giroa epeltzen da.

Biharamunean, Saint-Malo eta *Le Mont Saint Michel*etik pasa eta etxera, zeren eta azken menditxo miresgarri horretan ez baitzen arimarik gehiago kabitzen eta une batean ez aurrera ez atzera ezin higiturik egon baikinen, itolarriak jota.

Irailaren 10ean, Donostiako Miramar Jauregian *Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxaren Giza eta Gizarte Zientzien Saria 1997* eman zitzaion Luis Villasante frantziskotarrari, eta Euskal Herriko Unibertsita-

teetako hitzaldien ondoren, niri suertatu zitzaidan hitz egitea. Zegokion eran, latinezko aipamen batekin hasi nintzen, *vilescunt temporalia cum considerantur aeternae,* nioen, alegia, mundu honetako gauzak oro huts, hauts eta ezdeus dirudite betierekoez gogoeta egiten denean… Bizitza--zertzeladak aipatu ondoren, eta omenduaren bi gai nagusiak aztertutakoan, hots, erlijioa eta euskara, honela bukatzen nuen. 1977an *Euskal Idazleak Gaur,* Torrealdaik plazaratu liburuan Luis Villasante hamar idazle hautatuenen artean ageri zela eta hogei urte geroago, tamalez ahantzixea zegoela. Eredu bezala har dezakeguna dela, ordea, inongo dudarik gabe, eta egungo idazleen artean ere argi bereziz nabarmentzen dela aitortu behar dugula, garbia, zehatza eta aberatsa baita benetan, euskararen lekuko maitagarrienetarikoa

Urriaren 9an, ostegunez, Errenteriako Xenpelar etxean Koldo Mitxelenaren heriotzaren hamar urteak iraganak zirela-eta, mahai-inguru bat antolatu zuten; nire oharrek engainatzen ez banaute, Patxi Altunak, Ibon Sarasolak, Joxe Azurmendik eta neronek hartu genuen bertan parte. Salamancan berarekin nituen harremanak azpimarratu nituen, eta baita 68ko Arantzazuko Biltzarra, euskararen batasuna finkatu zenekoa, eta tesia egiterakoan eman zidan laguntza. Jenioz bizia izan arren, bihotz zabal eta animatzaile handia izan zela, eta Salamancako garaietan behin esan zuen nola agian Euskal Herriak Fidel Castro bat beharko zukeela, baina berak ez zuela izan nahi.

Frantxis Landatxek, KM Kulturuneko zuzendariak eskaturik, burutu nuen, Aurelia Arkotxarekin batera berriro, Joxan Muñozek Javier López Altunarekin batera titulu honekin apain-apain plazaratu zuten antologia: *Jon Mirande orhoituz (1925-1972). Antologia.* Arantxa Artzamendik prestatu zuen bibliografia, aski dotore, eta orobat aurkibideak. Irudi eta poema argitaragabeak bazituen, eta saiatu ginen itzulpenetan testu originala ere ematen (Friedrich Nietzsche, Federico García Lorca, Edgar Allan Poe, Bing Crosby, John Keats, Hugo von Hofmannsthal, Franz Kafka, Friedrich Schiller, Saul Txernikhovski). Baita bi egunetan, azaroaren 11an eta 12an, zenbait hitzalditan aurkezle lanak burutzen--eta. Ekitaldien bideoa KMn aurki daiteke. Lehen egunean Miranderen bizitza eta saiakera-lanen inguruan mintzatu ziren Joxe Azurmendi, Jose Mari Satrustegi eta Txomin Peillen. Bigarren egunean poesiaz eta narrazioaz, Eduardo Gil Bera, Txema Larrea eta Felipe Juaristi izan ziren

hizlariak eta hirugarrenean gogoan dut nola ekitaldi bat antolatu zen Konstituzioko Plazan garai batean zegoen Liburutegi Munizipalaren sotoan, Miranderen poemak irakurriz, batzuek aski bortitzak, horretan Arkaitz Canok, beste batzuek eta neronek parte hartu genuelarik.

Santa Luzia egunean, hau da, abenduaren 13an, Mikel Arrizabalagaren urtebetetzea zela-eta, horren aitzakian, aspalditik ospatzen dugun gremioen bazkaria daukagu *Ixkulin*en. Fermin Etxandi, ohi bezala, aho bero dabil baina ez zaio arrazoirik falta. Luis Mariren semea kartzelan dago… Babarrun jatea, alegia, betiko potajea baina ongi hornitua daukagu, tipula, piperrak, odolkiak, txorizoa, urdaia, aza, eta ez zaigu falta ardo onik. Bazkalondoan lau eta erdietako esku pilotaren finala ematen du Euskal Telebistak, eta Retegi II - Titin partidua 22-21 bukatzen da Juliantxoren alde. Frontoian ohartu naiz Bernardo Atxaga dagoela partidua ikusten. Manueltxorekin beti egin izan ditut apostu txikiak. Hogei euro edo antzeko zerbait. Koadrilaren erronda pagatzeko adina. Ni klasikozalea, bera iraultzaile. Ni Retegi II, Olaizola II pilotarien alde eta bera beti kontra, Titin, Irujo… Partidua bukatutakoan, eta ohi bezala, bilantzikoak kantatzen ditugu garai hauetan. *Birjina maite, Haur eder baten bila, Aintza zeruan, Mesias sarritan agindu zana…* Patxi Intxaurrandietaren zuzendaritzapean ezin ukatu abestalde ona egiten dugula.

1998

1998KO urtea, aurrekoan Abbadiaren omenezko lanak igarota, esan genezake lasaiagoa izan zela. Baina hala ere ez nintzen geldi-tzen. Urtarrilean Bidebarrietako Liburutegian Anton Abbadiaren Lore-Jokoei buruzko hitzaldi bat egin nuen, Lola Valverdek aurkeztu-rik, eta Abbadiak eta Unamunok 1902an zituzten iritziak eta jokabi-deak konparatu nituen.

Otsailaren 27an Ana Etxaidek euskarazko ikasleei hitzaldi bat ema-tera inbitatu ninduen Iruñera, Nafarroako Unibertsitatea deitzen den Opusekora. Eta bazkalondoan, Eusko Ikaskuntzaren Baionako bilera-ra joan nintzen abiadura bizian; bueltan Donostiara iritsi nintzenerako beribila nahiko egoera kaxkarrean zegoen, ia-ia erre egin zitzaidalarik.

Mikel Atxagak zuzentzen zuen *Bidegileak* bildumarentzat bi biogra-fia labur prestatu nituen. *Anton Abbadia (1810-1897)* eta *Pierre Lhande (1877-1957).* Benetan bi pertsonaia guztiz interesgarri eta eredugarriak, utzi zizkiguten lanengatik. Bat XIX. mendekoa eta bestea XX.ekoa, biak euskaltzale argi eta sutsuak.

Jean Baptiste Orpustanek eta Pierre Bidartek zuzentzen zuten *Izpe-gi* bilduman, Orpustanen frantsesezko hitzaurre jakintsu eta mamitsu batez lagundurik, nire astolasterren bildumak plazaratzeko grazia aurki-tzen zuen azkenean, titulu honekin: *Zuberoako Irri-teatroa. Recueil des farces charivariques basques.* 420 orrialdeko lana, irudi bitxiz hornitua. Imprimerie Maubecen moldatua, bertara probak ikustera joan nintze-larik. Bazuen Orpustanen hitzaurreaz at, nire hurbiltze-saioa, hamazaz-pi antzerki, hamahiru kanta, beraz orotara hogeita hamar idazki, Zu-beroako altxor berezienetakoa; bukaeran, zenbait hitz eta esamoldeen argibidea ematen nuen. Charles Videgainek *Lapurdum III* errebistan erreseina interesgarria egin zuen, beste zenbait oharren artean esanez… *[il] est bien connu aussi pour son habilité à dénicher dans les bibliothèques ou les fonds particuliers peu accessibles des documents qu'il publie avec une louable régularité.* Alegia, laudagarria zela liburutegietan eta ondare par-tikularretan zeuden euskal testu eskuragaitzak erregularki argitaratzen burutzen nuen lana. Hamar urte lehenago Juan San Martinen eskutan

utzitako eta Euskaltzaindian merezi zuen oihartzunik aurkitu ez zuen lan hark argia ikusten zuen azkenean.



Irudia 56: Xaribarien bilduma
Jean Baptiste Orpustanen hitzaurrea frantsesez.

Nire arreba Marikrutxen etxean, esan bezala, urte askotan bizi izan zen Doroteo Esnaola apaiza, eta hark bazituenez bi anaia Afrikan misiolari, Leonardo eta Demetrio, haiekin batera pasatuak ziren handik misiolari anitz, moja ugari eta apezpiku beltzen bat ere bai. Isidro koinatuak, Esnaolaren familiako batzuekin eta beste adiskide batzuekin, Rwandarako bidaia bat antolatu zuen, laguntza pixka bat emateko asmoz. Motxila batean ongi prestaturik Marikrutxek ondutako txipiroi-kazuela ederra ere bai, hegazkinean ordu batzuk igaro ondoren puntu-puntuan iritsi zitzaiena. Ez ziren batere garai onak, ia eguneroko triskantzak eta sarraskiak ikusten baikenituen telebistan eta irakurtzen kazetan. Garai honetakoa da Leonardoren partetik jaso nuen gutuna.

Sihara, 1998-II-24

Agur Patri, aspaldiko.

Irea artu detala ta eskerrak emateko idazten diat au. Lazkao'ko lagunok zijoaztek laxter ta badiat aukera. Gure berriak ez dituk oso onak, badakik baño obetuko dirala esperon beti. Ondo bizi aizela pentsatzen diat.

Besarkada.

Leonardo.

John Le Carréren *La canción del misionero* eleberria irakurritakoan galdetu izan diot nire buruari tristeziaz noraino irits daitekeen gizonaren bortizkeriarako jaidura, urre-goseak eta gorrotoek gerra genozidioraino bultzatzen dutena.

Jarraitzen nuen noizbehinka, deitzen zidatenean, tesiren batean edo bestean epaimahaiko lanetan parte hartzen, eta 1998ko apirilaren 9an Baionan Ur Apalategiren *L'Evolution de la problématique littéraire de Bernardo Atxaga, du champ littéraire basque au champ universel. Socioanalyse du pathos atxaguien* tesian egon nintzen. Noski, *cum laude* eman genion, bikain defenditu baitzuen bere lana, batik bat Pierre Bordieuren ideiak eta teoriak euskal literaturaren sorora erakarriz; handik bi urtera *L'Harmattan* argitaletxean argitaratuko zuen *La naissance de l'écrivain basque.* Bere unean kritikatu nion eran esan dezaket orain ere garrantzi gehiegixko ematen diola sari nazionalari, hau da, Espainiako Kultur Ministerioak ematen duenari –hamarkadetan bertan partaide izan naizelarik–. Eta Atxaga baino lehen garrantzi soziala apartekoa izan zuela Gabriel Arestik, ez bakarrik Euskal Herrian. Eta duela gutxi *Ramon Saizarbitoria L'autre écrivain basque. L'élaboration d'une réponse néo-moderne à la périphéricité littéraire (1995-2000)* (L´Harmattan, 2013) plazaratu liburuan erabiltzen dituen tituluak oso adiera anitzeko eta ikuspegi desbideratzaileak edukitzera eraman dezaketela irakurle arrunta. Fusterrekin bainago periferia izan daitekeela hirigintzako kontzeptua, geografikoa baina ez kulturala eta, Lasagabasterrek zioen bezala, euskal kulturaren suspertzearen meritua ez dela mugatzen bi idazletara, ekipora baizik, non argi eta klarki bi hauek baduten beren lider-rola. Eta Koldok?

Baionan halaber Eusko Ikaskuntzak antolaturik izan ginen maiatzaren hasieran *Europar herri-antzertia, Teatro Popular europeo, Théâtre populaire européen* jardunaldietan. Hiru hizkuntza horietan eman ziren hitzaldien sarreretan laburpenak, eta bukaeran ingelesez ere bai. Entzuleen artean ikasle askorik ez izan arren, prentsan oihartzuna izan zuen eta *Egunkaria, Egin, Sud-Ouest* eta *Le Miroir*ek eman zuten gertakizunaren berri hiru hizkuntza aipatuetan. Antolamendu lanetan aritu nintzen eta nire adiskide teatro-adituok hartu zuten parte: Francesc Massip katalanaz, Manuel Rodríguez Alonsok galegoaz, eta Miguel Ángel Pérez Priegok gaztelaniazkoaz. Azken biok nire lankideak UNEDen. Euskal mundutik, Hélène Etchecopar Etchart, Eric Dicharry, Kepa Fernández de Larrinoa, Iñaki Mozos, Txomin Peillen eta neu. Emaitza hurrengo urteko alean, *Oihenart 16*an agertu zen. Michelena moldiztegian arazoa izan genuen irudiekin, baina konpondu zen nola edo hala. Esan beharra dago orobat, gure Velez de Mendizabal gerente ahalguztiduna ez zela ibili oso adi hitzaldiak ordaintzen, iritsi zitzaizkidan kexuak kontuan hartuta.

Eta apirilaren 12-13an Baionan Jean Baptiste Orpustanek *Les lettres basques au temps d'Axular (1600-1650)* izenburupean prestatutako Kongresuan *"Axularren garaiko sermoi argitaragabe bat: erunt signa in sole, et luna, et stellis. l. 21., goure ginco omnipotantac…"* aurkeztu nuen. Hau da, XVI. mende bukaerakoa edo XVII. hasierakoa izan daitekeen eta Julio de Urquijoren liburutegian aurkitu nuen sermoiaz, eta garai hartako sermoilariez eta haien estiloez. Nahikoa lanarekin transkribatu nuen sermoia; bere aipamenak kontuan hartuta (Genesia, Psalmoak, Dante…) kontsidera zitekeen jesuitek hainbeste maite zuten korronte asianistakoa zela, non *varietas ingeniorum,* baliabideen ugaritasunean nabarmentzen eta oinarritzen zen. Berehala (1999-IV-18) Baionatik Xarles Videgain, *Lapurdum* agerkariaren idazkariaren gutun bat jaso nuen; honela hasten zen: *Adixkidea, Badakikezun bezala, Axularrez eta haren garaiaz ospatu berri den kolokioan egin ziren txostenez bilduma egin gogo dugu ahal bezain laster…*

Cuencan ekainaren 25etik 28ra UNEDeko José Romera eta Francisco Gutiérrez Carbajo irakasleek antolatutako *Teatro Histórico 1975-1998. Textos y Representaciones. VIII Seminario Internacional del Instituto de Semiótica Literaria, Teatral y Nuevas Tecnologías* jardunaldietan

ere parte hartu nuen titulu hau daraman lantxoarekin: *"Anacronismo, panfleto y poesía en el teatro histórico vasco del postfranquismo"*. Gogoan dut Ramon Barea teatro- eta zinema-aktore ospetsuak ere parte hartu zuela bertan *"Gernika" y "El Guernica" en el Teatro"* gaiaren inguruan eta Loreta de Stasiok, *"El Teatro durante la Transición en el País Vasco: el tardofranquismo grotesco en Bilbao, Bilbao"* gaiaz. Oso bikote interesgarria iruditu zitzaizkidan Loreta eta Ramon.

1998ko udan, uztailaren azken egunetan eta abuztu hasieran Tolosa (Okzitania) eta Avignonera eginiko bidaiaz beste baterako uzten dut, noizbait memoria hartutako oharrak argitzera animatzen bazait.

Herrietatik hitzaldiren bat ematera deitu izan didatenean ia inoiz ez diet ezezkorik eman, ez bada une horretan erabat lanpetuta nintzelako edo beste egitekorik neukalako, eta hala, adibidez, irailaren 17an, ostegunez, Zestoako Euskal Jaiez mintzatu ginen. Halaber, *Euskonews* 13rako ere moldatu nuen artikulu bat *Euskal idazleak eta best-sellers-ak* gaiaren inguruan.

Azaroaren 6an, Madrileko Kultur Ministerioko Sala Cervantesen Saiakerako Sari Nazionalak erabakitzen ziren eta hantxe egotea suertatu zitzaidan. Eztabaida luzea izan genuen, Juan Luis Cebrián *El País*eko zuzendaria bertan zegoela. Esan nionean ea zer iruditu litzaiokeen beragatik, inoiz ETAkoa izan gabe, liburu batean gezur hori zabaltzea eta bere izena laidoztatzea, isildu egin zen. Baina nabarmena zen giroa eta aldez aurretik bazirudien bat etorriak zirela Jon Juaristik idatzitako *El Bucle melancólico* saiakerari saria emateko. Nire ustez, zehaztasun gutxiko lana zen, eta saiakera bati eskatu behar zaiona, ene uste apalez, arina ez izatea da (ez estiloz –liburuak badu hori–, mamiz baizik), eta esaten direnak ongi ikertuak eta dokumentatuak izatea; liburuak ez du hori. Garbi zegoen Ministerioak, lau Hizkuntza Akademien ordezkariez gain, ezartzen zituen epaimahaikoekin nahi zuen aldera eraman zezakeela balantza, eta euskaldunen literatur prestigioa egiten ari zela, eta irizpide gaiztoz beteak zeudela epaile asko. Eta daudela, orain dela gutxi berriro konprobatu ahal izan dudan bezala…

Elxeko udaletxeak antolaturik, *V. Festival de Teatre i Música Medieval d'Elx*en karietara, urriaren 28tik 31ra jardunaldi batzuk antolatu ziren, Josep Sirerak zuzendurik; bertan berriro elkartu ginen Maricarmen Gómez Muntané musikologoa, Ferran Huerta, Francesc Massip, Maria

Idalina Resina Rodrigues lusista eta neu. Nire hitzalditxoaren titulua hauxe izan zen: *"Pervivencia y evolución de las farsas y los misterios vascos"*, alegia, xaribari eta pastoralen bilakaeraz eta gaur egungo biziaz. *Teatro Medieval, Teatro Vivo* titulupean argitaratu ziren aktak.

Euskaltzaindiaren V. Herri-Literatura jardunaldiak Antonio Maria Labaienen omenez antolatu ziren azaroaren 13an eta 14ean. Haien berri, egunotako *Egunkaria*n jarrai daiteke. Juan Mari Lekuona batzorde--buru zenak eskatu zidan deitzeko adituren bati edo besteri eta horrela kontaktatu nituen Josep Lluís Sirera, Valentziako Unibertsitatekoa, eta Francesc Massip, Tarragonako Rovira i Virgilikoa. Biak erdi aroko eta egungo teatroan adituak. Juan Frankok Joxe Ramon Zubimendiren gidoian oinarrituz burututako dokumentala ere aurkeztu zuen. *Antonio Maria Labayen (1898-1994) hitz bitan*… Juan Mari Lekuonak, Peñaflorida, De la Gandara eta Barrutiaren antzerkigintzaz, Marzel Etxehandik *Corpus Christi* edo Bestaberri inguruan sortu jaialdiez, Jean Haritschelharrek gidaturik mahai ingurua Matin Irigoien, Antton Luku eta Jean Louis Davantekin, eta abar. Ni Antonio Maria Labaienen obra oparoaz mintzatu nintzen. Antzerki-sortzaile, itzultzaile eta saiogile bezala, hala nola gaztelaniaz 1965ean argitaratu zuen *Teatro euskaro. Entrevistas, Reseñas, Crónica. Catálogo de obras dramáticas* lanaz. Ikerketak hurrengo urtean argitaratu ziren *Euskera* aldizkarian.

Esan bezala, *SERTA* aldizkarian parte hartzen nuen ale bakoitzerako hiruzpalau poetaren dozenerdi bat poema euskaraz hautatu eta horien itzulpena eskatzen nien egileei, edota itzulpenik ez bazuten, neronek moldatzen nuen, eta baita poetaren biografia laburra ere. Hala bada, abenduaren 31n, beraz, 98ko azken egunean, Urte Zaharrean nire gaztetako pilota-kide eta adiskide Joan Mari Irigoien altzatar nobelagile trebeak gutun ederra, ingeniaritzako giltza-hitzak erabiliz, bidali zidan [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 18)].

1999

AINHOA Beola, nire ikasle izandakoak, Mikel Atxagak eskaturik, *Bidegileak* bildumarako aholkua eskatu zidan Antonio Labaienen biografia laburra egiteko eta, pasatu niolarik, honako gutuntxoa bidali zidan : *Kaixo Patri, Mila esker zure txosten hau uzteagatik. / Beti bezala lana interesgarria iruditu zait eta dagoeneko «pista» batzuk ere eskaini dizkit. / Besterik gabe, ondo izan eta aurki arte. Ainhoa Beola*.

Pentsatzen nuen Abbadiaz eginikoaren antzeko beste zerbait egin zitekeela, orain XX. mendeko kultur munduan izan zen gizon funtsezko batez, alegia, Julio de Urquijo (Deusto, 1871-Donostia, 1950) eta haren Obra osoak plazaratzea ez legokeela gaizki, honako liburukietan banaturik: *1. Estudios Históricos; 2. Lengua Vasca, 3. Literatura Vasca, 4. Paremiología; 5. Reseñas de libros; 6-7-8. Epistolario; 9. Lingüística General, eta 10. Literatura española*. Egitasmoa ez zen aurrera atera ahal izan, Eusko Ikaskuntzako gerenteak ez baitzion aurkitu interesik edo bideragarritasunik, antza.

Urtarrilaren 25etik 30eraino Parisen egon nintzen, *Expolangues*en, eta UNEDek ezarri standa Euskaltzaindiak ezarritakoaren ondoan suertatu zen, eta beraz, biei laguntzen, kaxak hemendik hara eramaten, hurbiltzen zen jendeari kasu egiten eta aholku ematen, karga-deskarga lanetan ere ibiltzea suertatu zitzaidan, oso jende atsegina aurkitu nuelarik, Euskaltzaindiko standeko neska nafarrak, batez ere.

1999ko urtean beste tesi batean egotea suertatu zitzaidan. Bilbon izan zen, hain zuzen, oraingo hau, eta nire adiskide Joserra Gartzia Garmendiak burutua. *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak (Marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa)* zeukan titulua eta atsegin handiz entzun genituen bere teoriari zegozkion oharrak eta praktika musikalak. *Cum laude*a eta doktore titulua jaso ondoren, bertsolari hautatu batzuekin bazkari ederra dastatu genuen Fakultatean bertan, non ez zen falta izan, legezkoa zen bezala, bertsorik. *Hitzetik hortzera* telebista programaren eta hainbeste saio ederren egileak ongi merezia zuen.

Apirilaren 28tik maiatzaren 16ra Txipre eta Sirian barrena egindako bidaia niretzat ezin ahantziaz, eta garai honetan lurralde ikusgarri haie-

tan nolako giroa zen jakin nahi duenak jo beza patriurkizu.eus webguneko *Bidaiak* sailera.

Etxera iritsi eta bi gutun bederen baneuzkan erantzuteko. Bat Marijo Olaziregik maiatzaren 9an idatzia, non bere tesiaren atal soziologikoaren laburpena gaztelaniaz argitaratu nahi zuela esaten baitzidan, zeren eta gaztelaniazko irakasleen formakuntza-ikastaroak ematen ari zenez, arazoak baitzituen *irakur dezaten lortzeko.* RIEVera bidali omen zuen, eta *Aristorena izeneko batek oso goiz jota 2000 urteko otsailean argitaratuko lutekeela* erantzun zion; presa zuen, nonbait, eta ea Eusko Ikaskuntzako *"Cuadernos de Sección"*en argitaratuko nuen. Dena den, Matilde, Koldo Mitxelenaren emazteak esaten zuen bezala, *las cosas de palacio van despacio*, eta Eusko Ikaskuntzaren onarpena iritsi zitzaion, eta honi buruzko esker ona ematen zidan gutuntxo batean (2000-III-30) esanez, *…Denak ni bezalakoak balira, a zer burukominak! Enfin, gure antsietateek eta curriculumkeriek traizionatzen gaituztela!* Ez zen nolanahiko aitortza. Juan Aranzadi lankideak apalki esaten zuen bezala, gure *ridiculum vitae*ak.



Irudia 57: Andima Ibiñagabeitiaren gutunak 1935-1967 (Susa 2000).

Bigarrena, Javier I. Lopez Mendizabalek ekainaren 19an egina, nire bisitari eta eskaerari erantzunez. Hona zioena: *Ementxe dijoazte bi eskutitz Andimarenak, zerbait geio azaltzen bazait oso pozik jarriko det zure eskuetan. Nai dezun arte, bitartean artu nere besarkada beroena. Xabier.* Bidean neukan Andima Ibiñagabeitiaren gutundegia, baina honi aurrerago helduko diot.

NADORREKO BIDAIA

UNEDera itzulita, zozketan Nadorrera joatea suertatu zitzaidan eta, beraz, aurrekoan Casablancan izan nintzen bezala, oraingoan gertuxeago zegoen hirira joan behar nuen berriro Selektibitate-lanak behatzera. Bidaide berriro, Departamentuko Nieves Baranda eta Manolo Esgueva adiskideak. Hona hemen hartutako ohartxoak.

Ekainak 19.

Madrilen nago berriro, bihar Nadorrera joan behar baitut Selektibitate-azterketak egitera. Plaza Santa Anako terrazan afaldu dut lasai asko, zerbezeriek espaloietara ateratzen baitituzte mahaiak gau giroaz gozatzeko. Afaldu eta berehala nire zokotxoa, Santa Isabel kalean daukadan korralara noa. Etxe ondoko espaloiak arabiarrez eta latinoz josita daude.

Ekainak 20.

Taxiak ordu laurden batean eraman nau aireportura. Patxadaz gosaldu dut eta bertan topatu ditut Nieves eta Manolo. Bidaiaren lehen partea Madrid-Málaga da, eta goiz eder honetan egunkariak irakurriz benetan gauza gustagarria gertatzen ari zait. Goitik paisaia guztiak argi ikusiz, Málagara iristerakoan, etxe txuri mordoa benetan eder ziruditen pinudi berdeen artean eta zeru urdinaren pean. Aste batzuk baitaramatzagu Donostian hodei grisetan murgildurik, ez da harritzekoa argi honek nire begiak liluratzea.

Foker zahar batean sartu gara bidaiari batzuk eta Nieves eskuinean dudala, ordu batean *el estrecho* Gibraltarreko itsasartea iragan dugu. Leihotik ikusten dut itsasoan barrena ekialderantz doan petroliontzia.

Miguel, Nadorreko Institutuko irakaslea, gure zain dago eta berarekin pasatu dugu frontera; hiru ordu laurden eduki gaituzte bertan itxaroten. Bitartean, emakume zamaz kargatuek besterik gabe igarotzen dute muga. Ikusten dira gizonak ere bizkarrean zaku handiak dituztela mendiz pixka bat aitzinago jaisten. Dirudienez, Nador eta Melilla kontrabandotik bizi dira. Mugan irakasle txotxolo, hitzontzi eta petral bat bildu zaigu, Palentziako egoitzan zuzendaria dena, telefonoz jo eta ke dabilena, pasaportea etxean ahaztuta utzi omen duelako.

Hotelera iritsi eta ez zen espero nuena. Itsasoari begira leihoak eta piszinarekin. Antza denez, Zentroko zuzendariak hau hautatu digu. Ezin da deus utzi besteen esku, horixe da kontua. Hala ere, ez hain urrun, taberna batean itsasoari begira zerbeza bat edan dugu eta *Marhaba* jatetxean bazkaldu. Gaizki. Oraingoz ezin dakioke gauza handirik eska hemengo *ars culinaria*ri. Finezia soberarik. Bazkalondoan paseotxo bat egitera eta Zokoa ikustera abiatu gara. Zaharrak berehalaxe aspertu dira eta gazteok ibilaldi luze bat eman dugu Mezkita eta portutxoa ikusiz. Haur mukizuak, gaztetxoak bi metro hondo ez duten uretan, puntalean, harkaitz artean igeri. Gero hiri honek palmondoz jantzita daukan abenida batean ura edan dugu bertako batekin solastatzen ginen bitartean. Emigrantea da, nonbait. Familia osoa, andrea eta zortzi seme-alaba, Holandan ditu. Amsterdametik ez urrun. Baina seme guztiak marokoar emakumeekin ezkondu ditu. Tradizioak hala agintzen omen du; buruan sarturik daukate hori. Nabari da berriketazalea dela, hitz egiteko gogo latza duela, ez duela gustuko bere herria dagoen bezala ikusita. Haurrak oso goiz ateratzen dituztela eskolatik… Eta horrela erdi ezkutuan mintzo zaigun bitartean, espioien beldur (?), mutil koxkor batek oinetakoak garbitu dizkigu Nievesi (hau bekatu larria!) eta niri. Ezer eskatu gabe, eman diodanarekin pozik alde egin du.

Ekainak 21.

Goizeko seietan esnatu naiz eta lotiarena egiten saiatu naiz. Benetan lasai nago, aski lo eginda. Dutxatu bart gauez egin bainintzen, ez dut orain berriz egin beharrik. Ibilalditxo bat eman dut hotel ondotik kale batzuetan barrena. Autobusak daude ilaran. Bederatziak eta laurdenetan irteten dira Rabat, Fez, Casablancarantz. Zenbait pertsona tea hartzen. Zartagin handi batean sabeltzarreko tabernaria txurroak-edo egiteko an-

tzeko masak oliotan erretzen. Gosaldu dut, eta banoa Nievesekin taxi bat hartzera, Kairako hondartzara eraman gaitzan. Eztabaida luze baten ondoren, alde egiten dugu eta orduan, taxi-jabe bat etorri zaigu atzetik eta 130 dirhametan adostu dugu joan-etorriaren prezioa. Hasieran mila eskatzen ziguten. Bainua zoragarria izan da eta oso neska argia eta azkarra den Nieves eta biok Fakultateko gorabeherez mintzatu gara. Ordu pare bat dastatu leku zoragarri hartaz eta zain geneukan taxi berean itzuli gara, eta dutxa freskagarri berria hondar-aleez eta kresalaz garbitzearren.

Ekainak 22.

Erosketak egiteko unea. Enkargaturik neukan *puffa* erosi dut, oraingoan ere aski eztabaidatu ondoren. Margaritaren iritziz gutxitto, baina Nievesek esan duenez, prezio onean daude eta erosi ditu behar zituen babutxak, nik ere berdintsuak erosi dizkiodalarik Margari. Ea asmatu dudan tamainarekin. Jira bat eman dugu eta kafetxoa hartzera eseri gara. Oinetakoen garbiketaren erritua. Erosketak berriro. Hemen ez dago Casablancan aurkitzen diren kilim-denda erraldoirik. Urretegi, plateriak, zilarrez eta beste materiaz moldatu joia prezioso ugari. Manolo zilargin baten adiskide egin da, zenbait erosketa burutu ondoren, eta hark epaimahaikideak bere etxera gonbidatu gaitu. Kanpotik, karrika estu batean baitzegoen, ez zirudien batere dotorea, baina barrutik dena da marmol ederra eta leku lasaia. Afrikan jandako bazkaririk oparoen eta hoberena eskaini digu. Kuskusak ez du batere ikustekorik ohikoekin eta ondoren bost kiloko andeja moduko arraina banatzea suertatu zait niri, euskaldunok dugun antzeaz moldatu naizelarik. Luze joan da bazkalondoa edari eta janari gustagarri hauek hartuz eta solas-berriketa atseginen artean.

Bidaia honetatik ikasleekiko daukadan oroitzapenik interesgarriena azterketa egiten ari zen hamazazpi urte inguruko neskatila batekin izandako elkarrizketa izan da. Kontatu dit Espainian, eta ahal balitz Valentzian, Medizina ikastea dela bere gogoa, baina aitak ez diola uzten, berehala ezkontarazi nahi baitu. Erantzun diot, ahaleginak egin ditzala aita konbentzitzen, etxean mediku bat edukitzea oso ongarria litzatekeela eta abar. Bestalde, gauza jakina da ekonomikoki hobeto ateratzen zaiela, eta gertuago dagoela beraientzat Espainiako unibertsitate batera, Granadara adibidez, ikastera joatea edozein ikasketa, estudio Frantzian egitea baino.

* * *

Argitaraturik bainuen 1985an *Literatur Gazeta*ren eskutik *Eros Eros* poema bilduma Juan Martin Elexpuru irakasleak igorritako gutun batean (1999-VI-29) [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 19)] Durangorako Euskal Literatura lizunaren antologia argitaratzekotan zela-eta, honen aitzakian testurik *gordinenak* biltzeko asmotan.

Azkenaldiotan, batez ere Veleiako grafittien inguruan daraman eztabaidengatik ezaguna den Bergarako Ubera auzoan jaiotako idazleak bilduma ederra eskaini zigun; honela komentatzen du Ibon Egañak: *Begi zorrotzez eta lupa lizunez arakatu zituen idazleak gure literaturaren geografiak, batzuetan agerian eta beste batzuetan erdi-ezkutuan zegoen erotismoa, 'lizunkeria' guztion esku jarriz.*

Maria José López de Ayala eta María Victoria Fernández Savater, *Departamento de Filología Clásica*ko irakasleak, non ni ere partaide nintzen, Jenaro Costasek bere babesean hartu baikintuen, eta ez Antonio Quílis *Filología Española*koak, urtero antolatzen zituzten Uda ikastaroak Ávilan. Han Humanitate gaietan errezitatzen eta tesia egiteko bidean zeuden maisuek latina, grekoa, eta Espainiako beste hizkuntzetan sakon zezaten saiatzen ziren. Hala, gonbidaturik, uztailaren 5ean hitzaldi bat eman nuen *Cantares épicos y elegías medievales* gaiaren inguruan. Eta López de Ayala eta Urquizutarrak ahaide nagusien artean zein garrantzitsuak izan ziren ezagutarazi nien…, eta noski Milia Lasturkoaren poema hasiera hura errezitatu nien:

Zer ete da andra erdiaen zauria,
Sagar errea eta ardao gorria.

Uztailak 8-9.

AULIGAk (Asociación de Amigos da Universidade Libre Iberoamericana en Galicia), Antonio Dominguez Rey UNEDeko lankideak bere jardunaldi propioak antolatzearren asmatu talde eta siglak, Santiagon antolatu zituen hitzaldi batzuk, ohiko jende bitxiz osatu taldearekin. Residencia Monte de la Condesan igaro genuen gaua Santiagon, ohi bezala itsas-arrain onak dastatu ondoren. Gogoan dut Marga ere etorri zela bidaia honetara eta gu solas kulturaletan geunden bitartean, bera turista moduan ibili zela kosta bisitatzen.

1998az geroztik, ASJU errebistaren zuzendaritza, zenbateko atzeramenduarekin ateratzen zen kontuan hartuz, hura kudeatzea eta eguneratzea eskaini zidan Diputazioko Kultura Departamentuak eta helburua betetzen saiatu nintzen, Xarles Videgain adiskidea eskaini zitzaidalarik frantses laburpenak errebisatzeko, *ene laguntza nimiñoaren emaitera,* behar bezala eta akatsik gabe idatzita joan zitezen. Halaber, zenbait adituren iritzia eskatu nuen nola-halako hobekuntzarik ahal bazitekeen lortzearren. Eta poliki-poliki Joseba Lakarrak dagoeneko bilduak zituen lanak garaiz plazaratu ziren, urteen desoreka gaindituta, hamaika artikulu aspergarriren *abstract* eta laburtzea egitea suertatu zitzaidalarik.



Irudia 58: Bigarren aldiz ezkondu nintzen eguna Lezoko Udaletxean. Nire eskuinean anaia Joxeba eta Margaren ezkerrean Mikel Arregi. Bigarren ileran eskuinetik hasita, Kontxita Esnaola amaginarreba, Marikrutx Urkizu eta Isidro Ormazabal… (1999. Apirilak 28).



Irudiak 59-60: Dantzaria, udaletxetik ezkonduta irteeran.
Egun berean, ama eta arreba Marikrutx balkoitik begira. (1999. Apirilak 28).

Luis Fernando adiskideak bi orrialdetxo eskatu zizkidan Musika Hamabostaldiko errebistarako eta hona adiskide musikazaleen omenez idaztea bururatu zitzaidana:

HOTS-MINEZ

Frente a la sinfonía de la novela, la sonata teatral o el lied del poema, el artículo es un solo de trompeta.

Vicente Molina Foix

Hots-Minez irten ginen arratsalde gris hartan haran ederrean eta mendi tartean kokaturik dagoen Ortzaizetik, konpainia eder batean eguna igaro ondoren solasean, jan-edanean eta musika entzuten. Piano estreinatu berriari hots-durundatsu, alai eta jostailutsuak atera zizkioten Patxik eta Jan Battitek, Bach zelarik araarteko, baina gure mendi-zelaiek egin zioten errekaren jaidura etengabearen kanta hezeari bezala lekutxo bat Garbizuri ere. Entzun genuen patsadatsu baina luzetsi genuen urte zaharreko mezan organoari eta herri xumearen ahotsari zerion arima baketsua ere. Inulabarrarekin partitzeko tenorea iritsia baitzen, Donostiaranzko bidea hartu genuen, hots-rninez, irratia itzalia mantenduz eta une magiko haiek luzatu-gogoz. Bat-batean errekondo inguruetako zumar, makal eta urki xuristen artetik bi basuso hegaldatu ziren beribilaren motor-zaratak higiarazirik-edo, eta berehala kanta zahar haren bertsoa esnatu zitzaigun ganbarako oroitzapenen artean:

Uso tortoila samurra
Prestidak hire negarra
ikus dadin ene pena
bihotzean zein den barna.

Baina benetan nolako doinuz kantatzen ote zuen koplari ezezagunak bertso hori? A delako aire hura *Partiada tristea Ternuara* kantaren beste A haren antzekoa ote? Agian.

Belardi berde estrenatu berrian bezala behi gorriak etzanda zeuden lasaiasko, jainkosak bailiran, eta bat-batean Baxanabarretik Bizkaira jauzi egin zidan oroimenak. Rafael de Micoleta gramatikariak 1653an eman zuen maitasun kanta hura gogorarazi zidan, "al son que llaman las vacas" kantatzen omen zena:

Dempora baten on oi neretxu
Baia mudadu nindia,
Zerren penatan bior ekida
Emon zengidan gloria

[En un tiempo quise bien,
Pero ya me mudé,
Que la gloria que me diste[s]
En pena se me volvió.]

Ba ote zuen behi hauen doinuak zerikustekorik Higinio Anglések, *La Música en la Corte de Carlos V* (CSIC, Vol. II, 1984, 186-187 or.) ematen duen partiturarekin eta zortziko handiarekin? Jose Antonio Arana Martija edota Jon Bagües euskal musikologoei nahi nieke zuzendu galdera. Eta bidenabar hona bestea. Benetan 1705eko Segurako euskal bilantzikoarena ote Eguberrietako euskal kanten lehen partitura? Ez ote du antzekorik Pedro de Ardanaz Tafallan jaioak, kapera-maisu zenak, organista Toledoko katedralean eta 1674an bilantziko bat euskaraz argitaratu zuenak? [*XVI. mendeko Lazarragarren eskuizkribuak frogatu duenez, bilantzikoak euskaraz tradizio luzea du*].

Zirimiriaren psalmo arina bide-lagun izan genuen itzulera guztian, behin eta berriro Bachen organoaren hotsen harmoniek erakartzen gintuztelarik, uhin kulunkariek bateltxo abandonatua hondarretara legez, bide ezezagunetarik bere magalera. Eta era berean, berarekin batera, erbestean desterraturik 1967an hil zen Andima Ibiñagabeitiarengana, euskaraz ziurrenik Eisenachen sortu zen jenioak izan duen lehen komentariogilearengana eraman ninduen oroimenak. Hona nola ematen zigun hark haren heriotzarena:

Gaixo, erbail itsu zelarik, azken-atsa Yaunari itzuli-urrean, oeburutik azken ereslerroak, azkenengo koralaren neurri ta armoni nare ta sakonak jaulki zitun, bere suin Altikole'k paperean maita-

sunez eta lotsaz yasotzen zitun bitartean, ondorengo itzak gaitzat arturik, berak auek ere.

Yainko ona zure aitzinean agertzera noa.

Naizen au, osorik, zuri nagokizu, Ordu ontan, Yauna, ez uka grazia. Nere azken-atsa onezkoa bedi, iratzar nadila Zure aurpegiaren so bete-betean, beti ere ezagun zatzaidan. Amen, amen. Zure nai gurena egin bedi, Yauna!

[*Eusko Gogoa,* Guatemala, 1950, 5-6 z.]

Iluna zen jada etxeratu ginenerako eta euria ari zuen oraino. Oheratzerakoan pentsatu genuen, aurten ere, beti bezala, segurantza dugu konpainia ezin hobea –Antonio, Luis Fernando, Juan Krutz, Margarita, Patxi …–, adiskideekin gizonek sortzen duten gauzarik ederrenetarikoa den musika dastaturen dugula eta Hamabostaldiko kontzertuetatik bozkarioz aterako garela barne-bakez beterik eta hots-minez,

Urriak 18-21.

Gerra Zibilaren bukaeratik hirurogei urte pasatuak zirelarik, oroitzapena ez galtzearren, *Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País (Delegación en Corte)* delakoak, zeinaren buru Pablo Beltrán de Heredia baitzen, José Luis Abellán eta José Ángel Ascunce irakasleek lagunduriK, Madrileko Ateneoan hitzaldi xorta bat antolatu zuen urriaren 18tik 21era. Afixak atera ziren eta UNEDeko Filologia Departamentuan eskegi nituelarik, zenbait lankideren harrera ona ere jaso nuen. Titulua hauxe zen: *Memoria del exilio vasco. Cultura, pensamiento y literatura de los escritores transterrados en 1939.* Eta niri egokitu zitzaidan gaia, hauxe: *"La cultura del exilio vasco en eusquera"*. Parte hartzaileak, aipatu Ascunce eta Abellanez at, Xabier Apaolaza, Emilio Palacios eta neroni izan ginen. Palaciosek eginiko zuzentze-lana benetan ona izan zen eta *Biblioteca Nueva*k moldiztegiratu liburutxoa bikaina, bere *Bibliografía General* eta *Índice bio-bibliográfico* argigarriarekin. Gaztelaniazko saio honek euskaraz argitaratu *Exiliatuok ez gara inongoak* entsegua borobiltzen zuela esan behar dut. Mintzaldia halako leku dotorean edukitzea, ezaguna izan arren, ni hizlari nintzela hainbat jenio ilustreren erretratuak begira eta entzuten nituela ikusiz, irakurtzerakoan Joxe Mari Lopetegi bertsolari errepublizalearen bertso hura, *oinperatuaz gezurti danak / gora España ta Euzkadi!* aski ziragarria izan zen.

Pablo adiskidea, urriko bukaera aldean bere ahaleginak egiten ari zen euskara ikasten eta nik oparitu liburu batzuk zirela-eta, Madriletik gutuntxo bat bidali zidan esanez zein gustura irakurri zituen nire *Zoazte hemendik* eta Martin Ugalderen *Lezo Urreiztieta.* [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 20)].

Behin Donostiako kaiatik Bulebar aldera arrauna bizkarrean nuela nindoala, Koruko Aizarna, Diputazioko Kultur zuzendariarekin topatu nintzen eta, seme arraunlari bat ere bazuenez, itsasoko kontuei oso atxikia zen. Lantxo bat eskatu zidan gai horri buruz, eta Alberto Schommer fotografoak burutu *Itsasoa* liburuan argitaratu zen lantxo hori. *El País*ek, 1999ko abenduaren batean dioenez, argazkilari famatuak 1994an *Azul,* 1996an *Verde,* eta 1999an *Itsasoa* plazaratu zituen. Gaztelaniazko sarrerako testuak Rafael Aguirre Francok prestatuak, *Gure Itsasoa. Añoranza del mar antiguo* du titulutzat eta honela bukatzen du: *El mar que consideramos nuestro se extiende muy por detrás de la raya del horizonte*.

Nire testua *Itsaso-minez,* lizentzia poetikoaz, berez itsas-minez beharko baitzuen, baina <o> grafemaren borobiltasuna eta itsasoari begira ostertza iradokitzen duena galtzea ezina baitzitzaidan, bikotea horrela aurkezteari hobetsi nion. Aurkezpen egunean, kostaldean korrika musika entzunez dihoazenen sentsibilitate eza deitoratu nuen, itsasoaren marrua, hotsa, soinua galtzen dutenena. Nire anaiarekin hegaluzetan arrantzan nenbilela, euskal arrantzaleen historiari errepaso bat ematen nion Hondarribitik Jaizkibel atzetik gindoazen bitartean irudikatzen nuen bezala, eta azkenean honela bukatzen nuen:

Oheratutakoan, berriro ostertza bereizi ezinik, uhin handi eta hodei goibel, ilun artean gris koloreko ametsetan hasi nintzen txitxarro, hegaluze eta baleekin itsas(o)-minez.

Sanjuandar ezagun batek esan zidan ez al nekien bada batelak lotzeko enborra *paba* deitzen zela, eta nik erantzun nion baietz betidanik nekiela hori, eta nire etxean hala deitu izan zela, baina ez nuela ezer ikustekorik irudien azpitituluekin. Sanjuango ontzien fotografiapean Schommerrek hau baitzuen idatzi: *Esos palos para sujetar las embarcaciones que reposan en las aguas tranquilas.* Baina jakina den bezala, ez dago bakerik gure uretan, eta marea gora eta marea behera beti dabiltza txalupak kulunkan pabei sokez atxikiagatik.

Euskal Antzerki Talde Amateurren Elkarteko (EATAE) zuzendari zen Joakinek deitu zidan telefonoz eta gutun batez gonbidatu ninduen Nemesio Etxanizen jaiotzaren mendeurrena zela-eta, mahai-inguru batean parte hartzera, Deban, azaroaren 12an, arratsaldeko zazpietan, Kultur Elkarteko aretoan. Mahaikide Joseba Ulazia, Pako Sudupe, Anton Allika eta neroni izanen ginen. Eta jorratu nahi zituzten gaiak zirela: Ulaziak *apaiza*; Allikak *euskaltzalea, gizona, idazle eta musikaria; antzerki idazlea eta bultzatzailea* Pakoren eta nire esku geratzen zirelarik. Etxanizen obrak berriz irakurtzeko aukera eman zidan, bai nobelak, antzerkiak, poemak, kantak eta gutunak. Gogoan dut oso ongi igaro genuela arratsaldea, itzuleran lagunekin Orion gelditu ginela *Xixario*n afaltzera, eta prestatu nuen lantxoa *Oihenart 18* alean argitaratu nuela.

Vahan Sarkisian, hizkuntzalari armeniarrarekin ere izan nuen harremanik. Hura, bere aurkezpen-txartelak zioenez, *Presidente de la Academia Lingüística Internacional, Director de la Cátedra de Filología Románica de la Universidad Estatal de Erevan* eta ez dakit zenbat gauza gehiago zen. Gogoan dut, elkarrekin egon ginen arratsaldean, hotza eta euria ari zuela eta kafetegi baten barnean bildu ginela. Elkarrizketa haren ondotik gutun bat jaso nuen euskara eta armeniar hizkuntzak lotuz zerbait egiteko asmotan zebilela esanez [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 21)].

Egun batez, Jose Mari Velez Mendizabalek eskatu zidan *Mende laurdenean,* hau da, 1974an hasi eta ordu arte *Zeruko Argia, Argia, Deia, Euskera, Hegats, Hoja del Lunes, Arrasate press, Egunkaria, Uztaro, Jakin, El Periódico de Alava* errebista eta egunkarietan idatzitako artikuluei errepaso bat emateko eta hitzaurretxo bat egiteko. Zuzenketaren bat edo beste egin, eta irakurritakoan, ohartu nintzen aniztasun handia eskaintzen zutela: politika, ekonomia, gizartea, kultura, ekologia, eta beste gaiez beren iritziak eta zertzeladak ageri zirela, eta lau ataletan sailka genitzakeela: *Arabatik zintzotasunez, Arrasaten beti prest, Xabier Mendiagarekin solasean* eta *Tantaz tanta*… Kazetari aditu baten lana areago zela, gogo zuen lana, gerentearena baino.

Xabier Apaolaza, EHUko irakasle eta testu filosofikoen itzultzaileak eta José Ángel Ascunce, Deustuko Unibertsitateko irakasleak, gerraondoko poesia espainolean nola desterruko kontuetan adituak, 2000. urtean sortu zuten *Saturraran* argitaletxea, zeinaren lehen bi liburukiak

honako titulua zeramaten: *1939-1999. Sesenta Años Después. Euskal Erbestearen Kultura.* Beraiekin ibili izan nintzen batera eta bestera, eta akten bigarren tomoan, hau da, hirugarren atalean, *Euskal gizon-emakume ospetsuak erbestean* zeritzanean, bi lantxo aurkeztu nituen, *"Jesús María Leizaola (1896-1989)"*, eta *"Ixaka López Mendizabal (1879-1977)"*.


Lehenaren, hots, lehendakari zaharra deitzen zenaren bizitza-zertzeladak aipatzen nituen, eta orobat jaso nuen nola behin ea bere oroitzapenen liburua ez ote zuen idatzi behar galdetu ziotenean, honako erantzuna eman zuela: *Ni ekintza gizona naiz, eta beraz, ez dut idatzi ezta idatziko memoriarik.* Irkaitzez beteriko ihardespena, noski, zeren eta ordu askotxo eman baitzituen Pariseko Liburutegi Nazionalean testuak kopiatzen, bere bulegoan irakurtzen eta liburuak idazten. Behin, umorez Ramon Labaienek, Donostiako alkate ohi abertzale ezagunak ere galdetu omen zion kalean topo egin eta: *–Noizko sonbrero berria? –Badet beste bat,* erantzun omen zion, *Alemanian 1925ean erosi nuena*. Gaztelaniazko literatur saioez gain, erbestean Betharrango ikastetxean zegoelarik, 1944an poema luze bat ere idatzi zuen (1.466 bertso-lerro) *Jon Itsasoko Euzkotarra*, 1981ean moldiztegiratu zena eta honela hasten dena: *Donostiyako / txoko eztiyak / amets urdiñ bat / dirudi…* Ez zen, antza denez, Orixe iritzi zorrotzekoaren oso gogokoa izan. Baina esan dezakegu saiatu zela idazlanen bitartez oihartzun zabal eta unibertsal bat lortzen, herriko kanpandorreko hotsak zoko batean itzal ez zitezen.

Ixakari buruzko biografia laburrean, eta Tolosan emandako hitzaldian Fausto Arozenari, 1963ko azaroaren 26an bidalitako gutun batekin –KM kulturunean dago– hasten nintzen, zeinetan haren galderari, erbestetik noiz etortzeko asmoa zeukan galderari, nostalgiaz beterik ihardetsi zion, *Jainkoak nahi duenean*. Eta etxeko tradizioari jarraiki, Ameriketan ere lanik handiena *Ekin* argitaletxea sortzea eta kudeatzea izan zuen.

Urriaren 16an Irun Literatura sariak erabakitzera bildu ginen, eta nire iritzian aspaldian ez bezalako poema bilduma ederrak genituen esku artean; Patxi Ezkiagari eman genion saria, *Udazkenerako hamar kanta* poema-sortagatik. Felipe Juaristik honela aztertzen zuen erreseina batean Ezkiaga ibiltari handiaren poesia:

> Liburu hau, ordea, desberdina da, aurrekoen aldean. Ez oso desberdina, baina aldaketak nabariak dira. Sentsuala da, oso sentsuala esango nuke, zentzumen guztien egongoa. Patxi Ezkiagak munduaren berri eman beharrean, bere berri eman nahi du, bere barne-paisaia adierazi nahi digu, musika eta guzti. Bere kezkak plazaratzen ditu; galderak dira, baina horiek gizonari zuzenduak; erantzunak dira, bere buruarentzat eta besteentzat ere bai. Poesiak psalmoaren tankera hartu beharrean aforismoaren soinekoa janzten du. Ez du galtzen lirismo apurrik, ordea. Udazkena urtaroa baino gehiago baita, barne sentipenen pintura.

Toribio Alzaga teatro saria ematen zuen Euskaltzaindiak BBKrekin batera eta bertan epaimahai bera osatzen genuen urtero: Daniel Landartek, Eugenio Arozenak eta neronek. Ia beti iritzi paretsuko gertatzen ginen eta ez genuen arazorik izaten edo Lezon edo Oiartzunen edo Donibane Lohizunen biltzeko. Hala, irabazleen artean gertatu ziren: Junes Casenave (*Agota*, 1992), Xabier Mendiguren (*Hilerri itxia*, 1994), Juanjo Olasagarre (*Hegazti erratiak*, 1995), Martin Irigoien (*Hautsi da kristala*, 1996), Karlos Linazasoro (*Burdin denda*, 1997), Juan Karlos del Olmo (*Jon Gurea, Parisen hatzana,* 1998), eta 1999an Mikel Ugalderi eman genion saria *Bake-biltzarraren ildotik*, antzerki lanagatik.



Irudia 61: Patricio Urquizu & Alii. *Historia de la Literatura Vasca.* UNED, Madrid 2000.

2000

Urtarrilak 14.

ANTONIO Tovar, Koldo Mitxelena eta Manuel Agudek 50eko hamartean, *Congreso Pirineísta* batetik bueltan, erabaki zuten behar zutela *Diccionario crítico etimológico de la lengua vasca* bat idazten hasi. Urteak joan eta urteak etorri, azkenean Manuel Agud bakarrik gelditu zen ASJU aldizkarian bere ikerketen emaitzak argitaratzen. Tovar 1985ean eta Mitxelena 1987an hil baitziren, KM Kulturunea ireki zelarik, hantxe zegoen egunero Agud Julio Urquijo fondo gordeen gelako izkina batean euskal hitzen nondik norakoak aztertzen, eta iritsi zen une bat non Manuelek ezin zuen jarraitu eta Diputazioko Kulturak Eusko Ikaskuntzaren esku utzi zuen Hiztegiaren geroa. Eusko Ikaskuntzak beka baten deia egin zuen jarraitzailea bilatzearren. Eta lehenik Marijose Kerejetari eman zitzaion lana, hark bai baitzuen tratua hiztegiekin eta hizkuntzalaritzarekin. *Orotariko Hiztegia*n parte hartua zen eta baita Bernhard Hurch-ekin Hugo Schuchardt eta Julio de Urquijoren epistolarioan ere. Bazekien alemanez, eta Agudek erabiltzen zuen oinarrizko liburua Martin Löpelmann-en *Etymologisches Wörterbuch der Baskischen Sprache,* 1968an bi tomotan argitaratua zenez… Baina lanaren lehorrak edo beste zerbaitek atzera botarazi zuen, eta hiztegiak ez zuen O-P letretatik aurrera segitu. Urtarrilaren 14an Xabier Altzibarrekin elkarrizketa bat egin ondoren, haren esku utzi nuen egitekoa, baina azkenean ahalegin honek ere potto egin zuen.

Gaur ama hil zaigu. Umezurtz nago, beraz. Eskerrak Marikrutx nire arreba ere hor dagoela, nire bataioan amandre zenaren eta gero urtetan amaren egitekoak ere bete izan dituena. Hamabostean, larunbata, arratsaldeko bostetan izango da hileta-elizkizuna.

Urtarrilak 25.

Jose Manuel Lopez Gasenik *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak* tesia aurkezten du Gasteizen Irakasle Eskolan. Benetan oso interesgarria, zehatza, eta iradokizunez betea. Ohi bezala, ohar eta aholku batzuen ondoren, *cum*

laude eman diogu. Manuk gerora ere lanean jarraitu du liburu onak idazten eta sariak irabazten.

Urtarrilak 29.

Donostia Sariak. Ohi bezala Kutxaren Andia kaleko aretoetan eta saloi nagusian. Aurten Pantzo Hirigaray atera da irabazle *Lamindegiko lamiak* antzerkiarekin. Badira urte batzuk antzerki-sarietan testuak epaitzen nabilela. Hona saritutako egile eta lan batzuk: Koldo Daniel Izpizua (*Lore zimelduen sua*, 1992), *Hegats* aldizkarian plazaratu nuen eta, antza, ageri ziren gordinkeriak ez zitzaizkion batere gustatu Bitoriano Gandiagari, protesta egin baitzuen telefonoz Euskal Idazleen Elkarteari deituta. Arantzazuko fraidekumeak gogorki astintzeko gupidarik ez zuen fraidearen hertsikeriak! Xabier Mendiguren (*Garaia da Euskadi,* 1993) ETAk okupatu Garai herriko abenturaz, Ramon Agirre (*Errenta*, 1994), Aizpea Goenaga (*Zu(t)gabe*, 1994), Antton Luku (*Tu, quoque fili,* 1996; *Antxo Azkarra, edo Miramamolinen esmeralda*, 1997), Pantzo Hirigaray (*Beherearta*, 1998), Frantzisko Xavier Zillero (*Uztailaren laua Renon,* 1999)… Hamar urtetan iparraldeko bi autore gailendu dira lau sarirekin, eta antza denez, hasi dira ahots batzuk epaimahaikoen iparralderanzko jaiduraz kexu, baina zer egingo dugu gure ustez drama balioez gailentzen badira eta euskara askoz ere hobean idatziak badaude euren antzerki lanak.

Martxoak 4.

Larunbata. Odeon teatroan Georges Lavaudant-en *Les Fanfares* antzerkia ikusten dugu. Munduan alderrai dabiltzanen gaua. Bide lohi eta bonbez beteak. Zoro, saindu, abenturero, kloxardak, baina baita ezkongabe anonimoak geranioak ureztatzen ere. Kabalkada Irrigarria. Aski surrealista, eta testu gutxi. Afaria Saint Germain-go *Atlas* jatetxean eta benetako kuskusa dastatzen dugu.

Martxoak 5.

Igandea. Georges Brassens parkea. Liburu zahar eta berrien feria. Besteen artean, Mircea Eliade antropologo eta filosofo errumaniarraren *Traité d'histoire des religions*, Georges Dumézil-en hitzaurrearekin erosten dut. Afaldu ondoren, Eric Zoncaren *Le petit Voleur*, Lapur txikiaren abenturak agertzen dituen egun-egungo filma ikusten dugu.

Martxoak 6.

Astelehena. Bibliothèque Sainte Geneviève.

Maiatzak 4.

Bilboko Foru Aldundiko Artxiboan izan gara beste zenbait idazlerekin 60ko hamarteaz hitz egiten. Gabriel Arestirekin izandako harremana oroitzen.

Maiatzak 17.

Zurbano 47an dagoen *Sargadelos* dendan, *Dia das letras galegas* ospatu dugu, solasen ondoren albariño on bat dastatuz. Hemendik pasatu izan dira intelektual galegoak: Ramon Piñeiro, Rafael Dieste…, eta beste. Dendak zeramika-lanak saltzen ditu, baina baita Galiziako beste hamaika gauza ere, galegozko liburuak besteren artean. Azkarrak ohi dira, bai, galego batzuk negozioetarako.

Bi milagarren urtean, Gorka Arrese Susako editorearekin eztabaida zenbait eduki ondoren, *Andima Ibiñagabeitia. Erbestetik barne-minez. Gutunak (1935-1967)* argitaratu nuen, edo editoreek dioten bezala zidaten. Gorkak funtzionalago egin nahi zuen testua eta dena euskara batuan ezarri, eta nik, egileari zor genion errespetuagatik, grafiak eguneratuz eta ukitu guti batzuekin, frantsesek diotenez, *la toilette du texte*, testuaren orrazkera hutsarekin, zegoen-zegoenean eman nahi nuen eta oraingoan borroka irabazi nuen. Atzerritik igorritako 253 gutun biltzen nituen. Toki ezberdinetan jasoak, Estibalizko komentuan, Euskaltzaindian, KMko Julio de Urkijoren ondarean, hala nola Juan San Martinen, Maite Zugadi adiskidearen eta Jose Mari Satrustegiren bitartez lorturiko batzuk. Prentsan nahiko harrera ona izan zuen, hala *El Diario Vasco*n agertzen ziren eta gerora tamalez kendu edo murriztuko zituzten *Zabalik* euskal orrialdetxoetan (2000-V-13). Bertan egin zidaten elkarrizketatxo batean nioen zenbat maite zuen Euskal Herria Andima elantxobear sutsuak eta zein min sakona sortzen zion erbestean egon behar horrek, zein amorru handia eragiten zion atzerriko euskaldunek aberriaren alde zein maitasun gutxi adierazten zuten ikusteak. 50 eta 60 hamarkadetako idazlerik finenetakoa zela, eta euskal literatura aztertzean ezin ahantzi zen izena zela. Garai hartan Koldo Mitxelenak *Egan* aldizkarian egiten zuen lanaren antzekoa egin zuela desterruan *Euzko Gogoa*n.

Maiatzak 19.

*Egunkaria*n, Kultura sailean ere eman dute Andima Ibiñagabeitiaren gutundegiaren berri, Euskaltzaindiaren Bilboko aretoan. Plaza Barrian egin zen aurkezpena eta Andimaren familiarekin egindako fotografia, bertan ageri garelarik Pako Sudupe eta biok ere. Pakok azpimarratu zuenez, belaunaldi berriekin harreman ona zuen, abertzale zaharrekin ez zen konpontzen, ordea. Eta Gorka Arresek ere egin solasean zioen Francoren agintaldian gure kulturak nozitu zuen jazarpenaren testigantza direla gutunok. Dokumentu historikoa.

Maiatzak 26.

Aitzol Zubizarretak *El País*en jasotzen du gaur albistea honela titulatuz: *Erbesteratuen oroimena osatu du Urkizuk bere azken liburuan…,* eta bukatzen du artikulua azpimarratuz nola 95ean Jon Miranderen gutunak eman nituen eta, etorkizunari begira, berriz, berehala argitaratuko ditudala Koldo Mitxelenarenak, baina honek bere denbora eskatu zuen, beste lau urte, plazaratu arte.

Abertzale sutsu eta idazle finaz aparte, musikazale amorratua eta mutilzahar erretxina ere ba omen zen. Gutunak benetan altxor bat direnik ezin uka, euskal idazleon euskara eskas eta ahula sendotzeko eta aberasteko gomendagarri delarik haiek irakurtzea.

Uda hartan, Euskal Herriko gaztelaniazko errebista literarioetan, Jorge Oteizaren obran eta beste askotan ere aditua zen Felix Maraña kazetariak 60ko hamarteaz jardunaldi batzuk antolatu zituen, eta niri eskatu zidan teatroari zegokiona aztertzeko eta hitzalditxoa emateko. Murgildu nintzen, beraz, *Zeruko Argia*ko ale zaharretan eta Eusko Ikaskuntzak plazaratzen zuen *Euskonews* nº 76an ageri da nire txostentxoa, titulu honekin: *"El teatro vasco entre la tradición y la modernidad: la década del 60".* Gaztelaniaz da eta bertatik gauzatxo batzuk euskaratuko ditut hemen.

Maiz ageri da Iñaki Beobide garaiko teatro taldeen kronika eginez, *Antzerki Txokoa* deitu sailean. Adibidez, Berastegin bildu ziren 1964an honako taldeak: *Txinpartak* Bilbokoa, *Euzko Iztundea* eta *Jarrai* Donostiakoak, *Gure Txeru* Getariakoa, *Ereintza* Errenteriakoa, *Oargi* Hondarribikoa, eta Itsasondo, Ondarroa, Mungia, Elorrio, eta abarre-

ko ordezkariak, helburu zutelarik euskal teatroaren egoera ikertzea eta elkarrekiko loturak estutzea. Bai Salvador Garmendia, *Istoria trixte bat* antzerkiaren egilea, bai eta Xabier Lete, kantari eta antzezlaria erabat erradikalak zeuden. Lehenak, *Zeruko Argia*n (1965-I-10) egin zioten elkarrizketa batean zioen ez soilik antzertia, eleberria eta euskal literatura bostehun urteko atzerapenarekin zegoela. Eta bigarrenak, egoeraz galdetzen diotenean (1965-I-24), honela erantzuten du:

> *– Xabier, zer diozu gaurko euskal-teatrotaz?*
>
> *– Azken denbora auetan Lartzabal jauna izan da euskal teatroari kolore pixka bat eman diona. Bizkai aldetik, Zubikarai jauna ere jarri genezake lan prestu batzuen jabe bezela. Baño nere iritziz Gabriel Aresti izan da euskal teatroa kalidadezko bide berrietara zuzendu zuena. Joan dan dagonillaren 13an ikusi gendun Donostin* Beste Mundukoak eta zoro bat *Arestiren obra jatorra eta esan genezake egun artan eta obra arekin asi zela euskal teatro berria.*

Eztabaida piztu zen noski, eta handik pixka batera Lete berak atzera joko du barkazioa eskatuz erantzunen doinuengatik. Eta giroa nolakoa zen ikusteko interesgarria iruditzen zait *Jarrai* taldeak Garmendiaren antzerkia taularatutakoan Zugastik eginiko deklarazioak gogoratzea (*Zeruko Argia*, 1965-VIII-8):

> *Antzerki onek, bere mensaje ta guzti ez du batere onik egingo gure errietan eta mensajea biltzeko asmatu zikinkeria kalte ederra bai. Orregatik ipini zuten antzerkia lenengo aldiz bota zenean, Donostiako eliz ateetan zensura au:* Historia trixte bat: *3R.*
>
> Ekainak 2.

Mikel Atxaga, *Bidegileak* bildumako zuzendariak bidalita geratu naiz Joseba Olalde fotografoarekin Iparraldera txango bat egiteko eta argazkiak ateratzeko Wentworth Webster-en biografia laburrerako [*Wentworth Webster: (1828-1907)*]. Beraz, Sarara joaten gara lehenik, *Bechienia*ra, zehazki esateko, han bizi izan baitzen, eta kanpoaldean dagoen inskripzioaren fotografia (*Wentworth Webster / Eskualdunen adiskide / Kartsu eta Jakintsuari / 1828-1907 / Etche huntan / bizi izan zen / Hamabi urthe / Krespotegian hil zen*, eta barrukoa hartzen ditu, bizi direnei zertan gabiltzan esandakoan, etxea zabaltzen baitigute. Saran bazkal-

du ondoren, bagoaz Baionako Herri-liburutegira eta han mahai batean uzten dizkiguten eskuizkribuenak eta edizioenak ateratzen ditu: Ipuinak, *Basque Legends* (London, 1877), *Spain* (London, 1882), *Grammaire Cantabrique Basque écrit par Pierre D'Urte 1712…*, (Bagnères de Bigorre, 1990), *Les loisirs d'un étranger au Pays Basque* (Chalon sur Saône, 1901)… Benetan egun ederra eta emankorra. Olalde ere gazte argi eta azkarra da, eta liburuxka ongi aterako da aurten bertan. Xipri Arbelbidek 1993an Baionako liburutegian zetzan ipuinen euskal bertsio originala argitaratu zuen, ingelesezko itzulpena baino ehun eta hogei urte geroago; horrek frogatzen du euskal literatur kritikaren ahulezia nabarmena, kontuan hartuta Webster, Cerquand eta Etcheberri ditugula XIX. mendeko ipuin-biltzaile nagusiak, bertako eta atzerriko folkloristak, gurean XX. mendean nagusi izan diren Barandiaran eta Azkueren aitzinetik.

Behin, bazkalondo batean Patxi Altunari komentatu nion *Euskal Literaturaren Historia* bat zuzendu beharko zukeela, baina beste egiteko goitiarragoak zituenez, antza, eta kontuan hartuta gaztelaniaz ordura arte egindakoak zein eskasak ziren, neroni, aspaldidanik azterketak egiten ari nintzenez, animatu nintzen lana burutzera, eta XX. menderako Xabier Altzibar (Saiakera), Iñaki Aldekoa (Poesia), Marijose Olaziregi (Narrazioa) eta Joserra Gartzia (Bertsolaritza) adiskide eta Unibertsitateko irakasleei eskatu nien laguntza, eta baita Josu Txueka historialariari ere, mendearen aurkezpena egin ziezadan. Eta denek erantzun zidaten benetan lan sakon eta argigarriekin. Halaber, irudien apaingarriekin 685 orrialdeko edizio ederra atera zela esan behar, *Historia de la literatura vasca* tituluarekin. Bestelako irudi berri bat, anitza, osotuagoa eta poliedrikoa ematen zuena. *Aula Abierta* sailean agertu zen eta modu elektronikoan, Interneten, erabilgarri zedin laster ezarri zuen UNEDek.

Jenaro Costas Rodríguez adiskideak, lehenik dekano bezala eta gero errektore gisa (1995-1999), izendatua zuen Julia Butinyà bulegokidea *Vice-rectora de metodología, medios y tecnología*; hark liburu-edizioen zuzendari izatea proposatu zidan (garai hartan urtean 1.400 liburu plazaratzen zituen UNEDek), baina Margarekin kontsultatu ondoren, lan horrek Madrilen bi gau baino gehiago egotea eskatuko zidanez, ezezkoa eman nion, baina errektoretzan beti oso harrera adeitsua izan nuenez, nire egitasmoak eta egindako lanak begi onez epaitzen zituzten eta au-

rrera ateratzen ziren. Une honetan, Antonio Moreno Hernández poeta eta latinista arduratzen zen gai hauetaz eta bere ekipoarekin lan ona egin zutela ez dago dudarik.

Ekainak 20.

Aurkezpena Euskaltzaindiaren egoitzan, Plaza Barrian egitea erabaki zen, ekainaren 20an. Autoreak bertan jendaurrean bildu ginelarik, inori deus ere galdetu gabe, Javier San Martín errektoreordea hasi zen hitz egiten. Hau nafarra zen, Añorbekoa hain zuzen, eta Filosofiako katedratikoa izan arren, protokoloari ez zion batere kasurik egin, zeren aldamenean zegoen Patxi Goenagari, bertako ordezkari zenari, baitzegozkion lehen harrera hitzak eta agurra egitea. Patxik eta biok irribarre xume bana trukatu genuen elkarrekin.

Plaza Barriko jatetxe batetik ekarri zituzten aurkezpen ondorako edariak eta pintxoak, eta prentsarekin *(El País, El Correo, Egunkaria…)*, telebistarekin eta jendearekin solas interesgarriak izan genituen, baita eztabaidaren bat ere gure artean, gaztelania eta euskararen erabileraz. Ondoren, egunari zegokionez, afaltzera joan ginen egileen biltzar tipia, gehi Marga eta Joseba Gabilondo, zeina ez zen isildu afari guztian bere Ameriketako pasadizoak kontatzen. Liburu gisa hobe zitekeen arren, emaitza duina zela ondorioztatu zuten denek, eta lan handi baten ondorioa zela. Durangora, Euskal Telebistara ere joanarazi ninduten abuztuaren 28an, eta ETB2n, goizeko 09:40an, David Barberok *Forum* programan egin zidan elkarrizketa, eta esan behar dut aski kontentu atera nintzela handik.

José Monleón, *Primer Acto* antzerti-errebistako eta *Instituto Internacional del Teatro del Mediterráneo* Fundazioko zuzendariak gutun bat bidali zidan (*Gutunak* 25) liburua igorri izana eskertuz, eta *una de las muchas cosas que la historia nos ha hurtado…* zela esanez.

Uda Ikastaroak antolatzen jarraitu nuen eta horrela ekainaren 28tik aitzina Pontevedrako egoitza elkartuan *Castelao y su tiempo* izeneko ikastaroa antolatu genuen, *La Voz de Galicia*n (2000-VI-28) *el plato fuerte* bezala iragarria, bertan parte hartu genuelarik, besteak beste, Xosé Estévezek, *Castelao o País Vasco,* Koldo Izagirrek, *El humor de Castelao visto por un escritor vasco,* María Pilar García Negrok, *As mulleres em*

Castelao, eta neronek, *La correspondencia inédita de Castelao*. Hitzaldiak *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca* 2000-2001, vol. 7 aipatuan jasota daude.

Interesgarrienetarikoa, enetzat bederen, Xosérekin eta Koldorekin eginiko itzulerako bidaia izan zen, azken honen beribilez. Xosé, amaren ahoz *Pepiño*, *cicerone* aparta genuen, eta haren amaren Quirogako etxean gelditu ginen lotarako. Galiziako herri ttipiak, kaperatxoak, Santiagorako bidexkak, bidegurutzeak, toponimia, orotarik bazekien eta ongi ilustratu gintuen Xosék. Ilunabarrean, Donostiara iritsitakoan, *Urdinola*n afaldu genuen kontu kontari jarraituz.

Oporretan, uztailaren 22tik abuztuaren 3ra, Margarekin eta Patxirekin Berlinera egin genuen txango. Nire lehen aldia zen Alemaniako hiriburua bisitatzen nuela, eta oraingoz azkena, eta gordetako koaderno apunteak hona pasatzera noakizu.

BERLINGO BIDAIA

Uztailak 22.

Gaur larunbata da. Bidaiarako azken gauzak poltsan sartu ditugu eta ixterakoan, Marga eta biok, seguru izan arren ohi bezala zerbait ahanzten dugula, beste luzamendurik gabe bagoaz. Eskerrak maletak daramatzan gurpiltxoei arin-arin eta askorik nekatu gabe goazela. Anoetako geltokian igotzen gara Topora; Madalenetako Festek egindako giza-hondamenak oraindik ikusgai daude, hots, edari gehiegikeriak, kontrolik gabe edateak nola uzten duen gizona (edo andrea). Hendaiako geltokian, bikote atzerritar bat beren bizikletekin Euskal Herrian barrena ibili ondoren; ordu batzuk geroago, Pariseko kaleetan ikusi ditugu berriro *Gare du Nord,* Iparraldeko geltoki inguruan. Kontsignan maletak utzi ondoren, bagoaz hiri barnera eta *Place de Vosges* ezagunaren inguruan jaisten gara busetik. Jendez mukuru. Arkupetako dendak beti bezain fin, dotore, eta garesti. Azkenean, presaka itzulerako autobusera igotzen gara, eta han ogitarteko eta zerbeza batekin sabela engainatu ondoren, trenera. Treneko jantokia bisitatu dugu, eta afari-otordua egina dugunez, beste garagardo bana, eta ohera.

Uztailak 23.

Igandea. Goizeko zortzietan zoo-geltokian gaude, trenean bertan goizeko zazpietan gosaldu ondoren. Zortzi eta erdietan iritsi gara *Hôtel Elton*era, eta maletak bertan utzita, kalera berriro. Oso gizon atsegina iruditu zaigu holandar alderraia bezala bataiatu dugun Berlinen kokatu alokatzailea. Gosaria pentsioan bertan emango digu, gela pollit batean, eta gure geletako giltzak eman dizkigu. Gauden auzo honetan etxeak hiruzpalau solairukoak dira, kaleak erosoak, benetan espaloi zabalekin eta ia ez dabil beribilik. Benetan hiri baketsua dirudi.

Uztailak 24.

Astelehena. Museoak itxita daude eta, beraz, *Zoon 100*-a hartu eta ekialderantz goaz. Auzo honetan jira-bira batzuk eman ondoren, behiak hormetan zintzilik eta tximiniak ikusiz gazteek kudeatzen duten jatetxe bateko terrazan bazkaltzen dugu patxada ederrean.

Walter de Gruyter Berlin-New York argitaletxea azkenean aurkitu dut, *Genthiner Strase, 13an*, eta G. Glink-ekin hitz egin ondoren Martin Löpelmann-en *Etymologisches Wörterbuch der Baskischen Sprache* delakoaz mintzatu natzaio. Otsailaren 18an jadanik nola gutun bat bidali nion eta bertan nola aipatu liburuaren azken zatia itzultzeko eta argitaratzeko baimena eskatu nion. Zehaztapen gehiago nahi zituela erantzun zidan, eta adio.

Egun osoan batera eta bestera ibili ondoren, afaltzera goaz eta gu Donostian ohiturik baikaude *Recalde*ko xukrutak eta entsaladak jaten, hemengoa aski eskasa iruditu zaigu. Konpentsazioz, *Literatur Haus*era sartu gara eta han ardo txuri lehor bana edan dugu.

Uztailak 25.

Santiyo eguna. Asteartea. *Santiago matamoros, mataindios, matarojos*, Espainiako patroia. Pergamoko aldarea, Babiloniako ateak… Museoen uhartean. Hau da hau banan bana adreilu guztiak zenbatu eta hona erakarriz egin zuten lan ikaragarria. Baina, benetan herri baten ondarea desegiteko edo husteko eskubiderik ba al dago? Ondare unibertsala bilakatzen dela ere honela, egia da, baina batik bat alemanena. Han, bere sorterrian gelditu izan balira, orain dastatu ahal izango ote genituzke?

Dudak eta zalantzak baditut. Erlijioen gerren ondorioz ez ote lirateke jadanik suntsituak.

Uztailak 26.

Museo Etnologikoa. Munduko Kultura ezberdinen altxorra. Amerikakoak, Afrikakoak, Asiakoak… Zenbat maisulan eta arte-obra eder! Gizonaren irudimena benetan neurrigabea, ezberdina eta koloretsua da. Afaria Ekialdean, *Bakanalia* ostatuan; Txileko ardo bat, *Errazuri* izena duena eta Aconcaguako haranean ondua, dastatu dugu. Ekialdean kokatu da gaur egun Berlin alternatiboa. Tabernak eta ostatuak. Gazteak mukuru kaleetan, fabrika obsoletoak berreraikiz eta kultur-bizitza odol berriz piztuz. Hirurehun bat antzoki ere bada Berlin hirian. Benetan aukera handia, baina hizkuntza jakitea derrigorrezkoa ia…

Uztailak 27.

Osteguna. Egiptoko Museoan bitrina batean Nefertitiren buru miresgarria. Txunditurik uzten dute bere modernotasunak eta koloreek, nola mantendu ahal izan den mendeetan zehar hain era perfektuan. Papiroak. Estelak eta beste. Arte Modernoa gordetzen duen museoan ere izan gara. Picasso, Chiriko, Henri Matisse, espresionismo alemana deitu izan den aleman artisten obrak dastatzen. Afaria turkiar auzoan, baina austriar batzuen esku dena. Lehen eta bigarren plateraren artean ordu bat gutxienez igaro da. Hemen beste erritmo batez egiten dira gauzak, noski! Balirudike ekialde urrunean gabiltzala… Ez dago presarik deusetarako. Patxi eta Marga oso sukaldari onak direnez, komentatu dute ez legokeela batere gaizki hemen euskal jatetxe bat eraikitzea eta kudeatzea. Negozioa litzatekeela. Baina txantxetan besterik ez dira ari…

Uztailak 28.

Gaur, gosaldu ondoren, Berlingo Estatu Liburutegira joan naiz eta ia egun osoa igaro dut bertan katalogoak eta liburuak begiratuz, arakatuz eta ikertuz. Lehenik Wilhelm von Humboldtena ikustera joan naiz, baina hemen zenbait datu ikusi ondoren, aldamenean dagoen zentralean sartu naiz, nabarmena delarik hau dela nagusia. Bi libururen aztarnak ikusi nahi ditut bereziki hemen. *Refranes y Sentencias…* 1596koa eta Eguiateguyk Frankfurten argitaratu omen zuena. Dena den Txomin

Peillenek plazaratutakoa eskuizkribu batetik kopiatua da. Ez baten, ez besteren arrastorik ere ez da ageri. Darmstadt-eko liburutegiaren zuzenbidea jaso dut. XVI. mendeko liburutan txit aberatsa omen. Orain, Duway liburu-dendaren aurrean garagardoa edanez, idazten ari naiz, eta laster *Antiquariat* edo liburu zaharrak omen dituen harengana joango naiz. Betiko amets lelo zoroarekin, ea gauza bitxiren bat topatzen dudan…

Uztailak 29.

Larunbata. Kaleetan merkatuak. Egunez museoak bisitatzen, berriz. Troia, Picasso, Matisse, Klee… Afari garaia iritsitakoan, txinatar jatetxe batetik ihes egin ondoren, etxe inguruan afaltzen dugu ongixko. Zerbitzarisak, iparraldekoek esango luketenez, gaztelaniaz aski ongi daki. Erabakia dugu eguerditan plater batekin aski dela eta eguneko otordu ona afaria izatea. Euri zaparrada galanta bota du eta etxera txoil bustita iristen gara, errotatxori bustiek teilatupea bilatzen duten antzera.

Uztailak 30.

Igandea. Hilabetea bukatzear. Oporretako bi aste pasata eta itsaso bazterrean bainurik hartu gabe gorputzaldi onean sentitzen naiz. Ezker belarriko burrunda tikia da eta ez dit molestia handirik eragiten, jasangarriak dira ditudan ajeak. Arte Modernoari eskaini museoan ere egon gara, eta gaur egungo artista zenbaiten koadroak adar-jotze ariketak iruditzen zaizkit. Zernahi gauza, objektu, tresnari besterik gabe baliagarri deritzote. Paper zahar batzuk ohol zakar bati pegatsiak, edozein kalendario zaharreko edo koadernotako zirriborro eta orritxoak, harri-kozkor batzuk,… Arte-hizkera berriak ez ditudala konprenitzen ala agortuak daudela, dagoeneko dena asmatuta dagoela esan nahi ote du? Eta egia esan behar badut, sentitzen dudana da interes handiagoa duela niretzat Museoko leihotik gabarratzar bat ikatzez beterik aldameneko kanalean zehar nola igarotzen den ikusteak.

Zerbeza bat edaten dugu gaztetxe bilakatu garagardo fabrika zahar batean. Errenteriako Niessenen bailitzan. Ekialdeko beste auzo batean sartu gara. Hau tabernaz beteta dago. Dena makina-erramintez ornaturiko batean eseri gara mahai inguruan, eta zerbait eskatu eta ekarri bitartean, honako hau idazten ari naiz. Oso tranbia eta beribil gutxi

pasatzen da hemendik eta inguru aski baketsua da. Tabernariak besoak guztiz tatuajez beteak ditu, eta neskamea dena da eraztun. Sudurrean, ezpainean, belarrietan, zilborrean…

El País erosi dut eta konturatu naiz orain ere *mutikoek* egin dutela berea. Beste hilketa eta astakeria. Tolosako Beotibar tabernan Jaime Otamendi kazetariarekin hitz egiten zegoen Legorretako semea, Juan Mari Jauregi, gobernadore zibil ohia hil dute atzo. Ostiral goizeko hamaika eta erdietan, jendaurrean. Beste krimen eta hanka-sartze ikaragarria. Kalte besterik ez dakarkeena bai familiei, bai eragileei, bai eta Euskal Herri osoari. Eta nor izango da gauza hauek gero konpontzeko gai?

Uztailak 31.

Astelehena. Potsdamerako trena hartu dugu, S7, eta ordu erdi batean bertan gaude. Gaztelu eta jauregi ezberdinak bisitatu ditugu. XVIII. mendean eraikitako jauregiok eta batez ere oihan eder hau benetan ikusgarriak dira. Hemendik ibiliko zen, agian, Belako zuberotar zalduna, *Le Chevalier de Bela* deitua, bere Batailoi Kantabroarekin. Hemen bilduko zituen hiztegi ezberdinetako hitz zerrendak ere, oraindik osorik argitaratu gabeak eta Pariseko Nazionalean dautzanak. Ostaturatutakoan, holandar alderraiaren jatetxean bazkaldu dugu harenka keztatua, baina hoberena, noski, zerbeza da hemen.

Potsdametik Spandaura autobusez ordu bat. Spandauko Zitadelan egon gara arratsaldean, bertan ikusi dugularik soldadu multzo ederra afari-merienda antzekoa eginez giro baketsuan. Ez da entzuten armen oihartzunik inondik, eraikin honetan museoak eta pintura-areto dotoreak besterik ez baitago.

Ignazio Loiolakoaren eguna da gaur. Afarian ospatu beharko dugu, ezta? Ikusiko dugu. Hemengo etxeak txukunak eta ederrak dira. Geltoki batean exekutibo planta daukan gizon bat jaitsi da eta han aldamenean aparkaturik daukan bizikletara igo eta badoa, abiatu da etxerantz. Badira, antza, lanera joateko bizikleta, autobusa eta metroa hartu beharrean direnak.

Pasternak jatetxe errusiarrean afaltzen dugu kandela baten inguruan hirurok. Marga, Patxi eta neroni. Vodka kopatxoa ere ez da faltatu. Boris Pasternaken *Doctor Zhivago* filma (1965) Omar Sharif, Julie Christie,

Geraldine Chaplin, Rod Steiger, Alec Guiness… aktore miresgarriekin ikusi genuelarik, ez genuen irakurria nobela, eta hau etxeko afari prestaketa-garaietan irakurri diodalarik Margari, Donostiako Nazioarteko Zinema Festibalak okasiorako espresuki argitaratu edizioan, oraindik areago gustatu zait amodio ixtorioa, estalinismoari egindako kritika, fina, zorrotza eta sakona baita.

Abuztuak 1.

Berlingo azken eguna. Agurtu dugu Elton ostatuko nagusi eta zerbitzari adeitsua. Egiptoko erakusketa ikusi dugu. Berlin, New York, Louvre, British eta kolekzio partikularretako joia eder, hautatuekin osaturikoa. *Einstein* kafetegian atsedenalditxoa. Jardinean hiruzpalau sagarrondo eta zenbait mahai denbora lasai igarotzeko. Sinagoga desegina ere egon gara bisitatzen. Gudari sobietarrei eskaini monumentu jiganteak ere ikusi ditugu. Espainol hirukote bat argazkiak eten gabe botatzen. Gorriak ote?

Adio, Berlin. Gaueko bederatzi eta erdiak. Pariseko bidean goaz eta daukadan inpresioa da hiri higitu, iraultza handia pairatzen ari dena dela. Gustatu zait ez delako erabat bukatua, oraindik egiteke inpresioa ematen duelako, eta jendea ez delako haserretzen inoiz. Hiri irekia, gaztea, lasaia, patxadatsua, baketsua. Isiltasuna nagusitzen den hiria.

Abuztuak 3.

Etxerako bidean. Paris-Hendaia. Jendez mukuru trena. *El País, Libération* eta *Le Monde*ri errepasoa emanez berehala iritsi gara, konturatzerako etxean baikara, oroitzapenean betirako txertaturik gelditu direlarik Berlingo ibilbideak, joan-etorriak, murru ezkutatua, museoak, plazak, jendearen adeitasuna.

Urriak 15.

Margaren Venezuelako senitarte urrunekin. Leon mediku beltxaranarekin eta bere emazte Itziarrekin Txillida Museoa bisitatzera Zabalagara. Larunbata da eta ez dabil jenderik ia. Belardiko burdinazko monumentu aurretik igaro eta bagoaz Txillidaren obra nagusia ikustera: *Baserria*. Semeak argitzen dizkigu zein lanak egin zituen bertan arotz eta

harginekin espazio zabal eta eder hura lortzeko. Pariseko lehen obrak ere dastatzen ditugu, abstrakzio lanen aurretikakoak eta benetan gogoko ditut. Leon eta Itziar, euskal jatorrizkoa, oso bikote aditu eta atsegina da, eta goiz ederra elkarrekin pasatzen dugu, bazkaria Escolta Realeko *Oliyos* ostatuan apal eta goxo eginez.

Lekeition *Galeuzca*ko idazleak bildurik daude. Eta Joserrari eta Ramoni ea animatzen garen eta han zerbait egiten dugun, ETAk eginiko astakerien kontra agiriren bat-edo, hilketak salatuz, ekintza eta heriotza bortitz guztiak gaitzesten ditugula esanez, asmo hutsean gelditzen dira, ez baitidate erantzunik eman eta pauso hori emateko bakarrik ez bainaiz gai.

Urriak 18.

Madrid. Lan-orduak bulegoan eman ondoren, lankide batek zentrora inguratzen nau eta Quevedo plazan uzten nau. Bueltaxka bat eman eta *La Cruz de Malta* zerbezeriako terrazan eseri naiz, bakailao keztatuz ondu kanapea zerbezarekin konbinaturik. Luis Landeroren *El Mágico Aprendiz* eleberria irakurtzen ari naiz. Gogoki dastatzen dut bere gaztelania aberats, garbi eta ixtorioak modu kritiko ironikoan kontatzeko grazia eta ahalmena. Gero Euskal Txokora noa afaltzera. Garai batean beterik egoten zen, Jesús Calderónek sukaldari-lanak egiten zituenean, baina gaur bakar-bakarrik nago. Musika ere ez da batere erakargarria eta afariak hotz eta ezkor uzten nau.

Urriak 21.

Iritsi da berriro Irun Poesia sariak emateko eguna. Ohi bezala larunbatez, eta deliberamenduak Hondarribiko Karlos V Paradorean Bidasoari begira egin ondoren, oraingoan hamar poema-liburuen artean poeta gazteago baten hautaketa egin dugu. Urtzi Urrutikoetxearen *Utzidazu karmina kentzen* atera da garaile. Jon Kortazarrek *El País*en eginiko erreseinan honelaxe bukatuko zuen bere komentarioa: *Joera surrealistarekin batera Urrutikoetxeak egunerokotasuna eta egunerokotasun-hizkera, fonetismo eta guzti, erabiltzeko joera du, hurbiltasunaren kariaz. Niri erritmoa atsegin zait, agian, testuan zehar horrenbeste aipatzen duen musikaren fruitu.*

Azaroak 3.

Manresan *Jornada de reflexiò i debat sobre la festa* jardunaldia ospatzen dugu eta nire emanaldiak titulu hau du: *La Festa a la cultura éuskara: ahir - avui.* Oso ezkor agertzen naiz eta festen historia labur bat egin ondoren, gaur egun esango ez nituzkeen hitzekin bukatzen nuen:

> *La Fiesta hoy en el País Vasco –quitando algunas excepciones en las que sirve de vínculo de unión comunitario y de defensa de la identidad cultural propia– sólo ilusiona a los jóvenes y a los más pequeños, o desata las pasiones menos fraternales y más discriminatorias e injustas como es el caso de los alardes iruneses y hondarribitarras.*

Koadernotxoan honako oharrak. Sant Domènec, Santo Domingoren plazan Arango haraneko zenbait kantari entseatzen entzuten ditut infernuko hauspoaren laguntzaz. Orain bertan oholtzan ke-hodei bat ari dira sortzen garbiketa erritual baten antzera. Mallorcako buruhandiak. Zamalzain beltz eta zuriak. Aragoiko artzainen dantzak. Neska airean eduki ondoren artzaina nekatu eta ipurdiko galanta neskarena. *Esbart Marboleny, Retaule de la Passió, Glossa de la Moixiganga de Lleida*, dira behatzen ditugun ikuskizun batzuk. *Kristoren Pasioa*, Erdi Aroko jantziz beztiturik diren hogeita hamarren bat emakume eta gizonek antzezten dute. Ez dago elkarrizketarik, irudia eta musika soilik. Pobre xamarra deritzot. Oso interesgarria, aldiz, *Les llegades del cavaller d'Espinzella*. Gizon bakarra bizikleta baten gainean zaldi bat irudikatuz. Armaduraz jantzia eta Espinzellako zaldunaren abenturak kontatzen. Herensugearena eta beste. Haurrak begiak zabal-zabalik daude lurrean eserita eta noizbehinka parte hartzen dute beren oihu eta algarekin. Francesc eta Pauren konpainia benetan interesgarrian pasatzen dut eguna. Eta gauaren parte bat ere bai, zeren aspaldiko partez goizeko hirurak arte eman dugu dantzan. Ariketa honetarako kilo eta urte batzuk soberan, ordea.

Azaroak 5.

Hegazkina Hondarribiko aireportuan gaueko hamarrak laurden gutxitan lurra hartzekoa zen, baina haize bortitz zakarra dabilela dela-eta, ezin izan du, eta Noaingo aireportura eraman gaituzte. Beldurrak eragindako isiltasuna nabarmentzen da barrenean. Iruñea ondoko airepor-

tuan jaitsi eta itxaroten ari den autobusera igo gara, gaueko hamabi eta erdietan Amara-Plaza hotelaren ondoan utzi gaituelarik pasaiari batzuk.

Azaroak 7.

Fakultateko jan-lekuan bazkaltzen dut. Nire bandejarekin banoa non eseri bilatuz eta hantxe ikusten ditut Antonio Dominguez Rey, Ana Jimena eta Conde delako ahobero harroputz bat. Honek esaten du, *el euskera no lo saben ni los propios salvajes.* Ana Jimenak, *nunca he oído hablar el gallego.* Hitzok entzuteaz nazkatuta, duintasunez bandeja hartu eta altxa egin naiz beste mahai baten bila. Barkamen eske etorri zaizkit berehala eta beren mahaira itzultzeko eskatu didate. Hauek entzun beharrak!

Azaroak 10.

Juan Luis Zabala kazetari eta eleberrigileak *Egunkaria*ko gaurko kronikan dioenez: UNEDeko Bergarako Ikastetxe Elkartuak antolaturik –Eusko Ikaskuntzaren eta Espainiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioko Kultura Idazkaritzaren babesarekin, eta Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen eta Euskal Idazleen Elkartearen lankidetzaz–, *Euskara, Galego, Katalan eta Gaztelaniazko Narraziogintzaz Jardunaldiak* egingo dira datorren astean, hilaren 15ean eta 16an, Donostiako Miramar jauregian. Lau hizkuntza horietako literaturaren ordezkari gisa, egile eta kritikari bana izango da jardunaldietan.

Eta parte hartzaileak honakoak izango dira: Xosé Dobarro (Literatura galegoaren egungo egoeraz), Carlos Casares (nobelistaren ikuspuntua), Francisco Gutiérrez Carbajo (Literatura espainolaren egungo egoeraz), Luis Landero (nobelista), Joaquim Molas (Literatura katalanaren egungo egoeraz), Baltasar Porcel (nobelista), Mari Jose Olaziregi (Euskal Literaturaren egungo egoeraz), Anjel Lertxundi (nobelista).

Mahai-inguruak ere izan ditugu kritikari eta narratzaileen artean, niri suertatu zaidalarik aurkezle- eta moderatzaile-lanak egitea. Azpimarra dezadan eskertzekoa izan dela Landeroren parte hartzea, zeren eta aipatuko ez dudan nobelista espainol bat baino gehiagok ezezkoa eman baitzuen. Dena den, hantxe zegoen Baltasar bizkartzain eta guzti.

AURIGA. *Los retos actuales del mundo latinoamericano.* Antoniori programa antolatzen eta subentzioak eskatzen lagundu baitiot, hementxe nago Coruñan. Hizlarien artean, La Habanako bikario jenerala, Carlos Manuel de Céspedes, alegia, apezpikua eta *La Voz de Galicia*k jaso zuenez (2000-XI-21), eliza katolikoak Castrorekin dituen harremanak onak dira. Begoña de Luis Fernández astrofisikaria Unibertsoaren Historiaz mintzatu zaigu eta Ortzia idazleek nola ikusten duten: José Martík, Severo Sarduyk, Emilio Cardenalek, Reinaldo Arenasek… Humberto López Moralesek Miamin dituen negozioez eta espainolak daukan indarraz mintzatu zaigu. Antonio Regalado, New Yorkeko Unibertsitateko irakaslea, Santiagoko bideaz mintzatu zaigu metafora bat bailitzan…

Filologia Fakultateko Paraninfoan hitz egitea suertatzen zait itsasoari begira. Balirudike itsasoan barrena goazela. Ohi bezala, agur kanta batekin hasten naiz eta pasatzen ikusten dudan transatlantiko bati oparitu poemaz. Liburuxka batean moldaturik daukadan une horretako balada dakart hona:

Riazor ostatuko

Leihotik nagozu so,
Bistaurrean urruneraino dager itsaso.
Herkulesen dorrea
Tente ekialdean,
Paseiari bakartiak dabiltz euripean.
Emakume zaharra,
Atzetik doa zakurra,
Eta ni aterkipean jantzita zamarra.
Mendebaleko haizeak
Astintzen tu parajeak,
Eta kresalaz jantzi dira saudadeak.
Tabernan olagarroz
Ribeiro eta orujoz,
Bakartiari saudadea uxatuko.
Merkanteak badoaz

Hamaika mota kargaz,
Galipota baino zama pozointsuagoaz.
Harkaitz erraldoietan,
Haizek zizelduetan,
Heriok edirengo ditu kostaldean.

Azaroak 25.

Nire altzatar adiskide Joan Mari Irigoienek Urepel jatetxera gonbidatu nau *Lur bat haratago* (Elkar) eleberria argitaratu duela-eta. Hantxe gaude taldetxoa. Joxe Azurmendi, bera eta Imanol bere anaia zaharragoa, hau ere poeta handia, beste zenbaiten artean. Kritiko guztiak ez datoz bat kontrazalak dioen arnas luzeko nobela mardul hau baloratzean. Ixtorioa XVII. mendean kokatzea eta Axularren hizkera imitatzen saiatzeak, horretarako urtetan hamalau orduz egunero lan egin beharrak, badauka bere arriskua, eta ahalegina ez zen agian iritsi maisulana izatera, baten batek zioen bezala, pastitxe bat gertatzeko arriskua zeukan. Axularren hiztegia errepika daiteke gaur egungo nobela modernoan, baina aditza? Ez al dago arriskua egungo irakurleak perpausak luzetsi ditzan, gaia interesgarria izan arren?

Gaur eztabaida izan dut Josean Ormazabal Eusko Ikaskuntzako idazkariarekin ASJUri buruz, eta esan dit Velez de Mendizabal gerenteak erabaki duela tesirik ez dela bertan argitaratuko. Eta esan diodanean plazaratu izan direla, eta Blanca Urgellen tesia argitaratzen ari garela, adibidez, ez dit deus ere erantzun. Madrilen argitaratu behar ote dira Euskal Literaturaz egiten diren tesirik hoberenak?

SERTA 4 aldizkarirako Xabier Lete, Bitoriano Gandiaga eta Patxi Ezkiagaren zenbait poema hautatzen ditut, eta beraien itzulpenekin ematen. Ez dut uste batere mostra eskasa denik eta irakurleak gustuz dasta ditzakeenak direlakoan nago. Hala espero dut, bederen.

Azaroak 28.

Gaur Moncloa aldean Merleau Pontyrengan eta Estetikan aditua den Carmen López Sáenz lankidearekin hitz egiten aritu naiz. Nahiko meritu badu, oposizio libre batean etxeko faboritoaren gainetik garaile

ateratzeko gai izan delako. Unibertsitateaz mintzatzen gara, San Martín katedratikoaz, *turbo-profesor* gisa definitu du. Hona eta hara dabilela, errektoreorde-karguak ematen dizkion aukera guztiez baliatuz. Kontatu dit nola bera Logroñokoa den eta bere hamar urteko semetxoa pilotan ikasten ari den, eta nola igandeko mezatan epistola irakurtzen duen. Oso emakume atsegina, zuzena eta azkarra iruditu zait. Eguna Unn-en tabernan bukatzen dut berarekin, Bakus omenduz.

Abenduak 14.

Bartzelona. Literatura Topaketak. Jesus Prieto errektoreordeak ireki ditu jardunaldiok, eta Konstituzioaren hirugarren artikulua aipatzen du, sinesten du dioen horretan, *el todo debe sentirse integrado en las partes,* baina orain arte ez da behar bezala bete Konstituzioaren artikulu horrek dioena, alegia katalan, galego eta euskal kulturak landu eta lagundu behar dituela… Basilio Losada itzultzaile eta irakaslea burgesiaz eta oraingo literaturaz mintzo da. Manolo Rivasek aurkezten du eta honek bere grazia bereziaz heltzen dio bere nobelagintzaren aurkezpenari. Joan Riberak ohiko moduan, hitzak bi aldiz errepikatuz, Carme Rieraren presentazioa egiten du, eta honi oso denbora gutxi gelditzen zaio, eta hiru ideia xinple, baina zuzen eta ongi esanak adierazten ditu. Halaber, Maria Jose Olaziregik eta Anjel Lertxundik aski modu finean, estilo bikain batean azaltzen dituzte beren kezkak. Ignacio Aldecoaren alarguna den Maria Josefa Aldekoa (Hernández Sánchez) da gaztelaniazko idazle gonbidatua. Portu aldean dagoen *7 portes*en afaltzen dugu denok elkarrekin, nork bere esperientzia literarioak aldamenekoari kontatuz.


Abenduak 27.

Lezon nago eta basoerdi bat edatera jaitsi naiz *Aizpea* tabernara. Bertan Xabier Oiartzabal topatu dut. Maiz jokatu izan dugu elkarrekin palaz eta aspaldiko ezagunak gara. Euskarak sufritzen duen erasoaz mintzo zait. PP eta PSOEren jokaera justifikaezinaz. Ni isilik. Esaten zuenari beren iritzia eransten zioten ildo beretik Mikel Arrizabalagak eta Makusok…; azkenean hau atera zait barren-barrendik: *Nik dakidala ez PPk ez eta PSOEk ez dute Ernest Lluch hil*. Erabat isildu dira. Bakoitza bere etxerantz abiatu da bazkaltzera. Oraindik oroitzen naiz Donostian Musika Hamabostaldian, Ramon Etxezarretak presentatuta,

Lluchekin izandako elkarrizketaz. Bere bizitzako zertzeladak kontatu zizkigun. Jose Antonio Agirre eta bere aita adiskideak zirela. Donostiarekiko zuen atxikimendua. EAJk eta PSOEk elkar hartzeko duten beharra. Zer esango ote du orain Arnaldok? Lau ordu luze pasatu omen zuten elkarrekin hizketan…

Abenduak 31.

Urte Zahar gaua Marikrutxenean. Margak eta biok nork bere familiarekin iraganen dugu urtearen azken afaria. Hamabiak direnean ateratzen gara plazara ematen duen balkoira eta hantxe entzuten ditugu Pasaiako Portuko ontzi guztien tutuak, buuuu, Urte Berria ospatzen. Auzoko Pontxio Amianok eskopeta hartu eta tiro batzuk egiten ditu airera, tradizioari jarraiki. Mukizu batzuk ere hasten dira petardoka, supanpa zarataz gaua asaldatzen.



Irudia 62: Jean Espil (Mendi 1701-1786), errejentak moldatu Jean Racine-ren **Esther** (1689). Baionako Euskal Museoko Biblioteka. Campan-Latsague MS. 3.

2001

Urtarrilak 1.

DONOSTIAKO kaian Marga, bere lehengusina Karmen Arangurenekin *La Redoute*ko erosketa-liburua errepasatuz. Ni itsasontziei begira. Hego haizea dabil. Belarien kalaka entzuten da eta ontziak oro kulunkatzen ari dira erresakarekin batera. Zerua goibel ageri da mendebaldetik eta argi ekialdetik. XXI. mendean sartuak gara.

PARISEKO BIDAIA

Urtarrilak 2.

Ohi bezala, Hendaian igo gara Parisera doan trenera eta arratsaldeko hiruretan iritsi gara. Balisak *Hôtel de Carmes*en utzi ondoren, bagoaz kalera ea fundamentuzko zerbait jaten dugun. Euri xingarra, zirimiri petrala ari du, konturatzen zarenerako erabat bustita uzten zaituen horietakoa, baina *Bouillon Racine*n eseri garenean, halako konpainiarekin dena aldatu bide da.

Urtarrilak 3.

Marga, oso gutxitan gertatzen zaion arren, gaixorik sentitzen da eta, onera egiten ez badu, etxera itzuliko dela dio. Pena litzateke benetan, ez baitut horrelako konpainiarik inoiz izan eta eguraldia, gainera, gaur ona dugu benetan. *Musée Dupper*-en egon gara Afrikako herrialdeetako artea ikusten. Benetan miresgarriak dira, magikoak, Nigeria eta Kongo aldean sorturiko ederlanak batik bat. Afari garairako badirudi gorputzaldia hobetu zaiola, eta bagoaz *La Mosquée* jatetxera. Hango formula orientalak 300 liberatan hammama, masajea eta guzti aurreikusten du. Ardi-kuskus plater on batekin tea edanez konformatzen gara. Mahaiek, ispiluek, arkuek eta kobrezko kikarek eta bandejek apaintzen dute lekua.

Urtarrilak 4.

Goizean goiz Liburutegi Nazionalera joan naiz eta bi eguneko pasea eman didate deus ordaindu gabe, joan den urtekoa oraindik baliaga-

rri baitut. Harreragileak benetan oso modu atseginean errezibitu nau. Anton eta Arnauld Abbadia anaien arteko gutunak eta berauen eskuizkribuak ditut kontsultatzeko. Banka kontuak El Kairon, Massawan, Jeddah-en. Domingo morroiari bidalitako gutuna euskaraz. Hau bai aurkikuntza bitxia. Afaria *Au Coude Fou*-n, Zoro kolpean eta ardo beltz on bat edaten dut. Margak, ordea, infusio batekin aski du, oraindik ez baitzaizkio konpondu erabat barrenak…

Urtarrilak 5.

Gaur ere Liburutegi Nazionalera itzuli naiz, eta atzo Anton Abbadiaren paperak eta paperak ikusmiratzen izan nintzenez –bizitza osoa beharko nuke eta ez litzateke aski izango bere epistolario osoa irakurtzeko–, *Rôles Gascons* originalak behatzen hasten naiz. Utzi dizkidatenak 1250ean hasten dira, baina niri interesatzen zaidana 1227koa da,… *sub lingua vasconica scripta fuit… inter rotulos cancellarie remansit…,* delakoak aipatzen duena, beraz, zerbait aurkitzekotan, seguruenez, Londresko *Record Office*n miatu beharko.

Irtendakoan, egoitza berean *Arch Etiopienne* arte etiopiarraz dagoen erakusketa ikusi dut eta katalogoa dendan erosi. Kontzertua gauean eta afaria benetan ona. Saint Louis uhartean dagoen *Ulyses* liburu-dendan munduan zehar dabiltzan itsaskargoei buruzko liburua erosi dugu. Bertako saltzailea den emakume atsegina Hendaiaz mintzo zaigu, eta urte batzuk geroago hondartzara ematen duen Kasinoan udaldean beste liburu-denda bat irekiko du.

Urtarrilak 6.

Errege eguna Espainian. Meltxor, Gaspar eta Baltasar. Errenteriako Arzelustarrak. Frantzia errepublikanoan, noski, egun arrunta da, eta bukatu zaigu oharkabean astea. Pariseko egonaldi guztiak bezalaxe, hau ere ikusi-ezikusi gertatu zait, santiamen batean joan zait. Eta buelta berriro etxera Madrileko lanarekin jarraitzera.

Urtarrilak 7.

TGVn Parisen erositako liburuak irakurtzen itzulerako bidaian.

Urtarrilak 9.

Madrilen berriro. Fakultatean ohiko agurrak. Arratsaldean Abbadia tabernan. Ardo beltza. *Solaguen 1997*a. Atun xerra batzuk, oliokiak eta artikuluren bat edo beste noizbehinka txiriboginsa ederrei begiradatxoren bat jaurtikiz.

Urtarrilak 10.

Marta Cárdenasekin El Pradon.

Urtarrilak 16.

Jenaro Costasekin zerbeza bat edaten eta berriketan. Nola dagoen Merce, bere emaztea, galdetu diot. Gero Unn-en tabernan Tabucchiren artikulu bat irakurtzen hasi naiz. Bere aitaz mintzo da eta esaten du aitak ahotsa galdu zuenean arbeltxo batean idatziz komunikatzen zela.

Urtarrilak 27.

Enkarni Genuari eman diogu, hamaika lanen artean, Donostia antzerki-saria, *Ostiralero afaria* obragatik. Egia da emakume hori ez zaidala sobera gustatu inoiz bere txotxongilo famatuekin. Batez ere darabilen euskararen eskasa kontuan hartuta. Nola demontre ikasiko dute haurrek ongi hizkuntza bat ereduak kaxkarrak direnean? Eta kasu honetan nola hoberenetsi dugu obra? Norbaitek zuzenduko zion, seguru. Eta asmo oneko obra delako, hau da, iritzi politiko ezberdinen arteko bizi beharra eta nahitaezko errespetuaz mintzo baita. Bazkaria amaitzerakoan Kursaalen Kutxako exekutibo nagusiekin, eta Alkainen solas are aldrebesagoaren ondoren, Ontzi Belaria eman digute José Monleóni eta niri Antzerki Sarietan urteetako epaimahaikide lana eskertuz.

Otsailak 2.

Goizeko bederatziak dira eta Zurriolako hondartzan nabil itsasoaren ederra kontenplatzen. Kaiokume zauritu batekin topo egin dut. Ez da mugitzen, baina bizirik mantentzen da oraindik. Uhinen zilar tantak, zaldi xuri zima zilarrezkoek hondartzaren bizkar urreztatua igurzten dute eta apar tantak polliki-polliki eguratsean desagertzen bide dira.

Otsailak 4.

Igandea. Zaragozako geltokian, Calatayuderako bidean, azterketak hiri horretan egitea suertatu baitzait. *Gambrinus* janlekuan, beste tren bat itxaroten dudan bitartean. Janaria eskasa eta presaka atera didate, bidali nahi banindute bezala. Leku atsegin bat zitekeena, batere gusturik gabe dago, testu ingurunetik ihesi egin ezinik.

Otsailak 7.

Neska batek, azterketa egiten ari delarik, mahai gainean bere aitaren erretratua ezarri du, animoa eta laguntza psikologikoa edo eskatuz. Lagunduko ote dio? Goizeko sei eta erdiaz geroztik gelditu gabe, eguna buruko min izugarriz amaitzen dut, eta migraina hau ez zait joan bi aspirina eta botila bat ur edan arte.

Otsailak 8.

Jesuiten ikastetxe izandako honetan eguzkiak latz astintzen du, eta negu gorrian egon arren, pertsianarik ez denez, leihoak paperezko oihalez tapatu beharrean aurkitu gara ikasleek azterketa garaian enbarazurik gabe lan egin ahal dezaten. Garai bateko zurezko pupitre zaharrak hobeak ziren oraingo ohol merke hauekin konparatuta. Kalean banoalarik bi emakumeren solasa entzuten dut eta bat denbora guztian *digoka* doa. *Tu marido, digo…, ya sabes, digo…, digo…*

Otsailak 9.

Azterketak gaur bukatzen ditut eta Graciánen egoitza izan zena uzten dut. Ayuben gaztelua, mairu eta juduen auzoak eta garai batean Ayerbe markesarena izan zen *El Mesón de La Dolores*en egon naiz lotan. Aurora Egido irakasleak prestatu Graciánen *El Héroe* erosi dut, beraz badut irakurgairik itzulerako. Oin-ohar batean jesuitarentzat kalitatezko gizonak zein ziren ikastearekin batera, *bártulo* hitzaren etorkia zein den jakiten dut. Alegia, XV. mendeko Bártolo italiar, zehazkiago boloniar lege gizon famatuaren izenetik.

Martxoak 14/15.

Jesus Prieto UNEDeko errektoreordearekin eta Joaquín Summers Málagako egoitzako zuzendaritzarekin bat eginik, lau hizkuntzen jardunaldiak antolatzen ditugu. Gaztelaniatik Juan Cruz eta Juanjo Millás, katalan mundutik Juan Ribera eta Carme Riera, galegotik Suso de Toro eta Vilaverde, eta euskaldunetik Marijose Olaziregi eta Ramon Saizarbitoria. Beraz, lau kritiko eta lau sortzaile, gauzak sinpleki esateko. Beti bezala, Ramon fin, bikain eta dotore. Memoriaren plater hautsiaren konponketa dela eta… Hizkuntza txiki bat hautatzearen arriskuak… Joycek gaelikoa aukeratu izan balu ez litzatekeela izanen Joyce… Gauez *Hotel Trip*era itzuli aitzin, taxista batekin goaz eta, daraman musika goraipatu ondoren, Ramonek galdetzen dio ea gauez abentura asko izaten duen, eta taxistak erantzuten dio baietz, batzuetan senar jeloskorrek emaztearen pauso guztiak ordu luzeetan jarraitzeko eskatzen baitiote.

Eusko Ikaskuntzatik presaka eta korrika, inoiz egin behar ez dena, hitzaurre bat eskatzen didate [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 22-23)].

Apirilak 18/19.

Prietok ezagutu nahi ditu, antza, Espainiako eleberrigile hoberentsuak eta, honela, beste Jardunaldi batzuk antolatzen ditugu Coruñan, Pilar Ruiz-Va idazkari gisa daukala. *Encuentros de Narrativa castellana, catalana, gallega y vasca. La Voz de Galicia*k, *Cultura y TV* sailean, honela titulatzen zuen: *El autismo domina la narrativa vasca, gallega y catalana, según los expertos.* Eta Prietoren hitzak hartuz, UNEDek irizpide politiko eta ekonomikoen gainetik literatur aberastasuna zein handia den erakutsi nahi zuen. Joaquim Molas eta Baltasar Porcelek katalanarekiko Espainiako Gobernuaren gastua zein murritza den azpimarratzen dute. Nire hitzaldiaren titulua: *Evolución y retos de la narrativa en euskera,* eta gure narratiba berantiar eta nekez jaioari errepasoa eman ondoren, Arantxa Iturbe alegiarraz mintzo naiz. Honen goizeroko ahots eder, alai eta irribarretsua Euskadi irratian aditzea atsegina dela. Eta bere obraz eta estilo *cuasi-góticoa*z, Joseba Gabilondoren hitzak erabiltzeko. Ondoren, Arantxari eman diot hitza, eta hura mintzatzen ari delarik, aldamenean dagoen errektoreorde galego batek komentatzen du, *es que son los mejores…*

Gauean ostatu batera joan ginelarik, non mariskoz eta ardo txuriz blai goizeko ordu txikitan Coruñako jokalari berriak Lendoiro presidentearekin beren kontratuak sinatzen ari ziren, une magiko batez gozatzen dugu. Honakoa alegia, *Deus sentado nun sillón azul* eleberriaren eta beste askoren sortzaile den Carlos Casares eta Jesús Prieto beren motxiletatik Laika fotografia-makina zaharrak ateratzen hasi direnean. Benetan miresgarriak dira mende erdia baino gehiago daukaten lente eta aparatu hauek. Eta bien arteko afizio hori besarkada batean bukatu da bakoitzaren ixtorioa kontatu ondoren. Gauean itsasoaren hotsa entzutera balkoira atera naizelarik, hondartza ondoan ikusi ditut Pilar Ruiz-Va eta Baltasar Porcel elkarrekin paseatzen.

Maiatzak 6.

Gaur igandea da eta trena hartu dut Madrilen Valenciarako, Maite Etxenikek eta Josep Sirera irakasleek gonbidaturik, bihar hitzaldi pare bat eman behar baititut Filologiako anfiteatroan. Gaua *Rector Peset* izeneko Ikastetxe Nagusian ematen dut, katedraletik aski hurbil.

Maiatzak 7.

Goizean goiz, gosaldu ondoren, parte zaharretik jira bat. Basilikak, elizak, dorreak, kanpai-hotsak, eskaleak, plazak, usoak… Badirudi hiria aski berant esnatzen dela. Hamarretan, *Modelos lingüísticos y literarios vascos anteriores a 1968*, euskal literaturako hizkuntza-ereduen berri eta gorabeherez mintzo naiz, eta hamabietan, *Introducción al teatro vasco*, euskal teatroaren historiarako sarreratxo bat egin diet. Anfiteatroa beterik dago eta galde-erantzunen unea oso interesgarria eta animatua. Amaitutakoan, bazkaltzera goaz Maite eta Zuzenbideko irakasle den bere senarrarekin oso jatetxe herrikoi eta on batera. Bazkalondoan Valentziako ortuan daukaten bion etxea, eta patioko lore eta landareak erakusten dizkit. Benetan leku alai eta atsegina hautatu du bizitzeko, eta lorategi honetan atseden hartzeko aproposa.

Maiatzak 8.

Gaur Madrilen, jadanik Valentziatik itzuli ondoren, Universidad Complutense-k antolatu duen *Intercambios Lingüísticos y Literarios de Ámbito Románico* deitu ikastaroan arratsaldeko lauretan hitz egiten dut:

Multilinguismoa euskal antzertian. Eta, noski, Aita Donostiak harmonizatu Pierre Topet Etchahunen *Sed libera nos a malo sit nomen Domini,* estrofa eta ondorengoak kantatu ditut. Labur hitz egin dut. Manolo galegoak, beti bezala, politika-kontuak atera ditu mahai gainera. Entzuleek ia ez dute deusik galdetu eta elkarrizketa laburra izan da. Nagore irakaslea, Lezon txikitan ezagutua, Aragoiko hizkuntza-politikaz ere mintzatu da.

Maiatzak 9.

Ohi bezala, Sari Nazionaletako lehen kanporaketa jokatu da. Lortu dut Joserra Gartziaren saioa aurrera pasa dadin. Hantxe banatu diet epaimahaikoei ale bana eta *curriculuma* fotokopiatuta. Ez naiz, beraz, fidatu idazkaritzaren funtzionamenduaz, eta azkenean Javier Etxeberriaren laguntzatxo batez aurrera egin du nire proposamenak.

Maiatzak 10.

Gaur, Madriletik Donostiara zuzenean joan beharrean, Gasteizen gelditu naiz Unibertsitateko Bibliotekan kontsulta batzuk egitera. Han esan didatenez, ez dute urte osoan konpondu mikrofilmak papereratzeko makina. Hau bai dela fundamentua! Zer iker daiteke horrela? Edo inork ez ditu kontsultatzen dauden mikrofilmak? Dituzten mikrofilmen zerrendarik ere ez dute eta Pariseko Liburutegi Nazionalean dauden euskal eskuizkribuez Henrike Knörrek egindako opuskuluaren kopia ematen diet, jakin dezaten bederen zer duten. Gero, konpentsatzeko--edo, Zabala jatetxera noa bakar-bakarrik. *Viña Alberdi 1996*ko botilatxoa, alkatxofak eta txerri-hankak arabar odolkiz hornituak dastatuz une gozo bat igaro dut. Zein-nolakoak dauden barazkiak! Beti bezala bete egiten da jatetxea. Kalitate-segurtatuaren ondorioak…

Maiatzak 21.

Barbastro suertatu zaigu oraingoan azterketa-leku eta *Hotel Clemente*n hartu dut ostatu. Tribunaleko burua emakume bat da, Pedagogiako katedraduna eta artzapezpikuaren arreba. Beraz, Zuzenbide Kanonikoa irakasten duen katedraleko kalonjeak primeran tratatu gaitu. Lehenik, katedralaren erretaula konpontzen ari diren aldamioetatik pasaraziz eta eskulturak gertu-gertutik ikusiz eta ukituz.

Maiatzak 22.

Eguna libre dudanez, beribilez banoa Ainsa aldera. Bidean eskuinera, Torreciudad ikusten dut, José Maria Escrivá de Balaguer, Opusen sortzailearen omenez eraiki santutegia. Ez dut begiratu nahi ere adefesio hori. Ainsara iritsitakoan, *El Grado* eta *Mediano* urtegien ondotik iragandakoan herri behean uzten dut beribila, koaderno tipi bat eta *Pirineo Aragonés* deitu gida erosten ditut. Herri-kaskora harrizko kale batetik iristen naiz eta plazara ailegatzean ohartzen naiz hemen Diputazioak diru dexente inbertitu duela herria dotoretzen. *Museo de Oficios y Artes Tradicionales*en sartu-irten bat egiteko asmoz nago, baina ez dute zabaltzen ez astelehen ez astearteetan. Taberna pollit batean iragarki bat ikusten dut: Laspuña, 19 y 20 de Mayo de 2001. *Asociación de Nabateros de Sobrarbe.* XVII *Descenso de nabatas.* Beraz, hemen *nabata* deitzen diote Nafarroan *almadía* deituari, enborrez eta pertika luzez osaturiko ibai-ontziari. Bidean topatzen dudan kaperatxo erdi abandonatu bat bisitatzen dut. Txorien sinfonia etengabea dorrearen ingurutik txio-txioka jaisten da. Goizeko hamar eta erdiak dira eta eguzkiak latz jotzen du.

Maiatzak 25.

Kalonjeak benetan ederra den Alquézarko kalostra erakusten digu eta Aragoiko historia xehekiro kontatzen. Eric belgiar lapur ospetsuaren balentriak ere detaile handiz kontatu dizkigu. Nola egin zen herriko apaizaren adiskide eta hark iker zitzan, elizako giltzak uzten zizkion eta nola Roda de Isábenan erromaniko estiloan egindako *Silla de San Ramón* lapurtu zuen beste gauza anitzen artean. Nafarroan, Katalunian eta beste leku askotan ere eten gabe lapurtu zituen eliz-tresorak, geroago bere memorietan kontatu duen bezala: René Alphonse van den Berghe (Erik el belga), *Por amor al arte. Memorias del ladrón más famoso del mundo.* Planeta, 2012. Gauean, Escrivaren sortetxearen sotoan dagoen errestaurantean afaltzen dugu tribunalekoek zuzendaritzarekin, harmonia onean, arkumea Beroko ardoaz ongi bustita, Barbastro uzten dugularik oso aste ona igarotako inpresioz. Astiro-astiro ari gara Espainiako bazterrak ezagutzen.

Ekainak 6.

Marga desiratzen dagoenez, Bordele eta Tolosa (Okzitania) hirietatik txango bat egiteko animatzen gara eta bagoaz Landetan barrena go-

rantz. Bordeleko parte zaharretik itzuliño bat egin ondoren, portura ematen duen jatetxean sartu gara. Jazz musika zuzenean entzuten dugu ostrak eta arraina *Pouilly fuméez* lagunduta dastatzen ditugun bitartean. Ez zaio oso ongi barreneratu, baina bota duenean eta hustu, hobeto sentitzen da.

Ekainak 7.

Atzo gauez iritsi ginen Royango portu txikira. Gaur ia hutsik dago, baina badirudi gaur hamabost turistez mukuru izanen dela. Itsasontziak ordu erdi bat igaro du Graveko puntatik honaino. Gironde ibaiaren erdi-erdian ginenean ohartu naiz zein zabala den haren bokalea. Ostertz borobil-borobila ikusten da hemendik, zeren eta lurrak, Landetako hondartza luzeak eta ibaiaren bi aldeak oso lauak baitira, eta bista urruneraino iristen baita.

Ekainak 8.

Toulouse. Okzitaniako Tolosa. St. Sernin inguruko bistrot batean entsalada eta kafetto bat dastatzen. Bidean, Moissacen izan gara. Katedraleko atariko irudiak eta kalostrako kapitelenak benetan lan ederrak, ikusgarriak, miresgarriak dira, mendeen poderioz zertxobait hondatuak egon arren. Abraham biboteduna, magalean haur bat daukala. San Martin zalduna bere kapa ezpataz erdibitzen. Izei jigantea belardi erdian.

Liburu-denda batzuk bisitatu ditut eta bi liburu erosi. Jeanne d´Arc-en bizitza, *Bibliothèque bleu* delakoaren edizio xumea, eta Zuberoako Ospitale-piako elizaz txostentxo bat. Ibai ertzetik ibilaldi luze bat ematen dugu eta *La cantine du curé* tabernatxoan afaltzen gaude kalean. Karmeldarren auzoan gaude, aldamenean *Nôtre Dame de la Dalbade* eliza zaharra. Defentsarako dorrea lirudike. Enarak zeru urdinean txistu biziz beren hegats morez pintatzen.

Ekainak 9.

Larunbata. *Elisir d'amore* operako sarrerak erosten ditugu. *Les Jacobins*. Santo Domingok 1216an eraikia. Kalostra ikusgarria. Dorrea ederra. Bertan paseatzen ziren unibertsitarioak beren mamotreto eta bartuloekin. Altzifre batzuk beren lantza berde ilunaz zerua mehatxatuz edo zerurantz abiatu nahiz. Hemen datza Tomas Akinokoa. Gaur egun modernitatearen ikuskizun-gune bilakatu da.

Agustinoen Museoa ere bisitatzen dugu. Munduko kapitel erromanikoen bildumarik ederrenetarikoa ikus daiteke bertan, La Daurade, Saint Sernin eta katedralekoekin osatua. Kalostra ederra benetan eta gargolak begira daude soroan nola hazten diren porruak, alkatxofak, azaloreak… Orobat, Saint Sernin-en plazan dagoen *Musée des Antiques de Toulouse*n sartu gara eta erromatar erretratu multzo eta harri idatzien artean ikusten ditugu lehenetariko inskripzio akitaniarrak, non irakur daitezkeen hitzok: ANDERE, SENBE, BIHOTZ… lehen euskal hitzak.

Euskal Herriko herri txiki batean kokatzen den Gaetano Donizettiren *Amodioaren Edaria* operaz gozatu ondoren, *Les enfants ratés* jatetxera joaten gara. Frantses bistroten xarma eta ispilu irudi biderkatzaileen gune liluragarriak…

Uztailak 5.

Euskaltzaindian eta Eusko Ikaskuntzan lan batzuk buruturik, Kontxita amaginarrebarekin, Margarekin eta Melba neskame nikaraguarrarekin bazkaltzen dugu. Arratsaldeko hiru eta erdietan bagoaz muga igarota Auñamendietako autobide ertzetarik. Bidean, Pivoten memoriak irakurtzen dizkiot Marga gidariari, eta gaua Foixen igarotzen dugu, Gazteluaren gerizpean.

Uztailak 6.

Jaiki, gosaldu, merkatua bisitatu eta berriro bidean Pau Casalsek eta Pompeu Fabrak hautatu erbesteko hirira, Pradaraino iristen garelarik. Afaria *Le Patio*n. Mont-Segurretik igarotzean, kataroek eraiki jauregira igo gara. Bidea estua baina gehiena itzaltsua. Busti-bustiak dauden ezpel zuhaixkei ur tantak darizkiete. Jauregiko atetik hegoalderantz begira, Pirinioetako mendiak elurrez jantzita ageri zaizkigu. Jaitsi gara gailurretik, une batzuetan atzeraka, hain baita malkartsua eta pikoa gunea. Miresgarria herren baten ahalegina. Fedearen ahalmena! Mont-Louisen gazte batzuk igerian. Beherantz goazela tren horia ikusi dugu, eta Andorra-Perpignan bidean gaudenez, balirudike bertakoek ezagutzen dutela ongixko errepidea, eta nork nori aurrea hartu dabiltzala, pentsatu gabe Herio ezkutatzen dela bide bazterreko bihurguneetan.

Uztailak 7.

San Fermin eguna. Goizean Saint Martin du Canigouko abadiara igo gara eta bisitak ordu bat iraun du, lekaime bat gidari. Gero handik Bula d'Amunten dagoen Santa María de Serrabonako komentura. Haren kalostra eta kapitel ederrek liluratuta, Saint Michel de Cuxara goaz. Beraz, gaur hiru monasteriotako ixtorioak eta harriak ikusi eta dastatu ditugu, eta koadernoan ohar batzuk idatzi, hain ahanzkor den memoriak berehala ahantz ez ditzan.

Uztailak 8.

Gosaldu eta berehala Castelnau, *Gaztelu berri*, haur-ipuinetarik ateratako paraje ikusgarria bailitzan. Gero Céret-era eta han 1950ean eraiki Arte Modernoaren Museoa bisitatu dugu. Picasso, Braque, Gris, Soutine, Chagall, Herbin, Matisse, Masson, Krémègne, Miró, Tàpies, Viallat, Toni Grand, Bioulès… Kubismotik Pariseko Eskolara. Eta beste. Kalean, denak San Ferminetan baleude bezala festa ospatzen, lepoko zapi gorriak, txarangak zaratatsu eta edariak etengabe.

Bagoaz, bada, zaratatik ihesi Prats de Mollora. Hemen karlista espainolak errefuxiatu ohi ziren lehenik, eta gero gerra zibiletik ihesi zebiltzanak. Otsailean ospatzen dute *Hartzaren festa*, non hartzak berekin eraman zuen herriko neska gazte bat eta honen askatzearen ixtorioa irudikatzen den.

Uztailak 9.

Colliure-n gaude. Goizean goiz. Zortzi eta erdietan gosari osoa dastatu dugu. Zukua, kafesnea, kruasana eta ogia gurinarekin eta marmeladarekin. Bitartean, atso hiztun bat inguratu zaigu. Hamar minutuz bere bizitza osoa kontatu digu, hitz bat ere tartean sartzen utzi ez digularik. Gero bainu-jantziak eta toalla motxilan sartu, eta bagoaz urpeko klubarekin batera ontzian. Mediterraneoko lehen bainuak. Hala ere, ura aski hotz dago paraje honetan, baina ura benetan garbi-garbia dago. Gero, paseo eder bat emanez, Port-Vendresera, guk *Ostiral Portu* edo hobeto *Benusen Portua* deituko genukeenera. Iritsi gara, eta bertan antxoak, sardinak eta fanekak ardo txuriarekin mahairatzen ziguten bitartean, kruzero eder bat ikusi dugu. Hobeto esan, bistaurrean daukagu. Gogoa

sartu zaigu tamaina horretako batean Mediterraneoan barrena ibiltzekoa, uhartez uharte greziar eta erromatar zibilizazioen artelanen hondakinak miresten.

Uztailak 10.

Goizean patxadan gosaldutakoan, hondartzarako jantziak motxilan sartu eta bagoaz. Hiru bainu eta batetik bestera Onaindiaren memorien irakurketa. Ez Mariorenak baizik eta Albertorenak, Erroman Eusko Jaurlaritzaren ordezkari izan zenaren eta Inazio Mujikaren *Gerezi Denbora* eleberriaren iradokitzailearenak. Ura primerakoa. Siesta aurretik zertxobait irakurri eta arratsaldean bekatu bat, alegia, Antonio Machadoren kanposantuko hilobia ez dugu bisitatzen, ez eta irakurtzen ere azuleju zurietan idatzitako poema eder hau:

Y cuando llegue el día del último viaje,
Y esté al partir la nave que nunca ha de tornar
Me encontraréis a bordo ligero de equipaje,
Casi desnudo, como los hijos de la mar.

Gauden *Hôtel Les Templiers*eko jatetxean afaldu dugu, espaloian, kaleko mahaietarik batean. *Paella nera,* beltza, txipiroiak eta ali-oli, baratxuri, olioz eta ardo txuri on baten, solas ederren eta Margaren irribarre konparaezinaren konpainian.

Uztailak 11.

Penaz eta dolorez, baina itzultzeko garaia iritsi zaigu. XX. mendeko artisten kokaleku eta hainbeste pintura dituen hotel xume eta era berean atsegin hau utzi beharra. Dena den, udatiar gehiegi nabaritzen da dagoeneko eta bagoaz ihesi. Pirinioetan barrena polliki-polliki, eta Col d´Aspindik igarotzean gailurrak oraindik elurrez jantziak ikus daitezke. Arreaura iristen gara eta nahiko itxura ona duen eta jardin pollit bat daukan *Hôtel d'Angleterre*n hartzen dugu ostatu.

Uztailak 12.

Lorategian gosaltzen dugu eta hormak txuri eta balkoiak urdin dituen mendi arteko paradisu txiki hau uzten dugu. Bidean auto-stop egiten ari diren bi agure jaso ditugu eta herrixka bateraino eraman ditugu ber-

tatik mendi-ibilaldia has dezaten. Paristarrak dira eta Pirinioez gozatzen dabiltza. Tourmaleta igo dugu baina, ez beste askok bezala bizikletaz. Pic-du-Midiko Obserbatorioa ageri zaigu gorago. Kafea hartzen dugu eta tabernako hormetan zintzilik dauden hainbat argazki zahar ikusten: Federico Martín Bahamontes, Charly Gaul, Roger Rivière, Fausto Copi, Perico Delgado… Aubisqueko aldapak, Eaux-Bonnes eta *Nôtre Dame de Sarrance*. Zarrantzako Ama, Lapurdiko marinelek bisitatzen zutena; haren izenaz bataiatzen zituzten beren itsasontziak XVII. mendean, hala nola Donibane Lohizunetik 1688an Samson de Haristeguy komandantearen gobernupean Groenlandia aldera arrantzara abiatu zena. Kalostra eta frontoia. Lescunen hartzen dugu ostatu. Benetan leku aparta da. Bertan afaltzen dugu eta ikusten nola bi ingeles pirineista afaltzerako erabat aldatzen diren eta apain-apain janzten. Mereziko luke hona itzultzea eta hemendik zehar mendi ibilaldi zenbait egitea.

Uztailak 13.

Bidean, Zuberoan gelditu gara bazkaltzera eta han afixa handi bat ikusten dugu, non Jean Louis Davantek moldatu *Xiberoko makia trajeria,* Sohütan uztailaren 15ean eta 21ean Jean-Fabien errejentaren zuzendaritzapean jokatuko dena, iragartzen den. Libretoa Davantek dedikatu zidan irailaren 21ean, hitz hauekin: *Pastorala maite baituzu, hona bat gehiago, Patri Urkizu adiskidea.*

Uztailak 15.

Aizpea Goenaga antzerkigile, zinemagile, idazle eta adiskideak, gutuntxoa bidali dit [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 24)] zenbait antzerki argitaratzeaz iritzi eske, eta txit pozik, noski, eman diot.

Irailak 20/21.

Piarres Lafitteren sortzearen mendemugako biltzarra, Euskaltzaindia Nazioarteko XV. Biltzarra ospatzen ari da Baionan irailaren 20an eta 21ean. Gogoan dut, eta IKER 14an jasoa dago, "*Judit eta Holopherma pastoralaz eta gai bereko antzerkiez mendebaldeko literaturetan*" gaiaz mintzatu nintzela. Hitzaldiak bukatutakoan Fakultateko sarrera-eskaileratan parte hartzaileen fotografia eder bat atera genuen. Lehen ilaran Juan San Martin, Jean Luis Davant eta beste. Bigarrenean Juan Mari

Lekuona, Jean Haritschelhar, Aurelia Arkotxa… Hirugarrenean, Marijose Olaziregi, Andolin Eguzkitza, besteak eta neroni…

Urriak 8.

Ángel González Garcíak irabazi du Saiakeragintzako Sari Nazionala, *El Resto. Una Historia Invisible del Arte Contemporáneo* liburuarekin, Bilboko Arte Ederretako Museoaren eta Reina Sofiaren arteko edizioa. Benetan liburu mardula eta irudi txuri-beltzez ongi hornitua. Epaimahaian ia ez da deus ere eztabaidatu. Javier Etxeberriak defenditu du *El Resto*, Carles Miralles katalanak Marius Serraren *Verbalia,* aski interesgarria hizkuntzaren eta ingeniaritzaren ikuspegitik, eta lehen bozketan jada Joserrarena erori zait.

Urriak 9.

Resurrección Maria de Azkueren heriotzaren 50. urteurrena zela-eta, Lekeitioko Udalak Eusko Ikaskuntzarekin batera omenaldi bat eskaini zion. Bertan Jose Antonio Arana Martija, Ana Toledo, Natalie Morel, Maite Garamendi, beste batzuek eta neronek parte hartu genuen. Nire hitzaldiak titulu hau zuen: «Azkue antzerkigile». Hemen haren antzerki eta opera guztiak aztertzen nituen: 1895, *Vizcaytik Bizkaira; Eguzkia nora;* 1896, *Colonia inglesa;* 1898, *Sasi-eskola, Pasa de chimbos, Amama-iloba bi Bilbon;* 1910, *Ortzuri;* 1912, *Urlo;* 1917, *Aitaren bildur.* Eta Koldo Mitxelenaren hitzak gogoratuz, Azkueren euskara erraz, argi, garbi eta aberatsaz, zein gipuzkera osatua deitu zuen, honela bukatzen nuen nire ikuspegia teatro munduari mugatua bereziki:

> *Ni Euskal Antzertiaren Historia argitzen eta honen inguruan zenbait liburu argitaratzen zertxobait saiatu naizen arren, egiteko dago oraindik hain aberatsa izan zen 1876-1936 urteetako emaitza euskaltzalearen azterketa sakon bat. Bide horretan beude nik gaur hemen esandakoak Azkueren omenez, zein izan zen Bizkaia aldean Sota eta Lauaxetarekin gerraurreko euskal antzertiaren eta euskararen zuzi, zutabe eta sostengurik handiena.*

Urriak 10.

Teresa Sanchez, "Txarrangi" goitizenez, adiskide xarmant, beltxaran aspaldikoa, ia hogeita hamar urte ikusi gabe pasa eta gero berrikusi dut.

Beti bezain lirain eta erakargarri iruditu zait. Beltxaran eta ilaje beltz ohikoak. Ahots ezti, klar eta garbia. Afganistango gerraren kontrako manifa Sol-en bukatu da.

Urriak 20.

Irun Literatur sariak. *Río Bidasoa* hotelean. Hamabi poema bilduma ditugu aztergai eta Dabid Tijeroren *Dendako Leihotik* saritu dugu, niri oso maila handikoa denik ez iruditu arren, hona hemen Jon Kortazar kritikoak argitaratutakoan dioena:

> *Poesiaren barnean joera narratiboa garbia agertzen da, eta noizbehinka egunerokotasunaren hiztegiak topo egiten du naturaren sentsazioaz sortu denarekin. Agian, sinbologia ezaguna bada ere, bilketa horretatik, hain zuzen ere eguneroko detaileen ikuspegi objektiboa eta barne prozesuaren arteko bilketatik, etor dakioke poemategi honi agertzen duen berritasuna. Esistentziaren zentzuaren bila omen dabil poeta, eta esentzia horren bilaketaren abiapuntua beti da kanpoko begirada. Horretan da aipagarria poemategia, begiaren zolian.*



Irudia 63: Piarres Lafitteren omenezko Biltzarrean. Baionan (2001-IX-20 /21). Oroitzen naiz Pierre Espil eta honen pastorala Esterri buruz mintzatu nintzela, alegia, Racineren obraz egin zuen moldaketa ederraz.

Azaroak 4.

Real Madrid vs Barça futbol partidua ikusten ari naiz Santa Isabel kaleko *Espronceda* tabernan. Bete-betea dago. Hierro defentsa bereak eta bi egiten ari zaizkio menderatu ezin duen Rivaldori. *Negro, lárgate, sácale la tarjeta al negro, mátalo*. Horrelako oihuak entzuten ditut nire aldamenean burgeskume itxura duten gazte batzuen ahotik. Komentario apal bat egin dut eta erantzun didate, *vete a verlo a Barcelona*. Barça galtzen ari da. Ez dago giro, bortizkeria sumatzen da airean… Ostatu galego batera joaten naiz afaltzera. Salda, olagarroa eta ribeiro-kikera. Oroitzen naiz Galeuzkako jardunaldiez eta nola M.L.-k honako eskaintza idatzi zidan liburu batean: *Beti geldituko zaigu Galeuzca*.

Azaroak 5.

Astelehena. Goizeko seietan esnatzen naiz eta irratia pizten dut. Jadanik lanean ari zaigu Iñaki Gabilondo, *El padre Iñaki,* Pérez Priego lankideak deitzen duenez. Goizeroko sermoi politikoa. Fakultatean bilera daukagu bederatzi eta erdietan. Julia eta Manoloren izenean hitz egin dut. Hau da, katalanaren eta galegoarenean, eta galegoko titularitatea onartua izan da, hala nola katalanarentzat laguntzailea. Ni, oraingoz, beste laguntzaile bat ongi etorriko litzaidakeen arren, ikasle gehiegirik ez daukadanez, bakarrik konponduko naiz, lana mukuru izan arren. Bitxia izan da *Filología Hispánica*ko departamentukoek 80 irakasle izanik titularitate bat soilik eskatzea.

Abenduak 1.

Larunbata. Okendo tabernan biltzen gara bazkalondoan Eugenio Arozena, Daniel Landart eta neroni, Toribio Altzaga saria erabakitzeko. Ez da batere lan zaila, lau antzerki bakarrik aurkeztu baitira, eta Alaitz Olaizolaren *Zereko zera zertzen delako zereko zerarekin* hautatu dugu. Igor Estankonak *Deia*n dioen bezala *Aurpegi desberdinen dantza zoroa da Alaitz Olaizolaren antzerki lan hau.* Agian errefrau gehiegiz moldatua, baina Metroan Eugenio behartsuak sufritzen dituenei balio dramatikorik ez zaie falta.

Aurreko urteetan saiatua nintzen Piarres Andiazabalek bere liburutegian gordetzen zituen eskuizkribuen artean Jean-Martin Hiribarrenek

(1810-1866) idatzitako poema bat argitaratzen: *Iruñeko bestak 1845*. Eskuizkribuak zioen bezala: *Petit poème sur les fêtes de Pampelune 1845. En dialect labourdin le plus pur*. Baina ez zen hain ttikia, zeren 170 zortzikotan moldatua zegoen. Eta iruditu zitzaidan egoki izanen zela Iruñeko Udalak argitaratzea. Ahalegindu nintzen horretan, baina bide horrek porrot eginik, 2001ean *Lapurdum* VI Baionako euskal ikerketen aldizkarian plazaratu nuen. Gaitz erdi, zeren benetan gauza ederrak eta ongi idatziak irakur baitaitezke bertan.

Urtea amaitu aurretik Eusko Ikaskuntzan dimisioa aurkezten dut, zuzendariari gutun bat bidaliz. Hona pazientziaren edontzia irauli zuten arrazoietarik batzuk.

Bat. Teorikoki zuzentzen nuen ASJUn Iñaki Mozosen tesia gerenteak ez agertzen uztea, kontuan harturik Joseba Lakarraren adiskide Blanca Urgellena bertan agertzen zela, eta euskal teatroaz euskaraz ezer gutxi argitaratzen zela. Alegia, saiatu nintzen zuzentzen nuen aldizkarian, hala zioen errebistak, 1995ean Jean Haritschelharren zuzendaritzapean Iñaki Mozosek *cum laude* buruturiko tesia, *Jean de Paris Pastorala Eskuizkribuen eta iturriaren moldaketak* argitaratzen, baina Jose Mari Velez de Mendizabalek atzera bota zuen. Eta beste zenbait tesi ere bertan argitaratu zirelako nire arrazoinamenduari (Blanca Urgellena adibidez…), ez zion batere kasurik egin eta kontra agertu zen. Dena den, tesia 1995eko otsailaren 23an irakurri zuen. Kalifikazioa *"Apto cum laude"* izan zen. Zuzendaria, Jean Haritschelhar; epaimahaiko presidentea, Jon Kortazar; batzordekidea, Joseba Andoni Lakarra; beste hiru bokalak, Juan Mari Lekuona, Beñat Oyarçabal eta Patrizio Urkizu. Gaur EDTBn euskal doktore-tesien bilduman dago.

Bi. Nire seme Urtziri ere, kazetari titulatua zenez, gerenteak eskatuta *Eusko News* aldizkarian kolaboratzen hasi zenean, Juan San Martini elkarrizketa bat egin ziolarik, galdera batzuk zentsuratzea, politikoak omen zirelako.

Hiru. Bernhard Hurch, hizkuntzalari austriar langile handiak artikulu bat idatzi zuen *Arauak 53* titulua daramana (RLLCGV 1996-97) Euskaltzaindiak argitaratu munduko estatuen hizkuntza ofizialen zerrendan ageri ziren oker guztiak argituz, errebisa zitzaten eta zerrenda hobetzearren, zeren eta herrialde askotako hizkuntzak falta baitziren. Zerrenda

beharrezkotzat jotzen zuen, baina politikoki, historikoki, formalki eta zientifikoki okerra, akats ugarirekin, ez zuzena, eta horrenbestez, zuzendu beharra. Baina gerenteak *Oihenart*en argitara zedin onartu ez zuenez, UNEDeko errebistan inolako zentsurarik gabe plazaratu genuen.


Lau. Bulegoan lan egiten zutenak eta kolaboratzen zuten asko torlojuak bezala tratatzea eta ez pertsonak bezala, kontsideratuz jende gazte asko prest zegoela lan egiteko, hau da, merkatu intelektualean eskaintza handia zegoela.

Bost. *Koldo Mitxelena, Euskal gutunak 1951-1984* bilduma burutua nuen eta ale berezi gisara plazaratzeko asmoz, erabaki zuten ezarri zizkidaten errebisoreek eginiko iradokizunei jarraituz, berregin behar nuela lana, hau da, Mitxelenaren gutunak *lagunartekoegiak* zirenez, *erregistro jasoagoa*z behar nituela moldatu, eta halako lelokeriak.

Sei. Eusko Ikaskuntza sortu zenean, bere helburu nagusietakoa Unibertsitatea sortzea zen, baina orain bost bagenituelarik (EHU, Deusto, UNED, Opus, eta MU) bere egitekoa murriztuta gelditzen zen erabat, eta *Jakinet* bezalako asmaketek ez zuten behar adinako bermerik. Dirua biltzeko sistema bat zen. Ikasleek ez zuten behar adinako oinarririk, eta gerentea Ameriketako Euskal Etxeetan zehar ibili ondoren, ez zuen ikasle asko-askorik biltzea lortu. Sartu nintzeneko esaldi hura, erabat aldrebestua zen, alegia, *zuk ideiak proposatu eta guk dirua bilduko dugu* esaldia *dirua zuk aurkitu beharko duzu UNEDen edo beste nonbait* bilakatu zen.

Zazpi. Gregorio Monreal joan zenez geroztik geneukan presidenteak, hots, Juan Jose Goiriena de Gandarias bizkaitarrak ez zeukan fundamenturik, ez zen gauza berak zuzentzen zuen erakundearen izena behar bezala ahoskatzeko ere, Euskadi, Euskal Herria edota Nafarroaz mintzo zenean, erabat gauza ezberdin gisara kontsideratzen zituelarik… Arrazoi hauen eta beste zenbaitengatik nire zazpi urte eta erdi onenak bertan eman eta gero, nire dimisioa aurkeztu dut kargu guztietatik.

Berehala halako askatasun sentimendu baten antzekoa nabaritu dut nire barrenean. Aske naiz. Gogoko ditudan ikerketetara eta idazlanetara itzultzea nahi bainuen, eta ez Lezoko nire estudiora iristen nintzen bakoitzean gutun eta txosten pila irakurtzeko, errebisatzeko, errebisten artikuluetako laburpenak idazteko; hemendik hara besteek jotako txistuaren aginduetara dantzan egin beharra ahitu, bukatu da. *C'est fini.*



Irudia 64: Miguel de Unamuno entseiu saria.

2002

Urtarrilak 1.

EUROA martxan. Hondarribira paseatzera joan garelarik Gipuzkoako Kutxatik ateratzen ditugu lehen euroak. Aro berri bat hasten ari garen sentimendua. Zaila izango da pezetak ahanztea, baina polliki-polliki denboraren poderioz ohitzen joango gara, agian, kalkuluak eurotan egitera. Kirol portutik bueltatxo bat ematen dugu.

Urtarrilak 4.

Gaur ostirala da eta Donibane Lohizunera goaz egun pasa. Merkatuan inguruetako baserritar batzuk euskaraz mintzo direla entzuten dugu, beren barazkiak, sagarrak, onddoak, gaztak eta beste saltzen dituzten bitartean. Nire begiak uhartetxoan XVII. mendean eraiki zen komentura joaten dira beti; han lapurtera klasikoz hitz egiten zuten bertako fraideek elkarrekin, eta han idatzi baitzituzten beren solasak, otoitzak eta poemak, lehen euskal edizioak osatuz.

Urtarrilak 10.

Berriro Madrilen. Santa Isabeleko etxebizitzan obretan ari dira, sotoa eta eskailerak konpontzen. Ekialdeko langileak dira. Noizbait pollitago gelditko da, baina orain dena hautsez beteta datza. Metroa Moncloan hartzeko zain. Aurrez aurre bi neska pollit, beltxaran eta karpeta handiekin. Benetan ederrak dira, ezpain finak dituzte eta beltzez jantzita daude. Batek *no hay rabo feo*, dio besteari; alajaina, ez dela buztan itsusirik, zenbat ote ditu bada ikusi eta dastatuak?

Urtarrilak 15.

Fakultateko lanak bukatutakoan, Abadian nago mahaitxo batean espinakak, gasna eta ardo on bat dastatzen afari-legearekin konplitzeko, nire zulora erretiratu aurretik. Bi neska gazte aldamenean esertzen zaizkit, eta nire barne elkarrizketetan nagoen bitartean entzuten dut batak besteari dioela, *Quedamos a cenar y el primer día nos contamos mogollón*. Alegia, elkarrekin afaltzeko gelditu ziren lehen egunean gauza pila kontatu ziotela elkarri. Eta gero? Aldameneko flamenko dantza-saioalditik

tximeleta berritsuak bailiran sartu da neska talde bat gizon bizardun flakoxta bat inguratuz eta ahots goraz mintzatuz.

Urtarrilak 27.

Pantzo Hirigarayk hirugarren aldiz irabazten du Donostia Hiria literatur saria antzerki sailean: *Beherearta* (1998), *Lamindegiko lamiak* (2000) eta *Garatenea* (2002). Azken hau pilotarien eta gazteen arteko giroaz komedia libertigarria. Dantza, harremanak… ezin esan ez duela aparteko grazia bat eta ezagutzen ez duenik Donibane Garazi inguruko mundua, eta noski, bertako euskara bikaina. Jelostuko ote dira hegoaldeko antzerkigileak?

Urtarrilak 31.

Parisetik gutun bat iristen zait. Javier Elorza enbaxadoreak bidalia non adierazten didan Pierre Bidart irakasle eta adiskideari *Encomienda de Isabel la Católica* eman behar diotela otsailaren 8an bere egoitzan eta Bidart pozik legokeela bertan banintz. Bidart baigorriarrarekin beti tratu ona izan dut eta eskertzekoa da, noski, gonbidapena.

Otsailak 11.

Astelenita, tolosarrek esaten dutenez, Inauterietako astelehena. Primerako eguraldia, zerua urdin, aroa ezin hobea. Urgullera igo ondoren, Kontxako hondartzatik banoa Ondarretara ostertzaren borobila dastatuz begien lerro zuzenean. Masajistaren eskuak eta igurzteak sufritu ondoren, banoa ospitalera. Isidro, nire koinatua, aski larri dago. Denok gelditu gara jota medikuak esan digunean ordu gutxiko bizitza geldi-tzen zaiola.

Ezina zaiela deus ere egitea eta berandu ohartu direla, nonbait, minbiziaz, aski maiz eta arreta handiz azterketak egiten zituen arren.

Otsailak 15.

Euskaltzaindiko Literatura Batzordeko bileran Jon Kortazarrek esan dit Bilbo Udaleko saiakera-saria irabazi dudala. Hala ere, zertxobait poztu nauen arren, Isidroren agoniak kezkatzen nau gehiago. Liburua argitaratzen denean, *Anton Abbadia 1810-1897. Biografia saioa,* portadaren barreneko aldean epaimahaiaren ohar hau ageri da: *Mikel*

Agirreazkuenaga, Xabier Kaltzakorta eta Jon Kortazar jaunek osatutako "Miguel de Unamuno III. Saiakera Lehiaketako" euskarazko modalitateko epaimahaia Bilbaon bildurik, Iñaki López de Aguileta jauna idazkari jardun dela, aho batez erabaki du saria Patrizio Urkizu Sarasuari (Lezo--Gipuzkoa) ematea "Anton Abbadia 1810-1897. Biografia saioa. Zelüko izarren bidia" lanagatik. Bilbon, 2002ko otsailaren 13an.

Apirilaren hamaikan emango dira sariak publikoki Bilboko Udaletxean. Gelditzen zaidan fotografian ezkerretik eskuinera ageri gara: Daniel Innerarity (gaztelaniazko saiakeraren irabazlea), Iñaki Azkuna (alkatea) eta neroni. Aurrean Unamunoren brontzezko burua. Ekintza honetan bai Iñaki Azkuna, bai Joseba Arregi, Danielen adiskidea, aski urrun iruditu zitzaizkidan, hots, goi postu batetik beheko bati ariko balitzaizkio bezalako sentsazioa izan nuen. Arregik aitortu zidanez, berak betidanik izan zuen negozioetarako joera. Baina benetan ongi badihoazkio ere, ez nuke nik bizi nahi bizkartzainez inguratuta. Hurrengo egunean *El País* (IV-12) egunkarian ematen dute albistea. CEDROko zuzendari den Juan Mollák, saria zela-eta apirilaren 19an bidali zidan gutunean, zoriontzen ninduen eta *mi más cordial enhorabuena* ematen. *Bidebarrieta eta Newsletter-en* honako oharra agertuko da: *Patri Urkizu ha hecho un trabajo enorme de archivo, y el resultado es preciso y sistemático, a la vez que agradable de leer.*

Otsailak 16.

Ospitalean Isidro azken arnasak ematen. Inguruan Marikrutx emaztea eta besteok. Gaur hil da. Urtetan ezagutu dudan gizonik zuzenetarikoena. San Juan Bataiatzailearen parrokian, Lezon, berak hainbeste lan egin duen lekua txukuntzen eta mantentzen… Egiten den hileta--elizkizunean Leonardo Esnaolak, elkarrekin izanak baitziren Rwandan ez aspaldi, benetan solas hunkigarria egiten du, negarra eraginarazten duena. Marikrutx lur jota geldituko da denbora luzez.

Martxoak 13.

Donostiako unibertsitario batek gonbidatuta, *Chaminade* Ikastetxe Nagusian Ruper Ordorikaren kontzertua entzuten dut. Nire Pío XIIko garaiak oroitarazten dizkit.

Martxoak 14.

Círculo de Bellas Artes. Igande bazkalondoa da eta Tyssen bisitatu ondoren, hemen nago erositako koadernotxoa zirriborratzen. Nire sentimendu, ohar eta gogoetez betetzen. Badirudi aspalditxo honetan zamarran koadernoren bat ez badaramat zerbaiten falta sentitzen dudala. Arratsaldeko lau eta erdiak dira. Aski baketsu dago une honetan saloia. *La Pecera* kafetegia. Kafea eta whiskia eskatzen dut ernagarri gisara. Sarrera, ohi bezala, euro batez ordaindu dut eta *Minerva* albiste aldizkaria jaso. Marlboro zigarro bat piztu dut eta hautsontzia aldameneratu. Nire eskuinean, etzanda larru-hutsik marmol zurizko eskultura. Andere bat. Modernismoaren garaiak.

Ostegunean Bilbon Unamuno saria irabazi edo eman zidatenez geroztik kezkaturik nago. Ez zen izan kazetariekiko harremanik. Zergatik? Burutazio arraroenak sortzen zaizkit, baina burua hotz eduki behar da zergatia asmatzeko. Azkune alkatea harro, ezaxola eta kaxkarin iruditu zitzaidan. Egin zituen gogoetek ez zuten xentimoa balio. Zergatik behin eta berriz EAJk antolatu liburu-aurkezpenetan ez dute mailarik ematen? Gutxienez egileei hitza eman beharko litzaieke, ezta? Eskerrak epaimahaiari, sari-eratzaileari eta editoreei emateko soilik bada ere, baina ez *Bidegileak* aurkeztu zirenean, ez eta oraingoan, ez dute formalismo tipiena ere errespetatu. Eta komunikabideek nola jaso dute gertaera? *Egunkaria*k, ohi bezala, ongi. *El Diario Vasco*k fotografia huts batekin eta oin-oharrean *guipuzcoano* naizela adieraziz. *El País*ek Bilboko udalak zabaldu oharraren arabera *donostiarra* naiz. Baina seguruena, Donostian jaioa banintz, ez nintzateke hemen euskaraz ohar hauek idazten arituko. *Donostiarra, como decía Baroja con h intercalada.* Hau bai dela lelokeria alkate baten ahoan sari bat ematean hainbeste maite omen duen Unamunoren sariaren aurkezpenean!

Martxoak 19.

Luigi Pirandelloren *Enrique IV* antzerkia Bellas Artesen ikusten dut zuzendari José Tamayo, eta José Sancho protagonistaren paperean, Enrique Lloveten bertsioan. Errealitate absurdo, deseroso eta frustragarri batetik ihes egiteko zoramena izan daiteke irtenbidea, eta mugak askotan ez daude argi benetakotasunaren eta ametsaren artean. Ahotsa benetan zirraragarria Pepe Sancho, Curro Jiménez bandolero telebisi-

boarena. Klasikoak eguneratzeko molde egokia iruditu zait. Atsedenean Fernando Cristobal eta haren emaztearekin topo egin dut, eta komentatu dugu zertxobait antzerkia, elkarrekin Salamancan bizitako garaia, eta gaur egun Euskal Herrian bizi dugun egoera tragikoa.

Apirilak 5.

Itziar Aduriz errenteriarraren, Bartzelonako Unibertsitatean Linguistika Orokorra Departamentuan lan egiten duenaren partetik gonbidapena jaso dut eta hementxe nago Bartzelonaz gozatuz. Afaria *Restaurant 7 portes-en, any 1836.*

Apirilak 6.

Liho-fabrika zena Arte Garaikidearen kokaleku bilakatua. *Institut de Teatre, Museu Maritim, Las Atarazanas Reales…* Bartzelonaren ederra…

Apirilak 7.

Tiran(ia) erakusketa. Urtarrilaren 23tik apirilaren 28ra. Enver Hoxha diktadore estalinistaren bizitzaren inguruan (1944-1990), beraz, hitz jokoa eginez titulatu dute erakusketa, Albaniako hiriburua den Tirana eta Tirania hitzak elkartuz. Bashkim Sehehu idazle exiliatuaren begiz antolatua. Boterearen eraikuntza sinbolikoak, ikus-entzunezko muntaiak, errealismo sozialistaren pinturak eta eskulturak, diktadorearen liburutegia mendebaldeko idazle ospetsu ezkertiarren dedikatoriekin… Bunkerrak, inbaditu ez zitzaten. Gogoan dut lezoar gazte batzuek Albaniara joandakoan izandako arazoa, alegia, nola detenitu zituzten beren begien aurrean elkarrizketatu zituzten gazte batzuk… mendebaldearekin kutsatzeagatik zigor gisa.

San Anton merkatuko liburu zaharren erakusketa. Hau da nahas-mahas izugarria. Ondoren, *Hotel Españ*an Lluís Domènech i Muntaner arkitektoak Rambletan eraiki Modernismo katalanaren joia preziosenetarik ederrenetakoan *fideuà* eskatzen dut.

Apirilak 8.

Unibertsitatean ematen dut hitzaldia eta Mikel Laboaren garai bateko irakasle adiskidea inguratzen zait agurtzera. Bazkalondoan Institutu

Frantsesean *Shoah* filma ikusten dut eta luzetsi arren, bukaeran Claude Lanzmannek bi hitz argigarri zuzentzen dizkigu. Benetan hunkigarria juduez egin zutena. Motoan Francescekin Bartzelonan barrena eta *Un altra Lolita* Versus teatro tipian ikusten dugu. Arthur Trias zuzendari, eta interpreteak, Manuel Dueso eta Leo Castro. Neskatxa gaztearen eta gizon zaharraren arteko amodiozko harremanak. Ikusleak ia eszenatokian gaude, gertu-gertutik ikusten ditugu, sentitzen, kasik. Leo Castro larru-hutsik… Erotismo sakon, argi eta garbia dario.

Apirilak 9.

Biblioteca de Catalunyan igarotzen dut goiza kanta zaharrak miatzen. Gero Santa Maria del Mar ingurura joaten naiz, elizari bisita egin eta jatetxe tipi estilo modernistan bazkaltzen dut, bakarrik ene gogoetekin. *Milla* teatro liburu-dendari ere bisitatxo bat egiten diot eta ohi bezala antzerti zaharraz mintzo diren zenbait nireganatzen ditut.

Apirilak 18.

Madrileko Ateneoan UNEDek ohiko *Jardunaldiak Narratibaz* antolatu ditu, eta presentazioak egiteko ohorea suertatzen zait. Oraingoan ez areto handian, ttipian baizik. Bi adiskide aurkeztea ez da zaila. Mari Jose Olaziregi eta Ramon Saizarbitoria. Baltasar Porcel bizitzeko beharrezkoa dugun errealitate-dosiaz mintzo zaigu, irudimenaz. Gorrotoaz eta amodioaz, pintoreak koloreak lantzen dituen moduan idazleak dituela hitzak tratatzen… Manuel Rivas galegoa eta Luis Mateo Díez leondarra beren obrez mintzatzen zaizkigu, aski modu sotil eta dotorean. Atseden une batean Ramon Saizarbitoria eta Juan Aranzadi aurkezten ditut eta, orain esaten den eran, bien artean bibrazio onak sortu direla esango nuke…

Apirilak 20.

Orratx 51, Lezoko aldizkarian 2002ko apirilean Joxe Juan Ugaldek elkarrizketa luze bat egiten dit eta bi orduko solasa bost orritara laburtzen da. Bertan nire irakurketez, liburuez, euskal literatura ikerketez, nazionalismoaz, ETAz (Josejuan beldur da, biok esandakoak ageri badira arriskuan egon ez ote gaitezkeen), Gernikako Estatutuaz, Autodeterminazioaz, Munduko egoeraz. Berriki irakurri ditudalarik han

esandakoak ez dut uste gauza handirik aldatu naizenik gogoeta ildo nagusietarik. Pertsonarekiko beharrezko errespetuaz eta abertzale, ezkertiar eta sozialista izateko modu heterodoxoari buruz.

TANGERREKO BIDAIA

Ekainak 4.

Beribila hartu, Urtzi Grosen jaso eta bagoaz Hondarribiko aireportura. Hegazkinak matxura izan duela eta ordu bat eta hamar minutu beranduago aireratzen gara. Ez dakit Tangerreko abioia hartzeko garaiz iritsiko garen. Hamaikak eta hamarrean lurreratzen da Barajasen, eta irteera, hobeto esan, enbarkatzeko ordua hamaikak eta bostean den arren, korrika eta presaka kontrolak igaro eta hamaikak eta hogeita bostean B-14 sarrera-atera iritsi gara eta irakurri dugu *delayed*, atzeratua; beraz, lasaitu gara pixka bat. Iristen garenean, Gibraltarreko hertsidura iragandakoan, behin portu frankoa zen nire agiriekin Tangerreko aireportura pasatzen naiz eta Urtziri ea zein egunkaritako *journalist* den galdetzen diote… *Egunkaria*, erantzun du. Aldamenean frantses mordo bat beren ehizarako jantzi eta eskopeta-errifleekin. Karmen itxoiten geneukan eta alokaturik duen bere etxe ederrera eraman gaitu, beti bezain adeitsu. Bazkaldu ondoren paseatzera atera gara, eta arratsalde osoa eman dugu Tanger hiriko bazterrak, zokoak eta txokoak, bazarrak eta dendak, alfonbrak, kilimak eta tapizak, bitxiak eta joia preziosak ikusmiratzen. Gibraltarreko itsasartea argi eta garbi ikusten den *Haffa* tabernan egon gara tea hartzen eta ferryek itsasoa nola iragaiten zuten ikusten, Europatik Afrikara zein itsaso puska ttikia den baina askorentzat zein zaila den igarotzea, bizia galtzen baitute bertan. Afrikako hondartzatxotan ontzi ttipi batzuk ikusten ziren gauaren zain.

*Hotel El Minzah*en, hiriko hoberenetakoan eta portuko bista ederrak dituen honetan whiski bat edan dugu marmolez eta iturriz jantzi aretoan. Gero *Le Saveur du Poisson* jatetxean afaldu dugu eta, izenari ohore egitearren, arraina probatu dugu eta baita beste hamaika gauzatxo ere, guk deus ere eskatu gabe ekarri dizkigutenak, zein baino zein hobeak. Ardorik batere ez, ordea. Bitartean, Karmenek luxuzko desterru honetako bizimoduaren berri ematen dit. Azkenean, saskitxo bat, kikera eta

zurezko zalditxo batzuk oparitu dizkigute. Oheratu eta goizeko hiru eta erdietan gauaren isiltasun izarreztatuan muezzinaren otoitza entzun dut. Oso ahots ederra du, eta erdi lotan goizeko seiak arte iraun dut loak ezin hartuta.

Ekainak 5.

Assilah bisitatzera eramaten gaitu Karmenek. Kostako herri txiki hau bere hondartza eta etxe txuriekin eder-ederra da benetan. Jatetxe batetik igarotzean gure gidariak esaten digu maiz egoten dela bertan Felipe González politiko sozialista bere adiskideekin eta hondartzara ematen duten *villa* dotore horietako batean denboraldiak ematen omen dituela. Mikonos uhartearen antza aurkitu diot eta agian gu bezalako turistek hondatuko dute. Baina bestela zertaz biziko lirateke? Margarentzat lepoko kuttun bat erosi dut.

Ekainak 6.

Ceutara goaz. Espainol gobernupean dagoen hiri europarra da hau nabarmenki. Militarren eta funtzionarioen hiria. Alejandro latin-irakaslearekin eta teatro-zuzendariarekin goaz, zeren biek, hemen lan egiten dutenez, errenta-deklarazioa egiteko baliatzen dute eguna. Gauean selektibitatea egin duten neska-mutilekin afaltzen dugu, eta balirudike denak oso modernoak, europartuak edo izateko bidean daudela. Noski, burgesiaren kumeak direla ez dago dudarik. Afaldutakoan Alejandro jo eta ke dantzan nabarmentzen da eta nik dantzaldi pare bat ematen ditut Karmenekin…

Ekainak 7.

Atzo beranduxko erretiratu baikinen, gaur lo bapo egin dut ohe gozo honetan.

Etxean gelditu naiz goizetik Karmenek dituen arte-liburuak begiztatzen: *Visions de l'al Maghrib. Pintors catalans vuitcentistes.* Fundación Caxa, 2001; *Tuareg, nómades del desierto*. Fundació Caixa de Pensions, 2001; *El Arte Islámico…*

Uste genuen hiri barnetik ibiltzerakoan borondatezko gidari laguntzaileak aterako zitzaizkigula atzetik, baina ez da horrela izan. Antza denez, edo ez dut turista itxurarik edo ordena dute turistak bakean uzteko.

Zentroan lanean ari den Consuelo Hernándezekin topo egin dut, nire Salamancako garaietako ikaskidearekin. Orain bere txolarteetan pinturara dedikatzen da. Bere bizitzaz, gizonez eta seme-alabez mintzatu zait… eta bere koadroen katalogoa oparitu dit dedikatoria maitagarri batekin. Portadako koadroa: *Gran Teatro Cervantes 1913*. Garai batean ederra izanen zena aski abandonatuta dirudi. Barrenean, besteak beste, Omar Jayyam, Robaiyyat-en aipu bat gaztelaniaz, hemen euskaratzen dudana: *Denboraren iraganean pentsatzen, penatzen eta tristatzen denaz lotsa da denbora*. Eta Edward Hopperen estiloan eginiko Tangerreko hainbat paisaia, hala nola *Taxi a la entrada del (Café) Hafa*, eta *Las aguas del estrecho desde el Hafa*… Gauean *Mövenpick Hotel & Casino Malabata*ra goaz afaltzera. Errestaurante ezberdinak, jokorako saloiak –jokalari amorratuak omen dira marokoarrak, antza denez– musika-aretoak, sabel-dantza, ostra batzuk eta arrain freskoa. Aberatsentzat eginiko paradisutxoa… Itzuli beharrak eta hain adiskide onak uzteak, halako konpainiaz bereizteak benetan pena ematen du.

***

Uda hartan, Agosti Chahok bildutako kanten edizioa prestatzen ari bainintzen, argitasun bila jo nuen Jean Haritschelharrengana eta hark gutuntxo bat igorri zidan Angelutik eskuizkribuaz eskatzen nizkion argibideak argituz [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 26)].

Ari nintzen bada aurreratzen polliki-polliki jada ezaguna nuen eskuizkribuaren transkripzioan, lehenik Telesforo Monzonen alargunak, Maria Josefa Muñoak *Mende Berri*ko etxean erakutsia eta gero Euskaltzaindiari erositako CDaren kopian.

Nire urtebetetzean, Daniel Mangado, Gipuzkoa Donostia Kutxako Kultur-ekintzako arduradunak bidalitako gutun batean esaten zidan Xabier Letek osasun arazoak zituela eta ezin izango zuela beste urteetan bezala Irun Poesia sarietako epaimahaian parte hartu eta ea ordezkoren bat iradokitzen nion. Bi izen eman nizkion lan hori ongi bete zezaketelakoan: Koldo Izagirre eta Iñaki Aldekoa. Geroago ohartu nintzen bigarrena hautatzea erabaki zutela.

Irailak 26.

Gasteizen bildu gara Pedro Ugarte, Jon Kortazar, Maria Maizkurrena, Arantxa Urretabizkaia eta neroni *Euskadi Literatura Saria* 2002, gaztelaniazkoa saritzeko. Zenbait eztabaida eta iritzi-trukeren ondoren, Miguel González San Martín idazlearen, Portugaleten UNEDeko idazkaria denaren, *Pobeñeses* obra saritzen da, nire gogorako Miguel Sánchez Ostizen *En el corazón de la niebla* baliagarriagoa izan arren. Muzkizeko Pobeña auzoa ez nuen ezagutzen ere, eta antza denez, minimalismoa saritu dugu. Bizkaiko auzo apartatu honen garai bateko kontuak eta memoriak.

Urriak 15.

Madrileko bidean, autobusez, Irun Poesia Sariko hautagaiak irakurriz noa. Eta aurten Patxi Salaberri Muñoa aramaioar irakasleari suertatuko zaio *Uretan idatziak* poema bildumagatik. Epaimahaia: Santiago Aizarna, Henrike Knörr, Lourdes Otaegi, Iñaki Aldekoa eta neronek osatzen dugu. Felipe Juaristik *El Diario Vasco*n idatzi erreseinan honela zioen: *Azken zatia, ukitu klasikoduna, da niri gehien gustatu zaidana.* Eta kontrazalean dioenez, *Ura du poema liburu honek euskarria, urez betea du tintontzia. Eta urez hornitzeko zurrupatzen ere du bizitzaren pats-ardo mikatza.*

Urriak 22.

Kultur Ministerioko Cervantes Aretoan gaude *Literatura Dramática* delako jeneroan iaz argitaratu antzerkirik hoberenari sari nazionala emateko. Hamabost obra, hoberena zein den erabakitzeko. Karlos del Olmoren *Aldi joana, Joana*, alegia, Joana Albreteko erreginaz eginikoa eta Toribio Alzaga 2000 sariaren irabazlea, non Joanes Leizarraga Joanarekin elkarrizketan ezartzen duen…, da nik aurkeztu hautagaia, baina bozketa batean lau boto lortu arren, erori egiten da azkenean, eta oso eskasa iruditzen zaidan testu bati, Ignacio Amestoy bilbotarraren *Cierra bien la puerta, crónica de mujeres en dos actos* antzerkiari ematen diote. Francesc Massipekin banoa bazkaltzera eta *Etor* argitaletxeak plazaratutako *Teatro y Cine Vasco* liburua oparitzen diot.

Enrike Aierbe, Etor-Ostoa argitaletxearen zuzendaria egun batez etxera etorri zitzaidan antzertiaz artikuluren bat egin nezan eskatuz,

baina konbentzitu nuen *Euskal Herri Enblematikoa* zeritzan sailean egin zezakeela ale bat *Teatroa eta Zinema* gaitzat hartuz eta, ongi iruditu zitzaionez, liburua molda zezan materialak utzi nizkion, gaztelaniazko partea Juan Agirre Sorondoren esku joan zelarik. Maketazioa eta diseinu grafikoa, hala nola irudiak eta itzulpenak, talde profesional batek hartu zituen bere gain. *Asmoz ta Jakitez*ek azaroko 128. zenbakian honela komentatzen zuen: *La riqueza iconográfica de la obra, sumada a la calidad de las síntesis, hacen de esta obra un excelente instrumento de lectura y consulta, a la vez que un magnífico objeto bibliófilo.* Noski, irakurketaz aparte, bazuela balioa liburu ederren zale batentzat ere. Luis Goya zine-produktore lezoarrari oparitu niolarik, benetan oso pozik jarri zen. Baina zergatik ez zuen testu-egileen izenik portadan ezarri Enrikek?

Urriak 24.

Blanka Urgellek bere doktore-tesia Larramendiren Hiztegiaz bikain igaro ondoren, Euskal Lexikografiazko Unibertsitateko plazara aurkeztu zen eta epaimahaian: Pello Salaburu, Ibon Sarasola, Patxi Goenaga, Henrike Knörr eta neroni izan ginen. Ohiko eran pasatu zen, alegia, tribunaleko bakoitza luzitzen eta gaiaren inguruan esateko zituenak esaten saiatu zen. Henrikek bere modu dotore humanistari jarraiki zion, gaiari axaletik helduz. Ibon betiko doinu zakarrean mintzatu zen, bere hiztegien *monopolioaz* obsesionatuta. Patxik bere jesuita garaian ikasitako heziketa atera zuen, ez baitzen oso aditua gaian. Eta Pellok bere kontrabandista hezigabearen era baztandarrean, aberats berri baten moduan, aztergaiari buruz deus guti jakin arren. Baina zergatik ez dira egiten plaza-deialdiak eta tribunalak irekiagoak, gaiarekin lotuagoak? Dena ondo joan zen eta bazkaltzera Blankaren betiko babeslea, Joseba Lakarra agertu zen, jakintsu eszentrikoaren boutadeak, keinuak, izugarrikeriak eta espantuak eginez. Euskal Filologiako haur hautatuak…

Halaber, nola liteke Kultur Sailburuak katedra ateratzea epaimahai-burua bere azpikoa delarik? Eta ez naiz Blankaz ari… Euskal Unibertsitatea ongi ezagutzen duen irakasle atzerritar batek esan ohi dit, ez dagoela kritikarik Euskal Filologian, inork ez duelako kritikatua izan nahi. Ez da betetzen bertan, beraz, esaldi zorrotz hura, *Amicus Cicero, sed magis amica Veritas*. Alegia, *Adiskide Kikero, baina adiskideago Egia*. Eta iritzi hori beste arloetara zabalduz gero, oker gabiltzala esango nuke,

kritika askea baita zientziaren funtsa. Autobusa arratsaldeko zazpietan hartzen dut, arabiar gazte eta agure zaharraren solasa entzuten dudan bitartean. Politikaz iritzi jakintsuak adituz, Gasteiztik Donostiara.

Abenduak 7.

Durangoko liburu eta disko ferian parte hartzera gonbidatu nautenez, hona mintzatzeko hautatu dudan gaia: *Bertso eta koplak kantatuz euskal historia kontatu.* Hau da Historia, Poesia eta Musika lotuz nola-halako euskal kantagintzari egin errepasoa. Hasi kanta apokrifoak moldatu faltsariekin eta Isaac Casaubonen esaldi harekin (1606): *Ez dut ikusten zein ongarri arraio egin diezaioketen benetazko historiari zoro hauen asmakizunek*. XX. mendean ematen den aldaketa politikorairo, adibidez, Lehen Mundu Gerran borrokatu zuen Louis Ligueix larraindarrarentzat bere aberria *Frantzia* zen bitartean, Pierre Bordazarre Etxahun, Mattin eta Xalbadorrentzat aberria *Ama Uskal Herria* bilakatu bide da.

Abenduak 10.

Madrid. *Vinícola Mentridana,* edo Unn-en taberna. Fakultatean egindako lanez atseden hartzen ari naiz bakar-bakarrik. Mostradorean basoerdi bat *Solagüen*, eta tapa batzuk. Madrid euria ari duenean oso desatsegina gertatzen da. Une honetan suediar adiskidearen ostatu hau jende gaztez betea dago, ia denak beren zinema, teatro, literatura, arazoez mintzatzen. Era berean musika flamenko ona entzuten da paradisu txiki bat dirudien gune honetan. Gazte ederren uhartean.

2003

Urtarrilak 1.

ANTOINE d´Abbadie Fundazioak 2003ko Urteberrirako, Frédéric Soulu zuzendariaren bitartez, bere desiorik hoberenak *(Meilleurs voeux)* opa zizkidan, Jauregia eskainiz Abbadiaren biografia-saiakeraren aurkezpena bertan egin nahi banuen. Eta pentsatu nuen ez zela leku desegokia eta, beraz, halaxe egingo genuen.

Urtarrilak 10.

Lermako autobus geltokian deskafeinatu kaxkar bat dastatu nuen. Arratsaldeko seiak eta hogeita bost minutu dira eta mendikatea elurrez jantzita ageri da. Ilunabarra benetan zoragarri, ortzia sutan bailegoen, zenbait hodei more eta arrosaz inguraturik. Florentino mugalariaren joan-etorriekin dabil nire buru-errota, aitarekin zuen adiskidetasuna, gure etxean igarotzen zituen uneak… Halaber, Chahoren kantutegia eta baladei buruzko lana zintzilik daukat oraindik, amaitu gabe, bultzada baten zain.

Otsailak 1.

Donostia Hiria Sariak, ohi denez Kutxak antolatuta; honen Andia kaleko sotoko aretoetan biltzen gara. Eta eztabaida batzuen ondoren erabakitzen dugu, hamar antzerkiren artean, *Telesforo ez da Bogart* obrari ematea saria. Plika ireki aurretik Ana Toledori esan diot nire susmoa, eta asmatu dut norena den, ez baitzen oso zaila, estiloa eta gaia ezagutuz gero. Alegia, Xabier Mendiguren suertatu da irabazle. Igor Estankonak (*Deia*, 2003-VII-01) oso axalezkotzat jo zuen antzerki honetaz beste gauzen artean honakoa idatziko zuen:

> *"Casablanca" film famatuaren euskal remakea da idazleak aurkezten digun jolasa. Antzezle talde batek Telesforo Monzon eta bere emazte Maria Josefa, Victor Laszlo eta Ilsa Laszloren lekuan ipini dituzte. Historikoki posiblea eta zinematografikoki aldrebesa den ideia aintzat hartuta antzezle taldeak entsegu bati ekiten dio. Filmearen oinarrienganako fideltasunaren eta tentagarria den bat-batekotasu-*

naren artean "Casablanca" berri bat sortzen da ezinbestean. "Casablanca" klasikoaren itzalak hor jarraitzen du, ordea, eta antzezlanaren beste erdia betetzen du. Tarteko ekitaldien funtsa aktoreen arteko eztabaidetan dago horrenbestez.

Otsailak 9.

Iruñea. *Maisonnave* hotela. Lau izarduna. Mendiak elurrez jantzi dira. Igandearratsaldeak benetan tristeak dira futbolzale ez direnentzat, eta kalera irten naizenean oso hiri probintzianoa iruditu zait garai bateko erresumako hiriburua. UNEDeko Tribunaleko beste lankideekiko berriketak pixka bat arintzen du bakardadea eta zirimiriaren hezea.

Otsailak 10.

Hotelean gosaldu eta taxia hartzen dugu Sadar futbolzelaiaren ondoan dagoen Unibertsitateko egoitzaraino. Eguraldiak hobera jo du eta zerua urdin dago, baina eguratsa hotz. Azterketa desastrea izan da, *valija virtual* deritzanaren sistemak porrot egin baitu. Eskerrak ikasleak nahiko ohituta daudela, eta gu ere bai horrelakoetara… Azken aldia dela hona natorrela, diot nire buruari, gaurko lanak bukatzen ditugunean. Hala ere, ibilaldi polita egin dugu gauez Emilio, Anjel eta hirurok hiri barneraino historiaz eta kultur politikaz hitz eginez …

Otsailak 11.

Goizean gogor lan egin ondoren, arratsaldean katedraleko kalostra bisitatzera noa. Gero *Xalbador* liburu-dendan sartu-irten bat egiten dut, eta hemen *Bilintx*en ez dauden zenbait idazki aurki daitezkeela ohartzen naiz. Noizko Euskal Herri osoa kontuan hartuko duen liburu-denda on bat? Parte Zaharretik ibilaldi luzea egin ondoren, nekaturik bukatu dut. Bakarrik egoteak akitu egiten baitu, ez bainaiz animatu, ez molestatzeagatik, Goio Monreal edo Xabier Olarra adiskideei deitzera. Hotelean afaltzen dut. Aski txepela, zeren nolakoa egongo baitziren nik daukadan apetituarekin urdaiazpikoa eta arrautzak mahaian uzteko…

Otsailak 19.

Blanquerna, Generalitateko liburu-dendan gure errebistaren *(Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca)* VII. alearen aurkezpena.

Beti bezala, dekanoa, Julia, Joan eta neroni mahaian. Betiko aurpegiak, ez da hizkuntza hauenganako apopilo berririk sortzen. Beraz, bukatutakoan ohiko baikortasunez, *cava* bat, eta adiskide bakan batzuekin afaltzera.

Maiatzak 17.

Asier Etxeberriak deitu zidan galdetuz ea nahi genuen grabazio bat egin Anton Abbadiaz *Sautrela* telebista programarako. Baiezkoa eman nion eta arratsalde batez Hendaiako jauregian izan ginen nik idatzitako biografiaz hitz egiten, eta elkarrizketa hura irudi ederrez hornituta eman zuten hamazazpian. Felipe Juaristi izan zuen, besteren artean, Asierrek laguntzaile.

Ekainak 4.

Portugaleten azterketak zaintzen. Atseden aldi batean banoa *Puente Colgante* deituaren azpitik igarotzen den plataforman Ibaizabal igaro eta, euripean, patxadan, Getxoko portura. Yateak kulunka etengabean haizearen eraginez kalaka-hotsekin, mendian behera artaldeak bailetozen. Kantoi honetan iluna sartu da, eder eta triste, Iparraldeko portu bazterra dirudi. Jendea Roland Garroseko tenis partida ikusten ari da. Ferrerok irabazi du. Afaltzera noa. Piperrak bakailaoz beteak eta dorada labean. *Alberdi* botila erdia. Itsasoaren koloreak zeru ilunpean hunkigarri. Argi gutxi bazterretan.

Ekainak 5.

Selektibitate azterketak berriro euskaraz. Bergarako talde batek eta neronek itzuli ditugu etsaminak, Iparraldeko ikasleek Parisera joan gabe egin ahal izan ditzaten. ETB etorri da eta ikasleekin ari dira mintzatzen. Gero euskaratik gaztelaniara pasatzen ditugu eta pittin bat hobetzen. Bidasoaz haraindiko anaiekiko solidaritatea izanen da, ezta? Hala ere, batzuk kexu dira, argitasun guztiak eman arren, euskaraz edo gaztelaniaz beren programak eta espainolak ez direla berdinak eta…, zer eginen diogu, bada… Portaeran okerrenak, Aleman Kolegioko *señorito* aberatsak.

Ekainak 9-13.

Girona. Azterketak. Hiri honek, bere zubi, arkupe eta etxeen koloreekin gehiago dirudi hiri italiar bat espainola baino. Une libreetan

parte zaharra bisitatzen dut. Katedrala eta inguruak. Auzo judua eta sinagoga zena, Juduen Museo eta Ikerketa leku bilakaturik. Sefardien kanten liburuxka bat erosten dut. Elena Romerok prestatu *Coplas Sefardíes* edizioa, Kordobako *El Almendro* argitaletxeak 1988an moldiztegiratua. Azken poemaren *(Los guisados de las berenjenas)* azken estrofak honelaxe dio:

Todo esto que oístes, cale a lado su abanico
Y harés um buen piaz com pimienta y prijilico
Y em cada dos bocados beberes vuestro vinico,
Que ansí está ecomendado tanto pobre como rico

Agur afarian UNEDeko Patronatuko burua dago eta detaile handiz mintzatzen zaigu 23 Faz, bera une hartan Diputazioko Ahaldun Nagusia baitzen, katalanen formula oso gustatu zaidalarik: *Alcalde de Alcaldes*….

Madrilera itzulitakoan Uda ikastaroa martxan jartzen saiatzen naiz: *De la balada a la copla pasando por el rock. Tradición y pervivencia de los cancioneros populares.* Uztailaren zazpitik hamaikara izango zen, eta irakasleekin mintzatua nintzen. Ávilako Uda Unibertsitatean eratzekoa zen, baina errektoreordeak atzera bota zidan antolamendu guztia, ikasle gutxi matrikulatu zelako. Beraz, beste porrot bat. Zabalkundea egin zitekeen beste modura, horretarako dauka UNEDek ikus-entzunezko tresneria, baina haserrealdia izan arren, hitz emandako irakasleekin konpromisoa deuseztatu behar izan bainuen. Ez zuen konponbiderik izan. Bakarrik Interneten gelditzen da ikastaroaren aipamena eta okasiorako prestatu nire ikerketa lan hura *("El cancionero inédito de Agosti Chaho y las baladas europeas")* geroago argitaratuko zela eta horren esperantzarekin kontsolatu behar izan nuen.

Garai horretako Txillardegiren gutuntxo bat aurkitu dut nire paperen artean, abuztuaren 21ekoa, aski interesgarritzat jotzen dudana; bere osasun-arazoez eta kezkez mintzo zait [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 27)].

Erantzun nion, noski, *Mundaiz* bilduman plazaratu tesiaren II. tomoan transkribatu nuela seigarren folioan zekarren hura *a Tenedo, Tenedo irlatic, irlatican*. Eta Lhandek ere bere hiztegian halaxe jasotzen duela

lapurterazko hitz gisa. Urteen eraginez edo noizbait *irla* atera bazait nire testuetan, Mikel adiskideak nahikoa adar jo egin izan dit barrez lehertu-rik, berarentzat lege nagusia zaharren erabilera baita.

Abuztuak 31.

Igandea. Iritsi gara Montparnasseko geltokira. Beraz, Parisen gaude berriro. Maratoi egunean suertatu gara eta ez dabil autobusik. Male-tak hartu, eta gurpiltxoei esker, bagoaz gehiegi nekatu gabe aurkitzen dugun lehen jatetxera: *Au chien qui fume*. Zakur erretzailea. Diseinu xume eta polita, zakurra pipan erretzen. 15:30ak dira. Lau ordu eta erdi ibili ondoren, *Place de Vosges*en musika latino-amerikarra entzuten eta atseden hartzen gaude orain. Hotelera goaz eta Margari ez zaio gustatu gela, maindireak zabaldu eta panorama ikusiz. Alde egitea erabakitzen dugu. Eskatzen dut kontua ordaintzeko eta galdetzen dit atezain pakis-tandarrak ea zergatik goazen, horixe erabaki dugula besterik gabe eta ordaintzen diot.

Ospa, alde hemendik, ea hotel txukunago bat aurkitzen dugun ez oso urrun.

Irailak 1.

UNED, Parisen garai batean Euskal Gobernua egon zen egoitzan dago kokatua, eta baita *Cervantes Institutua* ere. Alma-Marceau metro-tik nahiko gertu eta bertako gorputz eta arima Paco de la Rosa idazkaria da. Zuzendaria, Jesús Martínez Dorronsoro hernaniarra; eta irakasleeta-ko bat Mikel Peziña nire Salamancako adiskidea. Jose Maria Lucasekin batera nago azterketak zuzentzen, baina lan handirik ez dagoenez, aski libre geratzen zaigu eguna, erdizka banatuz.

Irailak 2.

Gaur 57 urte bete ditut eta goizeko zortzi eta erdietan azterketak banatu ondoren, aski egun lasaia aurretik. *La Seine* ibai ertzetako bu-kinistei begirada ematen diet, baina aspaldi da ez daitekeela ia deus in-teresgarririk aurkitu bertan. Balada zaharren peskizan nabil. Dena den beti da atsegin ibai ondotik paseatzea gabarrak eta ontziak ibaian gora eta behera nola doazen ikusiz. *Musée des Arts et des Métiers* delakoan Léon Foucaulten pendulua miresten dugu, non frogatzen den lurraren

jirabira. Afaria *Le square Trousseau* jatetxean, kiosko pollit baten inguruan. Entsalada, zola, txipiroiak eta ardo zuria, *Le Cour Cheverny,* zuri lehorra, luziendar zerbitzariak esan zidan eran.

Irailak 3.

Chantillyra goaz txangoan, egun pasa. Condé Museoko liburutegiak liluraturik utzi nau eta Adrien Morronten *Recueil des Chansons,* Rouen 1620 edizioak ere hortzak luzatu dizkit. Bai, halaber, 1470eko Petrarcaren lanak. Eskuizkribuak, inkunableak, zer ez… Gero, parketik zehar ibili ondoren, eskulturak, tenplotxoak, belardiak, urtegiak eta ahateak kontenplatuz, taberna bilakatu txabolatxo xalo batean entsalada xume biz eta kafe banaz elikatzen gara.

Irailak 4.

Goizean goiz berriro UNEDen. Ateak zabaldu, azterketak antolatu, banatu eta idazten duten bitartean, Lucien Febvre-ren *Amour sacré, amour profane, Autour de l'Heptaméron* irakurtzen dut, *El País*i errepasoa eman ondoren. Nafarroako erreginaren arteaz eta fedeaz, XVI. mendeko andere miresgarri haren, jakintsuenaren testuei buruzko komentario zehatzak. Bai lekuen bai bizi ixtorioen egiantzekotasunaren garrantzia. Afaria *Le Petit Pontoise*n entsalada eta bakailaoa…

Irailak 6.

Larunbata. Atzo gauean Pilar Algarra, Cervanteseko ekitaldi kulturalen zuzendaria ezagutu nuen, Valentzia aldekoa, zehazki el Xinorlet, Monovarkoa, telebistan urte anitz lanean aritua eta antzerki bat idatzia. Peziñarekin, Pakorekin eta Garmendiarekin Mario Onaindiaren bizitzaz eta heriotzaz mintzatu gara. Egin zituen deklarazioez. Konstituzionalista, nazionalista eta gisako etiketez eta sinplekeriez. Ez al dira bada konstituzionalista alderdikideak, eta nola ETAk egindako hilketek desitxuratzen dituzten ikuspegi anitz, gauzak aztertzeko moduak eta irizpideak. Eva, Vincent, Pako eta beste batzuk jatetxe libanoar benetan ona den batean egon gara. Vincent frantsesa da, eta Sarkozyren miresle agertu zaigu. Antza denez, balio handiko politikotzat baitauka. Eva *malagueña* da, aspaldi Parisen dagoena eta bi seme-alaben ama. Benetan oso koadrila atsegina eta kultura zabalekoa osatzen dute.

Irailak 7.

Goizetik Saharako erakusketan izan gara. Bertako desertuak, palmondotegi eta oasiak, hala nola Kristo baino bostehun urte lehenagoko zenbait pintura. Oso estilizatuak, abereak, gizon ehiztariak, emakumeak, eta abar. *Samo* izeneko jatetxe korear batean bazkaltzen dugu, bandeja handi batean hamabi kikera ezberdinetako jakiak bertako zerbezarekin dastatzen ditugularik.

Irailak 9.

Troyes. Hamaikak eta hamarrean iritsi naiz trenez hiri honetara eta ordu bata laurden gutxi arte ibili naiz batera eta bestera, liburu-dendetan gelditu gabe bakar-bakarrik, pastoralen iturri eta etorki ziren *Bibliothèque bleue* delako edizio zaharren bila. Liburu-saltzaile guztien erantzuna bera izan da… *introuvables…* aurkiezinak. Kalitate gutxikoak baitziren, eta papera ere eskasa zutenez, ez zuten irauten luzaro eta bukinistek ez diete balore handirik ematen. Beraz, Liburutegira joan beharko dut eta han kontsultatu interesatzen zaizkidanak. Sartzen naiz eta erakusten dizkidate kontsultatu nahi ditudanak, ohar batzuk hartzen ditut eta Parisera itzultzen naiz, eta Margarekin afaltzen dugu *La Fontaine de Mars*en. Pariseko bistroetarik zaharrenetarikoa. Dotore, bere gortina txuri-gorriekin. Janari frantses klasikoa. Hau da hau multzo bitxia! Adin orotariko gizon eta emakume bapoak. Parisen xarma. Gizon zaharrak sabel-zorro galantadunak modeloa izan daitekeen neskatxa beltxaranarekin, eta hau, aldamenean baitut, entzun dut, gauza izpiritualak behar dituela, esanez. Burges familia guraso eta seme-alabak, neska japoniarrak aurpegia portzelanazkoa dutela diruditenak, ingeles amerikar garaiak, ahots gora besterik mintzatzen ez dakitenak. Zein baino zein txotxoloago. Bada *espadone à la basquaise*, beraz, ezpatarraina euskal erara bada, probatu egin beharko. Azkenean hau dena irensteko kafearen ondoren *un petit calva(dos), kalva* bana eskatu dugu.

Irailak 10.

Montparnasseko geltokian bazkaltzen dugu eta trenean lasai-lasai irakurtzen dugu erositako zenbait liburu: *Le Catalogue de la Bibliothè-*

que bleue de Troyes, eta Milan Kunderaren *L'Art du roman,* ea ideiaren bat ematen didan, beti ariketa kritiko-literarioak idazten ez egoteko. Donibane Lohizuneko geltokian eri bat grabea omen dago trenean eta bertan denbora pixka bat igarotzen dugu, Euskal Herriko usaina gertu daukagula eta pozik.

Irailak 25.

Alfonso Sastrek Hondarribitik, *Historia de la Literatura Vasca* liburua bidali ondoren, honako ohartxoa igorri dit: *Querido Patri: ¡Gracias mil por tu precioso regalo! Un Abrazo muy afectuoso. Alfonso.*

Urriak 7.

Aurtengo Poesia Sari Nazionalera 31 poema bilduma aurkeztu dira eta zenbait botazio eta iritzi trukeren ondoren, Julia Ucedaren *En el viento hacia el mar* saritzen dute. Nik Juan Kruz Igerabideren *Mailu isila* proposatu dut, *Succiones* itzulpena ez gustatu arren, nire ustez hoberentsuenetakoa baita. Norgehiagoka honetan poeta gehienak andaluziarrak dira, baina hor dago Carles Miralles ere, *D'Aspra dolcesa*rekin, Joan Margarit, *Joana*rekin, Rosa Escudero *Cifra y aroma*rekin, Agustin García Calvoren musa eta UNEDen lankide daukadana, injenioz betea, herri-kanta eta kultuen arteko lotura ederrez apaindua.

Urriak 25.

Irun Poesia Sariak. Hondarribiko Karlos V Paradorean. Kutxako idazkaria eta epaimahaia bildu gara, ohi bezala: Santiago Aizarna, Henrike Knörr, Lourdes Otaegi, Iñaki Aldekoa eta neroni. Bakoitzak bere iritzia eman duelarik, Aizarnak beti bezala makinaz joa dakar bere testu komentarioa, iruzkin gutxien egiten duena Henrike da eta azkenean, deliberamenduen ondoren, Joxe Agustin Arrieta Ugartetxearen *Orbaibar* obra hoberenetsi dugu. Kontrazalaren barne partea, Lourdesek esaten duen bezala, *Testuartekotasuna eta hizkuntza-jokoa errealitatearen konplexutasunaren mimetismoaren ikur: poesia barne-mamuen gatazkaleku antzetsua, jokatua eta xehekatua da autorearentzat.* Zortzi urte igaro dira *Grafittien Ganbara* saritu genionez geroztik, eta hau ere lan bikaina zen, metafora ederrez jantzia eta poesiaz hausnarketa sakonak zekartzana, polemikoa eta kritikoa.

Azaroak 19.

Jabier Muguruzaren kantaldia *Clamores*en. Zerbeza bat edaten dudan bitartean, Muguruzak bere *Enegarren postala* disko berria presentatzen du. Ez gaude asko baina bai euskal kanten fidelak, *El País*eko Fernando Neirak dioen bezala, *Una voz lúcida* titulatzen duen artikuluan. Jabierrek akordeoia eta ahotsa jarri ditu, Txema Garcések baxua, Joseba Loinaz pianoan aritu da eta Rufo Urbina bateriarekin. Bertso ederrak eta kanta antimilitarista umorez betea… Jazz klub xuabe batean gaudela dirudi, eta entzule-kantariaren arteko harremana fina, errespetuzkoa, gozoa. Agurtu eta etxera.

Abenduak 12.

Ostirala. Ohi bezala Bilboko Euskaltzaindiaren egoitzan ematen dira Toribio Altzaga sariak. Bederatzi antzerki epaitzeko eta beren balio dramatikoak eta euskararen kalitatea kontuan harturik, *Ama, hor al zaude,* obra saritu dugu ohiko epaimahaiak, Danielek, Eugeniok eta neronek; Pablo Barrio aguraindarra gertatu da egilea. Afrikako beltzen herrialdeetako ixtorioak. Petrolioa lapurtu eta saltzetik nola bizi diren… medizina-arazoak…, egun-egungo erreportajea antzeztua.

Abenduak 17.

Marijose López de Ayala lankide eta adiskide ona hil da minbiziak jota. Hileta-elizkizuna, solas unibertsitarioak tarteko, oso hotza iruditu zait. Ez dago konparatzerik, noski, hileta-elizkizunetan Bergaran edo Lezon biltzen den jende kopuruarekin eta abesbatzen ederrarekin, herriaren presentziak ematen duen elkartasunarekin.

Urte honetan bibliografiara begirada bat emanez gero, hor ikusten ditut, besteak beste, poeta afganoen nire itzulpen batzuk eta Iratzeder, Itxaro Borda eta Mikel Arregiren (hau aspaldian poemarik argitaratu gabea, baina azken finean adiskidearen eskaerari amore emana) poema hautaketa *SERTA*, *revista iberorrománica de poesía y pensamiento poético* aipatuan, eta "Baladen itzultze eta moldatze moduez" *Lapurdum*en, zeinaz geroxeago, hots, *Balada zaharrez* liburutxoa argitaratuko dudanean (2005) mintzatuko naizen.



Irudia 65. REVISTA IBERORROMÁNICA
SERTA. POESÍA Y PENSAMIENTO POÉTICO
UNED 1999…

2004

Urtarrilak 8.

GAUR goizean *El País* irakurri dudalarik, ohartu naiz gauean Ruper Ordorikak bere azken diskoa, *Kantuok jartzen ditut* aurkeztuko duela *Galileo Galilei* musika aretoan. Teresa Sanchez eta Fernando Sanz adiskideei deitu diet –irakaslea bata eta editorea bestea–, eta oso pozik animatu dira euskaldunaren kontzertua entzutera. Egunkariak dioenez, *El de Ruper es un rock pausado y reflexivo, que analiza la cotidianidad con lenguaje coloquial y profundidad en la mirada: suele decir que le gusta que su música tenga "un componente balsámico, algo terapéutico"*. Beraz, daukan rokero-kutsua ez da besteena bezain gogorra, gozoa, eztia eta iradokizunez betea baizik. Zerbeza bana edan dugu plazer handiz entzuten dugun bitartean, euskal kantak gozatuz, eta gero, bukatutakoan, Fernando eta Teresarekin agurtzera joan naiz. Fernandok eta Ruperrek elkar ezagutzen zuten eta Cádizeko musika-festibal batean elkarrekin egonak ziren… *Una noche mágica.*

Urtarrilak 19/23.


Valentzia. Azterketak. Lo katedraletik ez oso urrun dagoen *Hotel Inglés*en. UNEDen egoitza aski urrun dago eta ikasle kopurua izugarri handia da. Beraz, sistema berriarekin, ordu pare bat egon gara begiak ordenagailutik altxatu gabe. *El Pese*ten bazkaldu. *El asilo del libro* liburu-denda bisitatu eta lankideekin *huntaz eta hartaz* berriketan aritu ondoren amaitzen dugu batzuetan benetan lan gogorra bilakatzen den hau, dena ongi bilaka dadin, irakasle eta ikasleen artean inolako arazorik gerta ez dadin, ez eta txinpartarik piztu.

Urtarrilak 31.

Donostia Hiria Antzerki Saria. Hamar antzerki-lan aurkeztu dira eta erabakitzen dugu *Clitemnestra-ren itzulera* hoberenestea. Alaitz Olaizolak moldaturiko lan interesgarria gertatzen da irabazle. Bazkarian Joan Perez de Lazarragaren euskal eskuizkribua Gipuzkoako Diputazioak erosi duela informatzen didate, Borja Aginagalde artxibozaina bitarteko, eta sarean ipiniko dutela eskegita, otsailaren 18an.

Otsailak 7.

Errezilen Maria Dolores Agirre omendu dugu. Nire arreba Marikrutxekin joan naiz ekitaldira. Eta bazkalondoan, Miren Azkaratek hitz batzuk egin ondoren, Guillermo Etxeberriak, *Egan* aldizkariko zuzendariak, hitza ematen dit eta nik antzerkigilearen bizitzako zertzelada batzuk kontatu ondoren, euskal teatroan daukan lekua eta garrantzia azpimarratzen dut. Gero neronek idatzitako ehun orrialdeko lana, hau da, *María Dolores Agirre eta Euskal Antzertia* banatzen da. Hitzaurre baten ondoren, bertan jaso dut Michael V. Gazzoren *A Hatful of Rain, Txapela bete euri* ere, Maria Doloresek itzulia eta neronek egungo grafiara egokitua.



Irudia 66: Maria Dolores Agirre eta euskal Antzertia.
Eta Michael V. Gazzoren, Txapela bete euri antzerkia.

Maiatzak 10.

Vidal Lamiquiz lankide gasteiztarrarekin geratu naiz afaltzeko Plaza San Nicolásen duten *Txoko zar* izeneko soziedadean. Trena Chamartina iritsi bezain azkar taxia hartu eta banoa Madrileko hiribarnera gauean

Castellanako banku eta dorretxe argituak kontenplatuz. Sartzeko txokoan, Lamikizek komentatu didan bezala, atarian lurreko harlauzan pegatsirik dagoen Francoren aurpegidun moneta zapaldu behar da. Eta antza, afaltiar denak, apaiz bat ere tartean badelarik, aski tripazale finak dira eta politikoki ez galegoaren zaleak.

Maiatzak 18.

Euskal Etxean egiten dugu Galeuzkaren orain arteko hizkuntza eta literatura libururik mardulenaren presentazioa. *Introducción a las lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca.* Aldamenean ditut Josep-Antoni Ysern katalana eta Manuel Rodríguez galegoa, eta gure hizkuntzen ezagutarazteko eginiko lanak aipatzen ditut. Azken finean, ez dugula UNEDen izpiritua eta Konstituzioaren hirugarren artikuluko hirugarren atalak dioena betetzen baizik. *La riqueza de las diferentes variantes lingüísticas de España es una herencia cultural que será objeto de respeto y protección especial* dioena. Nola Espainia, Europa eta Humanitatearen ondare eta, horrenbestez, kultura unibertsalarena den euskara, eta bere galerak Espainiako Prehistoria eta historiaren ezagutzan giltzarri funtsezkoenetarikoa den elementua galtzea ekarriko lukeela. Denok aberastu gaitezkeela eta behar dugula Bestearen ezagutza sakonago batekin, elkarren arteko komunikazio *adeitsuago, kultuago, toleranteago eta libreago bat osatu.* Diskurtso ezberdinen, ondoren Patxi Aranbururen eta Euskal Etxearen eskuzabaltasunez ardo nafarra dastatzen dugu pintxo batzuekin harmonia onean.


Maiatzak 23-29.

Bazako UNEDeko egoitzan azterketak zaintzen. Igandean hegazkinez Granadako aireportura eta handik taxiz iristen naiz hotelera eta itxita dago. Euri-zaparrada handia ari du eta lanak ditut taberna batean aterpea aurkitzeko. *Iglesia Mayor de la Encarnación*, katedrala, mezkita baten gainean eraikia. Bertakoa omen zen, abizenak adierazten duenez, Ibn al-Quaysi al-Basti poeta, besteren artean. UNEDeko zuzendaria zientzietako irakasle gazte bat da, Madriletik astero beribilez etortzen dena. Inguruak ikustera eramaten gaitu. Urtegi bukatu gabeak… Kobazuloak. Lan gutxi daukagu ikasle guztiak gela berean sar baitaitezke.

Egun bat libre suertatu zait eta Motrilera noa autobusez, bertan baitago lan berdintsua egiten Anjelita lankidea ere, nire adiskide ona den Bizente Granadosen emaztea. Polita da benetan Motril eta UNEDeko egoitza. Kostan daukan etxea erakusten dit. Landare ederrez apaindurriko jardina dauka, itsasoari begira, *peñoian*, haizpean, eskailera batzuez uretara jaitsi daitekeelarik. Gero Anjelitaren anaiak daukan jatetxera goaz, non arrain fresko ongi prestatuaz eta ardo zuri benetan gustagarriaz gozatzen dugun. Berriketa ere atsegina, andaluziar hauena. Egun on bat eta paraje berriak ikusita, itzultzen naiz Bazara, eta han lanak bukatutakoan Donostiara berriro.

Maiatzak 31.

Interneten Lazarragaren eskuizkribua eskegi zenez gero, buru-belarri murgildu naiz haren ikerketan. Lehenik paperera pasatzen, eta gero transkripzioa egiten, une bat galdu gabe. Lan honek egunean hamar ordutik gora eraman dit zenbait hilabetez. Xabier Kintanak, Henrike Knörrek, Martin Ansok, Xabier G. Argüellok, Jon Kortazarrek, Da-



Irudia 67: Joan Perez de Lazarraga, *Dianea eta koplak* (Madrid 1564)
Eskuizkribuaren ikerketa eta faksimilea. Erein, Donostia 2004.

bid Tabernak, Alberto Barandiaranek eta Pruden Gartziak, besteen artean, diotena arreta handiz irakurri dut. Bibliografiek eta historialariek, Allende Salazarrek eta Landazurik zer zioten Lazarragaz. Konturatzen naiz Juan Monterok egin Jorge de Montemayor-en *La Diana* obraz idatzitako tesiaren edizioa irakurriz, zeinak Juan Bautista de Avalle-Arceren hitzaurrea daraman, Lazarraga gazteak modan zegoen artzain-eleberriaren moldaketa idatzi zuela, tamalez hutsunez betea iritsi zaigun zati hori. Latinera, frantsesera, italierara, ingelesera, alemanera, katalanera bezala, Montemayor euskarara itzultzen eta moldatzen saiatu zela. Gai nagusia garai hartan oso ezaguna zen bilantziko baten errepika hura zen, *Amor loco, ¡ay, amor loco! / Yo por vos y vos por otro.*

Kantutegiari zegokionez, konturatu nintzen bazirela erlijiozko, amodiozko poemak, irrigarriak, baladak eta beste. Pasio Santuari buruzko poema berrirakurriz, batek galde dezake ea ez ote zen Larreako errepresentazio batean erabili, jakina baita Araban 1511n, Gesaltza-Salinas de Añanan, hain zehazki, *Remembranzas de la Pasión* delakoa ere antzeztu zela. Halaber, euskarazko idatzi zen lehen bilantzikoa idatzi zuela, Francisco de Ocañaren *Cancionero*tik hartuta, zeina Francisco de Salinas musikoak jasotako *Al tono de… No me lo digays madre a Fray Anton / Buenas nuevas Buenas / Perucho y Antón,* doinuaren arabera kantatuko zen. Eta 1564an gertatu Salbatierrako Suteari buruzko balada *Cancionero de La Colombina*ko *Antes era el día / ya salia el lucero* airearen moldean pentsatua eta idatzia zegoela. Amodiozko kantei zegokienez, besteak beste, *Aitak ezkondu ezpanagi / neurau ni ezkonduko nax sarri,* bertsoekin hasi zuen kanta Karlos V.aren gortean Cornelius Canis (Gante, 1506-1562) kantari zenaren *Mariez moy, mon père* poemaren bertsioa. Bazirela *La Bella malmaridada*, hots, Eder Malezkonduaren, eta *La Bella Malmonjada*, Eder Malmonjaraziaren aldaerak… Bazirela hiru poema letra ezberdinez idatziak, María Estibaliz de Sasiola debar emakume familia aberatsekoak sortuak. Eta abar. Sarrera luzexka bat, hau da, 70 orrialdekoa, eta eranskin zenbait ezartzen nizkion edizioari, hala nola ohar argigarri batzuk: 700dik gora. Beraz, egoki iruditu zitzaion Iñaki Aldekoari burutu nuen edizioa, eta *Erein* argitaletxeak argitaratzea erabaki zuen, hamabi urte itxaron gabe Joseba Lakarrak egin elkarrizketa batean eskatzen zuen eta iragartzen zuen bezala.

Ekainak 1/2.

Portugaleten berriro prestatu Selektibitateko azterketak egin genituen, Iparraldekoentzat euskarazko itzulpenarekin. Bertan, ohi bezala, ikasleei laguntzen eta zituzten dudak eta zalantzak, hala nola konprenitzen ez zituzten hitzak argitzen saiatu ginen.

Uztailak 1.

Lazarragaren eskuizkribuaren aurkezpena Konstituzioko Liburutegiko sotoan. *Joan Perez de Lazarraga, Dianea & Koplak. Madrid 1567,* titulatu dut liburua zalantza batzuen ondoren, funtsean liburuaren mamia jasotzen eta kokatzen duelako. Borja Aginagalde historialari eta artxibozainari aurkikuntzagatik, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Ahaldun Nagusiari Errenazimentuko euskal altxor hura erosteagatik, eta lana burutzen lagundu didatenei ohiko eskerrak. Sarrera, transkripzioa eta faksimilearen balioa ederretsi eta galdera batzuei erantzun ondoren, Parte Zaharreko jatetxe batera joan gara bazkaltzera, tartean gaudelarik Iñaki Aldekoa editorea, Ramon Saizarbitoria adiskidea, Txuma Lasagabaster irakaslea, argitaletxeko batzuk eta neroni.

Uztailak 2.

Felix Ibargutxik bere xumetasun eta era berean zehaztasunean *El Diario Vasco*ko Kultura saileko euskal orrialdean Lazarragaren lehen edizio kritikoaren berri ematen du paperean eta ezagutzen dugun euskara-gaztelaniazko lehen bilantzikoa transkribatzen du.

Uztailak 19.

Lleidan Pirinio katalanean atseden hartzen. *Aigües Tortes* aldean ibilaldi batzuk gora eta behera Land-Rover batean kilometro batzuk egin eta gero. San Maurizioren lakua eta bertako ur aratzak eta mendi gailur zorrotz ikusgarriak. Eta, nola ez, gizonen obra diren *Boi-Taüll*eko eliza eta dorre erromanikoak.

Uztailak 20.

*Deia*k uztailaren 20an Euskal Kulturari eskaini *Ortzadar* eranskinean Lazarragaren argitalpenaren berri ematen du Patxi Sarriegiren tes-

tuaz eta Alberto Guerreroren argazkiz horniturik. Eranskin gisara Iñaki Aldekoaren hitzak dakartza, alegia, lehen bertsioa dela Lazarragaren testuan barrena, etorriko direla gehiago… baina literaturzaleok badugula lehenago ez genuen materialik aurrera egiteko. Etorkizunean egingo direnen abiapuntu ere badela, eta transkripzioaz gain, garai eta literatur korronteen barruan kokatu duela Urkizuk Lazarraga.

Irailak 16.

Josep Maria Flotats eta Carmelo Gómezek antzezten duten Jean Claude Brisville antzerkigilearen *La cena* ikusten izan naiz Madrileko *Bellas Artes*en eta izugarri gustatu zait. Parisen arrakasta handiz estreinatua, Tayllerand eta Fouchéren arteko elkarrizketa politiko, ziniko eta beldurgarriak barrenean izua sartzeko modukoak dira, eta benetan dotore jokatu dute, ikusleak Frantziako Iraultzaren ondorengo garai nahasietan murgilduz.

Urriak 16.

Irun Hiria Poesia sariak. Ohi bezala udazkeneko literatura-jaia. Igor Estankonaren *Ehiza eta Nekea* poema liburua hoberenesten eta saritzen dugu. Nabari da joan den urteko sariduna eta hau belaunaldi ezberdinekoak direla, adinez eta mailez. Xabier Mendiguren beasaindarrak egin aurkezpen ondoko liburuaren komentarioan presentazioa erdi klandestinoa egin zela salatzen zuen *Berria*n eta Jon Kortazar poesia-kritikoak *El País*en dioskunez, *Askoz hobeto ikusten dut poema laburretan eta izadiaren irakurketa garbia egiten duenean.*

Azaroak 19.

Ostirala. Baionan Jardunaldi batzuk antolatzen dira *XVIII. mendea. Euskal Herria Letretan eta Historia* gaiaren inguruan eta ni Racineren *Esther* antzerkiaz Jean Espil Mendiko maisuak XVII. mendean euskara ederrean eginiko moldaketaz mintzo naiz. Konparazioan ohartu naiz nola moldatzen dituzten pastoralgileek beren lanak. Batzuetan testua irentsiz, baina bestetan beren gogoko zerbait erantsiz, hala nola Racinek *Je ne sais si ce tigre a reconnu sa proie* (942. b.) dioenean, Espilek honela itzultzen baitu: *Khanpoti uduri dizu axuri emia / Bena bihotza krudelago eziez eta tigria* (494. b.). Eta orobat Esther, Bibliako emakume eder

eta bortitzak izan dituen bertsioez eta moldaketa modernoez, hala nola Armand Lunel eta Darius Milhaudek eraberritu *Esther de Carpentras* obraz, edota Salvador Espriu idazle katalanak bere aldetik 1948an *Primera Historia d'Esther* idatzi zuenean frankismopean zegoen herri katalanaren eta juduaren artean egin zuen analogiaz. Antzerki hau 1968an Donostian ikusi ahal izan genuen, Rikardo Salvat zuzendari zuela.

Azaroak 28.

Toribio Alzaga sarira sei antzerki aurkeztu dira eta etxe ondoko *Esparru* taberna-jatetxean erabakitzen dugu Eugeniok, Danielek eta neronek nori eman, dituen balioak kontuan hartuta, berriro Pantzo Hirigarayren *40 urteak* hobesten dugularik. Ohiko umore eta kritika sozialaren ildotik doan antzerkia, euskara arin eta aberatsean.

Abenduak 16.

Lehenik, Plaza Olabiden Madrileko adiskideekin, Txema eta Elena arkitektoekin, Fernando editorearekin, Laura psikologuarekin eta Teresa historiairakaslearekin zerbeza batzuk edaten, zertxobait jaten eta egoera politikoa komentatzen egon naiz. Oso kritikoak dira gobernatzen gaituztenekin eta arrazoirik ez zaie falta. Arazoa, ohi bezala, nola kontra egin hauteskundeetarik at. Gero, Gaztambide kaleko *Restaurante Sazadon*en departamentukoen afaria. Beraz, euskaldun jatorrizko gizonek utzi zuten bere txertoa Madrileko kale eta plazen izenetan. Jenaro ohitura onak berreskuratzen hasi da eta bi brindis egin ditu. Bat Marijose López de Ayalaren, lankide hilaren oroimenez, eta bestea berriro departamentuko zuzendaritza hartu duelako. Aldamenean nengoen eta galdetu diot zein izan daitekeen UNED instituzioaren etorkizuna. Antza denez, dagoen-dagoenean utzita bere egungo funtzionamenduan hobe aldaketa egiten hastea baino.

Abenduak 22.

Lander Garrok *Oarsoaldeko hitza*n adieraziko duenez, Errenteria-Orereta delakoan, Juan Karlos Jiménez de Aberasturik aldamenean Juan Karlos Merino zinegotzia duela egin da Udaletxeak argitaratzen duen errebistaren aurkezpena: *Bilduma 18. 2004*, non plazaratu ditudan *Koldo Mitxelenaren euskal gutunak (1951-1984)*. Lan honetan,

Koldo Mitxelenaren *Opera Minora* liratekeenetarik 236 euskal gutun biltzen, aztertzen eta plazaratzen ditut. Gehienak argitaragabeak (Jose Maria Satrustegik moldiztegiratu gutxi batzuez at) eta Donostiako KM kulturuneko liburutegian eta Euskaltzaindikoan aurkituak. Bere tipitasunean, ordea, badute gutun hauek interes berezirik, alde ezkutu bat ezagutzeko, alegia, bai zenbait kultura gertakizunen, bai zenbait liburuen eta artikulu-poema-itzulpenen argitaratze aurreko gorabeherak argi berriz ikus daitezkeela. *Egan* literatur aldizkariko zuzendari gisa zein nolako lanak burutu zituen, frankismoaren urte zail eta gogortsuenetan animatzaile eta bultzatzaile moduan, eta irakasle bezala zein era zehatz eta zorrotzean zeramatzan ikasgai, biltzar eta jardunaldiak. Halaber, eta besteak beste, zein irizpide taxuzkoz antolatu zuen euskararen batasunerako hain garrantzizkoa izan zen 1968ko Arantzatzuko Biltzarra ere ikus dezakegu gutun hauen bitartez. Hizkuntzalari ez ezik, literatur kritikari, kultur eragile nekaezin eta idazle aparta agertzeaz gain, bidenabar gutunotan jakintsuaren irudia samurberago egiten zaigu.

Errebistak bigarren partean Gerardo Elorzaren lan zehatz eta luzea xehetasunez ematen digu: Oñatiko Unibertsitateko liburu katalogoa, *La biblioteca de la Universidad de Oñati.* Bi liburuxka zitezkeenak errebista batean biltzeko arrazoiak agertzea ez legoke gaizki. Nire partetik, esan behar dut, bazirela urte batzuk edizioa prestatua nuela, baina *Susa*koekin eta Eusko Ikaskuntzakoekin eztabaidak, oztopo eta eragozpenak eduki nituen arren, lortu dudala nire adiskide Juan Karlosi esker, eta honen medioz, Koldoren gutundegi hau plazaratzea, berak lortu baitu Matilde, Koldoren emaztearen baimena.

Nire partetik edizioaren bitartez sor litezkeen sos apurrak eta lanari legozkiokeenak alargunari emateko esan diot errebistaren zuzendariari. Plazaratzea lortzen dudan hirugarren gutundegia da, eta ez dira gizon makalak hirurak, XX. mendeko euskal letretan: Jon Mirande (Susa, 1995), Andima Ibiñagabeitia (Susa, 2000) eta Koldo Mitxelena (Errenteria, 2004).

Abenduak 26.

TGVn bagoaz Marga eta biok Parisera bidean. Igandetik igandera. Beraz, Urte Zaharra aspaldiko partez etxean igaro ordez, lehen aldiz Frantziako hiri nagusian emango dugu biok bakarrik. Kazkabarra bota du

goizean eta Errenteriako parean dena zuri-zuri zegoen, elurrez estalita. Landetarik pasatzen ari gara orain, Akize jadanik iragana dugu eta zelai--soroak, zabaldi handiak busti-busti eginda daude; halere eguzkia diz-diz dago eta zerua urdin. Neguko igande bat bidaiatzeko ez da egun txarra. Bagoian bero dago, eguzkiak jotzen duelarik. Marga Hendaiako geltokian erositako *L'Officiel des spectacles* arakatzen ari da, eta nik denda bateko teatro-katalogoa errepasatzen dut. Noizbait argitaratuko nituzkeen teatrogile ospetsuen libururako materialak prestatu nahiz edo…

Itxaron du egunkari honek egun batzuk lanik gabe, baina bururatu zait egunero bisitatu beharko nukeela, gora-beheren, gomuten eta asmoen berri ematearren, gutxienez. Orain kafesne bat hartzera goaz treneko kafetegira, ea zangoak luzatzen ditugun. Gustua hartzen ari natzaio *Moleskine* koadernoari, emankor nahiko nukeen harreman honi.

Arratsaldeko hirurak. Iritsi gara Montparnasseko geltokira berriro. Bidaia labur egin zait, César Olivak idatzitako *Historia básica del arte escénico* irakurriz. Autobusa hartu eta St. Michel-eraino eta handik oinez *Rue des Carmes*eko *Hôtel des Carmes* ostatu xume bi izarretakora iritsi gara. Gela hautatu, hiru ikusi ondoren, balisak utzi eta bagoaz Nôtre Dame berrikustera. Jatetxe asiatikoak itxita daudenez, *Brasserie de l'île Saint-Louis*en sartu gara zopa bero bat hartzera, eta hiri handitan gertatu ohi den bezala, ez dago ordurik bazkaltzeko. Xukruta eta zerrikia eskatu dugu. Benetan oso ona dago aza eta zer esanik ez odolki, txistorra eta urdaikiak. Zerbeza alkoholik gabea eta kafea. Hogeita bosna euro ordaindu eta paseatzera La Seineko ibaiertzetik. *Institut du monde arabe*ra iritsi gara eta faraoiei buruzko erakusketa ikusteko ilara gaur oso luzea denez, alfonbrak, kilimak, tapizak ikustera sartu gara, irakasle karnetaz erredukzio pittin bat egin digutelarik. Hau bai dela artilearen eta koloreen sinfonia ikusgarria! Landareez eta abereez lortutako margo berde, gorri, urdin, zuriz eginda daude eta begientzat plazer hutsa dira. Benetan dastagarri eta denborarik gabe eternitate osoan begira egon zaitezke obra hauen aurrean. Liburu-denda, aldiz, jendez estalita dago eta ezin da, ia beti bezala, lasai begiratu libururik. *Qantara* errebistaren fotografiak benetan kalitatezkoak dira, artikuluak aski arinak dirudite…

Saint Efren elizan 19:30ean *Carmina Burana* entzutera sartu gara bakoitzak 23 euro ordaindu ondoren. Eliza honetakoek erritu siriarra darabilte beren zeremonietan. Horman irakurri dut iragarkien artean

arameera- eta arabiera-klaseak ere ematen dituztela. Lehen lerroetan gaude eta latinoamerikar batzuk espainolez mintzo dira. Hasi da *Ensemble Alegria* taldearen kontzertua. Bi xirulari eta danborraria. Bertsio xumea da hau, kantuak antzinako goliardoen erara moldatzen saiatzen dena. Latinez *Exultemus et cantemus,* kantarekin hasten dira. Hau da, kanta diezaiogun Jainkoari. Ondoren *Vinum bonum et suave*, alegia, ardo txarraren kontrako abestia dugu. Kantari bakarra da eta hiru musika-jotzaile, Erdi Aroko soinu-erraminta anitzekin: arrabita, kitarra, xilibitua, zanpoina. *Fornicate… Amen*! Kanta izpiritualak eta barregarriak txandakatzen dira. Doinu batzuk faltsete ahotsez moldatzen dituzte, garaian kantatu ohi zen moduan. Erdi Aroko irudietan juglarrak daukan itxura dauka kantari nagusiak. *Ubi amor, ibi miseria*. Non amodioa, han miseria. *O langueo,*… Sorterria utzi eta urrun doan estudiantea, Sorbonako ikaslea poliki-poliki nola argaltzen, ahultzen, histen doan… *Dum cignus ego fueram… nunc miser, niger…* Garai batean zisne zuria nintzen, orain platerean natzalarik hortz batzuk ikusten ditut ni jan nahirik. Errepresentazioa balitz bezala abeslari nagusiak zisnearen keinuak irudikatzen eta imitatzen ditu. Ikuskizuna aurrera doa eta orain aleman zaharrean neskatila negarrez mintzo da zaldunarekin. Bien ahotsak imitatzen ditu. Azkenetako kantak kontatzen digu nola neskatxa batek bazuen amorante on bat, baina gerria loditzen zaionean familiak abandonatu egin duen… *O Fortuna velut luna, statu variabilis…* O ilargia bezain aldakor den Zoria!

Kontzertua amaitutakoan *Chez Marienne*, jatetxe judutarrera goaz afaltzera. Karriketan kapelu eta ilaje luze ugari ikusten dugu. Gaueko bederatzi eta erdiak dira eta zenbait katilutan zerbitzatzen diguten menu arrunt bat eskatu dugu. Errepublikaren irudia den emazte txanodunari noizbehinka begiratuz eta solas atseginez dastatzen dugu afari xume eta apal hau.

Abenduak 27.

Goizean batere presarik gabe jaiki, gosaldu eta *Veronese profano*, italiar pintorearen erakusketa bisitatzen dugu. Luxemburgoko Jauregian Veroneseren 42 maisulan aurkezten dira. Ezezagunak, mitologia, alegoria eta erretratuena. Veneziako militar eta jaun burgesen erretratuak zehatzak eta miresgarriak. Eta batik bat emakume-ilaje eder orraztuek

haien edertasuna azpimarratzen duten koadro handiak. Lukreziaren belus berdeen artea, Nani malenkoniaz betea; andere modernoak dirudite. Baina, ohi bezala, jende gehiegi koadroak lasai ikusteko eta patxadan dastatu ahal izateko. Eguerdian *Place de Vosges*eko jatetxe batean bazkaldu ondoren eta zenbait liburu-denda bisitatuta, Saint Paul elizan Petrogradoko operako koroa entzutera goaz. Benetan ahots miresgarriak, batez ere baxua hunkigarria da. Tenorrak ere klar, argi eta ozenak. Emakumeenak guztiz miresgarriak. Errusiarren Eguberrietako kantak mendebaldekoen antzekoak dira, baina herri-abestiak direnean alaiagoak dirudite. Batek euskarazko *Aldapeko sagarraren adarraren puntan*… doinuarekin antz handia zeukan.

Abenduak 28.

Mouffetard kalean barrena ibili eta beste batzuk ere zanpatu ondoren, iritsi gara Pompidou Zentrora. Itsasoari buruzko erakusketa dago. Zenbat nekatzen duten batzuetan esposizioek, batez ere sarrerako ilarak luzeak direnean, erakusten diren margoak anitz direnean eta gure jasotze-ahalmena tipia denean. Lurrean ikusten ditut erdi etzanda, erdi eserita kolore guztietako neska-mutil koxkor taldeak. Leher eginda gaude, halere *100 ans de Musique Française* mostra ere ikusten dugu. Jende asko, batez ere emakume adindunak belarritako aparailuekin. Joséphine Baker-en film labur bat ikusi dut, 1926koa, non titiak erakusten dituen eta oinak bezain arin mugitzen dituen batera eta bestera, gorputz osoa ahots belusazkoa lagun. Hoteleranzko itzulera Seine ibaiaren ertzetik gabarroien bizimoduan soa geldituz. *Odeon*era iritsitakoan, taberna batean sartu naiz, *Brasserie-Tabac* batean eta kamamila eskatu dut. 1791n fundatu *Au petit suisse*n nago, eta hara non hemengo kamamila Jaizkibelgoa bezain mikatza den. Ea bada, konpontzen, berotzen eta pizten didan barnea, kamamilaren mila bertuteak goraipatzen baitzituen Betiri Urtekoak. Atseden pixka bat hartu ohean etzanda eta ondoan dagoen jatetxe tibetar batera goaz afaltzera. Euren aita santuaren erretratua aurrez aurre dudalarik, zopa bero bat afaltzen dugu eta azkenean jogurta eztiz nahasia, eta ondoren tea. Estomaka bere onera badatorrelakoan nago. Azkenean animatzen gara eta *Mondovino* filma ikusten dugu. Jonathan Nossiter-en dokumental honek bi ordu pasatxo ditu, eta ardoaren globalizazioa eta estandarizazioa aurkezten ditu. Kalifornia eta Bordele artean nola ari diren ardo edari mota ezberdinak uniformatzen,

Errioxan bezala, baina gehien gustatu zaidana da Borgoñako Montille familiaren joera eta beren arbasoengandik jasotako lur zati txikiari ematen dioten jokabidea, handiekin borrokatu gabe, naturaren jaidurari jarraikiz, ez dutelako maite Roland eta Parkerren diktadura. Ardoa dastatzerakoan ez du balio lehen inpresioak bakarrik, bigarren edota hirugarrenak gehiago balio dute, egiatiagoak dira, afaria aurrera doalarik, gero eta gogo hobez dastatzea ardoa. Ez frantsesek dioten eran, ez *largeur*-a, *longueur*-a baizik, ez zabalera, baizik eta luzera.

Abenduak 30.

Eskuko kalendarioa hartu behar izan dut zein egunetan gauden jakiteko. Osteguna da, beraz astea aurrera doakigu… Atzo Japoniako pinturak ikusi genituen *Grand Palais* deitu eraikineko esposizioan. Badirudi berritze lanak Estatuak ordaindu dituela, hau da, frantses guztiek eta *Petit Palais*eko lanak Udaletxeak, beraz, paristarrek soilik. Ongi eta zilegi ote zergen horrelako banaketa? Erakusketa handi eta tipiez mundu osoa baliatzen ahal da, baina biak daude Parisen kokatuak… Hainbeste ikusle dabil batetik bestera, non ia ezin baitira ikusi, esan nahi dut, patxadaz eta lasai ikusi, zeren eta prozesioan bezala ipini behar da eta itxaron ea aurrekoak noiz ematen duen bere pausoa, atzekoak, zuk zeure urratsa ere aitzinatzeko. Baina benetan XVII. eta XVIII. mendeetako irudi hauek, etxe barruetako bizimodua eta kale eta plazetakoa, mundu konplexu osoa kontatzen dutenak, ikusgarriak dira. Goitik behera begi batek, Jainko batek ikusiak baileuden daude pintatuak. Emakume arrantzaleak beren gona eta titiak airean benetan zoragarri, halaber kortesauak eta pintura erotikoak. Nabarmen da garai haietan eta ekialde urrun hartan bazirela beste moral eta ohitura batzuk, Mendebaldekoekin ikustekorik ia deusere ez zutenak.

Arratsaldean Pigalle ondotik ibilaldi bat egin ondoren Robert Capa fotografoaren esposizioa ikusi dugu Richelieu kaleko Liburutegi Nazionalean. Justu iritsi gara, zeren eta Urte Zaharrarekin batera amaitzen baita erakusketa. Baita hari dagokion liburua erosi ere, *Capa connu et inconnu.* Aitzinsolasa Jean-Noël Jeanneneyrena, eta edizioa Laure Beaumon-Mailletena. Fotografiak guztiz miresgarriak. Capa hungariarra zen, baina munduan zehar ibilia. Leon Trotskiren fotografia bat lortu zuen Kopenhaguen, eta *Vu, Regards* eta beste hainbat errebistatako erreportari

grafiko gisa ibili zen. Badu fotografia bat oso eztabaidatua izan dena, alegia, anarkista bat tiroz erortzen dena Espejo herriko frentean, *Mort d'un milicien. Cerro Muriano (Front de Cordoue) 5 septembre 1936,* benetakotzat ez baizik eta bereziki prestatutzat hartu izan dena. Eta horrek fotografoaren lanari ken diezaiokeen egiatasunari buruz, edota zilegitasunaz aski polemika izan da. Dena den, ausarta behar zen izan 1936tik 1954ra, Espainako gerra zibiletik Indotxinarainokoan bost gerra ezberdin fotografiatzen aritzeko, eta lehenik frentean hil zen Gerda Taro adiskide kuttunarekin. Benetan, espozizioko fotografien artean, *Regards*eko batzuek hunkitu naute, eta bertan Eusko Jaurlaritzaz egiten diren komentarioek, eta Sollube mendiko argazkiek. J.E. Pontermanek eta CHIMek ere (David Seymur) *A travers la République Basque* eginiko kronika.

Patrice Caillat-ek eginiko *Bibliographie de la presse française politique et d'information générale des origines à 1944, Pyrénées Atlantiques (anciennement Basses-Pyrénées)* delakoa, Euskal Herriko Iparraldean sortu aldizkarien zerrenda eta zehaztasunak ematen dituen liburuttoa erosi dut.

Gauean *Il Barbiere di Siviglia* opera ikusten dugu Bastillako antzokian, arratsaldeko zazpi eta erdietan. Ez naiz mintzatuko Gioacchino Rossinik 1816an konposatu musikaz ez Cesare Sterbiniren libretoaz ere, baina bai dekoratuaz apur bat. Lau ziren soilik. Hasierakoa, gaztelu bat desertuan, ez testuak dioenaren eran Sevillako plaza bat eta han gautxori, kondea, bere musika taldearekin errondan. Gero, *sono il factotum della cità*, hitzak eta irudiak ez datoz bat, zeren eta hiriburu andaluziarra kokatu ordez, orientalismoz betea dagoen eta gaur egun frantses batzuek hainbeste maite duten edo aspalditik gogoko duten ekialdeko leku ezezagun batean kokatu da ekintza. Adibidez, salgai dagoen liburutxoan Wazira, hamazazpi urteko errefuxiatu afgano-pakistandar baten 2001eko fotografia ageri da. Honela bilakatu bide dute ixtorioa aitak ezarri nahi dion senarraren aurkako emakumearen errebeldi-oihua gisara. Egia da komediak, René-Augustin Caron du Beaumarchais antzerkigileak edo haren moldaketa operarako Cesare Sterbinik egindakoak, noski, irakurkera bat baino gehiago eduki dezaketela, eta Coline Serreau eszenografoak burutu *mise-en-scène* delakoa gaur egun modan diren joera nagusien ildotik doala. Vladimir Ognovenko errusiar baxu miresgarria benetan Basilioren pertsonaian, eta Maria Bayo nafarra Rosinarenean ere bai, baina jantziak egin dituen Elsa Pavanelek ez zuen

gehiegixko maite gure Maria, zeren ezarri dizkion *Arlecchino* jantziekin eta oinutsik neskatxa ñimiño bat baitirudi, ahotsa ederra, izugarri ederra izan arren, eta askoz ere ederrago soineko zuriz ageri denean peluka irrigarririk gabe. Daniel Oren musika-zuzendari israeldarra benetan ongi.

Abenduak 31.

Urte Zahar eguna. Margarekin eguna osoa Seine inguruan paseatzen ibili ondoren, eta eguzkiaren printz epelak dastatutakoan, ilunabarrean bagoazelarik, gure adineko taldetxo bat ikusten dugu Sorbona aldean, bikote intelektual itxuraduna. 1949an plazaratu George Cukorren *Adam's Rib, Adanen Saihetsa,* hasieran *Man and Wife* deitua, Katharine Hepburn eta Spencer Tracyrekin faxismoaren eta diktaduraren kontrako oihua Ameriketan. Protagonista hil egingo da azkenean, anderea baita eta ez gizona benetan bi juristen artean egia bilatzen ari dena. Gazte garaietan hainbat aldiz bisitaturiko zinema tipitik atera, eta *Balzar*-en lekurik ez dagoenez, bagoaz Saint Germainen dagoen *Atlas*era, mairuek Urte Zaharra ospatzen ez dutenez, eta bertako kuskusa benetan on-ona estimatzen dugu. Etxekoei deitzen diet urte berri ona opalduz. Marikrutx, Urtzi, Miren eta besteak, eta *ariyo*, datorren urte arte. Hotelean sartzerakoan *Bonne Année* entzun dugu eta gauza bera erantzun.



Irudia 68: Balada zaharrez.

2005

Urtarrilak 1.

URTE Zaharrari Agur eta Ongi etorria Berriari. Ohiturari jarraikiz, kafesnea, kruasana, ogia, gurina eta marmelada gosarian. Bagoaz Arabiarren Etxera eta han *Pharaon* esposizio bikaina ikusteko aukera daukagu. K.a. 1500-1000 bitarteko urteetan egiptoarrek egin zituzten maisulanak ez dira txantxetakoak. Harriz, zurez, zilarrez, urrez, eta beste gaiez eginiko artelanak gaur arte hain ongi nola kontserbatu diren miresgarria da. Aro lehorrak, noski, lagunduko zuen mendeetan zehar, baina harrigarria da benetan gizon eta emakume haien edertasuna. Nefertitik daukan lepo eta aurpegi-irudia bezain finak dituzte gizon-andere bikain hauek, baina balirudike goi-mailakoak soilik zitezkeela, faraoiaren familiakoak edo agintari eta eskribauenak, zeren eta esklabo gaixoen gorputzak lanak eta izerdiak hondatuak zeudekeen.

Ohi bezala, hamaika jatetxeren karta begiztatutakoan *Place des Vosges*en ondoan frantses eran ongi, baina garagardo alkoholik gabeaz elikatu gara. Izokin keztatua eta *pot-au-feu*a, hau da, porru, azenario eta beste barazkiz moldatu eltzekoa. Ondoren, digestioa egitearren, bagoaz korrika La Bastillera, lauretan hasten baitzaigu Ludwig van Beethovenen IX. Sinfonia. Pariseko Operako orkestra eta abesbatzak. Biak benetan bikain.

Ilunabarrean, 1966an Yasuzo Masumurak buruturiko *Irazumi / Tatuaje* film japoniarra ikusi dugu, 22 orenetan hain zuzen. Otsuyak gurasoen etxetik ihes egiten du, baina Gonjiren besoetatik geisha-etxe batera eramanen dute. Han tatuaje-maisu batek Otsuyaren soin ederrean armiarma handi bat margotuko du, eta intsektuaren izpiritu mendekatzaileak neska inozent zenaren baitan halako indarra hartzen du eta hainbesteraino gaiztotzen da, non inguratzen zaizkion gizon guztien galera, hondamendia izanen den. Orotara zazpi izanen dira bortizki hilak, edertasun hiltzailea bidean topo egin eta haren jabe egin nahi izateagatik. *La femme fatale* honen bertsio ezin hobea, iradokizunez betea eta izugarria. Irudiak eta koloreak zirraragarriak.

Urtarrilak 2.

Igandea. Urteko lehendabizikoa eta iritsi zaigu partitzeko tenorea, beraz. Hiru eliza bisitatu ditugu goizean. Hotel ondoko eliza errumaniarra, *Nôtre Dame*, eta eliza greziarra. Hiru hizkuntza ezberdinetan errituak egiten dituzte eta hiruretan leku garrantzitsua betetzen du kantuak. Ondoren, George Brassens parkean zehar ibili gara. Taberna batean *noisette* bana hartu eta ordu bat liburu-saltzaileen ohiko eskaintzak ikusteko. Batek begia jo dit eta prezioa eskatu diodanean, lortu dut hamabost euroz jaistea eta hogeita hamarretan erosi diot *Dictionnaire des personnages littéraires et dramatiques de tous les temps et de tous les pays. Poésie, théâtre, roman, musique,* 1960an Laffont-Bompiani argitaletxeak plazaratua. Irudiz eta ilustrazioz ongi hornitua, txuri-beltzean gehienak eta koloretan batzuk, eta batez ere pertsonaien historia-gorabeherak eta interpretazio ezberdinak klarki ematen dituen hiztegia da. Baliagarria benetan teatro munduan bereziki murgiltzeko, eta bereziki pertsonaietan sakontzeko batez ere.

Urtarrilak 8.

Fotografia zahar batzuk, beno, ez hain zaharrak begiratuz Bordelen *Le Noailles Brasserie* aitzinean bazkaldu ondoren ateratako bat ikusten dut: Mari Aranguren, Marga Rica eta Julio Azkargorta, bere adiskidea, eta neroni. Nik mirespenez behatzen dut Mari. Erizain bilbotar hau, Latinoamerikan egona, haurrak mundura nola ekarri behar diren erakusten dutenen ofiziokoa, hain alaia beti eta umoretsua bera, minbiziak jota dago. Eta eritasunaren aurka ezartzen duen borondatea eta grina harrigarriak dira. Juliori, aldiz, pozik egon arren bere besotik helduta urrutira behatzen ari dela ikusten zaio, kezka ezkutu batek zimikatuko bailuen. Beste fotografian, tranbia igarotzen den burdinbidean daude Mari, Marga eta Julio. Hirukote benetan adimentsu, izpirituz betea eta bizia, bizitzaz eta honek eman dezakeenaz pozik eta ahalegin guztiak egiten saiatuz. FNACen eta Mollat liburu-denda miresgarritik igaro ondoren, beste fotografia batzuetan Marga eta biok Saint André katedralaren aurrean dagoen *Café Rohan*go terrazan gustura. Baina hauek jada ez dira negukoak udaberrikoak baizik.

Urtarrilak 25.

Dublindik ezagutzen ez dudan Liam Healy-ren gutun bat jasotzen dut Catherine Hackett-ez, Anton Abbadiaren amaz interesatuz. Ea albiste berezirik badaukadan, eta agurra ingelesez euskaraz eta gaelikoz egiten dit: *Take care, Laster Arte, Slán go fóill.* Liburuan esandakoez aparte ez dut albiste gehiagorik emateko.

Urtarrilak 29.

Ohi bezala, Gipuzkoako Kutxaren Areto Nagusian biltzen gara 2005eko Euskarazko *Donostia Antzerki Saria* epaitzeko. Zortzi obra aurkeztu dira. Badira klasikoak eta modu zaharrean idatzitako antzerki aberkoiak ere. Tragediak eta komediak, azkenean *Moskatel Team* sariztatzen dugu. Egilea Joxean Sagastizabal eibartarra gertatzen da. Izugarrizko arrakasta izan zuen *Kutsidazu bidea, Ixabel* eleberriaren sortzaileak, zinemara ere pasatu dutena. Baina hainbesterainoko arrakastarik ez zuen izan, antza, antzerkiak agerrialdien esparruan, ziklismoaren mundua gure artean oso estimatua izan arren, eta benetan testu hura ez zen izan nire hautua, baina garbi dago bost boto direla eta hiru bederen jaso behar dituela irabazleak.

Urtarrilak 30.

Baionatik Xarles Videgain adiskideak idatzi dit (*Gutunak* 28) Mitxelenaren gutunak eskertuz eta Anton Abbadiaz egin biografiaz erreseina bat aginduz. Horrelako gutunak pozten dute bat, pentsatuz norbaiti pozgarri gerta dakiokeela batek ondutako lanen irakurketa.


Otsailak 19.

Zarautzetik oraingoan Leopoldo Zugazak idazten dit, esanez Euskal Herriko literatura-bildumez lan bat prestatzen ari dela, eta horien artean teatroarenak. Nire *Historia de la literatura Vasca* delakoaren 633. orrialdean *Izarra* bildumak hogeitasei ale atera zituela diodala, eta ea 24, 25 eta 26aren fitxak pasatuko ote dizkiodan. Eskerrak emanez eta agur bero batekin bukatzen du gutuna.

Ahalik zehatzen eta lasterren erantzuten saiatuko naiz. Lan hori *Olerti* etxeak argitaratuko du 2006an, *Gizonak eta Lanak, Bibliofiliako lanen bilduma* titulupean modu dotorean, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundien dirulaguntzarekin.

Martxoak 25/27.

Nire anaia Joxebaren urtebetetzea. Beti ahalegintzen naiz, harreman handirik ez izan arren, gutxienez bere urtebetetzean deitzen. Berriketatxo bat egin dugu telefonoz eta geratu gara egunen batean arrantzara joateko deituko didala. Tolosa, garai batean Okzitaniako hiri nagusia zenetik gabiltza gaur Marga eta biok. Bernard Lehetek ikasi eta irakatsi zuen Unibertsitatea eta Lege Fakultatea bertan dago. Nolakoa ote zen XVI. mende hasierako bizimodu hura? Eguraldi onarekin egin dugu txango, joan-etorria inolako arazorik gabe. Autopista ere garai honetan aski hutsik baitago.



Irudiak 69-70: Koldo Mitxelenaren euskal Gutunak (1951-1984).
BILDUMA 18. Errenteria.

Martxoak 29.

Goizeko hamaiketako *Continental* autobusa hartu dugu eta txoferraren atzean egokitu zaizkigu esalkiak. Gero, lo kuluxkaren eta irakurketaren ondoren, Lerman txofer bat igo da, Maite deitzen da, eta bi txoferren arteko barre, ziri eta adar-jotzeak entzunez iritsi gara. Espero genuen baino lehenago gaude Telefonikako Jauregian, Udaletxearena bilakatuko denaren parean. Arratsaldeko bostetan jada *Hotel Suecia*n gaude, azken solairuan. Madrileko bista ikusgarria da hemendik. Aldameneko etxean dagoen terrazatxoa benetan ikusgarria, lore-potez betea, huntzez apaindua. Ez legoke batere gaizki horrelako terraza edukitzea, eta ez daukadan *korrala,* baina konformatu egin beharko daukagunarekin. Lehenik Dureroren erakusketako sarrerak *El Corte Inglés*en erosi

ditugu, ondoren *Desnivel* mendi-liburutegi bitxian egon gara, eta azkenean Unn-en tabernan Antonio, Natxo, Ana eta Unn-ekin berriketan.

Maiatzak 23/28.

Albacete ordez Portugalete hautatu dut azterketa-zozketan, zeren hiriak hautatzen hasiz gero, zerk merezi du gehiago? Cádiz edo Málaga edo Bartzelona hautatzekotan ongi, baina Baza ordez, ez bada jakiteko badela, ba hobeto etxetik hurbil. Bilbotik igarotzen den Ibaizabalen ertzetik banoakizu, eta hor ikusten ditut, Pasaia aldean bezala, almazenak, pabiloi erdi eroriak, leku ia erabat *otsoletoak*, modan dagoen hitza euskal fonetikaz erabiliz. Zorrotza, Lutxana, Barakaldo, Sestaoko Labe Garaiak, garabiak, karreterako tunel irudiz marraztuak, Arestiren poemak gogorarazten dizkit, baina egun denak argitsuago dirudi, ez hain beltz, ez hain hits, ez hain tragikotasunak joa. Lehengoa, ordea, gehiago gustatzen zitzaion gure adiskide Antonio Parandieti.

Maiatzak 29.

Corpus Christi, Besta Berri eguna Lesakan. Bernardo, adiskide austriarra, Patxi, Marga, Arantxa, Marta eta neroni. Auzo-lanean ehuna karriketan gaindi zuri-zuri ezartzen, eta Marta Ruiz de Garibairen etxandiaren aurrean ihiak, iratzeak, arrosak banatzen ditugu. Hamabiak jo dute, eta meza nagusiaren ondotik prozesioa hasten da baratxe-baratxe kaleetan zehar. Lehenik gurutzea gizon batek daramala, gero txistulariak, ondoren neskatilak xuriz jantzita lore-sehaskekin, ondoren apaizak eta paliopean Ostia sagaratua, *Santisimoa*, palioa gizonezkoek daramatela, alkatea, musika banda eta soineko beltz apainez jantzi emazte adinduak…

Okasio honekin antzeztu zuten Ostegun Santuan, Diego de San Pedroren *La pasión de Nuestro Señor Jesucristo* auto sakramentala 1566an Hondarribian, eta Donostian 1560an San Bizente elizaurrean, eta baita Bilbon ere 1566an Santiago Elizarenean kofradietakoek errepresentatu zituzten beste autoak. Eta Oñatin oraindaino iraun duten *Corpus*eko dantzak bezalako ohiturarik ba ote zuten lesakarrek? Litekeena.

Ekainak 11.

Donostia. Kutxak eskaturik hitzaldi bat prestatzen dut, eta ekitaldi batean Aurelia Arkotxa eta neroni Andia kaleko aretoan Euskarazko an-

tzerki-idazleen promozioaz mintzatzen gara. Hona nire hitzaldia, orain arte inon argitaragabea.

Arratsaldeon donostiar antzerkizaleok,

Benetan aspaldiko antzerkizale honi pozgarri gertatu zitzaion Kutxatik deitu ziotenean, –bezero zaharra izaki eta halaber Kutxak antolatutako sarietan denbora luzean aritua–, esanez ea parte hartu nahi nuen mahai-inguru batean non euskarazko antzerki-idazleen promozioaz mintzatuko ginen.

Bai, apalki aitortu behar dut urteak direla Euskal Antzertia nere kezka kuttun eta ardura nagusien artean dagoela, Arte espresabide nagusietarikotzat jotzen baitut. Eta Literaturaren aztertzaile eta historiagile naizenez hor daude nere azterketa eta dibulgazio lanak: *Euskal Teatroaren Historia* (Kriselu, 1975), *Euskal Antzertia* (Antzerti, 1984), *Serafin Baroja, Bertsoak, Pudente, Tormesko Lazkaotxoa, Kontuak.* (Txertoa, 1988), *Historia del Teatro Vasco* (Orain, 1996), *Jundane Jakobe Handiaren Trageria* (1634) *lehen euskal antzerkia*. (Errenteria, 1996), *Zuberoako Irri-teatroa. Recueil des farces charivariques basques* (Izpegi, 1998), *Teatro Vasco* (Etor, 2000), *Maria Dolores Agirre eta Euskal Antzertia* (Egan, 2004)… Liburu gisara agertu direnak dira hauek eta artikulu ugari ere argitaratu izan ditut hainbat errebistetan: ANTZERTI BEREZI, EGAN, MUNDAIZ, EPOS, REVISTA DE LENGUAS Y LITERATURAS CATALANA GALLEGA, Y VASCA, REVISTA DE FILOLOGÍA DE LA UNIVERSIDAD COMPLUTENSE, LAPURDUM,… Eta Jardunaldi eta Kongresuetan parte hartu izan dut Ingalaterran, Frantzian eta Espainian (Lancaster, Baiona, Madrid, Sitges, Bartzelona, Gasteiz…). Beraz uzta hor dago, hala nola egitasmo eder zenbait Mezenas baten zai.

Zergatik Teatroa?

Teatroak gizartean funtzio benetan garrantzitsuak dituelako, eta hauetariko bat idazle zahar hark zioena delako, hots, *Corriget ridendo mores*. Alegia, ohiturak zuzendu egin behar direla, beraz, onartzen da ez direla zuzenak, eta hori irribarrez egin behar dela, modu ezti batez. Edo gure teoriko zaharrak, Antonio Maria Labaien teatrogile eta gerraurrean ANTZERTI aldizkariaren zuzen-

dari zenak zioen bezala, irria luze, negarra labur. Edota Errenazimentuko idazle paregabe hark, Rabelaisek bere Gargantua eta Pantagruel eleberrian zioskun eran, nahiago zuela irriez hitz egitea negarrez baino, irria baitzen gizonak duen gauzarik propioena, bereziena.

Dena den, gauza bat da teoria eta beste bat praktika, denok ongi dakigun bezala, eta hala oroit dezagun Miguel de Cervantesek *El Quijote*ren liburuaren II. Partean zioena XXVI. kapituluan, *Maese Pero y el mono adivino*ren pasaia hartan: *¿No se representan por ahí, casi de ordinario, mil comedias llenas de mil impropiedades y disparates, y con todo eso corren felicísimamente su carrera, y se escuchan no sólo con aplauso sino con admiración y todo?*

Zein Pedro Berrondoren hitzez itzulita honelaxe litzatekeen: *Hamaika ta hamaika antzerki itxura-uts ez al dabil or-barrena, gauzak batekoz beste emanaz eta beren bidean ariñ ta alai ala-ere? Eta ez al zaie txaloka-ezik men-agurka entzuten?*

Mendez-mende gaurdaino iritsi zaigun teatro badirudi arrakastatsuenak Cervantesek salatutako akats haiek beraxek dituela, alegia, solas arin irrigarri hutsetan gelditzen dela, askotan zabor usaina dariona, duela gutxi Dario Fo-k ere salatzen zuen bezala, ez dela egiten benetako kritika, benetako satira, gustu txarreko errazkeria eta axalkerian erortzen dena baizik. Beha Telebista.

Gure ustez, beraz, beharko lituzke euskal antzertiak funtzio nagusiok bete. Bat: Ohitura gaiztoak kritikatu, eta onak eredu gisa aurkeztu. Bi: Euskara onaren eta hitz egite ederraren eskola izan. Eta hiru: Gure historia eta antzezleen, ondarea errekuperatu.

Gure Antzerkigileak nola bultza idaztera?

Ez gara hemen negarrez hasiko, ez baita hau biderik egokiena. Hamaikatxo idazlek salatu izan baitu sari irabazle diren testuak ez dituztela taularatzen. Baina, halere, esan dezagun eta hau konstatazio huts bat besterik ez da, Antzertia ikuskizun den neurrian hor eta hemen, gure lurraldean barreiaturik badela zer ikusi. Hamaika antzerki bada herriz-herri dabilena… Gaur ere hemen izango dugu bakarrizketa bat. Madrilen jaio Ernesto Caballerok idatzi *Pakita* itzulia eta Itziar Ituñok antzeztua.

Gaia ezagutzen duzue esku programaren laburpenaren bitartez. Pakitak hiru gizon hil ditu guraizez. Lehena bingoan topatu duen eta abandonatu duen gizona. Bigarrena psikiatrikoan sendatzen ari zitzaion medikua. Hirugarrena teatro zuzendaria. Beraz, Pakitak, bakarrizketa honetan hiru hilketen berri emango digu.

… Ez, ez da izango noski itzultzen hasi eta obra hoberik munduan zehar.

Euskal antzerkigileak bultzatzeko bide egokiena ote? Ez dugu uste. Euskal herrian gabezia ugari bada, eta bat, dudarik gabe Kritikarena da. Kritika eskola ona zitekeen antzertia, baina honetako irakurri eta hausnartu egin behar. Nork irakurtzen eta ezagutzen ditu euskal teatro-testuak? Eta ez esan ez dagoela tradiziorik, ez testurik, Jaurlaritzako Kultur Ordezkari batek zioen bezala. Bada eta, baina ezagutu egin behar.

Antzerti Erakusketa zabal bat 1984an antolatu nuen hiriz-hiri eta herriz-herri ibili zena erakuskai. Gero hura ahantzi zen eta euskara-gaztelania zen *Antzerti Berezi* errebista ere, Espainian zirenen artean osatuena Ricard Salvaten hitzetan, eta gaur egungo *Arteszena* aldizkaria baino euskara gehiago zekarrena itxi zuten.

Sarean, Interneteko atarietan diren euskal antzerkiak gutxi. Hogei obra ordez, berrehun, bi mila beharko lirateke, eta Asteroko Antzerkia beharko litzateke, garai batean Madrilen bezala *Teatro semanal* zeritzana ateratzen zen bezala prentsa eraskin gisara. Hori. Interneten eta egunkarietan eta Iparraldeko Herrialdeetan egiten ohi duten bezala antzerki on bat astero emanez.

Baditugu baliabideak hori aurrera ateratzeko, beraz, zergatik ez da egiten? Noren borondate arraiok eragozten digu hiritar kritiko, kulto, gure historiaz eta gizon-emakumeen lanez jakitun, hiztun on eta arrazoinez beteak izan gaitezen?

Isil nadin… bestela moderatzaileak atentzioa deituko dit eta…

Uztailak 4.

Gaur esan didate Helena hilik aurkitu dutela. Dibortziatu ginenez geroztik aspaldian ez nuen ikusi, eta oso noizbehinka ikusten nuenean,

Donostiako kaleren batean urrutitik. Medizinek eta kimikak puztua zegoela iruditzen zitzaidan. Juanekiko amodio-abenturak bukaera tragikoa izan du, zeren eta, hura Mexikora joan zenetik, amildegirantz abiaturik, gero eta okerrago zegoela kontatu didate, behin baino gehiagotan ingresatu ere egin beharrean. Agur.

Adiós, compañera, luchadora antifranquista, adiós, apasionada del cine y de la literatura, y que la utopía de libertad y de un mundo mejor se haga para los que quedamos aquí un asidero de vida. Sólo intentaré recordar los mejores momentos de nuestra relación. Agur.

Uztailak 15.

Ez eskelarik, ez mezarik nahi ez zuen arren, ama Txaro kontuan hartuta, eliza-elizkizuna egin zaio Groseko auzoan uztailaren 6an, eta gaur Urumeako bokalean familia osoa eta Institutuko adiskideak gaude. Urtzik, gu bion semeak, Quevedoren soneto bat irakurri du, eta Manuk, Helenaren anaiak, bi hitz esan ondoren, hilaren errautsez beteriko kaliza Urumea ibaira bota du, naturan murgil eta hondora dadin. Nire oroitzapenetan beti izango du leku berezi bat, gogoeta gazi-gezez betea, malenkoniaz, penaz eta tristeziaz osatua.

Irailak 3/11.

Londresko bidaia. Aspaldi, urte mordoxka bai bederen, ez nintzela Britainia Handian egon. Oroitzen ditut, ongi gainera, hara eginiko bidaiak. Lehena Helenarekin, Joxan Arretxe eta haren neskalagun Elenarekin. Joxan garai haietan pintore izateko ahaleginetan zebilen, margolaritza praktikatzen zuen eta sariren bat ere irabazi zuen.

Bigarren aldian bakarrik izan nintzen urtarril hotz batean. Goizero ingles klaseetara joaten nintzen eta arratsaldez Betiri Urteko lohizundar deserriratuaren urratsak jarraituz ibili nintzen liburutegietan… Hirugarrenean Xabier Olarrarekin… nobela beltzen peskizan…, Urtzi bisitatzen eta ondoren Margarekin Eskozian eta Irlandan.

Gaur irailak 4, Mantxako itsasartea pasatu berriak gara Parisetik Londresera doan trenean tunelez urazpitik joanik. Galdu da, beraz, Calaisetik Doverrera itsasontziz igarotzearen grazia. Kontinente zaharra utzi eta Uhartera iristea. Azkar eta arin heltzeak baditu bere alde onak, baina galduz doaz beste xarma batzuk. Itsas-kostaldeko beste ikusmolde

batez inguratzea Uhartera. Ez, ez da berdina. Abiadaz irabazi duguna lasaitasunaz galdu dugu. Lurrarekiko eta itsasoarekiko harreman zuzena. Orain hemen leiho batetik begira ikusten ditugu ingeles soro berdeak, belardi eta basoak, dena berde, baina ez dugu usainik dastatzen ahal. Oihantxoen lilura ez da bera, gertutik edo abiada biziz sentitzea. Hezetasunean pulunpatzea, txorien musika sentitzea…

Portobelloko taberna batean nago, UNEDeko zentroan azterketak Andrés de Blas, *Ciencia Política*ko katedradunarekin batera antolatu eta zuzendu ondoren. Eguerdiko ordubiak dira eta zerbeza-edontzia mahaian. Aldamenean kolore eta arraza guztietakoak: beltzak, txinatarrak, ingeles titi-handiak eta ingeles argalak zilborra agerian dutenak.

Javier Maríasen *Tu rostro mañana* eleberriaren irakurketan murgiltzen naiz, sari nazionalerako aurkeztutako bat baita. Ilunabarrean laurak, hau da, Andrés, bere emazte iruindarra, Marga eta neronek zentroko jatetxe arrunt batean afaltzen dugu, zenbait parke eta kale mordoxka zeharkatu ondoren. Berriketa frankismo garaiko borroken inguruan murgiltzen da, eta beraz, ez dago istilurik ez ideien kontrajartze handirik, gazte-garaiak gustura gogoratzen baitira bat zahartzaroko lehen etapan sartzen ari denean.

Urriak 6.

Madrilen erabakitzen den Narratiba Sari Nazionaleko zenbait liburu (Clara Sánchezen *Un Millón de luces*, Miguel Sánchez Ostizen *La Nave de Baco*, Alvaro Pomboren *Una ventana al Norte*, Juanjo Olasagarren *Ezinezko maletak 'Las maletas imposibles'* –neronek euskal eleberrien artetik hautatua–, Pedro Ugarteren *Casi Inocentes,* Juana Salaberten *La noche ciega*, Javier Mariasen *Tu rostro mañana,* Julio Llamazaresen *El cielo de Madrid*, eta beste hainbat) egun eta gau irakurtzen igaro ondoren, laburrenetarikoa den ixtorioa, Alberto Méndezen *Los girasoles ciegos* obra hoberenesten dugu, egile hilberriari omenaldi gisa-edo. Noski, obrak merezi du, bere sotiltasun, garraztasun eta poesiagatik, baina Rogelio Blanco, Liburuaren Zuzendariak egindako egilearen apologiak ere izan du zerikusirik sarian. 2008. urtean José Luis Cuerda zinema-zuzendariak Rafael Azconaren eta bere gidoi batekin pantailaratu zuen bertako ixtorietatik bat, oso modu duinean, Maribel Verdú, Raúl Arévalo eta Javier Cámara aktoreekin, besteren artean.

Urriak 22.

Ohi bezala bildu gara Santiago Aizarna, Lourdes Otaegi, Iñaki Aldekoa, Henrike Knörr eta neroni Kutxako idazkariarekin, aurkeztu diren hamar poema bildumak epaitzeko. Maila jaitsi delakoan nago, edota ni lege zaharreko poetekin nago nahasita eta ez dut baloratzen gaztetxoen ondu gabeko –halaxe iruditzen zaizkit– poema hauek. Ahul eta gogoeta bortitz baten ezean? Nabarmen da liburuxketarik bat Aintzane Galardi oiartzuarrarena dela, irudiak eta poemak tartekatzen dituelako, eta batean bere argazkia ageri baita. Itzulpen asko tartean. Azkenean Sonia González Fernández barakaldoarrarena hautatu dugu: *Poema amniotikoak –gerizpeko gudak–*. Felipe Juaristik eginiko erreseinan honakoa idatziko du *El Diario Vasco*n amodio-desamodiozko poema hauei buruz:

> *Ez, ez dut uste poema liburua osoa denik. Gehiago dira poemok hiriko kale kantoian utzitako puskak, puzzle batenak balira bezala. Norbaitek hartuko ditu eta eramango berarekin, puskak hirian sakabanatuz. Eta gero berriro puskaren bat itzuliko du lehen zegoen tokira eta hura izango da bide erakusle. Hurrengorako.*

Azaroak 17.

Marijose Olaziregik gonbidaturik, banoa bulegoko lanak burututakoan auzoan daukadan *La casa encantada* kultur egoitzara, *Pintxos. Nuevos cuentos vascos* ipuin-liburuaren aurkezpenera. Bertan hamalau euskal idazleon ipuinak agertzen dira: Cillero, Garzia, Iturbe, Linazasoro, Lizarralde, Mujika Iraola, Zaldua, Atxaga, Cano, Lertxundi, Montoia, Oñederra, Rozas eta Sarrionandia. Edonork bere barne mundua eta kanpokoa zabaltzen eta sakontzen lagundu diezaguketenak, Marijosek hitzaurrean dioenez. Bildumari akatsik aurkitzekotan, tituluarena litzateke handiena, nire ustez, zeren eta gastronomia modan dagoelako geurean modu esajeratu eta eramanezinean, jasangaitzean ez dudan konprenitzen ahal, nola literaturak behar duen moda higuingarri baten menpe egon, ez bada salmenten morrontza dela-eta haien irizpideetara makurtuz. Aurkezpena eta irakurketak amaitutakoan, inguruan dagoen jatetxe asturiar arrunt batera goaz eta hartan idazle gazteak gertutik ezagutzeko aukera dut.

Donostian Konstituzio Plazako Liburutegi Zaharraren egoitzaren sotoan *Ereine*k antolatuta *Balada zaharrez* liburuaren aurkezpena egiten dugu, bai eta mutiko-neskatoentzat Alaitz Olaizolaren hiru antzerki *(Autobusaren zain, Non biziko gara,* eta *Txiukue)*, eta Enkarni Genuaren bat *(Katu guztiak ez dira gaiztoak)*. Iñaki Aldekoak hitz emandakoan honako solasaz mintzo naiz:

> Eguerdi on, kazetari eta adiskideak. Lehenik, eskerrak etorri zaretelako. Eta joan zen urtean areto epel honetan *Ereine*n eskutik Lazarragaren paperezko lehen edizioa aurkeztu nuenean eskerrak ematerakoan gehiegi luzatu bainintzen, antza, Euskadi Irratian gero ene kontura barre aski egin zutelarik, ea aurtengoan laburragoa naizen eta esaten ditudanak konprenitzen dizkidazuen edo hobeto esplikatzen naizen.
>
> Balada zaharrez egin saiotxoa da aurtengoa. Zazpi kapitulutan banatuta: 1. Hitzen biltzarreko sesioez. 2. Apokrifoen eta kritikarien saltsa-maltsez. 3. Itzulpen eta moldatze moduez. 4. Txukunkeriaz eta zentsurez. 5. Zabalkunde zahar eta berriez. 6. Balada zaharretako amodio eta heriotzez. 7. Bibliografia. Testu eta ikerketez.
>
> 1. *Eresi, erromantze, khantore, complainta dolorosac, balada*. Nola deitu? Bada frantses musika talde bat, Eric Montbel, zeinen diska honela deitzen den: *Le Jardin des Mystères, Complaintes criminelles, ballades sanglantes & autres chansons sinistres.* Nazioarteko tasuna kontuan harturik, hautatu dugu balada hitza. Honelaxe titulatu zuen Adolfo Arejitak ere bere liburu bat: *Mendebaldeko Euskal Baladak* (1995). Gaur egun ez ditugu mendebaldekoak aurkezten eta ikertzen Iparraldekoak baizik, batez ere. Ixtorio horiek antzina-antzinako gertaldiak izan ohi dira. *In medias res* hasten dira baladak eta pertsonaiek elkarrizketan dihardute, kantu narratzaileak halako urruntze batez aurkezten duelarik askotan bukaera odoltsua duen gertaera.
>
> 2. Kanta apokrifoak: *Leloren kanta* (Lekobide) (Ibarguen--Cachopin), *Anibal* (Chaho-Iribarren), *Altabizkar* (Garay de

Montglave-Louis Duhalde), *Urthubiako Alhaba*, eta *Domingoren eresia* (Montglave-Duhalde). Euskal Teatrorako iturri bezala ere balio izan dute eta estimu ezberdinak izan dituzte. Casaubon humanista XVI. mendean apokrifoekiko ezkor zen, bai halaber XIX. ean Vinson; XX. mendean Cid irakasle galiziarrak, ordea, hainbat eta hainbat herrialdetan hizkuntza eta kultura berpizte eta duintze bidean ezartzeko balio izan dutela, dio. Gurean ere bai.

3. Nondik datozkigu? Europako beste herrialdekoak bezalaxe. Konparatu ditut katalanez, portugesez, gaztelaniaz, frantsesez, gaskoinez, italieraz, ingelesez, alemanez… diren baladekin eta anitz berdintsuak direla ikusi dut. Ez du zentzurik laurehun aldaeretarik prototipo bat bilatu nahi izateak, azkenean Marcelino Menéndez Pidalek etsipenez aitortzen zuenez, eta, Devoto ikerleak dioskun eran, aldaeren funtzionaltasuna ikustea, aztertzea eta dastatzea da kontua.

Zenbaiten nondikakoak aurkitu ditut, adibidez. *Hirur kapitainak, Neska ontziratua, Orein bilakatu neska (*La blanche biche*), Errege Jan, Barbersa Janamari, Andere okina, Hiru soldado gazte, Peru gurea Londresen (Senarra dizit Montpellierren)*, garbi dagoelarik eredu frantses eta okzitanoekiko zorra.

4. Txukunkeriaz eta zentsurez. Linguistikoa eta morala. Aldaketak, kenketak eta eransketak, eta ia beti apaizak: Azkue, Barbier; Lafitte.

5. Zabalkundeak. Bertso-paperak, *feuilles volantes, pliegos sueltos, folhetos de feira… coplas de ciego,* bezala saldu izan dira Turkiatik Brasileraino, Europan barrena pasata. Eta bidean, noski, hizkuntza bakoitzak bere aldaketak egin eta mundu propioa erantsi dio. Hala, Imanolek kantatzen duenean *Kopla bikiak Kopla bitxiak* ordez; edota informante kastillanoak, *Yo nací dentro de Ronda* ordez *Yo nací entre las ondas* errezitatzen duenean, edota *Beholako heriotza* baladan abeslariaren ahoan: *aurten hegoa maiz* bilakatzen denean *aurten negua maiz ari;* edota *Adanak [aranak] lore, mertxikak ere,* ordez kantatzen duenean *merxikak lore andanak*, argi dago jatorrizko esanahia konprenitu ez duelako dela.

6. Amodioa eta heriotza dira gai nagusiak, noski, eta hauek badute munduan zehar hamaika aldaki eder.

7. Bibliografia. Interesgarrienetakoa William J. Entwistle-ren *European Balladry* (Oxford, 1951) da dudarik gabe, baina gurean baita ere Jean Baptiste Orpustanen idatzitako *Lire et comprendre les textes poétiques*: Atharratze jauregia…, alegia, Historia poesia bilakatzen denean Kantatu plazerez baina baita zer kantatzen den konprenituz ere…

[Teatroaz ere mintzatu bainintzen zertxobait Olaizola eta Genua aurkezterakoan. Hona hitz batzuk.]

Jainkoek abandonatutako jeneroa da teatroa. Hobeto esan, literatura dramatikoa. Eskilok kontatzen digu nola, gizonak gehiegi maitatzearren, maitasunaren sua jainkoei lapurtu eta gizonei oparitzeagatik harkaitz batera estekatu eta eternitate osorako arrano batek barrenak jaten dizkion bitartean.

Zorionak beraz, *Erein*i ez duelako ahantzi jainkoek bezala teatroa, zeren heziketarako (mundua konprenitzeko eta ongi mintzatzeko) errekurtsorik garrantzitsuena izan baita mendeetan zehar eta hala izan daitekeelako aurrerantzean ere, pentsatzen baitugu, Zinema eta Telebista onak lagun.

Abenduak 16.

Bildu ginen ohi bezala Eugenio, Daniel eta neroni Euskaltzaindiak antolatu Toribio Altzaga sarira aurkeztu zazpi antzerkiak aztertzeko. Hauetarik bi pastoral berriak. Eta Aizpea Goenagak aurkeztu zuen *Santxa Kontesa* lana hautatu genuen. Anakronismo zenbait gorabehera, eta hauek zilegi eta ohiko dirateke Artean, emakumearen lekua erreibindikatzen duen obra da, noski. Ongi eraikia, dotore antolatua eta euskara ederrean idatzia. Sariak emandakoan daukadan fotografiarik polittenetakoa da Plaza Barrian ateratakoa: Eskuinean Jean Haritschelhar irritsu, erdian Aizpea Goenaga jaka gorrixtarekin eta neroni ezkerrean bufanda urdin batekin.

Abenduak 23.

Marijose Olaziregi eta Lourdes Otaegirekin geratu naiz eta bagoaz Jose Irazu "Bernardo Atxaga" asteasuarraren jaioterrira, bertan ospatuko baita Euskaltzaindian sartze-ekitaldia euskaltzain oso gisa, hil berri den

Juan Mari Lekuonaren ordez. Aurelia Arkotxarekin topo egiten dugu eta elkarren ondoan esertzen gara. Entzuten ditugu ohiko solas aspergarriak, batik bat Xabier Kintana eta Andres Urrutiarenak, eta Agirre Asteasukoaren estiloan Bernardok idatzitakoak. Bukatutakoan, herriko koruak kanta batzuk eta denok *Agur Jaunak* abestutakoan, hainbeste jende dagoenez, ezagun batzuk agurtu eta bagoaz. Etxera itzultzen gara entzundakoak komentatuz; ez gaituzte berotu batere, frontoian egiten zuen hotza zela-eta… *Antzarak, zenbakia, eta letrak* buruko ganbaran eta euskararen etorkizuna airean…

Abenduak 30.

Goizeko zazpi eta erdietan Donostiatik Bartzelonara autobusez atera gara. Tutera pasatakoan, hondatu egin da autobusa eta bi ordu egon gara bide-ertzean berriaren zain. Okasio ona jendeak horrelakoetan zer egiten duen eta zer komentatzen duen ikusteko. Pasaiariak txoferrarengandik jakin nahian dabiltza noiz iritsiko den bus berria eta honek ezin ziurtatu. Lau egun ibili dela autobusa gelditu gabe, eta azkenean porrot. Lehertu egin dela. Mantentze-zerbitzukoek ez ikustea zer gerta ziezaiokeen ere galanta da. *España cañi*. Eta gero txoferrak inolako esplikaziorik ia ez ematea, berdin. *Está llegando…* hori da dena, baina oraindik ez da iritsi. Orain dioten gisan, *tercermundista* da garraio publikoa. Egun hauetan badira Lleyda ondoan elurretan hiru ordu tren barruan geldituak ere. Iritsi gara azkenean Bartzelonara eta *carrer Hospitalet* 64ra, *Els investigadors*ei dagokien gela tipi, apal baina aski erosoan sartu gara.

*Liceu*ra goaz Alban Bergek Georg Büchner-en *Woyzeck* antzerkia musikatuz moldatu opera Sebastian Weigle eta Calixto Bieira teatro-zuzendariaren eszenografiarekin ikustera. Berlinen estreinatu opera 1925ean Liceura lehen aldiz 1964an iritsi zen eta orain berriro, baina aski modu bortitz eta eskandalagarrian. Duela berrogei urte irakurri nuen 1836an Büchnerrek idatzitako Woyzeck soldaduari buruzko testua Buenos Aireseko Aguilar editorialak 1966an argitaratu *Teatro de la joven Alemania (1829-1846)* antzerki bilduman. Bere emazte ezfidela hiltzen duen gudaria, ingurunean estutzen duen fabrika bateko langile bilakatu du Bieirak. Protagonista, Franz Hawlata izeneko langilea, industria bateko tuberia artean kokatu du. Eta Maria, langile bat gehiago bezala ageri zaigu, Danborrari Nagusi dirudunaren besoetan erortzen dena, hark daukan semea mantentzen lagunduko baitio, baina garbi dago inolako

sexu-lilurarik gabe, eta Mariarentzat suntsitzen duen mundutik liberazioa izanen dela heriotza. Horrela bada, orijinalaren sinbolismo erromantikotik aldenduz bi protagonistak, Woyzeck eta Maria, sistemaren biktima bilakatu dira. Testua esku artean daukadalarik, argi dago bertsio honetatik aldatzen dela, zeren eta lehen eszena basoan gertatzen baita hiritik urrun, Woyzeck eta Andres zuhaixka batzuk mozten txistuka ari direlarik, eta lehen hitzak hauexek dira:

> WOYZECK. –Bai, Ander, leku madarikatua da hau. Ikusten duzu onddoak hazten diren sendra hori belardian? Hor dabil burua gauez. Behin batek altxatu zuen trikua zelakoan, eta hiru gau eta hiru egun gelditu zen zintzilikatua. *(Ahopez).* Ander, arginbeltzak izan ziren, bai, masoiak, horixe!
>
> Eta azken bakarrizketa lakuan honela:
>
> WOYZECK. –Haiztoa? Hemen laga dut. Salatzen nau! Gertuago, bai gertuago oraindik! Non gaude? Zer dantzut? Zerbait badabil hor bertan. Iso! Maria? Zein soka gorri daukazu lepoan? Zerekin irabazi duzu zure bekatuen gutuna? Beltz zeunden, beltz--beltza haiekin. Zuri bilakatu zaitut? Zergatik daude zure ileak itxuragabeki? Haiztoa, haiztoa! Neronek ote? Ah! *(Uretara hurbiltzen da).* Ea hoa behera! *(Haiztoa uretara botatzen du)*. Harri baten gisan ur ilunetan ondoratu da. Ez, oso hurbil dago eta bainatzen direnean… *(Lakuan zertxobait sartu, haiztoa berriz hartu eta urrun botatzen du)*. Bai, horrela, baina uda partean ur azpian txirlak bilatzen hasten direnean…? Bah! Erdoituta aurkituko dute, eta nork ezagutuko du? Hautsi izan banu!
>
> Oraindik odoleztaturik nago? Ah, bai, hemen tanta bat, eta beste bat…
>
> *(Jendea iristen da…).*

Aleman erromantizismo sinbolikotik opera abanguardistarako bidea ez da luzea, baina eszenografia futurista honetan, oihana petrolio findegi bilakatzea oso iradokitzailea bilaka daiteke. Munduaren desegitearen *happeninga,* baina aktore guztiak bukaeran goiti eta beheiti dabiltzan igogailuen artean larru-hutsik agerraraztea, argi gorri, beltz eta zuriekin nahasirik, *Liceu*ko ikusle burgesek ausartegia deritzote…

Abenduak 31.

Urte Zahar eguna. Goizetik Bartzelona zaharrean barrena ibili gara gelditu gabe, *carrer*etan, karrika, kale estuetan zehar. Rambletako loreak, mimoak, jendetza. Dendaz denda, plazaz plaza, tabernaz taberna eta azkenean *7 portes* portu inguruko jatetxean bazkaldu dugu, Maria Callas eseri omen zen esalkiaren aurrean. Eta nor ez zen bada eseriko hemen 1836an eraiki zenez geroztik? Benetan tradizioa eta oraina ongi uztartzen dakien lekua da hau. Kafearekin habano ttipi bat ere erre dut. Arratsaldean, siesta ondoren berriz atera gara *Barri Gòtic*en berriro murgiltzera. Eta handik kostaldera, eta Agbar Dorreraino, zeina gauez kolorez aldatuz doan modu ikusgarrian. Afaltzera erreserbaturik daukagun jatetxe txinatar txukun batera joaten gara. Etxekoei deitzen diet: Urtzi, Marikrutx, Miren eta beste senideei Urte Berri on bat opatzen. Gero berriro, beste ibilaldi luzexta bat, eta gaueko hamabiak baino lehen iristen gara erresidentziara. Ohean sartu, liburu lotarazlea esku artean hartu eta hurrengo urterarte.

2006

Urtarrilak 1.

GOSALDU eta bagoaz Karmen Korkostegi eta Josep Badiesekin paseatzera, neguko jantziz hondartza eguzkitsuaren epela dastatzera. Portua, yateak, belariak, mota orotako itsasontziak. Zooa, elefanteak, jirafak, hipopotamoak, flamenko moko-gorri eta zango-lepoluzeak, tximuak harkaitzaren kontra eguzkitan epeldu nahiz, zangoetako eta ilajeko arkakusoak arakatzen…

Urtarrilak 2.

Oraindik Bartzelonan gaude. Arratsaldean Palauko kontzertura goaz. Johann Strauss eta Bielorrusiako Sozietate Filarmonikako Abesbatza. Orkestra baino areago, musika-banda kaxkar bat dirudi. Dantzariak ere erdipurdikoak, sublimetik kursira ez baitago epsilon xumea baizik eta hauek muga iragan dutelakoan gaude. Luzmila, Minseko sopranoa ere bazirudien edozein mementotan haustear zela. Abenduko 25eko bilantzikoa, fum, fum, fum kantatzea ia barregarri. Baina hain da lekua, egoitza miresgarria, non emaitzaren ahulaz kontsolatu gaitezkeen modernismoaren arte-maisulan hau dastatuz. 1905. eta 1908. urteetan Lluís Domènech i Montaner arkitektoak *Orfeó Català*rentzat eraiki egoitza…

Urtarrilak 3.

Gaur museo-eguna dugu. Goizetik *Museo de Arte de Cataluña*n Caravaggio eta europar pintura errealistaz antolatu erakusketan izan gara. Santuak, Bibliako ixtorioak, *Judith eta Holopherma*… tartean Velázquezen koadro batzuk, baina zer esan, haien arteko antzaz eta antzeaz aparte, erlijioz kanpo buruturiko lanek dute benetan interesa, alegia, garaiko gizartea islatzen duten pintura errealistek. Eskolako jarraitzaileenak ere aski ahul. Bestelako gauza dira, noski, Rembrandten grabatu eta marrazkiak. Autoerretratuak, erretratuak, irudi biblikoak, paisaiak, liburuetako ilustrazioak… benetan denak dira miresgarriak, duten zehaztasun eta bizitasuna, artearen trebetasunari esker.

Urtarrilak 17.

Bartzelonatik Donostiarako itzulia aski azkar joan zen Israel Yehoshua Singerren *Ashkenazi anaiak* eleberria irakurtzen. Anaia bizkien arteko

borrokak Poloniako Lodz hiri industrialean. Poloniaren eta Errusiaren arteko harremanak XX. mendeko lehen herenean benetan oso modu jakingarrian agertzen zaizkigu. Adimenaren eta Edertasunaren arteko historia eta borroka, bi anaia juduen bizitzaren bitartez, norlehenka gogotsu eta bortitzean: langileak, huelgak, borrokak, idealistak eta errealistak, kartzelak, polizia, armada. Emakumeak ere orotarikoak… Israel, Isaac Bashevis, nobel saridunaren anaia, Estatu Batuetan errefuxiatu zen 1934an eta aipatu nobela 1937an plazaratu zuen; New Yorken hil zen 1944an, jiddish hizkuntzara atxikia izan zen artista judu hau.

Urtarrilak 22.

Pilar Iparragirrek baladei eta kanta zaharrei buruz egin didan elkarrizketa *Argia* astekarian ageri da, non goi titulu laburbiltzaile hau ageri den: *Kanta batentzat inportanteena egilea nor den ahaztea eta herriko bilakatzea da.*

Urtarrilak 28.

Donostia Hiria sariak. XVII. edizioa. Aurkeztu diren euskarazko zazpi antzerkiak epaitzeko bildu gara: Imanol Elias, Ana Toledo, Aurelia Arkotxa, Daniel Landart eta neroni. Aitor Aranaren *Editorea* hoberenesten dugu. 2004ko Toribio Altzaga sarira ere aurkeztu zen obra hau, baina geroztik aldaketak eta orrazketak egina da. Ur Apalategiren *Gure kontuak. SA*. eleberriaren ildotik, baina ene ustez gogorrago eta nabarmenago ageri delarik nor den salatu editorea. Felipe Juaristik *El Diario Vasco*n idatzi erreseinan honela jardun du:

> *Lana polita da, Aitor Aranak aspaldi idatzitako politenetakoa. Elkarrizketa bainoago, monologoa dirudi askotan, baina halakoxeak izaten dira kazetariaren eta idazlearen arteko "elkarrizketa"k, gehienetan. Testuak indarra du, sekulako indarra, eta ahozko kontaerak ohi duen eraginkortasuna ere bai, zertarako uka. Interesgarria dela esatea ere ez dago sobera. Dena dela, lan honen balio literarioak alde bat utzita, liburua zirraragarria egiten da. Editoreen kritika dago liburuan, nabarmen eta agerikoa. Eta pozgarria da euskal literaturan kritikaren bidea ireki izana. Bide horretatik segituz, kritika daiteke euskalgintzaren politika, kultur politikarekin batera, sari literarioen baliorik eza, euskal idazleen artean sortu den konpetentzia, literaturaren beraren ahulezia, edo ez deusa, eta beste gai asko ere bai. Zain gaude.*

Berria egunkarian idazten duen Ibon Egañaren iritzia, aldiz, erabat bestaldekoa da. Hona zehazki hark dioena: …*horrexek sortu dio irakurle honi lehen mesfidantza: ez ote zen aspaldi joan naturalismoaren garaia?; ez ote zen aspaldi xamar adostu errealitatearen errepresentazio errealistena ere kimera bat dela, eta memoriarik zehatzena ere, birkreazio perfektuena ere fikzio bat dela, konbentziozko irudikapen bat? Zertara dator orduan etengabe kontatzen den istorioa erreala dela azpimarratu nahia?*

Balirudike idazleen arteko eta belaunaldien arteko borroka-zelaiak nabarmen zehaztu direla, ezta? Edota ezker abertzalekotzat dituzten euskal idazle eta editoreak ere ez dira kritikagarri? Salbuespenak ote?

Apirilak 20.


Donostia. Gorka Arrese editorearekin oin-oharrez hamaika zuzenketa eta eztabaida izan ondoren, *Agosti Chahoren Kantutegia* liburua aurkezten dugu ohiko sotoan. Nire hitzaldia kantuz hasten da, jada honetan Juan Mari Lekuonaren jarraitzaile bilakatu naizelarik. Eta honako hau diot:

Atharratze jauregian bi zitroin loratü…

Eguerdion. Hona hemen, kazetari eta adiskideok, edo Chahok berak esango zukeen bezala, *Herritar ezinago maiteak*, euskaraz 1848an lehen gazeta sortu zuenaren gaur arte ezezaguna zen *Kantutegi*ko balada zaharretatik baten hasiera. Ditugun bertsioetarik zaharrena da eta orain arte ia ezkutaturik eta bahiturik izan da. Piarres Lafittek 1978an Jean-Martin Hiribarrenez idatzi artikulu batean honakoa zioen: *cette édition des Chants Populaires n'a jamais paru et c'est regrettable.* Herri-kanten edizio hau ez da inoiz agertu eta tamalgarria da benetan. Beraz, Susari esker euskaldunen axolakabekeriaren bekatu hori gaur hemen kitatzen dugu, neurri batean. Chaho Ipar Euskal Herrian XIX. mendean sortutako frantses idazlerik argienetarikoa izan zen, ene uste apalez, eta merezi zuen tratu hoberik. Hona garaikide zuen Gustave Lambertek 1861ean utzitako erretratua:

Chaho liraina eta garaia zen, eta Napoleon IIIa diktadoreak estatu kolpea eman ondoren desterratu zuelarik 1853ko otsailaren 17an Bilboko Kontsulak egin salbokonduktoak zioenez 1,74 cm, ile gaz-

tainkoloreko, begiak halaber, sudurra aski zorrotza, aurpegi luze eta kolore apalekoa zen–, soinez eder eta fina. Bere janzkera oso sinplea baina detailerik xumeenetan ere zaindua. Esku zuriak eta luzeak, eta bazirudikeen beraietan estimu berezia ipinita zeukala, arruntean mahukatxoak zeramatzalarik. Bere itxura guztiz zen aristokratikoa, hitz-jario berezi, dotore eta liluragarria zuen, tankera baino nabarmenago zitekeelarik mintzaeraren aratza, bat ez zen nekatzen hari entzuten eta hain adimen zorrotza zuen, non entzule txit ona gerta zitekeen. Hitz gutxitan esateko, xarmangarria zen erabat.


Lehen Gloria.

Eigerra Zuiá maitia
Errairen Dereizur eghia,
Nouriti eraman otheizun
Ira la la la, la la, la, la ...
Zure lehen floria

II

Erturu eghin izotzek
Eta eta eré khasrougnik
Ine lehen floriari
Tralalaix, la la, la la ...
Damn eghin Dienik

III.

Landan eder iratze
Behi ederretan areteke
Zu berelako politetarik
Ira lala la, la la, la la.
Desir nikezu bi eme

Irudia 71: Hiru bertso Agosti Chahoren kantutegitik jasoak
(Chants populaires de la Navarre et des Provinces basques, 1845-…).

Chahoz jada bi liburuxka argitaratuak nituen aspalditxo. 1992an zehatzak izateko: *Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak, 1811-1858*. BBK-Euskaltzaindia, eta *Agosti Chaho, Azti-begia eta beste izkribu zenbait.* Elkar. Bitartean egin dira zenbait lan interesgarri, hala nola, Joseph Zabalok argitaratu liburua: *Augustin Chaho ou l'Irrintzina du matin basque* (Atlantica 1999), ikuspegi aski estu eta moralista batez. Adibidez honakoa dio, alegia, akatsik handiena bere homosexualitatea dela. Eta Fermin Arkotxak egina *"Contribution à la connaissance de l'oeuvre journalistique d'Augustin Chaho:*

L'Ariel du 6 octobre 1844 à janvier 1846" deitu artikulu luzea (ASJU 1999), non Chahok *Ariel*en (1844-1846) argitaratu lanak aztertzen dituen eta ikertzen, besteak beste, Chaho eleberriak idazteaz aparte bi eleberritan ageri den pertsonaia ere badela (Tristan Flora-ren *Méphis*-en) (1837) eta Théophile Gautier-en *Fortunio*-n (1837). Arkotxak kontatzen digu orobat nola *Chat Botté* ezizenez, hots, Katu Botaduna-z sinatzen zituen hainbat artikulu eta kanta. Baina joan gaitezen polliki haren bizitza eta obra arakatzen.

Atharraztarra niz sortzez bai bihotzez ere, zioen desterruko bidea hartzeko bezperan 1852an. Joseph Auguste Chaho Lagarde –gure Agosti Cbaho– bost anai-arrebetarik primua zen. Aita herriko *sergent public*, hots, gure udaletxeetako idazkarien antzekoa, eta amaren partetik, aitona Maulen notarioa zen Jean Baptiste Lagarde, Oihenart XVII. mendeko historialariaren etxean bizi zena. Oloroeko seminarioan eta Paben ikasi zuen hamaika urtetatik hemeretzi urtetaraino, eta ordurako *le petit philosophe* eta *le philosophe* gisa ezaguna zen. Oso gaztetan hasi zen, antza, XVIll. mendeko filosofoen ikaskuntzez jabetzen. Eta 1831ko irailan partitu zen Parisera Legeak ikastera. Anton Abbadiak egin zuen bezalaxe. 5 Rue Villedot-en bizi zen, Richelieu kaleko Liburutegi Nazionalaren ondoan. Charles Belsuntzeko bizkondeak Abbadiari idatzi gutun batean 1834an Chahoz mintzo zaiolarik, *mendietako xoriño hori* bezala aipatzen du. Baina, antza denez, laster Legeak utzi eta Literaturan murgildu zen buru-belarri. Charles Nodierren klaseetara joaten zen Ekialdeko Hizkuntzak ikastearren eta zenbait literatura-saloietan nola Arsenaleko saraoetan bere hitz erraza eta irudi xarmanta paseiatuz. Lau oinetan zebiltzan bospasei ehun bertso moldatu zituen, berak dioskunez 1832an. Hona nola deskribatzen zituen Musset-ek sarao hauek poema batean: *Igande goizetan txoriak zuhaitz abarretan bezain alaitsu, Arsenalean biltzen ginen. Batek zerbait bertsoz, besteak hitz lauz zuen errezitatzen, eta gero dantzan berriro hastera gindoazen, orduan Botika Erromantiko Handian, nornahik, mutil ala nausi, bazuen bere kanta propioa.*

Eta 1834an jada hiru liburu argitaratu zituen, bi frantsesez *(Paroles d'un voyant,* eta *Paroles d'un Biskaien)* eta bat euskaraz, *Azti Begia*. Hau dudarik batere gabe, Antoine Serpeille bere adiski-

de eta itzultzaileak zioenez, lehen *Essai de cosmologie euskarienne*, zen, hots, Kosmologiazko lehen euskal saiakera da. Eta *Bizkaitar baten Hitzak* saio politikoa honelaxe bukatzen zuen:


> *Egunen batean Errepublikako gizonak berriro eseriko dira askatasunaren zuhaitza inguratzen duten harrizko eserlekuetan: Bizkaitarra! Haritz zaharraren aldamenean landa ezazue hazi berria; zuen odolez bustiztaturik zutitu eta handituko dena zerurantz bere aldian zuen semeei eman diezaien askatasunaren itzalpea mendez mende.*

Paroles d'un voyant, edo Aztiaren hitzak Lamennais abade fededunaren hitzei erantzunez idatzi saiakerak, hala nola hurrengo urtean plazaratutako *Philosophie des Révélations…*, Errebelazioen Filosofiak izan zuten harrera, ordea, oso gogorra izan zen, batik bat kontuan hartzen badugu Erromako Federako Kongregazioneak Liburu Debekatuen Zerrendan, *Index Librorum Prohibitorum* delakoan sartu zituela. Antje Bräcke ikerlari alemanak agertzen digunez *"El profeta vasco Agustín Chaho y la Congregación romana del Índice"* artikuluan, Rafael Fornari txostengileak honela kontsideratu zuen *Aztiaren Hitzak*:… *un libro perniciosissimo e ripieno degli errori… mescolanza orribile di tutte le antiche tradizioni orientali*… Zechirelli izeneko beste txostengileak Errebelazioen Filosofiaz, besteak beste honako hizkeraz idatzia zegoela zioen,… *un gergo inintelligibile*, eta bertan ageri zen dotrina sistema panteistiko bat zela, pietate gabez eta zorakeriaz betea. Garbi dago, beraz, garaiko egoera politiko monarkiko eta erlijioso oskurantista hark ez zuela lagundu Chahoren lana zabaltzen eta ezagutarazten, *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des basques de 1830-1835,* hots, Nafarroako Bidaia euskaldunen iraultza garaian aski ezaguna egin arren eta alemanera itzuli eta argitaratu bazen ere.

Hiru liburu plazaratu zituen euskararen inguruan 1836an: Études grammaticales sur la langue euskarienne (& A.Th. d' Abbadie); *Lettre à M Xavier Raymond sur les analogies qui existent entre la langue basque et le sanscrit*. Eta *Génie de la langue latine dans ses rapports avec la synthèse grammaticale*. Ez naiz mintzatuko gaur, luzeegi joko bailiguke, hizkuntzaz (Chahoren Hiztegi bukatugabeaz mintzatu nintzen Mitxelenari egindako omenezko

liburuan) Chahok idatzi lanez eta bere narrazioez *(Aitor, Safer, Lelo, Les Mystères de Madrid…)* ez eta beste zenbait lan politikoz, gaur hona hurbildu gaituena bere *Kantutegia* baita. Hiztegi amaitugabearen sarreran honakoa zioen, alegia, euskaldunek Institutu Nazional bat beharko luketeela, artea eta zientzia guztiak lantzeko Akademia bat, hots, zibilizazio independiente bat, hezkuntza-kontseilaritza bat, agian inoiz izango ez zuena; euskara bakarrik erabiltzea eskoletan; eta honen inguruan literaturaz eta falta zitzaizkigun liburuez osatutako liburutegia, hitz batez, ez genuena eta nazio handiek mendeen poderioz eta laguntzaz lortu zutena. Eta falta zitzaizkigun liburuen artean hauexek aipatzen zituen, bereziki, argitaratzen ari zen *Hiztegia* eta hura bukatzean plazaratuko zuen *Kantutegia.*

Mende eta erdi, beraz, igaro behar izan du gure Aztiaren desio hura bete zedin, gazteegi hil baitzitzaigun, batzuek ziotenez politikan murgiltzeko debekuak itota, hau arnasa bezain beharrezkoa baitzuen. *Kantutegia*ren eskuizkribuak aspalditxo utzi zizkidan



Irudia 72: Agosti Chahoren kantutegia.

aztertzen Maria Josefa Lanuzak, Telesforo Monzonen emazteak. Urteak pasa ziren eta nire egitekoa beste azterketa-lanetan murgildu zen (Anton Abbadia eta Lore Jokoak, adibidez), pentsatu nuen arte ezin zuela gehiago iraun Agosti Chahoren lanak argirik ikusi gabe. Azken finean erdietsi nuen eskuizkribuaren CDa. Monzonen artxibotik Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekara igarotakoen kopia, alegia, eta hura aztertzen hasi nintzen zehazki eta Gorka Arreserekin eztabaida adiskidetsu eta emankorren ondoren hemen dago fruitua.

Nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiot Gorkari bai eta Koldo Izagirreri ere, hain maisuki itzuli dituelako hala *Trilby*-n 1844an agertu Euskal Kanten prospektua, nola *Biarritz entre Les Pyrénées et L' Océan, Itinéraire pittoresque (Deuxième Partie, Bayonne* 1855, 175-194) liburuko XLIX kapitulua: *Amodioa*. Itzulpen hauek Chahoren eta kanten xarma aparta ematen diote ene transkripzio-lan idorrari. Baita ene adiskide Patxi Intxaurrandieta lezoar musikari trebeari ere, berak egin baititu doinuen transkripzioak, batzuk lehen aldiz moldiztegiratuak gainera, adibidez, *Partiada tristea Ternuara* eskuizkribuan tetragrama batean ageri dena eta hemen pentagraman moldatua.

Liburuak beraz 101 kanta biltzen ditu, hots, Chahok berak zerrendatu 70 gehi bere liburuetan aipatzen dituen beste 31. Aitzinsolasez, bibliografiaz, oharrez eta doinuz jantzi ditugu eta jazkera dotore hau gogoko izango duzuelakoan nago. Hori itxaroten dut. Hona bada, laburbilduz, Chaho poeta, itzultzaile, nobelista, saiakeragile (filosofo, historialari, literatur kritikari, kazetari, hizkuntzalari) eta politikari izateaz gain, kantu-biltzailearen obra, gaur arte ineditoa. XIX. mendeko bertso- eta musika-biltzaileen artean, Iztueta, Villéhélio, Sallaberry eta Bordesen artean merezi zuen, eta ongi merezi gainera, eta orain arte ukatu zaion lekua hemen aitortzera etorri gara. Milesker zuen arretagatik.

Beraz, elkarrizketatxo baten ondoren, Susako zenbait, Gorka buru eta neroni bazkaltzera joan ginen Parte Zaharrera, eta garesti bat hautatu ordez xumea hautatu nuen, Alberto Jatetxea. Bazkalondoko solasa luzea egin zen, eta izan ziren gauza batzuk, Gorkak esandakoak, ez zitzaizkigunak gustatu ez niri, ez eta han zeudenei. Karrere, Mar-

kez, Patxi… *Beste behin ez dugu mailarik eman*. Baina zer arraio nahi du Gorkak? Hiru liburu argitaratu ditut Susarekin. Miranderen gutunak, Ibiñagabeitiarenak, *Zoazte hemendik* eleberria eta hau, zer nahi du gehiago? Akaso, editore gisa eman duen bere bizitza luzean askotan plazaratu ote ditu horrelako ineditoak? Hurrengo egunean *Berria* egunkarian (apirilaren 21a) Juan Luis Zabalak bere artikulua honela izendatzen zuen: *Iturritik gertuago*. Eta Nerea Azurmendik *El Diario Vasco*n (apirilak 21) hauxe zioen titulu nabarmenez: *Agosti Chaho hil eta 148 urtera plazan dira azkenean euskaltzale zuberotarrak bildutako kantuak.* Gaur egun doan kontsulta daitezke Susa liburuak sailean Interneten, besteen artean euskal kanten bertsiorik zaharrenak, hala nola *Etxauzeko anderea* eta *Bereterretxen khantorea* Agosti Chahoren bildumari esker.

Maiatzak 30.

Gaur, *Ateneo Guipuzcoano*ko zuzendari den Ángel García Rondak gonbidatuta, hitzaldi bat eman dut Dr. Camino Liburutegian, Serapio Múgika aretoan, gaztelaniaz *Serafín Baroja, escritor bilingüe* gaitzat hartuta. Aurrez aurre nituen gaztelaniazko idazle zenbait, baina ez naiz inolaz ere kokildu eta ene tenor ahotsaz kantatu dut *Pudente* operaren sarrera euskaraz, eta gaztelaniaz irakurri *Perico Pello de Alabaindanere, Apuntes para la Historia de un buen apunte* nobelaren pasarte irrigarrienak.

Ekainak 6.

*El Retiro*ko liburu-ferian ezagutu nuen Mario Muchnik editore argentinarraren *A propósito del recuerdo a la memoria 1931-2005* irakurtzen ari naiz. Arin-arin eta ia bukatzear daukat. Interesgarriak iruditzen zaizkit zientziaren eta literaturaren artean egiten dituen loturak. Baita gazte garaietako *komunista* definitze hura ere. Mugica Herzogek esan omen ziona, *no puedes entender porque no eres español…* Salatzen duen espainolen artean dirauen antijudaismoa. Egiten duen kritika argia, adimentsua eta irri zabala, maltzurkeriarik gabea. Gustatu zait benetan.

Ekainak 9.

Coruña-Donostia trenez hamabi ordu. Goizeko zortzietan atera eta arratsaldeko ordu berean iritsi. Trena jendez mukuru. Galizian barrena, herrixkak, soroak, eukaliptusak, pinudiak, ibaiak begi-bistatik arin-arin

iragaiten zaizkit. Haizeak gogor astintzen ditu zuhaitzak eta bazterrak. Soroak dagoeneko horixkak daude. Santiagoraino bidea egin duten erromes ugari trenean. Katalan bikotea aldamenean eta donostiar bat makila luzean labanaz irudiak tailatzen. Hondarribiko marinela, lunbagoak jota itzuli beharrean aurkitu dena. Orreagatik atera zirenetik 28 egun. Bi alditan behin 45 kilometro egunean egitera iritsia. Katalanek, ostera, egunero 20-25 kilometroko erritmoa, eta luzera aldatu gabe. *El poder de la mente,* gogoaren botereaz mintzo dira. Ingeles jigante bat bere kontutxoak idazten egunkarian. Neka-neka egina dirudien neska frantsesa jada bi hilabete Lizarrako Puytik atera zela itzultzeko gogoz. Holandar bikote erdi hyppia zakur eta guzti. Oiartzuar indartsu, sendo eta gaztelaniazalea. Oinak egunero zaindu beharrarena, babak nola sortzen diren, nola zaintzen eta nola sendatzen… Bidaia-irakurketen eta erromesen mundua ikusten nuen bitartean ez dut luzetsi.

Gesualdo Bufalinoren *Le menzogne della notte, Las mentiras de la noche, [Gauaren gezurrak]* irakurtzen noa. Heriotzara kondenatuta dauden lau iraultzailek beren bizitzetako gorabeherak kontatzen dituzte azken gauean. Salatzaile bilakatuz gero aske lirateke eta Ameriketako txartela hartzeko, joateko eskubidea lortuko lukete. Mozorroturik dagoen fraideak bere bizitzako zertzeladak ere kontatzen ditu. Baina denak, azken finean faltsu dira, aitorlearen izaeraz jakitun baitira. Amaieran, iraultzaileak oro bertsogile lapurtarrak zioen bezala, *hilotinatuak* izango dira, eta presozainak bere buruaz beste eginen du. Hizkera mota eta erregistro erabat ezberdinak dituzte pertsonaiek. XIX. mendean gertatutakotzat jotzen da, baina ageri diren gaiak eta sinboloak unibertsalak dira. Amodioa, iraultza, herri xehea, jende nobleak, bakoitzak bere lekuan eta denak beren hizkuntza propioan ari direlarik.

Uztailak 3.

Donostiatik Madrileko bidean, joan-etorriko hamaika ordu luzeetan zenbat egunkari, liburu, azterketa eta ikasleen lan ez ote ditudan irakurri. Gaur Brodyn jaio eta 1939an Parisen hil zen Joseph Roth irakurtzen ari naiz. *Crónicas Berlinescas*, deitzen da gaztelaniazko itzulpena, eta bukaeran badu editorearen ohar zenbait egilearen bizitzaz. Dotore idazten du eta irkaitz malekoniatiz janzten du bere prosa. Bortitza, eta iradokizunez betea. Dena den, esango nuke, *La leyenda del santo bebedor* izan dela bere narrazioetarik gogokoen izan dudana.

Uztailak 17.

Espejo herrian *El Molino-Errota enea* izeneko eta modan jartzen ari diren basetxe batean gaude. Teilatupeko ganbara txikia da, baina oso beroa. Zenbat kostatu ote zaion Juan Carlos Ramírez kazetariari etxe zahar hau antolatzea eta eguneratzea? Zenbat ordaindu ote zion SER-ek likidazioa egiterakoan? Ez da, ez, leku zaratatsua idazteko, nahi izanez gero eta zerbait esateko edukiz gero. Atzoko eguna benetan interesgarria izan zen Arabako lurrak ezagutzeko. Gazeo eta Alaizako elizatxoak eta bertako pinturak, Gasteizko katedrala. Gaur Gatzaga eta Veleia ikustekotan gara.

Uztailak 30.

Gabas, Pirinioetako herrixkan gaude, *Biscaü* ostatuan. Ibilalditxo bat egin dugu Pic du Midiren inguruetan eta ohiko legez ostatuan bertan afaldu. Afalondoan paseo txiki bat Eaux-Bonneseraino. Alegia, Uronetara. Napoleon III.aren garaian eduki zezaketen glamurra, dotorezia, xarma, jende aberatsen, dama dotoreen, doktore eta poeten joan-etorriak bukatu ziren aspaldi. Hiri fantasma bat dirudi. Hutsa. Hutsak daude bainutegi ondoko etxeak, basalorez edertuak, belar gaiztoz jantziak soilik. Dena abandonatua bailegoen. Leihoak eta ateak itxita. *O tempora*! Zein guti irauten duen denak! Errekak, aldiz, goiti beheiti hots, soinu eta murmurio betikoaz badoaz etengabe… *mila urte igarota ura bere bidean*…

Uztailak 31.

Gaur goizeko zortzietan jaiki naiz. Stefan Zweigen *Castellio contra Calvino: conciencia contra violencia,* obra irakurtzen dut menditik behera behe-lainoak erreketan itsasten diren bitartean. Aroa ezin hobea dugu gosaldu eta zangoak pixka bat mugitzeko. Hain da handia Zweig juduak Calvinoren aurka ezartzen duen pasioa, non zalantzak sartzen baitzaizkit ez ote duen dena beltzegi pintatzen, baina bai, ez zaio arrazoirik faltako seguruena, garai haietan Inkisizioa alde batekoa edo bestekoa izan, katolikoa edota teokrazia protestanteari zegokiona, estu, latz, gogor eta krudela behar zuen izan.

Abuztuak 1.

Eguerdian Marikrutxi deitu diot, bere urtebetetzea baita. Nire amandrea da eta nire ama izan bailitzan portatu da beti nirekin. Igandean

ospatuko dugula denok elkarrekin esan dit. Gabasetik Midi d´Ossauko beste aldera joan gara. Bidean behiak, behorrak, mandoak, zaldiak, astoak, ardiak, akerrak… behatu ditugu, bai eta mendigoizaleak ere. Lakura iritsi naizenean, harrixka lauak ur gainean txanpak egiten ezarri ditut, nire gazte-garaiko trebezia erakustearren, eta beren gurasoekin eserita zeuden mutiltxo batzuek oihu egin dute, *il a réussi.* Menditik jaitsi garenean Luz-Ardidenerantz abiatu gara. Lourdes erdi-erditik igarotzen ari gara eta erlijio katolikoaren komertzio eta saltegi, merkatari-gune hura igarotakoan, a zer atsedena! Kezkaturik nabil nire baitan pentsatuz nola eraiki daitekeen gezurraren gainean halakorik… Luz-era iritsitakoan *Montaigu* hotelean hiru gauerako hartu dugu ostatu.

Abuztuak 2.

Amaginarreba Kontxi eta Jon koinatuarekin gelditu gara bazkaltzeko, eta Lespoure bailaran dagoen taberna xahar, berriki berrituan gelditu gara. Apaingarri bezala segak, segapotoak, uztarriak, mailuak, igitaiak, aitzurrak, laborarien tresna eta erreminta orotarikoak zintzilik eta mahai tailatuen gainean. Kontxi laurogeita hamar urteak betetzeko eta beti bezain dotore, pozik seme-alaba maiteak bere inguruan ikusita. Bazkari xume baten ondoren, bagoaz nor bere bidetik. Luz-en paseatzen ari ginelarik, Marixa, Euskaltzaindiaren Donostiako egoitzako bulegaria eta Xabier bere senarra bi neskato txinatarrekin topo egin dugu. Bitxi eta bizi-biziak dira haurrak, eta euskaraz primeran egiten dute. Miresgarria benetan txikienak, hiru urte eta erdirekin Euskal Herrira iritsi eta handik hiru hilabetera jadanik konprenitzen eta egiten omen zuen euskaraz. Ume txinatarren adimen azkarra!

Abuztuak 17.

Patxi Salaberria, Marga, Marta Ruiz de Garibay eta Arantzazu Fernándezekin bagoaz Arabako lurraldeetara txango bat egitera. Salinas de Añana-Gesaltzaraino inguratu gara. Gatzak erromatarren garaietatik Erdi Aroraino eta mendeetan zehar izan duen garrantziaz ohartzen gara. Veleia ere ikusten dugu, edo ikus dezakeguna. Harlauza handi haiek. Irudimenaren ametsak munstroak sor zitzakeela zioen Goia pintoreak, ezta? Gazeoko ermitaren pinturak, aldiz, benetan oso gogoko izan ditugu.

Irailak 16.

Larunbata. Goizeko seietarako bagabiltza Marga eta biok zirin-zaran jaikita bidaia prestakuntzak burutzen. Maleta, motxila, irakurgaiak, arropa. Dena prest daukagunean, gosari arin bat egin eta Topoak Anoetan duen geltokira joan gara karrikan maleten gurpilek ateratzen duten zarata pixka bat saihestuz eta 08:15ekoa hartu dugu. Patxirekin bildu gara eta Hendaiako geltokiko tabernan kafesnea eta kruasana gosaldutakoan, sartu gara TGVn. Lehen klasean goaz duela hilabete eta erdi Internetez merke-merke erositako txartelez, eta noski aski eroasoagoa da. Polliki-polliki trena betetzen ari zaigu Donibane Lohizune, Miarritze, Baiona, Akizeko geltokietan. Landak igarotzen gaudelarik, hau idazten ari naiz. Eguna grisa daukagu, eta badirudi euria datorkigukeela Parisen. Trenean elkarrizketa benetan interesgarria izan dugu militar batekin. Gizon garai eta atsegina da. Minen kontrako, desaktibatzeko kurtsiloak ematen ditu Parisen. Montaubangoa da eta Tahiti, Txad, Jugoslavia ohia eta munduko beste paraje anitzetan ibilia. Bere bizitza kontatu digu, ordenagailuan dauzkan Donostiako fotografia eder batzuk ere erakutsi eta atuna kokoarekin prestatzeko formula benetan gustagarria izan daitekeena ere bai. Parisera iritsi garenean ateri dago zorionez eta benetan arratsalde ederra geratu zaigu. Ateri da eta hiru orduko ibilaldia egin dugu kaleetan barrena. Paris gero eta kolore beltxaranagoa hartzen ari dela esango nuke. Turista batzuk, ez asko, baina gabiltzan kaleetako ibiltarien artean gehientsuak Afrika aldekoak. Jatetxe libanoar batera goaz afaltzera. Brouilly-ko ardo botila bat aski izan dugu hirurontzat. Metroa hartu eta Amelot kaleko *Hôtel Amelot*en sartu gara atseden hartzera.

Irailak 17.

Gaua aski gaizki igaro dut, halere azkenean goizalba iritsi da eta gosaldu ondoren bagoaz mezetara. Eliza ortodoxo errusiar batean izan gara. Jendeak aitaren egiterakoan lurra ukitzen du ia, eta zernahi delarik makurtu eta belaunikatu egiten dira. Apaizaren, popearen ahotsa eta abesbatzarena ederrak.

Atera gara ikonoz apainduta dagoen elizatik, parketik paseatu eta bagoaz Walter Scotten nobelan oinarrituriko Salvatore Cammaranoren libretoaz Gaetano Donizettik moldatu *Lucia di Lammermoor* ope-

ra ikustera. Ahots zoragarriak. Luciaren paperean Natalie Dessay, Edgardorenean Matthew Polenzani eta Arturoren rolean Ludovic Tézier. Hirurak bikain. Evelino Pido musika-zuzendaria halaber, baina Andrei Serban eszenografoaren lana, hausle, abanguardista eta oso moderno izan nahirik ez zait laket. Badira konbentzioak teatroan, baina operan gainera ahotsek eta ixtorioek dute garrantzia, eta agerlekua zirko bat bihurtu nahi izatea ez da ene gogoko. Gudaroste baten Gymnasioak ezin du bi pertsonaien arteko pasioa ordezkatu, ez eta balio…

Irailak 18.

Atzo operatik atera eta *Camille* jatetxean afaldu genuen. Gaur gauean Saint Germain-dès-Près-eko liburu-dendetarantz abiatu gara, baina, igandea denez gero, arratsaldeko zortzietan ixten dituzte, eta beste egun baterako utzi dugu bisita patxadatsuagoa.

Astelehena. Gosaldu eta banoa Arsenaleko Liburutegira ea han dagoen Auguste Rondelek bildutako liburutegira, baina esan didate badela bi urte Richelieu kalekoan dagoela. Beraz, pausoa luzatu eta banoakizu ohiko zentrora. Hementxe nago txartela ematen didaten bitartean hau idazten, izerditan blai. Areto berezira sartu naiz, eta esan didate non dagoen Auguste Rondelen artxiboa. Bilatu dut, aztertu eta ikusi zer zeukan nire intereseko. Asko eta gutxi. Orokorrean eta Frantziako teatroari dagokionez asko, baina Euskal Herrikoari dagokionez, soilki *Astyage* eta *Aymonen lau semeak* pastoralen eskuizkribuak, baina modu okerrez sailkatuak, hots, Biarnokoak bailiran.

Irailak 19.

Musée des Arts primitifs, et civilisations d'Afrique, d'Asie, d'Océanie et des Amériques Jacques Chiracek eraiki museoan gaude. Gizonaren eta Itsas-Araindikoa deseraikiz, mundu guztiko eta gizarte primitibo bezala deituak izan direnen artelanen bilduma. Musika-tresnak, itsasontziak, eskulturak, jainko eta jainkosak. Orotarik. Saint Martingo kanalondotik ibili gara gora eta behera eta azkenean *Marianne* andere errepubikarraren irudiaren etxean, Pilsner zerbeza txekiarrarekin afaldu dugu.

Irailak 20.

Sorbonako Liburutegian izan naiz goizetik. Jean François de La Harpe dramagile frantsesaren 1763an plazaratu *Warwick* tragedia kamara

digitalez jaso dut, honen euskarazko pastorala baitaukat eta moldaketaren modua aztertu nahiz bainabil. Arratsaldetik bagoaz *Pleyel* aretoan ematen duten kontzertua entzutera. Debussy eta Ravel. Txikitandik maite izan ditudan bi musikari zoragarriok. Hau plazera!

Irailak 21.

Erromatarren goiz-albatik ilunabarreraino iraun zuen Sasaniden Inperioa ikusi ahal izan dugu *Musée Cernuschi, Musée des Arts de l'Asie de la Ville de Paris*en titulua: *Les perses sassanides: fastes d'un empire oublié (224-642)*. Ederti-lanak. Erliebe-irudiak ehiza-ixtorioak kontatuz, mosaikoak, harpajotzaile erdibilutsa, janzkerak, eraztunak eta bertan grabatu miniaturak, guttunak… Pariseko (Louvre, Bibliothèque Nationale de France), Lyongo, Teherango, Londresko, Berlingo eta beste zenbait instituzio belgiar eta estatu batuarretatik ekarritako eder-lanen esposizioa. Afaria *Brasserie Bofinger,* Bastilla ondoko jatetxean; *Belle Epoque*ko leku ederrenetarikotzat jo dugu. Edaria, zerbeza, eta janariak: xukruta, jarreta eta zerri-hankak. Aldamenean amerikar batzuk, hona moroak La Mecara doazen bezala datozenak…

Irailak 22.

Goizean lasai-lasai liburu-dendetara joan naiz. FNAC, *La Procure*, … Saiatu naiz Klaus Kinski aktore ospetsuaren (Werner Herzogen, *Agirre o la cólera de Dios,* 1972; *Woyzeck*, 1979, *Fitzcarraldo,* 1982…) Frank Cassentiren *La Chanson de Roland* filmaren DVDa aurkitzen, baina ez dut lortu. Arratsaldean *La Clemenza di Tito*, Mozarten operaren benetan emanaldi ederra ikusi ahal izan dugu. Esalkiak, ordea, Pariseko Opéra Garnier-en izateko nahiko eskasak. Atsedenaldian *Mouton Cadet* bana edan dugu Patxi, Marga eta hirurok, aldamenean kimonoz jantzita japoniar dotore bat daukagula. Anna Caterina Antonaci, Elena Garanca eta Christoph Prégardien, Gustav Kuhn musika-zuzendariaren aginduetara, eta Ursel eta Karl-Ernst Herrmannen eszenografiarekin. Denak ezin liluragarriago, eta Titoren azken kanta jainkoei bere bizitza labur diezaioten eskatuz, Erromaren ongi izateaz ahantz dadin egunean. Hunkigarria.

Irailak 27.

*Ateneo Guipuzcoano*ko zuzendari den eta politiko sozialista izateaz gain, poeta eta eleberrigile ere baden Ángel García Rondak eskaturik,

Juan Ramón Jiménezek Nobel saria jaso zuenetik mende erdia ospatzen delarik, hitzaldia prestatu dut gaztelaniaz, eta oso jende asko eta era ezberdinetakoak etorri zaizkit entzutera. Nire titulua: *Homenaje de los poetas vascos a Juan Ramón Jiménez (Moguer, 1881 - Puerto Rico, 1958). Recepción y traducción.* Eta aipatu *SERTA* poesia errebistan agertuko da (2007, 325-372); bukaeran diot, nola Juan Ramonek batzen zituen poesia eta erlijioa, eta nola bere poesia hutsaren bilaketan Henri Bremond-engandik gertuago dagoen Paul Valery-rengandik baino, kontsideratzen baitu poesia guztiz arrazionala den fenomenoa dela, Urtziarekiko harremanen ondorio instintiboa, mistikoen jaidurekin batzen dena batzuetan. Horregatik, diot, ez dela harritzekoa XX. mendeko lehen parteko euskal poetak, hain erlijiosoak izanik, Juan Ramonen molde poetikoarekin identifikatzea, eta hain gustura itzultzea, unibertsala den poeta andaluziarra.

Urriak 6.

Jean Dominique Mellot, Frantziako Liburutegi Nazionaleko kontserbadore eta inbentariogilearen gutuna jaso dut; honela hasten da: *Cher Monsieur, Tout d'abord je vous prie de m'excuser pour le long délai apporté à cette reponse… concerne directement votre recherche sur les éditions des Linguae Vasconum Primitiae…* Alegia, barkamena eskatzen duela luzatu egin delako nire galderaren erantzunean, hau da Arnaud Oihenarten 1665eko *L'Art Poétique Basque*en arabera Adrien Morrontek Erruanen egin zuen Bernat Etxepareren edizioari buruzko xehetasunez. Morront inprimagileak Erruanen –beti oroitzen dut errefrau zahar hura Garibaik jasotakoa, *Erruango oiala merke dala gora da*–, 1602tik 1625eraino moldatu hogeita bederatzi edizioen tituluak ematen dizkit, bai eta non aurkitzen diren. Ez denenak, ordea, eta tamalez ez da azaltzen inondik ere Etxepareren ediziorik. Agian liburu zahar, galdu, hauetariko baten barnean ote? Auskalo.

Urriak 18.

Hamazazpi obra ditugu aztertzeko Nazional deitu saritan, *Literatura dramática* deritzan generoan, Manuel Rivasen *O heroe,* Josep Bonet i Jorneten *Salamandra*, Manuel Lorenzoren *Nocturnos,* Juan Carlos del Olmoren *Heterodoxias* (Jon Mirande, Joana de Albret eta Bergamin & Unamunori buruzko antzerkien itzulpenak) besteren artean, baina zaila da,

konturatuta *Galeuzca*k sarietan ez duela funtzionatzen eta madrildarrek bat egiten dutela idazle bat aurrera ateratzea nahi dutenean eta lortzen dutela, aipatuetarik bat sariztatzea. Horrela, bada, aurten Santiago Martín Bermúdez idazleari (Madrid, 1947) suertatu zaio saria bere *Las gradas de San Felipe y empeño de la lealtad* obragatik. Hizkuntza arkaiko eta kitx batean eraikitako teatro historiko (?) hau ez izan arren nire gogokoena. Zaila izango zaie euskal antzerkigileei, epaimahaia antolaturik dagoen bezala, eta *Real Academia de la Lengua Española* delakoaren zenbait ordezkariren ohiko euskararekiko herra, genero honetan noizbait saririk irabaztea.

Urriak 20.

Ondarroan, Euskaltzaindiko Literatur Batzordea bildu gara eta Augustin Zubikaraiz (Ondarroa, 1914-2004) eta euskal teatroaz mintzatzea suertatu zait. Ekitaldiko fotografian, nire ezkerrean, Ondarroako alkatea eta Jean Haritschelhar ageri dira. Bertan Augustinen teatro sozialaren aipamenak eta beraz Xabier Letek idatzitakoak irakurriz bukatu dut hitzaldia: *Zubikarai bere alde on eta txarrekin, osotasun eta hutsegiteekin, teatroa serioski hartu duen gizona izan da. Hortik dator bere ekintzearen baliotasuna eta horregatik da bere lana estimagarria. Publikorik gabe eta girorik gabe hainbeste urteetan lana serio eta segidan egin duen gizonak gure estimazio osoa eta esker ona merezi du.*

Urriak 21.

Bildu gara berriro Irun Hiria literatur sarietako Poesia sailekoak hoberena sariztatzeko. Hamabi lan aurkeztu dira eta berriro Aintzane Galardi oiartzuarra baina, anonimoak behar dutenez Mikel Peruarenaren *Edan ase arte* poema bilduma hoberenesten dugu. Eta, ohi bezala, Felipe Juaristik eginen duen erreseinan hau idatziko du titulua Bertolt Brechten bertso batetik hartua dagoela azpimarratu ondoren:

> *Bizitzaren gorazarrea da liburu hau, bizitzeko eta bizitzarako kantua eta kobla. Baina ez bizitza bere zentzu hutsean, bizitza bizitzeagatik, besterik gabe. Bizitzak beste zerbait behar du bizitza izateko. "Eroriko zaigula jakin eta, hala ere, / ahalik eta duinen eramatean datza bizitza". Bizitzaren pisuaz ari da, bizitzan daramagun karga ezin arinduaz. Duintasuna, noski, besteen begia gurean da.*

Urriak 28.

Zuberoa aldetik eskatu didate arratsaldeko lau eta erdietan mintza nadin Mauleko Herriko Etxean Agosti Chahoren kantutegiaz, zeren eta ondoren Daniel Landarti, nire aspaldiko adiskideari, eman behar baitiote Agosti Xaho saria. Bi ekitaldi hauen ondoren *Xiberoko Zohardia* koruak abesten du, ohi bezala, beren ahots indartsu eta gorekin. Kantuak amaitutakoan abeslari bat inguratzen zait eta Chahok bildutako kanta baten beste aldaki eskuizkribatu bat ematen dit. Gaua *Hostellerie du Château*n igarotzen dugu, inguruko errekaren hots ozena luzaro dantzudala.

Azaroak 15.

Ortzadarrek XXII. Folklore Jardunaldiak antolatu ditu Iruñean, gai honen inguruan: *Kantua: Tradizioa eta herri-adierazpena hitzaldiak*. Eta asteazkenez, 19:30ean Descalzos 72an dagoen aretoan suertatu zait hitz egitea *Balada zaharrez.* Iruñeko parte zahar honek benetan erdi abandonatua dirudi, etxeak zaharkituak, kaleak ez oso garbi, enfin, azkenean aurkitu dudala aretoa. Alfredo Asiain eta Josu Amezagaren ondoren mintzatu natzaie. Mikel Bujanda izango da moderatzailea hurrengo egunetan; dena den, gaurko giroa oso abegitsua izan da. Ostiralerako utzi dute Xabier Amuriza, Bixente Martinez, Natxo de Felipe, Niko Etxart eta Jean Michel Bedaxagarren arteko mahai-ingurua. Pena ez egotea bertan, esaten eta kantatzen dituztenak entzuteko.

Azaroak 17.

Jokin Zaitegi, Andima Ibiñagabeitia, Txomin Jakakortaxarena idazleen mendeurrena dela-eta, Gasteizko Filologia Fakultatean, Gerra ondoko kultur giroa eta literatur produkzioa aztertzera eta zenbait hitzaldi ematera joan gara Euskaltzaindiko Literatur Ikerketa Batzordeko batzuk. Niri goizeko hamarretatik hamaiketara suertatu zait; gaia: *Ibiñagabeitiak euskal literaturari eginiko ekarpena*. Ehun orrialdetik gora du prestatu dudan lanak, agiri argitaragabeak barne, dena den antolamenduaren arduradunek, Jon Kortazar eta Lourdes Otaegi irakasleek, porrot egin dute, ez baitute lortu ikasle bat ere erakartzea hitzaldietara. Hau bai dela fundamentu eskasa!

Antonio Domínguez Rey lankidearekin lehenik Santiago de Compostelako *Biblioteca América*n aurkezten dugu *El otro medio siglo. Antología incompleta de poesía iberoamericana.* Miguel Anxok zuzentzen duen *Espiral Maior* argitaletxeak plazaratua, eta katalan poetez Vinyet Panyella i Balcells arduratzen den bezala, neroni egiten naiz XX. mendeko bigarren partean argitaratu euskal poesiaz. Liburu mardula da eta anitza, balioko digu hurrengo egunetan Rianxon Itzulpenaz eta Poetikaz egiten dugun VII. Nazioarteko mintegian eztabaidagai gisa. Antologia guztiak bezala, honek ere izanen ditu bere aldeak eta ifrentzuak, hutsune eta osatzekoak, baina horrela, orokorki hartuta, esan genezake aipatzen duen guneaz plazaraturiko osatuena dela. Nik hautatuak Juan Mari Lekuona, Jon Mirande, Gabriel Aresti, Joseba Sarrionandia eta Koldo Izagirre dira. Bost poeta eta bostna poema euskaraz eta gaztelaniaz eman ditut eta pentsatzen dut leku aproposa dela eta zabalkunde ona izan dezakeela, horrela gure egite poetiko eta pentsamenduen berri emanez. Koldori bakarrik eskatu ahal izan diot baimena eta ez dit inolako eragozpenik jarri.



Irudia 73: Daniel Landart teatrogilearekin (Baiona 2007).

Urte honetan gure UNEDeko errebistan, hau da, katalan, galego eta euskal hizkuntzaz eta literaturez plazaratzen dugun honetan lau artikulu edota ikerketa lan ezberdin ditut. Lehena, aipatu antologiako lana, poeta horien ezagutza heda dadin. Bigarrena, hurrengo urteko Lilleko kongresuaren aurrerapena frantsesez. Hirugarrena, *Arte eszenikoak Gipuzkoan XIX. mendean.* Eta laugarrena, Serafin Barojaren opera argita-

ratugabearen, *Elkano*ren lehen edizioa. Halaberki, Baionako *Lapurdum* errebistan, *"Euskal poesia-idazleen artean lehen anderea: Maria Estibaliz de Sasiola (1550 a. - 1611)"*, argitaratu didate, non haren bizitza aztertzen dudan, Donostiako Elizbarrutiko artxiboan haren heriotza data eta zenbait albiste aurkitu baititut.

Abenduak 14.

Esteban Antxustegi, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak *Argien Mendea* deituaz eta euskal teatroaz hitzaldia ematera gonbidatu nau *Limes*ekin antolatu jardunaldietan, eta gaztelaniaz prestatu behar izan dut, hala nola powerpoint bat, irudi eta musikarekin batera honela titulatu dudana: *"Francisco Javier María Munibe e Idiáquez, conde de Peñaflorida, la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País y el teatro vasco en el siglo XVIII"*, zein bideoan ere ikus daitekeen KM kulturunean.

Abenduak 15.

Bederatzi antzerki aurkeztu dira aurten, eta ohartuta nago hortxe dabiltzala aurkezte-dantzan antzerki berak Donostiatik Bilbora eta Toribio Alzaga saritik Donostia Hirira. Eta hau 2004an irabazi zuen Alaitz Olaizolari eman diogu, *Joanes (Itxaropenaren semea)* obragatik, ohi bezala epaimahaia Eugenio Arozenak, Daniel Landartek eta neronek osatu dugularik. Javier Rojok *El Correo*n idazten duen erreseinan honako hau dio, besteak beste:

> *Behin baino gehiagotan Forrest Gump euskaldun bihurtua begitandu zait pertsonaia hori. Oztopo bat du, ordea: maitagarria bihurtzeko ahaleginean pertsonaiak eduki lezakeen ironia guztia alde batera utzi baitu, eta oso transzendetalak, ia mistikoak, izan nahi duten ideien errepresentazioan geratu da. Antzerki lana erdibidean geratzen da. Drama izan nahi luke…*

Eroetxean dago Joanes, denok gara Joanes…

2007

Urtarrilak 27.

DONOSTIA Hiria 2007 Kutxa Literatur sarietako euskarazko antzerkiaren alorreko epaimahaiak –Aurelia Arkotxa, Ana Toledo, Daniel Landart, Imanol Elías eta nik neuk osatuak– aho batez erabaki dugu Luis Haranbururen *Josafat* antzerkia beste bederatzien artean hoberentzat jotzea. Obra honetan ageri diren pertsonaiak historikoak dira gehienak, baina badira irudimenezkoak ere: San Migel, Aitor, Hiriko, Mari, Narziso. Historikoen artean hortxe ditugu: Dante, Garibai, Loiola, Axular, Larramendi, Santakrutz, Munibe, Chaho, Sabino, Unamuno, Barandiaran, Aresti, Mirande, eta Etakidea… Pirandello eta Unamuno lagun dituelarik Josafateko haranean pertsonaiek beren ekintzen alde on eta gaiztoen berri eman beharko dute Dante eta San Migelen aitzinean. Honela, *Judizio Jeneralak* lau taldetan banatuko ditu epaituak, merituen arabera batzuk infernura, besteak linbora, hauek zerura eta haiek Parnasora bidaliz. Testu erdi dramatiko, ideologiko-filosofiko-politiko honek gure historiari errepasoa ematen dio eta bertako eragile nagusietarikoak aurkezten. Baina esan daiteke aurreiritzi batzuen arabera funtzionatzen dutela pertsonaiek, eskematikoegi. Arin, baina arintasunaren aldeko on eta gaitzekin. Arina da irakurtzeko eta, egileak dioskunez, irakurtzeko teatroa idazten du batik bat, baina interesgarria litzateke taularatzea ere, *Goaz* debar antzeztaldeak *Gernika* antzezlanarekin (1983) egin ohi zuen bezala. Zuzendari eta antzezle on batzuek beren ikuspegi, aldaera eta lizentzia propioekin interesgarri bilaka dezakete antzerki hau, ez polemika politiko antzua sortzeko, baizik eta gaztetxoek eta horren gazte ez direnek jakin eta ezagutu ditzaten, ohar eta jabe daitezen pertsonaia horiek nola bizi zituzten Euskal Herriak, eta lehenaren, akatsak akats, etorkizunerako bideak argiago izan ditzagun.

Apirilak 17.

Banoa nire amodio prosaikoen hildotik Donostiatik Madrilera. Nire eserlekuaren gibelean hiru marokoar suertatzen zaizkit, eta errebisoreak txartela eskatuz datorkienean ez dute ez tiketik, ez dirurik. Beraz, treneko poliziari deitzen dio eta berehala etortzen dira bi gizon puska eta

neska bat. Pasaporteak eskatzen dizkiete. Bat deusik gabe dago, batere paperik gabe eta Zumarragako geltokian jaitsiarazten dituzte. Bihar epaitegira joan behar duela, eta han gelditu dira hirurak nasan Zumarragan. Noiz arte? Dena den, poliziarekiko harremanean neskak gezurra esan die, alegia, trena Altsasura iristean itzuli egingo dela. Beharrezkoa ote gezur hau? Madrid oso urrun ote dagoen galdetu dute. Nire ikerketatxoekin jarraitzen dut eta, egiteko dauden lanen artean, euskal literatura eskuizkribuen katalagorik ez daukagula idazten dut nire agendan –eta oraindik ere halaxe gaude–.

Ekainak 1-10.

Bartzelona hautatu ahal izan dut azterketa-leku bezala. Donostiatik goizeko zazpietan atera naiz trenean eta Bartzelonara iristeko ordubata eta hamar, sei ordu pasatxo, beraz. Paisaiak ikusteko eta liburuekin aspertzeko nahikoa denbora. Erabakitzen dut zer erakusketara eta zer kontzertutara joan: *Museu d'Art Contemporani de Barcelona* deritzanean William Hogarth (Londres, 1697-1764) pintore ikusgarriaren obra dastatzen dut *Caixa Forum*ean. Artista hau *Saint Martin's Lane Academy*ko eskolan hasi zen grabatugintza ikasten, eta gero Sir James Thomhillekin betegintzarrera iritsi zen. Gizarte kritikan eta satira politikoan maisu, bere erretratu errealistek indarra, kolorea eta bizitasuna badute gizarte britainiarra XVIII. mendean nolakoa zen jakiteko, barnetik ezagutzeko ilustrazio ezin hobeak dira: *The Shrimp girl,* Izkira saltzailearen xarma fina; *Gin Lane,* Karrikaren mundua; *The Distreed Poet,* Poetaren gela; *Scene in a tavern*, Taberna batean; *Southwark Fair,* Kalearen festa eta buila, autoerretratua… Hainbat eta hainbat. Benetan ikusgarria.

MACBAk maiatza eta iraila artean antolatu esposizioa ere ez da txantxetakoa. *Un teatro sin teatro*. Munduan zehar teatroaren bilakaera eta batik bat XX. mendean artearen inguruan ageri diren jaidura nagusien mostra ikusgarria. Ongi eraikia eta informazio jakintsuz osatua. Surrealistak, dadaistak, konstruktibistak, … Grotowski, Artaud, Jarry, Stanislavski. Txartelak, afixak, fotografiak, eskuizkribuak, liburuak, maketak, filmak… Noizbait eginen al dugu euskaraz munduko teatroari buruzko horrelako lan eder bat, gurea barne delarik?

Rambletako kale-teatroa eguzki epel honekin dastatuz banoa beste erakusketa bat ikustera portu inguruan dagoen *Atarazanas*era. Leonar-

do da Vincirena. Itsas museo honetan gaur hogei bat makina erraldoi daude Leonardoren marrazkietan inspiratuta eraikiak. Hau bai izan zela aurreratu bat, aitzindaria zientzia alor guztietan, benetako humanista. Pompeo Leonik jasotako lanen emaitza, mila ikerketa, egitasmo eta marrazki, *Códice Atlántico* delakoan kontserbatzen direnen faksimileak ikusten ditut miresmenez.

Fronteres izeneko erakusketa antolatu dute Michel Foucher eta Henri Dorion geografo frantsesek, eta lurraldeen mugak aztertzen dituzte honakoan. Mugari buruzko gogoeta da. Europak dituenak, Estatu Batuen eta Mexikoren artekoak, Israel eta Palestinarenak, Ipar eta Hego Korea, Miami eta La Habana, Melilla… Historia eta geopolitika lotuz, mapak, fotografiak, lekukoak eta gogoetak. Guztiz interesgarria.

Gauean Marga, Urtzi, Mari Carmen Navarro eta Unai Perez, Karmenen semearekin afaltzera joan ginen japoniar jatetxe batera, eta orotaz mintzatu ginen. Oso beila atsegina izan zela oroitzen naiz.

Ekainak 21.

Duela gutxi Borja Aginagaldek aurkitu berri du hamar folioko euskal eskuizkribu bat, *Sukaldeko disparatiak* deitu dudana, zeinetan hiru emakumeren arteko elkarrizketa ageri den. Maria Antonia Atxaran, Antoni jostuna eta Iñazi Oleaga, Neutoniren emaztea. Joakin Altzibarren etxean antzeztu omen zena 1772ko Eguberrietan. Honako kontestu sarreratxoa ezarri diot.

> XVIII. mendea Argien mendea deitua, argiz eta itzalez beterikoa dugu Euskal Herrian. Hiri batzuetan, hala nola Baiona, Bilbo, Donostia, Donibane Lohizune, Deba, eta bestetan Ameriketako komertzioari eta hark berekin zekartzan aberastasunei esker egoitzak eta eraikinak dotoretuz zihoazen bitartean, hiri hauetatik urrun bizitzak bere antzinako egunerokotasun xumeari jarraikitzen zion. Baina izan ziren Gipuzkoako bi herri Espainia eta Europa guztian ospetsu bilakatu zirenak. Azkoitia eta Bergara. Azkoitiko zalduntxoek, Frantzisko Xabier Munibe eta Idiakez, Peñafloridako kondea (1729-1785) buru zutela, Entziklopedia frantsesaren irakaspenei jarraiki, jakin izan zuten beren inguruan mugimendu ilustratu bat sortzen; haren adierazgarri nagusiak

izan ziren, besteak beste, *La Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* deitu zuten mintegia. Elkarte sortu berriaren araudietan zioten, biltzen zirenerako ezin zitekeela libertsio onestago, atseginago eta onuragarriagorik aurkitu teatroa baino. Eta horrela 1762an hasi ziren Azkoitian *El Borracho Burlado* opera elebidunarekin eta honi jarraiki zioten hainbat obra, frantsesetik eta italieratik gaztelaniara itzuli zituztenak. Tamalez garai hartako antzerki asko eskuizkribu gisa gorde ziren moldiztegiratu gabe.

Maria Antonia Atxaran, pertsonaia erreala eta militar ospetsua izan zen Frantzisko Altzibar Jauregiren alarguna da, eta beraz dagokion tornuaren arabera emakume ilustratua. Beste biak herritar xumeak, eta ikus dezakegu elkarrizketa hauetan, ez soilik teatro honen helburuetarik nagusienetakoa mendeko argiak hedatzea zela, baizik eta une alaiak igarotzea ere bai Paris eta Donostiaren arteko konparazioak tarteko, eta zalduntxoen adiskideak zirela berriketagai, gogoko zutelarik beren buruak islatuak ikustea Teatroan.

Horrela bada, astolaster eta pastoralez aparte, Pedro Ignazio Barrutiaren (ala bere anaia Pedro Antonio Barrutia 1769an Mondragoeko apaiza zenarena ote?) *Gabonetako ikuskizuna* eta De la Gandaren obraren gai beretsuan, eta Peñafloridako Kondearen El *Borracho burlado* operarenean badugu beste antzerkitxo bat, Hego Euskal Herrian Ilustrazioaren adierazle dena, eta gure teatro tipia aberastera datorkiguna. Nik *Sukaldeko disparatiak* deitu nuen hitzaurretxo bat prestatu nionean, baina Borja aurkitzaileak *Gran Tourra* bezala bataiatu zuen eta *Egan* aldizkarian plazaratu zuen 2007an.

Uztailak 3.

SITM. *Société Internationale pour l'étude du Théâtre Médiéval* elkartean bere XII. jardunaldiak antolatu ditu Lille hirian uztailaren 2tik 7ra eta, nire partaidetza onartu dutenez, hitzaldia bostean daukat *Manuscrits et Archives* sailean, frantsesez dudalarik txostena honako tituluarekin, *"Les recréations de mystères et romans chevaleresques dans le théâtre basque"*; egun PDF gisa aurki daiteke Interneten http://sitm 2007.vjf. cnrs.fr… atarian, eta baita beste partaideen hitzaldiak ere.

Margarekin beribilez joan gara Tourseraino eta gero han beribila aparkalekuan utzi ondoren, trenez goaz Toursetik Lilleraino. Hara iritsitakoan, *Hôtel Mercury*n alokatu dugu gure kasa lo-lekua. Ilunabarra da maletak hustu ditugunerako. Leihoak ireki eta enarek, gelditu gabe, ziztu bizian zeharkatzen dute zerua hamaika bidez. Ibili pixka bat hiri ezezagun honen irudiak barneratzen kaleetan zehar eta, *Au Lyon bossu*n afaltzen dugu. Entsalada, dorada eta txerrikia, dena *Pouilly-fumé* on batez bustirik.

Uztailak 4.

Biltzarkideekin autobusez goaz goizeko zortzi eta erdietan ia mende batez gudaroste espainolen menpe egon zen Arrasera. Lehenik *Théâtre du Nord*en egoitzan zenbait aditu (Silvère Monegaldo, Michèle Gally, Frédérique Cazères-Emmanuel, Matilda Bruckner, Tiziano Pacchiarotti eta Sonia Maura Barillari), frantsesez denak, juglarrez eta Erdi Aroko teatro profanoaz mintzatu zaizkigu, azpimarratuz Adam de la Halleren L*e Jeu de la Feuilléez*, eta *Jeu de Saint Nicolas*en emakumezko parte hartzerik ez zela izan. Estilo gotiko dirdiratsuaz eraiki XV. eta XVI. mendeetako Hiriko Etxea eta dorrea ikusgarriak dira. Benetan fresko ederrak mirets daitezke Festa Aretoan: Gustave Louis Jaulmesen eta Hoffbaueren pintura modernistak. *Cocktail* bat eskaintzen digute bertan. Ondoren, Robespierre Aretoan bazkaltzen dugu. Mediateka eta eskuizkribu zaharrak begiztatzen ditugu, aho zabalik, eta Lillera itzultzen gara. Han Margarekin murrailetarik ibilaldi luze bat egin ondoren, *Le Bistrot Lillois*en amaitzen dugu.

Uztailak 5.

Gosaldu eta *Musée de Beaux Arts*era goaz. Benetan ederra da eta modu argian daude kokatuak eder-lanak oro. Hasi Egiptoko garai eta lurraldeetatik, haur baten sarkofagoa, difuntuen hilarriak…, gero Erdi Arora igaro eta zenbait eliza zaharretako atariak, triptikoak, santuak eta hala italiar nola flandriar pintoreen maisulanez dastatu. El Bosco, Brueghel eta haien eskolakoak, hala nola Champaigneren, Zurbarán frantsesa deituaren pintura erlijiosoa. Honen bi erretratu benetan miresgarriak: Richelieu kardinala, Jean Ambroise, Duvergier de Hauranne, Saint Cyrango abadearena, sudur luze eta bizar ongi moztuarekin eta esku

eskuina alba zuri batetik *Biblia Sacra* eta *St. Augustini Opera* liburuen gainean irteten ageri dena, eta haren iloba zen Martin de Barcosena, hau da Barkoxekoarena, zein komentatzen dituen François Legrandek Absolutoaren erretratuak kapituluan. *Connaissance des Arts* bildumako *Philippe de Champaigne entre politique et dévotion* alea erosi dut.



Irudia 74: XVIII. mendeko 10 pastoral argitaragabe.
Teatro popular vasco. Manuscritos inéditos del siglo XVIII. Estudio y edición. CD de los manuscritos*. Madrid, UNED, 2009, 948 or.*
Pastoral hauek argitaratu nituen lehen aldiz: Ester (Racine), Judit eta Holopherma, Abraham eta Maria (Hroswitha), Jundane Eustaxa, Ursula eta hameka mila neskatila, Klobis, Jean de Paris, Jeana Arkekua, Pierra Probantzako eta Magalona, Rolan.

Jarraian banoa Campus alderat, *Maison de la Recherche* deitura. Ia ordu bat luze metroz eta autobusez. Denak bazkaltzen ari direnean iritsi naiz. Francesc Massip agurtu dut eta berarekin eta besteekin bazkaldu. Nire txanda suertatu zaidanerako Oscar Armando García mexikarrak egin du bere *performancea* sagar bat erakutsiz Ebak legez, eta bertso batzuk errezitatuz eta Mexikon ohi den teatroaz mintzatuz. Hamabost

minutu soilik nituen nire lana aurkezteko. Gutxitxo hamar pastoralez hitz egiteko *(Ester, Judit eta Holopherma, Abraham eta Maria, Jundane Eustaxa, Ursula eta hameka mila neskatila, Klobis, Jean de Paris, Jeana Arkekua, Pierra Probantzako* eta *Magalona* eta *Rolan)*, UNEDen argitaratuko dudan 945 orrialdeko liburuaz. Powerpointean erakutsi ditut ilustrazio batzuk, eta irakurri dudanean X. mendeko Hroswitha monja famatuarengandik testu batek latinetik frantsesera eta hemendik euskarara iragan bidea, pozik utzi nauelarik entzulegoaren irribarrea sumatu baitut, hona elkarrizketa.

Latinez:

ABRAHAM: –*Ubi est verecundia tua virginalis? Ubi continentia admirabilis?*
MARIA: –*Evacuata.*
ABRAHAM: –*Ubi est angelica illa, quam in terris egisti, coversatio.*
MARIA: –*Prorsus perdita*.

Frantsesez:

ABRAHAM: –*Où est votre pudeur virginale? Où est votre chasteté admirable?*
MARIE: –*Perdue*.

Eta euskaraz:

MARIA: –*Oh, aitetako trendena*
Jinko salbazalia,
Galdu dut ene floria
Ainu galdu bizia!

Non ikusten den Hroswitha X. mendeko monja jakintsuak latinezko teatro profanoa kristau bidean ezartzeko ahalegin hura, hemezortzigarren mendean iritsi zen Zuberoako herrira, eta euskal poesiaren doinuaz jantzi zen.

Arratsaldeko zortzi eta erdietan oso hitzaldi-proiekzio interesgarria izan genuen, Corneliu Dragomirescu errumaniarraren eskutik. Zinema eta Erdi Aroko teatroa, alegia, nola islatu den azken hau, gauza jakina izan arren Hollywoodek ez dakiela gauza handirik gaiaz, eta gaia tratatuz filmen bat sortzen duenean, erabat faltsu gertatzen dela. Noski, Bergmannen edota Dreyerren filmak egiatik askoz ere gertuago daude.

Uztailak 6.

Lille-Roubaix metroan. Metroa lurrazaletik doa, ez da *topoa* bezalakoa, beraz, hiriko kaleak eta etxeak gertutik eta ongi miretsi daitezke. Aspaldiko partez, gaur eguzkia atera zaigu agurtzera eta pozik jasotzen dira haren goxoaldiak. Benetan ederra *art deco* moldean eratu deitu piszina hau, bere inguru guztia estatua zuriz eta txarro jigante urdinez apaindua. Zureria garbi-garbi dago, eta halaber beirateak. Albert Baert arkitektoak burutu lanari benetan interesgarria deritzot. Liburu-denda zaharretan zehar ibili naiz eta Henri Liebrecht-en *Quelques traditions et coutumes du Folklore Belge* (Côte d´Or, 1947) erosi dut 35 eurotan; benetan estanpa koloreztatu ederrak ditu; horietan ikusten delarik nola gai eta ohitura berdintsuak dauden barreiaturik Europako bazter gehienetan. Gaur bigarren aldiz *Bistrot Lilloi*sen afaltzen dugu, ia inoiz gertatzen ez zaiguna, baina benetan hain ona iruditu zitzaigun betiko janari frantses hau, zerbeza, tripakiak eta andere zerbitzari guztiz atsegina, non prest geunden errepikatzeko.

Uztailak 7.

Azken eguna Lillen. Eguzkia atera zaigu berriro agurtzera. Bagoaz kanaletarik zehar oinez. Pont de Dunkerken gaude eta zubi azpitik igarotzen dira gabarrak. Agur, hainbeste gustatu zaidan eta ezagutzen ez nuen hiri sinpatiko honi. Agur, Martine Aubry argiari, Jacques Delors 1985etik 1995era Europako Komunitatearen zuzendari izan zenaren eta euskal etorkiko amaren alabari, auzapez lanetan hain ongi moldatzen denari.

Uztailak 8.

Angersen gaude orain *Hôtel St. Julien*en, hiria ikusteko asmoz. Anjou kondeen gaztelu zaharra bisitatzen dugu. Dorre horietatik Maine ibaia ikus dezakegu eta bertako sotoan dauden Erdi Aroko tapizak miretsi. Aretoa ilun-iluna dago eta bere denbora eskatzen du iluntasun honetara ohitzeko, baina horrela tapizak hobeto ikusten ahal dira. XIV. mendeko Apokalipsiaren Tapizak ikusteak txunditurik uzten gaitu. San Juanen liburuaren testuetan inspiratua, 1373. urtean merkatari ehule zen Nicolas Bataille-ri Luis I de Anjou Dukearentzat egindako enkargua

da. Jacques Cailleteau-ren zuzendaritzapean egin *Tenture de l'Apocalypse d'Angers. L'envers & L'endroit* (1996) liburuak erakusten dizkigu irudi ederretan haien ifrentzua eta aldea. Hennequin (Ganix) Brugesekoa izan zen pintorea eta Leizarragaren translazionearen arabera, adibidez honela agertzen da satana igela bat ahoan duelarik, hala nola zazpiburudun herensuge bi, bata bestearen bizkarrean:

> 13 *Eta ikus nitzan ilkiten dragoinaren ahotic, eta bestiaren ahotic, eta propheta falsuén ahotic, hirur spiritu satsu iguelén irudicoric.*
>
> 14 *Ecen badirade deabruén spiritu, signoac eguiten dituztenac, eta lurreco eta munduco reguetara ioaiten diradenac hec ditzatençát Iainco bothere gucitacoaren egun hartaco bataillara.*

Beribilez bagoaz iparraldetik hegoalderantz eta Ré Uhartean gelditzen gara. *Hôtel Le Port*en hartzen dugu ostatu, eta leihotik ia uki daitezke kaiko belarien mastak. Atzo gauean bidaia honetako afaririk garestiena gertatu zitzaigun *Le Perroquet Noir*-en, egia da arraina primerakoa zela, baina… gehiegixko iruditu zait. Uharteko Faroari, itsasargiari ere bisita egin diogu, eta eskailera guztiak igo ondoren, bertako bistak zoragarriak dira. Itsasoaren ostertz zabal borobila!

Uztailak 9.

Etxera, bada ordua eta. Ez dakit sortzen didan malekoniagatik edo Chaho ere bertan bizi izan zelako, edota kale zahar estu, oraindik turismoak gehiegi hondatu ez duelako, hainbeste maite dudan Baionara iritsi, hemen bazkaldu eta Donostiara. Txillardegiren Leturiari buruzko lana prestatzera.

Uztailak 17.

Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa Batzordeko taldeak, Jean Haritschelhar buru, Udako Euskal Unibertsitatearekin bat, Donostian antolatu dugu geure Txillardegiren omenaldia, hamaika hitzaldirekin gaia hau dela: *Leturiaren egunkari ezkutua eleberriaren ekarpena XX. mendeko euskal narratibaren testuinguruan*. (Ikus *Euskera* 2007). Nire txostena *"Liburuaren harrera garaikideen artean"*. Lehenik, gazte-garaietan *Eup*

Pelissier sortu zuten elkarte soziokulturalaz mintzo naiz, geroxeago idatzi liburuen zerrenda ematen eta, azkenik, Leturiaren sorreraz eta harreraz. Egunkariak nobela mota gisara eta nola aipatzen duen Henri Frédéric-ek *Amiel,* hamasei mila orrialdetik gorako *Journal intime* bat idatzi zuen, zeinaren helburua bere nortasun propioa ezagutzea baitzen besterik gabe. Eta harreraz Koldo Mitxelenak, Jon Mirandek, Andima Ibiñagabeitiak gutunetan diotena aipatzen dut, hala nola sortu zen eztabaida *Jakin* aldizkarian Iñaki Bastarrikak idatzi gutunaren eta honi Txillardegik egin erantzunaren artean… Nola eskola zaharrekoek ezin konpreni zezaketen existentzialismoaren jaidura berria, ezkontza tradizionalaren eta erlijioaren kritika, indibidualismoaren, antidogmatismoaren eta egiaren erlatibismoaren aldarrikatzea, gaur bertan Joxe Azurmendik ere dioskunez, konpromiso erradikalarekiko deiadar bat esan nahi duelarik Leturiak. Entzun ziren Txillardegiren eleberrigintzaren kontrako oihartzunak ere jardunaldietan, hala nola Iñaki Aldekoarenak:

> *… Egiatik asko du Leturiaren azken aurkikuntzak, alegia, maitasunerako ezintasuna dela dohakabearen patua, inor ulertzeko, inori emateko, inor laguntzeko ezintasunak egiten gaituela dohakabe. Baina egia hori ez du literarioki lortu, filosofikoki baizik. Azken finean Leturiaren egunkari ezkutua jeneroaren abusua da eta, kobentzioaz harago, ezer gutxi du nobelatik.*

Kongresutxoa bukatutakoan Donostiako Alderdi Ederran LIBekook elkarrekin atera genuen fotografian gaude ezkerretik eskuinera: Jon Casenave, Iratxe Retolaza, Gorka Aulestia, Lourdes Otaegi, ni, Txillardegi, Iñaki Aldekoa, Ana Toledo, Jean Haritschelhar, Sebastian Gartzia eta Karlos Otegi.

Irailak 5.

Mikel Arregi adiskide onarekin banoa Palentziara, han azterketa batzuk ditudanez. San Juan de Bañoseko eliza bisigotikoa bisitatzen dugu, Espainian zutik geratzen den zaharrenetarikoa. Halaber Santa María la Mayor, hala nola bidean aurkitzen ditugun beste ermitatxo txikiak. Bisitatzen dugu Urueñako Joaquín Díaz Museoa eta haren liburutegia kantutegi, erromantzero, ipuin, legenda, errefrau eta herri-literaturan

espezializatua. *Gráfico de los Evangelios y Fiestas del Año Litúrgico* delako afixa handia, komiki jigante bat bailitzan, Itsua eta itsu-mutila, *coplas de ciego* bertsopaper saltzailea…

2006an argitaratu *La Voz y la memoria* sinposiumeko emaitza diren bi tomoak, *Palabras y mensajes en la tradición hispánica*, azpititulutzat daramana erosi dut. Lehen liburukia, *Homero y el arte verbal,* Luis Alberto de Cuenca poetak idatzi artikuluarekin hasten da. Urueña herri ederra da, Valladolideko liburu-dendarien asteburuetako kokaleku bilakatu bide dena. Liburuari omenaldi egin nahiz, Diputazioak *Villa del Libro* izendatu du, eta etxe ederrenak liburu-denda itxuraldatu dira zaharberritze-lanen medioz. Paseatzen ari ginelarik bertatik topo egin dugu Maite Gonzalez, Euskal idazleen Elkarteko idazkariarekin eta bere Herbeheretako lagun idazlearekin.

Irailak 8.

Palentziatik Donostiara trenez ohiko Santiagoko erromesekin batera itzultzen naizen bitartean, Mosen Finley-ren *El Mundo de Odiseo* irakurriz noa. Mexikon *Fondo de cultura económica* (*ecuménica*ren ordez, bildumari izena aldatu zitzaion oker batez) argitaletxeak plazaratu New Yorken jaiotako gizarte historialari honek, sorginen ehiza sufritu ondoren bere egunak Cambridgen amaitu zituen *sir* titulua lortuz eta obra eder askoak utziz, esku artean daukadan hauxe, besteren artean. Greziako gizarte arkaikoaren erretratua egiten digu bikain eta sakon. *Iliada* eta *Odisea*ren azterketaren bitartez, garai haietako ohiturak, bizimoduak eta mentalitateak ikertzen dizkigu, gertaera ospetsuen badaezpadako historiaren benekotasunari kasu gehiegirik egin gabe.

Irailak 13?

Lezoko Udalak erabaki du Gerra Zibilean hildakoen aldeko ekitaldia egitea eta bertan plaka bat ezartzea. Jende ugari bildu da eta niri eskatu didate hitz pare bat esateko. Erantzun diet oroitzapenak dituztenek eta egoera tragiko haiek zuzenean sufritu zituztenek dutela benetan hitza, eta besterik gabe garai hartaz aitak idatzitako bi bertso zahar kantatu nituen. Oroitarriari estaloihala kendu zaionean honakoa irakurtzen ahal da:

LEZOKO HERRIAK 1936KO GERRAN ETA GERRAONDOAN FRANKISMOAK HIL ETA ZIGORTUTAKO HERRITARREN OHORETAN ETA OROIMENEZ

2007KO IRAILA

Irailak 15.

Berriro Patxirekin eta Margarekin bagoaz Parisera. Goizean Easo plazako *Gozoki* kafetegian bildu gara eta bertan kafesne eta kruasan goxo bana hartutakoan Hendaiako tiketak geltokian erosi eta bederatzi eta erdietan Hendaia-Paris bidaia aski azkar egiten duen TGVn sartu gara. *Libération, El País, El Diario Vasco* eta *Berria* baditugu irakurgai eta bagoaz polliki-polliki gibel utzirik Donibane Lohizune, Miarritze eta Baiona. Gero jada abiada biziagotzen du eta Margak *Officiel des Spectacles*en agertzen diren museo, erakusketa, zinema eta jatetxeak komentatzen dizkigu. Benetan ederra oraingoan Margak alokatu duen apartamentua. Bi solairu ditu eta aski bereziak. Liburuak non-nahi irakurlearen zain, eta batez ere teatrokoak.

Irailak 16.

Banoa berriro Richelieu kalean dagoen Liburutegi Nazionalera, hemen baitautza eskuizkribuak, ez Tolbiacera. Eta *Fonds Celts et Basque*seko zenbait eskatzen ditut errepasatzeko, batik bat Anton Abbadiak bilduak (167, 169, 171…), hala nola XVI. mendekoak diren Bernard Etxauzekoaren gutunak, *Collection Clairambault*en daudenak, non besteren artean bat euskaraz aurki daitekeen bere anaia Françoisi, Saint Pierre d´Olérongo bikario zenari, 1584an zuzendua. Ohar batzuk hartzen ditut urkaberako baladen bildumarako, hala nola *Justo* izeneko irundar bertsolari batek Juan Bautista Troppman hiltzaileari jarritako 26 bertsoak.

Marga, Patxi eta hirurok elkarrekin bazkaltzeko gelditzen gara eta *Willi's wine bar* ostatuan bazkaltzen dugu eguneko platera, eta erosten bertako posterra, non sirena bat irudikatzen den mahaiko plateran, ardo zuri edontzi baten ondoan, sardina bailitzan.

Irailak 18.

*Musée Guimet*era goaz, Iéna metro ondoan dago. Afrika, Asia, Amerika eta Ozeaniako antzinako eta egungo artelanak dastatzen ditugu poliki hasieran eta arinago gero. Munduan zehar musika sortzeko asmatu tresneria… Amaiezina da erakusketa eta unean, beren edertasunak lipar batez gozatzen dituzularik ia jada burutik joaten zaizkizu irudiak, hainbat eta hainbat baitira…, eta hain baita mugatua gure oroimena.

Irailak 19.

Gaur ere ibilaldi luzeak egin ditugu. Horretarako oso aproposa da Paris, eta ongi gosaldu ondoren *Musée de la Vie Romantique* bisitatu dugu. Txikia da baina xarmanta. Aurore Lauth-Sanden legatu artistikoa: Chopinen maitale izandako George Sanden irudiak, erretratuak eta margoak. Jacques Garcia dekoratzaileak Ary Schefferen lanak, hala nola bere garaikide zenbaitenak lehen solairuan ipini ditu eta saloian lau belaunaldik, Scheffer, Renan, Psichari eta Siohanek osaturiko liburutegi aberatsa.

Irailak 20.

Le Marais plazatik eta arkupetarik igaro eta bagoaz Pompidou zentrora. Biblioteka itxita dago. Itzultzen gara Sorbona aldera, *Rue des écoles*en dagoen *L'Armathan* argitaletxe-liburu-dendara, Historia sailera. Boterea eta honen XIX. mendeko errepresentazioei buruzko liburua erosten dut. Nathalie Scholz eta Christine Schröer-ek 2007an plazaratu *Représentation et pouvoir. La politique symbolique en France (1789-1830).* Guztiz interesgarria iruditu zait, zeren eta egun ere nabarmena da botereak daukan irudi eta ekitaldi sinbolikoen beharra.

Bazkaria txinatar jatetxe batean egiten dugu, eta sekulan berdinik jan gabeko ahate lakatua probatzen dugu zeremoniaz beteriko zerbitzari batzuek buru-erreberentzia anitzez mahairatua. Kalera ateratzen garenean, iruditzen zait mundua irakiten dagoela *Les Halles* inguruan. Denda bateko ordutegiak grazia egin digu: *Selon l'humeur*. Alegia, nagusiak gogoa duenean irekitzen duela bakarrik.

Arratsaldeko zazpi eta erdietan Gaetano Donizettiren *L'Elisir d'Amore* dugu *La Bastille*ko operan. Aretoa, handia da eta jendez mukuru,

esalkiak oro beteak. Margak irakurri-itzuli digu gaztelaniara argumentua. Moldaketa bitxia da bere modernotasun-nahian. Libretoan XVIII. mende bukaeran Ipar Euskal Herrian kokaturik zegoena, gerraondoko Italiako herrixka batean ipini dute Laurent Pelly et Agathe Mélinand zuzendari eta eszenografoek. Protagonista *vespa* batean badabil agerlekuan traktore eta benetako kamioi artean batetik bestera, zakurrak… ikuskizunari zinema neoerrealistaren ukitua emanez. Giro honetan, dena den, Désirée Rancatore (Adina) soprano italiarraren eta Dmitry Korchak tenore errusiarraren (Nemorino) arteko elkarrizketak benetan ederrak dira eta, *Una furtiva lacrima* entzutea (hobeak ere badirelarik, Pavarotirena, adibidez) aski da sentimenduekin hegan leku ezezagunetara hegaldatzeko, jatorrizko izaera baikor eta koloretsua biziarazteko.

Irailak 21.

Ostirala. Gosaldu eta bagoaz Liburutegi Nazionalera *Trésors photographiques de la Société Géographique* delako erakusketa ikustera. Prospektuan Georges Révoil-ek Moguedouchoun 1882-1883an ema-esklabo bati egin argazkia. Eta hauekin batera eskuizkribuak, mapak, gutunak, marrazkiak, bidaia-karnetak… Munduari bira benetakoa, Japoniatik Yucatanera eta Panamako kanaletik Mongoliako paisaietara… munduan zehar fotografo zenbaitek hartutako argazkien bilduma ikusgarria da benetan, lekuko hauen bitartez lurraren ezagutza sakontzen dugularik. Pena, Anton Abbadiarenak ez daudela…

Irailak 22.

Itzultzeko eguna. Atzo gauean film japoniar bat ikusi genuen Tolbiaceko Liburutegi erraldoiaren aurrez aurre, Sena ibaiaren bestaldean eraikia dagoen eta ezagutzen ez genuen *Cinémathèque française* berrian. Jasuzo Masumurak 1967an sortua. *Chijin no Ai*, hau da, *Katu japoniarra*, non neskatxa gazte bat bere senar ingeniariaren jabe egiten den, asto bat bailitzan lau zangoz ibilarazten duen ahoan uhala ezarriz, lezoarrek *arrekonkon* diogun bezala, eta berarekin nahi duena eginez. Honek, noski, garaiko gizarte tradizionalean eskandalu handia sortuko zuen dudarik gabe, baina gizon-emaztearen arteko harreman psikologiko eta sexualei buruzko azterketa garratz eta krudela iruditu zaigu.

Urriak 27.

Irun Poesia Sariak direla-eta berriro bildu gara Santiago Aizarna, Iñaki Aldekoa, Jon Kortazar (Henrike Knörr hilberriaren ordez), Lourdes Otaegi eta neroni epaimahai gisa eta, bozeramaile-lanak egitea suertatu baitzait, hona nire ohartxoa, Kutxak poema bilduma argitaratzean bukaera aldean modu dotorean dakarrena:

> Hondarrabiko Karlos V.aren gazteluaren goiko aretoan, harri zaharrez eta flamandar tapiz mitologikoz inguratuta, 2007 Irun Poesia Sariko epaimahaia bildurik zortzi poema libururen artean *Ahapetik* titulua daramana hobetsi da, zeina Mikel Ibarguren zestoarrak idatzia gertatu den.
>
> *Agian zugan*… bi hitzokin hasten diren bertsoek poeta maitemindu, zalantzaz eta kezkaz betearen barnemundua adierazten digute. Bizitzaren tristurak eta pozak, gozamenak eta sufrimenduak… hitz batez, intimitatea, zeina filosofiaz jositako gogoetez harilkatzen den, ikuspegi aski ezkorrez. Zuaren eta Niaren arteko dialektika bizi horretan ausentzia da nagusi eta horren adierazle dira betetasun eza nabarmentzen duen *des-* aurrizkiaz osaturiko hitzak: *desleku, desmaitatu, desordu…* Galera horren adibideak egilearen beste poema-liburuetan ere ageri dira, hala kartzelan idatzitako *Hemen gauak lau ertz ditu* (1996), nola *Deserriko karrikak* (2002) izenekoetan: *desabitatu, desagertu, deserri, deserritu, desgaraiz, desizen, desjabetu, desmaitatu, desneke, desterru…*
>
> Beraz, konstantea da idazlearen poetikan mundu zoriontsutik deserrotze horren agerpena. Poesia sentimendu hutsez soilik nekez elika daitekeen arren, bizitzaren tragikotasuna haiek gabe egiantzaz moldatzea ezinagoa da oraindik. Gure poeta gazte honen ibilbide poetikoa benetan ongi abiatua da, hizkuntza dotore eta errazez, ahots erakargarriz hornitua baitauka eta irudimenaren ganbara metafora ederrez jantzia.

Azaroak 2.

Koadrilak (Patxi, Marga, Kontxa, Marta, Arantza eta neronek) Arantzara uso jatera joatea erabaki dugu. Enkarguaz Marta arduratu da, bera

lesakarra baita. Lehenik bisitaldia egiten diogu Lesakako elizari. Badu Lezokoaren antzik, baina bazter bateko harri zizelkatuen irudiak benetan gustatu zaizkit: Goi partean ezkerrean Adan, Eba, zuhaitza eta sugea. Beraz, paradisua. Eta bestean, San Martin zaldi gainean kapa mozten, behartsuarekin partekatzeko. Karitatearen irudi ezagun eta zabaldua… Arantzan ikusi dugu frontoi ondoan lurrera iristen ez den harrizko zutabea airean, koadro surrealista batetik irtengo balitz bezala, eta beste bitxikeria, nola betetzen duten herri honetan legea. Hau da, Udaletxeko balkoi nagusian ikurrin eder bat ageri da aireak kulunka, eta leiho batean, ondoan, espainola txiki-txikia, paretan itsasita bailegoen. Barre dexente egin dugu, *aginduak* nola konpli daitezkeen ikusiz…

Azaroak 20.

Idoia Gereñu tolosarrak prestaturik, *Antzerti 75 Urte Ondoren* liburua aurkezten du Udaletxean, eta bi hitz esateko eskatzen dit niri, lan honen prestakuntzan eta editore bila lagundu diodanez. Aretoan, Euskal Herria irudikatzen duen armarri handi bat. Eta inon argitaratu ez dudanez, hona hemen testua:

> Jokin Bildarratz, Tolosako Alkate eta Donostiako Alkate eta Kultura Kontseilari Ramon Labaien jaun agurgarriak, gaur hona bildu zareten guztiok, gabon.
>
> Bene-benetan pozgarria zait Idoia Gereñuren eskutik datorkigun *Antzerti 75 Urte Ondoren* liburu ederrarren aurkezpenean parte hartzea, horrelako okasioak euskal kulturaren esparruan eta bereziki teatroarenean ez baitira maiz gertatzen.
>
> Aurtengoa, dena den, urte gogoangarria dugu uzta ez baita nolanahikoa izan. Alde batetik, Borja Aginagalde *Irargi*ko artxibo-zaindariak XVIII. mendeko antzerki ezezagun bat argitaratu baitigu, Joakin Altzibar Jauregi eta Atxaran azkoitiarrak idatzia, Azkoitiko zalduntxoen giroa oroitarazten diguna eta 1772an Azkoitian antzeztua.
>
> Neuk *Teatro Popular Vasco. Manuscritos inéditos del siglo XVIII. Estudio y edición,* UNEDen argitaratu dut hamar pastoral ikertuz eta transkribatuz *(Ester, Judith eta Holopherma, Abraham eta Maria, Jundane Eustaxa, Ursula eta hameka mila neskatila, Klobis,*

Jean de Paris, Jeana Arkekua, Pierra Probantzako eta Magalona, eta Rolan), eta baita Serafin Barojaren *Elcano* opera-libreto argitaragabea *Revista de Lenguas y Literaturas catalana, gallega y vasca* delako errebistaren 12. alean. Eta azkenik Idoia Gereñu langile gazte eta teatrozale handiaren eskutik II. Errepublika garaian Antonio Labaienek bideratu eta ia bakar-bakarrik moldatu zuen *Antzerti* teatro-errebistaren ikerketa eta faksimilea, bertako 56 aleetan 46 antzerki ematen zaizkigularik.

Euskal teatroarekiko oroitzapenen ganbaratik bi aipatuko ditut benetan gozoak baitzaizkit. Bata duela hamar urte, 1998ko azaroaren 13an, hemen egin nuen hitzaldia, Antonio Labaienen omenez Euskaltzaindiak prestatu zituen Herri Literatura Jardunaldietan, zeinetan bere hitzokin hasten nintzen:

Gure txikian aiek bezin aundi izan gaitezke ondo ikusten gure inguruko gizadiaren sakona: eta itzez eta egitez neurriz tajutzen badakigu: *Irria luze, nigarra labur*.

(A.M. Labaien, "Gure teatroa ta beste".
Egan, 1959, XII, 159-161)

Bestea, 1984an *Euskal Antzertia* liburua aurkeztu eta *Euskal Teatroaren Erakusketa* San Telmo Museoan ireki genueneko fotografia. Mahaian, Manuel Lekuona, Ramon Labaien, Eugenio Arozena eta neu. Erakusketa hartan tolosar batek lagundu zidan, Tuduri argazkilari eta zinegileak, eta esan behar dut Euskal Herri osoan barrena erakutsi zela gure teatroaren historiaren erakusketa hura. Donostiatik Baionara eta Bilbotik Mauleraino. Antzerti-eskolak eta antzezle taldeak funtzionatzen zuten garaiak ziren. Eta oroitarazi nahi ditut ixtorio hauek ahantzi ez daitezen, hain baita askotan memoria hauskor eta ahul. Eta bidenabar, antzerki bildumak aipatzen hasiz gero, has gaitezen hasieratik.

Lehen-lehenik Julien Vinson aipatu behar dut, hark argitaratu baitzuen 1891n XVIII. mendeko pastoral argitaragabe bat, *San Julien eta Santa Maximixa*-ren bizitzak kontatzen zituena. 1891. urtea zen, eta tamalez, hasi zuen *Collection des Pastorales Basques* delakoa lehen alean gelditu zen jarraipenik gabe.

Geroago, Julio de Urquijo ez baitzen izan, garbizalekeria aitzaki, bere *Revista Internacional de Estudios Vascos* (1907-1936) ospetsuan pastoralen oso zale, soilik Peñafloridako Kondearen 1762ko *El Borracho Burlado, Ordi engainatua* opera, eta Etienne Decrepten *Maitena* eta *Amatxi* argitaratu baitzituen.

Gregorio Mujika ormaiztegiarraren eskutik, bestalde, 1918an *Izarra* bilduma sortu zen, *Euskal Esnalea* aldizkarian 27 antzerkitxo ezberdin agertu zirelarik, 1918tik 1931ra. Bertan plazaratu zituzten Mujika berak, Alfonso Mª Zavala, Ander Amunarriz *"A. Larraitz"*, Toribio Larrea, Jon Iruretagoiena, Manuel Recondo, J.P. Etxeberria-Tolosa, Andoni Arozena, Toribio Alzaga, Arratibel, Mendizabal eta Telleriak. Batzuk emakumeentzat idatziak. Gehientsuenak komediak, saineteak, eta jostailu komikoak bezala aurkezten ziren. Haien artean bazen tolosar bat, alegia, Ander Amonarriz (Tolosa, 1881-Berrobi, 1953) *Mendibetarren larriyak* (1919), *Izarra*n eta *Antzerti*n urte batzuk geroago *Ustegabeko poza* (1933), *Iturrian* (1934), eta *Biotz oneko neskatila* (1935) antzerkiak plazaratu zituena. Baina tolosar antzerkigileei errepasotxo bat emanez gero, garbi dago ez zela lehena izan, tradizio aberats baten segida baizik. Oroitarazi ditzagun, besteak beste, honako izenak:

1 Ramos Azkarate (1847-1904): *Beotibarko jazarraren oroipena* (1886), *Ijitoen kontratuba*…

2 Eduardo Mokoroa (1868-1954): *Zara* (1913), eta *Leider* (1936).

3 Baleriano Mokoroa (1871-1941): *Damuba… garaiz* (1897), *Aitortu egin bear edo guraso baten estuasunak* (Ibaizabal, 1902).

4 Emeterio Arrese (1869-1954): *Zara* (1913), *Leider* (1936).

5 Jose Eizagirre (1881-Donibane Lohizune 1949): *Basotarrak* (Euzkadi 1911) antzerkiaren eta *Ekaitzpean* eleberriaren sortzailea (1948).

6 Jon Andoni Irazusta (1882-Lima 1952), eleberrigilea (*Joanixio* 1946, *Bizia garratza da* 1950); eta *Loxintxa* anzerkiaren egilea.

7 Ixaka Lopez Mendizabal (1897-1977): *Seaska abestia* (1932). Martinez Sierraren obra ospetsuaren moldaketa.

8 Xabier Peña (1914-1980): *Ene Potxolo* deitua.

9 Ander Amonarriz (1881-1953). Gorago aipatu duguna. Eta

10 Estanislao Urruzola (1909-1986): *Askatasun garratza*…

Hauei arima eta izpiritua izan zena erantsi beharko genieke, alegia, Jose Ariztimuño "Aitzol", faxistek gerran Hernaniko kanposantu ondoan erahila. Horrexegatik deitu izan diote II. Errepublikako belaunaldi honi, batzuek *Aitzolen belaunaldia*, eta beste batzuek *belaunaldi lurperatua* edo *generación enterrada*. Beraz, talde euskaltzale mardula osatzen zuten Antonio Maria Labaienen aitzindari eta garaikide bezala kontsidera ditzakegun tolosarrek, hura euskal teatroaren mugimenduan gailurretarik bat dela esan baitaiteke.

Egile hauei antzezleak erantsi beharko genizkieke, hau da, bai *Seaska-kanta*n bai *Losintxak* antzeztu zutenak, hala nola lizarditarrak Lizardiren *Artatxuriketak* eta *Ana Joxepa ta Lizarbe* (1935) obretan parte hartu zutenak, hala nola: Elosegi, Perez Izagirre, Galdona, Insausti, Esnaola, Leunda, Muñoa, Urkiola ahizpak, Munita, Artolazabal, Sansinenea, Agirre, Brau eta Ayerza, besteak beste. Labaienek *Antzerti* 1932an plazaratu zuenean, honakoa zioen lehen zenbakian:

> *Gaur lenengoz, irakurle maitea, Antzerti azaltzen zaizu. Antzerti bai, au da, Euskel Antzertiaren aldizkingia. Txiki ta apal datorkizula egia da; baita ere ordea, asmo aundi ta uste onez ornitua. Guziak, euskera ta gure Erria, antzertiaren bidez, suspertzearren.*
>
> *Asmo oriek bete al izango ditugun ala ez gure adiskiden eskuetan dago. Ez ba'diguzute laguntzarik ukatzen ez degu utsegingo ta gero ta geiago gaur sortu dan aldizkintxo auxe sendotzen ta edertzen alegindu ko gera.*

Eta garbi dago ez zuela pottorik egin bere helburuan, Idoia Gereñuk frogatu digunez. Bertan era guztietako antzertiari buruzko albiste eta berriak agertzen zaizkigu. Bai bertako, bai eta kanpoko antzeztaldeen gorabeherak xeheki. Ostrowski eta Gorki errusiarrez, nola Pariseko *L'Atelier, Les Quinze* eta *Arlequin* antzeztal-

deez, Zumalakarregiz antzerki bat idatzi zuen Friedrich Senbold alemaniarraz, Flandriako kristau antzeztalde eta antzerkigileez, Bretainiakoaz eta beste. Nolabait esan, antzerki ezberdin multzoarekin batera Teatroak euskal poetika bat aldarrikatzen zuen, gerraondoren ere finkatuz joango zena.

Eta gerra zibilaren ondoren erbestean zelarik, Euskal Herriko Sara herrixkan ez zion utzi idazteari eta argitaratzeari, zeren Baionan argitaratzen zen *Gure Herria*n plazaratu baitzuen *Gachucha*, "Becassine" Leone Galvez eta Henri Caouissinek (1938) idatzia. Eta geroxeago Guatemalako *Euzko Gogoa*n ere jarraitu zuen bere lanak plazaratzen.

Noizbait *Etor* argitaletxeak *Antzerti*rekin egin duen bezala egingo balu *Gure Herria* edo *Izarra* bildumekin, ez legoke batere gaizki, eta horrela nioena *Antzerti berezi* 5 hiruhilabeteroko aldizkarian 1983ko azaroan *Antzertiteka* artikuluan, honen beharraz mintzo, aurrerapen dexentea egingo genuke. Orduko *Antzerti*n ziren bildumak osatzen saiatu ginen zertxobait. Hauek, batik bat Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegian daude, noski, denen eskura. Baina egundaino ez dago Euskal Teatroaren liburutegi oso bat inon, ez eta literaturari dagokionez, euskal eskuizkribuen katalogorik ere.

Ez dezagun, halere, esperantzarik gal eta Donostian ez bada Bilbon edo Tolosan edo beste nonbait noizbait lortuko baitira euskal kultura eta antzertiak bere garapenerako behar-beharrezko dituen tresnak. Badaukagu bada gure artean XX. mendea aztertzeko, eta asko dago ikertzeke oraindik kultura arloan, hala nola, *Euzkadi, Eskualduna, Herria, El Día, Eguna, La Voz de España, Argia* eta beste zenbait egunkari eta errebista hustu eta sailkatu eta herrietako artxiboetarik sor dakizkigukeen albiste interesgarriak jaso eta ikuspegi orokor bat osatu. Oraindik egin ez dena. Bada lanik, beraz. Eta besterik gabe bide honetan milesker eta zorionak berriro Idoia Gereñuri burutu duen lan benetan eredugarriagatik.

Azaroak 25.

Kontxitari, hau da, María Concepción Esnaola nire amaginarrebari tronbo bat jo dio eta jergofasia dauka. Ezin hitzik esan berriketan eten

gabe jarraitu arren. Esan ditzakeen hitzak: *ola, agur, horrible, eso*… dira, eta ospitalean medikuak aztertu duenean, ikasle taldea eraman du berarekin, oso kasu berezia baita. Beti bezain panpoxa eta irribarretsu egon da medikuarekin eta beste denekin eszenako protagonista bailitzan.

Abenduak 11.

Antonio Dominguez Rey UNEDeko lankideak, bere harreman berezien medioz, *SERTA poesía y pensamiento poético* errebistaren 9. alea, 2006-2007 Madrileko *Casa de Asia* deituan, arratsaldeko zazpietan aurkeztea lortu du. Richard Burnsen ingelesez eta gaztelaniaz ematen den hamabi puntuko deklarazio batekin hasten da; nik hemen lehena soilik ezarriko dut euskaraz:

> Ez dago alde eta aldi gunerik. Lekuak oro, garai guztiak dira era berean zentro eta periferia. Yeatsen doluari Octavio Pazek honela ihardetsi zion, *el centro no se tiene* (1919), ezin daiteke zutik egon erdigunea, azpimarratuz gure historian lehen aldiz garela gizarte osoaren garaikide (1950).

Eta hala, gaur egun irakur ditzakegu munduan beste aldean dauden poetak, eta Fernando Pérez-Barreiroren *La larga marcha de la poesia china moderna* antologiari esker, hamaika poetaren artean Gu Cheng (1979) bezalako poeta, zeinak poema batean esaten baitu: *Belaunaldi Batez. Gau beltzak begi beltzak eman zizkidan / baina neuk argia bilatzeko darabiltzat.* Aurkezpena eta Antonioren hitzak bukatutakoan, modu xumeagoan jarraitzen dugu literaturaz, hontaz eta hartaz mintzatzen Bernardo Atxagari hainbeste gustatzen zitzaion *Hotel Suecia* errestaurantean afaltzen dugun bitartean.

Abenduak 13.

Iparraldean Euskal Kultura-*L'Institut Culturel Basque*ko zuzendaria den Daniel Landart adiskidearen bitartez lortu dut *Elkar* Baionako liburutegian goizeko 11tan *Conference de presse*… delakoa, hau da zenbait kazetariren aurrean, Jean Haritschelhar Euskaltzainburu ohia lagun, XVIII. mendeko hamar pastoralen edizioa paperean eta CDan aurkeztea. Nire Iparraldeko gauzekiko atxikimenduaz mintzatu naiz lauzpabosten aurrean. Ez du, noski, animo handirik ematen ia mila

orrialdeko lana burutu ondoren hain jende gutxiren aurrean egoteak, baina, ohiturik nagoenez, ongi pasatu da goiza, Daniel eta Jean *Rôtisserie du Roi Léon*era bazkaltzera gonbidatu ditudalarik; hango harlauza zaharrak harrigarriak dira, eta kanpoko hoztasuna laster joaten da giro epelean.

Abenduak 18.

Lander Zurutuzak, Udal Liburutegia "Andreone" Kultur etxeko zuzendariak gutun bat idazten dit Jaizkibelen erdi salbaia gisa edo ermitau moduan bizi zen eta idaztea gustatzen zitzaion Tarragona deitzen genuen gazteaz [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 29)]. Bitxia Tarragona gazte erdi-basati honen poesiarako joera!

Abenduak 20.

Senperen, *Gratien Adéma "Zaldubi"-ren mendeurrena (1828-1907)* ospatzen dela-eta, areto xume batean Euskaltzaindia eta herritar batzuk bildurik, Mikel Zalbide mintzatu da lehenik Iparraldeko XIX. mendearen bigarren erdiko euskalgintzaz: Zaldubi eta bere garaiaz; Xabier Altzibarrek Ademaren prosa idazlanak ikertu ditu, Henri Duhauk prestatu edizioaz, hau da, Gratien Adema Zaldubiren *Saindu batzuen biziaz*, eta neronek lan xumeago bat aurkeztu dut, Ademak idatzi *Jeus* poemaz iruzkinak. Herriko auzapezak, Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiak eta Andres Urrutia euskaltzainburu berriak hitz batzuk esan dituzte; *Euskera* 2007-3n bildurik daude denak.

Anton Abbadiaren Lore Jokoetara aurkeztu bertso batzuk hartu ditut mintzagai, beraz, eta zehazki honela bukatzen direnak:

*Zoroa, zer diot!… Bertsu hauk **jeus** balio!*
*Gauza segura da **jeusez** egin tudala,*
*Bada nik ez nuen **jeus** nahi gehiago,*
*Urus nahietan **jeus** eskas ez duena!*
*Ez **jeus** bat.*

Eta azpimarratu dut batzuentzat Kantiketan ageri dela gailen, eta poeta gutxik diruditela hain indartsu, hain grazios, hain natural. Halere, Bengoetxea kritikoak dio gai profanoetan daukala bai edukiz eta bai

formaz askatasun gehiago, eta esan litekeela estilo-baliabideak nabarmenago ageri zaizkiola honelakoetan. Bat gatozela gu ere, diot, baina ez duela euskal poesian jarraitzaile askorik bere poesia mota honek, baina, hor daukagula, adibidez Jon Mirande paristarrak 1950 urte inguruan moldatu zuen *Nihil igitur mors est*, honela bukatzen dena:

Gizendak eri zirelarik
Bizi-min deithu minbiziaz,
Mintzo zan, ixil, ez-jainkoa;
"Deus ez da" zion "herioa:
EZ dena Ezin daiteke hil".

Ex nihilo nihil fuit, Deus ez da deusetik sortzen ahal gogoetaren bidea luzea izan baita filosofian eta poesian. Hasi Lukrezio eta haren *De Natura Rerum*ekin eta gero Errenazimentuko Jean Passerat humanistak idatzi *Nihil, nemo…* liburuaren bidetik. Nork esan eta joko ezdeus materialista horien zale izango zenik Adema.

Abenduak 27.

Jean-Baptiste Orpustanek beti bezain adeitsu gutuntxo hau bidaltzen dit: *Patri Urkizuri, Egina duzun liburu hori bezain ederrik ez ukanik ere (zinez, miragarria da "trajerien" bilduma!), liburu berri zenbait eskupean banu, gogotik igor nezauzuke… Berantxago izan daiteke. Urte berri on zuri zorionakin.*

Abenduak 28.

Gaur inozenteen eguna. Tomas Garbizu lezoar musikoaren adiskide handia izan zen Joanes Diharze, aita Iratzederrekin Patxi Intxaurrandieta eta biok Tomasen biografia eta musika katalogoa egitean harremanetan jarriak ginen eta harrera ezin hobea izan genuen beneditar lohizundarraren partetik, eta horrela Lezoko musikazale talde batek, Juan Padrosa pianistarekin eta Koro Saenz organistarekin eta beste batzuekin, erabaki genuen bisita eginen geniola Beloken. Beraz, egun pasa joango ginela Iparraldera. Horrela bada, hiruzpalau beribilez joan gara santutegira eta bertako kaperan jo dute zenbait doinu organoan Patxi Intxaurrandietak eta Koro Saenzek. Fotografietan ageri dira Gotzone, Patxiren emaztea, Estanis Karrera, Ander Etxebeste… ere. Komentuko

bisita eta kanposantuarena egin ondoren, bazkaltzera joan gara denok elkarrekin eta ekipo on bat bildu. Arratsalderako Marga eta biok beren etxean utzi ditugu Donostian Padrosa eta emaztea, modu txit finean aitortu digutelarik Iparraldera txangoak egiteko eta han ematen diren kontzertuak entzuteko duten zaletasun handia, eta gaurkoa beren bizitzako txangorik ederrenetarikoa izan dela.



Irudia 75: Belokeko komentuan, Juan Padrosa pianistaren aurrean eta Iratzeder poetaren eskuinean nago.

2008

Urtarrilak 16.

MADRILEKO Euskal Etxeako Jon Zaballa Uraga zuzendariarekin hitz egin dut, beti bezain adeitsu, eta bat etorri gara bertako aretoan egingo dugula UNEDeko zenbait ikerketa-lanen aurkezpena. Baldintza bakar batekin, alegia gonbidapena gutuntxoan gure unibertsitatearen aldamenean bertako armarriaren irudia ezarriko dugula, horrela elkar-lan bat dela adieraztearren. Fakultateko dekanoa, latinista eta poeta ona den Antonio Moreno Hernándezek hartu du hitza, etxeko lehendakariaren agurraren atzetik, katalan-galego-euskararen zabalkundeaz burutzen ari garen lana goraipatuz. Gero liburuak aurkeztu ditugu. Julia Butinyàk, *Nova antologia de la Literatura catalana*; Manuel Rodríguez Alonsok, *Dicionario Fraseolóxico castelán-galego*; eta neuk, powerpointerako ikus-entzunezko gaietan aditua den Miguel Minaya laguna kanoiarekin ezarriz, *Teatro popular vasco. Manuscritos inéditos del siglo XVIII. Estudio y edición*. Dena oso ongi atera da eta, txaloen ondoren, *Txoko* tabernan ardo bana edo bina dastatu dugu denok. Baina ez da horretan bukatu hainbeste lan eman didan liburuarena, zeren eta lankideen batzar tipia bildu baitut nire inguruan, Irizar goiko jatetxe dotorean. Pako Gutiérrez Carbajo eta Clara Sánchez, Pepe Romera, Miguel Ángel Pérez Priego eta bere adiskide Biki, Vicente Granados eta Anjelita, Brigitte Leguen, Alicia Yllera eta ni. Ez dakit norbait ahazten dudan, ez dut uste, baina azpimarratu behar dut bisiguari ohoreak egin dizkiotela denek, eta lagunarteko solasa benetan alaia eta interesgarria izan dela. Biki arduratu da argazkiez.

Otsailak 4/9.

Bergaran azterketak zuzentzea suertatu zait oraingoan eta etxetik gertu dagoenarren, egoitza ondoko *Hotel Ormazabal*en hartu dut gela noizbehinka atseden hartzeko. Prestatzen dut José Romera lankidearen zuzendaritzapean *Interculturalidad teatral europea* postgraduko masterrerako bost kreditu balio duen nire gaiaren gida: *El teatro en vasco y sus puestas en escena.* Honek ohiko arazoa izango du, alegia, ikasleak ongi

jakin beharko duela euskaraz, zeren eta oso obra gutti baitago euskaratik gaztelaniara itzulita.

Lanak uzten didan tarte batean Udaletxeko artxibora joan naiz eta *Pleitos Criminales C/334-03* bezala katalogaturik dagoen orri mordotik, Miguel Antonio de Otalorak 1770ean idatzi zituen bertso iraingarriak kopiatu ditut, Juan Mari Lekuonaren omenez –2005eko abenduaren 5ean hil baitzaigu oiartzuar poeta handia eta adiskide ona–, moldatu *Iker* 23an ikertuko ditudanak *"Ziri-bertso eta eske-kopla argitaragabeak (1770, 1827)"* lanean. Lanaren lehen partea ziri-bertsoek euskal bertsogintzaren alorrean konstante bat osatzen dutela esanez amaitu dut, XIX. mendean Piarres Topet Etchahunek ofizio zenbaiten aurka eta Serafin Barojak karlisten kontra idatzitakoak izan daitezkeelarik, besteren artean, adierazgarrienetarikoak. Dena den, ikerle batentzat horrelako perla argitaragabeak aurkitzea eta plazaratzea pozgarria izan ohi da. Hona lehen lau bertso-lerroak eta ikus dezagun estiloa:

Atentzioz, jentia, aditu ezazu,
Corpus Christi gabian gazeta dute paratu,
Ura paraturikan gabian amaiketan
Bota diote kulpa kojuari bizkarrian…



Irudia 76: Eskuinetik hasita: Patxi Intxaurrandieta musikoa, Iratzeder poeta eta ni.

Urtero ohi bezala Gipuzkoako Kutxak 2008ko Donostia Hiria antzerki-saria emateko bildu gara eta, bozeramaile hautatu nautenez, hona esan eta idatzi dudana, argitaratu liburukian agertu bezala:

> Mende erdia betetzen duten Literatur Sari hauetan, eta hamaseigarrenez antolatu den antzerki-norlehenkan, hamaika antzerki lanen artean Aurelia Arkotxa, Ana Toledo, Imanol Elias, Daniel Landart eta Patri Urkizuk osaturiko epaimahaiak, Andia kaleko Ekitaldi-Aretoan otsailaren 23an bildurik, *Ohe Deseginak* titulua daraman antzerkia hoberenestea erabaki zuen.
>
> Plikak irekitakoan Patxi Zubizarreta (Ordizia 1964) agertu zen irabazle. Ez da idazle hau ezezaguna Euskal Letretan, zeren nabarmendu izan baita Haur eta Gazte Literaturan hogeita hamar liburutik gora idazteagatik. Izen batzuk ematearren, hor daude *Ametsetako mutila* (1991) edota *Zazpigarrena eta azkena* (2005), irudiak Asun Balzola, Elena Odriozola, Jokin Mitxelena edo Anton Olariagak marraztu dituztelarik. Idazlan hauez aparte baditu itzulpenak, adibidez Montxo Iturbide iruindarrak idatzi *Antzerkilandia* (1992) eta helduentzako plazaratu hainbat narrazio, hala nola *Gabrielle* (1991), *Jeans-ak hozkailuan* (2003), edota *Troiako zaldia* (2003). Eta *Poxpolo kaxa bat bezala* (2005) lanaren bukaeran ikus daiteke zenbat artista eta musikarirekin (Jabier Muguruza, Txema Garcés, Joseba Loinaz…) batera parte hartu izan duen *performance* deitu ikuskizunetan.
>
> Teatro mundua ez zaio arrotz, beraz, eta antzerkia aurkezten eta ixten duten irudiak Edward Hopper-enak dira, zeinak halako dotorezia ukitu batez enkoadratzen dituen pertsonaiak eta haien artean gertatzen diren elkarrizketa, istilu eta kezkak. Margolari amerikarraren obrari buruz honakoa zioen Charles Burchfield-ek: *Gure eguneroko bizitzaz etorkizunak askoz ere gehiago ikasiko du Hopper-en obrak kontenplatuz gizarte- eta politika-eskoletara joanda edo azken abangoardietako koadroak ikusita baino.*
>
> *Jeans-ak hozkailuan* nobelaren ardatza bere bizitzari zentzua bilatu nahian dabilen emakumea bazen, eta senarrak beste ande-

re batekin engainatzen bazuen, *Ohe deseginak* antzerkian berriro helduko dio gaiari. Oraingoan, berrogei urtetako krisialdia deitu izan dena pairatzen dute lau pertsonaiek, eta halako bi hirurko sortu bide dira. Teresak Migelekin eta Karlosekin izanen ditu harremanak, eta Migelek aldiz, Teresa eta Ursularekin.

Pertsonaien alde psikologikoak sakon landuak daude eta ohea leku sinboliko bilakatzen bide da, lau ertz baititu. Batez ere emakumeen barne munduak, nahiak, eta espresa-moduak oso ongi aurkeztuak daude, eta harremanak ausart eta gordinki adieraziak.

XX mendeko iparramerikar errealismo psikologikoaren ildotik, eta gurean 60ko hamartean *Jarrai* taldeak hain gogoko zuen irekitako bidetik, gaiak, diodan bezala, ausart eta gordinki aurkezten ditu Zubizarretak, garai batean moral hertsikoentzat eskandalu-harri zirenak baina gaur egun inolakorik sortu beharko ez lituzketenak. Halaber benetako teatro egitura ongi eraiki batean oinarriturik –akotazioak eta ohar eszenikoak adibide gisara–, eta euskara jori, landu, aberats eta ederrean ematen dizkigu amodioaren eta ezaren, bakardadearen, komunikaziorik ezaren inguruan sortu tristeziak eta bozkarioak.

Obra hau leitzean irakurleak plazer izanen duela uste du hitzok idazten dituenak, baina gozamen handiagoa oraindik euskal antzezle on batzuek –eta gero eta bikainagoak ditugu– taularaturik eta jokaturik denean ikusleak.

Otsailak 25.

Euskal Herriko Unibertsitateko Komunikazio Fakultatean *Artes y Ciencias del Espectáculo* alorrean irakasle den Pedro Bareak gonbita egin dit Leioan euskal antzertiaz hitz egiteko eta moldiztegian daukadan obra berriaren albistea ematen diet ikasleei eta powerpointez euskal teatroaren historia laburra eskaintzen. Kreditu batzuk balioko diete ikasleei, baina nabarmena da ez dakitela piperrik ere euskaraz, eta interesa euskal teatroarekiko, beraz, oso bigarren mailakoa dutela iruditzen zait.

Otsailak 28.

Gasteizen, Iñaki Aldekoaren zuzendaritzapean, Mikel Hernandez Abaituak *Ramon Saizarbitoriaren lehen eleberrigintza* tesia aurkezten du, epaitzeko tribunala Jon Kortazar, Jesus Maria Lasagabaster, Aurelia Arkotxa, Maria Jose Olaziregi eta neronek osatzen dugula. Nire txostentxoan diodanez, tesi honek euskal eleberri modernoen azterketan mugarri sendo bat markatzen du eta, noski, literatur kritikaren joera estetikoen ezagutza sakona erakusten. Metodologiaren erabilera zehatza, obren arlo pragmatiko, sintaktiko eta semantikoa xeheki aztertua, eta *Nouveau Roman* bikotearen erabilera arinegia kritikatzean erabat ados nagoela, diot. Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako, 100 metro,* eta *Ene Jesus* eleberriak euskal letretan bide berrien adierazle eder eta nabarmenak gertatzen direla. Olaziregiren eta Hernandezen arteko eztabaida bukatutakoan, bazkaltzera joan gara leku on batera, zeren eta sortzez gasteiztarra den Mikelek ongi ezagutzen baititu horrelako okasioetarako janlekuak.

Maiatzak 18/24.

Aluminiozko *valija*-tan, kutxa handi batzuetan doazen azterketak irekitzeko giltzak jaso ditut eta banoa Málagara trenez. *Hotel Don Curro,* Sacha de Lara kalean. Atzo Fakultateko igogailuan Isabel Escudero, Agustín García Calvoren musarekin topo egin nuen eta bere azken poesia-liburua oparitu zidan: *Fiat Umbra.* Valentziako *Editorial Pre-textos*ek argitaratu berria. Ezagutzen nuen *Coser y cantar* (1984) poema-liburua, bere kopla herrikoi eta filosofikoekin, non Antonio Machado eta haiku japoniarren tradizioa nabarmen zitezkeen. Eta trenean irakurtzen nindoala, itzultzeko egokiak zirela bururatu zitzaidan eta *Itzala Begi* titulupean hasi nintzen: *Ilun adi egon daitezen / argi eta klar ura bezala / inork konpreni ez dezan*. Eta Abel Martinen sonetoarekin:

HUTS HANDIARI

Ezereza egin zuenean den Izakiak
Eta atseden ongi merezitakoa hartu,
Eguna jada gaudun zen bilakatu,
Maitearen ezean kidea lortu gizakiak.

Fiat umbra! *Giza-gogoeta sorturik zen,*
Eta arraultze orokorra hutsik,
Ez hotzik, ez kolorerik, ez eta muinik,
Laino arinez betea eskuan jaso zuen.

Huts osoa, esfera hutsa har ezazu,
Ikusi nahiz gero zutik so behar baituzu.
Gaur zure piztiaren bizkarra sorbalda

Eta eza betearen baitira mirari,
Mugaldeko kantaz topa egiezu, poeta,
Heriori, isiltasunari eta ahanzturari.

María José Álvarez Arza, *Economía Aplicada e Historia Económica* asignaturako irakasle titularra da Málagako zuzendari argia, Fomentoko ministroaren ahizpa, eta lehen mementotik ongi moldatu gara elkarrekin. Bazkalondoan bere bulegoan telebista eta tenis pixka bat, lo-kuluxka egitera iristen naizelarik. Berak eginiko tesia uzten dit irakurtzeko eta interesgarria da benetan: *La economía andaluza vista por los viajeros del siglo XIX. Materiales para una historia económica*, Madrid, 1986.

Arratsaldean ibilaldi luzeak egiten ditut *Paseo Marítimo Pablo Ruiz de Picasso* deritzanetik Puerto del Condado deituraino; bidean, *El tinteron*, *pescaíto frito,* alegia, arraintxo frijitua, txipiroi txikiak, fanekatxoak eta sardina erreak, besteren artean, ardo zuriarekin. Bakar-bakarrik nagoenez, nola ez bete nire malenkonia nolazpait, emakume ederrei begiratuz? Nola ez, *Antigua Casa de Guardia* deitu tabernan upeletarik isuritako *finoa* eta urdaiazpikoa dastatu ditut. Halere, astea luze egiten ari zait, ikasle asko baititugu eta UNEDen egoitza etxe arteko patio batera ematen duten areto behe batzuetan dago, aldirietako auzo langile batean. Libre ditudan orduetan katedrala, Alcazaba, Picasso Museoak, eta gero bainu turkoak bisitatzen ditut, hauek garbi eta zertxobait arinago uzten bainaute.

Migel Anjel Basurko, Errenteriako Institutuan lankide izan ginenez geroztik, adiskide on eta apaiz ezin hobea maiatzaren 18an hil da. Hainbeste gosari eta bazkaritan ondoan izan dudana baita, eta bere eskuzabaltasuna amaierarik gabea, bere omenez bi hitz egiteko eskatu didate eta hona hemen burutu ditudanak.

ESKERRIK ASKO, MIGEL ANJEL BASURKO

Bai. Norbaitek Errenteriako Institutuan egindako lanagatik estimurik eta esker onik merezi badu –eta askok merezi dute–, hori Migel Anjel Basurko da. Langile isil, apal, nekaezina. Denentzat irekia eta eskuzabala. Hogeita hamalau ikasturte luzez iraun du bertan, bere bizitzaren urterik hoberenak utziz eta leialki jokatuz. Amodioz. Bere bulegoko atea beti egon da zabalik denentzat, eta batez ere beharra zuten ikasleentzat. Isil-isilik zenbat ikasleri ez ote die lagundu, eta zenbat irakasleri ez ote die entzun adi-adi, inoiz pazientziarik galdu gabe?

Oroitzen naiz nola 1972-73 ikasturtean hasi nintzen Errenteriako institutuan lanean penene bezala –Francoren diktaduraren azken garaiak ziren– eta nola biltzen ginen klandestinoki bere gelan, *Onbide* zinemaren egoitzan apaizek zuten etxe-bizitzan, Migel Sagues, Txelo Abadia, Jose Anjel Meoki, Jose Anjel Tamayo, Isabel Mujika… Nola ez zen konturik, ez eta umorerik falta Errenteriako *Alavés* Tabernako bazkalondo berritsu haietan –oroitzen Mikel Arregiren Bidasoako amuarrainari buruzko ipuinaz?– Zer egin galderari erantzun egokia bilatzen, eta panfletoak erredaktatzen ere ikasten…

Bazkari lekuak geroxeago Lezo aldera aldatu ziren, eta zenbat otordu goxo ez ote genuen elkarrekin eman *Uztarri*n, hala nola *Oriotarra*n, Fernantxok prestatu eguneroko janari goxoak dastatuz eta eguneko gertakizunei errepasoa emanez.

Garai hartan kontatzen zizkigun bere anaia –*el padresito Basurko*– misiolariaren abenturak Ekuador aldean eta haren balentriak bertako futbol ekipo nazionalean. Bere ahotik ikasi genituen zenbait esamolde latinoamerikar, hala nola *no me friegue la pasiensia*, bat gogaikarri bilakatzen ari zela adierazteko.

Migel Anjeli zor diot neurri batean bederen, 79-83ko epean alkate izana nire sorterrian, egun batean etorri baitzitzaigun Institutura esanez herri-kandidatura bat prestatzen ari zirela Mutrikun, eta neri, zergatik ez, Lezon ideia probatzea bururatu baitzitzaidan, eta izan genuen egitasmo horretan adiskide, eta askok pentsatu baino arrakasta gehiago.

Garai horretan hasi ginen *Ixkulin*en ospatzen gremio-bazkariak eta gaur arte ez dugu hutsik egin inork, Heriok bere lur-magalera bidean eraman nahi izan dituenak salbu. Hala, *Olatz*eko ermita ondoan irailean ospatu izan dugu urtero lagunarteko bazkaria eta Migel Anjelek hain txukun eta polit eraberritu elizatxoan *Salve Regina* eta *Agur Jesusen Ama* kantatu ohi dugu debozioz eta hots goraz. Eta bazkaldutakoan Kalbarixora igo eta handik itsaso zabal sakona bista aurrean, *Itsasoa laino dago* ere abestu aurtengo estropadak nork irabaziko dituen edo Errealaren gora-beherak komentatuz.

Beti izan da niretzat Migel Anjel, adinkide, lankide, gogaide eta solaskide on eta aparta, eta urte askotan ere berdin jarraitzea espero dut. Niri irakaskuntzan oraindik ikasturte batzuk geratzen zaizkidan arren, ene uste apalez, Migel Anjelek irakaskuntzatik oso ongi merezitako atsedena hartzea primeran iruditu zait, gizalegean beti jarraituko baitu irakasle izaten, adiskide eredu. Ez diot bada, esker ona baizik zor. Bihotz-bihotzez, eskerrik asko, Migel Anjel Basurko.

***

Ekainak 4/6.

Gillermo Etxeberria buru, *Egan* aldizkariak Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen babespean *Euskal Zinemagintzaz eta antzerkiaz* hitzaldi batzuk antolatu ditu KM kulturunean, ekainaren 4tik 6ra arratsaldeko 7tan, eta niri *Tradizioko heroiak euskal teatroan eta zineman* gaiaz hitz egitea bururatu zait, eta ostiralean, ekainak 6, mahai-inguru bat daukagu Iñaki Aldekoak, Daniel Landartek eta neronek, Joseba Gabilondorekin batera. Honen hitzaldiaren titulua honakoa izan da: *Euskal eleberriaren ezintasun zinematikoaz eta beste literatur genero "Txiki" eta hibridoen potentzial mediatikoaz (edota zergatik eleberria genero ofizialista irakurtezina bihurtu den).* Danielek ahopez esaten dit ez diola deusik ere konprenitzen, eta ni erantzun beharrean nago, niri ere asko kostatzen zaidala, ahalegintzen naizela, baina nik ere ez diodala dena ulertzen. Nire txostenaren laburpena honakoa izan da:

Herrialde eta kultura bakoitzak, beraz, gizarte bakoitzak edota gizarte konplexu baten giza maila bakoitzak badu bere irudimenak sortu mundu berezia. Irudimen ahalmen honek, mitoak eta leiendak sortuz errealitate bilakatzeko bide den izpirituak pasioz beteriko irudi multzoa, gizartearen irudi egitura bat eratzen du, iruditegi propioa. Heroiez jantzia. Antzinatean pertsonaia ez arruntek egindako ekintza eta garaipen kuraiatsuak zirela-eta herri oroimenak erdi-jainko bihurtzen zituen. Mendebaldean eta Erdi Arotik hona, heroiak, errege, erregina, printze, printzesa, saindu, gudari, eta bidaiari ospetsuek osatu bide dute iruditegi hau, batzuk benetakoak, historikoak eta besteak asmatuak, apokrifoak. Gizonezkoak eta andrazkoak. Bibliatik, alegia, Testamentu Zaharretik eta Berritik datozkigu zenbait *(Dabid, Judith, Esther, Jundane Jakobe…)*, hainbat Greziatik *(Edipo, Alexandro…)*, hauek Frantzia eta Espainiatik *(Roland, Joana Arkekoa, Ximena…)*, eta besteok gure herrian sortuak *(Lekobide, Elkano, Santakruz, Ramuntxo…)*. Horiek guztiak nola tratatu dituen Teatroak eta Zinemak bai gurean bai mendebaldeko beste erresumetan, eta nola itxuraldatzen diren eta zein mezu ideologikorekin lotzen diren aztertuko ditut hitzaldian, ilustrazioz eta bideoz lagundurik. Adibidez, Lotiren *le vrai faux basque*, euskaldun faltsu benetazkoaren irudiaren, *Ramuntxo* nobelaren, antzerkiaren eta filmaren ideologizazioa…

Uztailak 1/2.

Zenbait lankidek badaramagu hamaika asteazken Fakultateko tabernan, erreserbatu behar den partean elkarrekin bazkaltzen: Miguel Ángel Pérez Priego, José Romera, Francisco Gutiérrez Carbajo, Vicente Granados, honen emazte Angelita, Clementa Millán eta neroni, eta bai politikaz, bai eta literaturaz mintzatzen garenez, UNEDekin batera erabaki dugu denok parte hartzea Udako Ikastaroetan Ekainaren 30etik Uztailaren 4ra *Claves para la interpretación de algunas obras principales de la literatura española* titulupeko kurtsoan, bertan euskal literaturak ere lekua izango duelarik. Uztailaren batean bagoaz Vicente eta neu beribilez, Madriletik Deniara, neu gidari, haren BMW azkar eta dotorean. Alzira eta Gandiatik pasatzerakoan, eta hirira iristear gaudelarik, ohartzen naiz nola muino guztiak etxez beteta dauden. Hotela hondartza aurrean dugunez, iritsi bezain laster bainu bat Mediterraneoan eta prest

gaude afaltzera joateko. Bertan topo egiten dugu Clara Sánchez, eleberrigile, sari sonatu batzuen irabazle eta Pakoren emaztearekin, zeinak kontatzen dizkigun Denia inguruko misterioak, bere nobela batzuen kokaleku izanen direnak. Niri hitz egitea suertatzen zaidanean, irudi batzuen laguntzaz, euskal eta erdal literaturen arteko harreman nagusiez argitzen saiatzen naiz. Arratsalde batean bagoaz *Cap de San Antoni* aldera bertako bista aparta dastatzera, eta Clarak bidean kontatzen digu nola bizi izan zen urte batzuetan inguru haietan, Pako Deniako Institutuko irakasle zen bitartean.

Irailak 18/27.

Nazioarteko 56 Donostia Zinemaldia ospatzen da egunotan eta, jaidurari jarraiki, bagoaz takiletara zenbait filmetarako sarrerak erostera. Aurten Mario Monicelliren ziklo berezia dagokigu, hala nola Japoniako serie beltza. Sail ofizialetarako ez dugu ateratzen sarrerarik, gure ustez laster zinema komertzialean ikusi ahal izango baititugu. Neoerrealista italianoak nire kuttunenetarikoak direnez, Italiako munduan murgiltzen gara italiera pixka bat gogoratuz eta gozatuz. *La Gran Guerra* (1959), Vittorio Gassman eta Alberto Sordirekin, *I Compagni* (1963) Marcello Mastroianni eta Renato Salvatorirekin, eta beste. Dena den, memorian gelditu zaiguna *Il Marchese del Grillo* (1981) da, Alberto Sordirekin (Markesa) eta Paolo Stopparekin (Pio VII aitasantua). Iraultza Frantsesaren garaian frantses tropak Erroma hartu zuteneko ixtorio ezin barregarriagoa kontatzen digu, zeren irri egiten baitu garai hartako armadaz, aristokraziaz, Vatikanoaz, kardinalez eta haien ingurukoez. Marga eta Patxiren barreak eta neureak oraindik entzuten ditut zinema-aretoan. Eskerrak *Youtuber*ri edota KMren mailegu sistemari ikusi ahal daitekeela, hau da, orain Interneten, eta ez duela ezer galdu bere graziaz.

Mari Jose Olaziregik bidalia jaso dut Joseba Zulaikak zuzentzen duen *Center for Basque Studies, University of Nevada, Reno*tik gutuna, *History of Basque Literature* liburuaren partaide naizenez, sinatu behar dudan kontratua. Lau urte igaroko dira ingelesez argitaratu aurretik, beste titulu batekin: *Basque Literary History*; hitzaurrea Mari Jose berak egina eta sarrera Jesús María Lasagabasterrek. Itzulpena Amaia Gabantxok burutuko du, nire lana honela itzulita ageriko delarik: *Basque Theater from Costumbrismo to Political Symbolism.*

Pierre d'Urteren eskuizkribu batzuk, hau da, gramatika eta hiztegia, Sotheby´s enkantetxean ateratzear zirela konturatu nintzen nire Interneteko nabigazioetan eta Frantxis Landatxeri deitu nion jakitearren ea KMko liburutegian interesatuak zeuden erosketan. Erantzun zidan bazirela beste euskal erakunde batzuk eta beraz Foru Aldundia erretiratu egiten zela norgehigokatik. Gaur Alberto Fernández-Dárlasek ematen du albistea *El Diario Vasco*n eta nire tesia aipatzen du, esanez ezin izan nuela eskuizkribua zuzenean aztertu, mikrofilmean baizik –egia esatearren ez nuen aztertu eta transkribatu mikrofilma, Urkixo mintegian zeuden eskuizkribuaren tamaina txikiko fotografiak baizik–. Orobat aipatzen du Jose Maria Arriola bibliofilo bilbotarraren liburutegian dagoela duela urte batzuk erosi ahal izan zuen Bibliaren lehen bi liburuen itzulpena, hau da, *Ethorquia* eta *Ilkhitçea* eta badaitekeela Euskal Herriko Erakunderen batean geratzea donibandarraren euskal lana.

Mercedes Boixerau UNEDeko errektoreordeak bere literatur zaletasunak bultzaturik zenbait ekitaldi antolatzen ditu; *Aula de lectura*, *Rutas literarias* eta *Encuentros Culturales* bataiatu ditu. Ciden arruta, Jorge Manriquerena, Mercè Rodoredarena eta beste batzuena egin ondoren, Juanjo Alvarez, Bergarako zuzendariarekin Euskadin zehar antola ditzagun idazle zenbaitekin topaketak eta testu irakurketak antolatzeko eskatu digu. Hasi gara bada goizetik Donostiako Udaletxean, Ramon Etxezarretaren bitartez, Odon Elorza alkateak une bat hartu baitu Espainian barrena dabiltzan literatur erromes hauekin hitz egiteko, eta gero benetan txosten eder eta kritikoa irakurri du Ramon Saizarbitoriak Donostiako hiriaz, arteaz eta historiaz, *Rutas Literarias* liburuan agertuko dena. Juan Gimeno errektoreak eta Juanjo Álvarezek ere hitz batzuk esan dituzte, beren ohiko solasekin. Bazkaldu ondoren Victor Hugoren etxea bisitatu dugu Pasai Donibanen. Ondoren, guretzat bereziki, Hendaian irekitzen dute Anton Abbadiaren jauregia, programan ez zegoena, baina bisitari guztiei arrunt gustatzen zaiena. Ni atseden hartzera itzultzen naiz etxera beraiek Donibane Lohizunen prestatu dizkiedan poema batzuk irakurtzen dituzten bitartean. Arratsaldean, Ramon eta Lourdes Otaegirekin bagoaz Loiolako jatetxera bertan erromesekin eta bereziki Pilar Ruiz-Va-rekin afaltzera eta hau benetan oso pozik gelditzen da Ramonek edukitako detailearekin.

Urriak 11.

Biharamunean, lehenik Loiolako Basilika eta San Ignazioren jaiotetxea bisitatuta, bagoaz Arantzazura. Oteizaren apostoluak eta Lucio Muñoz, Julio López eta Joaquín Ramos zizelkari eta pintoreen artean diseinaturiko erretaulan dagoen Ama Birjina gotikoari agurra egindakoan, hitzaldi-aretora pasatzen gara. Han Jean Diharce "Iratzeder", Juan Mari Lekuona eta Bitoriano Gandiagaren poesia erlijiosoaren poema hautatu batzuk neronek irakurtzen ditut eta Pilarrek itzulpenak. Saio hau bukatutakoan, Zalduondoko Lazarraga Jauregia ikustera zuzentzen ditugu gure urratsak eta bertan Iñaki Aldekoarekin batera mintzatzen gara Euskal Literaturaz eta Errenazimentuko legegizon eta euskal poeta aurkitu berria izan den Joan Pérez de Lazarragaren garaiaz, poemez eta kantez.

Literatur arruta honen oroitzapen gisa hainbat fotografia geratuko zaizkit, hala nola Igeldopeko Txillidaren *Haizeen Orrazia* eskulturen aurrean Pilar Ruiz-Va-rekin daukadana eta Donibaneko plazan Santa Anaren ermitatxoa, goipartean dakusagula Errektorea, Juan Gimeno, errektoreordea Merzedes Boixerau eta beste batzuen artean, neroni makurturik nagoela. Esperientzia ederra izan zen, eta Merzedesek eskaini zidan arren, *Rutas Literarias* delakoen ardura har nezan, oso interesgarria zelarik ere, ezezkoa eman nion, nire arruta ohikotik, hau da, Donostia-Madriletik gehiegixko urrunaraziko ninduelakoan, eta Margak ez zuelako nahi denbora gehiago Madrilen eman nezan.

Azaroak 5.

Deustuko Unibertsitateak Donostiako egoitzan Nazioarteko X. Jardunaldiak. Gaia, *Exilio, Texto y Teatralidad* izenburupean zenbait hitzaldi antolatu ditu azaroaren 5, 6 eta 7an. Lehen hitzaldia José Monleón, *Primer Acto*, teatro-errebistako zuzendariak eman du bere hitz jario errazaz: *"Memoria histórica y exilio interiror durante la Dictadura"* gaiaren inguruan. Eta euskal teatroari dagokionez ilunabarrean honakook parte hartu dugu: Gorka Aulestia (UPV-EHU): *"José Antonio Arkotxa eta antzerki-lanak"*; Xabier Mendiguren (Elkar Argitaletxea): *"Telesforo Monzonen antzerkia: kanpoan baina etxean"*; Iñaki Azkarate (Hamaika Bide Elkartea): *"Antzerki folklorikoa eta ideologia Ruiz Añibarron"*; Iñaki Adurizek (Hamaika Bide Elkartea): *"Kantutik eta interpretaziotik saia-*

kera kritikora (Bokazioa eta konpromisoa Isidoro Fagoaga Larracherengan)" eta neronek *"Euskal antzertia erbestean (1937-1959)"*.

Gogoan dut orobat nola powerpointen ilustrazioak komentatzen ari nintzelarik, kritikatu nuen nire adiskide Askunze irakaslearekin, gaia tratatzerakoan, berak, euskal teatroaz hitz bat bera ere jakin gabe, exilioko euskal antzerkirik ez zela argitaratu ez eta Interneten zabaldu. Nire txostenean aipatzen nituen: a) Gerra Zibilaren garaian (1936-1939) eman ziren ikuskizunak; b) Ipar Euskal Herriko teatro-kronika II. Mundu gerlan (1939-1944); c) Antzerkigileak, antzerkiak eta antzezkizunak (Andoni Arotzena, Ander Arzelus "Luzear", Jon Etxaide, Antonio Labaien, Telesforo Monzon, Antonio Ruiz de Azua "Ogoñope", Martin Ugalde, eta Augustin Zubikarai); eta d) Antzerki-itzultzaileak: Bingen Ametzaga, Abelino Barriola, Andima Ibiñagabeitia, Bedita Larrakoetxea, Jokin Zaitegi… Beraz, ez bat eta ez bi, egileak hortxe zeuden, erbesteari buruzko bilduma-zuzendariak nahi bazuen jakin. Gezurra zirudien baztertze hori donostiar borondate oneko baten eskutik gertatzea, gainera. Bukatutakoan, Iñaki Beti galdezka etorri zitzaidan ea zergatik egin nuen salaketa hura, eta erantzun nion ea Unibertsitatetik kritikak ihes egin zuen, edo debekatua zegoen bertan zentzu kritiko apur bat edukitzea. Halaber, Mari Karmen Gil Fombellidari komentatu nion –Xabier Mendigurenen aholkuz, Monzonen obra baten zati bat taularatu baitzuten adierazgarritzat jorik– nola antzerki honek ez zituen inolaz ere Gerra Zibila edo erbesteko arazoak aipatzen, eta hurrengoan hobeto hauta zezatela…

Abenduak 8.

Madrilen Francesc Massipekin batera Abadia Teatroan, Ana Zamorano zuzendariaren *Auto de los Reyes Magos* ikuskizuna dastatzen dut. *Nao d'amores*ekin bat egin koprodukzioa da. Benetan latinetik moldatu eta gaztelaniaz idatzi (idazle gaskoinen batek?) testu laburra, garaiko beste batzuekin aberastua dago, obrak ohikoa iraun dezan, eta garai beretsuko musikekin moldatutako obra arrunt gustatu zait. Irudimenez betea dago, eta herri-sinboloez jantzia, erroetara eginiko bidaia modernoa kontsidera dezakegu. Bukatutakoan, aldamenean dagoen taberna madrildar klasiko batean ohiko erraziotxoak eta zerbezak dastatzen ditugu, Francescek bere komentario jakintsu, neurtu eta zehatzak adierazten dituen bitartean. Beti ikasten dut zerbait berarekin nagoenean.

Abenduak 10.

Nire amaginarreba Kontxita Esnaola zaintzen duen Igni, nikaraguar neska jatorraren paperak konpontzera joan naiz Nikaraguako enbaxadara eta zertxobait itxaron ondoren, inolako eragozpenik gabe, paperak eta pasaportea berritu dizkiote.

Abenduak 12.

Bildu ginen berriro Toribio Alzaga antzerki-saria epaitzeko Eugenio, Daniel eta neroni, eta Pako Aristik idatzitako *Josu Dukatiren Proposamena* hautatu genuen. Bozeramaile gisa honakoa idatzi nuen:

> Obra honen gaia hauxe da: Itun politiko bat ETAko buruaren eta Ertzaintzaren buruaren artean. Antzerki honek hiru pertsonaia nagusi ditu: Josu Dukati minbizia daukan ETAko buruzagia, Antton ertzainburua, eta Sara, Anttonen emaztea, lehenago Dukatirekin bizi izan dena. Ez da, ordea, ohiko amodiozko triangelua, ageri denez. Ekintza nagusia ertzainaren kuartel batean gertatzen da eta honen barneko galdeketa-gelan. Azken finean herri berean sortutako eta hezitako bi gazteak beren bizitzei errepaso luzea ematen diete, elkarrizketa etengabe eta dinamiko baten bitartez. Ekintzen eta hilketen justifikazio eta kritikak –ez behar adina zorrotz, bozeramailearen ustez–, elkarrekin aztertzen dituzte. Aspaldidanik jarraikitzen zion ertzainak Dukatiri, eta hau ohartzen da galdeketan askoz lehenago ere gartzelera zezaketela, baina arrazoi bereziengatik presondegiratzeari utzi ziotela. Azkenean bere burua eta besteak entregatzea erabakitzen du, ez baitu ikusten Erakundean inolako etorkizunik eta bai Euskal Herriarentzat kalte- eta sufrimendu--iturburua. Bi antzezle nagusien arrazoiak eta hitzak estilo zuzen eta elkarrizketa interesgarrien bitartez ematen dira, hala nola atzera begira ixtorio zaharrez osatzen den Euskal Herriko gizartearen isla. Epaimahaiko bozeramaileak honakoa nahiko luke, alegia, Gizarteak Antzertia kopiatzea, hots, hainbat eta hainbat aldiz aldarrikatu izan dena, ETA desagertzea denon onerako.

Dena den, geroago entzun nuenez ez zen antzeztalderik ausartzen obra eszeneratzen eta irakurketa dramatikoren bat soilik jokatu zen. Beldurra eta erakundearen eragina hain handia ote oraindik?

Abenduak 25.

Ostirala. Eguberri gauean Lezon Marikrutxekin eta etxekoekin afaldu ondoren, eta biharamunean Kontxita amaginarrebarenean, bagoaz aurten urtea bukatzera Lisboa aldera trenez. Gaua bidean igaro dugu eta aski animatua zegoen Marga. Taxia hartu eta *Hotel Metropol*era goaz. Oso gela ederra eman digute, Plaza Dom Pedro eta Castelo de Sâo Jorgeren aurrez aurre. Hotelean gosaldu dugu. Ingelesak, alemanak, frantsesak, euskaldunak… Marga bere gidarekin dabil infomazio guztia prozesatzen, eta ondorioz Sintrako trena hartu dugu. Geltokian oso jende gutxi, gaur Eguberri baita, jakina. Balirudike denak ohean geratu direla lotan. Trena martxan jarri da eta ohiko soinuaz, azeleradorearen hotsak, tuneletan sartzen denean sortzen duen oihartzuna, abiada handitzen doakigun heinean zarata ezberdina… Bideko hormetan gazteek pintaturikakoak, Erdi Aroko estilo itsusian burutu grafismo higuingarria. Behin Euskadi Irratian entzun nion hauetariko artista sortzaile bati, eta bere arteaz ematen zituen arrazoiak badaezpadakoak iruditu zitzaizkidan. Komikietako izugarrikeria zakarrak, gotizismo abangoardista izan nahi duen letra borobil multzo potoloak, izurrite mundiala dirudite, gustu txarra nagusitzen ari den seinalea. Itsusiaren estetika. Kontraste gisa, trenean doazen haur eta neskato beltxaranak.

Sintratik Lisboara itzultzean *Fundaçao Caluste Gulbenkian*go museoari egiten diogu bisita, eta Marga eta biok bat gatoz adierazterakoan lehen aldiz gauzak inpresio handiagoa egiten dutela, sakonagoa, eta gaztetan ikuskizunek gehiago txunditzen dutela edonor, urteen poderioz axola ttipiagotzen bailitzaigukeen…

Abenduak 26.

Goizeko bederatziak eta hogei dira eta Gazteluko bidea hartu dugu *Praça da Figueira* deritzanean, alegia, Piku Plazan. Tranbiara igo gara eta hemen zurezko eta burdinazko esalkietan lau pertsona goaz. Bi andre portuges, beltz gazte bat, Marga eta biok. Bidean ohartzen gara hemen ere txinatarren dendarik ez dela eskas. Tranbiaren bidean taxistak eta beste edozein beribil sartzen dira. Gidariaren pazientzia mugagabea da. Gazteluan barrena ibili eta bertatik hiria miretsi ondoren *O Arêgos*, portuko taberna herrikoian bazkaltzen dugu eguneko platera. Azeituna eta gazta aperitibo gisa, pasta eta arrain egosia. Dena oso garbia. Naba-

ri da auzoko jendea dabilela. Gero bagoaz paseatzera portuko kaietan barrena, eta *Cais das Oficinas*en hartzen dugu tea. Aurrez aurre moilak. Arribatu berria da bapore ttiki bat, *Zezito* izenekoa. Erremolkadoreak bertan daude. Belari dotore eta fineziaz bete bat miresten dugu. *Whateuer* du izena. Ez litzateke txarra hartan, bela guztiak zabalik, itsasoan barrena nabigatzea.

Abenduak 28.

Atzo hirian zehar genbintzala, honako eslogana aurkitu genuen horma zuri eta garbi batean pintaturik: *Anarquia E Liberdade* Ⓐ *Pedras E Fogo Contra Toda Autoridade*. Anarkia eta askatasuna, aginte ororen kontra harria eta sua. Gaur Belem-era goaz eta hemen kokaturik dagoen *Museu da Marinha*, Itsasoko Museoa bisitatu dugu: XV. mendetik XX. mende arteko maketa ikusgarriak. *Mapamundi*ak, nabigatzaileen erretratuak, Magalhaes eta beste. Gero, atseden hartu ondoren, Arte Modernoaren Museoan izan gara. Sarreran botila berde hutsez eraikitako zuhaitz bi. *Pop Art*eko koadro benetan interesgarriak eta pintore portuges moderno ezezagunen eder-lanak. Eguraldi kaxkar xamarra baitugu, Alentejoko talde batekin *Casa di Vinho*, hau da Ardo Etxean sartu gara eta bertan (Kapelu beltza, alkandora urdina, lepoko gorria eta larruzko galtza bexak) jantzitako abesbatzak kantu-kantari, beren mahastietako fruituaren zabalkundea egin nahiz…

Abenduak 29.


Astelehena. *Museu do Oriente*. Ekialdeko museoaren bosgarren solairuan bazkaltzen gaude leihotik portua ikusten delarik marabiloski. Belariak eta yateak, tamaina orotakoak. Garabiak. Urrunean alde batetik bestera doan itsasontzia. Gaur ere behelaino dugu. Museoko dendan *Máscaras da Ásia* liburu ederra erosi dut. Bertan aurkitu ditut sarrerak. Lau euro bakoitza. Teatro kolam-en agertzen diren deabruen maskarak, birjinenak, gerrarienak, jainkoenak, Nô teatrokoak…

Kalean goazelarik titulu hau daraman 1912ko kartela ikusten dugu: *Manifestacâo Anti-clerical.* Gutxi gurean horrelakorik. Bidaia honetan erosi dudan beste liburu bitxia eta benetan ederra Julio Dantasen *A Ceia dos Cardeais* da, *Livraria clásica*k argitaratua, Alberto Souza ilustratzaileak 1950ean moldiztegiratua. Ea noizbait animatzen den editoreren bat Andima Ibiñagabeitiaren euskal itzulpena plazaratzera, dituen

irudiak ikusgarriak baitira benetan, eta testua noski, goi-goi mailakoa, elizako kardinalen kritika zorrotza. Liburu-denda azuleju bikainez pintatu etxe zahar bateko bigarren solairuan dago, liburu zaharrak saltzen dituen Castro e Silva izenekoan. Eta bestea *Ediçao facsimilada de Arquimedes livros*ek berrargitaratu Pedro Fernandes Tomásek Coimbran 1934an plazaratu *Canções portuguesas (do século XVIII à actualidade)*. Baladen azterketa konparatiborako baliagarria, duda gabe.

Abenduak 30.

Maletak geltokiko kontsignan utzi eta bagoaz afaltzera. Afaria Alfaman egiten dugu, San Antonio jatetxean. Hiru solairu ditu eta horma guztiak zinema-aktoreen fotografiez apainduak. Bakailaoa patatekin oso ongi prestatua dago, nola ez. Ardo beltza, botila erdia, eta postretako udarea ardotan ere, oso ona. Loak trenean hartzen gaitu Madrileko bidean.



Irudia 77: Poesía Vasca. Sail hauetan banatuak daude poemak: 1. Ahozko Tradizioa; 2. Errenazimentua; 3. Barrokoa eta kontrarreforma; 4. Ilustrazioa eta Iraultza; 5. Erromantizismoa eta Kostunbrismoa, 6. Tradizioa eta Abangoardia. Azkenean ohar biobibliografikoak datoz.

Abenduak 31.

Atzo gauean *El Sur*-en afaldu genuen, Juan nagusiari datorren urte hasiera ona oparitu eta *Hotel Prado*ra erretiratu ginen. Gaur hemen gosaldu eta Caxa-Forumean *Príncipes etruscos. Entre Oriente y Occidente* erakusketa bikaina ikusten ari gara. Betidanik erakarri izan nau etruskoen hizkuntza misteriotsuak, eta haien hilobiak gaztetan bisitatu nituenean are gehiago. Kristo aitzineko X. eta IX. mendeetan Toscanaz, Umbriaz eta Lazioz jabetu ziren, eta Tarkinioen dinastiak Erroman agindu zuen K.a. VII. mendetik VI.era. Sarkofagoak, ontzi margoztatuak, freskoak, joia preziosoak, zenbat ikusgarri eder… Bisita Unn-i *Vinícola Mentridana*n, Lavapiésetik itzuliñoa egin, eta olagarro jigante baten fotografia daukan *Plus Ultra / Finisterre* jatetxe galegoan gaude bazkaltzen arroza, olagarroa eta Padróngo piperrak zerbezarekin bustiz.

Il divo, Paolo Sorrentinoren filma bertsio originalean ikusten dugu. Erroman mundu guztia lo dagoenean, goizean goiz, bada gizon bat loak hartzen ez duena, Giulio Andreotti. Boterearen bakardadean bizi da. Ongia egiteko Gaizkia egin beharra ote? Ongia Estatuari dagokionez egitea, honi bitartekoak oro (Mafia, Eliza…) zilegi ote zaizkio? Gauzak aldatzen joan ote dira Andreottik boterean iraun duen lau hamartetan? Toni Servillo Andreottiren pertsonaian barne muinetaraino sartu da, baina nola gainera, ezinezkoa litzateke hobeto errepresentatzea, zerbaitengatik filmak irabazi du Canneseko Juratuaren saria, eta *European Award*ena aktore onenari.

2009

Urtarrilak 1.

OSTEGUNA. Urteberri eguna. Marga prestatzen den bitartean nire oharrak idazten ditut koaderno beltz tipi batean, luma zorrotz edukitzearren, kamusteko arriskua baitu. Gaurko plana samurra da, ia leku gehienak itxita egongo direnez. Paseatu eta Edelweissen bazkaldu. Trena hartu eta gaueko bederatzi eta erdietarako etxean. Egun honetako fotografien artean badaukat bat *El Retiro*ko sarreran hartua, bizkarra Barojaren eskulturaren oinarrian ezarrita, txamarra, bufanda eta panazko galtzak ditudalarik jantzita eta Piok berokia eta txapela. *Madrid A Pío Baroja*. *17 Marzo 1980*. Gazte-gaztetandik asko estimatu izan ditut Serafinen semearen narrazio-motak. Noizbait iritsiko ote naiz haren nobelatxoren baten estiloa imitatzen ikastera, edo hobeto esatearren, hark sortzen duen pertsonaiekiko interesa piztera? Baina ereduak ez zuen beste zer egitekorik idazteko, El Retirotik paseatzea baizik, eta guk ez ote dugu bestelako libertimendu gehiegixko?

Urtarrilak 6.

Atzo gauean Antiguako *Oliyos* tabernan afaldu genuen Karmen eta Indiorekin (Josep). Beti bezain adeitsu Josetxo tabernaria eta bere emaztea. Gaur Errege Magoen Eguna. Goizean paseotxo bat eman, txistulariak Donostiako kaleetan barrena jotzen entzun, hiria esnatzen den bitartean, eta aterkia irekita ibili behar dugu euria ari baitu. Kontxi amaginarrebarekin Donibane Lohizunera joan gara eta *Le Basque* jatetxean bazkaldu dugu eguneko *plata*. Kafea hartu eta kostako bidetik Hendaiara. Itsasoa eta kostaldea benetan ikusgarriak daude, eta une honetan ia ez dabil inor karreteran. *Champion* supermerkatura joan gara, Frantzian jai ez denez gero, jogurt batzuk erostera, eta orain hementxe nago Euskadi Irratia entzuten dudala ohar batzuk idazten.

Urtarrilak 7.

Lander Zurutuzak beste gutun bat idatzi dit, esanez nire *olerki eder* batekin eta Andoni Trekuk moldatu marrazkiarekin markagailua pla-

zaratu duela Liburutegiak. Ale mordoa, gainera, eta behar izanez gero deitzeko, atsegin handiz bidaliko dizkidala-eta. Halaber, Urte Berri itxaropentsua opa dit. Beti bezain adeitsu Lander.

Otsailak 11.

Gaur trenez –*tarjeta dorada* izateko adina dudanetik trenez egiten baitut Donostia-Madrid joan-etorria, busean baino askoz ere erosoago– Madrid aldera natorrela, ikusi dut zuzenki nola ligatzen duten gaurko gazteek, hots, brasileiro baten eta txikana baten artean Kupidoren gezia nola aritu den lanean. Aurora Egidorekin zita izan dut Liburutegi Nazionalaren aurrez aurreko zerbezeria beiradunean. Eta prestatzen ari den *El Diálogo de las Lenguas* erakusketarako galdetu dit ea prest nagoen lantxoren batekin parte hartzeko. Gaia: *Manuscritos y libros vascos de la Biblioteca Nacional de Madrid*. Baiezkoa eman diot, noski, oso miatuak eta erabiliak baititut bertako euskal tesoroak.

Martxoak 24.

Gaur Lavapiés ondoko *Tribulete* kalean dagoen UNEDeko egoitzan, *Escuelas Pías* deituan, *Poesía Vasca. Antología bilingüe* 676 orrialdeko liburu mardula aurkeztu dut. Azaleko ilustrazio gisa 1820ko G. Engelmannen litografia, non itsasontzi bat Pasaiako portuan sartzen ageri den, eta Pasai San Pedroko aldean dagoen mendi gailurrean gurutze bat. Aurkezpen-mahaian, Mercè Boixareu errektoreordea, *Rutas Literarias y Artísticas* programako zuzendaria, Antonio Moreno, Filologiako dekanoa eta Miguel Ángel Pérez Priego, Erdi Aroko eta Errenazimentuko poesian aditua. Etorri direlako denei eskerrak eman ondoren, elebidunetan egin ohi diren saioak aipatzera pasatzen naiz egungo gaian, hau da, euskal poesiaren edizio elebidunetan. Azken hogei urteotan Julia Butinyàrekin eginiko elkarlana ere aipatzen dut, eta On Kixoteren itzultzaile den Pedro Berrondoren hitzak gogoratzen ditut galdetu ziotenean zergatik eman zituen hiru mila ordu inguru itzulpen lanean:

> *Maitasunak barkatzen ez duelako,* es decir, porque el amor no perdona… no escribo en euskera porque esta lengua tenga una larga o corta vida, sino porque es mi vida… No me duele el ha-

> berle dedicado tantas horas al Quijote, al contrario estoy muy orgulloso de ello. […] El País Vasco debiera hacer examen de conciencia y las paces con Castilla. Los vascos tienen cierta tendencia hacia Castilla, hacia Salamanca. Ahora, sin embargo se va en búsqueda de luces a Alemania…

Eskertu dut Antonio Dominguez Rey, *SERTA* errebistako zuzendaria, euskal poetak munduratzeko egiten ari den ahaleginagatik, eta *Medios Impresos* sailean lanean ari direnak ere, Josune, Ana, Isabel… Nola duela hiru egun ospatzen zen Poesiaren Nazioarteko Eguna, preseski, eta nola defini daitekeen, definiezina dena, alegia, Poesia dela Hitzaren bitartez Egia eta Ederra bilatzea, erditzen saiatzea.

Eta erreibindikazio unea ere iritsi zait aipatu dudalarik Carlos Alvar eta Jenaro Talensek Galaxia Gutenbergen argitaratu *Locus Amoenus, Antología de la Lírica medieval de la Península Ibérica,* non sartu dituzten latinez, arabieraz, hebraieraz, mozarabez, okzitaneraz, galaiko-portugesez, gaztelaniaz eta katalanez idatzitako poemak, ahantzi dituztelarik, ohi bezala, euskarazkoak. Ezjakintasunaren eta axolakabekeriaren emaitza. Eta ohiko topikoak periferiaz, eta euskara hizkuntza uhartea dela, *lengua isla*, kritikatu ditut, zeren alde batetik beti da bestea periferia, eta uhartea baino areago Euskal Herria Santiagoko bidean pasaleku ohikoa izan baitzen mendeetan. Saio honetatik Pérez Priegoren hitzekin gelditu naiz pozik benetan, hots, aitortu duenean harri eta zur gelditu dela euskal poesiagintzan zenbat poeta eta zein kalitate onekoak diren ikusita, *tantos y tan buenos*…

Martxoak 25.

Iazko maiatzaren 30ean sinatzen nuen UNEDek otsailean plazaratu duen *Teatro Vasco. Historia, reseñas y entrevistas, antología bilingüe, catálogo e ilustraciones,* 574 orrialdeko liburuaren *Presentación* delakoa. Eman dizkidaten ale batzuk teatrozale, ezagun eta adituen artean banatu ditut eta Alfonso Sastrek Hondarribitik gutuntxo hau bidaltzen dit, igorri diodana eskertuz: *Querido Patri: ¡Gracias mil por tu precioso regalo! Un abrazo muy afectuoso.*

Martxoak 26.

Ramón Etxezarreta adiskideari ere bidali baitiot ale bat. Honek kultura-delegatu bezala duen agenda betean aurkitu du lekua eta gaur hamabi eta erdietan egin dugu prentsaurrekoa. Lehenago, goiz jaiki naiz nire Madrileko korralan, Iruñerako trena hartu dut eta han Ramonek bidali didan Udaletxeko beribil ofiziala nuen zain. Gasolinaz eta elektrika indarrez dabilen hibridoan iritsi naiz garaiz. *Urrestillak* esan du eszeptiko xamarra dela liburuaren irtenbide komertzialaz, arrazoi osoz, baina horrelako liburuak beharrezkoak direla, oinarrizkoak euskal kulturan. Bere aldetik, Aizpea Goenagak gaztelaniaz azpimarratu du, hasieran beldurtu bazen ere, gero *tiene un problema y es que es muy interesante, y una vez que empiezas no lo puedes dejar.*



Irudia 78: Euskal Teatroaren Historia
30 antzerki testu hautatu itzuliekin, eta beste…

Martxoak 27.

Beraz, poztu egin nintzen aurkezleen hitzekin erabat, eta hurrengo egunean Cristina Tapiak zenbait fotografia eta iritzi jaso zituen *Noticias*

de Gipuzkoa egunkarian, bai halaber Y. Morenok *El País*en. Egun batzuetara, bere aldetik Nerea Azurmendik *El Diario Vasco*n (martxoaren 30ean) euskaraz honako titularrak jaso ditu: *"Euskaldunok oso gutxi ezagutzen dugu gure literatura"*, eta *"Euskal poesiaren eta antzerkiaren antologia elebidun bana argitara berri ditu; besteak beste, hainbat topiko, mito eta aurreiritzi indargabetzeko asmoz"*. Ainhoa Oiartzabalek *Berria* egunkarian (apirilaren 15ean) egin zidan elkarrizketan, besteak beste honako hitzak jaso zituen: *"Gerra aurrean baino antzerki testu gutxiago argitaratzen da"*, *"Labaienen* Teatro eúscaro *liburua osatzen joan naiz 30 urteotan"*, eta *"60ko urteak garai biziak ziren, eta antzerkiak garai haiei erantzuna eman zien"*. Eta galdetu zizkidatenei ere, hala nola gaur egungo teatro sorkuntzaz, edota Eusko Jaurlaritzaren arte eszenikoen goi mailako eskolaren proiektuaz nire erantzun xumeak ematen saiatu nintzaien. Bi hitzetan labur daitezkeenak: *Eskasa* (argitaratzeei dagokienez) eta *Ikusiko*…

Poztu ninduen *Noticias de Gipuzkoa*n (2009-III-27), ageri ziren argazki laburren artean, *Tres en raya* sailean + marka positibo bat edukitzea ere, honako arrazoinamenduarekin: *Urkizu ha acometido la compleja tarea de recopilar la historia del teatro vasco en un libro que ha sido editado por la UNED. Además, reúne fragmentos de obras teatrales en euskera y castellano, y varias reseñas y entrevistas de personajes clave de la cultura vasca.* Ia bizitza oso baten lana biltzen duen liburua da, noski, eta aski modu pedagogikoan aurkeztua dela uste dut, eta batik bat antologiak dituen 30 autore ezberdinen zati hautatuak, bai institutu bai eta Unibertsitateko Literatura ikasleentzat argigarri. Hala nola, teatrogileen antzerkien zerrenda, eta lan itzuliena, non aurki daitezkeen adieraziz.

Apirilak 1.

Azken egunetan harremanetan jarri naiz euskal kulturaz kezkaturik dirudien Annick Renaud-Colon anderearekin. Neuk idatzi *Bidegileak* bildumako *Pierre Lhande Heguy (1877-1957)* liburuttoa nahi zuen eskuratu. Bidali diot eta eskerrak eman dizkit eta esan auzoan bizi direnek lagunduko diotela, euskaraz gutunik idazten badiot ere, *à la décrypter.* Hala bada, harreman honen ondorioz bere etxera gonbidatu ninduen, eta ez da nolanahikoa, Bertrand Zalgizekoaren jauregia baita. Han idatzi omen zituen galduta dauden poemak, Arnaud Oihenarten iritzian mende hartako euskal poeta zenaren, Paueko Korte Gehienean Erre-

geren kontseilari zenaren eta erramu-boneta merezi zuenaren poemak; horrek guztiak halako zimikoa egiten zidan. Bazkaltzera joan ginen, beraz, Marga eta biok, eta bertan topatu genituen Jean Louis Davant eta haren emaztea. Opari gisa, XVIII. mendeko pastoralen eskuizkribuen edizioa oparitu nion eta solas entretenitua izan genuen ongixko bazkaldu ondoan, Davanti enkargatu ziolarik Lhandez pastorala molda zezan.

Apirilak 11.

Malenen jaiotza izan da gaur, haur eder batez erditu baita Iratxe, Urtziren emaztea. Denak pozik gaude; beraz aitona bilakatu naiz oraingoan; bestelako maila eta kategoria omen da…

Maiatzak 24.

Iaz erabaki zuten bi urtetik behin egitea Irun Hiria Euskarazko olerkiaren deialdia. Hau dela-eta bestetan baino gehiago aurkeztu dira, zehazki 19 poema-liburu. Halere, ene ustez ez da kalitatearen langa igo, kantitate gehiago izan arren, Patxi Altunak ziostana ezeztatuz. Hots, kantitatetik letorkeela kalitatea, Luis Garde Iriarteren *Unplugged* titulua duenari eman diogu saria. *Argia*n Luis Estankonak dioenez:

> …*liburu kriptikoa da* Unplugged*, arean malenkoniatsua, baina ez tristea. Narratiboa, baina ez lirika bakoa. Hirugarren pertsonan pentsatua, baina norberari buruzkoa… "Kontakizun, / abesti, / istorio edo poema guztiak, / leiho eta gizaki batekin hasten dira. / Gizaki bat bere leihotik begira. / (…) Ni ere leihoetan zehar begiratzen dudana naiz. / Horrela hasten da kaier hau". Sarrerako poema honetatik bertatik hasita, Luis Garderen heteronomia leihoa dela nabari da, kristalezko talaia hori da poeta. Leihoak kanpora ematen du, baina baita norbere isla itzuli ere. Autoreak "beste niak" aurkitzen ditu leihotik kalera begira eta pertsonaiak, lekuak, fikzioa eta materiala eskaintzen dizkio bista horrek. Behatoki pribilegiatu horretatik besteei buruz idazten du poetak, bere barne-kezken istorioa eraikiz bezala…*

Jaialdia egin du gaur Irungo *Amaia* zineman Kutxak, 2007an eta aurten saritu poeta eta nobelistekin batera, antzerkitxo bat zeremonia barnean jokatu dutelarik.

Uztailak 7.

XIX. Uda Ikastaroak antolatu ditu aurten UNEDek Méridako egoitzan uztailaren seitik zortzira, Literatura sailaren barruan honako gaien gainean mintzatu garelarik: *Letras y espectáculos en la Segunda República*. Eta San Fermin egunean honako hitzaldiak eman ditugu irakasle-adiskide taldeak: Goizeko bederatzi eta erdietan, María Clementa Millánek, ilustrazioetan nik lagundurik: *"La Barraca" y el teatro de la época*, Federico García Lorcaren antzertiaz eta zuzentzen zuen teatro-taldeaz. Hamabietan Vicente Granadosek *Memoria histórica y Segunda República*, prentsan ageri planteamendu politikoei zorrozki heldurik. Arratsaldeko lau eta erdietan neroni aritu natzaie *Teatro vasco en la Segunda República* gaiaz, eta bukatzeko arratsaldeko zazpietan etxeko anfitrioia eta zezenetan aditu handia den Miguel Padillak *Pan y toros* gaiaz. Gero denak afaltzera joan gara elkarrekin, pozik, ikasle guztiak ere oso gustura geratu direnez.

Uztailak 15/17.

Lourdes Otaegik zuzendurik eta Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa Batzordeak antolaturik, UPV-EHUko XXVIII. Uda Ikastaroen barnean –XXI. Europar ikastaroak deituetan, sekula konprenitu ez dudan izendapena, hasierakoak jadanik europarrak zirenez– Donostian jardunaldi batzuk izan ditugu uztailaren 15etik 17ra. Programak dioenaren arabera, Gerra Zibila amaitu zela berrogeita hamar urte betetzen diren urte honetan, gertakari hark euskal literaturan izan duen harrera eta isla aztertzeko asmoz. Jon Kortazar, Ana Toledo, Jean Haritschelhar, Mari Jose Olaziregi, Iratxe Retolaza, Ur Apalategi, Iñaki Aldekoa eta neronek eman hitzaldien edizioa Ana Toledok aurkeztuko du *Euskera* (2009) aldizkarian *Gerra Zibila eta euskal literatura* titulupean.

Nire gaia *Euskal Teatroa Gerra Zibilean (1936-37)* izan da eta bertan emandako ikerketaren laburpena honakoxea da, hain zuzen:

> Gerra zibila eta ondorengo gerraostea suspertzen hasiberritako euskal kulturarentzat eta antzertiarentzat kolpe latza izan ziren. "Aitzol" eta "Lauaxeta" mugimendu euskaltzalearen bi pertsonaia funtsezkoen eta gailenen fusilamendua, bai nazionalista sutsu eta nabarmendu gehienen erbesteratze eta kartzelaratzea, euskara erabiltzeko debekua, … horrek guztiak haustura larria ekarri

zuen. Alabaina, 1937an jaio eta urte berean, Bilbo erortzearekin bat zenduko zen *Eguna* lehenengo euskal egunkariaren garaiko kronikak jarraituz gero, faxistek okupatu gabeko eremuan hainbat antzezpenen berri topa dezakegu, hala nola Bilbon, otsailaren 11an, *Bilboko Euzko Gastedija* taldeak eskaini zuena. Emanaldi horretan Pearse-ren *Iru Gudari*, gazteleraz eta Soroaren *Ezer ez ta festa* euskaraz jokatu ziren. Hitzaldi honetan aztertzen dira zein dramaturgiatan kokatzen diren bai aipatu obra horiek, baita batik bat Yeats-Sota-Altunaren, *Negarrez igaro zan atsua*; S. Arana - M. Sota-ren *Libe*; eta A. Campión - A. Etxaberen *Pedro Mari.* Hala nola bereziki gerra gaitzat harturik honoko antzerkigileok moldatu eta antzeztarazitako lanak: Antonio Ruiz de Azua "Ogoñope", *Euzkadi'ko erri baten* (*Ekin*, México, 1950); Antonio Labaien, *Lurrikara* (*Euzko Gogoa*, Miarritze, 1955); Jean-Louis Davant, *Agirre presidenta* (Arrokiaga, 1995), eta Carlos Panera, *Lauaxeta, herri-antzerkia* (Bilbao, 2005).

Hitzaldiaren une batean garaiko bertso zenbait kantatu bainituen (jada nire hitzaldietan ohiko baliabide bilakatua) entzuleek txalotu egin ninduten eta pozik nintzen, baina batik bat esango nuke *Emakumea Iru gudari* antzezkizunean eta *Atsua Negarrez igaro zan atsua* lanean, Dublindik barrena, Yeatsen teatro irlandarraren bitartez, etorki japoniarra duen. Alegia, **Nô** teatro japoniarraren eragina nola iritsi zitzaigun aurkeztea izan zela nire ikerketan gauzarik interesgarriena.

Uztailak 20/24.

Josu Chuecak koordinaturik, Udako Euskal Unibertsitatearen ekitaldien barnean, Iruñan eman genituen zenbait hitzaldi Josu Chuecak berak, Iñaki Goioganak, Xabier Irujok, Emilio Lopez Adan "Beltza"k eta neronek. Hurrengo urtean bilduko ziren *Lau Haizetara*. *"Gerra Zibilaren ondorengo erbesteaz"* liburuan.

Abuztuak 8.

Arkaitz A. Murok *Noticias de Navarra* egunkarian elkarrizketa bat argitaratu du eta titularra honelaxe hasten da: Errepublika eta gerra garaiko antzerkiak ongi aztertzea merezi du…, eta eginiko galderen artean hau da bat:

Zergatik izan zuen antzertiak Irlandako teatroaren eragina?

Irlandan independentzia ematen da eta Euskal Herritik eredu gisa begiratzen dute. Garai horretan zenbait autore ospetsu zeuden uhartean, hala nola W.B. Yeats Nobel sariduna –Europan eta literaturaren munduan oso estimatua izan zen idazlea–, Pradic Pearsek antzerki sinbolikoa idazten zuen, eta 1916an fusilatu egin zuten, beste askorekin batera; gure artean Irlandarekiko lilura zegoen. Hori eta mugimendu abangoardistek XX. mendeko lehendabiziko herenean zer-nolako eragina izan zuten kontuan hartuta, Lauaxetak idazle hauen lanak itzuliko zituen. Maurice Meterlinck autore belgiarraren obrak batez ere. Dena den, teatro irlandarrak ez zuen bakarrik euskal teatroan eragina izan. Izan ere, gaztelaniazko antzertian ere eragina izan zuen; Federico Garcia Lorcaren lanean, adibidez.

Urriak 1.

Ikasturte honetan, alegia, 2009-2010 jubilatzen baita Marga, eta UNEDek eskaintza egin digunez aurre-erretiro bat 70 urteraino, ia soldata osorik ordainduz, elkarrekin jubilatzea erabaki dugu, hau da, belaunaldi berriei lekua uztea lan posturik ukan dezaten. Beraz, neurri batean amodioak eragin jubilazioa dela esango nuke, zeren eta horrela, nahi ditugun bidaiak egin genitzakeen eta ez ibili nahitaez astero Madrilera joan-etorrian. Ordezko lanak burutu ditzan, gomendatu Arantzazu Fernández institutuko katedraduna hartu dute.

Urriak 3.

Ohiko eran, bagoaz Pariserantz Hendaian trena goizetik hartuta. Montparnassen hartu dugu busa eta bagoaz *rue Ternaux*en kokatua dagoen apartamentura. Txikia da, baina argia. Bertan otordua egiteko ez zaio tresneriarik falta, baina ez dut uste askotan erabiliko dugunik. Ohea eskailera batzuk igota aurkitzen da. Ea estropezurik ez dugun egiten. Saint Germain kaleko jatetxe libanoar batean afaltzen dugu. Jendez mukuru daude kaleak, gaua izan arren, la *Nuit Blanche* baita, Gau Zuria.

Urriak 5.

Egunez batera eta bestera gelditu gabe ibili eta bagoaz bazkaltzera Luxemburgoko jardinen ondoan dagoen *Café Tournon* izeneko bistrote-

ra. Hemen dagoen hotelean bizi izan ziren Joseph Roth eta Soma Morgenstern idazleak eta ordu asko pasatu zituzten bertan, naziak boterea hartu eta Frantziara exiliatu zirenean. Nagoen esalkiaren aurrean Joseph Rothen fotografia dago koadro handi batean hementxe bertan, eta Margak beste argazki bat egin du ispiluaren beste aldean, Rothen ispiluko irudiaren gerizpean, liburu bat irakurtzen ari naizela. Bere obra ezagutuena *Radetzky martxa* izan arren, hor utzi zizkigun *Job*, *Edale sainduaren leienda* ere, hain gustura eta erraz irakurtzen dena, *Hôtel Savoy*, *La Crypte des capucins* eta bere gaztaroko kazeta-artikuluak.

Gauean auzo indiar batean kokaturik dirudien *Théâtre des Bouffes du Nord*era goaz. *Boulevard de la Chapelle*n dago, 10. arrondisamenduan. Peter Brookek zuzendutako antzoki honetan gaur Karen Vourc'h sopranoak eta Susan Maneffe pianistak ematen duten kontzertua benetan hunkigarria. Ahots argia, fina, gozoa, goiko notak aratz eta garbi ematen ditu eta era berean eztitsu. Emakume maitagarria da Karen, zeren eta ahots miresgarriaz at oso ederra baita, laguntzen dion Susan bezala. Hau New Yorken jaioa da, etorki letoniar eta alemaniarra duena. Kantak suedieraz direnean arras ongi aditzen dira bost metrora, teatro erromatar txiki bat dirudien honetan, zirkuluerdian ezarri zurezko aulkietatik.

Azaroak 17.

Filologia Klasikoan jardun dudanez hogeita bat ikasturte hauetan, *Colaborador Honorífico* izatea eskaini dit bertako zuzendaritzak, ohorezko kolaboratzaile, eta beraz, urte hauetan guztietan izandako harrera eskertuz, onartu egin dut. Bai eta halaber, gure errebistan, alegia, *Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca*n Erredakzio Kontseiluko partaide izatetik Ohorezko Kontseiluko partaide izatera iragan naiz Xesus Alonso Montero eta Antoni Maria Badia i Margarit doktoreekin, zeina benetan ohore handia den horrelako jakintsu handien aldamenean agertzea.

Azaroak 24/25.

Pauen nago. Artxibo Departamentalak arakatzen, Jakes Belakoaren eskuizkribuak begiratzen eta bi agiri kopiarazten ditut. Bat euskararen historia sozialerako interesgarria izan daitekeena, Donibane Lohizunen 1790eko otsailaren 28an sinatua, non agertzen den nola…

Paul Leremboure habitante de Saint-Jean-de-Luz, il donnent pouvoir de pour eux et en leur nom demander à qu'il appartiendra les articles del examen qu'en exige d'eux pour être reçuz capitain des navires de pilote, a fin qu'il puisse faire traduire en Basque pour leur usage…

Alegia, garaiko itsasoko kapitainak euskaraz nahi zituztela azterketak eta horretarako itzularazi egiten dituztela, eta beraien izenean Paul Leremboure donibandarrak egiten duela eskaera. Beste bigarren dokumentua Petrus de Axularrek sinatzen du, eta Sarako jaiotzak jasotzen dituen liburuttoa da. Hauek gehienak latinez dira, gaztelaniaz dauden batzuk izan ezik. Titulua hauxe da: *Liber Baptismalis Sancti Martini de Sare ab anno 1609 inclusive usque ad 1624 inclusive*. Eta sinatzaile *Petrus de Axular*.

Kopia txukun eginarazia Larrean ospatu LIBeko bileran Euskaltzaindiko Lehendakari den Andres Urrutiari oparitzen diot Liburutegirako, eta eskerrak eman dizkit. Baina saileko ia denak txunditurik utzi gaitu esan digunean, ez dugula ia deus egiten, ez dakigula filologia lanak saltzen, eta salbuespen bat daukagula taldean, alegia, Jon Kortazar, honek bai baitaki Literatura saltzen… Harri eta zur gelditu gara, bai, ez baikenekien gure lana zenik saltzaile gisa ibiltzea hortik zehar. Ez da txantxetakoa, alajaina, hori norengandik eta euskaltzainburuaren ahotik entzun beharra…

Abenduak 24.

Atzo, Lyonen gaude orain, *Place du Petit Collège*n Errenazimentu garaiko egoitzan kokaturik dagoen *Musée Gadagne, Histoire de Lyon et marionettes du monde* museoan izan ginen; sarrera doan. Marionetak edo txotxongiloak –hitz hori ez zait inoiz gehiegi laket izan–, benetan grazios eta politak mira daitezke, hala nola Hiriko Historia, erromatarrak, Erdi Aroa, *hilotina*, langile mugimenduak …

Orain eguerdiko ordu bata eta laurden dira. Funikularrean eserita zain gaude, noiz egingo duen gorantz, ibaiertzean dozena bat ostra dastatu ondoren txarro bat ardo zurirekin. Badu hiri honek Lisboaren trazatxoa, itsasorik ez eduki arren, bi ibai eder baititu. Auzoko liburutegian sartu gara, baina ez du ia batere interesik niretzat. Goizean Inprimate-

giaren eta Arte Ederren Museoak ikusi ditugu, eta batez ere bigarrenean aspertuxe egin gara, lehena, aldiz, miresgarria da. XV. mendeko zenbait argitarapen eta Luteroren lehen edizioak ikusgarriak. Bertan erosi dut *Histoire des objets qui racontent l'Histoire de l'imprimerie;* hitzaurreak Frédéric Barbier irakasleak eta Alan Marshall museoko zuzendariak idatziak dira eta liburuxka irudi ederrez apainduta dago (Lyon. EMCE 2009). Gauden erresidentziatik, goi partean baitago hau, oinetan bailegoen ageri zaigu Lyon lanbro artean argi dizdizariz, urrunean ilunabarra, hodei gorrixta batzu, dorre garaiak eta tximiniei kea dariela…

Abenduak 25.

Katedralean meza nagusia kardinalak eman du eta bere sermoi eguneratua entzun dugu. Argia da benetan gazte hau. Koruko mutikoekin latinez kantatu dugu, eta ia jatetxe denak itxita daudenez, Eguberri egun honetan *Medina* izeneko jatetxe mairuan bazkaldu dugu. Gero siesta egindakoan, ibilaldi luze bat egin ibai ertzetik eta *Brasserie George 1836*n xukruta eta garagardoa dastatu ditugu. Lekua aparta da. Dena *art-nouveau* estiloan dekoratua.

Abenduak 27.

Euskal bertso-paperei buruzko ikerketatxo bat egiten ari naizenez, eta bereziki urkaberako baladez, Pierre Horayk idatzitako *Canards du siècle passé,* Biblioteka Nazionaleko kontserbatzaile-buru den Jean-Pierre Seguinen hitzaurrea duena, erosi dut. Zabalez 31 zentimetrokoa eta luzez 44koa da, eta benetan erreproduzio hunkigarriak ditu. Irudiek eta kantek XVI. mendean hasi eta batik bat XIX. mendean osatu zuten kazetaritza ez periodikoaren ezaugarri ederra da, eta 25 eurotan pagotxa iruditu zait, bigarren eskuko altxor hau.

Bidaia honetan, Inprimeriarenaz at *Gallo-romain* deritzana, Zetarena eta Zinemarena izan dira gehien gustatu izan zaizkidan museoak.

Galoen eta erromatarrenean benetan txunditurik utzi nau *Lugdunum* hiriak mundu latinoan izan zuen garrantziak. Mosaikoak irudi geometrikoekin, arrain koloretsuekin, pertsona erretratuekin, koadriga zaldi-karreren irudiekin, larrutsik saria eskuan daraman atleta irabazlearekin, ahuntz-zangodun satiroekin, eskulturek, hartitzek, Lyonen jaio-

tako Klaudio enperadorearen solasek, tamaina ezberdinetako ontzi koloreztatu eta irudikatuekin, urrezko eta harri bitxizko joiek, harri irudiz zizelkatuek, teatroaren… ikuskizundegiko ikusleen mailadiek…

Zetarena, hau da, *La Maison des Canuts* deitzen dena ere oso gogoko izan dut. Zeta nola egiten zen erakusten duten lekua, antzinako erreminta eta tresneriarekin; lurraldeko ehungintzan izugarrizko garrantzia izan baitzuen zetak.

Eta azkenik, *Lumière* anaien etxea, hauek izan baitziren zinema industria bilaka zitekeela ikusi zutenak, eta lehenak izan baitziren produzitzen 1895az geroztik lehen plakak, kamerak, filmak ekoizteko beharrezko guztiak. Lau solairu ditu 1899an *art-nouveau* / *art déco* estilo berritzailean eraikitzen hasi zen *villa* eder honek, bere lorategi ederrarekin.

Abenduak 28.

Trenez Marseillara iritsi gara, Chateaubriandek dioskunez, Antzinateko *L'Athènes des Gaules*era, eta kaiaren ondoko hotel batean hartu dugu hiruzpalau egunerako gela. Ordu biak hogei gutxi dira, eta maletak gelan utzi ondoren, neguko eguzkia dastatzera atera gara. Hemen Lyonen baino askoz ere eguraldi goxoagoa dugu. Ez dugu bufanda eta txapelik behar, eta portu zaharreko taberna batean gaude eguzkiak epeltzen duen txokoan eserita. Koadroak aski kaxkarrak dira, baina giroa ona da. Balirudike bertako auzotarren jantoki hautatua dela. Lehen lerroan dago portura begira, eta eserita nagoen lekutik honako iragarkia irakurtzen dut: *Syndicat Libre Des Patrons Pecheurs*, alegia, Arrantzalen Sindikatu Askea. Jatetxe asko itxita daude. Haragi gisatua eta *Côtes de Rhone* pitxar bat ardo zuri eskatzen dugu. Ohikoa, arrunta baina ona.

Lo kuluxka igaro eta mairuak ugari diren kaleetatik ibili gara. Espezieria dendak erruz, eta Margak, hain ditu gogoko ezen batzuk erosi arte ez den lasaitu. *La Marsellaise* izeneko tabernan gaude zerbeza bana edaten. Ezaguna den bezala, 1792an Rouget de Lislek konposatu zuen Strasbourgen *Le Chant de guerre de l'Armée du Rhin* delakoa geroago *La Marsellaise* gisa ezagutuko dena. Tiraniaren kontra asaldatzea ongi dago baina zer nahi zuen esan *Qu'un sang impur* / *Abreuve nos sillons* bertsoekin ? Jean Jaurèsen hitzetan, odola aipatzea, alegia, odol urdina,

kontrairaultzaileena, oso gogorra da, baina zergatik zioten hori Iraultza garaian? Erregearen banderapean zeudenak askatasunaren aurka, munduko askatasunaren esperantzaren kontra ari zirelakoan, noski, eta gisa horretan ez zirelako gehiago esklabo eta piztia hutsak. Dena den, betidanik Marseilla hamaika odol eta hizkuntza ezberdinez osatu bide da: lehenik greziarrak, gero erromatarrak, arabiarrak, armeniarrak, italiarrak, espainiarrak, korsikarrak, afrikarrak, txinatarrak…

Arratsaldeko zazpi eta erdiak dira eta Marga *La Guide du Routard*i bueltaka dabil ea non afal dezakegun leku polit batean, ongi eta merke. Calanquesetako kalak, hondartxoak ikustera joango ote garen dudatan gaude, jendez mukuru omen dira uda partean baina orain, garai honetan, hutsik eta jende gutxirekin, pollitak egon daitezke agian.

Abenduak 29.

Goizean gosaldu eta Arsenaletako liburu-dendara. Han Gironde lurraldeko herri literaturaz liburuxka bat erosi eta bagoaz aldapetan gora, *Le Panier* auzo zaharrean barrena. Gero *Fondation Regards de Provence* delakoak antolatu duen "*Jean Cocteau et la Méditerranée*" erakusketa ederra plazer handiz ikusten dugu. Cocteauren mundu poetikoa. Mitoak, idatziak, fotografiak, margoak… Bere ideietarik bat kopiatu dut*:*

> *La Méditerranée ne se contente pas d'être un spectacle. Il est probable que son sel et que son iode contiennent autre chose de fort mystérieux, puisque toutes les côtes qu'elle baigne forment une sorte de patrie et que les peuples qui habitent cette patrie composent une famille qui, même lorsque les apparences et le mur des langues le démentent, groupent une sorte de race, et je le répète, de famille.*

Hots, Mediterraneo inguruko herrialde guztiek, hizkuntza ezberdinetakoak izan arren, familia handi bat osatzen dutela, zerbait misteriotsu ematen baitiete denei bertako gatzak eta kresalak. Jaitsi gara portura eta dena urdin den *Kahena* jatetxean gelditzen. Toldoa urdin iluna, sarrerako burdin sarea urdin argia… *Kahena* printzesa bereberra omen, eta bertan bazkaltzen dugu kuskus plater eder bana. Bazkalondoan, hotelean lo-kuluxka txiki bat egindakoan, bagoaz *L'Estaque* aldera autobusez. Paul Cézanne, Georges Braque, Auguste Renoir eta beste pintore anitzen leku hautatura. Gauean pizzeria batean afaldu eta por-

tutik ibilalditxo bat egin eta aski nekatuta erretiratzen gara gure gelara ordenagailuari kasu pixka bat egitera.

Abenduak 30.

Dutxatu eta gosaldu. Mahaian nago eta hementxe nabil koadernotxoan idatzi eta lekuen izenak oroitu nahiz, gero eta maizago ihes egiten baitidate burutik. Gaur konbentzitu dut Marga hotelean bertan gosaltzeko, eta bapo egin dugu. Zukua, esnea zerealekin, kafesnea, kruasana, ogia gurinarekin eta eztiarekin. Dena on-ona. Margak ez ditu uzten une batez ere hiriko planoa eta gida-liburua eskuetatik. Gaur *Le Corbussier* arkitektoak burutu zituen etxeak eta Cassys bisitatu behar ditugu.

Ordu biak dira eta Cassysen eseri gara portu aurrean. Ontzi txiki batzuk ditugu begi aitzinean. Litro erdiko pitxerzuri-horixta eskatu dugu. Eguzkitan gaude, baina neguko eguzkiaren epeltasun hau eskertzekoa da. *Le Perroquet* du izena errestauranteak. Busez itzuli beharrean trenez itzultzea erabakitzen dugu eta *villa* arteko aldapa luzexka igo eta tren geltokira iritsi gara. Portuko tabernariari galdetu diogunean ea urrun zegoen zoroak bageunde bezala begiratu digu, aldapak omen direla bidean, hiruzpalau kilometrora dagoela, galdu gaitezkeela…, baina *villa* batetik atera den neskatxa ile beltz, begi berde eta gerria airean zeukan batek bidea ongi seinalatu digu eta hementxe gaude. Laurak dira. Baina goi parte honetan fresko egiten du eta txamarra eta jertsea berriz jantzi ditugu. Hemendik Mediterraneoaren urdinak, pinudiak, kipresak eta *villak* ikus daitezke eta bizimodu lasai eta atsegina sumatzen.

Abenduak 31.

Portutik goazela, *aqua alta* daukagu, veneziarrek lioketen eran, hau da, itsasgorarekin paseora sartzen dela pixka bat marea, olaturik batere ez izan arren, eta jendeak espaloian barrenerantz jo behar duela, uretik ihesi. Nôtre-Dame-de-la-Gard, Ama Birjinari dedikaturiko baselizara iristen gara eskailera pila bat igota; Henri Espérandieu arkitektoak estilo neo-romano-bizantinoan eraikita, eta 1864an bukatu zen. Fotografia batzuk ateratzen ditugu itsasora begira, tartean Jesus itsaso zakarrean itsasontzi batean doala irudikatzen duten azuleju pintatuei. Urrunean kartzela harkaitz huts den uhartean, itsasontziak beren iparraren bila, eta… bagoaz beherantz, jende gehiegixko baitabil eliza inguruan…

Arratsaldeko zortzietan Jules Massenetek 1899an sortu *Cendrillon* opera ikusi, entzun eta dastatzen dugu. Alegia, Charles Perraulten *Errauskine* ipuinean oinarritua. Soprano lanetan, *Errauskine* Julie Boulianne; musika-zuzendaritzan Cyril Diederich; korua, Marseillako Operakoa eta eszenaratzailea Renaud Doucet. Dena finezia eta antze handiz moldatua. Urte Zahar gauerako oso egokia. Antzokitik –hau ere *artdéco* estiloan eraikia– irtendakoan *Il Canaletto* jatetxera joan gara afaltzera. Sarrera ongi, baina arraina, eskatutako barbarinak hain dira txikiak non kabuxak baitirudite. Portu zaharretik hotelerako bidean arabe eta beltz ugari gurutzatzen ditugu paseatzen.

Lezoko etxera deitu dut Urte Berria opatuz, eta hitz batzuk egin ditut Marikrutx, Miren, Joxeba, Urtzi eta besteekin. Bihar iritsiko garela Euskal Herrira. Hainbeste gustatu zaigun Robert Guédiguian eta Ariane Ascarideren hiriari… *ariyo*.

2010

Urtarrilak 1.

GOSALDU, prestatu maletak, ordaindu hoteleko kontua eta bagoaz trenera. Lehenik Metrora. Zortziak eta laurdenetako SCNRFeko Marseillako geltokian gaude aski denbora dugularik irteera-ordura arte. Areto handi batean sartu eta andere arabiar batzuk lur hotzean etzanda. Gizonak kukulumuxu. Bi beltz gazte eta mairu bat elkarrekin solasean. Badirudi batzuei gaupasa eginda oraindik ez zaiela pasa mozkorraldia.

Urtarrilak 9.

Urtziren urtebetetzea. Jada hogeita hamabost urte ditu eta haur eder baten aita da. Malen. Ea lortzen duen Iratxerekin batera ongi hazten eta hezten. Ez dut dudarik Hernanin bizi den giroan euskara ongi ikasiko duela umeak, baina bizitzarako funtsezko eta beharrezko diren beste dohainez jabetuko ote da? Ez nago seguru.

Urtarrilak 27.

Bildu gara ohi bezala Donostia Hiria Antzerki Saria erabakitzeko eta Mattin Irigoien behenafarraren *Jendeen jende* hautatzen dugu hoberentzat. Eta denbora puxka igaro ondoren, *Gara*n (urriak 8) Itziar Gómez kritikoak eginiko erreseinan honakoa esango digu gaiaren inguruan:

> Ttantta Añamarik osatu du familiako zuhaitz genealogikoa eta deialdia egin die Agerretar guztiei etxean biltzeko. Amatxi Marik laurogei urte ditu eta Jenofak, bilobak, hogei eta bost, belaunaldi desberdinetako senideak ditugu aurrez aurre eta saltsa ugari ekarriko digu haien ikuspuntu anitzek eta gaizki ulertuek. Kontakizunak komedia anitz ekartzen dizkigu aurrera egiten duen neurrian. Peioren sarrerak, esaterako, irri ugari sortarazten du bigarren agerraldian, erabat kezkatuta sartzen baita bere ardiak larriki jo dituelako *agalakzia* eritasunak. Peio bera ere kutsatuta ageri da, eta haren eraginez gizonak ezin du ondo hitz egin. Hori dela eta, eraiki ez du ba metro eta erdiko arroila etxearen inguruan!

Pentsatzen du horrela mikrobioak beste aldean geratuko direla.

Bosgarren agerraldian heltzen dio antzezlanak mamiari. Añamarik dio familia ikertzerakoan enigma bat topatu duela. Aitatxiren osaba joan zela itsasoaz bestalde misionetan eta ez dakiela non eta nola amaitu zuen. Ameriketan ibili zela, gero Asian eta hortik aurrera arrastorik ez. Marik jakin mina areagotzen die esaten dienean ez harrotzeko familiako kontu zaharrak, uzteko hildakoak bake-bakean. Eta osabari zer gertatu ote bueltaka ari direnean, orduantxe azaltzen dira Shu eta Erlaitz. Hauek zipriztintzen dute ordura arte pertsonaia guztiek mintzatzen duten benafar-lapurtera, Shuk ukitu amerikarra emango dio bere euskarari eta Erlaitzek, berriz, bizkaitarra.


Doinu polita dauka antzezlan osoak, maisuki menderatzen ditu Mattin Irigoienek hizkerak, ahozkoa batez ere. Hiztegi- eta esamolde-aberastasun handia ageri du eta aldi berean gaurkotasuna ematen dio guztiok ezagun ditugun pertsonak eta egoerak aipatuz noiznahi.

Nabarmen da, argi eta garbi iparraldeko antzerkigileen eta hegoaldekoen artean dagoen jauzia eta ezberdintasuna, eta aitortu behar dut Mattinek *Hautsi da kristala* (1997) idatzi zuenez geroztik buru argi eta langile ontzat daukadala, antzerkigintzarako dohain bereziz hornitua, komedia eta tragediaren hariak ongi menderatzen dituen teatro-gizona.

Otsailak 1.

Badira urte batzuk, Inauteri garaia iristen denean, bai Zuberoako bai Nafarroako zenbait herritako gazteak beren antzezkizunak eta libertimenduak jokatzeko biltzen direla. Hala, maskaradak eta zanpanzarrak direnean egun pasa joaten gara antzinako ikuskizun berrituak dastatu ahal izatera. Margari aspaldiko libertimendu erak laket zaizkio, oraingo teatro moderno ahula baino areago, eta beraz bagoaz gaur Zubieta aldera. Elurra dugu bidean. Errekak zakartsu, soinu ozen ederrarekin abiada bizian jaisten dira Bidasoarantz. Juan Ignazio Paul eta Martinikorena familia agurtuko ditudala seguru nago, taberna baitute eta tabernarianire ikasle izan baitzen Errenteriako Institutuan. Barrez lehertzen gara

herritarren irudimen basatiaren aurrean, batzuetan sofistikatua ere badena, eta ttuntturroek beren janzkera zeremoniari eta ibilaldiei ematen dieten funtzio sakratuaren itxurarekin txunditurik gelditzen gara. Lezoko eskolan txikitan ezagutu nuen Tomas Ibarra ere tartean egon ohi da. Pixka bat hemendik harat ibili, ongi bazkaldu eta itzultzen gara, Bidasoaren ertzetik, Pioren hitzetan munduko errepublikarik ederrena, ez baleuka eulirik, apaizik, ez eta karabinerorik.



Irudia 79: XX. mendeko bigarren parteko euskal poesiaren ikerketa eta antología elebiduna (euskara gaztelania, galegoa eta katalana)…
Santiago de Compostelako Biblioteca Américan aurkeztu genuen.

Otsailak 11.

Merzedes Boixareu errektoreorde denak eta Antonio Dominguez Rey *SERTA* errebistako zuzendariak *El otro medio siglo. Antología incompleta de poesía iberoamericana* liburuaren aurkezpenari hasiera eman diote gaur Madrilen. Hizkuntza iberorromaniko guztietako poemak biltzen dituen Lehen antologia da, bertan ageri direlarik, besteak beste, portu-

gesa, galegoa, katalana eta euskara. Miguel Anxo-Fernán-Vello, editore eta poeta den adiskideak argitaratu ditu *Espiral* argitaletxean, plazerez dasta daitezkeen 111 poeta ezberdinen poemak. Niri hitza eman didatenean, eskertu ditut bai Boixareu, bai Dominguez adiskideak eta topikoen kontra aritu naiz, ohi bezala. Oroitu ditut duela urtebete Miguel Angelek esandakoak, euskal poesiaz eta honen aberastasuna eta joera ezberdinak goraipatuz: *mester de clerecía* (Lekuona), nietzschianismoa (Mirande), poesia soziala (Aresti), paraliteratura (Sarrionandia), sinbolismo-politikoa (Izagirre), eta beste…

Armiarma eta *Susa* Interneteko atariak gomendatuz.

Martxoak 11.

Donostia - Hondarribia - Madrid. Jaizkibel jantzi da elurrez eta hegazkinean noalarik goitik beheiti behatzerakoan Gotorlekua, Guadalupe, Errota, Azabaratza, Lezo, Pasaia, Ulia, Santa Klara uhartea, Donostia… han behean ikustean halako zirrara bat sortzen didate. Ohartu naizenerako hamarrak laurden gutxi dira eta Madrilen gaude Barajasen lurra hartzen. Metroan nago UNEDeko bidean. *Nuevos Ministerios* geltokian jaitsi, 6.a hartu eta berehala Moncloan. *Parque del Oeste*tik ohiko ibilaldia egiten dut, eta hamaiketarako Fakultatean. Trenez arratsaldeko hiruretan iritsi ohi naiz, beraz, badago aldea.

Martxoak 15.

Mikel Zalbide ingeniari, soziolinguista eta euskaltzainak ekipo bat sortu du Joly Lionel hizkuntzalaria eta bekadun pare batekin Euskaltzaindiko bulego berrian *Euskararen Historia Soziala* idazteko, eta interesatzen zaizkionez ahaleran editatzen ditudan material argitaragabeak edota oso gutxi ezagunak, kolaborazio-eskaintza egin dit, eta batik bat Anton Abbadiaren eta bertso-paperen munduan pulunpatuko da nire ikerketa lana.

Martxoak 23.

Iritsi da eguna. Hainbat bilera, eztabaida eta buruhausteren ondoren, lortu dugu Espainiako lau hizkuntzetako adituen *Doctor Honoris Causa* izendatzearen jaia. Gaur Humberto López Morales gaztelaniazko hizkuntzaren eta literaturaren ordezkari, Xesús Alonso Montero, galegoarena, Antoni Maria Badia i Margarit katalanarena, eta Jean Ha-

ritschelhar Duhalde euskararena omentzen ditugu. Zeremoniak ia lau ordu irauten du, zeren abesbatzak *Veni creator*… latinez kantatzen duelarik eta agintari akademiko guztiak jantzi tradizionalekin doazelarik hasten gara. Abesbatzak lau hizkuntzetako kantak abesten ditu. Omenduek beren solasak egiten dituzte, eta bada bakoitzaren bideo erakustaldi bat ere. Julia Butinyàk galegoaren, euskararen eta gaztelaniaren ordezkari gisa bere txostena irakurtzen du, zeinak euskarari dagokionez pasatu diodan *laudatio*a baitu oinarri.

Madrid, Paris, Agen eta Baionan garaiko hizkuntzalariekin (Réné Lafon, Koldo Mitxelena, eta…) egindako ibilbidea errepasatu eta ikertu ondoren, hitzaldiaren hitzok azpimarratzen ditut.

> *Contra la desmemoria hay que decir que los más insignes investigadores del español o castellano, como Menéndez Pidal, Corominas, Tovar, etc. han sido destacados vascólogos. […] De Don Ramón Menéndez Pidal son estas palabras: "Tenéis la fortuna de que nuestro pueblo sea depositario de la reliquia más venerable de la antigüedad hispana. […] Pensamos que la Corona, en su papel de símbolo de la unidad y de concordia entre los ciudadanos, puede mediar y contribuir decisivamente a relajar este ambiente enrarecido y favorecer así el trato equitativo entre los idiomas que configuran ese patrimonio histórico y cultural a que se refiere La Constitución Española en su artículo tercero*.

Bere diplomazia, gizalegea eta martxan ezarritako egitasmo interesgarriak: *Orotariko Euskal Hiztegia, El Diccionario General Vasco, El Diccionario de términos literarios / Literatura terminoen Hiztegia* (2008) eta *Onomastika, Toponimia, Hizkuntzaren Historia, Euskal Grámática, …* Interneten kontsulta daitezkenak (www. euskaltzaindia.net), hala nola *Euskera* aldizkarian.

Ez da harritzekoa bada Euskal Herriko Unibertsitateak 1988an Doctor Honoris Causa izendatu izana, eta *Lapurdum Centre de Recherches sur la langue et les textes basques*, Michel de Montaigne, Bordeleko Unibertsitate eta Baionako Unibertsitate arteko Euskal Ikerketa taldeak omenaldia eskaintzea, eta orobat Eusko Ikaskuntak 2004an saritzea. Omenaldi ongi mereziak denak, eta honi UNED batzen zitzaiola *Doctor Honoris Causa* izendatuz. Zorionak. Jean.

Gonbidatuen zerrendan bederatzi euskaltzain zeuden eta ez da inor etorri. Lotsagarria. Eusko Jaurlaritzatik Blanca Urgellen ordez Hizkuntza Politikarako sailburuorde den Lourdes Auzmendi ataundar jatorra etorri da, Euskal Herriko ordezkarietarik bakarra, Bergarako zuzendari den Juan Alvarez ere agertu ez delarik. Egun borobila izan da, neke anitzen ondorioa eta euskararen *thornuia* goian gelditu dela esango nuke, Bernat Etxeparerekin batera. Bazkaria *Bocado* errestaurantean izan dugu eta era orotako komentarioak izan dira.

Apirilak 4.

Poesiaren egunean gaude. Carles Duarte eta Antonio Dominguez Rey poetekin bat, poesia-irakurketa egiten dugu Madrilen, Lavapiésen dagoen *Escuelas Pías* izeneko UNEDen egoitzan. Ohi bezala, euskal kantez, heriotzaz, amodioaz eta bizitzaz mintzatu natzaie gure poeta, olerkari eta kantariak aipatuz.

Apirilak 9.

Iritsi gara Parisera eta alokatzaileari laurehun euro gehiago eman ondoren, hementxe gaude 3 *rue de Beaune*n, gela argi batean. Lau leiho ditu apartamentuak, beraz oso-oso argia da. Batetik *La Seine* ibaiaren izkina eta bukinisten kaia ikus ditzaket, gertu dago, beraz, ibaia eta beste aldean Louvreren horma zaharrak ikusten ahal dira. Aspaldi ez ginela horrelako gela dotorean egon.

Apirilak 15

Albert Camusen *Les justes* ikusten ari gara La Colline antzokian 20:30eko saioan, Stanislas Nordey zuzendari eta Emmanuel Béart Dora Doulebov-en pertsonaia jokatuz. Libretoa erosi dut, *L'avant-scène théâtre* martxokoa, 1279 zenbakia.

Maiatzak 30.

Gaur Josune Beldarrainek *Alegia klasikoak euskeraz Isopeteko, La Fontaineren eta Samaniegoren alegien berridazketen azterketa*, doktore-tesia aurkeztu du eta nire txostena honakoa izan da:

Lehenik, zorionak benetan Miren Josune Beldarraini burutu duen ikerketa eta lan ederragatik. Bigarrenik, zorionak tesi-zuzendariari, Jose Manuel Lopez Gaseniri, ikusten baita bere maisutza eta gidaritza. Baina, lot gakizkion azterketari: 521 orrialdeko tesi mardula da, eta modu txukun eta argi batean aurkeztua. Sei kapitulutan banatua, hauei *VII Ondorioak, Bibliografia Eta Eranskinak* jarraikitzen dielarik. Hizkuntza eta Literatura Didaktika sailean aurkezteko benetan gai egokia eta aproposa hautatu duzuna, hau da, *Alegia Klasikoak Euskaraz*.

I. ALEGIAREN KONTZEPTUAZ

Ongi taxutua eta argia. Alemana, frantsesa eta gaztelania ongi menderatzen dituzula nabarmena da, eta ez da gutxi. Halere, 6. orrian diozu, *Fable erabili zuen Leizarraga-k* eta oin-oharrean *Testament Berria*n (1571), baina egokiago litzateke Joanes Leizarraga izendatzea lehen aldian bederen eta obraren titulu osoarekin eta lehen edizioa edo haren faksimileaz, beraz *testamentu* eta ez *testament*. 19. or. diozu, *lan teorikorik ez dago euskal alegialarien artean*. Eta hala izango da, agian. Dena den, aurkitzen zaila izan arren gomendatuko nizuke, 1841ean Agosti Chahok idatzi *"Traité de L'Apologue"* irakurtzea. (*Fables populaires de Pierre Lachambeaudie*, deuxième édition, augmenté de deux livres et précédée d´un… Paris, Chez Jaillet 1841).

Alegiak eta ipuinak aipatzerakoan ere agian mereziko zuen Arnaud Oihenarten 373. a aipatzea: *Orhin ekhia bero. Ihardespena: Han isanic hona niz. … Behiala hegastiac minso sirenean*… (A. Oihenart, *Les proverbes basques…* Paris 1657). Eta bibliografian lehen edizioa aipatzea ere ez legoke gaizki. Halaber frantses moldeetara ohituak gaudenoi bista eginago zaigula oin oharretara joaten eta ez autore bakoitza aipatzen denean liburu bukaerara joan beharra. Alde honetatik nik uste bentaja duela sistema zaharrak bista kolpetik jarraitzen baituzu, baina tira, denboren modak… Bestalde UNEDek ateratako *Manual de estilo* 2001ean gomendatzen zen kapituluen zenbakitzean ez nahastea zenbaki erromatarrak arabigoekin, baina hori ere ohitura kontua da, noski.

II. ALEGIAREN HISTORIAZ

Ongi. Oin-oharrek berdintsu balio dezakete. Ulm-en 1474ko (Heinrich) Steinhöwelen edizio alemana eta Zaragozan 1489ko Johan Hurusen edizioa espainolaz ari zarela, agian mereziko luke azken edizio honen ale bat Iruñako seminarioan bazela ere aipatzea. Hartzailearen arloa aztertzeko interesgarria deritzot. 31. or. diozu, *Berpizkundea*, baina gogokoago dut, noski, Europa osoan erabiltzen dena, hots, *Errenazimentua* hitza. "Renaissance" eta ez "Resurrection", erreferentzia erlijiosoa nabarmenegia baita.

III. METODOLOGIAREN OINARRIAK

Ongi. Aipatzen da *Medium*aren dohainez. Ez dut ukatuko ukanen ez dutenik, baina itzulpen-lanetan nahiago dut zientzian sinestea. Hots, bi hizkuntza ongi menderatzean, gaian aditua izatean, belarri onean eta literatur sentsibilitatea edukitzean.

IV. ESKEMA METODOLOGIKOA ETA ANALISI-FITXA

Ongi. Zehatza eta exaustiboa. Katalogoak aipatzerakoan, agian Julien V*inson*ek ere mereziko luke aipatzea, eta iturri hemerografikoez, adibidez, Goitiñok zuzentzen zuen *California'ko Eskual Herria* (Los Ángeles, 1893-1897), bertan ematen baititu zenbait alegia ere. Hori eta beste zenbait errebista aurki daitezke Eusko Jaurlaritzak argitaraturiko *Hemeroteca De La Diáspora Vasca* (Gasteiz 2007)-ko hamar CDtan.

V. SORBURU-TESTUEN TESTUINGURUAK

Ilustrazioaren mugimenduaz, Peñafloridako kondeaz, Samaniegoz, Iriartez edota Mogelez diozuna oso ongi eta egokia da, pertinentea alegia.

VI. EUSKAL BERRIDAZLEEN ALEGIAK

Halaber, testu mailako azterketa eta originalaren eta itzulpenaren arteko konparaketak, sortu direnen kenketak, eransketak eta aldaketak azpimarratuz. Hots, nola sartzen zituen euskal poetak bere kultura eta errealitateko kontzeptuak. Zabalkundeaz ari garela aipatu beharko genuke Chahok bere *Ariel* (1845-II-16) aldizkarian

ere eman zuela Agustin Iturriagaren (1842) *Soro arratoi batek* fabula, eta bere kanta bilduman (*Chahoren Kantutegia*, P. Urkizu, Susa 2006) kopiaturik ageri dela ere.

Zabalkundeaz mintzo zarelarik aipatzen duzu Manterolaren *Cancionero Basco*-rena (1878) XIX. mendean, hala nola *Euskal-Erria* eta *Euskal-Esnalea*, besteak beste. Ohartxo bat: batzuk, hala nola *Otsoa eta Bildotsa,* bertso-paper solteetan ere agertu eta zabaldu ziren (Gratien Adema, 1873). Kontuan harturik beste hizkuntzetan eta gurean tamaina ttipiko orriok, gaztelaniaz *pliegos sueltos* eta frantsesez *feuilles volantes* deitu zirenek izandako garrantzia, mereziko lukete arreta pixka bat, haien zabalkundea batzuetan liburuena baino handiagoa izan baitzen.

Jean Baptiste Archuren izena, Martin Goyhetcherena horrela ematen bada, Ricardo Gómezek bere 1990eko edizioan ematen duen bezala emango nuke nik. *Alegiak eta Euskal Pizkundea* deitu azpisailean (VI.6), neuk eginiko edizioa aipatzen duzu: *Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma 1851-1897* (Donostia, 1997). Izen-zerrendari pixka bat erreparatuz, Karmelo Etxegarai falta zaigula ohartuko gara, zeinak Markinan eratu 1883ko Lore-Jokoetara X alegia aurkeztu baitzituen, irudi eta guzti. Ramon Artola eta Jose Artolaren alegiak direla-eta lehen aipatu 1896ko *Californiaco Eskual Herria* (16-17. zkiak) errepasatzera gomitatzen zaitut, bertan ageri baitira beste zenbait. Joseba Altunak atzerriko lanak itzuli zituela diozu, baina agian ez legoke gaizki erdaraz idatzi zuten egile euskaldunen antzerki lanak ere aipatzea (Sota, Viar…). Ramon Intzagarai "Elurmendi"ren *Ipuiyak* (1922) lanaz ari zarelarik ere ez legoke gaizki lehen aipamenean egotea digitalizaturik dagoela: www.kultura.ejgv.euskadi.net-en. Léon Léon "Berrizarte"-z ari zarelarik, euskal idazle argitsuenetarikoaz, tildea ere ez nuke ahantziko. Eta beste.

Hezkuntza-mundurako asko eta asko itzuli zirela heziketa kontuan harturik, harritzen nau Ixaka Lopez Mendizabalek 1923an bere *Xabiertxo* liburuan emanak ez izendatzeak, hau izan baitzen askorentzat, *Kristau Ikasbideaz* aparte, esku artean izan zuten/genuen lehen euskal liburua, eta bertan irakurri genituela lehen aldiz *Txolarrea eta erbia, Arranoa eta azeria…*

Irudidun alegien berridazleak aipatzerakoan mereziko zukeen portadaren bat edo beste ematea ere. Eta Pierre Ibarrart aipatzen duzula, *Cancionero Basco*ren urtea ematen duzu lehen aldia bezala (1880), AAKG-an ordea jada 1878an ageri da *Xinaurri eta Xoria,* Mikel Laboak hain ongi kantatzen zuena: *Primadera hastetik uda azkenerat…*

Alegiaren tradizio modernoak jeneroaren gaurkotasuna adierazten du; horrez baliatzen dira egungo politikariak ere zenbaitetan beren sesio eta eztabaidetan.

Bukatzeko, esan behar dut bai *Ondorioak*, bai *Bibliografia* (hau zertxobait osaturik eta agian bi partetan bereizirik, hots, alde batetik edizioak eta bestetik ikerlan orokorrak emango nituzkeela nik), hala nola *Eranskinak*, hemen ere 59 berridazleen izenak eta kopurua zertxobait handituta, oso egokiak iruditu zaizkidala. Alegia klasikoen arteko baliokidetzak oso interesgarriak dira, noski, gaur egun eta beti hain garrantzitsua izan den literatura konparatiboaren ildotik ikerketak egiteko. Gai eta pertsonen aurkibide bat edukitzea ere argigarria litzateke.

Eta besterik ez. Zorionak Miren Josune Beldarrain tesi-lan sakon honengatik eta zorionak Jose Manuel Lopez Gaseni zuzendaritza serios eta jakintsuagatik.

Donostiako bistarik ederrenetakoak dituen jatetxean, *Branka*n alegia, izan dugu doktore titulu berria ospatzeko bazkaria. Eta bai Josune, bai eta Gaseni oso pozik daude eztabaidak eta lanaren defentsa nola joan diren ikusita.

Uztailak 27.

Mikel Azpiazu Zuluetak Kutxan argitaratu berri duen *Actividad Teatral Donostiarra (1950-1975)* liburuaz José Monleónek zuzentzen duen *Primer Acto* errebistarako erreseina egiteko eskatu didanez, laburki idatzi diot garaiko teatro taldeen berri dioena: *Aula de Buen Teatro, Argi, El TEU, Antigona, El Teatro de Cámara y ensayo, Tespis, Candilejas Teatro Estudio, Euskal Iztunde Taldea, Jarrai…* hala nola bertako zuzendari, eszenografo, antzezle, antzerki eta argazki ugariez eta oraindik ikerketa mailan dauden egitekoez zenbait gogoeta eginez. 2010eko ekainaren 24an sinatzen nuen erreseina.

Uztailak 25.

Francesc eta Pau kataluniar adiskideak etorri zaizkigu Barkoxen jokatzen duten pastorala ikustera. Hau dela-eta bidaia prestatzen dugu eta bagoaz bi beribilez Zuberoa aldera. Batean, Marta, Arantza eta Juan Kruz Uruñuela, *Parsifal* musika dendaren jabea eta aditu handia, eta bestean Francesc, Pau, Marga eta neroni. Goiz ateratzen gara eta lehenik Olorongo elizaren atari erromanikoa kontenplatzen dugu. Bazkaltzeko iristen gara Ospitale-piara eta han *menu-pastoral* delakoa eskaintzen digutenez, hoberena ez izan arren, onartzen dugu. Eguraldia ez dago oso segurua eta prest gaude euri zaparradaren bat botatzen badu ere aurka egiteko. *Xahakoa* da pastoralaren izena, Patrick Queheille "Kanpo"k idatzia, Alexis Etchekopar, *Attuli,* bertsolari eta mugalari zenaren bizitzan oinarritua, eta batez ere Bigarren Mundu Gerran kokaturikoa. Erosi dugu libretoa eta plazer handiz jarraitu dugu obra guztia, inongo mementutan aspertu ez garelarik, hain baitute jokatu ongi arizaleek. Irudi eta kanten xehetasunak nahi dituenak, noski, *Youtube*ra jo dezake eta gaiaz artikulu on bat irakurri nahi badu, Arantza Fernández Iglesias gurekin zihoan adiskideak UNEDeko Signa 22 (2013), 33-58, delakoan argitaratu eta errebistan *"Las Pastorales modernas: Fenómeno multitudinario"* titulupean digitalizatua dagoena irakur dezake. Antzezkizuna bukatutakoan, batzuek zerbeza eta besteek ardo gorria dastatu dugu, patxada ederrean pastoral zenbaitetako afixak horman zintzilik dituen Mauleko *Café Europe*n, ikuskizun benetan *eijerraz* mintzo gara, txango bikain, iradokizunez bete bat egindako sentsazioarekin.

Abuztuak 19.

Gaur, Ramon Saizarbitoriarekin eta Finirekin atera gara Marga eta biok beribilez Aiako Harriaren barrenak, sustraiak alegia, bi mila urtez mehatzariek egindako galeriak bisitatzera. Hamabietako ordua geneukan hartua, hori baitzen proposamena: euskaraz eta ikusgai dauden bi galeriak, 300 metrokoa lehena eta 500 metrokoa bigarrena ikustekoa. Dokumental arrunt bat ikusi ondoren, sartu gara mendi sabelean.

Nola bizi ziren euskal meatzariak duela bi mila urte? Duela berrogei urte eskas bukatu zenaren garaikoen bizimodua jakin daiteke. Ez da falta dokumenturik *Real Sociedad Asturiana De Minas*en, baina duela bi mila urte? Nola jakin zuten erromatarrek meatze horiek harri zilarrez-

tuz, galenaz, blendaz, berunez eta beste mineralez aberatsak zirela? Bertako jendeak adierazita? Ze jende mota bizi zen *Oiarso* delako hirian?

Hori jakitearren Irungo Museoari ere bisita egin diogu. Baina lehenago *Pikoketa*n bazkaldu dugu lasai aski. Babarrunak, hots, *faba romana* delakoak, ordudanik datorkigun janari gozoa, eta saiheskiak. Hemendik dagoen bista benetan ezin ederragoa da, Aiako Harria aurrez aurre baitaukagu.

Aitortu behar dut, Aiako Harriko bisitak benetakotasunaren inpresioa sortu didan bezala, Irungo museoaren bigarren aldiko bisitak, lehenarena eragin didala. Alegia, oso ondo dagoela haurrentzat, baina egia historikoarekin arazoak dituela. Ramoni ere, uste dut inpresio bera eman diola, eta estutxearen gehiegikeriaz jardun du.

Anekdota bat ere kontatu digu Ramonek. Nola *Joyce* izeneko belaria zeukanean –bi une direla hoberenak belariko marinel batentzat, *dio*, erosteko eta saltzeko eguna–, behin paper guztiak ahantzi eta Donibane Lohizuneko portuko komandantziako jendarmak isuna barkatu ziola, nobelagilearen izena zeramalako *(Joyce, comme le romancier?)*, baina ongi azpimarratu ondoren berari ez zitzaizkiola gustatzen horrelako autore modernoak, *El Quijote* bezalako nobelak baizik.

Etxeratutakoan Guimaraesen *Sertao* eleberria irakurri diot Margari, afaria prestatzen zuen bitartean (tomate gordina olioz, ozpinez eta gatzez ondua eta zopa). Ohartu gara zaila dela bakarrizketa amaiezin hau ahots goran irakurtzea, oso gutxi ohituta gauden pertsonaien hainbat esamolde bihurri ageri direlako.

Abuztuak 30.

Atzo Tokioko Sokazko Laukotea entzuten izan ginen Victoria Eugenian. Benetako betegintzarrea. Diskoan bezalaxe. Bertan topatu ditut Lourdes Oñederra eta Antonio Dupla, Lourdes Otaegi eta Rafa Bergaretxe, Julio Azkargorta eta Karmen Atxalandabaso, eta gure koadrila osoa… Berrogeita piko urteren ondoren Rosa Letamendiak ni ote nintzen galdetu dit teatrotik irtendakoan eta neuk ere bera Rosa ote. Egia esan gustua eman dit bera niregana zuzendu izana. Beti bezain emakume dotorea iruditu zait. Gero *La Espiga*ra hurbildu gara afaltzera, lasai, berriketan, oso harmonia onean…

Irailak 1.

Josebarekin arrantzara joan naiz. Benetan ikusgarria goiz-alba eta eguzkiaren irteera ikustea Abbadia jauregiko atzekoaldetik. Jaizkibeletik lau milatara aritu gara batera eta bestera, eta azkenean sei lanpo harrapatu ditugu. Ordu baterako anaiaren etxera iritsi gara. Han nengoela Ramon Saizarbitoriak deitu dit mendira joateko edo ibilaldi baterako gelditzeko. Arrantzaren berri eman diot: bost lanpo eder eta bat ttipia. Anaiak zuzendu egin dit arrantzarena, alegia, ez zirela bost lanpo eder eta txiki bat, sei lanpo eta txiki bat baizik.

Bereizketaz Margak esan dit frantsesez ez legokeela nahasmendurik *dont* hitza erabiliz gero. Eta hala da, baina anaiarena ez zen hizkuntza zuzenketa umorezko punttua baizik.

Gauean Karmenen jardinean afaldu dugu lanpoa plantxan. Benetan oso ona zegoen eguerdiko hamabi eta erdietan harrapatutako arraina, zeina Antonio lagunarentzat ez den arraina ehiza baino.

Irailak 2.

Nire urtebetetzea. 64 urte bete ditut gaur. Eguerdian, islan bainua hartu ondoren, Marga eta Urtzirekin *La Bodeguilla Donostiarra*n bazkaldu dugu. Oso ongi aurkitu dut Urtzi abuztuko oporren ondoren eta jada hasi da lanean *Berria*n. Ohiko elkarrizketak eta Agendako lanak ditu eskuartean. Nazioarteko Zinema Festibalean irratian bere komentarioak ere egingo dituelakoan dago. Igandean Malen eta Iratxerekin etxera etorriko dela.

Irailak 3.

Ramonekin eta Finirekin gelditu naiz bostetan pasatuko garela Ziburu aldean ibilalditxoa egiteko. Olhetako kaperaren ondoan utzi dugu beribila eta Intxola errekaren ondotik ibili gara bi ordu eta erdiz. Itzaletik berriketan. Orotarik zihoan solasa. Halako batean Ramonek galdetu dit ea zer ari nintzen idazten eta esan diot Anton Abbadiari buruzko lana eta Euskaltzaindiko LIBeko batzordeak eskuartean daukan *Antologia* eta horri buruzko gogoetak ditudala gaitzat azken boladan. Berari ere galdetu diot ea nobelarekin ari den jo eta ke, eta irribarre batez esan dit baietz, xehetasun gehiagorik gabe. Gero *boj* bat, alegia zurito bat

edan Ziburuko frontoi ondoko tabernan eta *Ferme Lizarraga*n afaldu dugu. *St. Emilion* ardo botila bat eskatu dut. Eta lauren artean Bordeleko ardo gorria gustura dastatu dugu berriketa eta solasgaiak honen gainean izan direlarik: bekatua, apaizak eta barnetegiak edo komentuak nolakoak ziren garai batean… Nahiko barre egin dugu Finik esan digunean zazpi urterekin erabaki zuela ez zuela mezetara joan nahi jantziarazi gura zioten jertse bat zela-eta…

Irailak 4.

Margarekin Saturrarango hondartzara joan naiz eta han bainatu. Marga ez da animatu bustitzera eta itzuli egin gara. Ni Mutrikuko plazan gelditu naiz, Lezoko taldea, koadrila kanposantuan Migel Anjel Basurkori bere hilobian loreak ipintzen zegoen bitartean. Basoerdi bat sagardo edan eta Txurrukaren monumentutik itsasora begiratzen ari ginela, erabaki dut Patxi Intxaurrandietaren baimenarekin Migel Anjel Basurkoren omenez idatzi nuen artikulua irakurtzea. Denek isil-isilik entzun dute eta nire inpresioa da ez zaiela desatsegina gertatu, ezohikoa izan arren. Tentsioa desegiteko Patxik Errenteriako Institutuak eskaini zion liburuaren berri eman du… modu umoretsuz. Marga berriro afaltzera joan da, baina *ni Kalbarixoan* bazkaldu ondoren ez nago berriro jendartean egoteko eta pentsatzen dut ikasi behar dudala bakardadezko uneak dastatzen.

Soma Morgensternek idatzitako *Huída y Fin de Joseph Roth*en irakurketa bukatzen geratu naiz bakarrik etxean bake santuan. Bukatutakoan lerro hauek idazten hasi naiz, eta egunorokoa berrartzen, 30az geroztik utzia baineukan deusik idatzi gabe.

Urriak 1.

Joseba Bilbatua eta Marijose Via adiskideen ezkontza Bilbon. Urtetan sartuak dira eta jubilazioa gainean dutelarik, ezkontza-paperak egitea erabaki dute. Epaitegian sermoi zibila eta aholkuak entzundakoan, elkarri eraztuna ezarri diote eta denok poz-pozik joan gara bazkaltzera. Zortzi adiskide izan gara oso harmonia onean. Lau gizonezko (bi ezkondu gabe), inor ez gorbataz, eta lau neska, fular irudi koloretsuz: arrosa, beixa, grisa, urdina… Egun eder bat igaro dugu hamaika kontakizun xume kontu-kontari eta beribila berriz hartu aurretik, Plaza Barrian ur

xorta bat edan dugu, xanpainaren eta ardoaren eragina iraganaraztеko…

Urriak 20.

Mikel Zalbide euskaltzainak Nick Gardner-en bitartez *Euskararen Historia Soziala* burutzeko lan-enkargua bidaltzen dit, bere baldintza partikularren agiri eta guzti; ikersaioaren izenburua: *Bertso-paperak eta euskara: 1789-1850* delarik, epea abenduaren 17a izango delarik. Paperak sinatzen ditut, zeren eta emandako lanekin, hau da, *Anton Abbadiaren Lore-Jokoak* zirela-eta haien bertso-paper moldiztegiratuekin, hala nola *Urkaberako Baladak* lanekin, egindako enkargua aski bete dudalakoan bainago. Nick Gardner-ek honela bukatzen du gutuna: *Agian, aukeratu dituzun dokumentuez eta aipuez (eta ez, oraingoz behintzat, ikersaioaz) ari garenez, baldintza horietako bat korapilatsu xamarra irudituko zaizu: Euskaltzaindiak, ordea, ziurtatu nahi du material hori egitasmoan integratzeko ez duela inolako arazorik izango….*

Azaroak 26.

Atzo ospitaletik jaitsi ninduten bertan bi aste igaro ondoren, Garrido doktoreak eta bere ekipoak operazio batean ezkerraldeko giltzurrunaren parte bat kendu didatelarik. Ohiko azterketa arrunt batean aurkitu didate gaitza eta aspalditxoan migrainak jota bainenbilen, eta buruko min horrek aspirinak hartzera eragiten, horregatik ia ez didate egin aski larrialdikoa den operazioa –teknikoki *nefrektomia partziala* deitua–. Bisitan etorri zaizkit, noski, etxeko guztiak. Marga hemen egon da laguntza eta animoa ematen, bai eta bisitan Urtzi, Marikrutx, Joseba eta Kontxi, Miren eta Miriam, Mikel Arregi, Patxi Intxaurrandieta, Mikel Arrizabalaga, Ramon Saizarbitoria… Nire gelako aldameneko ohean egon dena Pako Sein oiartzuarra, Eugenio Arozenarekin garai batean *Intxixu* taldean antzerti lanetan aritua izan da. Umore gaitzekoa, baina sufrimendu ugari pasatu dituena bixika kendu baitiote eta aurrerantzean ez du pittilinetik pixa egingo, heste batekin egin dioten irteera batetik poltsa batera baizik. Hau bai dela aldaketa, gizon baten ohituretan…! Gizon fina benetan, bai eta bere emaztea eta alabak… Kolpe honek hemendik aurrera gauzak beste modu batean ikustera behartzen nau. Burua gehiago zaintzera, beste patxadaz eta arretaz ibiltzera eta etorkizuna beste ikuspegiz begiratzera.

Abenduak 10/11.


Hondarribian, LIBek *Literaturaren Historiografia I. Jardunaldiak*, euskal literaturaren historia egiteko erabili diren moldeez gogoeta. Txuma Lasagabaster, Ana Toledo, Jon Casenave, Jose Manuel López Gaseni, Asier Barandiaran, Josu Bijuesca, Iratxe Retolaza eta neronek parte hartzen dugu.

Nire txostenak bi parte ditu. Bata, *Bertso-paperen eta baladen sailkapenez gogoetak eta oharrak edizio baterako*, zeina *Euskera* aldizkarian agertuko den eta powerpointen bidez ematen dudan. Bestea, honakoa: *Itsasoko Tragediak euskal kanta zaharretan.* Lehenean azterketa kritiko bat egiten dut orain arteko balada-bildumetan erabilitako izenez. Hala, adibidez, Antonio Zavalak *Euskal erromantzeak* (1998) liburuan, Beotibarko *Kanta* batzuetan, gero *Eresia*, bai eta *Kantorea* hitzak erabiltzen ditu. Logikoa litzateke aldaerak erabiltzea hitz lauz, hiztegiaren zabalera eta sinonimoak erabiltzearren, hots, aberats eta ez astunegi egiteko prosa, baina ez dagokio hori kanten tituluekin egitea. Halaber *Guipuz hondo ederric* irakurtzen duenean eresi bateko bertso-lerro bat zuzendu duenean Mitxelenak *Guipuz sendo ederic,* eskuizkribuak <s> gora deritzana baitakar <h> grafemaren ordez. Halaber, nola *Pulunpa* abestian ohikoa den Francisque Micheli jarraiki (*Le Pays Basque…*, 1857) 15. bertsoa hiru bertso-lerrokoa ematean, *California'ko Eskual Herria Berriketaria*ri esker (1894-VII-28) dakigunean zein den falta zen laugarren bertso-lerroa: *Eskual herriaz oroitzean nigarretan urturik…* Eta abar. Bigarrenean Hondarribiko udal aretoan baikaude, bertako marinelen bizitzaz eta heriotzaz, kantez, eta "Bordari" bertako idazleari omenalditxo bat egiten diot, bertan baitago Lupe Artola adiskidea ere.

Abenduak 31.

Errepaso bat ematen diedalarik erdi-jubilazioko urte honetan argitaraturiko lanei, ohartzen naiz iazkoa izan zela liburu mardulen argitaratze-urtea, erditze luze baten ondorioz noski, hots, Euskal Teatroaz eta Poesiaz moldiztegiratuak, baina libururik ez plazaratu arren hor daudela, ikerketa lan serios batzuk *Euskera*n, *Revista de Lenguas…*-en, *Serta*n eta liburu kolektiboetan, hala nola Jean Haritschelharren *Honoris causa*n eta Josu Chuecak Gerra Zibilaz zuzendutakoan. Dena den, nire bizitzan sentitzen dut badagoela eten bat, eman dela jauzi bat jubilaziotik

eta operaziotik hona, Unibertsitatean kolaboratzaile gisa soilik gelditu izanak eta eritasunaren ondorioak eragina.



Irudia 80: Anton Abbadiaren biografia entseiua frantsesera Edurne Alegria Aierdik itzulita.

2011

Urtarrilak 31.

DONOSTIAN trena hartu dut Bartzelonarako, LAIREM kongresurako aitzakian. Hau da, *Literatura, Art i Representació a la llarga Edat Mitjana*ren siglekin osatu izena, akronimoa. Goizeko zortziak laurden gutxitan atera eta ordu biak laurden gutxitan iritsi gara *Egipciaques* kalean dagoen CSICeko erresidentziara. Atzo Francescekin hitz egin nuen. Azkenean Marga ez dator, ama ez dagoelako oso ongi, jada 94 urte baititu eta Julieta zaintzaile kolonbiarra ere ez dagoenez behar bezala, ospitalean dago, eta gelditu egin da zaindari. Ea, bada, laster errekuperatzen diren…

El Monestir jatetxean nago bazkaltzen, bakar-bakarrik, musika goxoki entzunez. Erosoa da lekua, ez dabil jenderik ia, eta Mari Karmen Navarrorekin hitz egin dut. Elkar ikustekotan gelditu gara. Almejak espagetiekin oso onak, piperminez eta belarrez onduak. Hau bai dela, aspaldiko partez, bakardadearen lasaitasuna. Kafea hartu eta Rambletatik ibilalditxo bat egin eta gero, lo kuluxka egitera joango naiz. Oroitzapenak ez galtzeko *Cafè de L'Òpera* bisitatzen dut, beti gustatu izan baitzait hango mostradorea, ispiluak irudi modernistekin, zurezko mahai borobil eta esalki kolore berdinekoekin, eta sagar-opila dastatzen dut bigarren kafearekin batera.

Arratsaldeko zortzietan geratu naiz Francescekin Teatro Romea-ra joateko Carles Soldevilaren *Bola de neu* ikustera. Sarrera libre da eta Jordi Casanovesek zuzentzen du irakurketa dramatizatua, zeina honako aktoreek egiten duten: Àngels Bassas, Jordi Boixaderas, Abel Folk, Mingo Ràfols, Miriam Alemany, Joan Berlanga, Camilo García eta Clara Moliné Xirgu. Hiru pertsonen arteko amodio ixtorioa kontatzen da, 1920 urte inguruan kokatua, Bartzelona snob eta artisten mundua. Pintura, politika, kritikoak, emakumeak eta hauen fideltasun ezak…

Otsailak 1.

Tarragonan gaude, *Facultat de Lletres de la Universitat Rovira i Virgili* izenekoan, zeren honek eta *Centre d'Estudis i de Recerca d'Humanitats de la Universitat Autònoma de Barcelona* (UAB) delakoak eta *Reial Acadèmia de Bones Lletres de Barcelona i l'Institut Italià de Cultura de Barcelona*

erakundeek antolatzen baitituzte bi egunotako jardunaldiak. Joglarrak, ministrilak, aktoreak: literatura, musika, artea eta ikuskizunak Europa erromanikoan XII. mendetik XVI.era da gai orokorra eta aski zabala. John G. Style, Jordi Ginebra, Francesc Massip, Costanzo Di Girolamo, Maricarmen Gómez Muntané, Daniel Rico Camps, Carlos Villanueva, eta Lenke Kovácsen hitzak, txostenak eta irudiak entzun eta ikusi ondoren nire txanda dut, eta gai hau aukeratu dut: *Canciones Vascas del Tardomedioevo y del Renacimiento.*

Esandakoen laburpena, gaztelaniatik euskarara itzultzen dudana, hauxe litzateke: Aspaldi da ezagutua izan dela Euskal Herria Pirinioetako bi aldeetan dantzari eta kantari dabilen populua bezala. Eta abestien lekukotasunak bilatzen hasiz gero, hor daukagu 1452ko Bizkaiko Foru Zaharra, non aipatzen diren *mujeres que ponen coplas y cantares,* koplak eta abestiak kantatzen dituzten andereak, alegia.

Eta nola Esteban de Garibay (1533-1599) Felipe II.a erregeren historialariak bere *Memorias* delakoetan, hots, autobiografian jaso zituen *Endechas de mujeres que por conservación de esta vejez las he querido referir aquí,* esan nahi baita, kontserba zitezen antzinako kanta haiek nahi izan dituela jaso emakumeek kantatu *eresiak*…

Dena den, 1545ean Bordelen argitaratu zuela euskal lehen liburua Bernat Etxeparek eta bertan, besteren artean, *Sautrela* eta *Kontrapasa* moldatu zituela. Poema hauek Mikel Laboa eta Xabier Letek adibidez abestu izan dituztela. Eta aurkitu berri den Joanes Perez de Lazarraga (ed. P. Urkizu, 2004, *Dianea & Koplak, Madrid 1567*) kantutegian aurki daitekeela bilantziko elebidun bat *No me digáis madre a Fray Antón*, doinuaren arabera abestu behar dena, eta Salbatierrako erreketaren kanta (1564) *A los maitines era*… doinuarenera. Eta ez dela ahantzi behar ere eskuizkribu berean aurkitzen direla Mª Estibaliz de Sasiola (< 1611) lehen euskal andere idazlearen zenbait poema, tartean *Mendi altuan erurra daidi,* oraindik egun zenbait aldaketarekin Amodioari eta Naturari omenaldi gisa kantatzen dena.

Otsailak 2.

Gaur asteartea, Bartzelonan ditugu hitzaldiak, *Reial Acadèmia de Bones Lletres*en areto nagusian. Almudena Blasco, Sandra Pietrini, Francesc Massip, Donatella Siviero, Daniel Rico entzun ditut plazer handiz.

Italia, Katalunia eta Gaztelako adituek aurkezturiko lanak eta ikerketak benetan oso-oso interesgarriak iruditu zaizkit. Bai eta aurkezteko era ere…

Otsailak 6.

Leire Lopez Ziluagak *Berria*n gaur Koldo Izagirreren euskararen heriotzari buruzko saiakeraz mintzo delarik, UNESCOren informe ezkorra aipatzen du, bai eta *El libro negro del euskera* ere, baina dio zerbait gehiago ere badela, etorkizunean auzitegiko medikuren batek euskararen gorpua aztertu beharko balu, kontuan hartu beharko lituzkeen aztarnak ematen dituela liburuak. Baina ez dela horretara mugatzen, ez dituela froga hutsak metatzen, baizik eta froga horietatik abiatuta euskararen inguruko hainbat gairi buruzko hausnarketa dela: gaur egungo elebitasun-eredua, euskarak erakarri egin behar duelako ustea, etorkinak eta euskara lehen eta orain, euskararen lurraldea eta abar…. Eta argudio sendotan oinarritutako eztabaida eskatzen du.

Otsailak 13.

Mikel Elustondok gaur *Berria*n Koldo Izagirrek Susa argitaletxean plazaratu duen *Autopsiarako frogak. Arseniko-aztarnak gure hizkuntzan.* saioa dela-eta honako hitzak jasotzen ditu egilearen ahotik: «Politikoki eragin beharko dute euskaldunek, euskara marjinaziotik ateratzeko». «Biharko» idatzi du, baina «orainaldirako alerta bat» izan dela uste du. Euskararen «heriotza naturalaren» teoria gezurtatzeko «frogak» bildu ditu. Gainbegirada bat eman nion, baina Ramonek saioak dioenaz eztabaidatu nahi duela eta erosi ondoren irakurtzen jarri naiz arretaz eta gogo biziz.

Otsailak 24.

Mattin Irigoienek gonbidaturik Donapaleura joan naiz UNEDeko *Revista Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca*n iaz argitaratu *Jean Etxepareren bertso-konplaintak (1873-1889)* artikuluaz hitzaldia ematera, horretarako bereziki powerpointa prestatu dudalarik. Hitzaldia Herriko Zerbitzugunearen gibeleko salan izan da, eta afalostean denez, jendea animatu egin da hitzaldia bukatutakoan gauzak kontatzera,

ezagutzen ez zuten herritarraren kantagintza alde batera utzita, beraiek bizitako ixtorioak gogoratzera.

Otsailak 26.

Gorka Erostarbek *Berria*n gaur honakoa dio, alegia, Arrate Egañak Donostia Hiriko Kutxa Literatur saria antzerkiaren alorrean, *Egia* izeneko antzerki obrarekin irabazi duela. Aurelia Arkotxak, Imanol Eliasek, Daniel Landartek, Ana Toledok eta Patri Urkizuk osaturiko epaimahaiak Egañaren lana hautatu duela, sariketara aurkezturiko hamasei lanen artean. Atzo eguerdian jakinarazi zutela garaileak nor izan diren sariketaren 52. ekitaldian. Komunikazio-tresna berriek izan ditzaketen arriskuen ingurukoa dela, besteak beste, sarituriko antzezlana –20.000 euroko saria eman diotela–. Arrate Egaña 1998an agertu zela plazara, *Baporea* saria irabazi baitzuen *Printzesa puzkertia* liburuarekin. Geroztik, umeentzako beste hiru lan argitaratu dituela, eta nobela bat ere idatzi duela: *Kixmi* (Elkar, 2005).

Otsailak 27.

Koldo Izagirrek, Sari Nazionaletan bere saioa aurkezteko eskaintza egin diodalarik, ezezkoa erantzun dit [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 31)].

[Ez dut gogoratzen ongi garai honetan Ramon Saizarbitoriarekin egiten nituen ibilaldi arinetan euskararen heriotzaren frogak zirela-eta zer esan genuen. Baina bai, nire aldetik formalki saioan bazirela gauza batzuk ez nituenak oso gogoko, hala nola bibliografia modu txinoan ematea, erreferentzia bibliografikoetan egile eta editorearen falta, puntuazioa dela-eta, alegia, komaren ezabatzea askotan, eta gaia tratatzerakoan, mosaiko gisa eta anekdotario moduan ematea ixtorioak, jauzi historikoak, eta batzuetan zehaztasun eza, hala nola Paulo Ulibarrik euskarazko lehen egutegia idatzi eta inprimarazi zuela esatea (!), Joanes Leizarraga Beraskoitzekoa ahantzita. Bernat Etxepareren testua transkripzioan aldatzea… Metaforen pilaketaren abusua. Batzuek irakurgaia pollit, arin eta edertzen badute, zailak, sobera eta gehiegizkoak direnean, solasa bihurria, kontzeptistegia eta ulergaitza bilakaraz baitezakete, eta horixe da prosaren bekaturik larriena.]

Martxoak 26.

Irun Poesia Saria ematen den azken urtea. Hamabost poema-liburu aurkezten dira eta Asier Serranok *Desterratuen piztiarioa* titulaturiko poemarioa hoberenetsi dugu. Barne kontzientziaren solas etengabea, landugabea, esaldi loturarik gabeak, arrunta, nire ustez, baina beste epaileen iritzia ezberdina denez, hau izan da irabazlea. Ohartzen ari naiz poesiaz nire irizpideak eta oraingo kritikari batzuenak ez doazela batere bide beretik.

Apirilak 11.

Gregorio Monrealek eskatuta, Maria Bayo *Jakiunde*n sartzearen aitzakiaz galdetu zidan ea egingo ote genuen Anton Abbadiaren afixekin erakusketa bat haren jauregian eta bertan hitzaldi batzuk eta zeremonia egin. Nire adiskide eta bertako zuzendari den Céline Davadanekin eta Hendaiako auzapezarekin geratu ginen bilera baterako eta dena ezin hobeto konpondu zen. Donostiako *Copy Vasc*en erreproduzitu zituzten etorkizko tamainan kartelak eta gaur jasotzera Igaran daukaten almazenera joan gara *Jakiunde*n idazkari lanak egiten dituen Jone Karresekin. Jonek alokatu duen furgoneta batean sartu eta bagoaz Abbadia jauregira, bertan ahalik eta modurik egokienean eta dotorenean ezartzera. Ikusitakoan, Célinek esan du egon daitezkeela erakusgarri urtea bukatu arte. Noski, ez da batere albiste txarra. Abbadiak egin lana jende anitzek dastatu ahal izango baitu, urtean 35.000 bisitari pasatzen denez gaztelutik, eta bidenabar euskararen historia apur bat ezagutu.

Apirilak 15.

Maria Bayo soprano nafarraren inbestidura Pedro Migel Etxenikeren eskutik jaso ondoren, bagoaz denak bazkaltzera Hondarribira. Nafarroako Opuseko errektorearekin, Deustuko errektorearekin eta Maria Bayorekin, besteak beste, suertatzen naiz mahaian. Mariari zorionak eman dizkiot omenaldiagatik eta egin duen hitzaldi xume eta mamitsuagatik. Hitz egiten dugu pixka bat, minbiziak hartuta dagoen eta Margaren partetik lehengusu dudan Mari Karmen Aranguren elkarren adiskideaz ere. Nire ezkerretik entzuten dut jesuitek ez-dakit-nor santu

izendatu nahi dutela eta horretan laguntzeko eskatzen dietela Opusekoei, Vatikanoko pasiloetan barrena. Oraindik hamaika ikusteko eta entzuteko gaude!

Arratsaldean, lehenik, François Beauducel fisika-irakaslea Anton Abbadiaren azterketa magnetikoen gaurkotasunaz eta balioaz mintzatu zaigu, eta gero niri suertatu zait hitz egitea Anton Abbadiaren bizitzako zertzelada zenbaitez, sortu zituen Lore Jokoez eta euskararen alde burutu zituen lanez. Kantak, arazo teknikoak zirela medio, pixka bat itsustuak atera dira eta ez bere gardentasun osoan, nahi nuen bezala. Zer eginen dugu, bada. Beti badaukat arazoren bat erraminta berri hauekin, teknikariak presaka dabiltzanean batik bat.

Azken orduan teknikak erdi-potto egin baitzigun. Aretoa betea dago, baina ez dit, ohituta egon arren, ilusio gehiegi egin ikusteak lehen lerroan Pedro Migel Etxenike presidenteak nola ixten dituen begiak, ez dakit abestien adiera hobeto bereganatzeko edo lo-kuluxka egitearren. Dena den, aspalditik Anton Abbadiak merezi zuen omenaldia jaso du oraingoan *Jakiunde, Zientzia, Arte eta Letren Akademia*ren eskutik, bere unibertsaltasun-balioak direla-eta legamia izan zelako euskal hizkuntza eta kulturaren pizkundean XIX. mendean. *Zazpiak Bat* kartelaren ale bana banatu zaie partaideei, hau da, Mesnardek Parisen Donibane Lohizuneko Festetarako egin litografia, Abbadiak eginarazia 1892an, eta denak pozik egun ona pasatu dugu, batzuek komentatu dutelarik ez zutela pentsatzen ezagutzen zituzten abestiak hain zaharrak, hots, hemeretzigarren mendean sortuak zirela.

Apirilak 26.

Atzo Pazko Biharamuna zenez, ohi bezala, Sarako Liburu eta Diskoen Ferian izan ginen, eta aspaldidanik egin ohi dudan bezala, harantz abiatu nintzen liburu berrien uzta biltzera, erritu gisa ia. Aitor Renteriak *Berria*n ematen du aurkezpenen eta giroaren berri. Kiroldegia jendez mukuru, koloretsu, globo zuri, gorri eta berdeak airean, egile-saltzailez ere bai, eta jende ezagun asko. Agurtu ditut adiskide zahar batzuk eta liburu zenbait erosi. *Maiatz*en Luzien Etxezarretari, *Utriusque Vasconiae*n Paulo Iztuetari, Jokin Apalategi eta Maite Idirini beren bildumakoren bat erosi eta Eugenio Arozena eta Daniel Landartekin argazki bat elka-

rrekin atera digu Luis Aranberri "Amatiño"k, une honetan bertatik igarotzen ari baitzen [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 32)].

Nabari zaio "Amatiño" eibartarrari beti bezain erne eta bixi-bixi dagoela inolako alzheimerrik gabe luman, ez buruan. Ez naiz harritzen ez ezagutu izana, 1985az geroztik ez baikara egon elkarrekin.



Irudia 81: Donibane Lohizuneko Lore jokoen afixa, 1892
Paris, Mesnard litografia, BNF, Z-Basque 30 (50).

Maiatzak 5.

Josu Jimenez Maia nafarrak Euskal Idazleen Elkartearen zuzendaritza bazordean idazkari lanetan dabilenak idatzi dit eta, beste zenbait gauzaren artean, Agosti Chahoz hitzaldi bat ematea proposatu dit [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 34)]. Baiezkoarekin erantzun diot aspaldidanik bainabil Chahoren bizitzaren eta obraren inguruan lanean, eta haren idazlanek izan zuten harrera eta eragina aztertzen.

Maiatzak 10.

Marta Merinok Eusko Jaurlaritzatik idatzi dit esanez oraindik ez duela jaso Miarritzeko *Atlantica* argitaletxetik erantzunik, edota dirua

jaso ahal izateko bete behar dituzten paperak. Beraz, joan beharra dut argitaletxera bitartekari lanak egitera, onartu baitu Kultura Kontseilaritzak, Lourdes Auzmendiren bitartekotasunari esker, editorialari ordaintzea Edurne Alegriari Anton Abbadiaz egin dudan liburua eta Miguel de Unamuno saioa irabazi duenaren itzulpena paga diezaion. Ixtorio hau ez nuen, noski, bideratuko Céline Davadanek orain berritan eta lehenago Fréderic Souluk eskatu ez balidate egindako biografia-saioa frantsesera itzul nezan, inguruetako herrietatik bisitan etortzen ziren gaztetxoek eta helduek ez baitzekiten / ez baitakite ia deus garai batean *Eskualdunen Aita* deitu zutenaz.

Ekainak 9.

Francisco Rubiok, Errenteriako Institutuan lankide izan nuenak, duela egun batzuk idatzi dit esanez nobela beltz bat idatzi duela, *Donostia* titulatu duena, eta Jon Lauko pseudonimoarekin plazaratu duela. Pasatzeko Mikel Arregiri eta gustatuko litzaiokeela biek zerbait idaztea nobelaren inguruan. Gaur arratsaldeko zazpietan aurkeztu da Liburutegi Munizipalaren sotoko aurkezpen aretoan, Mikel eta biok Bartzelonako *Meteora* argitaletxeak plazaratu obraz ahalik eta modurik txukunenean zerbait esaten saiatu garelarik.

Hona bada nire komentarioa:

34 urte eta ura bere bidean

Arratsaldeon denoi. Buenas tardes a todos.

Niretzat plazer handi bat da hemen lagun-zaharren artean berriro aurkitzea liburu bat delarik aitzakia. Francisco Rubiok duela denboratxo bat bere nobelako zenbait pasartetan euskara zuzentzeko aholku eske idatzi zidanean, sentsazio estrainio bat sentitu nuen, poza eta kezka. Jakingo ote nuen galdera haiei behar bezala erantzuten? Erraza zen euskarazko esaldi batzuk zuzentzea, baina bazen amodioz eta sinpatiaz idatzitako nobelatxo haren barnean beste zerbait sakonagorik. Elkarrekin oroitzapenetan murgiltzeko gonbita. *Izpirituaren zaindaria da Memoria.* Oroitzapen zehazgabez eraturiko prisma irregularra, haren islak forma desitxuratu, anbiguo eta aldakorrak izaten direlarik. Baina bertan eleberrigi-

learen luma zorrotza eta lupa ezartzen direnean argitasun eta klaritate berriz ikus daitezke zoko haiek.

Jon Lauko. *Donostia* (1977). Eta pseudonimo honen atzean Caminrealen jaio eta Ibañez Martín Institututik Labordetaren irakaskuntzaz baliaturiko Francisco Rubio, matematikako irakaslea, Errenteriako Batxiler Institutuan gure lankidea. John Le Carré, neronek bezala oso maitea duen nobelistaren egun-egungo ixtorioetan maiz murgildua. Eta miresmen horretatik eta *hirurko*-ren analogiaz, *lauko* asmatu digu Pakok. Irakaskuntza eta eleberrigintza bereizi nahiz-edo. *Donostia*, eta zergatik ez? Dublinek, Parisek, New Yorkek, Madrilek, Bartzelonak eta Bilbok beren nobelagileak baldin badituzte, zergatik ez Donostiak? Eta koadro "konpara ezin" honetan (oroitzen naiz Ramon Saizarbitoriaren *Ehun metroz*) boskote bat, pertsonaia nagusiak, alegia: Kepa Gabarain (Errenteriako Institutuan zuzendari izan genuen Maite Gabarainez gogoratuz ote?), Guillermina Anglada kazetari ospetsua, Aintzane, Mikel eta Monsieur Cambremer, ETAn infiltratu nahian dabilena. Hots, Herioren hegak bazterretan.

Javier Pueblak dioenez (Cambio 16), *Donostia es una bala política y policíaca en la que el ambiente es más importante que los personajes e incluso que la acción.*

Thriller antzeko baten aurrean gaude, baina baita ere amodio ezinezkoz eta sexuz jositako harremanez, eta estilo arin eta xalo batez ehundutako mataza baten aurrean. Zehaztasunez eta kariñoz deskribituriko espazioetan eta ekintzetan: Badia, Hotel Londres, Klub Nautikoa, Urepel jatetxea, Hendaiako *Arkatz* Libreria (*Mugalde* Liburu-denda benetazko izenaz), eta beste…

Baina gauza guzti hauez Mikelek hitz egingo dizue, bere begirada zorrotzak lau aldiz irakurri baitu *novella* hauxe. Berak du, bada, hitza.

Ekainak 10.

Alex Bengoetxeak Euskara Patronatutik idazten dit Serafin Barojaren antzerkiei buruz moldatu nuen edizioaz, Alberdaniaren esku utzi eta bazterreratu zutenaz galdetuz; bai eta *Baserritarra* aldizkarian "Gatz-

-Errota"k argitaratu *Kintoak* nobelaz eta nik Etor argitaletxean berrargitaratuari buruzko berriez.

Eman nizkion, bada, eskatzen zizkidan xehetasunak eta noski, onartu nuen lana euskaraz.net Interneteko atarian argitaratu eta interesatu guztien eskuetara irits zedin doan.

Uztailak 5.

Agosti Chahoren jaiotzaren bigarren mendeurrena denez, EIE zerbait egiteko dagoelarik eta ni laguntzeko prest, ohi bezala, beste gutun bat bidali dit Josu Jimenez Maiak omenaldiko xehetasunak emanez (*Gutunak* 34). Baiezkoa eman nion eta lana garaiz iritsiko zitzaiola ere agindu nion, ia buruturik bainuen.

Uztailak 22.

Jean Baptiste Orpustan adiskideak gaur Prousten lanetatik baten itzulpena bidali dit PDF gisa, 3MB pisuduna, zeinak adierazten duen zenbat lan egiteko gai den ortzaiztarra [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 35)]. Aipatzen dit nola iaz afari gozo bat egin genuen elkarrekin (Julio, Karmen, Marga eta neronekin) Arce jatetxean uda partean, Izpegiko kaxkorainoko ibilaldia egin genuelarik goiz partean. Eta siestaren ondoren, piszinan bainatu eta afaltzeko prestatu ginelarik, bururatu baitzitzaidan gonbita egitea arratsalde eder hartan, ez baitaude hain urrun Ortzaize eta Baigorri, solasa musikaz, literaturaz eta eguneroko bizitzaz arin-arin joan zitzaigularik jan-edan bikainen artean. Hona nola itzuli duen Prousten lana: *Aro galduaren bila I. Zuanen etxe aldean*.

Abuztuak 14.

Juan Mari Arrizabalaga, Kontxa Alvarez adiskidearen koinataren senar alargunduak, Villafranca de Navarra, Alesbeseko fraidekume-garaiak oroituz, teatro taldean 1959ko Gabonetan Aita Maurorekin parte hartu genuenon fotografia eder bat igorri dit, galdetuz ea ezagutzen edo oroitzen ditudan [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 36)]. Bai, noski. Eskertu diot Juan Mari Arrizabalagari, oroituz zein mutiko alaia eta sinpatikoa zen, eta era berean jarraitzen duela, noski. Nola

neure burua ikusten dudan zutik, serio, eskuinera Trokonizen aldean, Zabaleta, Sainz (donostiarra, gu baino zaharxeagoa zena, eta beste). *Hi lehen ilaran ezkerretik hasi eta hirugarrena haiz ezta? Eta besteen izenak oroitzen baldin badituk bidaliko dizkidak?,* ihardesten diot erantzun--mezuan.

Abuztuak 24.

Ramonek galdetzen dit ea nola esango nukeen *Quien tuvo retuvo*, eta Mikel Arregirekin kontsultatu ondoren, honako zerrenda bidaltzen diot: *Oindio eusten dio; Oraindik badik grinik; Oraindik gordetzen dik kemena; Zuenak mantentzen dik; Ez du galdu indarrik / kemenik / grinarik / adorerik / kuraiarik; Zezakeenak badezake; Ahal zuenak badezake; Zukeenak baduke; Bazeukanak badaukake; Bazeukanak gaztaroan gordetzen du zahartzaroan; Bazuen eta eutsi egin dio. Izaki, eutsi eta atxiki.* Eta beste…

Gero euskara pobrea dela esango ditek… Ongi bizi, Ramon.

Irailak 5.

Katalina Eleizegiren euskal antzerkigintzaren lana aztertu du Amaia Alvarez ikerlariak Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztu berri duen doktore-tesian, Marijose Olaziregiren zuzendaritzapean: *Generoa eta nazio identitateak Katalina Eleizegiren antzezlanetan.* Alvarezen tesiak Eleizegiren «memoria berreskuratzeko eta lana ezagutarazteko» helburua du, berak azaldu duenez. Ikerlanak arreta berezia eskaini dio, beraz, Katalina Eleizegik Katalina Erausoren bizitzan oinarrituta idatzi zuen *Erauso Kateriñe* drama historiko oraindik argitaratu gabeari. Antzezlan horren edizioa ere irakur daiteke tesian.

Katalina Eleizegi Maiz (Donostia, 1889-Lizarra, 1963) «egitura klasikoan» oinarritzen zen antzerki-lanak idazteko, ohiko hiru ataletan bereizita, eta «drama historikoa» baliatzen zuen orobat genero gisa. Baina, Alvarezek azaldu duenez, jorratzen zituen gaiei zegokienez ez zen batere tradizionala: gaurkotasuna zuten edukiak aukeratzen zituen, eta, pertsonaien bitartez, ekarpen handia egin zion euskal emakumearen irudiari. «Bere garaiko emakume idazleek ere irudikatzen zituzten emakumezko pertsonaiak eta protagonistak, baina batez ere amaren roletik, kultura

transmisioari lotuta, eta kristau on gisa, jakina», azaldu du Alvarezek. «Eleizegirenak ere kristau onak ziren, baina ez amak bakarrik. Bestelako irudi batzuk agertzen dira: emakume gazteak, adimen autonomoa eta erabakitzeko ahalmena dutenak, beren desirak edo nahiak betetzeko inolako arazorik ez dutenak…».

Nire txostenaren zatitxoak emango ditut hemen. Lehenik agurra ematen diet epaimahai-buruari, kideei, doktoregaiari, zuzendariari eta beste denei, adieraziz ohorea dela epaimahaian egotea, beti asko ikasten delako unibertsitate-bizitzako ekitaldi garrantzitsuenetarikoa den honetan. Zuzendariari eta doktoregaiari egin lanagatik zorionak eman ondoren, *baina* madarikatuarekin hasten naiz. Editatzekotan hobetze-asmoz egindako oharrak.

> […] Txit interesgarria deritzot gure literatur kritika eta hizkuntza aberasteko egin saiakera honi, baina batzuetan zalantzak ditut, zaila ere baita ahalegina, ez ote dituen kalkoak gordinegi eman: *agentzia* (ekintza*), dekonstrukzioa* (deseraiketa), *dispositifa* (tresna), *perennialista* (iraunkorzalea), *primordialista* (oinarrizkozalea), *subalterno* (agindupeko), … eta beste; halere, *falogozentrismoa*, edota *gynokritika* bezalakoak besterik ezean, mantenduko nituzkeelarik… Mailegu multzo honek, arrotz egiten du tesiaren irakurketa, zailxeagotuz, baina, tira, ohitu beharko dugu horrelako hizkeretara ere.
>
> Dena den, lehen eta bigarren partearen artean desoreka zenbait aurkitzen dut. Eta literatura konparatuari dagokionez, ondoren aipatuko ditudan hutsune nabarmenak. Katalina Erauso, Eleizegik bere antzerkirako hautatu pertsonaia mintzagai hartzen badugu, adibidez, azpimarratu behar dut tesian komentario benetan interesgarriak egiten direla kritika feministaren bidetik… Baina gizon moduan jantzitako anderearen inguruan irakurgai gehiago badela idatzirik laster ikus dezakegu-eta aski jorratua izan dela gaia.
>
> Lehenik, fenomenoa ez zen batere arraroa ez eguneroko bizitzan, ez teatroan. Hor daukagu, esate baterako, fraide dominiko batek XVI. mendean idatzitako *Floreto de anécdotas y noticias dispersas* (*Memorial Histórico español*, Madrid 1948, 106) non Ube-

dako *Doña Juliana de los Cobos*-i buruz mintzatzen den, hura ere soldadu ospetsua egin baitzen Italian enperadorearen kanpainetan, eta bere ekintzengatik erretirorako urtean hamabi mila marabediko soldata lortu baitzuen bizi zeno.

Famatua zen Virgiliok bere Eneidan sortu *Camila* amazona, gero Giovanni Boccacciok *De claribus mulieribus* liburu ospetsuan jasoko zuena. Gizon moduan jantzitako andereez, orobat, Bibbiena kardinalak idatzi eta errepresentatu *Calandria* (1513) antzerkiak izango du jarraitzailerik italiar eta espainiar errenazimentuko teatroan, izpiritu komikoa eta irrigarria zabalduz. Eta Lope de Vega-k bere *Arte nuevo de hacer comedias en este tiempo* (1609), garaiko Teatro Poetikatzat jo dezakegunean honakoa dio: *Las damas no desdigan de su nombre / y, si mudaren traje, sea de modo / que pueda perdonarse, porque suele / el disfraz varonil agradar mucho* [280-284 vv.]. Antzerti-errekurtso hau, Daniel Nisak eta Rosario Morenok dioskuenez (*"La mujer disfrazada de hombre en el teatro de Shakespeare y Lope de Vega: articulación e implicaciones de un recurso dramático"*, *Neophilologus* 86, 537-555, 2002), europar tradizio teatralaren elementurik zaharrenetarikoa da.

El Fénix de los Ingenios deitu zutenaren jarraitzaile izan zen Juan Pérez de Montalbán, letretan lizentziatua, teologian doktorea, eta Inkisizioko Tribunalean Notario apostolikoa izan zenak *La monja Alférez* antzerkia idatzi zuen, 1626an argitaratua, hots, Madrilen *Historia de la Monja Alférez*. Honek dakigunez edizio ugari izan zituen, batez ere XIX. mendean Bartzelonan, eta Euskal Herrian XX. mendean (1918, 1934, 1959, 1970, 1979…). *Pragmáticas Reales*… deritzaienetan maiz debekatzen baziren ere horrelako komediak, hain baitzeuden zabalduak; Lopek adibidez 25 obretan darabil errekurtsoa, eta Calderonek eta Tirsok eta beste askok ere bai, zeren debekuen kontra ere bizirik iraun zuten.

Pertsonaia, alegia, Donostian 1592an jaiotako Katalina Erauso beste teatrogile zenbaiten inspirazio-iturri ere izan zen. Esate baterako, Juan A. Mateos (1831-1913) autore mexikar prolifikoaren *La monja alférez: drama en cuatro actos y en verso* (1880) antzerkiarena eta Domingo Miras (Campo de Criptana, Ciudad Real, 1934) teatro-gizonaren *La Monja Alferez* (1986) obrarena ere.

Mereziko zukeen aipamenik Abrantèseko dukesak, Agosti Chahoren adiskideak, Parisen frantsesez egin Katalina Erausoren biografiaren moldaketak ere (*La Peninsule. Tableau pittoresque de L'Espagne et du Portugal*, Paris, 1836, 5-34).

Eta teatroaz eta andereez mintzo garelarik, ezin utzi aipatu gabe Hroswitha (935-973 ing.) mojaren antzerkiak, zeinetan emakumeen nortasunaren ezagutza benetan sakona agertzen duen. Hauen artean *Maria eta Abraham*, XVIII. mendean euskaratua, eta non fartsa xaribarikoetan bezala ez den falta ez putetxerik, ez putarik, Katalinak arruntki zerabiltzan hitzak erabiliz. (P. Urkizu, *Teatro popular vasco. Manuscritos inéditos del siglo XVIII. Estudio y edición.* UNED, Madrid, 2007, 237-285).

Neska soldaduaz ari garelarik, zergatik ez aipatu Judith eta Esther Bibliako heroinak, edota Jeana Arc-ekoa Frantziakoa, eta XVIII. mendean ukan zituen euskal moldaketak? Edota Gandiaga eta Biguriren lanak Agustina Antonia zeritzanaz euskal baladan eta europar folklorean 0231 bezala katalogatua denaz? Tesian egiten den Euskal Teatroaren Historia osatuagoa litzateke, noski, batik bat nire azken lanak (2009, 2010…) behatu izan balitu, eta historialariek euskara sakonki ezagutu gabe diotena baliagarri izan daiteke erdal testuei dagokienez, baina ez du behar adinako zehaztasunik euskal literaturari buruz, esango nuke.

Eva Mendietaren tesia Katalina Erauso eta nazio- eta sexu--identitateaz ez dago argitaratu gabe, KMn kontsulta baitaiteke… Eta faltan aurkitu ditut Abbadie anderea, Abrantèseko dukesa, Arozena Eugenio, Azpiazu Mikel, Biguri Karlos, Bravo Villasante Carmen (*La mujer vestida de hombre en el teatro español (siglos XVI-XVII),* SGE, 1986), Estornes Bernardo, Gandiaga Bitoriano, Ibisate Maria Luisa, Legarda Anselmo (*Lo vizcaino en la literatura castellana*, BRSVAP, 1953), Thomas de Quincey eta beste zenbaiten aipamenak.

> [*Ahanzten ditut, irakurlea ez nekatzearren, fonetika, morfosintaxiazko detaileak, eta hiztegikoak, onomastika aipatzen dut bakarrik hemen.]*

Onomastikari dagokionez protagonisten izenek merezi zuten iruzkinik. Eta Katalina Eleizegik ezarri bazuen **Notzu banaketa** horixe errespetatu behar da, pertsonaiak oin-oharrean ipini behar direlarik. *Katxala* [< Katxalin < Kattalin < Katalin(a)], Katalinak dituen hainbat aldaeraren artean hipokoristiko originala, atzerunzko asimilazioaz, grezierazko, *káthareios,* 'garbi'-tik dator. *Endo* Jose Elizondo tolosarrak 1911an Segurako euskal-jaietan *Euskalerriaren alde*-k egin zuen batzaldian irakurkizunen artean titulu eta ipuin honekin lehen irabazleak 1912an *Larrosa ta Lauziri* irakurkizunarekin irabazi zuen Zarauzko euskal-jaietako norgehiagoka. Beraz, hitz ez arrunten zale genuen. *Metze*, azteka neskatxa, zeinen gertuena hauen hizkuntzan *Metztli* 'ilargia' litzatekeen. Eta *Tolma*, azteka buru, Tochtli, untxia delarik.…

Eta azkenik, oro har, formaz bi hitz soilik. Arreta pixka bat gehiagoxe eskatuko nioke argitaratzerakoan, lehen kontaketaren errepasoan errata eta akats aski ageri baitzaizkit…

Irailak 26.

Gaur astelehena da. Larunbat goizean *Le Havre* goizeko bederatzietan ikusi dugu Donostiako Nazioarteko Zinemaldian, eta hainbeste jende ikusita, batek baino gehiagok pentsa dezake, beste egunetan ere Kursaala berdin bete dela kontuan hartuta, hemen nor arraiok lan egiten duen. Aki Kaurismäki finlandiar zuzendariaren filma benetan hunkigarria, pobreen elkartasunari kanta eder bat baita. Ikusi ondoren, eta portuetako bizitza komentatuz, *Atari*n txakolina eta atun-pintxo bat piper batzuekin eta ogiarekin jan dugu gustura, eta Arantxa, Marta eta Marga *La Viña*ra gonbidatu ditut bazkaltzera, nire urtebetetzea elkarrekin oraindik ospatu gabe baikeneukan, tapa beltzdun koaderno ttipi hau Arantxak oparitu didalarik, nire xumekeriak bertan zirriborra ditzadan.

Urriak 4.

Igor Uranga, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako komunikazio-arduradunak Abbadia jauregian egingo den Xabier Zabaltzak burutu Agosti Chahoren biografiaren aurkezpenerako gonbidapena pasatu baitzidan, hementxe nago entzuten Blanka Urge-

llen frantses berezian, eta ekitaldiaren ondoren Anton Abbadiaren biografia frantsesez Edurne Alegriak moldatua eskaintzen diot, eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza izan arren, *Atlantica*n argitaratzeko, nire sosak kostatu zaidan ezin hobea den itzultzaileari duinki ordaintzearren. Urgellek irribarre oso adeitsu batez jaso dit.

Urriak 13.

Aspalditik ezaguna dudan *Eresbil* Musikaren Euskal-Artxiboko zuzendari eta musikologo aparta den Jon Baguesek idazten dit Pablo Sorozabalek burutu *Urtzi-Jaun* operaren libretoaz mintzatuz, nola Pio Barojaren irakurgai batean oinarritu zen obra musikatu eta borobiltzeko [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 37)].

Egia esan, ez dakit zergatik bidali didan Baguesek informazio hori, aspaldi ez baitut berarekin inolako harremanik izan. Agur eta agur bakarrik. Baina bai, pentsatuko zuen agian Serafin Barojaz interesatu naizenez eta haren *Elkano* operaren libretoa plazaratu dudanez, semearen *Jaun de Alzate* nobelaz egindakoa ere interesatuko litzaidakeela. Ez dago gaizki, dena den, jakitea, izan dela operagilerik Pioren obra ere kontuan hartu duenik.

Urriak 20.

Joxeagus Arrieta idazle eta euskaltzale sutsuarekin noizean behin Donostiako kaleetan barrena topo egiten dudanean, huntaz eta hartaz komentatzen gelditzen gara. Behin kexu ageri izan baitzen ez ziotela laguntzarik eman Marcel Prousten bigarren tomoaren itzulpenarekin hasteko. Aipatu nion, beste zenbait gauzaren artean, badela Ortzaizeko herrixkan, mahastegi edo minategi artean gizon bat, Jean Baptiste Orpustan, bera ere Marcel Prousten itzulpenarekin lanean dabilena, eta burutuak dituela lapurtera-nafarrera aski garbizale batean tomo batzuen itzulpena eta nabarmen dela, berak dioen bezala, Oihenart eta Axularen idazkerari jarraikitzen diola. Eta PDFa bidali diot. Ondorioz esaten dit zeinen aldrebesak garen gure literatur ekoizpena antolatzen.

> Zertarako jardun dut nik, bada, bi urte eta erdiz, egunero bizpahiru orduz, lanean jo-eta-su? Gutxi gara, lana alimalekoa, eta gainera, zera, ahaleginak bikoizten ari! Gainbegiratu bat eman

diot Orpustanen bertsio honi; ez dut, noski, osorik irakurtzeko betarik izan. Baina han-hemenka irakurri ditudan pasarteak ederrak iruditu zaizkit, ederrak! Nik banuen beste tomoei ere ekiteko asmoa. Bigarrenaren izenburua buruan jirabiraka zebilzkidan aspalditxotik: *"Neskatila loratuen gerizpean"*… Baina ez dut uste ezer egingo dudanik. Batez ere, azkeneko Euskadi Sarian nire lanak inolako aipamenik jaso ez duelako (finalista ere ez dute hautatu); suposatzen dut, beraz, itzulpen kaskarra dela, edo Proust bati zor zaion mailakoa ez behintzat. Ea Jan Battite animatzen den: *bejoandeiola*, eta zorionak, benetan! Lapurtera-nafarrera puruan? Ba, zergatik ez? Agian aditz-formak "batuerakotuz"? Agian…

Erantzun nion ez dagoela dudarik gaurko euskal irakurlearentzat, adibidez *Berria* irakurtzen dugunontzat bere itzulpena dela mila aldiz irakurgarriago, errazena, beraz, hoberena. Eta Euskadi Saria osatzen duen epaimahaiari buruz zer esan. Barkaezina dela ahanztura, besterik ez. Dena den, sariak pizgarri eta kemen berria emateko lagungarri izan arren, ez dudala uste ez berak ez neuk *"vanitas"* eta ohore horrengatik jarraitzen dugunik euskara lantzen, baizik eta barne eta goi arnasak bultzaturik, euskaldunek merezi dutelako obra ederrik itzultzea, eta horretan ahalegintzen garela. Axularren kexu hari gehiagok kasu egin izan balio, agian beste maila batean geundekeela, baina halere gaur egunean egiten denarekin ezin gaitezkeela sobera kexa pentsatzen dudala. Dena den, *jarrai eta ekin*, batzuek bederen eskertuko geniola-eta. Honen erantzuna gaur jaso dut eta Joxeagusen luma ederrak idatzitakoa ezin bada utzi hona ekarri gabe, beraz, hor daukazu, irakurle, gozagarri [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 38)].

Urriak 26.

Iñaki Aldekoak, *Erein* argitaletxeko arduradunetarikoak, Agosti Chaho atharraztarraz burutu dudan liburuaz, besteak beste, gaurko gutunean [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 31)] esaten dit argitaratzeari ezezkoa ematea erabaki dutela. Beraz, nik pentsatu arren akademikoa baino areago zabalkunderako egina dela, ilustrazioak direla barne, beste zerbaitetan pentsatzen joan beharko dudala, dio, argi eta garbi.

Donostiako ospitalean nago berriro. Arratsaldea da eta goizean zuhaitzen itzalak mendebalderantz jotzen bazuten, orain ekialderantz begiratzen dute. Bosgarren solairu honetako 515 gelan nago bakarrik. Laurak eta hogei dira eta begien aurrean Adarra mendia daukat eta urrunxeago Mikelen herrira doazen muino tontorrak eta bideak, hau da, Aresorantz, eta Nafarroan sartzen diren mendixkak. Oraintxe bertan sartu da gelan erizain bat meriendarekin. Hiru galleta eta kafesnea. Esku artean daukadan irakurgaia, Josep Maria de Sagarra idazle katalanaren (1894-1961) *Memorias*, Anagrama argitaletxeak *Narrativas Hispánicas* bilduman plazaratua eta Fernando Gutiérrez delako batek itzulia. Ez dira batere laburrak memoria hauek, 894 orrialde betetzen baititu lehen tomoak, eta 1954ko irailaren 17an bukatzen baitu, beraz, 60 urterekin. Bere arbasoen gorabeherek betetzen dute lehen parte gehiena; gero haurtzaroa eta eskola garaia datoz. Familia onekoa zenez, Bartzelonako eta herriko ondareen artean banatzen du bere bizitza… Baina gehien interesatu zaidan aroa Bartzelonako Unibertsitatean eman zituen urteak izan da. Zuzenbidea ikasten eta bere lehen poemaren sorkuntza eta nola Lore Jokoetan saritua izan zen kontatzen dituen pasadizoak. Madrileko esperientzia *Cuerpo Diplomático*an bertan igaro zituen bi urteetan, ezagunagoa egiten zait, neronek ezagutzen baitut oraingo Ateneoa, Josepek hain ongi ezagutzen zuena.

Cambó politikoarekin eta beste hainbesterekin izan zituen harremanak. Madrileko gauak, bohemia deitu izan den horretan, baina bere adiskideen harremanek betetzen dituzte orrialde gehienak; garaiko pertsonaien deskripzioak: Juan Ramón Jiménez, Pedro Salinas… Bai, halaber, Bartzelonan teatroan eman zituen lehen urratsek eta porrotek, halere, antzerkiak idazten jarraitzeari utzi ez ziotenek, hogeitik gora eskribitu baitzituen.

Baina argi dezadan zergatik nagoen ospitalean. Herenegun goizean, azaroak 29, bederatziak inguruan gosaltzen ari nintzen Margarekin, egunkarien bila (*Berria* eta *El País*) kalera atera ondoren eta, beraz, besapean ogi estu bat ere ekarri ondoren. Irakurtzen ari nintzelarik halako pisu astun bat, besteetan ezarri zaidana baino astunagoa sentitu dut bularrean. Petxuko mina, itolarria bezala sentitu nuen. Jaiki nintzen, saiatu nintzen arnasa mantso eta sakon hartzen, airea botatzen, baina

oinazeak berean segitzen zuen, eta Margak esan zidan anbulatoriora joan behar genuela. Han ordu erdi bat bederen egon ginen gure txanda itxaroten, eta oinazea gero eta handiagotzen zihoakidan. Azkenean, medikuarengana igaro ginenean, esan zidan, *habrá que hacer un electrocardiograma*, eta nik erantzun nion, *supongo*, eta berak, *supongo, no, ya.* Eta horrela beste bi erizainekin hasi zitzaizkidan gobernatzen. Etzanarazi ninduten, eta makinen menpe ezarri. Hasieran tentsioak 19 / 13 markatzen zuen, sekulan izan ez dudana, baina berehala harrarazi zizkidaten pastillekin hobera jo nuen eta tentsioa 13 / 7ra jaitsi zidaten. Dena den, anbulantziari deitu eta hona ekarri ninduten, ospitalera. Infernuan lau ordu igaro ondoren, hots, itxaron gelan inguruetako garrasi eta kexu artean, ingresatu egin behar nindutela erabaki zuten. Aldamenenean zegoen beltz bat malariarekin, eta berehala aldendu zuten, edo eraman suertatuko zitzaion gelara. Nire ezkerrean bi moja zeuden, zaharrena Oñatikoa eta gazteago zena Azkoitikoa. Ez zeukan pazientzia handirik zaharrak, baina esan nionean zenbat denbora neraman itxoiten, konformatu behar izan zuen.

Atzo ez zen etorri bisitan Marga gaixoa, bera ere ondoezik baitzegoen, baina kimikari esker, gaur hobeto dago eta etorri zait goizean prentsarekin. Mikel eta Marikrutx etorri zitzaizkidan atzo, eta Mikelekin berriketan izan nintzen Xala vs Barriola pilota partidua ikusten genuen bitartean.

Gaur, bazkaldu aurretik medikuak etorri dira bisitan, nire historiala osoa badaukate eta Onkologikoan froga batzuk egin behar dizkidatela esan didate. Galdetu diot erizainari ea banuen frogak egin arte kanpora ateratzea, eta ezezkoa eman dit. Hau bai dela komedia! Bihar santu guztien eguna, *imuru sainduru* nonbait diotenez, eta nik hemen beste bi gau pasatu behar…

Azaroak 1.

Gaur santu guztien eguna eta bihar arimenena. Kanposantura, hilerrira joateko egunak. Hilei loreak eta otoitz bat eskaintzeko eguna. Aspaldi da ez naizela gurasoen eta anaien hilobia bisitatzera joan, eta gaur ere ez, hementxe bainago Menditxo Magiko honetan bosgarren solairuan irten ezinik. Gaur goizetik Urtzi eta Marga agertu zaizkit ohi bezala egunkariekin, *El otro proceso de Kafka* irakurtzen ari naiz. Alema-

netik Michael Faber-Kaiser eta Mario Muchnikek itzulia, eta Muchnik Editores, Barcelona 1976an argitaratua. Benetan interesgarriak Elías Canettiren komentarioak. Barazki-zopa eta izokin puska gatzbakoa bazkaldu dut. Eguzkiak jotzen du une honetan gelan, eta pertsiana jaistera noa. Hortzak garbitu ahalik eta ondoen, eta ohera lo kuluxka egitera Canettiren idazkia esku artean.

Azaroak 2.

Gaua gaizki igaro dut, edo zuzenago esateko, ez nau loak ia hartu. Ez nuen pastillarik hartu eta horren ondorioa izango da. Horrela bada, esnaturik bainintzen, Canettirena bukatu dut, irakurketa hain bainuen gustukoa. Feliceri Kafkak eginiko gutunen azterketa eta berauen bitartez Kafkaren barne-munduaren azterketa zehatza, zorrotza eta benetan argigarria egiten du Canettik. Kafkak ezkontzarako eta emakumeekiko harreman ezinezkoak, porrotak argi eta garbi adierazten du, azkenean tuberkolisiak jota, petxuko minak beste mundura eramaten duen arte. Baina liburuko pasarterik bitxiena iruditu zait Kafka eta Txinari eskainitakoa. Alegia, txinatarren ohiturei buruzkoa, eta nola enperadoreak ere guztiz zoraturik zebiltzan kilkerren arteko borrokekin, nola elikatzen zituzten beren odol propioarekin, nola prestatzen zituzten borrokarako eta nolako lilura zuten animalia ttipienganako, zeinetan aurki daitekeen Kafkaren *Metamorfosia, Itxuraldaketa*ren giltzetarik bat.

Benetan mereziko luke euskarara itzultzeak. Haizeak bortizki jo du gauean, arrosaren kolorez jantzi da goiz-alba, goiz-izarra desagertu eta laino gris arinak hedatu zeruan. Hego haizearen sasoi honetan hegaztiak badoaz arin-arin iparraldetik hegorantz eta ehiztariek beren eskopetak probatu dituzte mendi gailurretan tiroen hots zaratak entzun ditudalarik. Baina ez ditut batere gogoko, aukeran nahiago isiltasuna edo zuhaitzen arteko elkarrizketak, murmurioak. Ohean nago eta leihora inguratzen naizenean, hemendik ikusten ditut Adarra, Onddi eta Urdaburuko kaskoak. Ezin esan ez dela ikuspegi ederra, baina begirada beheititzen badut, hor daude erien gelak eta jendearen joan-etorriak, txindurriak bailiran.

Atzo arratsaldean Ramon Saizarbitoria adiskidea etorri zitzaidan bisitan, hala nola Urtzi eta Margarita. Solasa ETAren gainean izan dugu, eta ea betiko bortizkeria eta tiroak, giza erahilketak utziko dituen, eta

egin duen etenaren iragarkia benetakoa izango den. Ramonen ustez aro berri baten aurrean gaude, eta ezin da esan gure gizarte honetan bi talde soilik direla, askoz ere joera eta jaidura gehiago baitago, eta honetan arrazoi osoa dauka. Inkestetan ageri diren sailak, espainolak bakarrik sentitzen direnak, euskaldunak bakarrik sentitzen direnak, euskaldunak sentitzen direnak eta euskara dakitenak, ez dakitenak, eskuin aldekoak, ezkerrekoak, zentrokoak, peperoak, psoezaleak, hatxeberoak, jeltzaleak… haizea nora urratsa hara dabiltzanak… Koldok idatzi berri duen nobela pasatu diola, eta euskara benetan diztiranta darabilela, batez ere itsasoko gaiak aipatzen dituenerako. Nobelaren haria San Pedroko *Ondartxo* ontzitegi parean goardia zibilak ezkutatuta egon ondoren, gaztelupean Donibanen komando autonomoen kontra burutu zuten sarraskia. Salaketa baten ondorioz izan zela bagenekien, eta antikapien kontrako ekintza hiltzailea.

Segituan gertaeraz oroitu naiz, Ramonek ez zuen oroitzen, baina badirudi bere iritziz ez duela nobelak gauza askorik kontatzen, gertaldia bere euskararen menderatzea eta erabilera ederra frogatzeko aitzakiatzat hartu izan balu bezala. Berak, aldiz, ez duelako horrelako gaitasunik gauzak kontatzeko… Baina esan diot ez nengoela konforme ikuspegi horrekin, zeren eta Ramon, kontalari aparta izateaz gain, estilista handia baita, batez ere. Koldo, bestalde, beti gelditzen da bere kontakizunean kamuts, eta euskara landu, zaildu eta diztiranta eduki arren, jende arruntarentzat, eta ez hain arruntarentzat, egunero *Berria* irakurtzen duenarentzat adibidez, zail xamarra gertatzen baita, batzuetan hainbeste gorrotatzen zuen beste Koldo hura (Mitxelena errenteriarra, ez oiartzuarra) imitatu nahiko balu bezala. Iñigo Aranberrirekin, Koldoren eskolakoa hau ere, berdintsu gertatzen da. Lezon prestatu irakurketa-taldeko zenbait irakurle xume eta saiatuei horixe gertatzen baitzaie. Hala aitortu didate, bederen.

Haizearen ziztua ez da isildu eta bere hots beldurgarriarekin jarraitzen du; halako batean, leihoaren kantoi batetik kaio zurixka bat igaro da haize boladen konpasean. Ehiztariek jarraikitzen diote behatzari lana emanez. Erizainak goizeko pastillak ekarri dizkit. Behatzen diot ene ohean etzateko moduari eta honelaxe ikusten dut neure burua, koadernotxo hau belaun gainean daukadala eta bizkarra bi almoaden kontra ohe artikulatu honekin zertxobait altxatua. Eroso nago eta pozik, zeren

eta bistaurrean dauzkadan hainbeste maitatzen ditudan gure gailurrak. Osasun-puntuari erreparatuz gero, ongi aurkitzen naizela esan beharko, gerriak ez dit minik eragiten, buruak ere ez, soilik ezkerreko belarrian betiko burrunba, orain aski ttipitua. Beraz, ikusi beharko dugu gaur zer esaten didaten medikuek. Ea Onkologikoan baden unetxoren bat niretzat, eta egin behar ditudan probak burutzen ditudan ongi; bestela, luze egingo zait ospitaleko egonaldi hau, bartekoa laugarren gaua izan denez etxetik kanpo.

Dostoievskiren ipuin bat irakurri berri dut eta beti bezala txunditurik utzi nau, noraino ezagutzen duen errusiar arima. Koplari baten bertsoekin hasten da, garai hartan hain zabalduak izan ziren kriminalen balada batekin eta gero nola santoi batengana iristen den erromes. Bitartean kontatzen digu zein ezberdin diren alemaniarra eta errusiarra, garbi gelditzen dena batez ere bien mozkorraldietan. Alemaniar hordia kantari eta fanfarroi huts agertzen den bezala, errusiar mozkorra apal eta negarti ageri dela. Honen irudirik maitatuena Kristo dela, eta ekintza gaiztoetara jo aurretik zenbaterainoko kezkak, zalantzak eta tormentuak pairatzen dituen gaizkileak bere barrenean, nola honen ganbaran sufrimendu anitzen ondoren erabaki lazgarrienak hartzera iristen den, norbait hiltzera, adibidez. Zer gertatu da gure herrian heriotza hainbesteraino banalizatzeko, ezdeuskeriatzat kontsideratua izateko? Edota alemaniarren espiritutik gehiago daukagu? Euskaltzale hark naziei esaten zien bezala, *zuek arioak bazarete gu protoarioak gaituzu?*

Azaroak 3.

Goizeko zortziak eta bost. Leihoko pertsiana altxatu dut eta atzoko eguraldi berdintsua. Zerua urdinago, baina hodeiez jantzia, hauetariko ttipi klar batzuk badoaz polliki ekialderantz eta beste ilunago batzuk ageri dira *Onddi* atzean, Nafarroa aldera. Gaueko haize bolada bortitzak, *furiakanak,* baretu dira eta dena baketsu ageri zaigu. Oraindik ez dut entzun ehiztarien tirorik. Erizainak igaro dira eta nola orain Lorenzo, Donostian bizi den nire gelakidea, ni baino urte batzuk zaharxeago dena eta karkaxekin borrokan dabilena arnasa ezin harturik, bada, kasu guztia harentzat. Dutxatu naiz eta, ea egin behar dizkidaten probak gaur burutzen dituzten. Bat arratsaldeko seietan egingo didatela Onkologikoan, diote. Eta bestea? Hemen bertan egingo didatela, baina ez

jakin noiz. Pazientzia pixka bat beharko, beraz. Malen bilobak egindako margoak badu modernitate punttu bat. Urdina, gorria, berdea eta horia darabiltza. Somatzen dira forma batzuk sortu nahiz edo zerbait adierazi nahian. Hasi dira jadanik ehiztariak tiroka. Uso-jatea ospitaletik ateratzen naizenerako utzi beharko…

Azaroak 4.

Bapo. Primeran loak hartu nau gaur pastilla loarazlea irentsi ondoan. Bostak inguruan esnatu, eta jaiki naiz pixa egitera komunera, eta berriro lotara. Zortziak laurden gutxi dira, eta Lorenzori, bronquitis gaitzak harrapaturik baitu, oxigenoa ezarri diote hauspoa garbitzearren. Atzo egin zizkidaten bihotzeko bi probak, eta nik uste bikain gainditu nituela, edo zehazki esateko, lehenean Tolosako mediku euskaldunak esplikatu zidan bihotzaren funtzionamendua erabat normala neukala, bentrikuloak eta zainen odola nola hedatzen zen ongi, eta alde horretatik inolako arriskurik ez daukadala. Bigarrena honela izan zen: arratsaldeko bostetatik zortzi eta erdietara, hau da, hiru ordu eta erdi pasatu genituen bi probatxo egiteko. Lehenbizi aulki mugikorretan eseri, gero anbulantzia beheko solairuan itxaron. Hemen sartu gintuzten hiru eri: 81 urteko emakume bat, 67 urteko Antonio izenekoa eta neroni. Antoniok, oso berritsua baita, bere bizitza kontatu dit. Asturiarra da sortzez, meatzeak diren herri batekoa. Bederatzi seme-alaba ditu eta denak ezkonduak. Bere andrearen itxura, emakume pobre batena da, etxe barruko zapatilak oinetan eta sukaldeko mantala jantzita dauzka. Itxuragatik ijitoak dirudite. Aldamenean dituzten semeek ere bai. Garaiak, sendoak eta tripa-zorro handikoak. Antoniok 30 urte darama Euskal Herrian bizitzen, Trintxerpe aldean. Eta ia egunero joaten omen da San Pedroko faro aldera arrantzara. Seme batzuk Asturiasen, besteak Katalunian, eta azkenak hemen. Birraitona ere bada eta bere sendia 27 senidek osatzen dute. Familiaren apologista da, noski, eta bera patriarka. Gizon azkarra, hitz-jario etengabekoa duena, eta duela sei urte egin zioten bizikletako beste proba. Amorratuta zegoen hainbeste denbora itxaron beharraz, eta kexu zen erizain-laguntzaile gutxi zegoelako… Dioenez, bere jakituria eta bizi esperientzia handiaz badaki presa ez dela kontseilari ona, eta gauzak presaka egitearen ondorioz gaizki ateratzen direla. Horregatik berak lasai-lasai hartzen duela egunero esandako Faroko bidea eta gehien gustatzen zaiona horixe dela, arrantza. Gero, ez omen du arrainik ia jaten, baina arran-

tzale ona dela, erlak, salmoneteak, doradak, txipiroiak noizean behin, … Agurtzean, honakoa esan dit: *a ver si nos vemos en una boda.*

Azaroak 16.

Berriro Ospitalean. Urteetan zehar ez banintzen egon hemendik zehar, badaramatzat bi urte maiz bisitatzen dudala. Oraingoan TAC--1ean X izpiak ezarri behar dizkidate barrenak nola doazen ezagutzeko, nola nagoen jakiteko, eta 22an izango dudala emaitza, Garrido doktoreak erabakiko duelarik puntzadura egin behar didaten ala ez.

Azaroak 22.

Jendez mukuru dagoen aretoan liburu bat irakurriz itxaron ondoren, iritsi zait txanda eta sartu naiz Garrido doktorearekin hitz egitera. Eskua eman diot agurtzeko, egin ohi dudan eran, eta lehengo galdera izan da, *cómo se siente señor Urkizu*, eta nik betikoa erantzun diot, oraindik oinazeak eta molestiak hor daudela, eta berak esango duela zeren ondorio diren. Ihardetsi dit, ekipoak ikertu duela daukadana eta erabaki duela berean uztea, besterik gabe. Beraz, pentsatzen ari naiz oinaze honekin bizitzen ikasten jakin beharko dudala. Zahartzaroaren ajeak, noski.

Abenduak 16.

Ohi bezala, LIB taldekoek egun pasa egin dugu Baionako Euskaltzaindiko egoitzan eta Beñat Oihartzabalek bere hitzaldia eman ondoren, nik nire powerpointa erakutsi dut, eta irudiekin batera Agosti Chahoren bizitzaren eta obraren zertzelada nagusiak argituz joan naiz; honako tituluarekin agertu da *Euskera* errebistan: *Agosti Chahoren obraz eta bere eraginaz*.

Beraz, *Erein* editorialak argitaratu nahi izan ez duenez lana, liburua bi artikulu nagusitan banatzea erabaki dut, testu hautatuen eranskinik gabe. Bata *Euskera*n, beraz, eta bestea *Hegats 48*an, beste honako titulupean agertu dena: *Agosti Chaho euskal erromantikoa Parisen*. Eta funtsezkoena esanda gelditu delakoan nago, zenbait xehetasun eta bitxikeria falta diren arren oraindik. Hona adibidez nola hasten dudan *Hegats*en argitaratu artikulua, bere benetako gazte irudiaz, zein ez den kontsideratzen ohi dena, *le Navarrais* akuarelakoa, hau Anton Abbadia denez:

Lehenik bi hitz artikuluaren atariko irudiaz. *Voyage en Navarre*… (1836) delako Agosti Chahoren liburuan ageri den *Navarrais* azpitituluzko akuarela bere iruditzat hartua izan den eta guk ere zenbait liburutan erabili izan ohi dugun arren, ez da Chaho, Anton Abbadia baizik, hark honi gutun batean esaten dionez: … *celui de votre portrait […]. Il me faut une jolie aquarelle qui vous montrera vêtu du costume national, la tête nue… Je me propose déjà de vous placer vis-à-vis de notre grand Zumala* (1836-III-30).

Halaber, badakigu, Chaho berak aitortuta, pipazalea zela eta Fermin Arkotxaren ohar bati esker, behin Café Lepelettier-en pipatzen ari zela, Pariseko Operatik ez oso urrun, Gavarnik marrazki bat egin ziola, eta hori 1850. urte ingurukoak diren bi erretratuekin eta Baionako kanposantuko hilobian dagoen Roland eskultoreak eginiko marmolezko irudiarekin konparatuz gero, ez dago dudarik azalean ezarri duguna Agosti Chaho dela gaztetan, 25 urte inguru zituenean.

Euskal Idazleen Elkarteak, noski, ez du inolako arazorik izan ilustratzeko artikulua zenbait irudirekin, dela pertsonaiarenak, Chaho, Gavarni, Eliçabide, dela *Lélo* nobelaren portadarekin.

Euskera aldizkarian ere berdin gertatu da, hemen bere obrez hitz egiteaz aparte bere eraginaz eta Aitor leiendaren nondik norakoaz, hauxe diot zuzenki:

Honen zabalkundean kontsidera dezakegu bi nafar izan zirela garrantzizko. Alde batetik Francisco Navarro Villoslada (Viana, 1818-1895), zeinarekin desterruan zela Gasteizen izan zezakeen harremanik, hau baitzen Arabako gobernadorearen idazkari, eta honen Amaya o los vascos en el siglo VIII *(1877), non garbi dagoen ezagutzen zuela hark idatzitako* Aitor. *Eta bestetik Arturo Kanpion (Iruñea, 1854-Donostia, 1937) eta honen itzulpena «Aitor, leyenda cántabra».*

Abenduak 24.

Bartzelonarako bidean goaz Marga eta biok aurtengo Urte Zaharra Pobleteko fraideekin igarotzeko asmoa dugunez. Tuteran autobusak matxura izan duela-eta, ordu eta erdi beranduago iritsi gara, Bilbotik ze-

torren ordezkoaren zain egon garelako. Josep eta Karmenen etxebizitzan gauzak utzi, eta kalera zangoak pixka bat luzatzera, eta sabeleko hotsak pittin bat isiltzera. Bi entsalada eta beste zerbait ardo zuri katalanarekin aski izan da tenple onean geratzeko. Lezoko Eguberrietako abestiez, adiskideez, etxekoez eta Marikrutxenean egin ohi dugun afariaz oroitu naiz.

Abenduak 25.

Jaiki eta kalera, *al carrer*. Eta hemen gabiltza batetik bestera gelditu gabe hiri eder eta paregabe honetaz gozatuz. Bornen *Kafka* kafetegian bazkaldu dugu. Bakailaoa eta beste. Xume eta ona benetan.

Abenduak 26.

Gaur Francesc adiskide on, ikerle handi eta katalanista amorratuarekin eta honen bi lagunekin bazkaldu dugu. Berriketa luzea izan da cavaren laguntzarekin ideiak eta mingaina arin-arin aritu baitzaizkigu. Gero hiri eder honetan ibili eta ibili, etxe, egoitza, jauregi eta jendeaz gozatuz.

Abenduak 27.

Goizean, portuan barrena ibilitakoan, eta Santa Maria del Mar-eko katedralaren itzala eta handitasuna begiztatutakoan, *Carrer d'En Gignàs*en dagoen *Agut* jatetxean bazkaltzea erabaki dugu. Egoitza benetan ederra da, xarmanta eta beroa. Koadro ederrak ditu hormetan eta okupatzen dugun mahaia oso ongi kokatua. Fideuà, kapoia eta krema katalana eskatzen dugu, eta Priorateko ardoarekin bapo atera gara. Etxe aldera bagoaz lokuluxka eginez atseden hartzera.

Abenduak 28.

Ohi bezala, oinez bagoaz *Montjuic*erantz. Pauso lasai, etengabez azkenean gaztelura iritsi gara. Egun zoragarria daukagu eta bistak paregabeak. Hiriaren osotasuna eta itsasoa begiztatzen ahal ditugu. Teleferikoz jaitsi gara *Poble Sec*era eta *La Belle Napolitaine*n bazkaldu, pizza eta zerbeza banaz. Gero *Museu Nacional d'Art de Catalunya* (MNAC) bisitatu dugu eta Pirinioko arte erromanikoa, eliza ttipietako pinturak eta eskulturak, ekialdeko eragina duten ikusgarriak. Halaber, Robert Capparen *La Maleta Mexicana*ko fotografia multzoa, originalak, gerrako lekukotasunak benetan hunkigarriak. Bertan Federico García Lorca,

Dolores Ibárruri *La Pasionaria*, Rafael Alberti, André Malraux edota Ernest Hemingwayen argazki gutti ezagunak, hala nola Teruel, Segre, Brunete, Kataluniako eta Madrileko erresistentziakoak ikus daitezke, eta gizon-andere ausart eta odolbero haien kemena miretsi….

Abenduak 29.

Afaria Mari Karmen Navarro Errenteriako Institutuan egin nuen adiskide onarekin. Jatetxe japoniar fin batean afaltzeko ginen, baina ia lekurik ez dagoenez, halamoduzko beste bat aurkitu beharrean egon gara. Beti bezain atsegina Karmen, bere bi semeez, Suedian dagoen Alexez eta Bartzelonan gelditu Unaiz eta haien haurrez mintzatu zaigu. Amonatxo ximur pollita bilakaturik zaigu. Gero taxia hartu dugu eta Graham Greeneren *Hirugarren gizona* irakurtzera etxera.

Abenduak 30.

Beribila alokatu dugu Gran Vían eta bagoaz autopistaz Tarragona aldera Penedesen barrena. *Torredembarra* eta *Altafulla* seinalatzen duen iragarkian atera gara. Torredembarrako plazan den enotekan ardo beltz bi botila on erosi ditugu, eta Francescek alokaturik daukan etxera joan gara. Hau bai dela edertasuna. Mediterraneoa berrogeita hamar metrora. Geroxeago iritsi dira teatro munduko beste bi lagun. Beth Escudé, Logroñon jaioa, baina Katalunian hogeita hamabost urte daramana bizitzen eta Valentzian irakasle dagoen Alejandro Montiel. Bainatu da Francesc larru-hutsik hondartzako ixkin berean, duela bi mila urte erromatarrak bainatzen omen ziren lekuan, eta bazkaltzera goaz elkarrekin. Sukaldari ona da Francesc, eta solasgai bikaina izan dugu. Terrazara igo naiz Pako Gutiérrez Carbajorekin hitz egiteko eta eskatzen dizkidan XXI. mendeko antzerkigileen izenak emateko. Beth Escudé eta Aizpea Goenaga. Harremanetan ezarri ditut eta denak gustura. [*Dramaturgas del siglo XXI*, Cátedra 2014, liburuan agertuko direnak].

Hemendik bagoaz polliki hain urrun ez dagoen Pobletera, eta maletak hotelean utzi ondoren, bagoaz arratsaldeko sei eta erdietako bezperak entzutera. Hogeita lau fraide kantari. Ez da hau Siloskoen modu gregorianoa, baizik eta beste era guztiz ezberdina, finagoa, agian finegia… Urte Zahar eguna ere hemen igaro dugu. Inguruetako herriak bisitatuz, eta gero eta baketsuago, ederrago, ikusgarriago sentitzen di-

tugu paraje hauek. Ez naiz batere harritzen Josep Plak *El Escorial* baino askoz gehiago maitatzea mendez mende tradizioak eraikitako monasterioa. Berriro bezperak. Teatro-funtzioa dirudi, hasieran ez zen inor ikusten, dena baitzegoen itzalean bezala. Gero, polliki, fraideen irudiak iluntasunean markatuz joan dira ahotsekin batera, eta gaur komentuan kantatzen genuen *Salve* miresgarri hura abestu dugu.

Afaria hotelean, primerakoa. Giro alaia eta atsegina. *Cava* edontzia. Deia etxekoei. Agurtu ditut Marikrutx, Joxeba, Urtzi eta beste gainerakoak. Urrun izan arren, halako komunikazio, sentimendu beroa nabari dut ahotsak aditzean. Urteberri on bat opatu diet.



Irudia 82: Orreagako Artxiboko 455. pergaminoaren argazkiko detailea. Abadías, Fajo 07, 16, 1511, Título de la rectoría de Çaro y San Miguel el Viejo. Pergamino 455.

2012

Urtarrilak 7.

GAUR gosaltzen ari ginelarik egunkaria errepasatzerakoan, ohartu gara badela fotografia bat Donostiako kaikoa, non itsastxakur bat ageri den *Bateliko* izeneko gure ontzian etzanda. Bitxia da, alajaina, hainbeste batel, txintxorro, belari, txipironera, yate eta bestelako itsasontzien artean gurea hautatu izana. Bagoaz, bada, lasai gosaldu ondoren, argazki batzuk ateratzera. Ontzira iristen garenerako, hantxe daude bere jantzi dotoreekin itsas salbamendukoak, atsedenaren ondoren itsastxakurra berriro itsasora dadin lortuko dutenak.

Urtarrilak 18.

Nire adiskide ona den Ramon Saizarbitoriari ongi merezitako hiritar merituaren domina eman dio Donostiako hiriak, eta gonbita pasa didanez, eta orobat bere solasa, zeinaren hitzak publikoki esan diren, euskarazkoak bakarrik dakartzat hona benetako txalo zaparrada eder bat jaso dutelako.

> […] Hitz batzuk esan behar nituenez euskal idazle zaharren oroimena ekarri nahi nuen goratzarre egiteko gure memorian kale izenak baino gehiago izan daitezen. *(Vivo en Manterola con mi cuñada la coja*).
>
> Zori txarrez Jose Luis Alvarez Enparantzaren heriotza gogora ekarri beharra dut. Asko esan da egunotan Txillardegiri buruz; ez da aski azpimarratu bere eskuzabaltasunik. Nire doluminak Jone Forcadari eta sendi osoari.

Hemen gaztelaniaz Serafin Baroja, San Sebastian martxaren letraren egile eta Pio Barojaren aita gogoratu du, bai halaber, Indalezio Bizkarrondo Bilintx, biak liberalak eta artista handiak.

> XIXgarren mendeko eta XXgarrenaren hasierako euskal idazle donostiarren zerrenda luzea ekarri nahi nuen gogora; beste inon

> ez baita hain luzea izan. […] Aditzera eman nahi nuen donostiarroi esker neurri handi batean, egin da euskara kaletar. […] Baina handik eta hemendik, euskal idazlea naizenez, azken hogeita hamar urteetan jasan dugun indarkeria politikoaren kontakizunaz zerbait esatea zegokidala adierazi didate. Hain zuzen ETAk bere "jarduera armatua behin betiko amaitzea" erabaki ondoren, areagotu egin dira euskal literaturaren aurkako kritikak, ulerberago izan delako indarkeriarekin biktimekin errukior baino. […] Anitzak dira euskal letrak baina badakit ez naizela indarkeria jasan dutenengandik behar bezain gertu egon ez izanaz damu den bakarra. […] Ez da zuzena baina ulertzen dugu horrela gertatu izana. Mundu guztiak du hemen zauriren bat erakusteko; nork ez du hartu min; nork ez du negar egiteko motiborik izan. […] Konbentzituta nago euskal literaturak gertatu zaigunaren kontaketa zintzoa egingo duela. Zuriak eta beltzak eta Flaubert maisuak nahi zituen grisak ere salatuko dituena. Sufrimendu guztiaz eta koldarkeria guztiaz mintzatuko da. […] Hori zen guztia. Amaitzeko utzi iezadazue jai giroan ere euskal presoen eskubideak errespeta daitezen eta Euskal Herriko espetxeetara ekar ditzaten aldarrikatzen duen hiritar gehiengoari batzen banatzaio. Eskerrik asko eta astindu danborra.

Ez Alkatea ez eta Ahaldun Nagusia ez dira, noski, nabarmendu txalo egiterakoan, eta gizatasunaren ikuspuntutik, hala nola elkartasunarenetik eta gizalegetik egindako hitz horiek merezi zuten harrera beroagoa haien partetik. Irteerakoan, PSOEko Denis Itxaso inguratu zaio eta jende artean ahopez esan dio eginiko kondenak, salaketak eta eskaerak kontuan hartuz gero, bidaide izan daitezkeela.

Otsailak 6.

LIBeko taldekoak lanean ari garenez *Erdi Arotik Errenazimentura* deituko den liburua testu hautatuekin, haien aurkezpen eta iruzkinekin gutuntxoa bidali dit Iñaki Aldekoak, honako PDFarekin batera: *"Bernard Etxepare: «Doctrina Christiana» y poesía amatoria"* ASJU 2009, argitaratzear (hurrengo alean). Bertan garbi ageri denez, Bernat ez zen izan Erasmoren jarraitzaile, Aurelia Arkotxak dioen eran, Bergsonista baino. Aspalditxotik ASJU berantiar dabilela…

Otsailak 17.

Lyonel Joly, Euskaltzainditik Mikel Zalbidek zuzentzen duen *Euskararen Historia Sozialar*en idazkari gisa prestatu dizkiodan bertsoei buruzko materialez mintzatzen zait [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 40)]. Aspalditxo ez nuela berririk jaso nire lanez eta poztekoak dira neurri batean, bederen. Egiten dizkidan galderak argitzen saiatzen natzaio eta esperoan gelditzen naiz, ekonomia garai hobeek Euskaltzaindiaren argitarapen hau bidera ahal dezaten.

Otsailak 19.

Koldo Izagirrek galdetu zidan ea parte hartuko nuen, eta baiezkoa eman nionez gero, honako gonbita egin zidan: Victoria Eugenia Kluba.

Igandez, 12:00ak. Ana Urkiza, Harkaitz Cano, Joxe Austin Arrieta, Ramon Agirre, Ibon Sarasola, Jokin Ansorena, Patri Urkizu, Beñat Sarasola, Koldo Izagirre, Arantxa Urretabizkaia *"bakarrik nago zerubiden"* Txillardegiren irakurraldi bat, Rafa Egiguren, Fito Rodriguez, Joan Mari Irigoien, Juan Luis Zabala, Ramon Saizarbitoria, Ibai Iztueta, Dorleta Urretabizkaia, Iban Zaldua, Mariasun Landa. Gero, hautatu testua irakurtzeko bidali eta gaur ahalik eta modurik txukunenean irakurtzen saiatu gara denok, Koldo zuzendari.

Otsailak 23.

Mikel Arregi, adiskide aresoar onarekin batera Orreagara txangoa egitea erabaki dut. Negua da, eta mendien gailurrak elurrez jantzita ikusi ditugu. Solas atsegin eta umoretsuan iragan dugu bidea. Bezperatik hitz egina nintzen Orreagako artxibozain den Emilio Linzoainekin eta bertako agiri bat aztertzeko asmotan nenbilen. Gilberte Reicher Euskal Herriaz eta Bernat Etxeparez arduratu irakasleak honakoa zioen duela mende erdi pasatxo, alegia, Orreaga zitekeela ikerketa gune gure lehen idazlearen bizitzaz urratsak aurkitzekotan, zeren Eiheralarreko erretore zelarik, Orreagako priorearen agintepean baitzegoen hura, agian dokumenturik ager zitekeela bertan, baina inoiz ez zirela sakonki katalogatu bertako paper eta pergaminoak. Egoera hau, ordea, konpondurik urte zenbait geroago Fermín Miranda García & Eloísa Ramírez Vaquero jaun-andreen lanari esker, *Archivo de la Real Colegiata de Roncesvalles* (1997) liburuaz, ohartu nintzen bertan honelaxe dagoela katalogatuta

agiri bat: *Abadías, Fajo 07, 16, 1511, Título de la rectoría de Çaro y San Miguel el Viejo*. *Pergamino 455*. Eskatu nion pergaminoa Don Emiliori, eta hantxe mahai xume baten gainean erakutsi zidan eskatutakoa.

Hasten naiz irakurtzen, latinez dago idatzia eskuizkribua, eta, 1511ko agiria denez, ez zait hain erraza ulertzen, baina halere saiatzen naiz eta hara non nire sorpresarik handiena jasotzen dudan: **Bertrandus***, miseratione divina episcopus baionensis, dilecto nostro domino* **Bernardo Dechepare** *presbitero, diocesis nostre oriundo, salutem in domino sempiternam…* Laburki esanda, 1511ko ekainaren 12an sinatu gutunean, Bertrand de Lehet, Baionako apezpikuak Zaro eta Eiheralarre herrixketako erretore izendatzen duela Bernardo Dechepare presbiteroa. Berehala nire argazki makinaz egin nituen fotografia batzuk, gero transkripzioa eta ikerketa etxean lasaiago egitearren. Eskertu nuen Don Emilioren eskuzabaltasuna, inolako eragozpenik ezarri ez zidanez, eta agindu nion burutzen nuen ikerketatxoa bidaliko niola. Mikelekin bozkarioz beterik Luzaiden bazkaldu genuen eta gero Donibane Garazitik barrena itzuli ginen etxera.

Martxoak 1.

Batik bat Julio de Urquijok Axularri buruz egin agirien transkripzioetan oinarrituriko formulak konparatuz, eta latinezko hiztegiari hamaika kontsulta egin ondoren, lortu dut irakurtzea, eta atera zitzaidan lehen transkripzioa eta euskarazko itzulpena Mikeli pasatu diot gaur. Ea zuzentzen didan.

Martxoak 3.

Anton Abbadiaz euskaraz neuk burutu eta Edurne Alegriak itzuli biografia bere bidea egiten ari da polliki-polliki eta, halaxe, Hendaiako udaletxetik gonbita bidali didate. Frantsesez idatzi *Hendaia Euskaraz* programarekin batera prentsa-ohar hau ere bai euskaraz: Martxoaren 3an (larunbata), *Hendaia Euskaraz*ek egun bat antolatzen du Anton Abbadiaren inguruan, Patri Urkizu gomitatuz: idazle horrek Antton Abbadiaren euskarazko biografia argitaratu zuen 2002an, eta horren frantseserako itzulpena Edurne Alegriak egin zuen eta *Atlantica* argitaletxeak plazaratu. Programan, izenpetze-saioak, gazteluaren bisita eta topaketa Patri Urkizurekin! Hamaiketatik hamabi eta erdietara *Librairie Berriketa*n izango dugularik sinadura-unea.

Etxeratutakoan, Mikel Hernandez Abaituaren partetik ikasleekin Iparraldean egindako bisita literarioaz mintzatzen zait (*Gutunak* 41). Lerro hauetan nabaritzen denez, Mikel oso irakasle ona, saiatua eta modernoa da, ikasleekiko dituen harremanak ezin hobeak, eta benetan txango politak eta hezitzaileak antolatzen ditu, *ikusi eta ikasi.* Eskertu diot gonbita, baina ezezkoa eman diot, kontatu diodalarik Bernat Etxepareren bizitzari eta obrari buruzko ikerketan nabilela, Eiheralarreko apaiza izateaz gainera Zarokoa ere izan zela. Joxean Oizek *Beñat Dardo* Susak 2006an argitaratu nobelan aski ongi asmatu bazuen giroa sortzea, beste gauza bat da agirien zehaztasuna eta hauei darien egiatasunaz moldatzea benetako historia.

Apirilak 4.

*El Diario Vasco*n Felix Ibargutxik honela laburbiltzen du Ramonek egindako *Martutene* nobelaren gaia gaztelaniaz, egilearen hitzok jasoz: *Se podría decir que ésta es una novela sobre la culpa*. Erein argitaletxeak eta bereziki Iñaki Aldekoak apustu egin du Ramonen obraren alde. Eta bere baliabide eta bitartekoak, eta asko dira, promozioan, obraren zabalkundean ezartzen ari dira, komunikabide guztietara deituz.

Apirilak 9.

Urtzirekin batera Sarako Liburu Azokan izan gara, bakoitza bere liburuarekin. Hantxe geunden parez pare Urtzi Maiatzen argitaratu *Kezka bat gutxiago* olerki bildumarekin eta ni Edurne Alegriak itzuli didan *Antoine d'Abbadie, Essai d'une biographie*, *1810-1897,* Miarritzeko Atlantica argitaletxeak plazaratuarekin. Arratsaldean kostako bidetik eta Hendaiako hondartza ondoko bidetik poliki-poliki eguneko gertakizunak eta topaketak komentatuz etxeratu gara.

Apirilak 14.

Hasier Etxeberria, EITBko Sautrela programaren zuzendaria, Ramonen eleberriari buruzko lehen iruzkingileetarikoa izan da, beste gauzen artean honakoa dioelarik:

> Luze joko luke Saizarbitoriak erabili dituen gai denak hemen radiografiatzeak, baina pertsonaiez haragoko kontu nagusietako bat ekartzekotan, aipa dezagun indarkeria eta biktimen gai min-

gotsa. Pertsonaien ahotan bere iritziak jarrita, lotsatu egiten da Saizarbitoria ETAk eragindako mina lehenago aitortu ez izanaz. Dioenez, bere gurasoen belaunaldiak gerra galdu zuen baina ez dio inori barkamen eskaerarik zor. Aitzitik, Saizarbitoriaren belaunaldia barkamena eskatu beharrean aurkitzen da, gurasoena ez bezala. Alabaina ez dadila inor engaina, ageri duena ez da ikuspegi sinple eta zentzu bakar horietakoa, aberasgarria eta ñabarduraz jositakoa baita dioena. Errendizioa ez da bidea, alderantziz, zapalketa bidegabearen salaketa eta euskaltasunaren defentsa eta nor izatearen harrotasuna daramatza aldi berean dioen guztiak. Geure etorkizunerako bide etiko zintzo baten proposamen moduko bat formulatzera ausartu da, nolabait.

Apirilak 20.

Iritsi da eguna, alegia, Ramonek Martutene aurkezteko eguna. Ostirala da eta saloia prentsa kazetariz (Joxan Agirre, Felix Ibargutxi, Juan Luis Zabala…), adiskidez eta literatur munduko jendez bete da. Iñaki Aldekoak editore bezala hasten du saioa, gero Markos Zapiainek egiten du bere analisia eta azkenik Ramon mintzo zaigu bederatzi urte luze erditzen kostatu zaion haur berriaz, alegia, *Martutenez*. Eta *Berria* egunkarian honako komentarioa irakurri ahal izan dut:

> Literaturaren itsasgora gaur goizean izan da, Ramon Saizarbitoriaren (Donostia, 1944) *Martutene* eleberriaren aurkezpenarekin. Bederatzi urteren ostean, ukitu melodramatikoa duen liburu mardul batekin itzuli da idazlea. Denbora asko izan liteke, baina taxuzko idazkerari eta berrikusketari behar den adina egun eskaini behar izan dizkio, eta nobela hau ongi landuta dator; "ez da memeloentzat", esan du hark. "Libre" sentitu da idaztean. Idazteko estiloa saldu gabe, Saizarbitoriak aitortu du inoiz baino askeago sentitu dela; urteak betetzearen abantaila omen galtzeko gauza gutxiago izatea. Idazleak adierazi du "fede onez" idatzitako eleberri bat dela Martutene, eta ez dela "batere aspergarria". Errealitateari fikziozko ukitua eransten dio berriz ere idazleak. Funtsean, erruduntasuna eta emakumea dira, idazleak azaldu duenez, nobelaren gai nagusiak. Nobelan istorio asko kontatzen dira, baina joanetorrien gainetik pertsonaiek daukate berezko nortasuna eta indarra, beren harremanekin eta beren afektuekin. Bi kontaketa batzen ditu

bakarrean: Iñaki Abaitua ginekologoak egindakoa kapitulu bakoitietan; Julia itzultzaileak egindakoa bikoitietan. Pertsonaia batzuk, ordea, bi kontaketetan ageri dira; Martin izeneko idazlea eta Lynn izeneko soziologo estatubatuarra, adibidez. Eta beste batzuek atzera begiratzen dute, aurretik ere izan baitziren protagonista. Labur esanda, ezer berritzailerik ekarri barik, baina sekula ezagutu izan ez bagenu bezala. Donostiako hotel batean aurkeztu du liburua Saizarbitoriak, gaur goizean, eta alboan izan ditu literatur munduko lagun ezagun ugari: Mikel Hernandez Abaitua, Joxean Agirre Odriozola, Koldo Izagirre… Azken horrentzako hitz bereziak izan ditu eta eskerrak eman dizkio zuzenketa lanetan laguntzeagatik. Aurkezpenean laguntzaile aipagarri bat izan du ondoan Saizarbitoriak: Markos Zapian idazlea. Honek adierazi du argia dela Martutene liburuko berritasuna, aurreko eleberrietako iluntasunean puntu argiak pizten dituela nobelak. Zapiainen iritziz, erruduntasunaren gaia jeloskortasunaren itzalean gelditzen da; Saizarbitoriak, ordea, aurkako adierazi du. Irakurri egin behar arrazoiak banatzeko.

Apirilak 22.

Berriro idazten dit Mikelek argazki batzuk bidaliz eta esanez etzi, apirilak 24, Ernest Lluch kultur etxean, Iban Zalduak bere biodiskografiak irakurriko dituela eta Xabier Montoiak ipuin horietan agertzen diren abestiak kantatuko. Eta ea animatuko garen Ramon, Iñaki, bera eta neroni entzutera joatera. Baiezkotan gelditzen gara. Bidali dizkidan argazkietarik bat hautatuko nuke bereziki hemen ezarri behar banu, bertan honakook gaudelarik: Ramon predikari eta denak hari begira, baina irribarreak eta esku ezkerrean daraman edontziak kentzen diote sermoilari-itxura. Aurrez aurre: zirkulua osatuz, Gorka Arrese, Koldo Izagirre, Ramon Etxezarreta, eta neroni.

Apirilak 26.

Gaur Patxi Zabaletak *Gara* egunkarian Bernart (sic) Etxepare euskal poetaren bizitzaz artikulu luzea idazten du, eta beste gauza anitzen artean diosku, nola Antonio Manrique de Lara delakoak *ultimatum* bat igortzen dion Baionako apezpikuari Etxepare Garaziko artzipreste izenda dezan. Jose Maria Huartek *Euskalerriaren Alde* errebistan 1926an

plazaratu bi dokumentuetarik lehenean Gonzalo Pizarro kapitainak, Mexiko konkistatu zuenaren aitak, galdetzen dionean tropen mugimenduez hauen berri ematen dio, eta lekukotasun hori *Dechapare* izenez sinatzen du. Huartek aipatzen duen lekukotasun hori ikustera Nafarroako artxibora joan naizen arren, gure izen ezaguneko lehen poetak nola sinatzen zuen jakiteko, besteak beste, ez da bertan aurkitzen. Bere etxean eta agirien artean jaso edo gorde ote zituen Huartek? Bigarren dokumentuari dagokio, noski, Zabaletak dioena, eta ikusten denez izan zituen gorabehera zenbait garaiko apaiz eta agintariekin, bereziki Don Pedro de Mendikoagaren garaian jokoa baimendua zegoelako eta berak debekatuko zuelako. Agiri eta lekukotza hauek Juan de Orbara lizentziatuaren aferetan ageri dira. Eta jakina da, nola Orbarak, Miguel de Jaso eta Juan de Jaso, San Frantzisko Xabierren anaiekin batera, hala nola Juan de Agerre Etxalarkoarekin, Biktor Maulekorekin eta beste zenbait gudarirekin Amaiurren errege legitimoak defenditu zituen, hots, Henri II.a, eta azkenean, gorabehera ugariren ondoren, Urdazubiko priore izatea lortu zuen 1522tik 1550era arte.

Maiatzak 12.

Bernhard Hurch nire adiskide austriar, Grätzeko Unibertsitatean Schuchardt katedradun eta Humboldten *Opera Omnia*ren editoreari idatzi diot eskatuz Gosela Immelt, Darmstadteko Liburutegiko zaindariak alemanez bidali didan gutuna itzul diezadan, eta itzulpenarekin batera erantzuten dit ikusten ari dela lanean ari naizela eta beraz ongi. Nire kontsultaz deus berririk ez, alegia, Van Eysek 1896an berrargitaratu zuela Iruñean 1596an moldiztegiratutako *Refranes y Sentencias…* liburu ospetsua, baina tamalez, originala Darmstadeko liburutegi Gran-ducalean zegoena Bigarren Mundu Gerran erre egin zela. Eta beste erantzun baikorrik ezin zidala eman, eta desiorik hoberenekin agurtzen zen. Bilatzen jarraitu beharko ea beste nonbait gordetzen den aleren bat.

Maiatzak 27.

Igandea. Goizeko bederatzi eta erdietan Donostiatik atera gara Palentziako bidean, Marga gidari, Mikel eta hirurok. Eguerdi aldera Aguilar de Campoora iritsi eta bertan bazkaldu dugu menu xume bat, baina nahikoa. Gero lakuak eta Poteseko bidean diren ermitatxoak bisitatu

ditugu. Cervera del Pisuergako *Hotel Peñalabra*n hartu dugu ostatu. Afaldu eta ibilalditxo bat egin ondoren, ohera.

Maiatzak 28.

Zazpi eta erdietan jaiki gara Curavacasera igotzeko asmotan (2.520 metro). Iritsi gara *Vidrieros* herrixkara eta hementxe aparkatu dugu. Behar bezala jantzi, botak aldatu, motxilan ura, barra energetikoak eta janaritxo batzuk sartu eta bagoaz erreka baten ingurutik gorantza. Belardi eder batera iritsi eta handik gorantz, harri kozkorrez beteriko bidean gabiltza. Harraldea aldapatsua, pikoa da *La Pedrera* deitua. Marga berehala nekatzen hasi da aldapa gogortzen hasi denean eta ez dihoala gorago, dio, eta nik, pixka bat goragoxera iritsi naizenean, eta bidea aski pikoa sentitu dudanean, esan diot Mikeli berak egin dezala gailurra, Margarekin beheko tabernan itxoingo diogula. Lauzpabost ordu ibilitakoan, batez ere bide lauan, sartu gara tabernan otordua egitera, bertako tabernariarekin hitz egiten hasi garelarik. Julio, ingeniari elektronikoa da, baina aspertu zen ikasleez eta paraje eder hauek ikusi zituenean bertan gelditzea erabaki zuen. Gauean, afaldu ondoren, beribilez erreka ondora goaz oreinak ikustera. Foko luzeak ezarritakoan, hantxe ikusi ditugu batzuk ziztu bizian karretera jauzika igarotzen.

Maiatzak 29.

Mikelek Curavacasetik beherakoan kolpe handi xamarra hartu zuen atzo ezker belaunean eta ez dakigu ongi errekuperatuko den, beraz, pomada batez ongi igurtzi eta igurtzi ari zaigu eta pastilla batzuk ere oinazearen kontra hartzen. Baina gogorra da benetan Mikel, eta pasatuko zaio, edo bederen iraungo du kexa handirik atera gabe. Beraz, arratsaldean ibilalditxo bat egin dugu, eta badirudi Mikeli zangoak ongi erantzuten diola, errekuperatzen ari da. Resines herritxoan zerbeza bana edan dugu, tximuen urdaizpaikoa, hots, kakauete batzuk jan ditugu haurrek bezala, eta aitzina.

Maiatzak 30.

Peñalabra kaskoraino igo gara hirurok. Margaritak harri eta zur utzi gaituelarik, bere pauso mantsoan, baina polliki-polliki kaxkoraino igo gara, Mikelek hasieran sasi tartean sartu gaitu eta hamaika ahapaldi entzun behar izan ditu gidari adituak. Gailurretik Kantabriako uren bana-

keta eta lauzpabost herri txiki ikus daitezke han behean. Eguraldi ona denean, Santanderreraino ikusten ahal omen da. Jaitsi eta Cantagudako jatetxean bazkaldu dugu, aldameneko tripa-handi zatarraren hitz-jario lotsagabea entzun behar izan dugularik. Gauean, ohi bezala, oreinak ikustera ibai ertzera.

Maiatzak 31.

Goizeko zazpiak laurden gutxi eta autobus geltokian gaude, Burgoserako autobusa zazpiak eta laurdenetan baitator. Igo da Marga etxerako bidean, joan beharra baitauka, ama gaixo dagoenez. Mikelekin *El Robl*en gosaldu dut bigarrenez, depositua gasolinaz bete eta bagoaz Lago de Lomaserantz. Bidean mendizale amorratu batzuk ikusi ditugu arin-arin zihoazela. Botak jantzi, eta hantxe goaz gorantz polliki-polliki. Hamaikak eta laurdenetarako lakuan gaude eta Mikelek kontatzen dit, nola ibili zen gailur haietatik aurreko batean. Mendi izenentzat daukan memoria harrigarriaz aipatzen dizkit: *Agujas de Cardaño, Tío Celestino, Pico de las tres provincias, Peña Prieta…* Hiru ordu gora eta bi behera. Tabernara iritsitakoan *albariño* botila eskatzen dugu, eta gazpatxoaren ondoren haragi egosia. Behikia aski ona. Albertxikoak ere onak eta kafea. Ohi bezala itzultzen gara siesta ordurako hotelera, eta liburu baten konpainian lo-kuluxka egiten dut. Gero liburutegiko ordenagailuetan Interneten barrena nabigatzen dugu… Hotelean afaldu, etxeko alaba Bertarekin solasean aritu eta hurrengo egunerako kontua eskatzen dugu.

Ekainak 2.

Palentzia hiribururako bidean Fromistako eliza erromanikoa bisitatu dugu. Kapiteletan, harrizko zutabeetako buruxketan, hau bai dela irudien aberatsa. Gai dekoratiboak, hegaztiak, oreinak, basahuntzak, otsoak haurrak jaten, ahateak, gizonak *arrekonkon*, pittilina erakutsiz, Adan eta Eba larru-hutsik sugearen sagarra irentsiz… Palentziara iritsi eta parkingean beribila utzi ondoren, oinezkoentzat diren kaleetatik paseo patxadatsu bat eman dugu plaza nagusiraino. Kiosko batean *El País* erosi eta *Palencia, la Primera Universidad Española* erakusketa ikusi ondoren, lasai-lasai eseri gara egunkaria irakurtzera, eta ordu biak inguratu direnean, *La Encina*, alegia, *Artea* jatetxera joan gara, Mikelek gaur berak gonbidatuko duela, dio. Eta otordua primerakoa izan dugu. Aurretik barazki batzuk

eta ondoren axuria, ardoa *Gavilán* markakoa, ona benetan. Mutil gazte talde euskalduna ere aldamenean bazkaltzera eseri da, eta nabarmena da gaztediak ere badakiela bere burua zaintzen, eta harmonia mantentzen. Jesus Prieto, UNEDeko errektoreorde ohi eta *Bellas Artes*etako zuzendariarekin pare bat hitz ere egin ditugu, hantxe baitzegoen donostiar emakume pollit batekin mokadu bat hartzen. Ramoni buruz galdetu dit eta nik ditudan albisteak kontatu ondoren, esan dit saiatuko dela, ahal izanez gero, hizkuntza ezberdinetako narratzaileen topaketak berriro antolatzen. Beraz, bagoaz polliki-polliki mendian bost egun ibili eta arte pixka bat ikusita etxerantz, gure Donostia ederrerantz.

Ekainak 6-7-8.

Karmen, *Indio*, Kontxa, Marga eta bostok bagoaz bi gau pasatzera Pirinioetara, *Refuge Wallon* deritzanera, hain zuzen. Cauteretsen gelditu ondoren, zangoak luzatu eta *Pont d'Espagne*ko parkingean bagoaz polliki-polliki gorantz, eta ordu pare batean, andreak oso mantso baitoaz, iristen gara babeslekura. 1.865 metrotan gaude eta parajea zoragarria da, eta hantxe errekan ikusten ditugu mendigoizale batzuk menditik jaitsitakoan larru-hutsik bainatzen. Aroa ezin hobea da. Itzuliño bat egin eta afaldu ondoren, denak komunitatean, gure gelara goaz Marga eta biok, bestean hiru egon beharko dutelarik, beraz, ez hain eroso. Zerbait irakurri eta seko lo gelditzen gara. Bigarren egunean bost orduko ibilaldia egiten dugu. Gorantz hasieran eta nahiko astiro, dorpe xamar dabilen Kontxari errekak igarotzean lagundu beharrean aurkitzen gara. Denak gaude umore onean, Indioa izan ezik. Hurrengo egunean, goiz, Karmenek eta Indiok alde egiten dute, eta Kontxa gelditzen da gure beribilean itzultzeko. 2.151 metrotara dagoen *Refuge des Oulettes de Gaube*ra igotzen gara, bertan bazkaltzen dugularik lakuari begira, ikuspegia ezin xarmantagoa dela. Benetan egun zoragarriak dira eta berriro itzultzeko gogoz gelditu gara.

Jan Battit Orpustanek beti bezain adiskidetsu gutun bat bidali dit [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 42)], non 1511ko Bernat Etxepareren bizitzaz nire aurkikuntza aipatzeaz at, bere atari miresgarria gomendatzen didan: www.tipirena.net.

Dena den, ez dakit kasu handirik egiten dioten Euskal Herrian Madrilen argitaratzen ditudan artikuluei. Esate baterako, aurten argitaratu

eta digitalizatuko den UNEDeko *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca* aldizkarian albiste gehiago ematen ditut Bernat Etxepareren bizitza-garaiaz, hala nola *Linguae Vasconum Primitiae* lehen euskal liburu inprimatuaren berrirakurketaz.

Uztailak 17.

Serafin Baroja dela-eta, Euskal Idazleen Elkartetik honako gutuna bidali didate, hitzaldi bat proposatuz:

> Kaixo, Patri.
>
> Euskal Idazleen Elkartetik idazten dizut proposamen bat egiteko, Serafin Barojaren inguruan, hain zuzen ere. Zer eta nolaz azaltzen saiatuko naiz labur-labur. EIEk eta Donostiako Udalak hitzarmena sinatu dute aurten besteak beste *Literaktum* jaialdian parte hartzeko, egile ikastaroak emateko eta literatura ibilbideak antolatzeko. Azken horretan kokatzen dugu zuri egin beharreko proposamena: literatura ibilbideetan. Lehena, Kattalin Elizegiri buruz egin genuen eta hurrengoa Serafin Baroja izatea gustatuko litzaiguke.
>
> Alde batetik hori eta bestetik, Konstituzio Plazako liburutegiko aretoaren inguruko kezka (sotoa edo kripta esaten zaion hori). Areto horrek izenik ez duela eta agian Serafinen izena jartzea pentsatu du Liburutegi Nagusiko buru den Arantxa Artzamendik (harekin ari gara elkarlanean).
>
> Beno, bi egitasmo horiek elkartu eta azaroa edo abendurako honakoa nahiko genuke antolatu: hitzaldi edo nolabaiteko aurkezpen bat eta literatura-ibilbide bat, biak Serafin Baroja izpide. Bataren eta bestearen edukia lantzeko zeu zara egokiena eta horrexegatik mezua.
>
> Proposamen zehatza honakoa litzateke: hitzaldia zeuk egitea. Hitzaldi edo nolabaiteko aurkezpena.
>
> Eta ibilbidearen edukia lantzea (puntuak, pasadizoak, datuak…), eta horren gainean beste norbaitek gidatzea taldea. Konstituzio plazan kokatu nahiko genuke jarduera hori. Horrela, Sotoan egin hitzaldia edo dena delakoa eta bertan hasi edo amaitu ibilbidea.

Ikusten duzunez ez dago erabakia egitaraua, baina argi duguna da zure partaidetza behar eta nahi dugula. Tira, zeuk esan zer deritzozun, gure aldetik esan gogoz eta ilusioz nahi dugula prestatu guztia. Zuk esan lasai asko beraz, baiezkoa ala ezezkoa eta lehena balitz joango gara guztia zehazten.

Bata edo bestea izan erantzuna, ondo izan eta laster arte.

Noski, ohi bezala, ezin uko egin honelako eskaera bati, eta proposamenari baiezkoa eman diot, hau da, erantzun diet prest nagoela Serafinez hitzaldi bat emateko.

Irailak 17.

Mungiatik jasotzen dut oraingoan gutuna [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 43)]. Zehazki udaletxeko kultur zuzendariarengandik, eta Abbadia Jauregian dagoen afixen erakusketa dela eta, herriko Lore Jokoen karietara baliatu ahal izateko irudiak, nonbait aski laketu baitzitzaion Idoiari. Deitu ere egin dit eta nire izena eman baitio Celine Davadanek, afixen erantzule-edo gisara. Bat gatoz, beraz, inolako arazorik gabe, Anton Abbadiaren ospea eta izena zabaltzearren egin litezkeen erakusketak ontzat jotzen baititugu Célinek eta biok, eta urriaren 24rako geratzen gara, erakusketaren aurkezpena egun horretan egiteko.

Urriak 10.

Ramon, Mikel, Iñaki eta neronek elkarrekin egin ohi izan ditugun afari edo otorduetan maiz gertatu izan zaigu Jon Juaristiz, bere obraz eta deklarazio epatanteez hitz egitea. Hala bada, *La caza salvaje* (Planeta, 2007) Azorin saria irabazi izan duenaz suertatu zaigu oraingoan eta duela aste bat idazten nion Ramoni, ea irakurria zuen Interneten Martín de Arrizubieta Larrinagaz (Mundaka, 1909 - Kordoba, 1988) *cordobapedia*k zioena. Benetan interesgarria pertsonaia eta Mikelek esan zuenez, eta Ramonek pertsonalki ezagutu izan zuenez, berari zegokiola pertsonaia horretan sakontzea, zeren eta Juaristiren nobelan, eleberria eskasa izateaz aparte, egiantzetik urruntzen baita eta aipatu pertsonaia errealez mintzatzerakoan (Piarres Lafitteren kasuan, adibidez) hauen iraingarri gertatzen baitzaizkio burutzen ohi zituzten solasak eta ekintzak…

Arrizubietak Gerra Zibila gudari gisa hasi, erreketeek preso eginik, haien kapillau izatera iritsi zen. 1938an Frantziara erbesteratuta, Par-

tidu Komunistan eta Legio Frantsesean apuntatu eta II. Mundu Gerran alemanen kontzentrazio-zelaietan egon izan zen. Handik libratu eta Berlinen plazaratzen zen *Enlace* errebista nazizalearen zuzendari izan zen 1944-45. urteetan.

Bertan idatzi zuen aleman gudarosteak Espainian sartu behar zuela eta Franco jeneralaren gobernua deuseztatu, eta benetako erregimen nazionalsozialista bat aldarrikatu, hala nola Euskadiren askatasuna eta hemen beste erregimen paretsua eraiki. Gerra-kontseilu batean heriotzara kondenatu zuen Francok, baina indultua lortutakoan Kordobara desterratu zuten betiko. 70 urte inguruan Gabriel Aresti eta Lur taldekoekin, hala nola Alfonso Sastre eta Eva Forestekin harremanetan aritu zen. 1983an jubilatutakoan Euskadira itzuli zen, baina bertan leku egokirik aurkitu ez zuenez Kordobara bueltatu zen eta han hil zen 1988an, hogeita hamar urtez Santa Marina Elizako bikario izan eta gero.

Urriak 23.

Ekhiñe Egiguren donostiar idazle gazteak idatzi dit esanez nola ari den *Nekatoenea* etxean hilabetea igarotzen, Euskal Kultur Erakundea, EIE eta Hendaiako udalarekin batera antolatzen dituzten egonaldietan eta nahi badut bere blogean bidenabar sortu gogoetak irakur ditzadan.

> Kaixo Patri,
>
> Ekhiñe Egiguren naiz, donostiarra. EIE, EKE eta IAZEk hautatuta, Hendaiako Abbadia eremuan hilabeteko egonaldia egiten ari naiz (2012ko urrian), nire egitasmoa Anton Abbadiaren lore-jokoetatik eta egonaldiaren egunerokotik abiatuta poesia bilduma bat idaztea da. Anton Abbadia eta lekuaren historia ezagutzeko zure liburua irakurri berri dut *"Anton Abbadia 1810-1897"* biografia eta esan nahi nizun, benetan izugarri gozatu dudala liburua irakurtzen. Asko gustatu zait eta oso lagungarria izan da niretzat. Gainera, liburuaren irakurketak, gaztelua eta inguruak hobeto ulertzeko aukera eman didate. Besterik gabe, eskerrak ematea da mezu honen helburua.
>
> Eta bide batez, interesa baduzu edo nahi izanez gero irakur ditzazun, nire egunerokoaren zatiak blog batean erakusten ari naiz, hemen helbidea. Milesker berriz ere.
>
> Ekhiñe Egiguren

Benetan pozten da bat pentsatuz zerbaitetarako balio duela idazten duenak, eta hautatu nuen ikerketa-gaia ez zela izan batere desegokia, aproposa baizik.

Urriak 24.

Lore Jokoen Erakusketa Mungiako Udaletxeko Erakustaretoan dela-eta erabaki genuenaren arabera, banoa beribilez ia ezezaguna egiten zaidan herri horretara hitzalditxo bat ematera. Iritsitakoan jada ilun dago. Ikusten dut programa eta irakurtzen babesleak Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, *Jakiunde* eta *Lauaxeta 2012*, *Euskal Pizkunde* erakundeak direla. Aurkezpena Izaskun Uriagereka alkateak egiten du eta hitzaldia neronek arratsaldeko zazpietan. Polliki antolatua dago erakusketa; ezagutzen ditut Idoia Ortiz de Zarate liburuzaina eta kultur zuzendaria dena, eta ekitaldia bukatutakoan, baita Agus Pérez *Berria*ko teatro-kritikaria ere; Urtzi nire semea ezagutzen omen du; eta buelta Gipuzkoara. Liburu batzuk oparitu dizkidate bitartekari lanen eta hitzaldiaren ordainez, baina gasolina eta autopistako peajea ordaintzeko sos bat ere ez.

Urriak 25.

Literatura Dramática saileko Sari Nazionalean epaimahaiko izatea suertatu baitzait berriro, eta tituluak aurkezteko eskatu didatenez, besterik ezean, honakoak proposatu dizkiot Kultur Ministerioko idazkari lanetan dabilen Aliziari: Angélica Liddell: *El matrimonio Palavrakis. Once upon a time in West Asphixia. O hijos mirando al infierno. Histerica Passio. Lesiones incompatibles con la vida*. Artezblai. Bilbo, 2011. Eta Itziar Pascual: *Hijas del viento y otras piezas breves.* Artezblai. Bilbo, 2011. Halaber eskatu diot nire partetik beste titulu hautatuak lehenbailehen igor diezazkidan, ez baita asti askorik gelditzen irakurketarako.

Urriak 31.

Aspaldiko lagun zaharrari, Xabier Olarrari eta Arantzazu Royori meritu osoz itzulpenaren Euskadi saria eman dietenez, Alaa Al Aswani egiptoar idazlearen *Jakobian eraikina* nobelaren itzulpenagatik (*Igela*, 2011) zorionak opa dizkiet adiskidetasunez. Eta epaimahaikideen iritziz hauexek izan dira sariaren arrazoiak:

> «hizkuntza kalitate ona» erakusten du Royo eta Olarraren lanak. «Hizkera aberats eta joria nabari daiteke testuan. Ederki josi dute itzultzaileek euskaraz pertsonaia ezberdinei buruzko zatitxoz osaturiko puzzlea». Horrez gain, Egiptoko kultura «gurera gerturatzeko ahalegina» egin dute itzultzaileek. «Azpimarratzekoa da jatorrizko testua arabieratik euskarara zuzenean ekartzearen meritua. Itzultzaileek duintasunez gainditu dituzte arabieratik euskarara itzultzeko zailtasunak. Orobat, jatorrizkoan agertzen diren pertsona eta toki izenak euskarara egokitzeko egindako ahalegina ere nabarmendu nahi du epaimahaiak».

Nabarmen denez, ez da batere lan erraza izaten edozein hizkuntzatatik euskarara duintasunez eta txukun itzultzea, baina areago eta zer esanik ez jatorrizkoa arabiera denean, noski. Biba zuek, beraz, hain behartsua den gure kultur esparrura beste nobela interesgarri bat ekartzeagatik.

Azaroak 5.

Hamar antzerki irakurri behar izan ditugu *literatura dramática* saileko sari nazionalerako. Ansónek, agure nazkagarriak, hitza eta pitza besterik ez du egin. Apo lirdingatsu baten eran, aldameneko neska kritikari ederrari begira baba zeriola, botazioak aurrera zihoazelarik, azkenean Angélica Liddellen apologia egin du eta honen *La casa de la fuerza* lanari eman zaio saria. *El País*ek honelaxe jaso ditu saridunaren hitzak:

> *Tal vez* La casa de la fuerza *es la obra en la que con más frenesí he intentado buscarle un sentido a la vida, había que salir del jodido túnel. La vida, ese lugar donde no vamos a dejar más rastro que el de una oruga aplastada en un camino, y aún así el amor fracasa, la inteligencia fracasa, y nos destrozamos los unos a los otros, por cobardía, y humillamos y somos humillados, hasta el final.*

Angélica González, ezizenez Angélica Liddel, ahots indartsuenetakoa bilakatu bide da ikuskizunen egungo panoraman, noski. Ansón, bestalde, ez da isildu une batez ere, eta denetik bai baitaki, esan du beste gauzen artean euskal literaturako idazle guztiak hogeita hamabost urtetik beherakoak direla, Antonio Machadoren bertsoez oroitu naizelarik: *Castilla miserable, ayer dominadora, envuelta en sus andrajos desprecia cuanto ignora.*

Azaroak 11.

Lourdes Auzmendik Agustín García Calvo, azaroaren batean Zamoran hilberriaren musa eta adiskide kuttuna izan denaren zuzenbidea, helbide elektronikoa edota telefonoa eskatzen dit, alegia, Isabel Escuderorena, hari doluminak bidaltzeko. Agustinekin eta Isabelekin genituen harremanak *Fiat umbra* itzulpena egin nionez geroztik sakondu egin ziren. Lehenik asteazkenetan joan ohi nintzen noizean behin Maisua, Jupiter tonante, entzutera Ateneora, han bere ikasleez, batik bat neskatxa gazteez inguratua zegoelarik, baina nire *Gramática de la lengua vasca* oparitu nioenetik ere maiztu egin ziren elkarrekiko topaketak. *Princesa* aldeko jatetxe batean otorduren bat egiten genuen eta bere solas jakintsuaz gozatzen nuen. Futbola ere ikusten genuen telebistan elkarrekin, eta, esaten zuenez, futbolaren denbora tragediaren iraupenarena dela. Denbora perfektua, arreta jasotzeko adinakoa, ordu eta erdi. Oparitu zidan bere lanik mardulena ere: *Tratado de Rítmica y Prosodia y de Métrica y Versificación* (Zamora, Lucina 2006). Hizkuntzen erritmoaz gogoetak. Zamorar filologo, itzultzaile, hizkuntzalari, dramagile, poeta eta filosofo honek naturaren indar eta kemen berezia zeukan, eta gizon on bat zen.

Parnasoan bego Iliadan ageri diren jainko eta jainkosen artean.

Azaroak 12.

Jan Battit Orpustan adiskideak badu liburu bat Bidasoatik honuntz oso guti ezagutzen dena tamalez, *Précis d'Histoire Littéraire Basque 1545-1950. Cinq siècles de littérature en euskara,* Izpegi argitaletxean plazaratua 1996an. Bertan 113. orrialdean esaten da nola Jean Munduteguy uztariztarrak hamaika bertso idaztzi zituen Pierre de Salaberry Parlamentuko abokatuaren kontra 1725ean, eta mostratzat bertso bakarra ematen du. Honekin, jakina den bezala, handituz doa ziri-bertsoen zerrenda, gure literaturan hamalaugarren mendean *Aragueko Patrika*ren kontrako bertso ezagunekin hasten dena. Eskatzen nion bada ahal bazuen poema satiriko osoa, eta ematen didan ihardespena [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 44)] jaso dut –bai eta urte batzuk geroago poema osoa ere, Baionako Unibertsitateko Bibliotekan kopiatua.

Magdeleine Duvigneau-Légasse ikerlariaren tesiaren izen osoa, *Le Bailliage du Labourd et ses jugements tant civils que criminels de 1680-84*

à 1789-90 da, eta 1993an argitaratua, beraz, nire errua da edo euskal literatura-ikerlariena, oraindik ez badut testu hori osorik esku artean, jakinik hainbat idatzi euskaraz horrelako auzi eta tribunaletako paperen artean aurkitzen ahal direla.

Azaroak 27.

Arantxa Artzamendi liburuzain finak eta askotan nire Urumea ertzeko ibilaldietan elkar gurutzatzean irribarre xume eta atsegin batez agurtzen nauenak, honako gutuna bidali dit Serafinen omenez egiteko diren hitzaldi eta ibilaldiaz:

> Adiskide,
>
> Serafin Barojaren (Donostia, 1840 - Bera, 1912) heriotzaren mendeurrenean Donostia Kulturak, Euskal Idazleen Elkartearen lankidetzarekin, abenduaren 3an, iluntzeko 19:30ean, Patri Urkizuren hitzaldia eta abenduaren 4an, arratsaldeko 17:00etan, Jose Inazio Ansorenak gidatutako literatur ibilbidea antolatu ditu.
>
> Euskararen Nazioarteko Egunean eta Serafin Barojaren (Donostia, 1840ko irailak 22 - Bera, 1912ko uztailak 16) heriotzaren mendeurrenean, Patri Urkizu idazleak hitzaldi bat emango du donostiar ospetsu honen irudia ezagutarazteko helburuarekin. Hitzaldia Udal Liburutegi Zaharreko Ekitaldi Aretoan (sarrera San Jeronimo kaletik) izango da abenduaren 3an, astelehenean, iluntzeko 19:30ean.
>
> Abenduaren 4an, 17:00etan*, Serafin Baroja, "Kaskazuri", herriko seme alaia* literatur ibilbidea euskaraz, Jose Inazio Ansorena Minerrek gidatua. Irteera Konstituzio plazatik egingo da eta izen ematea aldez aurretik Alderdi Ederreko Liburutegi Nagusian.

Bietan izan naiz, noski. Lehengoan prestatua neukan powerpointak ez zuen funtzionatu eta beraz neukan testuari atxikita hitz egin behar izan nuen, bai eta kantatu. Bertan zeuden Ramon eta Mikel bederen eta gustura gelditu zirelakoan nago, beste entzuleak bezala. Gero lauan ere ibili ginen aterkipean Ansorenak erakutsi zizkigun Serafinen Donostiako lekuak bisitatzen, biak osagarri izan zirelarik, ene ustez, baina doinu eta moldeetan ezberdinak.


Beste zenbaiten Urte Zahar-Urte Berri on desioen adierazpen atseginen artean, Patxi Intxaurrandieta, orain balada zaharren partiturak prestatzen eta moldatzen berriro lanean ezarri dudan adiskide ezin hobeak, honako gutun hau bidali dit:

Urte Berri, Urte Zahar
Martzelino galtza zahar.
Urte Zahar, Urte Berri
Martzelino galtza berri.

Patri, ea aste honetan elkarrekin egoten garen. Dezente aurreratu dut lana orain arteko oporraldian. Bizpahiru kontutxo, oraingoz: Zalantzarik gabe, partiturak testuaren barruan txertatu beharko genituzke. Atzean, denak pilatuta, eranskin itxura hartzen du material horrek. Kantutegi-eta gehienetan, bestalde, txertaturik ageri da: Azkue, Donostia, Ansorena, Riezu, Antonio Zavala… Testuak transkribatzerakoan ezin dira antzeko irizpideak baliatu? Antzeko edo berak. Badakit ez dela gauza bera Bizkaiko balada bat eta Zuberoakoa, baina gaur egun bada horretan sakondu duen lanik. Jose Ignazio Ansorenak osatutako kantutegian irizpide jakin bat dago. Ondo legoke haren "Bereterretxen kantorea" eta gurea alderatzea. Joanito Dorronsororen doinu bilduman ageri da Txirritaren Canovasi buruzkoa. Gurearekin alderatuz: *Hil-Il; eziya-haziia (hezia); garbiak-garbiyak; nasiya-nasia…* Dena dela, testua bera ere ez dator bat gurearekin. Harenean zortzikoa da eta gurean hamarrekoa. Gaia landu zuten Ibon Olaziregi, Jose Ignazio Ansorena, Jon Bagües, Joxe Mari Berasategi, Joxe Antonio Mujika eta Mikel Zalbideren lanean oinarriturik, Andres Alberdik *"Estandarizatu gabeko solasak nola eman ikasliburuetan"* lana prestatu zuen, eta bertan ageri diren irizpideak gure lana osatzerakoan baliatzeko modukoak direla iruditzen zait. Izango duzula pentsatzen badut ere, honekin batera bidaltzen dizut PDF formatuan. Asko dago hitz egiteko, Patri. Ea noiz elkartzen garen. Goraintziak etxekoei eta zuretzat besarkada estu bat.

Patxi zentzuduna da erabat ohar horiek egiten dizkidalarik, baina bi gauza ezberdin dira testu bat moldatzea ikasleentzat, eta beste bat sortzailearekin ahalik eta fidelena izaten saiatzea, hots, honen euskalkiarekin eta honek idatzitakoarekin, kontserbatzea berezitasunak legezkoa baita, grafia eguneraturik eman arren, eta baziren hautaketa batzuk nire oso gogoko ez zirenak Alberdiren erabakietan.

Beste zenbaitetan bezala, gaur bertan agertu naiz Lezotik basoerdi bat edatera adiskide eta lagun zaharrekin. Patxi, Mikel, Fermin, Manueltxo, Esteban, Pello eta besteekin eta kopla hauek kantatu ditugu *Aizpea* Tabernan tradizioari jarraiki:



Irudia 83: P. Urkizu & P. Intxaurrandieta, 101 balada zahar.

Hau haizearen epela,
Airean dabil orbela,
Etxe hontako jende leialak
Gabon Jainkoak diela.
Lezo ta Errenteriya
Hirugarrena Oiartzun,
Nere lagunak Dios te salve
Garbuarekin erantzun.
Dios te salve, ongi etorri,
Gabon Jainkuak diela,
Legiarekin konpli dezagun
Urte berriaren bezpera.

2013

Urtarrilak 20.

BUKATU dugu Patxik eta biok *101 Balada Zahar* liburua. Nik prestatu dut hitzaurrea: *Euskal baladak eta europar tradizioa* du azpititulua. Hamaika kapitulutan banatua dago antologia, eta honela sailkatuta daude baladak: a) Erlijiosoak; b) Nobelesko paneuroparrak; c) Nobelesko bereziki Euskal Herrikoak; d) Urkamendikoak; e) Itsasokoak; f) Irrigarriak; eta g) Apokrifoak, *contrafactak* eta erudituak. Testu hauen doinuak, aireen pentagramak Patxik prestatu ditu, nahiko izerdiren ondoren, kontuan hartuta zenbat aldaera dauden kantutegi ezberdinetan eta bat hautatzekotan gelditu ginela, edo bi gehienez. Hona, beraz, guztiz animatuta idatzi didana gaur [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 45)].

Patxi langile nekaezina da, birritan esan dudan bezala, baina ez dakit argitaletxeren bat prest egonen den hau txukun argitaratzeko. Hasteko, editorialaren kontura ateratzeko prest ez dagoenez Iñaki Aldekoa, Ereingo editoreari aurrekontua eskatu diot. Ikusiko.

Urtarrilak 26.

Ramon Saizarbitoriarekin banoa Hendaiara taxista moduan, Mediatekan baitu saioaldia bertako euskal irakurle klubarekin *Martutene* inguruan hitz egiteko. Soineko beltzez jantzi emakume taldea, *atsolarrea*k, edo andere fin, dotore eta irakurzaleek Mikel Asurmendi literatur kritikariaren gidaritzapean prest zeuzkaten galderak Ramonek erantzun zain. *Martutene*n ageri den gizarte eleanitza –beti izan da hizkuntzaren kezka Saizarbitoriaren eleberrietan, eta hain da horrela non *100 metro* eleberri elebidun gisa kontsideraturik izan baita–, eta solasean gaietarik bat izan da.

Medikuen mundua eta osasungintzaren antolamenduaz ageri dira kezkak, Abaitua, protagonistetarik bat, ginekologoa baita, eta bere emazte Pilar neurozirujaua. Bion arteko harremanak une baxuan aurkitzen dira, Lynne neska bekadun amerikanoaz maitemintzen da Abaitua, hura izango delarik jainkosa baten erara erotismoaren gailurrera eramango duena.

Hari, ordea, Prometeori bezala, maitasunaren sua pizteagatik jainkoek zigorra ezarriko diote, Pilar dela medio. Medikuntza mundua ongi ezagutzen duela barrenetik, eta haien hizkuntza, jerga espezializatua, menderatzeaz aparte, badu puntu irkaitz bat, ironia fin bat berarekiko. Gaztelaniaz argitaratu zituen azterketa soziologikoek, *Nacer en Guipúzcoa* (Estudios Aspace, 1981) eta *Perinatalidad y prevención* (Hordago, 1981) adierazten dute sakonki ezagutzen duela mundu hori. Horrela emakume atzerritarra baserri batean erdituko denean izango dira mementorik argitsuenak ere; eta tragikoena, Lynnen operaziokoa, zeinak *nik ezagutu dut maitasuna* baitzioen, gure arteko tabu zenbait hautsiz.

Otzeta, maitasun eta gorrotaleku den herria. Iparraldera eta Bordelera Kepak, Abaituak eta Lynnek egiten duten bidaia. Euskal literaturari, eta batik bat Max Frischi eta haren *Montauk* nobelari egiten zaien omenaldia. Emakumeen sentimenduen deskripzio sakonak, literaturaz eta itzulpenaz egiten diren gogoetak.

Moral politikoaz mintzo den tratatua. Juliari zilegi ote zaio senar ohi ETArraren testamentua semeari erakustea, edota ahantzi behar du hura? Memoriaren morrontzak. Ramonek aitortzen duenez, *bizi dudan inguruko errealitatea kontatzen saiatzen naiz, hausnarketa egiten dut gure historiaz, hizkuntzaz eta egunorokotasunaz, baina oharkabean sortzen zaizkidan egiturak konplexuak dira*.

Bere hitzaldia bukatutakoan eta irakurleek egiten dizkioten galdeei erantzundakoan, bagoaz denak elkarrekin afaltzera Portuan dagoen Serge Blancoren jatetxera eta han jarraikitzen dugu solasa, etengabe, ikusten delarik Ramon benetan pozik dagoela, eta irakurle taldea ere bai. Bukaeran, detaile gisara, Montaigneren biografia, enkoadernazio zahar, bikain eta dotore batean oparitzen dio egunero itsasoan bainatzen den Pantxikek (Madame Noblia). Eta gau izartsuan, arratsalde atsedentsua pasatuta konpainia ezin hobean pozik, itzultzen gara Donostiara mugan inor topatu gabe.

Otsailak 4.

Ramonek galdetu dit ea Martuteneko *Villa Gentza* institutuan *Subiranotasuna, demokrazia eta giza eskubideak* gaitzat harturik gaur Jose Maria Setien, gotzain emerituak, Patxi Bastarrika Hizkuntza Politikako

sailburuorde ohiak eta Javier Arellanok emango duten solasera joango ote garen. Baiezkoa eman diot, eta hementxe gaude apaiz multzo handi baten artean. Hogeita lau apaiz edo antzeko eta bi monja kontatu ditut. *Soberania* konpartituaz, Munduko Banka delakoaz eta munduan pairatzen den goseaz, Estatu modeloaren krisiaz, Demokrazia errepresentatiboaz, korrupzioaz mintzatu zaizkigu. Huntaz eta hartaz. Nabaria da Setienen hitzetan gizon jakintsu eta kultu bat ageri dela, baina nire inpresioa da harrotasun puntu bat ere agertzen zaiola solasean eta elizari, bere buruari kritika, autokritika egiteko joera gutxitxo. Gizarte mugimenduez ere solastatu dira eta ebidentea litzatekeen zerbait ere esan dute, alegia, ikus eta ikas dezagun beste herrialdeetan ongi funtzionatzen duena, gurean aplikatzeko.

Otsailak 5.

Aurrekoan Mungiatik laguntza eske etorri zitzaizkidan bezala, oraingoan Iruritako Udaletxetik Maitane Maritorenak Lore Jokoez erakusketa bat egin nahi dutela-eta, galdetzen dit ea bideratuko niokeen edo erraztu Abbadia Jauregian diren afixak Nafarroara eramaten. [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 46)]. Ohi bezala, noski, nire erantzuna baiezkoa da.

Okasio honekin bada, joaten gara Mikel eta biok Iruritara eta hango Jauregiko nagusiaren sendiko batek bertan dauzkan pinturak, koadroak eta eskuizkribuak, gelak eta tresneriak erakusten dizkigu oso modu adeitsuan. Bazkari xume batez elikatu ondoren, itzultzen gara etxe aldera, Baztango paraje ederrei agur eginez, herri-sarreran ohartzen garelarik txinatarrek hemen ere lortu dutela pabiloi handi bat beren produktu zatar, itsusi eta eskasak, baina batzuetan beharrezkoak, saltzeko.

Otsailak 13.

Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa Batzordean eztabaidak izan ditugu egiten ari garen antologiaren testu moldaketen inguruan. Ezin onar dezaket Karlos Otegik ezarri nahi duen formula. Botazioz hatxeak kendu eta ezartzea, testua gaurkotuz eta Bernat Etxepare eta Joanes Leizarraga erabat desitxuratuz, eta <h>-ak ezarriz ez duten kasutan, hots, testuak hegoaldekoak direnean. Adibidez, *Kontrapas*eko *Heuskara, thornuia, phorogatu*…, *Euskara, tornuia, porogatu*… bezala ematea.

Gure lehen klasikoei errespetu gutxi edukitzea dela uste dut, eta gainera ez dela jasotzen euskalkien berezitasunik. Baina badirudi argumentu hauek ez dutela balio. Mitxelena berpiztuko balitz! Beraz, nik egin dut nire antologia alternatiboa eta dimisioa aurkeztu diot gutunez Iratxe idazkariari, baina Jean Haritschelharrek deitu dit esanez *behar zaitugu LIBen*, eta bertan hartzen diren zenbait erabakirekin konforme ez egon arren, filologia-arazo bat denean –eta hau originalen testu-irakurketa zuzenean baitatza–, ezin baita botazioz erabaki, nire uste apalean. Dena den, bileretara joaten jarraituko dut Jeanen erreguari amore emanez.

Gaur, halaber, Ander Iturriotz Euskal Idazleen Elkarteko Lehendakariak idatzi dit Jon Miranderen inguruan zerbait idazteko *Hegats* aldizkarirako [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 47)]. Aspalditik gordeak neuzkan Miranderen zenbait eskuizkribu, eta haren poemetan eta egin diren poesia ediziotan, batik bat Txomin Peillenean, sakontzeko eta plazaratu diren zortziak konparatzeko gogoa neukanez, iruzkin zenbait egitera animatu naiz; beraz, egindako eskaerari baiezkoa eman diot, eta lanean hasi naiz.

Otsailak 14.

Ospitalean nago Marikrutxekin. Buruan kolpe bat hartu du eta neurokirurgia sailean dago orain. Galdetu diot anaia Joxebaz, zer moduz dabilen belaunetako operazioekin eta erantzun dit nahiko pattal eta oinaze handiekin dabilela, eta horrek pastilla ugari hartzera behartzen duela.

Otsailak 22.

Donibane Lohizuneko hondartzan banabil. Eguzki zuria daukagu, hots, negu gorrikoa, eta bost gradu, baina gaurko berokiekin ez dago arazorik patxadan edo arin-arin bueltaxka bat emateko itsasoari begira. Hiru andre adindun bainatzen ari dira, ur hotzaren batere beldurrik gabe, beste batzuk oinak uretan uhinen azken apar artean bustitzen, eta bi gizon txabusina zuria jantzita berriketan neguko eguzki epela dastatzen. Ni pozik hemengo bake eta lasaitasunarekin.

Martxoak 8.

Maitane Maritorenak berriz idazten dit Iruritatik esanez nola, nire erranei jarraikiz, Hendaiako alkateari eta Célineri gutuna igorri dien,

eta hark frantsesez erantzun diola eta bere frantses kaxkarra kontuan hartuta, ea lagunduko diodan itzulpenean. Erakusketa apirilaren 8tik 22ra paratzeko asmoa dutela, eta ustez garaiz dabiltzala. Furgonetarekin afixak jasotzera agertuko diren egunean hantxe egonen nintzela erantzun diot eta Célinerekikoak, presentazioak eta beste eginen genituela.

Martxoak 25.

Joxebaren urtebetetzea. Atzo Hondarribiko *Urki-enea* baserrian bazkaldu genuen Ima, Itsaso, Manex, Kontxi, Marikrutx, Marga, Miren eta sendiko beste guztiek. Bi opari egin nizkion nire emaitzatxo gisara. Hau da, bi liburuxka. Batek *Irudi zahar eta berriak komentatuz* dauka titulu gisara, eta besteak *Itsasoko zinak eta minak*, familiaren eta itsasoaren inguruan egin ditudan idazkitxoak. Marga, praktikoagoa denez, hiru olio botila, mota ezberdinetakoak, eskaini dizkio.

Apirilak 10.

Rosa María Tercero Zaragozak, UNEDeko argitalpenen produkzio-saileko buruak esaten dit ea nahi dudan nire *Gramática de la lengua vasca* liburua formato elektronikoan ere zabal dadin, zeren sistema honek aski ongi funtzionatu baitu teatroari buruzko liburuarekin Latinoamerikan, eta noski ni pozik eta baiezkoa eman diot. *Eman da zabal zazu* Iparragirreren leloari jarraikiz, bagoaz polliki-polliki… euskara hedatzen munduan zehar…

Apirilak 15.

Lourdes Oñederra adiskideak bigarren nobela aurkeztu du *Intemperies (Babes bila)* titulupean, Konstituzioko Plazan den Liburutegi Zaharreko sotoan. Afasiaren gaia hautatu du oraingoan, eta esaten digu Vienan hasi zela irakurtzen honen inguruan eta benetan gai interesgarria iruditzen zaiola. *Nire fantesia da*, horrela definitu du, eta gogoratzen naiz nire amaginarreba Kontxita afasiaz iktusak jo zuenean esan zidala ezagutu nahi zuela kasua; beraz aspaldidanik datorkion burutapena eta hausnarketa da. Eta «Intemperies» izena jartzeko, dio, *gogo handia nuen, egoskorkeria ere izan da, oso ondo zetorkidan. Baina ez da gazteleraz pluralean, latinean pentsatu nuen, epeltasun bilatze horretan, babes faltan… hortik azpititulua ere.*

Ane Urrutik, bere aldetik, *Gara*n honela jasotzen du aurkezpena:

> Eguneroko gauza txikiekin josi du Oñederrak «Intemperies». […] 50 urte inguruko emakume baten egunerokotasunean, «besterik gabeko horretan», murgildu du istorioa. […] oraingoan hizkuntzalari donostiar bat da, Luzia, «Intemperies (babes bila)»… «Eguneroko bizitzak du pisua, besterik gabeko horrek», azaldu zuen Oñederrak. «Ezer berezirik gertatzen ez den horretan ere, horrek duen erronka. Zaila iruditzen zait bizitzea». Bere esanetan, «oso gutxi dakigu bai geure buruaz, bai besteenez, eta hor hitzak daude, hitzetara jotzen dugu ulertu nahian, ezagutzeko. Eta idaztean ere hori izan dut nik esku artean eta hori dute nobela honetan pertsonaiek ere. Hala ere, hitzak batzuetan lagungarri dira eta besteetan korapilatu egiten zaizkigu». Nobela intimoa da, eguneroko gauza txikien ñabarduretan sakontzen duena… «Aurreko nobelan Teresa ixten eta bakartzen bazihoan, oraingoan esango nuke Luzia irekitzen doala. Eguneroko ibileran, inoiz finkatu gabe baina irekita». Beste zenbait pertsonaia ere gurutzatuko dira, Eva, esaterako, haur afasikoa, «harrapatu nauen gaia da afasiarena eta euskarri garrantzitsua bihurtu da nobelan aurrera egiteko». Denborak obsesionatzen duela aitortu zuen atzo Oñederrak, baina gustatu egiten zaiola, «uste dut ez dudala ongi neurtzen». Kronologikoki idatzi du nobela, abiadura aldakorretan, jauzi ezberdinekin, eta kapitulu bakoitza denbora zehaztuz abiatu du. «Beharbada, euskarri bat bilatzen dut denbora zehazte horretan. Oso irristakorra da eta izendatzeak ematen du eutsi egiten diola». Azken hamalau urtetan beste hiru liburu argitaratu baditu ere, bere aurreko nobelatik denbora asko igaro da, «oso egoste motela izan du». Denbora falta izan zaio idazteko, «nire bizitzan gertatu den aldaketa traumatikoena euskaltzain bihurtzea da», esan zuen, eta unibertsitateko lanek ere, «lan intelektualek», literaturatik ateratzen dutela azaldu zuen.

Beraz, laburbilduz, ez diola nobelari agian behar zuen adina denbora eskaini, eta atsedenaldietako jolas literarioa izan dela. Noizbehinkakoa. Bai, benetan bigarren nobelak oso arriskugarriak izan daitezke, edota beste zerbait espero genuen Lourdesengandik.

Apirilak 16.

Gaur erabat txunditurik gelditu naiz, jota, harri eta zur jaso dudan gutunarekin. Hona zer idatzi didaten.

> Kaixo Patri,
>
> Josu Martinez nauzu, Euskal Herriko Unibertsitateko ikerlari, zinema-atalean. Jean Elizalde "Zerbitzari" zenaren paperen atzetik nabilela, haren senitartekoek zure izena aipatuta heldu natzaizu. Kontua da, ene doktore-tesia kari, euskal film zahar baten arrastoaren bila nabilela. Film horrek, *"Gure Sor Lekua"* izena du eta André Madré jeneral hazpandarrak burutu zuen 1956. urtean. Filma galdua da, baina haren gidoia eta komentarioa Jean Elizaldek idatzi zuela deskubritu dut. Hala, Elizalderen eskuizkribu eta koadernoetan, honen inguruko informazio zerbait atzamateko esperantza badut. Menturaz, André Madré-rekiko gutunen bat… Edo menturaz (nonbait egon behar du, segur!) gidoia bera. Erran bezala, Elizalde-ren ilobek esan didate, zugana jotzeko; zu haren etxean izan baitzinen, paperak begiratzen eta jasotzen, haren inguruko lan bat apailatzeko. Ez dakit laguntzen ahalko ninduzunez; paper horiek zuk dauzkazun ala non egon litezkeen jakin dezakezun, ala bestelako informaziorik eman zeniezadakeen. Edozein pista, bihotzez eskertuko nizuke. Azkue bibliotekan eta Baionako euskal museoan izan naiz deja, eta ezer gutxi daukate Elizalderen gutun eta idatzietan; Koadernoren bat eta Lafittekiko gutunen bat ez bada, deus.
>
> Milesker handi bat aitzinetik, Patri, eta araiz, laster arte

Nondik nora eta Elizalderen familiaren etxean egon naizela ni? Egia esan behar badut, ez naiz inoiz izan elizaldetarrenean, eta ez dakit non den ere. Nork zabaldu ote du ixtorio hori? Nik prestatu nuenean *Jean Elissalde, LVII.a gerlan* (Alberdania, 1995) Baionako Euskal Museoko *Eskualduna* kazeta erabili banuen soil-soilik? Misterioa, susmoak…

Apirilak 22.

Maitane Iruritakoak idatzi dit berriro, dena ongi joan dela antolamenduan eta pozik daudela azpimarratuz. Hona bere esker gutuna:

Eguerdi on Patri, zer gisa?

Atzo izan genuen Lore Jokoen egun handia Baztanen, eta aski ongi atera zen. Goizean laxoa partidan eta dantzetan ikusle poliki bildu zen, arratsaldean errezitaldian ere bai, eta bertso-saioan hainbertze jende, beraz balorazioa aski positiboa. Erakusketa-egunа atzo bukatu zen, hortaz dena bildu eta Hendaiarat itzultzeko prest izanen dugu ondoko egunetan. Pentsatzen dut zuk ez duzula berriz joan beharrik, baina Celinerekin komunikatzeko arazoak izanen ditudanez, eskertuko nizuke berarekin solastatu eta noiz joaten ahal garen erranen bazenit.

Esker mila anitz egindako guztiagatik

Maitane

Benetan pozgarria da ikustea batek egin lanak euskararen zabalkundean baliagarri izan daitezkeela.

Apirilak 26.

Madriletik, eta preseski CEDROko bazkide naizenez aspalditxotik, Magdalena Vinentek igortzen dit nire erreprodukzio-eskubideen diru kopurua zenbaterainokoa den, alegia joan den urteko likidazioa garbian, 31 euro eta 13 zentimo. Honekin bakarrik bizi beharko banu…

Maiatzak 6.

Marga eta biok erabaki dugu aprobetxatu egingo dugula bihar Martutene *Círculo de Bellas Artes*en Iñaki Gabilondok, Iñaki Aldekoak eta Ramon Saizarbitoriak aurkeztuko dutela, egun batzuk Madrilen igarotzeko. Hartu dugu goizean, beraz, trena Donostian eta bagoaz hegoaldera. Prentsari begirada bat emanez, eta astelehena delarik *Berria*rik ez denez, *El País* eta *Noticias de Gipuzkoa* erosi ditut. Hemen, beste albisteen artean, adibidez, kezkagarria beharko lukeen hau –*Unos 10.600 jóvenes abandonaron Euskadi en 2012, 4.500 más que en 2010*– beraiengan eginiko inbertsioa galtzen delako nabarmenki, eta horrelako ondorioak dituzten politikek herrialdea pobretzen bide dutelako.

Gasteizen Iñaki Mendizabalek Lourdes Oñederrarekin egindako elkarrizketa dakar, titular honekin hasten dena: *"Nobela 'maskulinoak'*

daudela onartzen baldin bada, hau 'femeninoa' da, orduan bai". Denboraz eta inertziaz, bakardadeaz eta askatasunaz, oroimenaz eta gizon-emakumeen arteko harremanez eta tentsioez hitz egiten du donostiarraren nobela berriak. Hamalau urte zain eduki ostean, Oñederraren *"egia intimoek"* ondo aseta utziko dute zalea. Fotografia batean leiho aurrean katua besoetan daukala ageri da, ezpainak estu. Triste antxean ikusten dut, urteen pasadak beren ximurrak utzi dizkiote lepoan eta aurpegian, sudurra luzatu, findu egin zaio, argalago baitago. Belarrietan uztai borobilak. Katuaren ilajea ilun xamarra da. Haur bat bailuen besoetan dauka. Zientziari eta artegintzari bere burua eta bizitza osoa eskaini dioten zenbait anderek ohi bezala, halako begirada tristea edukitzea ez da arraroa. Kontraesanez beterik Euskaltzaindiko aulkian esertzeak sortzen dizkion gatazkak, zeren eta, dioen bezala, hizkuntzalari izanik hizkera-fenomeno guztiak interesatzen zaizkion, baina euskaltzain oso izanik arautzeak, normalizatzeak, gurea bezalako hain egoera larrian dagoen hizkuntzari mugak ezartzeak kezkatzen du, *maila batean edo bestean denok garelako euskaldun berri.* Hauxe dio, bai, baina, honekin ez nator bat, gauza bat delako hizkuntzaren bizibeharrak egoera berriei moldatzeko ahalegina eta bestea betiko barne-mundua hizkuntza berean, gurasoengandik jasotako hizkuntzan lantzea.

Valladolideko arrabaletara iristearekin jada aspertuxeak gaude. Eskuinaldean kanposantu luzea, pixka bat aurreraxeago ezkerraldean kale *merkadilloa,* kale luze batean trenbideari paralelo doana. Trenaren zarata jaitsi da eta une batez argia joaten zaigu. Burdinbidearen neurriak aldatzen dira eta abiada handikora egokitzen. Ordubete barru Madrilen izango gara, dena ongi badoakigu. Etxe garaiak, adreilu gorriz osatuak. Pabiloi zaharrak uralitazko teilatuz estaliak. Itsusia da hau gero…

Atzo gauean, Margak afaria prestatzen zuen bitartean, *El Acantilado* argitaletxeak plazaratutako Nadiezhda Mandelstamen *Contra toda esperanza. Memorias* irakurtzen ari nintzaion, eta benetan amodiozko ixtorio hunkigarria izan zen hura. Ósip Mandelstam poetak, Stalinen aurkako poema bat egiteagatik 1934an Stalinek atxilotu ondoren, deportatu eta Siberiako bidean zelai-kartzela batean hil zen 1938an. Sortzen zituen poemak beste mediorik ez eta buruz ikasi beharrean aurkitu zelarik Nadiezhda. Une batean komentatu nuen, hau da poesiaz nire bizitzan irakurri dudan kritika libururik hoberena, *Genopoetika* gisa bataiatuko lu-

kete kritikari moderno batzuek, baina argi dago hurbiltze berezia daukala poesia honek, maitalearena, hau da, dena utzirik poetaren, bere bizitzako amodioaren ondoan egotearren, desterrua, erbesteratzea Errusian barrena sufritzeko prest dagoenarena, horrela gertutik ikusten duelarik egilearen sortze prozesua eta noiz idatzi eta noiz sortzen zaizkion hitzak eta nola errezitatzen dituen hurbil-hurbiletik bizi duenarena, eta bestetik jasotzen dakienarena, ahalegin guztiak eginez buruan gordetzeko, zeren eta bestela bertso horiek galduko ziratekeen, biltzen dituenaren eta gero bere memorietan esplikatzen dituenaren oroitzapenetik.

Ramon Saizarbitoria eta *Erein*darrak, Iñaki Aldekoa eta konpainia hegazkinez, atzeramendu dexentearekin iritsi direnean, deitu didate, eta gertu gaudenez, *La Carmencita*n afaltzea, beheko erreserbatua hautatzen dugu. Aski nekatua ikusten dut Ramon, baina Iñaki erabat animatua. Biharko programa luzeaz eta azken berriez mintzo gara.

Maiatzak 7.

Margak ekarri duen Mac-ean mezu elektronikoren bat ote daukadan begiratzen dut, eta ikusten dut Lander Zurutuza, Lezoko liburuzain langileak apirilaren 18an eta 22an izandako solasaldia zintzilikatu duela Lezoko liburutegiko blogean. Lehenengo aldia dela bideo bat editatzen duela, eta agian horregatik ez zaiola nahiko lukeen bezain txukun atera.

Joaten naiz, bapo gosaldu ondoren, UNEDera eta hango liburutegian literatura-errebista zenbaiti errepasoa eman eta Vicente Granados, Paco Gutiérrez Carbajo eta Miguel Ángel Pérez Priego adiskideekin elkartu naiz. Ohi bezala, etxeko hautsak astintzen dituzte, baina baita kanpokoak eta gobernuaren burugabekeriak ere. Komentatzen diet nola gaur arratsaldean *Círculo*an Iñaki Gabilondok Ramon Saizarbitoria adiskidea, elkarrizketatuko duen honen azken nobelaz, hots, *Martutene*z. Ohi bezala *konplementoa* edaten dugu kafearekin eta berriketa pizten da berriro.

*Círculo*ra iristen gara eta hantxe daude pixka bat nekatuak, Ramon, Iñaki eta besteak gaua gaizki eta goiza komunikabideekin igaro ondoren. Baina esfortzua egin behar, aurkezpenak eta prentsakoak ongi atera daitezen. Telebistak eta irratiak prest daude eta aretoa jendez betetzen da. Marta Cárdenas, Pilar Ruiz-Va, Brigitte Leguen, Teresa Sánchez eta Ramonen beste hainbat miresle. Aldekoak ongi prestatu du gaurkoa,

eta bere sarrera-hitzak esandakoan, Iñaki Gabilondo donostiarra ohiko maisutasunaz beste donostiar bati, Ramon Saizarbitoriari galdezka hasten zaio. Nabari da eleberria ongi eta detaile guztiak hausnartuz irakurri duela. Euskal burgesiaren bi bikoteen gorabeherak, Martin eta Julia, Iñaki eta Pilar, zeinen bizitzan neska atzerritar bat izango den leherkaria. Mintzo da nola honekin noski elkarrizketak gaztelaniaz diren, baina nobelan soluzionatua dagoen narratzaileak hitz egindakoa laburtzen duelarik. Euskal gizartearen kulpa kolektiboaz, ez dugula jakin gertakizun odoltsuek eskatzen zuten mailan egoten. Nola adiskide bati gehiago kostatu zitzaion erabakitzea eta bere buruari aitortzea jada ez zela areago nazionalista, jesuita izateari uztea baino, edota dibortziatutzat kontsideratzea baino. Nolako zalantzak dituzten gurasoek bizitako historia hori seme-alabei kontatzerakoan, eta batik bat Juliak senar hilaren testamentua semeak hamabost urte betetzen dituenean aitaren gutuna, eman ala ez eman, zalantza erabaki behar duenean. Eta nolako zama handia daramagun euskalduntasuna eraman behar hori dela-eta. Aitaren aholku hari jarraikitzea, hots, *no te olvides que eres vasco* esaldiari behar bezala erantzun nahiz. Montauken nobela pertsonaia nagusiek irakurri dutelarik eta hauetaz mintzatzen direlarik, zer nolako ispilu joko artistiko eta iradokitzailea sortzen den. Jendearen pentsamenduen gorabeherak sakonki eta zehaztasun osoaz espresatzerakoan zein zailtasunekin aurkitzen den, hizkuntzarekiko kezka…

Txalo-zaparrada baten ondoren, Martak bi gauzatxo esaten ditu Ramonen bortizkeriaren kontrako engaiamenduaz eta pozik bagoaz polliki-polliki taldetxoa afaltzera. Etxegaray kaleko *La Venencia* tabernan fino bat eta azeituna batzuk dastatzen ditugu eta dozenatxo bat biltzen gara *Come prima* jatetxean. Iñaki telefonoz deika ari delarik, Mario Vargas Llosa ikusten du bertatik ateratzen eta pozik dago benetan. Brigitte, Pilar, Marga, Raúl, Ramón, Iñaki eta beste batzuek esandakoez eta beste gaiez ere mintzo gara jan-edariak benetan onak direlarik. Gaur Madrilen, benetan gau eta egun gogoangarriak izan baitira euskal literaturarentzat, Ramon Saizarbitoriaren *Martutene* nobela medio.

Maiatzak 8.

Ongi igaro dugu gaua, eta inolako presarik gabe Marga eta biok, gosaldu ondoren, bagoaz Telefonikan Virxilio Vieitez fotografoak daukan erakusketa ikustera. Denboran atzera egindako bidaia. Familia, hau-

rrak, neskatoak eta mutilak, gazteak eta zaharrak, komunioak, apaizak, hileta-elizkizunak eta kanposantuak, erromeriak, komediak, ezkontzak, nobioen kotxea, apaiz gaztea Lambrettan, nortasun agiriko karnetak, txapeldun eta faxista bibotedunak. Hortzik gabeko atso zaharren irudi hunkigarriak, eta ez hain zaharren aurpegi tristeak eta txima orraztugabeak. Frankismoaren garaiko Galizia, benetako ikerketa antropologikoa dugu Vieitezen fotografia multzo hau, *Más allá del oficio*, titulatua, non egileak berak dioskunez, gehiago gustatzen zitzaizkion estudiokoak baino kale gorrikoak, eta mirari guztia irudia ahalik eta garbien, argien ematean datzan, laburzki esanda, *que sea nítida*.

Maiatzak 13.

Joseba Gabilondok, *Michigan State University*tik eta Hizkuntza Erromaniko eta Klasikoen Departamentutik gutun bat bidali dit, bere eskuz idatzitako lehena, Chahoren bizitzaz argibideak eskatuz [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 48)]. Baietz noski, erantzun nion, oso gustura irakurriko nuela eta ni ere bazkari hartan benetan ongi aurkitu nintzela halako konpainia ederrean, Errenteriako asanbladari buruzko oroitzapenez eta bestelakoez mintzatuz, eta Ameriketan zegoenez, gogorarazten niola Agosti Chahok izan zituela bi anaia idazle. Bat, Jean Baptiste, *Un existence de Barde* (Topet Etchahunez idatzi eta Jean Pierrek itzuli zuena, eta guk *Hegats*en emana). Jean Baptistek beste zenbait liburu ere idatzi zituela: *Job* (Bibliako itzulpena euskaraz, 1836), *La conversation criminelle* eta *Les Tournangeaux* nobelak frantsesez. Azken hauek *Artine Artinian Collection, Harry Ranson Center, The University of Texas eta Austin*-en zeudenak, antza denez.

Maiatzak 14.

Joseba ez zen harritu batere Ameriketako unibertsitate batean (Austinen) bukatu bazituen lan horiek, beste hainbat liburu eta artederreko obrak bezalaxe.

Harri eta zur ni geratu naiz, ordea, egia esan badaukat adina deusez ez harritzeko, baina Iñaki adiskideak Patxi Intxaurrandieta eta biok burutu dugun *101 Balada zahar* liburuaren eta bi CDen aurrekontua aurkeztu didanean. Zehazki, 336 orrialde zuri-beltzean inprimatuak *couché mate* paperean. Azala lau koloretan eta plastifikaturik. 700 ale,

4.390,00 € + % 4 BEZ, hau da, lau mila bostehun eta hirurogeita bost euro eta 60 zentimo. Bakoitza sei euro eta berrogeita hamabi. Abbadiaren itzulpena kostatu zitzaidana baino gehixeago, baina oraingoan ez nago prest dena nire poltsikotik atera dadin. Noizbait aurkituko dugu beste aukeraren bat.

Maiatzak 17.

Gaur Euskal Idazleen Elkartean hainbeste urtetan idazkari-lanetan eten gabe eta laguntzaile on bezala lan egin duen Bego Andonegiren omenezko bazkaria ospatu dugu Euskal Herria kalean dagoen *Morgan Kompany* jatetxean. Erretiroa hartzeko garaia iritsi zaio. Leku atsegina da, hormetan Picasso, Braque, Malévich eta beste anitzen posterrak kontenplatu daitezke eta idazle gazte asko, gizonezko eta andrazko ezagutzeko aukera izan dut.


Maiatzak 24.

UNEDetik *Gramática de la Lengua Vasca*ren kasuan bezalaxe, oraingoan *Poesía vasca. Antología Bilingüe*, liburuarekin gauza bera proposatu didate, alegia, Latinoameriketako zabalkunderako formato elektronikoan ezartzea, *e-book* gisara eta noski, edizio kontratuaren arauak errespetatuz dagokion prezioan. Baiezkoarekin batera, nire esker ona eta agurra bidali diet Rosa eta Pilarri.

Maiatzak 27-28.

Aipatu LIBeko lanetan, hau da Erdi Arotik Errenazimenturako bideko euskal testuen azterketa egiten ari garelarik, aurrekoan Bernat Etxepare Zaro eta Eiheralarreko apaiz izendatzen zuen 1511ko agiria Orreagako artxiboan aurkitu nuen bezala, oraingoan Iruñean 1596an argitaratu bide zen *Refranes y Sentencias* liburu elebidunaren atzetik nabilelarik, eta honen Darmstadteko ale galduaren bila, beste edireite interesgarri bat izan dut, hau da Girolamo da Sommaia florentziar humanistak Salamancan 1600. urte inguruan egindako kopia, zeina Firenzeko liburutegian aurkitzen baita. María Teresa Cachoren *Manuscritos Hispánicos en las bibliotecas de Florencia* (2001) liburuak jarri nau bidean. Idatzi diot, beraz bertako liburuzainari kopiaren fotokopiak eskatuz eta Francesca Gallori doktoreak ingelesez erantzun dit, esanez ohiko eskaera bete eta

ordainduz gero, emailez bidaliko dizkidatela irudiak. Italieraz erantzun diet *Settore Manoscritti e rari - Servizio riproduzioni Biblioteca Nazionale Centrale di Firenze* delakoari eta egin didaten aurrekontua Euskadiko Kutxara joan eta ordaindu dut.



REFRANES Y SENTENCIAS
comunes en Baſcuence, declaradas en Ro-
mance con numeros ſobre cada palabra, para que ſe entiendan
las dos lenguas. Impreſſo con licencia en Pamplona
por Pedro Pegnalu de Amberes, 1596.

Irudia 84: Refranes y Sentencias (RS)…Pamplona 1596.

Maiatzak 29.

Gaur Andoainen *111 Akademiaren Saria* 2012 emango zaio Ramon Saizarbitoriari, idatzi *Martutene* nobelagatik. Zeremonia arratsaldeko zazpi eta erdietan hasi da Bastero kulturunean, *Lorratzak* musika taldeak abesti bat jo ondoren. *Beterriko Liburua* ohorezko literatur aipamenaren ibilbidea laburbiltzen duen argazki eta bideo proiekzioa, 1996an lehen aldiz eman zenetik gaur egun artekoa, jarri dute pantailan. Aurkezleak Mikel Hernandez Abaituari eman dio hitza lehenik eta gero Jon Unanue, Larramendi Bazkuneko lehendakariari. Patxi Baztarrika ere mintzatu da eta Ana Carrerek, Errenteria aldekoa berez, baina Andoaingo alkate denak eman dio Ramon Saizarbitoriari 111 Akademiaren Saria. Ramonek fintasun handiz kritikatu ditu bai sariak, bai Eusko Jaurlaritzak daramatzan euskal kulturarekiko politikak, eta beraz honelaxe bukatzen da beste ekitaldi hau, amaieran zizka-mizka batzuk dastatzeko aukerarekin eta alkatearekin hitz batzuk egiteko aukera izan dudalarik,

bere anaia Joxemari Karrere, ikasle eta gero bere bizimodua antzertian eta ipuinlari gisa aurkitu duena, adiskide bilakatu bide baitzait.

Ekainak 18.

Gaur hil da Margaren ama, Kontxita Esnaola Beldarrain, nire amaginarreba, 96 urterekin. Emakume fina, dotorea eta abertzalea. Azkeneko urteetan afasia *iktusa* izan zuenetik asko beheititu bazen ere, mantentzen zituen une argi batzuk eta ateratzen zitzaizkion hitz potolo batzuk, zentzuz beteak.

Ekainak 19.

Gaur arratsaldeko 17:00etatik aurrera Zorroagako tanatorioan datza Kontxitaren gorpua. Etxeko hurbilenak agertu dira. Azkeneko urteetan izan dituen zaintzaileak apainki jantzirik etorri dira beren agurra ematera: Ruth ekuatoriarra, Igni nikaraguarra, honen ama Clemencia, eta Mikaela errumaniarra. Hala nola Margaren Institutuko eta Hizkuntza Eskolako lagunak eta adiskideak. Bihar goizean Polloen hamabiak hamar gutxitan izango dugu despedidako ekitaldia.

Uztailak 3.

Euskadi Irratiko Miramongo estudioan *Bihotzeko Fonoteka* programa zuzentzen duen Arantxa Iturbek gonbidatu nau nire kanta bildumatxoez mintzatzera eta hautatu batzuk entzutera. Honakoak izan dira aukeratuak eta beraiez mintzatzeko aitzakia eman didatenak: *Kontrapasa* (Xabier Lete); *Bereterretxen khantorea* (Mikel Laboa), *Urtsua* (Mikel Laboa), *Peru Gurea Londresen* (Ruper Ordorika), *Berdabio* (Anton Valverde); *Pulunpa* (Marie Hirigoien) eta *Markesaren alaba* (Urretxindorrak)… Patziku Perurenaren lana goraipatzeko eta Iban Zalduarena kritikatzeko bidea eta aukera ere eman didate, eta **101 Balada Zahar** argitaratzeko desioa adierazteko ere bai. Ea bada, noizbait gauzatzen den edizioa.

Irailak 4.

Margak beste bi bikoterekin (Karmen eta *Indio*, Marijose eta Joseba) egun batzuetako egonaldia prestatu du Parisen, bikote bakoitza

bere apartamentuan eta hauek bata bestetik aski bananduak, zentroen daudenak Marijose eta Joseba direla, hau ez baita gauza asko ibiltzeko. Guk Gilles Bazin irakaslearen apartamentua alokatu dugu. Trenez, ohi bezala, Montparnassera iritsi eta 91 autobusera igo ondoren, balisekin hementxe gaude. Irakaslea erretretan da, beraz, Marga eta biok bezala. Maletak hustu, arropak, bainuko tresneria eta bestelakoak beren lekuetan laga, kalera ateratzeko prest. Pisua erakutsi digunean Gillesek esan digu Eva Forest ezagutzen duela, eta beraz, ondorioztatu dugu, irakasle gorri horietakoa dela ingeniari agronomo hau.

Irailak 5.

Goizetik Karmen eta Indiorekin *Le Père Lachaise* kanposantuan ibili gara hilobien artean, gerra anitzetako heroiak –hildako soldadu gizagaixoak hantxe dautza–, batzuek hilobi-monumentu aberatsagoa beste batzuek pobreagoa, Frantziaren kolonietan bizia galdu dutenak ere barne, hala nola Gerra Handian (1914-1918) eta Bigarren Mundu Gerran (1939-1945) hilen oroigarri, alderdi komunistan buru izan zen Louis Aragoren hitzak lagun. Eta beti gogoan dut *Le paysan de Paris*, nire Pariseko lehen ibileretako laguna. Kontzentrazio-zelaietan bizia galdutako juduak, Dabiden izarra eta gurutzea daramatenak. Tropa bat, hau da, gudaroste erori bat bailitzan denak xomorro eta zizareen konpainian, ilaretan bananduak. Eta *Columbarium*ean, usoak bailiran, hantxe zein bere katabutean, hilkutxa arruntetan beren izen idatziekin. Hainbeste hilobiz nekaturik, bagoaz Bellevilletik behera, eta *Parc de Butte*setik barrena lakuaren ondotik, jendea gustura dagoelarik eguzkia dastatzen *taparrabo*tan. Zubi pollit bat pasa eta Metroan sartu gara, bagoazelarik Port-Royalera, Joseba eta Marijoserekin geratu baikara seiak bistrot batean bazkaltzeko. Zerbeza, ardo txuria, eguneko *plat*a, postrea eta kafea hartu ondoren, bagoaz apur bat atseden hartzera. Geroago, Helenaren memoria-koadernotxoa irakurri dut une batez, ohe gainean etzanda. 1993koa da eta nabari da Juan, Helenaren amodio zoramenetik ihesi, Mexikora joan zenez geroztik itsasoaren urruntasunak gero eta zoramena handiago eta sakonago bilakarazten bide diola. Institutuko klaseak utzi, lana utzi, Donostiatik urrundu. Gaizki zegoen, benetan gaixo… Ez dakit noraino ere komeni zaidan hau irakurtzen jarraitzea. Gauean dutxatu ondoren, eta arropaz aldatutakoan, berritua bezala sentitzen

naiz eta badirudi egunean zehar egin duen beroa pixka bat apaldu dela. Hasten naiz pausoa arintzen eta mendian bainengoen banabil eten gabe karriketan gaindi. Ordu pare bat ibilitakoan Marga, Karmen eta Indio topatzen ditut. Karmenek beti bezain berritsu darrai, eta adiskide batek dioenaren arabera, isilezina pairatzen duelakoan nago, hain baita handia emakume honen hizketan aritzeko beharra… Azkenean, erdi haserre, hiru andreak joan dira eskaparateak ikustera eta hiru gizonok patxadan zerbeza bat edaten gelditu gara, lasai, bake santuan. Gaueko bederatzi eta erdietarako *La Coupole* aurrean gaude. Sartu gara, goiti begiratu, ikusi dugu giroa eta Margak erabaki du ez duela batere gustuko, eta beste leku apalago eta lasaiago batera goaz afaltzera. Han plater batekin eta Bourgogneko bi botila ardo gorri edanez alegera gaude. Afaldu eta gero, Metroz doaz beste bi bikoteak eta gu baratxe oinez.

Irailak 6.

Ostirala da. Gosaldutakoan, nire kasa banoa Pariseko *Instituto Cervantes,* garai batean Eusko Jaurlaritzaren erbesteko egoitza izan zenera. Silvye, Cervanteseko enkargatuak, Paco de la Rosa eta Mikel Peziñaren ikasle izandakoak, han nenbilelarik, begira deitu eta esan dit UNEDeko egoitza lekuz aldatu dutela, alegia, *Instituto Buñuel*era pasatu direla, Neully-sur-Seinen dagoela orain, aski urrun. Beraz, beste baterako utzi beharko dut adiskideen agurra. 24 rue de Rivolyn dagoen *La Tartine* jatetxean bazkaldu dugu, itzuli dexente eman ondoren *Place des Vosges* inguruan. Judu kapeludun, ile kixkur, erretzaile eta mozkor bakarrizketatzaile batzuk kalean zehar. Prezio on batean bazkaldu dugu ohiko jan-edan frantsesekin. Ondoren, autobusa hartuta, bagoaz siestara. Aldamenean eseri zaigu gizon heldu jakaduna eta Margari gaztelaniaz entzundakoan andaluzez mintzatu zaigu. Berriketako gogoa zeukan, eta esan digu Avignonen bizi dela, eta Kordoba, Sevilla eta Andaluzia aski ongi ezagutzen dituela. Gizon benetan atsegina.

Arratsaldean, *Rue de Pyrénées* ondoan gabiltzala, auzo-teatro txiki bat aurkitzen dugu eta, animatzen garelarik, bertan sartzen gara. Antzezle nagusia argentinarra da, Pandoraren bertsio modernoa jokatzen du eta une batean arropa kendu eta bainu jantziz ageri da, eta hirurogei urte inguru izateko nahiko ongi kontserbatzen da, igeri egiteko aleta batzuk oinetan ezarri eta urez beteriko upelan sartzen zaigu. Indioa haur bat

bezalaxe ari zaigu gozatzen eta jendea agerlekura igotzeko animatzen duenean, bera eta hamar urte inguruko mutikotxo bat ausartzen dira. Aktorea hil eta berpizten da, eta denak pozik. Musika ere oso alaia da eta egokia. Azkenean gutun estalki batean borondatezko sarrera ezartzeko eskatu, agindu digu, dioen bezala, sakeleko astuna arintzearren, hamar euroz.

Bellevilletik behera bagoaz seiak, kontent ikuskizuna komentatuz, Joseba eta Marijoseren etxe inguruan afaltzera biltzen garelarik, solasa etengabe darigula, ardo onaren laguntzaz.

Irailak 7.

Larunbata. Ohi bezala, lehen otordua egindakoan Montmartreko gailurrera goaz, polliki-polliki, artista ospetsuen muinora. Lehen aldiz ikusi nuenetik, gazte garaietan, guztiz itsustua dagoela esango nuke, masifikatua, turistentzat moldatua, oinezkoentzat ia lekurik gelditzen ez delarik, goizeko orduak diren arren. Hementxe dabilkigu Indio bere makina sofistikatu eta garestiarekin leku artistikoei argazkiak botatzen. Emakume amerikar ile-urdin pintorea, eskuinean pintzela eta ezkerrean paleta urdina pinturarekin, galtzak panazkoak, jertsea lepo gora, bizarra eta kaskoan gorra kastellano bat daraman agurea, gure adineko karikaturagilea, eta beste. Eguzkitan goxo gabiltza eta badirudi jendea patxadatsu dabilela orain. Arteleku galdu honen muinotik beherantz urruntzen gara, txoko batean oraindik mahasti batzuk etxe artean bizi nahirik ageri zaizkigula. *Au Lapin Agile. Cabaret. Poèmes et chansons…* Indiok ateratako fotografia bati begiratuz bertan gaude Karmen, Marga eta hirurok *Hope Cafe-Restaurant* delakoan, hirurak irribarretsu, ni *Libération* eskuan eta mahai aurrean hiru *noisette*, literalki itzulita *hurtxo*, odolik gabeko *kortao* delakoa edota *ebakia* baino egokiago litzatekeena, baina aski dugu asmakizunez eta kalkoez. Kanaletatik ia *La Valette*raino igo, eta gero, Metroa harturik, *La Magdaleine*ra jaisten gara, han inguruan bazkaltzekotan geratu baikara Marijose eta Josebarekin.

Irailak 8.

Igandea. Gaur kalean gosaldu dugu eta gero Georges Brassens parkera iritsi gara, liburu zaharren eta bigarren eskukoen gunera. Hamarrak

eta hogeita bost dira. XVI. mendeko edizio zahar batzuk eskuetan erabili ditut eta Clement Marot-en edizio eder batek begira jo dit. Prezioa galdetu dut eta, mila eurotik gora denez, alde egin dut bertan utziz. Igande goizetan ohikoa den *rue Mouffetard*eko plazatxoan, alegia, 68ko zaharreriaren dantzalekuan izan gara. Aulki batean bozgorailua, txapela buruan, oihalto gorria lepoan, alkandora eta praka mahuka-motxak, partitura begien aurrean eta beso artean infernuko hauspoarekin kapelu beltza lurrean sosen zain, antzinako doinu ezagunak jotzen ari da soinularia. Hirurogei urte pasatxo duen bikotea, erretretan dauden maisuak diruditenak, hasten dira dantza helduan, kanten letrekin orrialde batzuk banatzen dituzte. Indio fotografiak ateratzen ari da etengabe, tartean bizardun eta xakaren poltsikoan *L'Equipe* egunkaria daraman beste agure fotografo bati. Paseatzen ari zen agure xahar bati ere eskatu dio, *permetevu* galdetu dio, baina honek ezezkoa eman dio. Ez dut uste bere tipitasunaren ahuldadea inon grabatzeko gogorik zeukanik, adierazi duen keinuaren arabera. Larru beltzeko zamarradun batek mikroa eskuan hartu eta hasten da kantari. Joseba eta biok zerbeza bana daukagu mahaitxo gainean, Marijosek zuri idor bat. Animatzen gara eta Marijoserekin dantzatzen dut pare bat pieza, eta nola hala moldatzen gara. Ordubete inguru han libertitu ondoren, aldamenean den jatetxe marokoar batera goaz, han *tadjin* bazkaltzen dugularik batzuek, eta *couscousa* besteek.

Indiok fotografiak botatzen jarraitzen du. Marga, Karmen eta Indio *Musée Asiatique*ra joan dira, eta ikusia dudanez, Marijoserekin eta Josebarekin gelditzen naiz kafe eta kopatxo bat edaten (Josebak bi). Gero apartamentura. Telebista pixka bat ikusi, zerbait irakurri eta berriro kalera. Gaur estropada nagusiaren eguna da Donostian, banderarena, eta Urtziri deitu diot traineruak nola geratu diren jakiteko. Nork irabazi duen galdetu diot, eta Bermeoko urdaibaitarrak deskalifikatu egin dituztela erantzun dit, zegokien kaletik ez joateagatik, besteenean sartzeagatik, eta ondorioz Hondarribiak irabazi omen du. Bazen garaia, azken urteotan bizkaitarrak estropada guztiak irabazten ari baitziren, noiz Kaiku, noiz Urdaibai. Bihar irakurri beharko nola joan den ixtorioa *El País*en, ez baitut ikusten hemengo kioskoetan beste egunkaririk, gaztelaniazkoetarik hori eta *ABC* baizik.

Astelehena. Atzoko kronikatxoa idatzi ondoren hementxe nago gosaltzeko prest, eta ondoren Sainte Geneviève aldera joateko. Lehenik Marga, Karmen eta Indiorekin *Mezkita* bisitatu dugu. Arkitekturaz gauza askorik ez jakin arren, balirudike *al-andalusi* artearen imitazioaren aurrean aurkitzen garela, Granada eta Kordobako eraikuntzaren baten aitzinean. Parte bat bakarrik ikusi ahal izan dugu eta irteterakoan *Jardin des Plantes* eta Natur Zientzien Museoko jardinetan barrena gabiltza. Lorategiak oso ongi zainduak daude, eta loreen usainek eta koloreek aroa gozarazten dute. Iritsi gara *La Seine* ibaira eta hantxe, kaian, gabarren aldamenetik goaz, giroa hotz samar, baina oso aro ona baitaukagu. Igo gara *Nôtre-Dame*ko atzeko aldeko zubia baino bi zubi lehenago espaloira, eta Saint Louis uhartera pasatzen gara, Karmenek erosketatxo batzuk egin behar baititu bilobentzat. *Hurtxo* bat edan dut beraiekin eta banoa bakarrik Sainte Genevièveko Bibliotekara. Euria ari du, eta eskerrak aterkitxoa hartu dudan etxetik irteterakoan. Ordu batean irekitzen dutenez liburutegia, inguruko *Crêperie* batean krepa eta *bierpresion* bat eskatu dut. Gero kafea hartu eta *Almathan* liburu-dendan literatura espainola eta hispanoamerikarra arakaturik, azkenean Manuel Vázquez Montalbánen *Mis almuerzos con gente inquietante* (1984), Alfonso Guerra, Bibi Andersen, Alba dukea, Jesús Quintero, Carmen Romero, Manuel Fraga Iribarne, Juan Maria Bandres, Luis Olarra… Orotara 21 pertsona garrantzitsu eta benetan egoera politikoaz eta etorkizunari buruzkoaz ikuspegi berezia zeukatenekin elkarrizketak. Okasio ona memoria astintzeko.

Sartu naiz bibliotekan eta ikusi nahi nuen liburua eskatu dut. Joanes Ibarrolak (Bordele, *ca.* 1537), *vulgus dictus Basculetus,* Erruango Parlamentuko Kontseilari eta Bordelekoa ere izan zenak, 1520an *La coutume de la Soule* idatzi zuenak, eta 1521ean Bordeleko Unibertsitateko errektore izendatu zutenak Bazasen 1530ean argitaratu zuen *Opus quod Baptista Salvatoris…* delako liburua, hiri honetan moldiztegiratu lehena. Ohiko tramiteak karnetarekin eta 2015erako orain artekoa, dataz iragana zegoena zabaldu didate.

Latinezko obra hori ongi aztertu dut eskularru txuriz jantzita eta oharrak arkatzez hartu. Ondoren katalogo batzuk kontsultatu ditut, eta oroitu nola hemen bertan topatu nituen Garibairen errefrauak, Urkixok

galdutzat zeuzkanak, eta Francisque Michelek ukan zituenak. Baina horrelako aurkikuntzarik gutxitan…

Irailak 10.

Itzulera eguna. Atzo elkarrekin azken afaria *Le Vietnam* izeneko jatetxean egin genuen. Joxebak ez dakit nola eman zuen baietza, beno bai, alokatu pisu dotoretik gertu baitzegoen eta ez baitzaio gustatzen batere ibiltzea. Hasi ginenean eltze handi batzuetatik zopa xurgatzen, bere grazia apartaz *txerrijana* zela esan zuen, euskaraz erabiltzen dituen dozena erdi hitzetatiko bat. Besteok gustura jan genituen *rollitoak*, baporez egositako zizka-mizkak. Errestaurantea xumea da, baina era berean dotorea ere bada. Ekialdeko neska bat ari zaigu gelditu gabe mahaia zerbitzen. Nagusia ere adeitsua da eta, Margak dioenez, burusoil hau mestizoa da, ama vietnamdarraren eta aita frantsesaren arteko emaitza. Karmenek bere platera bukatu bezain laster, alde egin nahi zuen eta postreak ezin zitezkeela jan, zioen.

Indiok eta neronek, aldiz, oso onak zeudela genioen. Ez dut konprenitzen ahal nola pertsona batzuk adiskideen artean afaltzera esertzen direnean, gauza desatseginak esan ditzaketen janariaz, aldamenekoengan halako giro eskasa sorraraziz. Isiltzea hobe litzaieke, beste zerbaitez hitz egin eta lehenbaitlehen alde egin, eta ez itzuli inoiz jatetxe horretara; baina komentario horiek ez ditut batere gogoko, jan-edanak ez direnean erabat txarrak. Karmen eta Indio, ohiko ordutegia errespetatu nahiz, azkar joan dira beren apartamentura ihesi antzean, eta Marga, Marijose, Joseba eta laurok *Petit-Calvados* bat edatera gelditu gara hauen etxeondoan. Josebak, ohi bezala, afariaren ordez bi *petikalva* edan ditu eta Marga ere, xurrut pixka bat batekin animaturik.

Etxeko nagusiaren zain gaude, tea edan eta platano oso bat eta kiwi erdi bana jan ondoren. Maletak prest dauzkagu. Geltokian egunkaria erosiko dugu, eta poltsak kontsignan utzi ondoren, *Etrusques* esposizioa ikustera joango gara. *L'Officiel des spéctacles*ek ez dakar ikuskizun berririk eta etxeko nagusiak ere ez du albisterik ematen. Beraz, Margak deitu egingo dio eta berehala ez bada agertzen, alde egingo dugu giltzak karta-kutxan utziz, jada kafesnea eta kruasana jateko gogoa sartu baitzaigu. Aste honetan zer *porbextu* dudan, Eugeniok liokeen eran? Bada, ez bi bakarrik, sei pertsona nola ibil daitezkeen elkarrekin gehiegi haserretu

gabe, eta denon alde onak eta okerrak baldintzaturik… Nire susmoa da Margak eta biok beste bi bikoteen arteko zubi lanak egin ditugula…

Irailak 12.

San Telmo Museoko kafetegiko terrazan nago Ramonen zain. Haurrak jolasean ari dira futbolean, beste txikixeago batzuk kolunpioetan dabiltza neskekin, buila eta garraxi, errotatxori multzoa bailitzan. Ospitalean izan naiz Garrido doktorearekin eta lehen galdera ohikoa izan da, ea nola sentitzen nintzen, eta nik ba zer nahi zuen esatea, gerriko zainetako minaz at; baina bestela ongi. Erantzun dit TACaren arabera giltzurruna garbia dagoela eta ez daukadala deus gaiztorik bertan, eta nire oinazeek ez dutela garrantzirik. Hala beharko du, bada…

Irailak 16.

Okasiorako gordeta neukan tapa berde gogordun eta eskuz jositako koaderno honetan hasi naiz idazten gaur. Zirimiria ari du kanpoan, langarra, eta malkoek busti ez dituzten gazi-gezak diren oroitzapen hauei zerbait erantsi beharko zaie, nire burumuinetarik irten daitekeen isuri kresaltsua. Titulu gisara 2013 ezarriko niola ere pentsatu dut, baina ohartu naiz baditudala beste koaderno multzo beltzak, *moleskine* delakoak, zirriborroz, oroitzapenez eta oharrez beteak, eta bestelako titulu jeneralago bat egokiago iruditu zaidala. Espero dut batik bat Ramonen nobelaren inguruan gertatuko diren zertzeladekin orri multzoa betetzea eta sorrarazten doazkidan gogoetez aurrera joatea egunorozko honetan. Narrazio Sari Nazionalerako epaimahaiko hautatu ninduten, eta nire partetik *Martutene* eleberria hautatu dut. Okasio batzuetan Ramonek sari honi ez badio garrantzi askorik eman, oraingoan badirudi hainbeste urte, kezka eta gaixotasun sufritu ondoan, obra hau erditzeko ahalegin bat ere egingo duela Fortuna jainkosak sari dezan. Egiaz, merezia luke, baina ezaguturik barnetik sarien funtzionamendua, zaila ikusten dut.

Hasi naiz lehenik epaimahaian, sarian parte hartuko dutenen obrak irakurtzen, haien bizitza eta obrak ezagutzearren. Marcos Giralt Torrenteren *Tiempo de vida* (Anagrama, 2010) nobelak iazko saria irabazi baitzuen. Protagonistak, alegia, Torrenteren bilobak, bere aita pintorearekin izandako bizikizunak eta haren heriotza kontatzen ditu lehen pertsonan. Madrilen 2009ko apirilaren 16an bukatua da eta azkeneko

esaldia honakoxea da: *me gustaria conservar algo de lo mejor de mi padre para que le llegue a través de mi.* Hau da, protagonistak aita galdu du eleberrian, eta agian bizitza errealean ere bai, eta emazteak seme baten aita egin duenez, hari aitonaren izenaz deitzeaz aparte, haren nortasunaren alde onenak pasatu nahi lizkioke. Margarekin komentatu dut nola narratzaileak ez duen inoiz aipatzen bere izenaz aitak, banandu ondoren, duen maitalea, *la amiga que conoció en Brasil* eufemismoaz baizik. Errepikatu egiten duela behin eta berriro formula hori, eta erantzun dit espainolez ez duela frantsesez edo beste zenbait hizkuntzatan *amie* hitzak daukan indarra eta esanahia. Ez duela iradokitzen amorantea, maitalea edo ohaidea, eta gaztelaniazko *amiguita* tipierazleak mespretxu puntu bat ere baduela, besteetan ageri ez dena.

Hau bukatutakoan –eta aitortu behar dut erraz irakurtzen dela, baina ez zaidala iruditu gauza arina baizik–, Javier Cercasen *Anatomía de un instante* (Mondadori, 2009) hasi naiz leitzen. Bitxia, KMn ez zegoen nobelen sailean, historiakoen artean baizik. Badakit kontrazalean dioenarengatik 23Faz ari dela eta oroitzen naiz bere garaian irakurri nuela *Soldados de Salamina*, bai eta titulu bereko filma ikusi ere. Nire adiskide Francesc Massipek, orduan Fakultatean lankide zuenak komentatu zidala, ez zuela batere gogoko, arribistatzat zeukala, hau da, ez autore seriotzat. Ikusiko dugu hainbeste urteren buruan zer iruditzen zaidan historia-eleberri egun-eguneko hau. Giraltek hasierako orrialdean Nietzscheren aipamena badakar –artearekin kontatzen dugu egiak suntsi ez gaitzan–, Cercasek Danteren *Inferno* III-60ko terzetoa ezartzen du:

> *–Poscia ch'io v'ebbi alcun riconosciuto,*
> *vidi e conobbi l'ombra di colui*
> *che fece per viltade il gran rifiuto–.*

Irailak 20.

Ostirala. Donostiatik bederatzi eta erdietan atera gara laurok. Fini, Marga, Ramon eta neroni. Finik gidatzen du beribil eder bat eta bagoaz Nafarroa ezagutzera, zeren eta Ramonek Zinema Festibala zela-eta, deialdi gehiegixkoren beldurrez ospa egin nahi izan du.

Iruñea arte eguraldi kaxkarra, behelainoa dago eta aro aski ziztrina egiten du. Disko frantses batzuk entzuten gaude. Barbara… Eta Piti-

llasen gelditu gara lehenik. Herria gustatu zaigu. Oso txukun eta lasai dago dena. Eliza, ohi bezala, itxita. Apezpikuaren egoitza zena, Goñiren jauregia, obretan. Kasinoan sartu gara. Hantxe kafetxo bat hartu dugu saloi handiko barran. Gero lakurantz abiatu gara. Paraje lintzuratsu honetako hegaztiak ikusteko asmoz etorri gara. Oroitzen naiz Goiorekin izan ginenean hegazti gehiago zebilela eta lakua askoz ere ur gehiagorekin zegoela, normala baita udaberrian ur gehiago edukitzea uda bukaeran baino.

Iragarkiak irakurri ondoren, Olivako monasteriora joan gara. Elizarako eta kalostrakorako sarrerak erosterakoan bi hitz euskaraz egin ditut eta kalostra ikustatzen ari garelarik, fraide bat agertu zaigu, Azpeitikoa, zehatzago esateko Urrestillakoa, organista, meza zazpi hizkuntzatan ematen dakiena eta beneditarren historiaren berri euskaraz eman digu-na. Xumetasunaren laudorioa egin digu. Eta komentuko historia zehatz eta labur adierazi ondoren, esan digu, baratzeko lanez at, organoa jotzen duela eta bezperak zirenez, arropaz aldatzeko garaia. Sartu gara elizaren itzalpean. Ordubata laurden gutxi da eta hasi zaigu errezotan gaztelaniaz fraide taldea, bai eta kantari ere, baina nahiko era pobrean. Bukatutakoan, Zarrakaztelun bazkaldu dugu eguneko menu xumea. Gero Arguedasetik *La Virgen del Yugo*ko kapera eta Bardeak ikustera inguratu gara. Saiatu ere saiatu gara hemen barneratzen, baina bide lohitsu eta hautsez bete batetik abiatu ondoren, ordu erdira itxita aurkitu dugu eta itzuli beharrean aurkitu gara. Putzu batean kantari ari ziren igeltxoak gu entzun bezain laster jauzika hasi dira eta ur arrepera pulunpatu dira. Inguruan geneukan beribilera igo, gure Bardeetako asmoz paseo luzeak porrot egin du-eta. Tuterara iritsi gara. Hotelean utzi ditugu poltsak, eta leihotik begiratutakoan, hantxe ikusi dugu Ebro ibaia gure oinetan mantso-mantso doalarik ekialderantz. Prestatu, zapatak aldatu eta kristauak, juduak eta mairuak bizi zuten hiri honen karriketan zehar abiatu gara. Katedrala, juderia, Plaza nagusia. Patxada ederrean gabiltza eta hala Ramon nola besteak oso umore onez gaude. Jendetza dabil plaza inguruetan paseoan, eta tabernetan zerbeza eta ardoa edanez. Afari hasieran Ramon haserretu egin da gure aurrean eseri den bikotearekin. Bat bertakoa, txinatarra edo ekialdekoa bestea, eta ingeles kaxkar batean hasi direnean, ahots goraz atentzioa deitzeko gogoa eman digu. Ez ote dakite baxuxeago hitz egiten? Nork nori saldu ote zion ezer? Ardoa, barazkiak, oinetakoak, pabiloiak? Ardoa *García Burgos* da eta 14,5%

gradu dauzka. Halere, ez dut batere bortitza sentitzen eta hautatu janariekin ongi sartzen da. Bukatutakoan, berriketan hotelera, haren terrazan gin-tonica edan, munduari errepasoa eman, eta lotara.

Irailak 21.

Nabarmena da atzo gauean edandakoa ona zela, gaur goizean ez baitut sentitzen batere biharamonik, kazkarra denean gertatzen zaidan bezala. Lauren artean botila bat ardo eta beste bat ur edatearen ondorioa, hots, neurria izatearena. Seiak aldera esnatu naiz, eta errezelak zabaltzerakoan edo, zehazkiago esanda, biltzerakoan, ostertz gorrixta ikusten dugu urrunean muino luze eta ez oso gora baten ia luzera osoan. Ebro ibaiak hor darrai, ura bere bidean, zilarrezko argiaz eta aldameneko makal-ilarak, poplare xuriak zuberotarrek esango luketenez, uretan islatzen direlarik.

Ramon eritasunarekin erabat kezkaturik dagoen bezala, eta alabekin ere bai –ateratzen dituen argazkiak haiei bidaltzen baitizkie berehala–, Fini lasaiago delakoan nago. Trena entzun dut pasatzen baina leihoratu naizenerako joana zen, eta mendietako lerro arroxa urdintzen joan da erabat. Halaber, Ebroko uraren kolorea aldameneko zuhaiztien antzekoa, gero eta berdeagoa…

Hotelean bapo gosari txikia egin eta bagoaz Cascante, Tulebras eta Veruelako monasterioak bisitatzera. Cascante festetan dago. Kaleak zurezko langaz zainduak daude, enboladuak baitituzte, zezenen adar zorrotzek egin dezaketen zauria arintzearren larruzko bola batzuez estaliak, alegia. Gazteak zezenen aurrean korrika. Jende gehientsua galtza zuriz eta lepoko gorriz barreren atzean. Malón de Echaidek daukan estatuaraino igo gara, *Nuestra Señora del Romero* eliza barrokoan sartu gara, zabalik baitago. Inguruko parketik Moncayo ikus dezakegu, urrunean lautada hartatik galant, gora, ikusgarri altxatzen delarik. Jaitsi gara herrira, eta batzuek *vaquillak toriatzen* ikusten zituzten bezala, beste batzuk jada karrikan zehar antolatu diren mahaien aldamenean gosariko jan-edanak dastatzen ari dira.

Beribilera berriro igo, eta komentuak bisitatzeko gaur prest gaudenez, hiruzpalau kilometrora dagoen Tulebrasekoan sartu gara. Andereentzako Zisterrak Espainian eraiki lehen komentua, *Santa María de*

*la Caridad*i eskainia, hasieran Tuteran sortua 1149an *Santa María de las Dueñas* izenez, baina 1157an Tulebrasera pasatu ziren… Gidaria oso berritsua da eta, halako batean, jakin izan dut bi anaia izan zituela karmeldarretan Alesbesen, Aizkorbetarra da beraz. Oso Barcinaren kontrakoa ageri zaigu, bai eta erreginaren kontrako. Ez zaigu isildu. Ikusi ditugu pantokratorra, hiru aurpegidun hirutasun deuna eta Ama Birjina, *La Virgen de la Cama* deitua. Panpin baten antza du eta neskatila askok izen horixe bera hartzen dutela lurralde honetan dio ama Aizkorbek, *María de la Cama*. Propina on bat eta salgai dituzten ezti tarro batzuk erosita bagoaz, bertan gelditzeko esan baino lehenago.

Tarazonan, Gaztela, Nafarroa eta Aragoiko erresumen mugerri zen honetan, goiti eta beheiti ibili, eta katedraleko fresko gotikoak ikusitakoan, menu bat hartzera igo gara jatetxe on bat zirudienera. Ondoren, Veruelako monasterioko bidea hartu dugu. Bidean olibondo-ilara ederra ikusi dugu eta ohartu nola Moncayoko saihets hau benetan ikusgarria dela urte aro honetan, bederen. Arratsaldeko bostak hamar gutxi dira. 1146an eraikia, Aragoiko erresuman zisterrak sortu zuen monasterio zaharrena da *Santa Maria Veruelakoa*. Kalostra miresgarria da benetan, hilobiak beiraz tapatuak dauden arren. Mendizabalen amortizazioarekin ostatu bilakatu bide zen, eta XIX. mendeko bigarren partean, Zaragozako aberatsek bertan igarotzen zituzten denboraldiak, hala nola Bécquer anaiek, Gustavok eta Valerianok, zeinen obren espozizioa ikus daitekeen areto batean. Hemen idatzi zuen Gustavok *Desde mi celda* idazlan famatua, eta egiaz ospea ere eman zion lekuari.

Ramon beti bezain kritiko zorrotza izaten jarraitu arren, umoretsu dago une honetan eta Moncayoko magaletik ibilaldi luzexka egiten dugu Trasmozeko Gaztelutzarreraino, solasean. Itzuli, beribila hartu eta Tuterara berriro.

Irailak 22.

Tuterako egonaldia amaituta, erabaki genuen Fitero eta Naiara hiriak ikustera joan behar genuela, eta ondoren Ramonen aitak soldadusk egin zuen Mendigorriara, eta inguruan kokatua zegoen *Andelos* hiri erromatarra bisitatzera. Autobide berrietatik abiatu ginen, ezker-eskuin Errioxako mahastiak, muinoak ikusten genituela mahats-biltze garaiko

koloreez jantziak, eta iritsi ginen Fiterora. Herria oraindik erdilotan zegoela inguratu ginen monasteriora. Zisterrak 1175. urtean eraikitzen hasi eliza 1247an bukatu zuen Rodrigo Ximénez de Rada nafarrak, Toledoko artzapezpiku eta bai Huertako, bai Fiteroko monasterioetako mezenas handia zelarik.

Giuliano Bonfantek eta beste hizkuntzalariek Radakoak egin zuen Erdi Aroko europar hizkuntzen mapa horrelakoetan lehenetarikoa kontsideratzen dute. Beste hizkuntzen artean ezartzen dituela, *de la misma manera los Vascones y Navarros*… euskaldun eta nafarren hizkuntzak. Frantziako Clairvaux, Pontigny eta Kataluniako Pobletekoekin badu antzik monasterioak. Gurutze latinoa eta zutabeek banandu hiru alde handirekin, bost kaperarekin eta gurutzeari alde banatatik lotuta daude zirkulu erdiaren forma duten bi absiderekin.

Kafe bana hartu dugu irekita aurkitu dugun tabernatxo batean eta bagoaz 923an Santxo Garzesek konkistatu zuen hirira, Naiarara, zeinarekin Iruñea batuz eratuta mende eta erdi iraun zuen *Reino de Nájera-Pamplona* deituak. Santxo III.a Handia deitua izan zen hiriaren bultzatzaileetarikoa eta, Santiagoko bidean zegoenez, bertan ospitaleak eta elizak eraikiarazi zituen. Honen primua zen García Sánchez III.a (1035-1054) erregek Calahorra bereganatu eta *Santa María la Real* monasterioa artzapezpikuaren egoitzarako hautatu zuen. Ondoren, *Sancho IV el de Peñalén* (1054-1076) deitua etorriko da, Santa Mariako obrak bukatu zituena. Bertan, 1067an ospatu kontzilioan erabakitzen da erritu mozarabiarraren ordez erromatarra ezartzea. Peñalénen hil zuen anaiak, bertatik behera jaurtikiz. Naiaran izan zuen bere gortea Lope Díaz de Harok, Bilboko fundatzaileak XIII. mendean. Honen arreba Nafarroako erregearekin zegoen ezkonduta, eta Peire Vidal, Raimon Vidal, Aimeric Pégulhan eta beste trobadore okzitaniar eta artista askoren mezenasa izan zen.

Monasterioan Erregeen Panteoia iruditu zitzaidan ikusgarriena; hamabi errege nafar-errioxar dautza bertan; gehienbat Errenazimentu garaian moldatutako hilobiak dira, detaile plateresko batzuekin. Dotoreena ez bada, ederrenetarikoa Bizkaiako jaunarena, Diego L´pez de Harorena, irudi zizelkatu hunkigarriekin. Ongi portatu zela koplariekin Peire Vidalen bertso honek adierazten digu argi eta garbi:

Qui d'En Diego s'arranca,
Non a mestier mas que-s pona
O qu'om tot viu lo rebona
En privada pozaranza,
A lei de checa vilana
Recrezen, cor de putana,
Si tot'al taulat se lansa,
Ni·s ponha d'emplir sa pansa.

Hau da, libreki itzulita: Don Diegorengandik bereizten denak egiten duen hobena hain da handia, ezen buruz putzu beltzera botatzea besterik gelditzen ez zaion, hala nola neskatila bilaua, puta bihoztuna, janariz betetako mahaira jaurtikitzen dena.

Enrike IV.ak 1465ean hiria eta gaztelua Treviñoko kondea zen Pedro Manrique de Larari oparitu zion. Naiarak 1520an mugimendu komuneroan parte hartu zuen Karlos I.a enperadorearen kontra, baina errebeldeak Antonio Manrique de Lara, Naiarako Dukearen tropek zapaldu eta suntsitu zituzten tropa horietako buruetako bat Iñigo de Oñez y Loyola (geroago San Ignazio bilakatuko zena) izan zen.

Ramonen aitak soldaduska Mendigorrian igaro zuela eta hainbeste mintzatu omen zitzaion herri honetaz, non bertara joatea eta aldamenean dagoen *Andelos* erromatar garaiko hiria bisitatzea erabaki baitugu. Jakina da Ebro ibaiaren inguruetan ibili izan zirela erromatar kolonoak eta sortu zituztela hiri mixtoak, elebidunak, hala nola Calahorra (*Kala hiri*, hiri ederra), eta Alfaro (*Gracurris,* Grakoren hiria) eta Sertorio eta Pompeioren arteko guduetan, azken hau Iruñeraino iritsi zela bertan Pompaelo (Pamplona) eraikiz. Garai honetan *Andelos* hiria bazela ere aski argi utzi dute geratu diren hondakinek. Ptolomeok, gainera, hiri hau baskoien artekoa bezala ematen du, grezierazko izena emanez: *Andelos.* Iada XVII. mendean Moret historiagileak aipatzen zuen bere *Anales*etan. Kristo aurreko lehen mendeko etxe margotuak eta mosaikoak ageri dira. Horietan ikus daitezke fauno adardun bat tigre baten aurrean txilibitua jotzen, bai eta alfabeto iberikoz idatzitako inskripzio bat ere. Tamalez itxita dago, igande arratsaldea baita, eta Iturranduzeko urtegiak ikusi ahal izan ditugu eginiko paseotxoan. Beraz, pena handiz museoa itxita dagoelako, baina etxera itzultzeko garaia dela-eta,

udazkeneko paraje eder hauek ikusiz eta gozatuz pozik, bagoaz solasean Donostia aldera, Fini gidari.

Irailak 24.

Donostiako egunorokotasunean murgildurik eguerdi aldean Marga, Kontxa eta hirurok batelean joan gara uharteraino. Ni arraunean. Ormazabal tabernan tomatea, hegaluzea eta potxak bazkaldu ditugu. Siestaren ondoren, Principe zinema-aretoan Perlak saileko *Poziția Copilului* (Semearen postura) film errumaniar berria ikusten izan gara, hau da, egungo burgesiaren korrupzioa salatzen duena. Bere semeak gidatzean norbait hiltzen duelarik, gartzelatik libratu ahal izateko, ama burges aberats batek egin dezakeena. Zigarroa eskuan, begirada sakon eta ederra duen aktore honek semearen neskari esaten diona ere gogorra da benetan: *Ez zara oso ederra eta gainera paketearekin zatoz*. Europan zehar matriarkatua benetan zabaldua dela, eta amen semeekiko atxikimendu itsua norainokoa izan daitekeen adierazten du argi eta garbi. Zuzendaria, Calim Peter Netzer eta ama protagonista, Luminita Gheorghiu benetan oso onak, Berlingo zinema-festibalean Urrezko hartza irabaztera iritsi direlarik.

Irailak 25.

Madrileko Kultura Ministeriotik Sari Nazionalaren Narratiba modalitatean iritsi zaizkien proposamenak bidaltzen dizkidate, eta oraingoz honakoak dira: Almudena Grandes, *El lector de Julio Verne*; José María Merino, *El río del Edén*; Luis Mateo Díez, *La cabeza en llamas*; Clara Usón, *La hija del Este*; Ramón Saizarbitoria, *Martutene*; Ricardo Menéndez Salmón, *Medusa*; Alfons Cervera, *Tantas lágrimas han caído desde entonces*. Lehenbaitlehen lortu eta irakurri behar ditut ene irakurketa-oharrak jasoz.

Urriak 5.

Ramon eta Finirekin gure antzinakoak zein nolako bizitza zeramaten ikusteko egun pasa egitea eta Ekainberriko pinturak eta Lili jauregia bisitatzea erabaki dugu gaur. Joan gara Zestoara, beraz, eta bertan, aparkatzeko leku bat aurkitu ondoren, Udaletxera joan gara informazio eske; han prospektoak eta sarrerak eman dizkigute. Ebaki bana hartu, eta bagoaz polliki-polliki kobazulorantz.

Mariasun Landa, ez idazlea baizik eta mediku psikiatra eta Ramonen adiskide onarekin gelditu naiz, interesatua baitago Saizarbitoriak sari nazionala irabaz dezan, merezi omen duelako. Nik kontatzen diot nolakoa izaten den prozedura eta berak erantzuten dit irakurri berri duela eta gero eta sakonagoa, trinkoagoa eta indar handiagokoa iruditzen zaiola, *es una novela de novelas,* esaten dit gaztelaniaz. Idazleez eta idazteaz eskribitzen duen nobelistak burutua, afekto eta pasioen tratatu bat, garrantzi gutxi duten bizitza arruntak errealitate serioetan murgilduak, non ez zaien gelditzen bide bat edo beste hautatzea beste aukerarik, erabaki etikoak, Juliak gutunarekin hartzen duena bezalakoak. (Ramonentzat ere giltzarria da hau, garrantzi handikoa). Euskal errealitatea mundu moderno batean kokatuta dagoena, eta, bere ustez (euskal literaturan aditua ez izan arren), orain arte inoiz horrela agertu bakoa. Detaile bakoitzak, "dibinoak" dio, ezaguera eta transmisioa dakartzatela berekin, egun-eguneko gaiekin batera. *Martutene* kulparen, hobenaren izena ere badela, bertan orotarik dagoenez: ardura eta kezka, bidea zuzentzen duena, zoratzen dena, etsitzen duena, bururik altxatzen ez duena, bai eta irtenbide zinikoa aurkitzen duena ere. *Martutenek* barneak irauli eta gogoetarazi egin digu, munduan zer gertatzen adi-adi baitago egilea eta estiloaren koherentzia mantenduz, jadanik *Gorde nazazu lurpean* ipuin-luze bildumako ildoari jarraiki, irtenbidea bilatu behar die idealak zapaldu dituenei, zeren eta soilik sarreran aurki ditzakegu Flaubert eta Unamuno, baten *Maitasunaren ikasten* Jean-Baptiste Orpustanen itzulpenean, eta *Laino* Mikel Garmendiarenean. Hizkuntzen ezberdintasunez, idaztearen eta itzulpenaren funtzioaz, jokabide etikoaz…

Egia da, benetan, Ramon Saizarbitoria, zenbait literatur kritikarik azpimarratu duten bezala, oso gutxi ezagutzen dela Euskal Herritik kanpo, Bernardo Atxagarekin konparatuta. Senabrek, nire Salamancako irakasleak dioskunez, oasi bat deuskerien merkatuan, eta bere jokaera morala, bere beste nobeletako literatur helburuekin *(Hamaika Pauso…)* loturik dagoena, oso ausarta da eleberri honetan. Askok kontsideratu izan dute *Martutene* euskal literaturaren gailurra.

Urriak 21.

Arratsaldean ospitalera igo gara eta arratsaldeko bostetan neurologoarekin hitz egiten egon gara Marga eta biok. Lehenik, neronek kontatu diot nola gogoratzen nuen medikuek izendatu duten *amnesia general transitiva*, hau da, amnesia orokor iragankorra edo antzeko zerbait. Marga eta bion kontakizuna entzun ondoren, esan digu ez dela batere grabea, hamaika kasu ikusi dituela azken denboretan honelakoak eta jeneralean ez dela fenomenoa errepikatzen. Hala biz. Luis Mateo Díazen *La cabeza en llamas* eleberria irakurtzen ari naiz Easo Plazako terraza batean, eguraldi berezia baitago. Sargori baina orain arratsaldeko zortziak laurden gutxitan oso giro atsegina dago. Juankruzi urtebetetzea ongi igarotzeko desiatzera joan natzaio *Parsifal* musika-dendara, eta geroxeagorako geratu gara elkarrekin afaltzekotan…

Urriak 22.

Aspaldiko ezagun eta adiskide dudan Joexagus Arrietak, Parisen Marcel Prousten inguruan izango diren Itzulpengintzako Jardunaldiak direla-eta, honako gutuna bidali dit.

> Kaixo, Patri:
>
> Azaroaren bukaera aldera Parisen *"Les traductions de Proust"* gaiaren inguruan egitekoa den simposium edo kongresu baten berri iritsi zaidak. Gustura joango nindukek, baina oztopo nagusi bat zaukaat: neure frantses mintzatua zeharo herdoilduta zaukaat… Berehalaxe otu zaidak, ordea: Orpustan jauna, hi heu eta hirurok joango bagina, zer deritzok?… Prousten *"Du côté de chez Swann"*en lehen mendeurrenaren kariaz omen duk ospatzekoa kongresua, eta oraintxe bidaliko diadan programan ikus dezakeanez, Europako ez ezik Asiako zenbait hizkuntzatara ere (japoniera eta mongoliera, besteak beste) egin diren itzulpenak aztertuko omen ditiztek… Zer iruditzen zaik proposamena?
>
> Sarri artio, eta hire erantzunaren zain.

Ez da ideia txarra Joxeagusek proposatu didana, baina ez dut uste Jan Battit bere Ortzaizeko *Tipirena* kabitik ateratzeko prest izango denik, beraz, egin dezakedana da, Prousten bi itzultzaileak, Euskal Herria hain

txiki izanik ere elkar ezagutzen ez dutenak, elkarri aurkeztu eta elkarrekin bazkari on bat egin beren irizpide eta ikuspegiak truka ditzaten.

Urriak 23.

Iñaki Aldekoak bere aldetik bidaltzen dit korreoz bere testu laburra Sari nazionalerako, bertan lehenbiziko aldiz izan banintz bezala. Errepikatzen dit Ramonekin egin ohi den injustizia, ez delako edo gutxi ezagutua delako guretik kanpo. Eta beste… Editorearen kezkak eta desio ezin aitortuak…

Madrilen nagoelarik Caxaforumen bi esposizio ikusten ditut, bata Arte Japoniarraz eta haren eraginaz, eta bestea, Méliès eta zinemaren sorreraz. Ondoren, *Círculo de Bellas Artes*eko kafetegira joaten naiz lasai irakurtzearren. Arratsaldeko sei eta erdiak dira. *Blanquerna* liburu-denda katalanean ez dute Toni Salaren *Provisionalitat,* ez eta *Antonio Machado*n *Martutene*. Iñakiri deitu diot eta esan dit ministeriotik zortzi *Martutene* eskatu zituztela eta bidali zitzaizkiela. Ikusiko…

Urriak 24.

Madrilen nago Plaza del Rey, Kultur Ministeriotik gertu dagoen *Hotel Luss*on. Sarri bildu bide da irakaskuntzako langiledia *La Cibeles* plaza inguruan. Gelatik entzuten ditut helikopteroak hegan manifestarien gainetik. Oraintxe hasi dira oihuak eta sirenak. Tutuak eta adarrak, Zumarraga aldean esaten dituzten hitzak erabiliz. Bihar Narratibako Sari Nazionala emango dugu, eta ikusiko dugu nor ateratzen den garaile. Arnas literarioari eta egitura nobelistikoari, pertsonaien egituraketari begiratzen badiot, nabarmena da Ramonen eleberriak merezi duela irabaztea, baina auskalo. Hamar urtez eta hamar orduz egunero egindako lanaren fruitua baita, eta ez txantxetakoa. Irakurritako nobelei buruz atera ditudan oharrak errepasatzen hasi naiz.

Francisco Xosé Fernández Naval, idazle galegoaren *A noite branca;* Errusiako gau zuriaren irudia eskaintzen digu eta *División Azul*ean zeuden galegoen ibilerak Bigarren Mundu Gerran. Mila gudaritik gora ziren ekialdera joan zirenak, gehienak falangistak, baina baita presoak ere, promesa egin baitzitzaien joaten baziren zigorra laburtuko zietela. Pertsona errealez osaturiko nobela dugu hau, aski interesgarria.

Xosé Ramón Penaren *Como en Alxeria*, 60ko hamarkadan liberazioko mugimenduen arabera galegista baketsu eta sutsuen arteko harremanak aurkezten dizkigu. Cuba eta Aljeria. Fidel Castro eta Ben Bella, eta nola ikusten zituzten herrialde haietako erreboluzioak Madrilen eta Galizian bizi ziren gazte erromantiko batzuek. Haien artean Xosé Ánxel Vianak…

Ricardo Menéndez Salmónek idatzitako *Medusa*n Prohaska deitu fotografo, pintore eta zinemagile alemanaren bizitza-zertzeladak kontatzen dira. Sanz Villanueva irakasle eta kritikoak dioenez, narrazio hau gogoeta filosofikoaren mugetan aurkitzen da, eta kontraportadagileak esaten duenez, esperientzia estetikoaren izaera anbiguo, arazotsu eta zenbaitetan perbertsoaz ere mintzo da. Eta, *Anatomia de un instante*n bezala, areago dirudi saio bat, biografia bat, Prohaskaren obrari eta bizitzari buruzko ikerketa bat nobela baino.

Almudena Grandesen *El lector de Julio Verne (Episodios de una Guerra Interminable)* Gerra Zibilari buruzko bigarren tomoa aurkeztu dute lehiaketarako. Nino (Antonino) guardia zibil baten semea da Jaengo herrixka batean 1947an, eta oraindik noizbehinka herrian agertzen da gerrillero bat, *Cencerro* deitua. Beraz, gertakizunak 47-48-49 urteetan PCEk erabili eta gero okertzat joko duen estrategia gerrilleroaren inguruan harilkatzen dira. Hamar urteko mutikoa den Ninoren eta Pepe portugesaren arteko adiskidantza kontatzen da, eta Sierra Sur mendietan gertaturiko gorabeherak eta hilketak, non ohikoak ziren *el tiro por la espalda por aplicación de la ley de fugas*, hots, ihes legearen aplikazioz atzetik tirokatzeak. Esango nuke garaiaren ilun-garratz-bortizkeria, halere, ez dela behar bezala agertzen, ez eta elizaren ohiturekiko errepresioa.

Andrés Trapiello idazle oparoak *Ayer no es más* azken emaitzan memoria historikoa hartu du gaitzat, Leónen kokatuta. Nola errekuperatu behar ote dugu gure memoria historikoa? Zaila da benetan erantzuna. Historialariak inpartzialak? Mendeku bila ote? Ez da batere erraza ihardestea prentsa tartean dagoenean, eta interes partikularrak nahasten direnean. Walter Benjamin eta Hanna Arendten gogoetak ere aipatzen dira eta, azkenean, historiagile benetakoak, egiaren bila dabilelako eta "bereak", bere ingurunekoak salatu beharrean, herritik alde egin beharko du. Alegia, Leóndik ihesi joan beharko du, exiliatu, ez baitute onar-

tzen ezta unibertsitatean ere, non bere fama eta izen ona hedatua den arren, behekoek bere lanpostua gutiziatzen baitute, eta une honetan bere inpartzialtasunak ez dio balioko. PP eta PSOEko zenbaiten kontrako alegato garbia dela esango nuke, baina gehiago sakontzeko eska geniezaiokeen halako idazle iaioari.

Clara Usónen *La hija del este* ere aurkezten dute. Ratko Mladićen alaba Ana adiskide batzuekin oporretara joan da Moskura eta han fotografo batekin harremanetan hasten da. Honek eta honen adiskideek konturaraziko diote zein diktadura basa eta kriminala den bere aitaren gobernua; horren ondorioz bere buruaz beste eginen du, baina artean ixtoriorik ere bada. Adibidez, nazionalismoari buruzko gogoetak, ingeles irakasle judutar batek adierazita. Aberriarekiko maitasuna ez dela arrazoinatzen, sentimendu bat omen da. Pertsonaietarik batek dio, bost hizkuntza dakizkiela, hebraiera, ladinoa, serbiera, kroaziera eta bosniera, baina gauza jakina da eslabistek ez dutela bosniera hizkuntza ezberdintzat kontsideratzen, zeren eta gipuzkera eta bizkaiera bi hizkuntza ezberdin gisara kontsideratzea bezalakoa bailitzatekeen. *Patchwork* baten antza dauka eleberri honek, eta interesgarria izanik ere, esango nuke ez duela behar adina sakontzen tragedian.

Clara Sánchez adiskidea emankor dabil aspaldi honetan eta hautatu duen bidean emakume irakurle ugari ditu, hala nola *Entra en mi vida* deitu duen eta sarira aurkeztu hau. Haur bahituen gaia, aspaldi honetan prentsan hainbestetan agertu eta tratatu dena hartu du *leit-motiv* gisa oraingoan. Ama urrin saltzailea da, etxez etxe dabilena ahaleginetan ea noizbait alaba nonbait ezagutuko edo aurkituko duen. Alabak bide bera hartzen du, gezurretan dio unibertsitatera doala, saltzaile baitabil bera ere. Azken eleberrian bezalaxe bilaketa batean dago oinarrituta egitura.

Alfons Cerveraren *Tantas lágrimas han corrido desde entonces*… eleberriaz dio Ricardo Senabrek, hemen ez dagoela deus ere arruntik ez eta errazkeriarik, lege oneko literatura patxadan dastatu eta irakurtzeko. Egileak desterruko bidea tristea eta luzea dela agertzen digu, emigrazioarena, hobeto esatearren. Los Yenaresetik Orangeraino, eta handik, jada hogei urte paseak direnean, bere kide frantsesarekin amaren hiletetara itzultzen denean, haurtzaro- eta nerabe-garaiko oroitzapenak. Herriko taberna, zinema, behin eta berriro Orange inguruak. Teatroa eta beste guztia erritmo geldi batean, ilun eta triste agertzen digu, gaiari dagokion eran, batere esperantza apurrik gabe, Azorinen estilo minimalistan…

José Merinoren *El río del Edén* nobelak chicodown baten bizitza kontatzen digu. Aita-semeak badoaz motxilak bizkarrean hartuta emazte eta ama izan dutenaren, Teresaren errautsak laku batean uztera. Labetik igaro ondoren geratzen den kutxa lagun. Semea estralurtarrekin obsesionaturik bizi da, eta aitak pazientzia handiz jarraikitzen dizkio esaten dituenak, Teresarekin lakuraino joan zen lehen aldia oroitzen duen bitartean. Eta elkarrekin izan zuten bizitza, banantzeko arrazoiak, jeloskortasunak, eta nola une zail baten ondoren berradiskidetu ziren, tentazio guztiak gaindituz. Ongi idatzia izan arren, mantso, monotono eta errepikakor gertatu zait irakurketa. Inolako interes berezirik gabea…

Urriak 25.

Hementxe nago Kultura Ministerioaren ondoko *Revoltosa* izeneko tabernan laranja-zukua edaten, eta aurkezten diren nobelei buruz hartu ditudan oharrei errepasoa ematen. Hiru ordu laurden gelditzen dira bilera hasteko, eta atzera begiratuz, irabazi duten euskal idazleak gogoratzen ditut: Bernardo Atxaga, Mariasun Landa, Anjel Lertxundi, Unai Elorriaga, Kirmen Uribe, … Aurten Ramoni suertatuko ote zaio? Arantxa eta Marga oso animatuta daude eta merezia dauka, diotenez…

Biltzen gara María Teresa Lizaranzu *Directora general de Política e Industrias Culturales y del Libro* denaren zuzendaritzapean lau akademietako ordezkariak, unibertsitateko errektoreenak, literatur kritikoenak, kazetarienak, eta UNEDeko *Estudios de Género*koak, besteak beste. Hitza ematen zaigu eta nik prestaturik daukadan txostena irakurtzen dut:

> Por su gran aliento, dimensión ética y calidad de reflexión literaria mi novela preferida es *Martutene.* El valor moral de esta novela va a la par con su ambición literaria. Es una ventana abierta a la historia del último medio siglo y principios del actual en el País Vasco. Un tratado de afectos y pasiones (amores, desengaños, sentimientos de culpa en el ámbito personal y político)… y una novela atenta a los más minuciosos detalles del mundo que describe. Contiene una reflexión sobre el proceso de creación y la escritura. Un homenaje a Max Frisch y su novela *Montauk*, que los personajes leen y comentan adquiriendo ésta la entidad de personaje de pleno derecho. El tema del terrorismo, presentado como telón de fondo está tratado con valentía y profundidad. Se

> refleja con un gran conocimiento y sin concesiones la compleja sociedad vasca, el nacionalismo y su soporte mítico, histórico y antropológico. *Martutene* es una novela políticamente oportuna. Jon Juaristi, traductor de *Los pasos incontables* de Ramón Saizarbitoria, lanzó el reto de llevar al papel historias de nacionalistas. Saizarbitoria ha recogido el guante y aquí están con todo lo que puedan tener de noble y deleznable. En fin, se puede afirmar que *Martutene* contiene el hilo central del relato común al que aspira la gente de buena voluntad.

Darío Xohan Cabana Real Academia Galegako ordezkariak ere Ramonen obraren alde egiten du, bere balioak azpimarratuz, baina nabarmena da bertaratu kritikoek eta epaimahaikoek egina dutela hautua. Batzuek badute ausardia obra ez dutela irakurri esateko. Baldintza horiekin nola liteke epaile izatea onartzea? Pasatzen gara bozketetara eta jada nabarmen ikusten da nork irabaziko duen: bederatzi botorekin José María Merino, Ramonen nobelak zortzi jasotzen dituelarik. Hurrengo botazioetan banan bana eroriz joango dira, kritiko batek kalitatea dudan jarri gabe, *es una obra un tanto prolija*… azpimarratzen duelarik. Aukeratik erortzen denean, nire protestarik irmoena egiten dut, literatur injustizia handi bat egin dela azpimarratuz, baina alferrik da jadanik.

Urriak 26.

El surrealismo y el sueño, Dalí, Delvaux, Max Ernst eta besteen koadroak (espainolak, belgikarrak, frantsesak…) ikustera joan gara Tyssen-Bornemisza Museora. Ametsaren mundua. Beldurrak, izuak, gorputzen grabitate eza… Behin eta berriro datorkit burura atzoko saioa, Sari Nazionalekoa, alegia. Inoiz ez gehiago itzultzeko esaten dit Margak eta honetan nago neroni ere, behin berriro bentzutu gaituzte, galtzailearen estetikarekin eta etikarekin gelditu beharko dugu, Ramonek esaten duen bezala.

Urriak 28.

Astelehena. Lander Zurutuzak idatzi didanez, gaur arratsaldeko sei eta erdietan nik idatzi nuen *Zoazte hemendik* liburua komentatuko omen dute Lezoko irakurketa klubekoek eta bertan nire arreba Marikrutx egongo omen da, eta bilera informal honen ateak irekita omen dauzkat. Bertan agertzea erabaki dut.

Uste nuen baino irakurle gehiago daude bilduta. Marikrutx, Lander, Xabier Oiartzabal, Iñaki Zipitria lehengusua, eta beste dozena bat. Galderak egin dizkidate eta ahalik eta modurik arinenean erantzun diet. Denak oso gustura gelditu direla irakurketarekin, esan didate, eta Landerrek dio hirugarren irakurraldia izan duela oraingoa. Nik ere berriro irakurri dut egiten dizkidaten erantzunei behar bezala, taxuz eta moduz erantzuteko. Beraz, ordubete pasatxoko solasaren ondoren, basoerdi bat edan dugu elkarrekin, Marikrutxi musu estu bat eman diot eta Lezotik Donostiara itzuli naiz.

Victor Gómez Pin filosofo adiskideak gonbidapena pasatu digu azaroaren 15erako, hiru hizkuntzatan, frantsesez, gaztelaniaz eta euskaraz, azken honen bertsioa [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 49)]. Baietz, noski, hantxe egongo garela Marga eta biok erantzun diogu gustu handiz, zeren proposamena eta lekua oso maiteak baititugu.

Halaber, gaur bertan preseski Jan Battit Orpustanek beste gutun bat idatzi dit Joxeagus Arrieta eta Prousten inguruko gorabeheren gainean, bere aukera zein den adieraziz, zeren eta nire gutunean esaten bainion Prousten lehen liburukia itzuli duen Joxeagus Arrieta, hark egin itzulpena pasatu diodalarik, bera ezagutzeko eta elkarrekin egoteko gogo biziz dagoela, eta hala bada, zein egun eta zein ordu izanen liratekeen egokiak beretzat, ongi iruditzen bazitzaion eta gogorik baldin bazuen, noski, eta okasioaz balia gintezkeela otordu txukun bat egiteko ere, guri berdin zitzaigularik eguna, ordua eta lekua, berak aukera zitzakeela biak *Tipirena*tik hurbil. (*Gutunak* 50).

Urriak 31.

Margak oparituriko Moleskine berrian hasten naiz ohartxo batzuk idazten, eta lehenetarikoa Koldo Izagirrek Duque de Mandasena zen Liburutegian aurkeztuko duela goizeko hamaiketan *parisen bizi naiz,* minuskulaz noski, poesia-liburu berriaz da. Zortzigarrena alajaina, Gorka Arrese editorearekin batera. *Nontzeberri* kultura sareak honela aurkeztu du bere Interneteko sarreran:

> *…hiria eta poeta dira liburuko ardatz nagusiak. Territorio asko dituen lekua da hiria, eta liburuan hiria eta biztanleak, hiria eta kultura, hiria eta memoria, hiria eta hirigintza, hiria eta diskordia,*

hiria eta hizkuntza, eta abar, uztartzen dira, hibridatzen dira. Lan berriari buruzko zertzelada batzuk emateko orduan hauxe komentatu digute Susako kideek: "Nor ez da bizi Parisen? Montmartre eta Quartier Latin, matxinadak eta errege dekapitatuak, kantariak eta pintoreak, hango argia eta zubipeko biztanleak… Frantzia baino zerbait gehiago da Paris, estatua bera gailentzen duen urbe ideal eta batzuetan ametsezko bat. Parisen bizi dela dioen berberak, Berlinen bizi dela ere esango du geroxeago. Liburuak egitura argi bat dauka: lehendabiziko poema, Parisen bizi naiz; azken poema, Berlinen bizi naiz; eta liburuaren erdian, zubi handi bat bezalakoxea, Hautakritika baterako zirriborroa, irudi paradoxikoz betea". *Parisen bizi naiz honetan elkartzen dira: hiriburuen porrota, krisi politikoa eta poetaren heldutasuna…*

Baina egun horretako bideoa ikusiz, lehen poemaren hitzok gogoratzen ditut

…
parisen bizi naiz
marrutxipi izeneko auzoan
parisen bizi naizelako
promenatzen naiz sena doan bezain argi…

Dena minuskulaz, noski, eta garai bateko belusazko ahotsa zena aski elektrikoa bilakatu bide dena, mailua bailitzan hotsak kolpeka jaurtikiz, gogor kolpatuz, errabiaz errepikatuz…

Azaroak 6.

Refranes y Sentencias… 1596 aztertzen ari naizelarik, ohartu naiz Joseba Lakarrak eginiko edizioan eta Euskaltzaindiak argitaraturikoan baino askoz ere faksimile hobea plazaratu zuela Alfontso Irigoienek *Gran Enciclopedia Vasca*ko 1975eko moldaketan, Jesus Oregi bergararraren liburutegik hartua. *Koaderniloak* aztertuz, bestalde, nondik ateratzen zaizkio Koldo Mitxelenari 791 errefrau inguru izanen zituela, ez bada hiruko erregela aplikatuz, hots, 64 orrialderi 539 badagozkio, 94 orrialderi hainbeste, baina nola jakin gehiago zituela, Darmstadteko alearen kopurua eta Firenzekoarena berdinak badira? Eta nor da egilea? Liburuxkak ez dakar izenik, baina hipotesi gisa ez luke balioko honako

honek? Alegia, Esteban Garibai Madrilen gaixorik dago 1594an apoplexia-erasoa sufritu duenez geroztik, eta Iruñean dagoen Juan Idiakezen semeari bidaltzen dio –baina hau ez dago euskararekin oso ohituta– eskuizkribua Iruñeko Pedro de Porralisen moldiztegian argitara dezan?

Azaroak 7.

Joxeagus Arrieta eta biok bagoaz kontu-kontari nire beribilez Baxenafarroako Ortzaizerantz Orpustani bisita egitera. Hamabietarako geratu gara eta, garaiz iristeko, hamarretarako bidean gaude jadanik. Hamaiketarako Ortzaizen gaude eta herrian gelditu gara kafetxo bat hartzera. Ikusten ditugu mutiko eta neskato batzuk bere andereñoarekin euskaraz mintzo direla, *Mendi* ostatuko tabernaria, aldiz, frantsesez mintzatzen zaigu, gu euskaraz saiatu arren. Gero Irisarriko bidea hartu dugu eta Lakako erreka igaro ondoren, ia galdu gara. Azkenean, iritsi gara mahasti artean dagoen *Tipirena* etxaldera, Orpustanen egoitzara. Egiten ditut presentazioak. Beti bezain adeitsu eta abegikor ageri zait Orpustan, erakusten digu bere lan-aretoa, burutu dituen Prousten itzulpenak eta pixka bat beren xehetasunez mintzatzen uzten ditut, neu baratzera igarotzen naizen bitartean. *Aspalditxo honetan,* esaten dit, *kotaz erasotu izan nizanez geroztik ez dudala lan handirik egin bertan eta pixka bat abandonatua dagoela ikus dezakezu*. Bazkaltzeko tenorea da eta esaten digu gonbidatzen gaituela Ortzaizen bertan dagoen txoko on batera: *La ferme Gourmande.* Muinotxo baten gainean dago mendiz inguratuta eta bertako bistak izugarri ederrak dira. Otordua benetan ona eta ardoa ere bai. Solasa ere halako idazleen konpainian ezin iradokitzailego izaki. Beraz, laster arte eta elkarren berri izanen dugulakoan agurtzen dugu. Pozik, eta egun pollit bat, paraje ezin ederragoen artean igaro dugun sentsazioarekin itzultzen gara Donostiara, susmoa daukadalarik jelosiaz punttu batez joa dagoela, aitortu baitit, Jan Battitek nirekin zuela solastatzen ia beti, logikoa dena, bestalde, ni bainintzen ezaguna. Dena den, lan ona opa diodalarik agurtu dut Joxeagus, Firenzeko liburuzainak dioen bezala, *buon lavoro…*

Azaroak 8.

Biharamunean Orpustanek honako gutuntxoa [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 51)] igorri dit Hugues de Picon teatrogileaz zehaztasun zenbaiten eske eta Bernat Lehetez argitasun batzuk emanez.

Azaroak 16.

Gaur Pasai San Pedron Victor Gómez Pinen inguruan adiskide talde eder batek haren *Jakiunde* Akademian sartzea ospatu dugu. Muguruzarenean. Beti bezain umoretsu eta jeniala, ezerezaren eta denaren gainean solasik libertigarrienak asma ditzake derrepentean lagun honek. Eta bertan agurtu ditugu hainbat adiskide: Pako Ibañez, Jabier Etxeberria, Gotzon Arrizabalaga, Juan Ramon Makuso, katalanak, andaluziarrak, frantsesak eta euskaldunak. Errepublika ederra benetan. Bazkalondoan, sabela eta eztarria arrain frijituz eta ardoz ongi hornituak genituenean eta San Juan bistaurrean geneukalarik, hainbat kanta abestu ditugu, hizkuntza ezberdinetan. Euskaraz, gaztelaniaz, katalaneraz, frantsesez… Musika eta Filosofia gaur adiskide on bezala elkarrekin zebiltzan itsasoaren magalean, Pasaiako partetik…

Azaroak 17.

Goizeko seiak eta hogeitabi minutu dira. Margak beribilez ekarri nau Hendaiako geltokiraino, Annecyko bidaia hastera bainoa. Berari egingo dudan bidaia-tximista hau ere gustatzen ez zaionez, ni bidaltzen nau Annecyko liburu-enkantera, Mikelek egindako eskaintzari ezin zaiola ezezkoa eman eta… Irakurgai bezala, dudatan egon ondoren, ez dut hautatu Proust, Marcel Bataillonen *Érasme et L'Espagne* baizik, Drozek 1998an Genevan eginiko berredizioan. Jakina denez, liburu hau 1937an plazaratu zuen lehen aldiz eta Espainian Errenazimentu garaian gertatu ziren erlijio gatazkez eta mugimenduez argi handia ematen du, zeren nabarmen den bezala, urte askotako lanaren ondorioa izan baitzen. Lan sakon guztiek bezala, gutiziatzen naute, ikertzera bultzatzen, antzeko egoera gure Euskal Herriko XV. eta XVI. mendeez material batzuk jadanik bilduak ditudanez. Ez legoke gaizki Delibesek buruturiko *El hereje* bezalako zerbait idazteko gai izatea ere. Baina ikerketak galdera asko ditu erantzun jakinik gabe, nire aldetik bederen. Zeintzuk izan ziren Donostiako portuan 1525ean sartu zituzten liburu erasmistak? Zein jauntxok irakurtzen zituen? Eta Bilbon? Eta euskal testuei dagokienez, argitaraturikoak alde batera utzita (Etxepare, Lazarraga, Leizarraga, Betolaza, Garibai?), non ote daude Santxo de Elsoren dotrina eta Juan de Undiano, Joanes de Larrumbide, Arnaud de Logras, Jean de Etchegaray eta Bertrand de Zalgizeren eskuizkribuak, poemak eta antzerkiak?

Parisen hamabi eta erdietan nago. Hartzen dut 91 autobusa eta banoa arin Lyon-go geltokira ordu erdi eskasean. Garaiz bainabil, *Restaurant Le Train Bleu*ra igotzen naiz eskailera dotore batzuetatik eta prezioei so gelditzen naiz une batez. Menuak garestiak izan arren, baina areto nagusian mahairik libre ez dagoenez, aldameneko sala ttiki eta pollit batera pasatu naiz, eta espazioak biderkatzen dituen ispilu handi baten aurrean eseri. Eskatu dut arbelean ageri den gigota, azpikia eta ardoa eta beste salako menuaren prezioaren erdian ongi elikatu naiz. Patatak Ambesteko eran benetan gustagarriak, *Sancerre* gorria ere bai. Godeletak hamabi euro balio du, eta jakina da batzuentzat Errioxako ardo aski on bat eros daitekeela gurean horrekin, baina halere lekuak, espazioak eta lasai itxoiten egoteko gune honek merezi du. Leihotik beirazko dorre karratu bat ikus daiteke, goian *Mattei* marka dakarrena. Hona sartzen denak badaki jatetxe garestia dela. Espainol batzuk sartu dira eta botila ur bat edan ondoren, alde egin dute karioa dela esanez. Bi emakume, urtetan sartuak, elkarri eta aretoari fotografiak ateratzen ari dira. Alemanak, espainolak, frantsesak… Izkina batean maistra-itxurako bat betaurreko handiak eta ezpainak estu, ilajea ez oso garbia, ordenagailuarekin jolasean ari da. Behar nuen honelako lasaitasuna eta bakarrik egoteko patxada. Lasai itxoiten, inoren deirik espero gabe, sofa gorri ezin hobean eroso.

Le Monde egunkaria erosi diot igaro den pakistandar antzeko kazeta-saltzaileari, baina ez dakar gauza berezirik. Frantses futbol-selekzioaren porrota Kieven eta, horrela, denbora pasa, *cafe gourmant* bat eskatu dut egunkariko orrialdeei errepasoa ematen diedan bitartean. Une batean intelektual tankerako hiru frantses sartu dira eta, bakoitza bere ordenagailuarekin, nire aldamenean eseri dira. Gunearen, espaziotxoaren inbasioa bezala sentitu dut, baina oso heziketa onekoak izaki eta ea molestatzen ninduten galdetu didatenean, *paditu* erantzun diet. Noski, ezetz. Sigmund Freudi buruzko artikulu bat irakurtzen ari naiz, ametsak, artea eta gizonaren gorabeherak tratatzen dituen liburuaz mintzo dena. Irten naiz jatetxetik kanpora eta geltokiko zoko bateko *Cafe-tabac*ean kafea eta *petikalva* eskatu dut, oraindik denbora itxaron behar baitut, eta zenbat den, berehala ordaintzearren, baina geroago ordainduko dudala edo antzeko keinua egin dit. Aurrez aurre neskatila bat negarrez. Pollita da, argala, fina, eta anaiak etxeratzeko eskatzen dio, berak, aldiz, ez duela nahi. Errusiarrak, portugesak, orotarik igarotzen dira taberna

multikultural honetatik. Albert Camusen jaiotzaren mendeurrena denez, bada idazle handi hari buruzko ikerketa eta artikulurik bazterretan. *Le point*ek atera duen ale berezia erosi dut. Gaztetan irakurria, garrantzi handia izan zuen nigan ere, eta oroitzen naiz nola EUTGko liburutegian bere teatroa irakurri nuen *(Caligula, Les justes…)* eta Diputaziokoan *La peste*. Bostak laurden gutxi arte ez dago trenik. Iritsiko ote da Mikel? Autobusa hartu ordez, Metroa-edo hartzeko asmotan zebilen. Trenean topo egin dugu elkarrekin.

Annecyn *Hôtel Alexandra* tren geltokitik gertu dago. Gela ttikia eta garbia. Gauzak bertan utzi eta afaltzera joan gara. *Chez Mami*n, alegia, Amatxi baithan. Mikelek idi-txuleta bat eskatu du eta nik tabernariaren iradokizuna, hau da, gasna beroa inguruan entsalada eta bertako txerrikiekin, urdaiazpikoa, saltxitxoia eta izokin xerra batzuk. Jende gaztea dabil. Igande gaua da eta, paseotxoa herria ikusiz emandakoan, hotelera abiatzen gara lotara.

Azaroak 18.

Telebista piztuta daukat ordua jakitearren, erlojua gelditu egin baitzait. Zortziak. Pixka bat lehentxeago entzun dut aldameneko gelan, Mikelenean irratia espainolez mintzo. Mikelen kezkarik nagusietakoa euskararen egoera da, eta gero eta traketsago hitz egiten dela, ez garela naturaltasunez adierazteko gai, adibidez, berak eta bere anaiak elkarren artean daramaten konbertsazioa bezalakorik. Ez duela batere gozatzen jendearekin hitz egiterakoan, eta eskas mintzo direnekin nahiago duela espainolez hitz egin, beste dena faltsukeria dela, nazionalismoa… Baina laguntzen ahalegina egiten ari direnei guk ere geure ahalegintxoa eginez laguntzen ez badiegu, nola arraio ikasiko dute?

Azaroak 19.

Ez da lehen aldia Mikel Annecyn dagoena. Aurrekoan hegazkinez etorri zen Genevan barrena, edo berak dioen bezala Ginebratikan, ikusi zuenean Interneten liburu zaharren enkantea zegoela eta XVI. mendeko gaztelaniazko zenbait liburu tartean (Garcilaso, *La Celestina*…) eta baita Oihenarten edizio bat ere. Inoiz ez dio Milak trabarik ezarri bere afizioan eta esaten omen dio, *ongi pasatuko duzula pentsatzen baduzu, joan zaitez*. Atzo arratsaldean jasotako katalogoa eskuan, gaur ordubi eta erdietan hasi da enkantea. Hogeita bost esalki ezkerraldean eta beste

hainbeste eskuinean. Mahai gora batean 60 urte inguruko bi andere laguntzaile, kontu makina bati joaz, eta gizon heldu bat prezioak aldarrikatzen. Enkantean diren partaide guztiek baitituzte beren zenbakiak, eta balioa aldarrikatutakoan, batek bere zenbakia altxatzen badu eta beste inork ez, epaileak mahaian kolpea jotzen du eta liburua edo liburu multzoa bere kaxarekin alde batera uzten dira. Liburutegi aberatsena Paraguayko enbaxadore batena da. Batzuk beste batzuen izenean daude telefonoz enkantearen martxaz norbaiti kontatzen eta haren aginduak betetzen. Gaurkoan Mikelek ez du aurkitu beste aurrekoan izan zituen joia preziosorik eta hamaseigarren mendeko bi liburuxka bereganatu ditu aski prezio altuan zeudenean, eskua altxatuta.

Azaroak 20.

Atzo lakuko inguruetatik ibilaldi luze bat egin nuen eta gaur goizeko bostetan esnatu naiz. Beste ordu eta erdi gelditzen zait alferkerian izarenpean egoteko. Seiak eta hogeita bost direnean berriro begiak zabaldu eta jaikitzeko ordua da. Bainuan nagoela telefonoak jo du, egunonak emanez, *bon jour, merci* erantzun diot eta jantzitakoan motxilan gauzak sartu, behakoa eman ea bazterren batean zerbait ahanzten dudan eta banoa eskaileratan behera. Hoteleko zaindariari ere egunon esan eta banoa geltokira. Eskatu dut kafesnea eta kruasana. Aski arrunta da dena, geltoki gehienetan ohi bezala. Bagoian nire eserlekuan jarri naizenean hasi naiz deuskeria hauek idazten. Mikelekin geratu naiz, berak hurrengo trenaren tiketa hartu baitu, Montparnasseko geltokian Hendaiako bagoian egongo naizela zain. Beraz, ordu batzuk patxadan atzo zortzi euroz erosi nuen eta berriro irakurtzeko gogoa neukan Marguerite Yourcenaren *L'Oeuvre au Noir,* gaztelaniazko itzultzailearen hitzetan *Opus Nigrum* dena, dastatzeko aukera.

Pico della Mirandolaren *Oratio de hominis dignitate* otoitz batekin hasten da, zeinetan Jainkoak dioen gizonak duen guztia kontenpla dezan eta bere buruaz gogoko duena egin dezan ezarri duela gizona munduaren erdian, horrela bere izaeraren zizelkari izan dadin. Trena abiada hartzen ari da eta, eguna aski grisa izan arren, argitzen. Soroak, zuhaitzak eta etxeetako teilatuak zuriz jantzita daude. Elurra ari du. Elur malutak oso finak dira, baina berotasunak urtu arte soinean itsasten diren horietakoak. Une honetantxe trena astirotxo doa. Elurra gogotik,

eta abisua pasatu dute Parisera ordu laurden beranduago iritsiko garela. Paisaia, mendiak zuri-zuri, ikusgarri.

Hamabiak eta berrogeita hamahiru minutu eta jada Montparnasseko geltoki inguruko errestaurante batean nago eserita. *Une salade niçoise et un verre de vin blanc pouilli fumée* eskatu dut, zeren eta atzo gauean Annecyn egindako afarian *potofea* beroegitxo baitzegoen. Mikelek telefonatu dit. Bera garaiz iristen ez bada, nahiko atzerapenez baitabil, hartzeko lasai nire trena. Margak ere deitu dit esanez Bordelen ikusiko dugula elkar, bagoian. Eskatutako ardoaren ordez beste txuri zatar bat atera didate, baina zer egingo diogu, bada. Turismoa horrela mantentzea espero dute paristarrek?

Atzoko afarian eztabaida sakon eta luzea izan genuen irakaskuntzaz. Beatriz Otaegiren kausaz hasi zen eztabaida. Ez zen izan gauza Mikel, Lasagabasterren hileta-elizkizuna amaitutakoan, gelditzeko basoerdi bat edaten bertaratutako irakasle batzuekin. Inorekin ez hitz egitearren, alde egiten du basurde baten gisara, bere bakardadea, anonimotasuna zaintzearren. Eta gertatu zaizkion faltsukeriez mintzatzen hasi zitzaidan. Behin Baleriano Yartzak, Institutuan zuzendari zelarik, esan ziola *no me eches a los padres encima.* Alegia, bera esijentea zenez, zuzena, behar zena eskatzen ziola taldeari, hau da, ustea zeukalako mailaz gora igo behar zituela, eta ez ziotela hori egiten utzi. Galdetu nion, ea nor zen mintegi-buru eta erantzun zidan Beatriz zela, eta erantzun nion hark zuela errespontsabilitatea, baina agian antzinatasunez kargua edukitzeko eskubidea berak zeukanez, hala izan balitz, orduan gai izan zitekeela esijitzeko, baina berak bezala neronek eta beste zenbaitek karguak eta hauen zamak besteen eskuetan utziz gero, halako ondorioetara iritsiko ginela pentsa genezakeela. Ez zegoen batere ados, legea betearazi egin behar zela zorrozki, eta arrazoi osoa zeukala, zioen. Azken unean korrika eta presaka ia trena martxan zegoela igo dela trenera. Eta kontatu dit *maestra* batekilako abentura. Bordeletik Hendaiarako bidean Marga igo denean, berriro barre aski eginez kontatu digu berriro. Balisa garraiolari nola ibili den eta nola musu batez eskertu dion andereñoak laguntza…

Azaroak 24.

Joserra Gartziak Lugaritzen hitzaldia duela eta *Bertsolariak eta Bardoak* hizpide, hantxe egon gara Mikel eta biok. Metaforari hain denez

atxikia Joxerra, bat-batekotasun fenomenoaz argi eta garbi mintzatu zaigu, Interneten eskuz hitz egiten den legez, bertsolaritzan ahoz idazten dela, dio. Errefrauak badio *Zerri goseak ezkurra amets,* berdin sor daitekeela gure egoerari egokituz *Herri aseak gezurra amets*. Entonazioaren arazoez, gazteen jergez, gaien lerratze ideologikoez… Eta garbi dago, bertsolari-eskolen ondorioz, ez dutela ikasi kantatzen, silabeatzen baizik, eta gaiekiko lerratzea tamalgarria dela, noski, eta salagarria. Bi iradokizun besterik ez ditut egin eta, handik *Oliyos*en basoerdi bat edatera atera garenean, Mikelek adarra dexente jotzen dit hitz egiteko erabili dudan doinuagatik.

Abenduak 1.

Igande goiza. Hamabietan Mikel Hernandez Abaituak hitzaldia ematen du Larramendiri buruz. San Telmo Museoko lagunek egin diote gonbidapena, eta hitzaldi bat euskaraz urtean egin behar izaten baitute, berari suertatu zaio aurtengoa. Ongi azpimarratu du andoaindarraren garrantzia, aitortuz Blanca Urgell dela gai horri buruz gehien dakiena, tesia Larramendiren hiztegiaz egin zuenez. Baina Mitxelenaren kritika ez du, nik uste, behar adina azpimarratu, hots, hiztegiaren bi akats nagusiak. Bat bertan egiten dituen etimologia barregarriak, eta bi asmatzen dituen hitzak, hainbeste, gainera, non zaila egiten den bereiztea hiztegian zein den hitz lege onekoa, hau da liburu zaharretarik eta herritik jasoa, eta zein hitz bere irudimenak asmatua, horrekin garbizaletasunaren jaidura eta ondoriozko testu askoren ulergaiztasuna sortuz.

Museoko tabernan zuri bat edan dugu eta Montse Fornellsek, garai batean Errenteriako Institutuan nire lankidea zenak eta orain antolatzaileen buru denak, galdetu dit ea hurrengo urtean emango ote dudan nik nirea, *te animas, Patri, a darnos una conferencia el año que viene*, eta halakoetan ezezkoa ematen ez bainago ohitua, baiezkoa eman diot eta horretan gelditu gara. Badaukat datorren urterako hitzaldi bat konprometitua, beraz.


Abenduak 12.

Idoia Estornesek Isaak Israeliren irudi batekin, emakume bat etzanda irakurtzen, honako felizitazioa bidali dit*: Eguberri ta Urteberri on opa dizuet, gomendatuz zerrenda hautatu bateko autoreen liburu bat oparitzeko*. Eskertzekoa detailea.

Juan Marqués poeta madrildarra eta Ramonen liburuaren zuzentzaileetarikoak aipatzen dio honi, nola *El País*eko kritikoek urtean 800 edo 900 liburu jaso ohi dituzten, eta oroitu direla *Martutene*z, hain zuzen Javier Rodríguez Marcos, oraingo *Babelia*ko zuzendaria eta Fernando Valls. Eta eransten du gaztelaniaz, noski:

> *Pensarás que no es mucho, pero teniendo en cuenta las presiones que recibe esta gente, o dados sus propios intereses en adular determinados nombres y empresas, y al margen de las tiranías de las modas, de verdad tiene mérito que tu magnífica novela haya ido dando codazos y abriéndose paso entre la vulgaridad para constar en esta lista. Es, créeme, mucho más testimonial de lo que pueda parecer. Tal y como son las cosas, esos dos votos son reparadores*.

Lekukotasunetik areago doala, alegia, nobelaren titulua agertu izana, baina jakin ere badakigu Valls delako hori izan zela *Martutene prolija* izateaz mintzatu zena, besteak isildu zirelarik. Baina ez al du eleberrigileak bere sormenak aginduta ixtorioak nahi duen eran eta tamainan kontatzeko eskubidea, eta ez merkatuaren kantitateari, hots, nobela ongi saltzeko editoreen iritziak eduki behar duen orrialde kopuruari makurtzekoa? Edota zertarako daude sariak ez bada kalitatea sariztatzeko eta merkatuari aurre egiteko? Damutu ote da Valls esandakoaz? Ez dut uste.



Irudia 85: Gerolimo della Sommaia, BN Firenze. MS magl. Cl, VIII, 25, ff. 113,114).

2014

Urtarrilak 4.

ALDAKETA handirik gabe hasi dugu urtea. Banoa teniseko gimnasiora goizetik itsasoa begi-bistan dudala bizikletan eta arraunean aritzera, eta eguerdi aldean Mikelekin basoerdi bat hartzera. Gaur Ramonek idatzi dit, eta dioenez, *Lagun* liburu-dendara joango da Chirbesen azken nobela erostera. KMren aurrean topo egiten dugu elkarrekin eta nik ere *En la orilla* erosten dut, eta gogo biziz hasten naiz irakurtzen.

Urtarrilak 10.

Patxi Zubizarretak idatzi dit. Oso gutxitan hitz egin dut berarekin baina mutiko zintzoa eta saiatua iruditzen zait. Hona bere eskaera, zeini berehala eman diodan baiezkoa, zeren eta zalantzarik gabe ez baitira oso ugariak euskaratik gaztelaniara itzulitako antzerkiak. Egia ote ontzi komunikatzaileen teoria funtzionatzen hasi dela?

> Agur Patri, zer moduz?
>
> Ikusten duzun bezala, Patxi naiz eta mesede eske natorkizu: oso oker ez banago, ezagutzen duzu *Atenea* argitaletxea eta Matilde, bertako burua. Kontua da *Ohe deseginak* antzerki-lana edizio elebidunean argitaratzekoak direla, eta, hitzaurre faltan, zure hitzak iruditu zaizkigula egokienak; niretzat proiektua behar bezala agertzea izango litzateke eta horretarako baimena eskatu nahi nizuke.
>
> 1001 esker –berriro ere– eta nahi duzun arte

Urtarrilak 11.

Ramonek esaten dit kezkatuta dagoela, ni batere arduratuko ez nintzatekeen arren, Chirbesen nobelaren irakurketa kostatzen ari zaiolako, eta utzi egin duelako. Nik, une zailak gaindituz bukatu dut, eta egia da lehen partea gehiago gustatu zaidala bigarrena baino. Gauza interesgarriak ditu, baina ez dit asebete, gehiegixko errepikatzen baita, ene uste apalez.

Abbadia jauregian –batzuek *Abadia* gaztelua idazten dute, baina egileari fideltasuna zor zaionez, berak izena idazten zuen eran jarraituko dugu–, izan dugu bertako kaperan ekitaldi poetikoa, *performance* horietakoa, bi gazte eta bi zaharrek, Ekhiñe Egiguren, Fernando Morillo, Natxo de Felipe eta neronek, eta Mikel Asurmendik bere blogean ekitaldiaren berri ematen duenez, hona ekarri dut, oroigarri gisara, (a, historialaria naizela dioenean, erabat harriturik utzi nau tituluarekin):

> Patri Urkizu historialariak, Fernando Morillo zientzialariak eta Ekhiñe Egiguren poetak Abadia zenaren historiaren eta istorioen abarora arrimatu gintuzten tokiko kaperan. Guk liburutegian nahi genuen zertu ekitaldia, toki epel goxo-*agoan,* literatur menturazaleoi dagokigun menturan. Alabaina, antza, bertako "mamuek" ez zuten elkar aditu eta kapera hotzera bideratu gintuzten. Mamuek ez zuten ongi hartu elkar, edo ontsa baino hobeto zuten konfabulatu gure kontra. Hots eta hotz!
>
> Edonola ere, Patri, Fernando eta Ekhiñe-ren istorioen bidez, izarigabea den Abadiaren historian beste urrasño bat eman genuen. Adibidez, Antonen anaia Arnauden jite borrokalaria ezagutu genuen. Anton baino gerlari-*agoa* izaki, nonbait. Ehiztaria. Harrapakin-*agoa*. Hots, Anton liburuen artean geratzen zeino, Arnaud Virginie (Vincent de Saint Bonnet) emaztearekin ihalozka ibilki zebilela laxo. Barkatu, alde *freudiarra* jalgi zait.
>
> Abadiaren obraz amiñi bat gehi-*ago* jabetu ondoren, hotzak eta hotsak tarteko, tokiko barrunbeetara jaitsi ginen. Iraganeko eta gaurko supazter ondora, mamuen txokora. Hitz eta pitz, eta zizka-mizka jardun genuen giro epelean. Liburuak maitatzeaz beste –mamu ez bihurtzeko– sabela ere behar baita bete.
>
> Abadiak "ez ikusi, ez ikasi!" leloa utzi zuen idatzia gazteluan. Guk gazteluko "mamuak" ikusi ez, baina sumatu bai, baita nork bere izenari bere izana *gehitu* behar diola ikasi ere.
>
> Post-scriptum: Abadia Gazteluan bildu zen publikoaren artean Oskorriko Natxo de Felipe kantaria zegoen. Patri Urkizuk gonbidatu zuen ekitaldiaren amaieran kantatzera, baita kanta zoragarria eskaini ere. *A capella*, aipatu kapelaren aldarean.

Otsailak 2.

Une honetako koadernotxoa galdu dut baina saiatuko naiz egun otsaileko egunetako gorabeherak oroitzen. Larunbatetik iganderako itsaso zakar gaiztoak gure txalupatxoa, *Bateliko* (7ª-SS-1-51-05) popaldean kanpoko motorra eta arraun batzuk zituena desagertarazi egin du. Portura nindoalarik Kontxaren parean Mikelek deitu dit esanez gure ontzia ez dela ageri. Badira batzuk denboralak hondartzara eraman dituenak. Gurea non ote? Harri eta zur gelditu naiz kaira pasatzea debekatzen duen zinta igaro eta *Deba* pantalanera inguratu naizenean, zeren han beharko zukeen gureak. Baina itsaso zakarraren bortitzak eta indarrak moilako harlauza handiak askatu ditu eta pantalanen gainera bota, eta ondorioz ezker aldeko lehenbiziko hiru ilarak eta beraiekin ontziak hondora joan dira, edota auskalo nora eraman dituen.

Otsailak 8.

Aste osoan joan izan naiz goiz eta arratsaldez ea *Batelikoa*ren aztarrenik aurkitzen nuen. Eresiren bat ere dedikatu diot ontzi galduari. Hitz egin dut hemengo Euskal Kirol Portuko buru egiten duen Luis Forkada errespontsablearekin eta erabiltzaile guztiei behar bezalako abisua eman ez dienarekin. Batzuei bai, ordea, erretira zezaten eta babesean ezarri, eta une batean esan dit ikusi zuela bokatik aurrera ontzi bat itsasoratzen, eta gurea ote zen. Bekatua du, baina hain da harro non dirudienez ttikien kontuak ez zaizkion axola batere. Erabat haserre utzi nau. Tartean buzo batzuek ondotik urazaleratu dituzte ontzi zenbait. Gaur iritsi zaigu jubilatu frantses batek bidalitako fotografia, *Biscarrosse*ko hondartzetan aterea, eta kokalekua zein den adieraziz:

https://www.google.com/maps/place/
4°30’07.0%22N+1°15’00.1%22W.

Badirudi egoera onean dagoela, argazkiaren arabera, motorra eta arraunak galduak izan arren.

Otsailak 9.

Hain izan da handia jubilatu frantsesaren albisteak eman digun poza, non berehala prestatu dugun *Kantauri*ko langileekin bidaia Biscarrossera, erremolke batean bueltan ekartzeko esperantzarekin. Iritsi

gara Biscarrosseko hondartzara, galdetu dugu ezer badakiten bertako bulego batean. Eguerdia da eta ez dakite deus ere. Topo egiten dugu Kantaurikoekin, baina nola ez dakiten tutik ere frantsesarenik, nahiko lan hauek hemen konpontzeko. Koordenaden arabera, eta mapa on batekin, bagoaz iparraldera Arcachongo bidean, eta esan diguten sarreran saiatzen gara hondartzara hurbiltzen. Hain dago hondarra bigun, non beribilak ezin baitaitezke sartu. Abiatzen gara hondartzan *Kantauri*ko langileak eta biok gora eta behera ziztu bizian *Bateliko* aurkitu nahian, baina ez dugu topatzen. Surfista batzuei galdetu diegu eta esan digute baietz, ikusi dutela eta ea laguntzarik nahi genuen. Nola operazioen buru Marga den, frantsesez bera denez hobekien moldatzen eta laguntzarik ez duela behar erantzun duenez, itzuli garenean hor ikusten dugu gendarmeekin mintzatzen. Esplikatzen diegu dugun arazoa, eta esaten digute, *nous n'avons pas de moyens,* ez dugu mediorik eta *amolai.* Dozena erdi bat erakundeetara deitu du eta denetan berdintsu, ez diote gauza zuzenik erantzuten, edota laguntzarik proposatzen, batak besteari botatzen dio pilota, eta *izorrai.* Kantaurikoak ekarri duten furgoneta ere ez da egokia hondartzan barrena ibiltzeko eta beraz, etsiturik, erreskate operazioa frakasotzat jo behar dugu eta esku hutsik itzuli Donostiara, nire amorraziorik handienarekin batelikoa nonbait han inguruan egonen baita.

Otsailak 10.

Jubilatu frantsesak, gizon benetan fin eta, gutunen arabera, serioak beste argazki bat bidali digu, nondik ageri den *Bateliko* ez dagoela lehengo lekuan, eta traktore baten urratsak azaltzen dira han hondartzan. Beraz, *Kantauri*koek lortu ez zutena, partikular batek, hots, ohoin frantses batek lapurtu digula ontzia, ernegazioa handitu besterik ez zaidalarik egin.

Prentsak dakarrenez, otsailaren 2 eta 3ko denboraleak eragindako kalteak konpontzeko 10 milioi euro bideratuko ditu Espainiako Ingurumen Ministerioak, Donostiako PPk gaur egindako agerraldi batean jakinarazitakoaren arabera. Hain zuzen ere, Madrilek 15,7 milioi bideratuko ditu Gipuzkoan, eta kopuru horretatik zati handi bat Donostian bere eskumena diren kalteak konpontzeko erabiliko ditu. Ea egia den.

Otsailak 13.

Ana Uretak, gure ontziaren aldamenean *Ulia-Mendi* izeneko batela daukanak, gutun bat bidali digu. Dozena bat ontzi baitira hondoratuak, eta jabeak, noski, erabat kezkatuta dabiltza ez dutelako inon aurkitzen erantzunik. Portuko segurantzaren errespontsableak desagertuak baitaude, eta inoiz ezin baita beraiekin hitz egin.

ITALIAKO BIDAIA

Martxoak 8.

Gaur hasten dugu Italiako Bidaia. Larunbata da. Goizeko bostak eta hiru ordu laurdenetan etorri zaigu Mikel etxe azpira bere kotxean Hendaiako geltokira eramateko. Seiak eta laurdenetan bertan gaude, ireki dute errebista eta kazeten kioskoa, batzuk erosi, billeteak konpostatu eta trenera igo gara. Bordelen atzeratu egin da zertxobait. Jende ugari dabil. *Gare de Lyon*era iritsi eta beste batez egon nintzen jatetxe dotorera igo gara, eta haren sarrerakoan ezkerretara dagoen saloi merkera pasatu gara. Okela, xerra eder bat patatekin, zerbeza eta kafea. Hemen badirudi Operan bezalaxe ordaindu behar dela lekua. Gaueko zortzietan Saboia aldetik igarotzen ari gara. Mendi zuriak, mendi urdinak, mendi arrosak ilunabarrean. Italiarrez betea dago bagoia. Suerte pixka bat izan dugu eta bidaia osoan ez zaigu sartu gazte zaratatsurik. Margari luzesten ari zaio, baina liburuak irakurtzeko aukera aparta dago. Torinora iritsi garenerako jada hamahiru ordu eta erdi gabiltzala lehenik iparralderantz eta gero hegoalderantz. Oinez enparantza luze-luze batetik goaz. Tranbiak, autobusak, jende anitzik ez, halere galdetuz topatu dugu San Tomaso kalea. Bosgarren solairura igo eta bertan dago alokatzailea itxaroten. Erakutsi digu apartamentua, ordaindu diogu, eman dizkigu giltzak, eta bidaiako maletak bertan utzitakoan, kalera, zangoak pixka bat mugitzera. *Cantine Barbaroux* gomendatu digu, eta karrika artean ibili ondoren, eta Torinoko parte zaharra gozatutakoan, sartu gara ostatura. Pasta, ardoa eta postre bat biontzat, eta pozik ohera.

Martxoak 9.

Igandea. Bederatziak dira eta jada kalean gaude. *Norman* kafetegian sartu gara. *Via Pietro Micca*n gaude. *Spremuta d'arancia, capuccino* eta *croissanta*. Alegia, laranja-zukua, kafesnea eta kruasana. Leku dotorea benetan. Bandeja jigante batean atera digute dena. Zukuak 8 euro, kaputxinoak 5. Alajaina, hauek dira prezioak… Nola denbora guztia daukagun, poltsan daraman tableta atera du Margak eta wifiaren hitz giltza eskatu du. Zerbitzari gazteak zuzendu egin dit ahoskera. Musika entzun daiteke, baina aski traketsa. Serbiletak *caffe costadoro*. Aldamenean Torino bertako bi hiritar dotore eseri dira kafesnea hartzera *prosciuto* bokata batekin, eta gero nagusia edo hemengo arduraduna, harroputz itxuraduna, larruzko zamarra beltza, solasean ipini zaie aldamenean, ardo motez duen liburu lodikotea erakutsiz. Marga pozik bere jostailuarekin, hementxe daukat behatzarekin ezker-eskuin pantaila igaroz, nekatu gabe. Kalean gaudela hasten gara ohi bezala, Marga bere hiriko maparekin nondik joan behar dugun aztertzen, eta niri hirietan galtzea gustatzen zaidala. Eliz dorre bat ikusi eta haruntz abiatzen dira nire pausoak. *Galleria Gilibert, libreria antiquaria*ren aurrean gelditu gara. Benetan ederra galeria. Eskaparatean ikusten ditut Baltasar Castiglioneren *Il libro del cortegiano*, Venezia, Eredi di Aldo Manuzio e Andrea Torresano, 1528an argitaratua; Torquato Tassoren *cinquencentina* bat, alegia, XVI. mendean argitaratu liburua, hots, 1581eko *La Gerusalemme Liberata*, Francesco Guicciardiniren *Storia di Italia* bikaina Friburgon 1775ean moldiztegiratua, eta beste batzuk modernoagoak…

*Piazza San Carlo*n dagoen *Cafe Torino*n mahaitxo baten inguruan zizka-mizkak ardo zuri idorrarekin dastatzen ditugu eta ondoren *pizzeria* batean bazkaltzen. Ez dago amodio benetakoagorik jan-edanarena baino, Bernard Shawen esaldiaz oroitzen gara. Po ibaia pasatu dugu eta kaputxinoen komentura igo. Bertan meza entzuten ari dira batzuk. Bitxia, etxezar hau CAI, *Club Alpino Italiano*aren egoitza ere bada, eta arratsaldeko bostetan *paniniak* bukatzen dira, hots, behartsuek beste atera jo behar izaten dute… Ia hamar ordu kalean batera eta bestera ibili eta gero, etxeratu gara, Zinemaren museoa, *Museo Nazionale del Cinema*, Fondazione Maria Adriana Prolo ere bisitatu dugu, baina hainbeste informazio dauka barnean, non gehiegixkoa ere gertatzen den. Igande arratsaldea denez, gainera, jende mordoxka dabil leku guztietan.

Goizetik bi merkatu ikusi ditugu. Lehena pobre samarra, emigranteen katxarreriaz osatua. Bestea txukunagoa, zurezko teilatu eder baten babesean. *Due machiati* edan ditugu komun bat aurkitzearren. Eguraldi ona egiten duenez, Donostian bezalatsu, antza, jendetza kaleratu da, eguzkiaren epeltasuna dastatu nahiz. Goizean ez dakit zer aurpegi ikusi dioten Margari zeren, merkatu batez galdetzean lapur ugari dabilela eta erne ibiltzeko esan baitigute, ez joateko, ingelesez mintzatu zaizkio.

Mondadori liburu-denda irekita dago eta bertan izan gara, baina Margak Stendhalen *Voyage en Italie* frantsesez nahi du eta aurkitzen kostatzen ari zaio. Badirudi bihar liburu-denda guztiak eta bestelakoak ere irekita egongo direla eta errazago izango zaiola topatzea.

Martxoak 10.

Arratsaldeko seiak bost gutxi dira eta *Feltrinelli* liburu-dendan sartu gara. Gaztelaniazko eleberrien sailean Planeta Saria irabazi duen Clara Sánchezen azken nobela pilaretan, *El País*eko komentario batekin. Historia sailean ere begiratu dut eta 1914-1918ko gerrari buruzko liburu pila. Baten titulua honakoa: *Il mito della Grande Guerra*. Jordi Savallen diska baten aurkezpena iragartzen dute eta katalan musikariarekiko elkarrizketa. Esalki batzuk libre daude, eta bertan gaudenez, eseri egin gara maisuaren hitzak entzutera. *Buona sera*. Jendea elizan bailegoen. Entzuleak, batzuk gazteak, besteak helduxeagoak edo gure adinekoak, orotarikoak. Irakasle itxura duten zenbait emakume ere bai. *Bal-Kan* diska aurkezten du, esanez Eztia eta Odola bezala itzuli daitekeela. Kazetaria aski ezjakina da, ez baitaki Montserrat Figueres, Savallen emaztea, hila dela jadanik. Maisuak historia pixka bat oroitzen du, gurutzadak aipatzen ditu eta 1453ko data, alegia, Konstantinopla turko otomanoen menpe erori zenekoa, eta *On Kixote* ere aitatzen du eta esaten zein garrantzi handia izan zuten arabiarrek ekialdeko kultura mendebaldera iraganarazten, eta abestiaren inportantzia bizitzan, *la canzone per supravivere*. Eta gogorarazten digu Elias Canettiren esaldi hura, *La música es la verdadera historia de la humanidad*, eta musikak oro intolerantziaren aurkako oihu direla.

Armeniako musika, 1917ko genozidioa… Benetan interesgarria den Jordi Savall ikerle humanista honen elkarrizketa bukatzen denean, Giambatista Bodoni plazan dagoen Giuseppe Verdiren Kontserbato-

rioan emango duen *Spirito d'Armenia* kontzertua entzuteko sarrerak erostera joaten gara. Ilaran zain ia ordu bat itxaroten egon ondoren, eta jendea elkarrekiko norlehenka borrokan ikusi eta amorratu ondoren, lortu ditugu gureak eta joan gara zerbait hartzera Kontserbatorioko pizzeriara. Pizza pusketa bana eta primeran sartzen zaigun *birra* bana ere edan, denagatik zortzi euro ordaindu eta sar gaitezke antzokira. Armeniako musikoak dira entzungo ditugunak. Aram Movsisyan atleta ohiak aingeruak bezala kantatzen du, laguntzen diotelarik beren instrumentuekin: Georgi Minassyan eta Haïg Sarikouyoumdjian duduka jotzen, Gaguik Mouradian kamantxea, eta *Hespèrion XXI* taldekoak: Viva Biancaluna Biffik *viola da arco*, Daniel Espasak organoa, Pedro Estevanek perkusioak, eta Jordi Savallek *ribeca, viella, viola da arco*, zuzendaritza bere gain daramala. Benetan gau zoragarria gaurkoa. Badirudi zerbait zerutiar dastatzeko infernu txikitik igaro behar dela lehenago.

Martxoak 11.

Asteartea. Jaiki baino lehen sentitu ditugu tranbiak pasatzen behetik, gu bosgarren solairuan baikaude. Dutxatu, txukundu eta gosaldu, eguneroko hiru lehen gauzak. Gero, *arancia spremuta*, laranja-zukua, kaputxinoa eta kruasana aldamenean egunkariren bat bada irakurriz, eta ondoren bankura dirua ateratzera, Firenzeko nagusiari ordaintzeko. Une honetan Torinoko etxean gaude nagusiaren zain, gauzak garbi uzten ditugula, behar bezala daudela ikus dezan eta giltzak itzultzeko. Espero dezagun puntuan etortzea, zortzietarako egongo zela esan baitzigun eta hamar gutxi dira, horrela 13 zenbakia daraman tranbia berehala hartu eta geltokira garaiz iristearren. Jada aitaren ohitura hartzen ari naiz, alegia, geltokira ordu erdi bat lehenago iritsi beharrarena.

Iritsi gara Firenzera Italo trenean Torinoko *Porta Susa*tik aterata. Balirudike bidean jendarmeak badabiltzala emigrante beltzen atzetik edo. Geltokitik etxera aski laster iritsi gara. Hau, etxe zahar, baina eder eta ongi zaindua da. Nagusia Fiesolen bizi da. Oso atsegina iruditu zaigu. Giltzak utzi dizkigu sei gauerako, 570 euro ordaindu ondoren. Maletak utzi eta berehala goaz Firenzeko monumentuak, kaleak eta plazak berrikustera gogo biziz. *Duomo*ren ertz batean gaude, *La Cantinetta di Dante e Beatrice* izeneko tabernan. Izenagatik bakarrik ere mereziko luke hemen egotea. Zopa eta tripakiak, *trippe alla fiorentina*, oso-oso gustagarriak, gazta xehetua gainean daukatelarik eta piper puntua ere bai.

Biblioteca Marucellianan egon naiz. Liburuzainarekin eskuizkribuen katalogoak begiratzen eta topatu ditut *Annotazione* batzuk Girolamo della Sommaiak eginak, Firenzeko pertsonaia famatuen bizitza-zertzeladei buruz, eta baita jakin ere Calvizanon zegoen San Rufignanori eskainitako eliza bere familiarena zela. Afaria Joseph Rothen ohoretan, *via Santo Spiriton* dagoen *Il Santo Bevitore* tabernan. Ardoa, gazta eta urdaiazpikoa benetan onak eta lekua zer esanik ez, erosoa, zerbitzari atseginak…

Martxoak 12.

Goizean gosaldu ondoren, Firenzeko Biblioteka Nazionalean izan naiz, eta Girolamo da Sommaiaren sei ezkuizkribu aztertu ditut, eta aurkitu badirela errefrau batzuk euskaraz. Kopiatzailea gaztelaniazkoekin eta euskarazko horiekin bakarrik konformatu ote zen. Badirudi baietz. Dena den, falta zitzaizkidan bi faksimile horiek erreproduziarazi ditut. Non ote Girolamoren liburuak eta eskuizkribuak? Bere obren katalogo bat ikertu dut eta ez da ageri *Refranes y Sentencias*en beste aztarrenik, eta ohar baten arabera, hil ondoren bere liburuak sakabanatu egin omen ziren.

Margaritarekin Fiesolera igo gara busean, eta han itzuliño bat eman ondoren, murru etruskoak, terma eta teatro erromanoak, eliza erromanikoa eta XII. mendeko Herriko Jauregia ikusitakoan, *villa* ederren artetik doan karreteratik jaisten gara zortzi kilometrora dagoen Firenzera.

Martxoak 13.

Jaiki, dutxatu eta kalera. Marga ohean gelditu da. Bakarrik gosaldu eta berriro liburutegi nazionalera, gelditu zaizkidan oharrak jasotzera. Bestalde, nahiko nuke lortu Girolamoren erretraturen bat, baina hemen ez dut arrastorik aurkitzen. Agian nonbait izatekotan Pisako Unibertsitatean aurkitu behar bertako errektore izan zenez, zeren eta Santo Stefanoko priore izendatua izan ondoren, bertako *Studio*ko, hots, Unibertsitateko zuzendari izan zen, ikasle-irakasleen harremanez, irakaskuntzaz, kalendarioaz, testu-hautaketaz eta zentsuraz eta administrazioaz arduratu baitzen. Eta Galileo Galilei (1564-1642) astronoamoarekin ere harremanak izan zituen, eta Vatikanoak hura heretikotzat kontsideratu arren, berak adiskide on bezala soldata ematen jarraitu zuen, zegokion bezala, eta Pisan hil zen 1635ean, 62 urte zituenean.

Miscelanea Spagnola eskuizkribua irakurtzen dudalarik ohartzen naiz, Salamancako Unibertsitateko Historiarekin (ff. 1-33) hasten dela, gero zenbait "Grazia", ixtorio irrigarri latinez eta gaztelaniaz dakartzala tartean, Galarça delako baten, *gracias en español* (f. 94), hala nola zenbait bertso italieraz, eta 95. foliotik 114ra *Refranes y Sentencias… 1596*en kopia daukagula. Pena 1600. urte inguruan eginiko eskuizkribuak gaztelaniazko errefrauak osorik soilik kopiatu zituen eta euskarazko hamazazpi. Lehen hamaseiak eta 1596ko bildumaren 369.a: *Conocer las carnes su carne. Ezaun araguiac, vere araguia.* (f.107). Bestetik, nor ote da gaztelaniaz idazten zuen Galarza delako hori?



Irudia 86: Hieronymus Bosch-en **Zazpi pekatu nagusien mahaia** margoko detaileak (1485) Refranes y Sentencias… (RS 1596…) liburuko lehen errefrauaren latinezko bertsioa bertan ematen digu: **Cave, cave D[omin]us videt**.
RSko Lehen errefraua: *Adi adi, ce jaun goycoa dagoc adi.*

Arratsaldean afaria eta musika eskaintzen duen antzoki batera joaten gara. *Il mensile del teatro del sale. L'Ambasciata teatrale offerta libera circolo creativo d'intratenimento culturale S. Ambrogio*. Horrelaxe dio eskaintzen duten errebistatxo politak. Afaria, bakoitzak aukeratzen duena edo

platera hartu eta bata bestearen ondoren ilaran jarrita kozineroak, antzokian bezala, modu xelebre batean, jateko zer ematen dizun errezitatu ondoren, platerean jartzen dizuna. Garbantzuz egin humusa, bestelako barazki zenbait, sardinak, arrain-zopa, ardiki-barrenkiak, *lasagna* eta txitxarro erdi bana. Aski. Hark zioen bezala labur-luzea. Gauza ttipi anitz. Kontzertua Torinon entzun genuenaren estilokoa, Balkanetako musika.

Martxoak 14.

Goizeko bederatziak dira eta San Marcosen Fra Angelicoren pinturak ikusten ari gara dominikoen komentuan. Finezia benetan miresgarria ageri dute bai gaietan, bai eta moduan. Adibidez, Jesus gurutzean Santo Domingorekin kalostraren sarreran, eta Magdalena bere ile olioztatuekin Jesusen gorpuaren oinak garbitzen eta lehortzen irudikatzen dituzten koadroetako doratuek goizeko argiarekin urreztatuagoak dirudite. Kosme de Mediciren gelan *Errege Magoen adorazioa*. Bi kalostra, eta gelatxo batean Fra Bartolomeok burutu Fra Girolamo Savonarolaren (Ferrara, 1452- Firenze, 1498) erretratua, eta anonimo batek eginiko *Savonarola sutan*, Inkisizioak erre baitzuen idatzi gogoeten zigor legez. Jakina den bezala, Lorenzo de Mediciren aitorle izan zen eta predikari ospetsua, banitateak, hots, luxua suposatzen zuten kosmetikoak eta liburu lizunak, hala nola Boccaccio eta Petrarcarenak errearazi zituelarik. Eliza Katolikoaren korrupzioaren kontra altxatu zuen bere ahotsa, baina Alejandro VI.ak eskumikatu egin zuen. Aita santuaren gudarostea sartu zen Firenzen. Savonarola eta haren jarraitzaileak komentu honetan gorde ziren. Babesten zuten anitzek bizia galdu zuten, eta heretikotzat joa, errebelde gisara *Piazza della Sinoria*n torturatu ondoren hiltzen dute, egun berean *Obsedit me* meditaziozko obran lanean ari zelarik. Lehenik *garrote vil* zigorraz hil zuten eta gero sutara jaurtiki, errautsak Arno ibaiara bota zituztelarik *Ponte Vechio* "*Z*ubi zahar"-aren ondoan. Laster Medici familiak hiriaren gobernua errekuperatu zuen. Koadroan ageri dira detaile handiz hiriko pertsonaia nagusiak, dominikoak eta zamaketariak sua elikatzeko egur kargak bizkarrean altxaturiko oholtza luze batera eramanez. Ikusgarria, hunkigarria eta izugarria benetan.

*Santa Maria Novella*n hainbeste obra eder kontenpla daitezke non egun osoa beharko baikenuke bakoitza arretaz kontenplatzeko, baina une batez *Capilla de los Españoles* ikusgarrian gelditu gara. Jacopo Talen-

tik Santo Tomasen ohoretan eraikia, Andrea di Bonaiutoren freskoekin; garai hartako katedrala marmolezko jantzirik gabe ageri da bertan.

San Miniato al Monte ikustera goaz, eta izenari ohore egitearren, badoa bidea mendixkan gora. Bertatik bista zoragarria. Eliza jadanik IV. mendean eraikia, Hildebrandok jaso zuen XI. mendean gaurko egituraz. Kripta interesgarria eta aldarean San Miniatoren erlikiak. Bobedan Taddeo Gaddiren freskoak Jesus, San Miniato, beste santu eta profetekin. San Kristobalek bizkarrean haurra darama. Eta sakristian beste fresko batzuk, Spinello Aretinorenak. Bi euro ordainduz ematen dizkigu esplikazio guztiok hots mekaniko batek. Eliza barnean hotz egiten du eta jertsea jantzi beharrean aurkitu gara. Ataritik oso ongi ikusten ahal dira Firenzeko murrailak. Jaitsi gara bertara jardin japoniar batetik eta *Museo Bardini* inguruko trattoria batean atseden hartu dugu. Batera eta bestera ibili eta etxera itzuli gara, Julio eta Karmenekin berriro atera aurretik. Joan gara geltokira eta, ostirala denez, tren-kaietan jende ugari. Minutu gutxiren atzerapenarekin iritsi da, eta oinez joan gara apartamentura. Gustatu zaie, zeren eta oso independienteak diren bi alde ditu, egoteko saloia liburutegi eder batekin leihotik eguzkia ilunabarrean sartzerakoan ikusten dela, eta sukaldean otorduak egiteko leku goxo, aproposa. Orain *Trattoria Baldini, Via il Prato*n gaude aski gune lasaian afaltzen. Taberna klasikoa da. Txuleta eskatu dugu laurentzat eta aparta dago, azpian harri berogarriz mantentzen baita bero-bero. *Fragole* batzuk, marrubiak alegia, eta krema katalana ere ezin hobeak.

Martxoak 15.

Bederatzietarako jaiki, dutxatu eta hau idazten ari naiz isil-isilik sukaldeko mahaian. Gaur ere primerako eguraldia egiten du. Ikusiko dugu zenbat jende dabilen kaleetan zehar, eta lasai ibil daitekeen. Hiriko planoa batera eta bestera erabili, erditik jada puskatuxea dago. Margak atzo aitortu zidanez, Julio zaharkiturik aurkitzen duela. Hirurogei ta hamar urte beteak ditu, baina nire iritziz fisikoki oso ongi mantentzen dakiena da, baina *Errege Magoen Adorazioa* ikustera sartzerakoan atzo zazpi euro ordaindu ordez, lau pagatu genituen *anciani* ginelako.

Bi antikuariok, liburu zaharren saltzailek beren katalogoak oparitu dizkidate. *Cinquecentine* txit arraroaren bila, *rara avis*, perla prezios baten bila nabilela kontatu diet. Baina alferrik, 1596ko *Refranes y Senten-*

cias ez da ageri inon. Kontsultatzen dute beren ordenagailuetan ea agertzen den, baina deus ez. Pentsatzen ari naiz bilaketak Pisan egin beharko nituzkeela, agian, baina Margak ez du jakin nahi deus Pisaz. Ikusiko dugu bueltakoan, Genova aldera abiatzean ordu batzuk egiten ditugun eta Unibertsitateko kalostra eta liburutegia ikusteko aukera dugun.

Hamabiak eta laurdenetan *Museo Galilei* bisitatu dugu, eta garaiko erreminta zientifikoekin liluraturik geratu gara. Torricelliren esperimentua. Zeruak eta lurrak irudikatzen eta neurtzen dituzten aparailuak, mapak, teleskopioak… eta maisu katalan bat ikasle eredugarri batzuekin, batzuk katalaneraz, besteak gaztelaniaz mintzatzen, baina denak irakaslearen esplikazioak entzuten zintzo. Heretiko gisara kondenatu zuten eta bere idatzien kontrako sinadura eginarazi, baina lurra mugitzen zelako frogak argi, garbi eta zehazki utzi zituen frogatuak, zeren eta inkisidore guztien iritzien kontra lurra badabil ortzian barrena, *e pur se muove*.

Martxoak 16.

Esan dudan bezala, alokatu apartamentua Hegoameriketan izana den arkitekto batena da, hango fotografiak eta oroigarriak ageri baitira. Arte-liburu oso eder eta interesgarriak ditu, bai eta bidaia-gidak ere. Hauetariko bat *Toscana. Guida Italiana*. Touring Club Italianoarena. Bertan (ed. 1974, 152. or.) irakurtzen dut, *L'Università Pisana… sotto il porticato ingresso alla Aula Magna son una statua di Galileo di Paolo Emilio Deni (1839) busti vari: rettrati di professori insigni.* Hauetariko bat ote da Girolamo da Sommaiarena? Ez dakit, gogotik kendu nahirik nabil honekin nire artikulua apaintzearren, baina ez bada hala? Kalostran ez badago? Libururen batean bilatu beharko. *Gallica*n egindako saio guztiek eta Firenzeko Nazionalekoek ez didate emaitzarik sortu. Arte liburu-saltzaile fiorentino batek esan dit ez dagoela libururik gai konkretu horretaz, baina auskalo, Pisan bertan bilatu beharko. Unibertsitateko liburuzainari kontsultatu beharko etxeratzerakoan, eta Margari ezta galdetu ere, Genovarako bidean Pisan bertan tren-geltokian egon arren.

Martxoak 17.

Goizeko zortziak dira. Iritsi gara tren-geltokira. Pisarako bi billete hartu ditugu, konpultsatu eta eserita zain gaude, laster aterako baita. Ez

dakigu zer ordutan iristen den, baina kontua da hementxe gaudela. Pisan ordu beteko astia gelditzen zaigu Genovako trena hartu aitzin. Balisak kontsignan utzi eta bagoaz korrika hiri barnera. Bizpahiru liburu-dendatan galdetu dut ea baduten Pisako Unibertsitateko libururik; ez, erantzuna ezezkoa izan da. Ehun bat metro gelditzen zaizkigu Unibertsitateko kalostrara iristeko, baina alferrik. Zubiondoan banda munizipalak jotzen jarraitzen du. Erabaki dut, beraz, postaz bidaliko diedala kontsulta zenbait liburuzain eta liburu-saltzaileri, eta agian UNEDeko liburutegiko liburu-maileguen trukeaz, *préstamo interbibliotecario* delakoaz baliatuz, hots, unibertsitate arteko mailegutzaz zerbait lortuko dudala, baina esperantza gutxi gelditzen zait, egia esan.

Genovan ordu bat eta hamar minutu gutxitan gaude eta kaleetan zehar maletatzarra paseatutakoan, eskerrak gurpilak asmatu zituenari, iristen gara hautatu hotelera. *Best Western City*. Gela 251. Balisak utzi eta bagoaz Via Garibalditik lehenik. Gero portu aldera ezkerreko karrikatxoetarik eta puta gazteak ikusten ditugu eliza baten inguruan, plazatxoan beraien artean solasean lasai. Konprenitu dugunaren arabera, eta itxuragatik, latinoak dira. Otordu xumea egin eta Portu Zahar berritutik gabiltza. Valettako eta beste paradisu fiskaletako belari eta yate handiak, ia jiganteak, moilan ongi amarratuak ageri dira. Polanskik piraten filma egitearren eraikarazi zuen itsasontzi faltsu ikusgarria ere bai. Nahiko garbi eta txukun dago dena. Portu inguruak hobeto ezagutzeko txartela erosi dugu itsas-motorrez joan-etorri bat egiteko. Moilak benetan martxa handirik gabe daude. Bada kai bat izugarri luzea, dena huts-hutsik. Faroa harri grisez eraikia, nahiko tristea, garai bateko ilustrazioetan ageri den graziarik gabe. Dena industriaz inguratua. Ikatz-piramide batzuk. *Erasmusgracht* yate-karreiatzailea. San Giorgioko terminala. Moila batean ehunka kontenedore garabiek kamioietan ezarri zain. Badaramagu ordu erdi bat eta oraindik portutik ez gara atera. *Megrez* da beste ontzi baten izena. Vegliraino joan gara eta han jaitsi dira bidaiari gehienak. Genova aldameneko herri honek badu hondartza ttipitxoa, eta eliza eder galanta. Berrogei minutu pasatu ditugu honaino eta orain itzulerakoa eginen dugu ikuspegia aldatuz eta hiria bertatik ikusiz. Margak mapari atxikia jarraitzen du, oro kontsultatzen, kaleak eta gida, ni aldiz, ontzien irudiak barneratzen eta kulunkan itsaso zabalean bezala haizeak narama…

Martxoak 18.

Gosaldu eta bart egindakoaz ohar batzuk idazten hasi naiz. XIII. mendeko etxe bateko sotoan afaldu genuen. Afari begetarianoa, eta ardo zuriz betea dagoen litro erdiko txarroa hustu dugu. Gela ezberdinetan geunden afaltiarrak, hots, hiru bikote. Gu iraultza boltxebikearen koadro handi baten aurrean geunden, *il exercitto rosso*, gudaroste gorria. Eta Leon Trotskiz eta haren bukaera tristeaz oroitu ginen.

Teatro Carlo Felice aurretik igarotzean ohartu gara gaur arratsaldeko zortzi eta erdietan *Le Nozze di Figaro*, Mozarten opera jokatzen dutela, eta bi sarrera erosi ditugu. Ez da iragartzen abeslari ospetsurik, baina berdin dio, obrak berez merezi baitu. Zortziak laurden gutxitan zerbait hartzera joan gara *Tavella Maurizio*ra. Txikia lekua, baina benetan atsegina. Nork esan eta hemen Getarian edo Donostiako parte zaharrean baino hobeki jango genituenik antxoa frijituak. Lehenik pasta, noski, eta tartean ohiko ardo zuria. Antzokia bitxia da. Korrala handi bat bailitzan eraikia. Hau da, aldamenetako balkoietatik eta leihoetatik ikusten, begira baileuden, baina *trompe l'oeil* bat besterik ez da, pintura hutsa, agerlekuan egiten diren engainuen antzekoa. Operako abeslarien ahotsak tamainaz eskas, baina beren xumetasunean pollitak. Figaro eta kondearena ongi. Hobeto mozkorrarena. Baina batez ere emakume finak agerlekuan, eta kondesa andereak Venus jainkosa zirudien. Hura emakume puska. Benetan galanta. Inor ez da, ez, lodi hemen, zeren eta dirudienez orain hori oso kontuan hartzen baitute eszenografoek. Harrigarria benetan etorri den mundua. Familia osoak, mutiko eta neskatila gazteak, adin orotarikoak. Kontsidera daiteke opera Italian arte herrikoia dela, egiazki.

Martxoak 19.

Genova-Torino. Ordu bete itxaroten egon gara geltokian eta badirudi hartzera goazen trena ia herri guztietan gelditzen den horietakoa izango dela. *El País* erosi dugu eta bitartean irakurtzen ari gara. Atzo eta herenegun Julio eta Karmenen harremanez hitz egiten egon gara… Ez naiz harritzen Juliok esatea emakumeen beldur dela, zahartzaroan gizonak lelotu egiten baitira, emakumeek boterea hartzen eta gizon gixajoak pozik gelditzen gainera. Gero eta tristeago ikusten dut Julio, la-

nari, politikari eta kirolei buruzko solasak direnean pizten da pixka bat, mendian dabilenean…

Torinora iritsi gara bidaia honen azken gaua bertan igarotzeko asmoz. Geltokitik gertu hotel zahar batean, *Dock Milano*n hartzen dugu gela. *Giardinetto* izeneko lorategitxo batean bazkaldu dugu. Entsalada, zopa, haragi gisatua, arbendolak eta beste. Gozoki bat biontzat, eta kafetxoa. Ordaintzerakoan, zerbitzu lanak egiten ari zen emakumeak ez digu onartu nahi izan propinarik.

Museo Egizio delakora sartu gara eta benetan asko gustatu zait. Zein den ederra! Eta Napoleonen koronelak bereganatutakoak ez dira gutxi. Hieroglifodun harriak, garaiko erretratuak, freskoak, faraoien harri-irudiak, gorpuen eskeletoak, esklaboak, ontziak Nilo ibaian, lehoi antropomorfoak, idatziz eta irudiz beteriko papiroak… Benetan ikusgarria… Gehienak Egipton Bernardino Drovettik bilduak eta Carlo Felice di Savoiak erosiak.

Paseo luze bat egin dugu jadanik ezaguna dugun hiri moderno honetan. Biblioteka aurrean lau pakistandar, bederen itxuraz edo, etorri zaizkigu krabelin arrosak eskainiz, baina alferrik, ez gaude loretarako, baina bai kaleko kantari errumaniar bati zenbait euro oparitzeko.

Martxoak 20.

Goizeko zazpietan irekitzen dute *bufetea* eta ireki bezain laster bertan gaude, dutxatu eta maletak prestatuta. Hamahiru orduko bidea gelditzen zaigu etxeraino. Batzuek hegazkinez lehenago egiten dute baina, Marga aerofobikoa bilakatu denez, eserialdi ona izango dugu, Parisen barrena baikatoz. Dena den, hamaika ordu irakurtzeko lasai, noizbehinka treneko *Café-Bar*era bisita eginez. Baldin bada, ez dago gaizki. Girolamo da Sommaiaz burutzen ari naizen lana aurreratzeko ere denbora emango dit. *Monachatus non est pietas* Erasmusek dioen lekuan, Garibaik (?) honela itzuli zuen: *Jazkereak parrahua egite ez du.*

Mendeetan zehar euskal hitzek pairatzen duten bilakabidea ez da txikia, alajaina, hala nola *parrahua*rena, zeina *fratrem* latinezko hitzetik datorren honako alegiazko bidea eginez:

fratre(m)> **parratere > * parradere > *parrahee > parrahu*.

Noski, bizitzan izaerak duela benetako garrantzia eta ez itxurak.

Martxoak 24.

Leonardo Paduraren *La neblina de ayer* irakurtzen ari nintzelarik, honakoa aurkitu nuen: *Recordé, leyéndolo al vuelo, tu afición por la lengua de res al jerez, el bacalao al pil pil según la receta vasca de Juanito Saizarbitoria, esos camarones a la criollla que tan bien se me daban…* Eta Ramonek aipatu baitzidan eta erakutsi fotografia bat, non Fidel Castrorekin ageri zen bapo-bapo eta oso dotore jantzirik, erreferentzia bidali nion postaz eta erantzuten dit, galdetuz nola ibili garen bidaian, *Juanito nire osaba zen bai. Ez dut uste sukaldari onegia zenik…*

Martxoak 27.

Galiarren aroan Cesar aurreko Akitania. En tiempos galos. Aquitania antes de César. Galiarren garaian Akitania nolakoa zen Bordeleko Museoak antolatu erakusketa San Telmon ikusten egon naiz. Mila eta seiehun objektu ekarri dituzte Bordelen den Akitaniako Museotik, Tolosako Saint Raymondekotik, Potiers hirikotik, Kataluniako arkeologikotik eta Arabako Museo arkeologikotik, eguneroko bizitza, komertzioa, armak, usteak eta sinesteak, erromanizazioa ere nolakoa zen adierazten dutenak. Ikusi dut, dastatu dut eta, ez bainaiz erabat gustura gelditu, hiru puntu hauetan biltzen dena idatzi dut iradokizunen koadernoan: a) Esposizioa ederra da, baina… b) Zergatik gidaria (arkeologo gazte bat) igarotzen da Barkoxen (Barcus) aurkitutako eta Pabe, Agen eta Bordelen dauden gudaroste erromatarren moneten aurretik inolako komentariorik egin gabe? Noski, honek garbi adierazten du ez dakiela *Barcus* Euskal Herrian dagoela, eta c) Zergatik ez da ematen harri-inskripzioen testua, edota Tolosan (Toulouse) dauden *Andere* eta *Gizon* ageri diren inskripzioak, besteen artean, ez dira ekarri? Ez dut uste hurrengo baterako kontuan edukiko dutenik, baina tira, nire partetik hor gelditu da iradokizuna, errepikatzen badute hobetuz joan daitezen…

Apirilak 2.

Marina Sanfilippo UNEDeko lankideak, italierazko irakasle eta kontu-kontatzaile aparta denak, urrian ahozko kontakizunez antolatzen

duen *Tomo la palabra* deitu kongresuko komite zientifikoaren partaide izatea eskatu dit eta, noski, baiezkoa eman diot, eta ohoretzat jo.

Apirilak 16.

ASTURIASEKO BIDAIA

Margarekin banoa Asturiaseko mendietan bizpahiru egun igarotzera. Hiru ordu iragan eta Unquera herrixkara iritsi gara. Deva ibaiondoan dagoen merkatu txiki batean arrain batzuk salgai ikusi ditugu, haien artean *potarros* deitzen dituztenak, pota-motakoak, ez oso zabalak, baizik eta estu eta kolore gorrikoak. Santo Domingo de la Barqueran bazkaldu dugu bista benetan zoragarria duen jatetxe batean. Olagarroa eta muxarra laurontzat. Kafea hartu eta bagoaz alokatu ostaturantz. Buellesen Margak esan du *privacity*a behar duela, eta ez hain etxetxo ttikian beste bikote batekin egon, beraz, Karmen haserretu arren ez du amore eman. Juliok oso ongi konprenitu du eta oso gertu dagoen Panes-eko irteeran hoteltxo batean aurkitu dugu lo-leku xumea baina guretzat aski dena. Gu gara ostalari berriek dituzten lehen bezeroak eta ea zori ona ematen diegun esan digute. Oso garbiak eta jatorrak dirudite. Ibiltzera atera gara eta kostan, *Punta San Emeterio* ondoan dagoen faroa ikusten egon gara, eta handik oinez arboladi batean gordea dirudien *Ermita de Santa Maria de Tina*raino joan gara. Haren hondakinak bisitatu ditugu. Ingurunea erromantikoa da erabat. Harritzarrak belarrek, sasiek eta huntzek jantzi dituzte mendeen poderioz. Santiagoko bidean XIII. mendean eraiki kaperaren berri ematen digu inguruko zelaiaren sarreran dagoen Ribadeva Udaletxeko kartelak. *La Sauceda* jatetxean afaltzen dugu. Nagusia oso berritsua da eta ofizioa ongi ezagutzen duena. Alzola du deitura, beraz euskaldun emigrantea, bere aitona Avilésera etorria baitzen ferrokarrilarekin, eta oso ongi esplikatu digu herriaren gainbehera. Altzola, *altza* 'aliso'tik datorrela ere esplikatu digu, eta nola egiten duen ikatza ere kontatu. Talotxoa txorizoz egina, menbrilloa eta egiazki on-onak dauden intxaurrak atera dizkigu.

Apirilak 17.

Bederatzietan jaiki eta dutxatu ondoren, Marga prestatzen den bitartean, hementxe nago nire oroitzapentxoak idazten. Etorri zaizkigu bila Julio eta Karmen eta bagoaz Europako Pikoetarantz. Biderako bi makila

arrunt erosi ditugu. Sotresera iritsi garelarik bertako parkingean aparkatu dugu beribila. Herria nahiko goian dagoenez lehenik jaitsi egin behar izan dugu beste mendi-estratatik bideratzearren. Ordubiak hamar gutxietan Juliok ezin du jada emakumeen pauso motelarekin eta aurrera arin jotzea erabakitzen du. Abiatzen da eta ni atzetik. Oreinak bezain arina denez, aurrea hartzen dit, baina nahikoa bide gora egin dugularik, ikusten dut dolmen, harritzar handi bat eta hura erreferentzia hartuz bertaraino iristen gara. Pixka bat ezkerraldera ikusten dugu mendiko aterpe bat, txabola bat, mendi gailurretan. Azkenean, hirurak direnez, jaistea erabaki dugu eta halaxe egin dugu, azkar-azkar, baina herrira iristeko azken aldapa benetan pikoa da eta lau ordu eta erdi ibili ondoren, eta bi bederen arin-arin, gogorra egiten zait, arratsaldeko lauretan iristen garelarik andreak zain dauden tabernara. Beribila hartu eta bagoaz orain Sotresetik gora. Bide ertzetako paba txuri-gorriak prest daude neguan elurraren altuera neurtzeko. Borda inguruetan behiak bazkan. Guk, urdaiazpikoa eta gazta zerbeza eta urarekin jan-edandakoan eta Bordeleko erreserba ardo-botila elurretan freskatua dastatu ondoren, lo kuluxkatxoa egiten dugu belardi gainean eguzkiaren epelak beroturik. Hau paraje ederra! Asturiar atsegin batzuekin solasean aritu ondoren, bagoaz *Picu Urriellu* (Naranjo de Bulnes) delakoa ikustera arratsaldean. Momentu honetan bista majikoa dauka. Irudi ahaztezina. Ehiztari eta ibai-arrantzaleek erabiltzen duten bidertzeko ostatu batean bapo afaldu solas alaian eta erretiratzeko garaia iritsi zaigu.

Apirilak 21.

Bazko biharamuna da eta Sarako liburu eta diskoaren feria. Ohi bezala, bagoaz erromerian euskaltzaletasuna oraindik galdu ez dugunok. Euskaltzaindiak Xabier Altzibar irakasleak prestatu *Amodioaren Martirra. Dolores emazte bat berthutez bethea* liburua argitaratu eta aurkezten du, hala nola Jean-Baptiste "Battittu" Coyosek burutu *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri* bilduma eta azkenik Piarres Xarritonek *Le fondement moral des droits culturels de l'homme* (Kultura eskubideen oinarri etikoak). Bertan, noski, liburuxka batzuk erosi ditugu, eta *Maiatz* eta *Utriusque Vasconiae*ko arduradunekin hala nola *Izpegi* eta *Atlantica*koekin hitz batzuk egin. Euskaltzaindiko batzuk, Ixabel Ajuriagerra, Txomin Peillen, Lucien Etxezarreta, Jokin Apalategi, Maite Idirin, Paulo Iztueta, Daniel Landart… Gertatzen zait adin batetik

aurrera, egia da, oso adiskide ez ditudanekin gero eta nagiagoa naizela hitz egiteko orduan. Beraz, bagoaz gure aldetik otordu bat egitera eta ezagunak nola topatu ditugun komentatzera.

Apirilak 26.

Iñaki Aldekoa txofer lanetan daukagularik, Felix Ibargutxik gonbidaturik eta gure aldetik ardo-botila pare bat daramagula, Ramon, ni eta hirurak Legazpi alderantz abiatu gara. Feria eguna da eta plaza benetan animatua dago. Felixek kontatzen dizkigu bertako eta inguruetako baserritarren ohiturak. Gero, asteburuetan lantzen duen eta inguruan daukan borda eta sagardia erakusten dizkigu. Oso aldapatsua da belardia eta bertan zaildurik ez du gimnasiora joan beharrik forman egoteko. Bazkarian bere aitak Patrizio Etxeberriarekin zituen harremanak kontatzen dizkigu eta Ramonek *El Diario Vasco* egunkariko zuzendariekin nolako harremana daukan galdetzen dio eta berak kazetari-ibilbidea kontatzen digu. Iruñeko Opusekoekin egindako ikasketak, *Argia*koekin izan zituen gorabeherak, loturak eta hausturak. Jan-edanean eta solas bizian igarotzen ditugu orduak, borda berotzeko piztu duen beheko suaren txinpartei esker giro epelean.

Apirilak 28.

Aspaldiko adiskidea dudan Eduardo Matauko aholku eske datorkit jakin nahian euskal antzerkietako antzezte-oharrak zein tradizio duten (*Gutunak,* 52). Horrelako kontsultarik aspaldian ere izan ez nuenez, erantzun egokia bilatzen saiatu naiz, teatrotekan dauzkadan hainbat antzerki berriro errepasatuz eta ahalik eta agudoen, ez ahanztearren, idatzi diot (*Gutunak,* 53).

Maiatzak 9.

Donostia kulturak **Literaktum 14** ekintza literarioen barruan Parte Zaharrean Pepe Artolari omenaldi bat eskaini dio eta ibilaldi bat Jose Ignazio Ansorena txistulari eta musikari ezagunak zuzendua. Gonbidatu egin naute Artolaren bertsoren bat kantatzera ere eta nola ezezkoa eman, bada? Gros auzoko Usandizaga plazatik hasi gara, Ansorenak bere argibide umoretsuak ematen dizkigularik. Bere solas-oharrak kartoi txuri batzuetan prestatuak ditu, Serafin Barojaren egunean bezalaxe.

Nik eskutan Antonio Zavalak egin bilduma oparoa: *Ustez laguna detan* titulua daramana. Familiakoak ere bertan daude, eta San Vicente elizaren atarian zenbait kanta abesten ditugu denon artean, eta nik solo bat ere bai Pepe poetak donostiar dama bati eskainitako zortzikoa, laukotan ezartzen dudana:

Gorputz liraina dauka, arpegi txit fina,
Gerriyak badiruri moldian egina,
Biziro oin politak, pausua arina,
Ezin fama liteke ark merezi dina.

Maiatzak 12.

Donostia Kulturak antolaturik, gaur astelehena Clara Sánchez adiskideak Okendo liburutegian arratsaldeko zazpi eta erdietan bere obraz hitz egin behar du, Teresa Calo izango delarik aurkezle. Bertara iritsi naizenean ia ez dut ezagutu ere. Zeramatzan takoien altueragatik edo makillajeagatik edo orrazkeragatik edota aspaldi honetan irabazi dituen hainbeste sarirengatik, hala nola *El cielo ha vuelto* Planeta 2013agatik. Egin dut esfortzu bat pasa den astean hau ere irakurtzeko eta azafataren gorabeherak txotxolakeriak iruditu zaizkit neurri batean. Lehen aldiz gonbidatu nuenean Beatriz Monrealekin batera honek zuzentzen duen Irakurketa Klubera bestelako sinpatiaz eta naturaltasunaz egon zen, eta gustura afaldu genuen elkarrekin. Orain, antza, uhin-aparraren puntan dabil, eta horregatik oso nekatua zegoela esan digu betiko leloak kontatuz. Gero limosina bat etorri zaio bila Maria Cristina hotelera eramateko. Jakin nahi nuke zenbat kostatzen ari zaizkigun horrelako ikuskizunak.

Maiatzak 15.

Petros Márkaris, aita Armeniakoa eta ama greziarra duen ekonomista eta nobelista greziarraren hitzaldia San Telmoko aretoan. Titulua: *Márkaris, disección de Europa desde la novela negra*, Teresa Flaño aurkezle. Entzuleen artean geunden Marta eta Arantxa, Rakel eta Marilo, Txaro eta Javier, beste asko eta neroni. Greziako korrupzioa, egoera ekonomiko gogorra, manifestazioak eta herri xumearen jan-edanak ageri dira protagonista polizia erretiratu eta detektibe lanetan ari den Jaritos

duten *Suicidio Perfecto, Muerte en Estambul, Liquidación final* eta beste hainbat eleberritan. Nobela beltza, jakina denez, egungo errealitatearen ispilu gordina, hemen ere gertatzen denaren edo daitezkeenen isla, zehatza eta grazia handiz burutua. Agian kritika soziala bideratzeko egungo tresnarik baliotsuena litekeena. Gehienetan ohi bezala, galderak baldarrak, traketsak eta halamoduzkoak, ez zirenak ez galdera, ez deus. Horrelako kategoriako gizon batek, honaino etorri eta gero beste zerbait/norbait hoberik merezi zukeen. Hitzaldia amaitutakoan, komentarioekin etekina ateratzearren, *Txepetxa* tabernan basoerdi batekin konpentsatzen saiatu gara.

Maiatzak 16.

Ramonek Candeledako etxean egun batzuk igarotzera gonbidatu gaitu eta baiezkoa emanda Salamancarantz jo dugu lehenik. Tordesillasen gelditu gara eta bertako plazan bazkaldu dugu ogitarteko eta kaña bana. Biena sei euro. Aspaldian eginiko bazkaririk merkeena. Joana Lehena, Gaztelako Joana Zoroa bezala ezagutua, 1509an preso hartu eta halaxe eduki zuten hiri honetan 1555ean hil arte. Monumentua eskaini zaio, Hipólito Pérez Calvok brontzez egina ezkerreko eskuan koroa daukala eta eskuineko oinean mundua irudikatzen duen esfera. Hiri honetan eta aurrez aurre dagoen jauregiko jardinean sinatu *Tratado de Tordesillas* ospetsuaren oroigarri, Pisuerga ibaia mirets daiteke. Pareta batean bandera errepublikanoa margotua.

Arratsaldeko lauretan iritsi gara Salamancara. Beribila hoteleko garajean sartu, eta maletak gelan utzita, bagoaz nire estudiante-garaietako hiria bisitatzera. Oraindik jendea siestan dago eta ez dabil ia inor kalean, baina zortziak inguruan seguru dena beteko dela. *La calle de la Rúa* ez da gaztaroan ezagutu nuen kalea, errestaurantez josia baitago eta mahaiek betetzen baitute. Lehen unibertsitarioek nola, hala orain turistek, eta hauek zalapartatsuagoak dira. Ordu honetan zoko guztiak estaltzen dituzte. Katedral zaharra eta berria bisitatu ditugu. *Anaya Jauregia* ere bai eta asanbleak egiten genituen eskaileretan dagoen Unamunoren harrizko buruaren ondoan fotografia atera dit Margak. Klaseak ematen genituen gelak irakasle-bulegoak bilakatu dira eta ateetan ikusi ditut irakasle eta ikaskide zenbaiten izenak: Emilio Prieto de los Mozos, José Antonio Pérez Bowie, Carmen Ruiz Barrionuevo… Halaber, hormetan

idatziak Victor doktorearen ikurra, izen ezagunak ageri zaizkidalarik: Joaquín Forradellas, Enrique Clemente, eta beste batzuk. Gero, Plaza Mayorren liburu-feria denez, Fernando R. de la Flor-ek idatzi *La vida dañada de Aníbal Núñez, Una poética vital al margen de la Transición española* saioa, nire ikaskide eta poeta gazterik hilaren obra poetikoari buruzkoa, gazte batzuek daramaten *Editorial Delirio*n plazaratua, eta Salamancako Unibertsitateak moldiztegiratu eta George Haleyk burutu *Diario de un estudiante de Salamanca. La crónica inédita de Girolamo de Sommaia*ren edizioa erosten ditut. Alegia, aipatu dugun mezenas eta humanista italianoaren dietarioa, *egunorozkoa* Oihenartek erabili hitzetan, non ageri diren zenbait zerbitzari eta kopista euskaldun, besteak beste *Refranes y Sentencias…* 1598koa kopiatzen lagundu ziotenak. Saltzaileak ez zeukan standean Haleyren liburua, baina eskatu diodanean, baietz esan dit, bazuela almazenean eta berehala ekarriko zidala, eta hala izan da. Ordaindu ditudan berrogei eta hamar euroak balio ditu, dudarik gabe, garai hartan Salamancan izan ziren Pedro Arisbe, Arralde, Irazabal, Juan de Uriart, Juan de las Heras, Marco Sánchez de Aranzaradi, Martin de Berrueta, Ormaza eta beste zenbait euskaldunez mintzo den liburuak.

Maiatzak 17.

Larunbata. Dominikoen komentua, eliza eta kalostra, San Esteban ere bisitatu ditugu, non, besteren artean, hainbat urte igaro zituen Fernando Odriozolak eta inkisidoreen kutsu apurra gelditu zitzaion. Ezagutzen ez nuen moja domingotarren kalostra ere bai, orain bisitatu daitekeena, beraz, goikoa eta behekoa. Honek beste tamaina apalagoa du, baina Errenazimentuko egoitza benetan ederra da, ikusgarria. Katedral zaharreko eta berriko dorreetako eskaileretan goiti eta beheiti, jendetzaz inguraturik ibili gara, bai eta unibertsitatean Fray Luis de Leonek, Inkisizioko kartzelatik pasa ondoren, esan zituen *como decíamos ayer* hitz haiek entzun zituen *Aula Salinas* aretoa, oraindik garai hartako zurezko aulki luzeak mantentzen dituena. Hemen entzungo zituen Axularrek ere Zumelen solasak. Biblioteka zaharrari ere soalditxo bat eman diot, eta beti sentitu dut halako sosegu eza bertako idazkiei denbora gehiago eman ez izanagatik, zenbait katalogo aztertu izan arren, eta hainbeste euskaldun bertatik igarota (Lope de Isasti, Pedro de Axular, Manuel de Larramendi… aktetan ageri diren eran) hain gutxi gelditu izanagatik.

Egia da mereziko lukeela egun batzuk Salamancan bakarrik pasatzea eta unibertsitateko artxiboa eta liburutegia sakon arakatzea, edo bederen pixka bat, baina zer egingo dugu, ikerle gazteentzat badago lanik, eta utzi egin beharko zaie, noski… Oroitzen naiz nola Telletxea Idigorasek artxiboei eta ikerketei buruz hitzaldi bat eman zigunean, euskararekikoak ez zitzaizkiola ia batere arduratzen eta hainbeste eskuizkribu plazaratu dituenak euskarazkoa Lagandara jesuitaren *Gabon Kantak* argitaratu duela soilik.

Bazkaria: bi kaña, salmorejo pixka bat, olagarroa birentzat, izozki-bola bana eta kafea, dena 43,50 euro. Barrenean, mahai arrunt batean. Garestia iruditzen zait. Salamancan nire gazte-garaian hamabost pezeta, hamar euro zentimo balio zuen bazkariak. Estudianteak eta abelzainak ziren ekonomiaren sustatzaileak; gaur egun, ordea, turismoa; eta lehen itxita zeuden komentuak orain irekita daude, beren egoitzak, joia preziatu haiek, eta sarreratxo baten truke erakusten dizkigute. Baina Donostian ere gauza bera ari da gertatzen turismoarekin, zeren eta lehen abuztua bakarrik zena, orain ia urte osoa bilakatu bide da bisitarien hiria, komertzianteen pozerako eta hiritar arrunten poltsikoen kalterako.

Maiatzak 18.

Hotela ordaindu eta gosari ttiki bat egindakoan hegoalderantz zuzendu dugu arruta. Lehenik Béjar mendikateko magalean dagoen Candelario herrian gelditzen gara, *Río Cuerpo de Hombre,* eta *Río del Barquillo* izen politak daramatzaten erreken gaineko zubietatik igaro ondoren. Natura bere onenean dago eta bidexka batzuetatik itzulitxo bat egiten dugu inguruan, gazte-garaiko mendi-ibilerak oroituz eta erosten ditugu olioa, eztia eta txorizoa.

Plasencian gelditzen gara hiria ezagutzera eta bertako katedral zaharreko kalostra zistertarren erakoa dena begiztatu dugu. Honen zutabeen harri-irudiak miresgarriak, deabrua arimak infernuan sartzen, XIII. mendeko *Santa María La Blanca*ren irudi gotikoarekin, eta beste. Eta bertatik sartzen ahal da estilo erromaniko-gotikoan eragin bizantziar eta ekialdekoak dituen San Pabloren kaperara. Gero monumentu ederrez horniturik den hiri honetako plazara joan gara eta aldamenean dagoen *Café Toreron* otordu apal eta era berean gozoa egin dugu mostradore

ondoko mahaitxo batean, bertaratzen den jende fina eta ongi hezi eta dotore jantziaz erreparatuz. Gero *La Vera* deitu paraje berdeetarik joan gara Yusteko monasterioa ikustera. Errenazimentu garaian eraiki erretiro honetan pasatu zituen azken egunak Karlos Bosgarrenak, abdikazioaren ondoren, gota hezueriak jota, 1558an Heriok berekin eraman arte. Leku benetan baketsu, apartatu eta isila. Ondoren, Cuacos de Yusteren sarreran ikusi dugu agure bat gereziak saltzen. Erosi diogu multzo parea eta pixka bat berarekin hitz egin ondoren, eta bere familiaren gorabehera ia guztiak laburtuta entzundakoan, *Candeleda*ra iritsi gara, non zain ditugun Fini eta Ramon. Afalaurretik solas ederrean iragan dugu ibilalditxoa, hala nola lotara joan aurreko uneak.

Maiatzak 19.

Astelehena. Naturaren erdian, txorien kantek esnatzen zaituztelarik, eguzkiak zuzen-zuzen atarian jotzen duela, 30 graduak ostertzetik gora eta lautada zabala bistaurrean nago egun berriari agurra ematen, Marga prestatzen ari den bitartean, Ramon ordenagailuan jo eta ke goizero ohi bezala eta Fini gosariaz arduratuz. Ni dagoeneko dutxatu, bizarra moztu eta etxe atariko mahaian, kanpoan nago ohar hauek idazten. *Tito* zakurra erne dabil batera eta bestera, belardiaren freskuraz gozatzen, mementu honetan etzanda, baina belarriak tente. Txori mota ezberdinen sinfoniak goiza alegeratzen dute kantu ezberdinen kontzertu ederrez. Atariko zutabeetan zehar huntz berdeiluna, arrosa xuri batzuk, belar ebakiak eta inguruko lastoek usain lurtar, gozo eta sarkorrez janzten eta apaintzen dute ingurua. Almanzor mendi tontorra atzo garbi-garbi ostertzean ageri zena, gaur laino gris-urdinxkaraz inguratua dago, txapel argiz jantzia bailitzan. Hemengo patxada eta isiltasuna ez dira nolanahikoak. Margak prestatzen jarraitzen du, Ramonek ordenagailuan eta Finik gosariarekin. Laranja, fruta eta atzoko gereziak, ogi xerra berotu olioztatuak eta tea. Eta bagoazke inguruak ezagutzera. Eguraldia gero eta ilunagoa ari zaigu jartzen, eta aroa freskatzen hasi da.

Marga eta biok Gredosko mendikatearen oinetan dagoen Arenas de San Pedroko *Plaza de las Víctimas* deitu kafetegian hartzen dugu goizerdiko kafea. Oreinari, orkatzari edo basauntzari eskaini harrizko monumetu modernoa ikusi eta handik Guisando herrian sartzen gara; batez ere betonen garaiko –Kristo aurretikako I. mendekoak–, harrizko zezen

multzoagatik da famatua. Ordu eta erdi eman dugu mendian gora eta ateri mantendu da eguratsa. Fini eta Ramoni deitzen diegu baina badirudi inguru hauetan ez dagoela estaldurarik. Beraz, erabakitzen dugu *Camping Los Galayos*eko ostatuan bazkaltzea, non beheko sua piztuta baitago. Dena on-ona: otapurrak *(migas)* eta okela bereziki.

Maiatzak 20.

Tito etzanda eguzkitan. *Txiki* Finiren besoetan, hau garrapata aluitak eta soroetako belar puntaduntxoak kentzen saiatuz. Txoriak bazter guztietan kantari. Eguraldia ezin hobea. Almanzor lainopean halere. Ramonek dio garai batean galtzontzilo zetazkoak eta kolorezkoak erabiltzen zituela eta hori nire biografia honetan idatz dezadan nahi duela. Hau bai dela adar-jotzea!

Maiatzak 21.

Gaur Marga eta biok Oropesara joan gara eta herritik itzuliño bat egin ondoren, *Parador*-era igo gara. Hamaiketan irekitzen dute, baina hamar gutxitan sala eder batean kafesnea eta kruasana atera digute. Emakume heldu bat, berrogeita hamar urte ingurukoa, bere ordenagailuarekin eseri da inguruan eta Margak ere atera du bere tableta. Jubilatu antza daukaten beste lau andre sartu dira, oraindik aski gordinak eta umorerik falta ez zaienak. *El País* irakurtzen dugu musika goxo eta apal bat entzuten den bitartean. Oropesako paradore hau izan da astialdi honetan gehien gustatu izan zaidana. Lasai eta patxadan egon zaitezke bertan, inork molestatu gabe, bake santuan, eta epel-epel kanpoan hotz galanta egiten duen bitartean. *Wifi zone* delakoan gaude eta Marga inguruneko herriei buruzko kontsultak egiten ari da. Oropesatik irteterakoan, gasolindegian, mapa bat erosi dugu eta Lagarterarantz abiatu. Joan gara El Tajo ibaiaren ondoan dagoen *Villafranca de El Puente del Arzobispo* zeramika-lantegia duen herrixkaraino. Pedro Tenorio artzapezpikuaren eskultura agurtu eta handik berriro paradorera itzuli gara bazkaltzera. Leiho ondoko mahai batean eseri eta ikusi dugu benetan modu ikusgarrian, nola zetorren menditik hodeia bere euri kargarekin eta lautada osoa nola bereganatzen zuen ongi asko ondu ehiza jaten genuen bitartean. Naturaren ikuskizunaren kontenplazioa, laino multzoa zaldi-tropa grisaren antzera inguruaz nola jabetzen den ikustea miresgarria da.

Maiatzak 22.

Nuestra Señora de Chilla bisitatzera goaz. Hertsidura batetik gora goaz gaztainondo, lizar, haltz eta haritz artean doan bidetik. Iritsi eta beribiletik irteterakoan panoramika benetan ederra ikusten dugu. Ama Birjin hau Tiétar haranean debozio handia dioten imajina da, XVIII. mendean egina eta zeramika irudikatuen bitartez kontatzen da egin omen zuen miraria, hots, nola artzain gaztetxo batek lortu zuen hil zitzaion ahuntxoa berpiztea Ama Birjinari otoitz eginez, inguruetako laborarien miresgarri zedin. Aldameneko etxean zeuden gazteekin berriketan hasi gara, eta jaten ari ziren tortilla puxka bat eskaini digute. Eskerrak eman, eta bagoaz Ávilako herrixka hauetarik beste ibilaldi bat egitera. Haritzak, pikuak, olibondoak, gereziak, gaztainak, orotarik bada lur aberats eta egurats garbi honetan. Herrian erosi ditugun ardo beltz botila parea, *Protos* eta *Yllera* bana eramaten ditugu Finik amultsuki prestatu digun bazkarirako.

Maiatzak 23.

Gaur ostirala da. Txukun-txukun utzi erabili dugun gela eta bainua, eta igandeaz geroztik egun batzuk konpainia ezin hobean igarota, gosaldu ondoren etxaldera abiatzen gara, Finik eta Ramonek igandera arte bertan gelditzeko asmoa baitute, eta zakurren morrontza. Silosen gau bat igarotzeko asmoa dugu, eta bidean, Segovian atseden hartuko dugu. Goizerdian igaro gara *El Parador de Gredos*etik eta bertan kafesne beroa irentsi dugu. Kanpoan lau gradu. 1935ean erregimen errepublikanoaren kontra bertan bildu ziren falangistak, eta gaur ia ez dabil inor paraje hotz eta memoria tristeko hauetatik.

Segoviako kaleetatik paseatutakoan, *Bernardino* etxean txerritxo errea probatzea erabakitzen dugu, *cochinillo*. Aldamenean, japoniar batzuk fotografiak ateratzen eten gabe eta jesuita itxurako gizon adindun bat emazte dotore eta haren alabarekin, eskubide kontuez mintzatzen. Bapo gelditu gara, eta gauden mahaitik mendi elurtuak ikus daitezke oraindik. Urtzik deitu dit, eta korreoa tabletean begiratu dut. Ez dago deus urgentziazkorik.

Silosera iritsi eta ia inor ez dabil kalean. Badirudi, ostatu bateko iragarkiak dioenez, autobusez PPk antolaturiko mitin batera joanak direla herritar gehientsuenak. Lauzpabost pertsona eta gu, aldiz, fraideek kan-

tatzen dituzten bezperak entzutera sartu gara. Kalostra, Santo Domingoren hilobia, kapitel miresgarriak, kipres ospetsua, *Enhiesto surtidor de sombra y sueño / que acongojas al cielo con tu lanza…*, Gerardo Diegoren hitzetan. Ostatura erretiratu gara. Biharamun goizean Yeclako mendi--haitzartetik gabiltza airean harkaitz goren artean dabiltzalarik putre hegalari handiak. Joan-etorria oinez egin eta etxera, kanpoan jada denbora aski daramagu eta…

Maiatzak 31.

Promoción 1964 dio gonbidapenak, eta urtarrilean Sansinenea ikaskide zaharrak bere gutunean zioen bezala, *Lagun eta ikaskide ohi maiteak. Dakizutenez aurten 50 urte beteko dirala Jesuiten kolegioa utzi genuenetik. Hori dela ta merezi duen bezela ospatu beharko genukeela batzuei iruditu zaigu…* Geroago Araluzek Kontxako pasealekuan topatu eta gogorarazi zidan eta zalantza batzuen ondoren, joan ez joan, aspaldiko zenbait adiskide agurtzeko eta zenbait gertakizun oroitarazteko aukera aparta zenez, baiezkoa eman nuen. Bazkaria Urgullpean eta Santa Mariaren gibelean dagoen *Gastronomika*n. Beraz, hantxe agertu nintzen jesuiten patioko atzeko aldean: Juan José Solozabal, garai batean kolegioko printzea izan zena eta egun *Cuadernos de Alzate, revista vasca de la cultura y las idea*seko zuzendaria, Andrés de Blas UNEDeko lankidea, Ramon Urkizu mediku kirurgilaria, Pedro Irure, José Ramón Cámara –Josean Gurrutxagaren adiskide onaren heriotzaren berri tamalgarria eman didana–, Andoni Sagarna euskaltzaina, Abad pintorea, Berridi ardo-errepresentantea, Matheu, bazkari garaian bere betiko txiste erriberako kutsu usaindunekin aski astuna… Bazkalondoan oroigarriak jaso ondoren eta gin-tonica *Atari*n berriketa animatuan, etxeratu egin naiz, gaur egun liderrak falta direla dioenaren afari-gonbidapenari ezezkoa emanez. Egia esan, urte bat bakarrik igaro bainuen beraiekin Preu eginez, eta ez nuen urteen poderioz gaztaroan egiten den halako adiskidetasun sakonik inorekin.

Ekainak 4.

Aspaldian abandonatuxea daukadan koadernoa berrartu dut, eta ohartzen naiz bertan jaso ditudan oharrez. *Refranes y Sentencias… 1596*koa ez bazuen Garibaik idatzi, edota errefrau guztiak berak bilduak ez baziren, *Memorias…* delakoetan aipatzen duen bere osaba Jor-

ge Martinez de Urrupain (Arrasate, 109-1567) ote zitekeen biltzailea? Agian, zeren eta bere sorterriko alkate izan zen Garibairen osaba honek bidaia anitz egin baitzituen Bretainia eta Flandriatik eta hizkuntzak ongi menderatzen baitzituen, hala nola, euskara, gaztelania, latina, eta frantsesa bederen, eta ezagunak zituzkeen Erasmoren *Adagia* ospetsuak.

Badut beste ohar bat Mondragoeko historiaren batean konprobatu beharko nukeena, eta da Cuencako kanonigoa zen Pedro Markinak, Garibaik 1575eko gutun batean dioenez, sei mila marabedi utzi zituela maisu batek igande eta festetan bazkalondoan elizan *la doctrina cristiana en romance y bascuence* eman zezan… Zein dotrinaz baliatuko ziren? Oroitzen naizelarik nire haur garaian gauza bera egiten genuela Lezon, tradizio oso zaharra behar zuen izan…

Ekainak 20.

Duela bi egun jakin dut zeintzuk izango diren Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Kutxa Laboralak Humanitate, Kultura, Arte eta Zientzia Sozialen alorrean *curriculum* seinalatuenen sariak jasoko dituztenak, alegia, Maria Asun Landa eta Jean Baptiste Orpustan. Honi zorionak emanez gutuntxo bat bidali diot esanez aspaldidanik zeukala merezia, berehala erantzun didalarik [www.patriurkizu.eus (argitaragabeak/gutunak, 54)] esanez, berak ez duela gudukatu, ez jokatu dema horretan. Halaber aipatzen dit nola laster Prousten II-a agertuko den.

Ekainak 23.

Cervera del Pisuergan gaude Mikel, Mila, Marga eta laurok, *Hotel Peñalabra*n. Goizeko seiak eta berrogeita hiru minutu. Mikelen zain nago beribilez Europako Pikoetara joateko eta bertako mendiez gozatu ahal izateko. Teilatu gainean ilargi behera, zilarrezko gondola fin-fina bailitzan. Errotatxoriak txio-txioka goiz-albari kantari. Zerua oskarbi, hodei xurixtak eta morexkak ostertzaren behealdean soilik. Gosaldu eta Vidrierasera iritsitakoan, Mikel ohartu da motxila ahaztu zaiola hotelean. Dena den, ekin diogu Curavacas magaletik gora doan bideari, Cabriles erreka urkiz eta pagoz inguratua eskuinean daramagula. Otadiz eta gisastiz inguratuak belardi goxo batean aurrera harralde piko, zatar, harri-kozkor arriskutsura iritsi arte. Halere, beti gorantz. Une batean, bi ordu pasatu-

xeak eginak ditugunean, eta zaila egiten zaidanean harri tartean ibiltzea, eta malda pikoa egiten denean, alto egiten dut. Uzten diot Mikeli nire motxila, ura eta barritekin eta itzalune batean gelditzen naiz zain. Ekaitza baletor, jaisteko nire kasa, eta hiruretarako ez bada bueltan, berdin, dena den ez duela uste bi ordu eta erdi baino gehiago iraungo duenik gailurra zanpatu eta itzuleran. Ordu eta erdi gorakoan eta ordu bete beherakoan. Etzan naiz une batez zerura begira. Hau da hau lasaitasuna eta bakea! Erreaziozko hegazkinek lerro xuriak margotzen dituzte zeruan. Mugikorrak ez duela behera jaitsi arte funtzionatuko uste dut.

Atxagaren *Nevadako Egunak* irakurtzen jarraitzen dut, baina laster aspertzen naiz; hobe dudala mendien ikuskizunaz ase, gogoetatzen dut. Mendiak hori du arriskua, gailurra bertan dagoela pentsatzen duzula eta muino baten puntara iristen zarenean, beste bat agertzen zaizula gorago… Eguratsak bere onean jarraituko duela dirudi. Hamabi eta erdiak dira eta Mikeli itxoiten nago, *atxoiten* berak aresoarrez esaten duen eran. Laster jaisten ikusiko dudalakoan nago. Ea bada, lainoak eta ekaitza iritsi baino lehenago den. *Atxoiteko* esan dit, baina dagoeneko aspertzen hasi naiz *atxoitez* eta polliki-polliki mendian behera banoa. Laster ikusten dut urrun, oso urrun, badatorrela beherantz. Miru eta txori harrapariak badabiltza hegan haizearen konpasean. Vidrierosera iristen garenean, Mila eta Marga zain dauzkagu elkarrekin bazkaltzeko prest. Mikeli aurpegian nabaritzen zaio egin duen esfortzua, baina baita poza ere, behin berriro bere buruari frogatu diolako gai dela mendi zailak gainditzeko. San Juan bezpera denez, afalaurretik paseatzera atera gara herritik eta sutarako prestatu dutena ikusi. Meta bat makal-azal pilaz osatua eta puntan emakume baten irudia ezkontza eguneko jantzi zuriz beztitua. Pareta batean itsasita kartela ikusi dugunez, suak hamabietan hasiko direla irargartzen, bertako *Asamblea de Mujeres*ek sinaturikoa, pentsatzen dugu erreko dutena sorgina bailitzan, andere ezkonduaren morrontza eta esklabotasuna dela, eta ez garai batean gure herrietan egin ohi zen bezala, gaitz guztien uxatzeko zeremonia, eta San Juanen doinua kantatzen ere ikasi genuela dotrinan. *Entzun gizona, entzun herriak, San Juanen dohai harrigarriak, amagan zinala…*

Ekainak 24.

Zortzi eta erdietan gosaldu dugu Peñalabra ostatuan, eta izen bereko mendirantz irten gara. Hodeiek inguratu dute mendi gailurra eta

ez gara ausartzen, laurak baikoaz, Mikelen haserrearekin abiatzera gorantz, eta zezen, xahal, behi, behor eta zaldien artean soroetan zehar baikabiltza. Hiru orduko ibilaldia buruturik, gutxitxo Mieltxorentzat, Santa Gudara iritsi gara, bertako ermita erromanikoa kontenplatzera eta ondoren bertako tabernan bazkaltzera. Entsalada, Frai Bartolomeren hitzetan gatzozpindua, eta arkumea. Ez bata, ez bestea ez daude oso arruntak baizik. Mikelek belar-txupitoa irentsi du, baina Margak eta biok ezpainak busti egin ditugu bakarrik, gasolina gustu aski nardagarria baitu arruntki eskaintzen dizutenean *un chupito de hierbas*… Siesta, Bernardoren liburua eskuetatik erortzen zait, ez baitzaizkit haurren kontuak interesatzen gehiegi… Gauean berriz oreinak ikustera atera gara eta Paradorearen inguruetako parajeetan talde ederrak ikusten ditugu jauzika errekalderantz.

Ekainak 25.

Gaur *Espigüete*rantz jotzea erabaki dugu Mikel eta biok. Zortziak eta hogei minutuetan Cardena de Abajoko parkingean utzi dugu beribila. Botak jantzi, motxila hartu bizkarrean eta bagoaz gorantz. Bederatziak eta laurdenetan errefujioan gaude. Bertako mahai zaharra inskripzioz beteta dago. Tximinia itzalita. Arasa batean gatza gelditzen da eta beste zerbait. Mikelek dioenez, lehen muinora, *collado*ra, hots, lepora iristen ordu bat igaroko du, eta hamabietako goian egoteko esperantza, asmoa dauka. Beno, nik ez dut gailurrik egin behar, eta saiatuko naiz inguruetara iristen eta fotografia batzuk ateratzen. Harkaitz tartean egin dut gora, baina lehen elurtegiak zanpaturik, behera jotzen dut, eta ur jauzia dagoen lekura noakizu, bertan bainatzen naizelarik larru-hutsik lipar batez soilik, zeren eta ura jelatuta jaisten baita… Goardia zibilaren Land Rover-arekin gurutzatu naiz behera bidean, eta ur-jauzirantz zihoan bikote gazte batekin. Neskak bizkar eta lepondoan gero eta maizago ikusten diren tatuaje horietakoa zeukan, herensuge antzeko baten irudia. Parkingeko ohol berriemailean honako oharrak ageri dira: Espigüete 2.450 m. *Parque Natural. Senda de Magobre*… Ordu bi eta erdietan iritsi da Mikel, aldapa pikotik behera.

–Ze, Espigüete zanpatu al duk?

–Ez. Ordu erdi bat faltako zitzaidaan baina iritsi nauk leku batera non airezko pausua zegoan, eta salto egin behar nian elur-

tegira, baina hau urtzen zihoanez eta azpitik erreka baitzerion, ez nauk ausartu jauzi egitera. Begiratu diat hemendik eta handik pasatzerik ba ote zegoan, baina atzera egin diat.

–Ongi egin duk, Mikel, eman zak egina duala eta kito, ez dik merezi arriskurik hartzea. Zer moduz iritsi haiz haraino?

–Erraz. Lepora liburuak esaten dian bezala iritsi nauk. Berrogeita hamar minutuan.

Mikelek bere garbiketak, lehenago neronek bezala egin ditu, eta ikusi diot eskuin oineko behatz lodia more-more daukala, eta galdetu diodanean erantzun dit aldapa behera zetorrela erori egin dela Curavacasen, zainduko duela eta sendatuko zaiola Pirinioetara joan aurretik.

Arratsaldean, Burgosen *Monasterio de las Huelgas*en egin dugu parada. Ikusi eta entzun dugu gidariak zioena, bai gaztelaniaz, bai eta italieraz, autobus bat etorri baita italiarrez betea. Bazen hauetariko atso bat haserre bizian zegoena ezin zuelako fotografiarik atera, kanpoan kantari zebiltzan *uccellini*ei bakarrik. Autopistatik irten eta Briviescan gelditu gara bazkaltzera. Aparkatzen dudan bitartean, ez baitago erraz, Marga eta Mila zerbait erostera jaitsi dira. Laurok nahiko ongi prestatua zegoen lapina jan dugu. Etxeratutakoan gauzak utzi, dutxatu, arropaz aldatu eta Donostian barrena berriro paseatzera. *La Espiga*n egiten dugu gure afaritxoa. Bi platerxka *salmorejo* eta xapo erdi bana biontzat. Ezin hobea basoerdi pare batekin.

Ekainak 26.

Gosaldu ondoren, Marga Kapitania Jeneralera joan da denboraleak batelikoa hondatu zigunez geroztik, paperak egin eta egin baitabil oraindik. Gaur etorriko zaigu Bermeotik Natxo *Kuku* bezala bataiatu dugun batel berriarekin, aitak zeukanaren oroigarri. Iritsi dira eta uretaratu dugu, gero arraunean estrobu kaxkar batzuekin eraman dut dagokion lekura, hau da, Deba pantalanera.

Ekainak 29.

Marikrutxek deitu dit eta esan dit Manueltxo Etxandi hil dela. Nire monagillokidea, pelotan aurreko kidea, gremioen eta kintoen bazka-

rietako kidea, adiskide ona, gazterik joan zaigu. Benetan zirrara handia egin dit, eta oroitarazi batzuk lehenago, beste batzuk beranduago, baina bizitzak hori duela, heriotza zor.

Uztailak 10.

Pirinioetan egun batzuk igarotzeko asmoz, Marga eta biok goizeko hamarretan irten gara Donostiatik. Hendaian hamaiketan Jon koinatuarekin berriketa labur bat izan dugu eta mendiko bota batzuk oparitu dizkit. Beti bezala dago, fundamentu gutxirekin eta hezurretan, argala baino argalago. Telefonoz, orain ohartu bainaiz ezina izango zaidala larunbatean lagunen afarian egotea, Patxi eta Fermini barkazioa eskatzen diet. Dena den, hurrengoan ez dudala kale egingo, sin falta izango naizela, esaten diet. La Seu d´Urgellera iritsi eta handik bost kilometrora hartu dugu gaua igarotzeko gela *Anserallen* basetxe horietako batean. Balkoia eta terrazatxo bat soroetara begira du gure gelak. Etxekoandrea guztiz ederra benetan. Ikusten zaio mendizale itxura duela eta goi mendietako eguzkiak beltxaranduta dagoela, fina, gihartsua eta atsegina oso. Eliza bisitatzeko ere utzi dizkigu giltzak. Afaltzera *La Seu*ra joan gara, eta etxekoekin mobilez hitz egin ondoren, *Hotel Andriak* daukan terrazan afaldu dugu, benetan jan-edan onak eta zerbitzua primerakoa.

Uztailak 11.

Goizean Sant Serni de Tavèrnoles beneditarren monasterio abandonatua barrenetik ikusi ahal izan dugu, eta bagoaz Odeilloko bidean Ipar Kataluniarantz, Llívian gelditzen garelarik bazkaltzera. Esan dezakegu Gironakoa izanik Iparraldean dagoen herria dela, herri hauetariko batek Ur izena duelarik. Bitxia, benetan. Honaino iristen ote da euskal toponimia? Entsalada eder bat patio pollitean, bi postre eta ardo zuri on bana, kafea eta aire. Parte zaharrak interesa du, baina eskiarentzat eginikoak batere ez. Gure Odeilloko baserrira iritsi gara, Via igaro eta Font-Romeuko arrutan. *Les Cariolettes* du izena Francis nagusiak zuzentzen duen masia berritu honek. Alaia da eta apartamentuko giltzak pasatu dizkigu. Telebista, frigorifikoa, mahai zabal bat begien aurrean mendietako ikuspegi miresgarria ageri delarik… Beribiletik pisura beharrezko gauzak eraman, eta paseotxo baten ondoren, ostatu zahar batean, *La Chouette* izenekoan, afaltzen dugu, *trinxat* delakoa, hau da, aza, patatak

eta xerra urdai-hirugiharraz, eta gero inoiz faltatzen ez den krema katalana. Altuera honetan hotz egiten du, ez dena harritzekoa, mila eta zazpi ehun metrotara baikaude.

Uztailak 13.

Balkoian nago mendiei beha. Zortziak eta laurden dira, eta pixka bat itxoiten, zortzi eta erdietan hasten baitira gosaria ematen. Bi emakume mendigoizale pasatzen dira etxe aurretik, bi makilak, mendi-arropa eta motxila bizkarrean, gailurren bat egiteko asmoz. Gu gara alferrenak, dio Margak, eta ez zaio batere arrazoirik falta. Ikusiko dugu zein ordutan jartzen garen martxan… Hori bai, egun osoa dugu aurretik eta ogitartekoak prestatu beharko ditugu flakiak har ez gaitzan mendian.

Hamabiak eta berrogeita bi minutu. *Eina*ko parke naturalean gabiltza erreka zaratatsuaren eskuinaldetik. Koadernotxoa hartu eta ohar batzuk zirriborratzen ditut, Marga atzean gelditu baita lore batzuei fotografiak ateratzen: orkideak, ostaiskak eta beste. Bi neska gazte igaro dira isil-isilik beherantz gailurra zanpatu eta gero. Itzalean nago, pinu handi baten abaroan, eta ez du batere berorik egiten hemen. Borda zahar batera iritsi garenean, inguruan eseri gara eta jan-edanak motxilatik atera ditugu. Ordu erditxo bat egin dugu bertan eta orain beherantz bide beretik, gal ez gaitezen. Herriko eliza erromanikoari bisita labur bat egin eta Odeillora berriro atseden hartzera. Masian gelditu gara afaltzen eta badira beste zenbait mendizale gurekin. Bikote bat Verdungoa. Gizona laborari sendo eta garaia, futbolzalea denez, mundialeko finala ikustera gure apartamentura gonbidatu dut, bihar jokatzen baita: Alemania vs Argentina. Andrea emakume txiki eta atsegina guztiz, Aljerian jaioa, eta *pied-noirs* deitu haietakoa. Eta, jakina den bezala, hegoaldea nahiko jendeztatua zegoenez, De Gaullek iparraldera bidali zituen, kexa handirik sortu gabe.

Uztailak 14.

Festa Nazionala Frantzian. Aldameneko herrietan jaia nola ospatzen duten, ikustekoa. Hamar eta erdiak inguruan iristen gara Evolera. Eliza, gaztelua, eta orkestina ttiki bat doinuak jotzen. Alkatea bere banda txuri-urdin-gorriarekin eta udala bere inguruan, bai halaber suhiltzaileak eta musika banda: klarinetea, danborra, bonboa, eta beste, gazteenak laurogei urte bederen, *La garde d'amour, Allons, enfants, de la patrie…*

Auzapezak bere solasa labur-labur egin du, *Liberté, Égalité, Fraternité* (zein ederrak egiak balira!) hirukotea goraipatuz eta badoaz denak korrika beste auzo batera betebeharra konplitzera. Etxe zahar-zahar bateko horman zintzilik eta ongi pintatua, krabelinez inguratua, eta bertako laboraria irudikatuaren ondoan: *Aqui viu un català.* Evoletik Pradesera. Sarreran izen frantsesa ezabatu dute eta katalana ezarri: *Prada*. Hemen ere elizaren inguruan 14ko zeremonia ospatzen ari dira baina askoz ere arraitsuago. Armada bere soldaduak eta guzti. Soprano kaxkar batek Marseillesa bakarrik kantatu du, *marionettes* delako neskatila gona-motzak beren uniformeekin, gona urdin eta kapelu beltz, eta makiltxoa eskuan dantzan. Nikaraguan *las palilleras* deitzen diete. Jendetza ez hainbesterainokoa. Jotzen ari zirela *kortau* bat edan dugu, eta bukatutakoan mundu guztia bere etxera bazkaltzera. Gu Canigòpean dagoen Sant Miquel de Cuixàko beneditarren monasteriora igo gara. Itxita dagoenez, eta bisita-ordua beranduago denez, Taurinyara joan gara oinez. Han bazkaldu eta itzultzean ikusten dugu kalostra, benetan ederra; baina hango harrizko zenbait zutabe irudikatu Nueva Yorkeko *The Cloister* museoan daude. Eta zenbat ondare artistiko ez ote dute bereganatu amerikarrek fraide pobre batzuengandik sos batzuen truke, mendeetako herrien artelanak lekuz aldatuz eta etorkikoak hustuz? Lehenik Tourra ikusi dugu, Contador erretiratu egin dela, eta gero futboleko finala, zeina alemanek irabazi baitute bat eta huts. Gauean Font-Romeuko su artifizialen soinuak entzuten ditugu punpa eta panpa.

Uztailak 15.

Puitgcerdara joan gara *Lorazepan* lo eginarazteko pastillen bila. Farmazian ospitalera bidali naute. Azkenean historial berria ireki eta hementxe nago zain. Bada jendea kexu, berant eta atzeraturik dabilelako medikua. Kritikariak gaztelaniaz mintzo dira. Badirudi errezeta batengatik goiz osoa galdu behar dugula, La Seun une egokian ez sartzeagatik farmazia batean… Azkenean ematen didate errezeta oso modu adeitsuan, eta kitto. Plazan musika taldea kantu eta musikari katalanak ari da interpretatzen. Herrian zehar eta laku ingurutik itzuli eder bat egiten dugu, zerbait bazkaldu eta buelta Odeillora.

Ilunabarrean Font-Romeuko *Nôtre Dame de L'Ermitage* kaperan ematen duten kontzertura joan gara. Bederatzietan da. Rémi Geniet

gaztea pianoan eta beste bi musikari gazte, Mozart, Devienne, Cimarosa, Gyrowetz… interpretatzen zuzendari zahar batekin. Kaperatxo honetako erretaula barrokoa da, Joseph Sunyer-en maisulana, 1704 eta 1707 artean moldatua, eta Félix Escribak urreztatu eta polikromatua, aingeru bilutsez betea eta Ama Birjinaren irudia erdian daukana. Bertako hormak koadroz eta *ex-voto*z beterik daude. Jendea banku gogorretan eserita, isil-isilik dago. Adin guztietako entzuleak. Familia osoak. Bikote zahar eta gazteak. Musika oso alaia da eta agian ozenegi jotzen dute. Memento batez nire aldameneko neska atera egin da mutilarekin Cimarosaren pieza bukatutakoan, eta atean bertan minzuriak jota zerraldo lurrera erori da, inguruetako jende guztia urduri geratu delarik. Mediku bat agertu da, begiratu du ongi eta pasatu zaionean eta konortea berriro errekuperatu duenean, elizatxotik bere lagunarekin alde egin du eta kontzertuak jarraitu du.

Uztailak 16.

Ama Birjina Karmengoaren eguna. Dorres herrian utzi dugu beribila eta bertatik ikusten den ermitatxo bateraino igo gara. Hau 1.685 metrotan dago kokatua eta *Santa Maria del Bell-Loc* deitzen da. Sartzen gara barrena eta itzalean oso atsegin gaude, gero atzera giltza bere lekuan utzi eta bista ezin ederragoaz gozatu dugu, urrunera iristen baita. Jaitsi gara herrira eta erromatarren bainutegirako gogorik ez daukagunez, bertako hotel-restaurante batean bazkaltzen dugu, platanondo batzuen itzalean, zerbeza batera gonbidatzen gaituelarik irakaskuntzan izandako Bartzelonako mutiltzar katalan batek. Gero *Col de Jussiel*, hots, izen hori daukan lepotik barrena itzultzen gara. Batera eta bestera bila ibili eta lehengo eguneko leku berean afaldu dugu: *La Chouette*n, nonbait hontz ugari ibiliko ziren eliza dorrearen inguruan. Cazes aldeko ardoarekin, *Canon du Marechal* xumearekin ez baitu zarata handirik ateratzen, eskalibada, eta artzainen mixtura, *cerdaniflette* delako postrearekin. Antzinako kozina katalana.

Uztailak 17.

Azken eguna masia honetako apartamentuan. Francis nagusiak bere bizitza kontatu digu laburki gosarian. Zenbait hiri handitan bizi eta gero, Paris, Londres, bere lekua naturaren erdian zegoela erabaki zuela,

eta bere lagunarekin erabaki zutela Odeillon gelditzea eta etxe zahar hura antolatzea eta txukun-txukun uztea, zenbait denbora eta diru xahuarazi dizkiona, noski. Baina gustura dago joaten zaizkion bezeroei mendietako kontuak kontatuz, zeren eta askoz ere gogokoago du hau, eta ez hirian bizi, *je n'aime pas les villes,* dio. Oso gizon zintzoa, eta atleta dirudi. Lakuak bisitatzera goaz, gaur busa hartuz. *Les Bouillouses* lakuan, bi mila metroko altueran dauden paraje ezin ederrago hauetan zehar ibili ondoren, *Auberge du Carlit*en ebaki bat txokolate zatitxo batekin hartuz errekuperatzen gara.

Uztailak 18.

Etxeratzeko tenorea. Benetan harri eta zur, txundituta nago paraje hauen ederrarekin. Mendi gorak, loreak, errekak, txoriak, ermitak. Egurats eta aroaren araztasunarekin, eta gogoratzen hasi eta ohartu naiz neuronak hobekixeago funtzionatzen hasi zaizkidala, memoria hobetzen detailez betez eta gaztetako pasadizoak hona ekartzeko gero eta azkartasun handiagoz burutzen ditudala. Erabaki dugu Donostiara itzultzeko hobe dugula Frantzian barrena egitea: Foix, Tarbes, Pabe, Baiona…

Irailak 6.

Lizarrako lurraldeetan barrena, *tierraestellatik* beraz, Goio Monreal gidari eta *cicerone* bikain, Fini, Marga, Ramon eta neroni. Goizeko zortzietan Astoria hotelaren aurrean elkartzekotan gelditu gara, eta bagoaz laurok Fini txofer-lanetan, mendira joango baikinen. Zizurreko gasolindegian gelditu gara bederatzietarako, eta bertan gaude Goio ager dadin zain. Herrirantz oinez goazelarik ikusten dugu karreteraren beste aldetik tutua jotzen digula. Gure beribila parkingean utzi ondoren, bagoaz bostak Goioren kotxe berrian, lehenik Gazolazeko Eliza erromanikoa ikustera. Herria festetan dago eta banderatxoak zintzilik ikusten dira bazterretan. Elizaren ataria, benetan ikusgarria, XIII. mendean eraikia, San Juango Ordenakoen arkitektoek moldatua, litekeelarik Pedro Ximénez de Gazólaz izatea eragilea. Euskarrietan harri koloreztatuz zizelkaturik irudi zenbait, tartean zezen bat, lehoia gizona iresten ahoan daukala, Judasen musu traidorea eta Doneztebe martiriaren harrikatzea. Korua eta sakristia Mikel Azkaratek XVI. mendean jaso zituen, eta erretaula nagusia 1641ean Martin Etxeberriak egina da eta Migel Armendarizek urreztatua. Ederrak guztiz.

Handik Monjardingo gaztelura. Herritik igaro eta kaskoraino ziztu bizian igotzen gara bideko zuloak eta errekatxoek utzitako ildoak batere kontuan hartu gabe. Goiok kontatzen digu xit ongi Nafarroako Erresumaren historia, paisaian mendilerroek markatzen dituztela non zeuden mugak, eta noraino iritsi ziren erromatarrak eta mairuak. Halaber, aipatzen digu zenbait erregeren hilobi ere gertatu zela gaztelua. Historia-solasa une batez eten eta kotxetik botila bat ardo, ogia, txorizoa eta urdaiazpikoa ateratzen ditu eta primerako hamaiketakoa egiten dugu, Nafarroaren historiaz polliki jabetzen garelarik, hainbeste datu historiko eta hainbeste xehetasun laster ahantziko zaizkigula jakin arren.

Monjardindik jaitsi eta Iratxeko komentua bisitatzera abiatzen gara, non sortu baitzen, antza, Santiago Bideko lehen ospitalea, Iruñea-Naiarako errege zen Garzia-Santxez III.aren aginduz. Unibertsitatea izatera iritsi zen komentua, XVI. mendetik XIX. mendera arte. Bertan izan zuten karlistek beren odol-ospitalea; gero komentu izan zen eta, hura ixtean, paradore bilakatu. Bisitatzen dugun bitartean, errege izan nahi duen azken karlista frantsesarekin izan dituen harremanak kontatzen dizkigu.

Azkenik San Andres apostoluari eskainitako Leartzako ermita ikustera eramaten gaitu. Balirudike Toscanako jauregi eta lurraldeetan barrena gabiltzala. Noble ospetsu baten egoitzan. Goiok bertako zaindari herrenari elizaren giltza eskatzen dio, eta badaukagu geuk bakarrik ikusteko ohorea eta plazera. Eskailerak eta ataria XVIII. mendekoak. Eta barnean, San Andresez aparte, San Sebastian bat geziz zulatua, eta landare-apaindura zistertarrak. Argazki batzuk ateratzen ditut. Pribatua denez, oso gutxitan irekitzen omen da. Horregatik kontserbatzen da ere hain aratz. Belar gaiztoz inguraturiko kaperatxoa da, eta ia inoiz irekitzen ez denari itzulia eman eta giltzak bueltatu ondoren, bagoaz denok elkarrekin ilunabar zoragarri honetan gure beribilaren bila. Goiok komentatzen du nola toponimo honetatik Txillardegik hartu zuen bere bigarren nobelarako izena, hots, *Peru Leartzako.* Bidean Gipuzkoako Fuerista liberalek Euskal Herriko historian izan zuten garrantziaz mintzo zaigu, bereziki Fermín Lasala y Collado jaunaz, eta zeukan aurreiritzia aldatzen ari zaiola.

Irailak 20.

Nazioarteko Zinema Festibaleko hiru film ikusi ditut gaur. Lehena, goizeko bederatzi eta erdietan *Une nouvelle amie,* François Ozonena. Bi

emakume lagunen ixtorioa, biak ezkontzen dira eta batek haurra edukitzen du. Ama hiltzen denean, promesa egin bezala, besteak zainduko ditu haurra eta senarra, baina badago tartean sorpresarik. Desioa eta sexualitatea. Trabestismoa… Agian zuzendari honen obrarik kaxkarrena. Bazkalondoan, arratsaldeko lauretan, nik aspaldi ikusitako filmik hoberena, Leonardo Paduraren gidoi batean oinarritutako Laurent Cantet zuzendariaren *Regreso a Itaka.* Laburbilduz, hauxe da ixtorioa: Idazle bat ezin bizirik kastrismoaren hertsiduren artean, Espainiara etortzen da, baina hemen denetik egin ondoren, eta hamasei urte igarotakoan, La Habanara bueltatzea erabakitzen du. Etxe bateko terrazan, uda gau batean aspaldiko adiskideak biltzen dira, eta bakoitzak bere biziaren gorabeherak kontatzen ditu, deus ahantzi gabe, pozoina ere irauliz eta bertako zenbaiten kontrako kritikak ere boteaz. Boterearen aurkako ariketa txit interesgarria, une zirraragarri zenbaitekin. Adiskidetasunak salbatzen ditu, oroz gain, musika eta rona lagun. Eta azkena, gaueko bederatzietan *Difret*, etiopiarra. Zeresenay Mihariren gidoia eta zuzendaritzarekin. Gaia, hau: Addis Abeban bada emakume abokatu bat, Meaza Ashenafi izenekoa, zeinak bulego bat sortu duen defentsarik gabe diren neskatila eta andre bortxatuei edota bortizkeria sufritzen dutenei tribunaletan laguntza emateko. Poliziak eta Gobernuak trabak ezarriko dizkiote, baina hala eta guztiz ere, bere egitekoak eta tratu txarren aurkako borroka aurrera aterako du, hala nola Hirut, hamalau urteko neskatxak, eskolatik etxerako bidean bahitzaileek bortxatu zutenak, bahitzaileetako bat hiltzea lortu zuena. Gazte garaiko martxa da gaurkoa, baina egunero film bakarra ikusiz askietsi egin beharko nuke.

Irailak 22.

Francesc Massip irakasle lagunak gonbidaturik, irailaren 24tik 26ra izango den *Els Balls Parlats* II. Nazioarteko Kongresura noa Tarragonarantz nire testua, powerpointa prestatu ondoren, *Los diálogos de satanes en el Teatro Vasco,* txostenarekin. Laburtuz, honen mamia hauxe litzateke: euskal teatro-tradizioan (*Acto para la Nochebuena*, xaribariak, pastoralak…) Satanak izen hauekin ageri dira: *Satan, Asmodeo, Aztaroth, Belzebuth, Jupiter…* Pastoraletan deabruek osatzen duten sataneriak ez du kantatzen, dantzatzen eta elkarrizketatzen baizik, oso modu gordinean, logikoa dena, bestalde, zeren eta kanta, harmoniaren sinboloa denez, ezin izan baitaiteke gizonari kentzen saiatzen denaren adierazgarrietarik

bat. Pastoral modernoetan izenak jada aldatuxeak dira eta izanak ere bai. *Su, Sutan*, eta abar infernuko suarekin lotuta, eta batzuetan solasa eleanitza da…



Irudiak 87-88: Satanen solasak Euskal Teatroan, powerpointean.

Donostiatik hamarretan irten gara. Iruñea igaro eta gasolindegi batean kafesnea eta ogi kixkurtua jan ondoren, Aingeru Epalzak *Noticias de Navarra*n azken orrialdean euskaraz idazten duena irakurtzen dut. Tutera baino hogeita hamar kilometro lehenago, beribilaren argitxo bat pizten eta abisua ematen hasten zaigu. Hau alukeria! Pentsatzea joan den astean preseski eraman nuela Wolswagen garajera bidaia egiteko ongi ezar zezaten, eta bai, bai, lasai joan zaitezke esan zidatela, eta orain hau. Aurkitzen dugu Wolswagen garaje bat Tutera ondoan eta bertan konpontzen utzita hiribarnera goaz. Bertatik paseotxo on bat egin eta katedraleko atari miresgarria behin berriro kontenplatu ondoren, eta otordu xumea baina gozoa egindakoan, bagoaz oinez itzaletik garajerai-

no. Sei ordu pasatu ditu bertan beribilak eta azkenean asper-asper eginak gaudelarik, itzultzen digute beribila matxura seiehun euro kostatu zaigularik. Arratsaldea da, eta Margak ez du batere gogorik Tarragonarainoko bidea egiteko eta Lleidan gelditzen gara afaltzera eta lo egitera, hotel aski merke batean, Zeniten. Afari ona disgustuaz konpentsatzeko *La Huerta*n. Eskalibada, barraskiloak, onddoak, bakailaoa. Dena errazio erditan ardo on baten konpainian.

Irailak 23.

Asteazkena. Atzo, bidean, *El País*eko Solanaren nazioarteko politikari buruzko artikulua irakurri genuen lehenik; zapore gazi-gozoa utzi zigun; eta gero Paduraren *El hombre que amaba a los perros* nobelaren lehen zatia bukatu nuen. Ramon Mercader, Leon Trotskiren hiltzailearen bizitza benetan tristea da, zeren eta Errusian ukan zuen entrenamendu fisiko eta psikologikoa ekintza burutzeko ez zen izan nolanahikoa, benetan gogorra, krudela eta pietaterik gabea baizik. Joseph Stalinek egindako krimenak, genozidioak, eta 37ko epaiketetan iraultzaileen kontrako garbiketak deskribaezinak.

Irailak 24.

Goizean goiz jaiki, ohiko txukuntze-lanak egin, gosaldu eta hotela ordaindu ondoren, bagoaz Tarragonako kostaldera. Bidean, Montblanc-en gelditzen gara. Hamaikak dira eta eliza eta kaletxoak hutsik ikusten ditugu. Eguraldiak primerakoa zirudien baina halako batean euri-zaparrada hotz batek astintzen gaitu. Ordubeteren buruan iristen gara Altafullako *Yola Hotel*era. Gauzak utzi, bainurako motxila hartu eta bagoaz inguruan dagoen hondartzara. Urak bero, noski, Donostiakoekin konparatuta. Margari ospitaletik deitu diote eta noduloa berriro aztertu behar diotela, hartutako mostrarekin ez baitute aski behar bezala analizatzeko. Oso jenio txarrean dago, baina atzeratu diote egun batetik besterako deia eta bainuaren ondoren lasaitu da. Hondartzako izkinan dauden txiringitoetarik batean entsalada jaten dugu eta egarria bi garagardoz kalmatzen. Ostean ibilaldi luze bat egitera ateratzen gara. *Platja de la Mora*raino. Bi ordu eta laurden. Fotografia zenbait ateratzen dizkiegu itsasondoan eraikitako gazteluei. Itzuli, prestatu eta herriko kaskora igotzen gara afaltzera. Karrikak, kriseiluak, eskailerak,

elizak benetan Italia aldekoen antza dutenak. *Les Bruxes,* Sorginak deitu jatetxeko jardinean geratzen gara afaltzera. Dauzkagun jan-edanen zerrenda-hartzailea eta kozineroa alemanak, eta gauzak garraiatzen dituena mairua. Nadorreko marokoarra, handik bertan zegoen nahaste-borrasteagatik alde egina, eta hemen pozik dagoela dio, alemanen eta katalanen artean. Afaria bukatzen ari garela, udako ekaitz, uholde izugarri batek jotzen du. Ohikoa. Trumoiak, ostotsak Mikelen hiztegian, tximistak eta derrepentean zeruko ateak ireki eta hodeiek beren sabel barruak husten dituzte. Ikuskizunak ordu bat irauten du. Terrazan geunden afaltiarrak oro sartu gara taberna barrenera. Margak ez du amore ematen eta alemanek beren zerbeza edontzi galantak edaten dituzten bitartean, gaur bi zuri idorrez konformatu beharko. Ezin gau osoa bertan igaro, eta atera gara oraindik euria bortizki ari duela. Beribila aurkitu dugunerako busti-bustiak gaude, goiti-beheiti, eta kaleetatik beherantz benetako errekak jaisten ari dira rambletarik hondartzarantz, itsasorantz. Arreta handiz beribilean sartu, eta maldan behera karreteratik hotel aldera goaz edozein putzutan pulunpatzeko, hondoratzeko eta bertan geratzeko beldurrez.

Irailak 25.

Goizeko bederatziak dira, eta *La Vanguardia* erosi dudanez, bertako bi fotografia erreparatzen ditut. Obama eta erregea batean, eta La Mercèko parada militarra bestean, hau eta Artur Mas ageri direlarik. Tarragona hiriburura ailegatu gara, eta ematen digute gela. Harrera egileak oso azafata atseginak dira. Arantzazurekin harremanetan jartzen gara eta trenez noiz datorren esaten digu, bila joateko. Francesc Massipekin ere hitz egiten dut telefonoz eta beti bezain adeitsu erantzuten dit. Gauean autobusez eskurtsioa daukagu kongresista guztiek Reuseraino, bertako zeremonia bat ikusteko. Alde batetik eliz-atarian gelditzen diren deabruak, beren maskara eta danborrekin, dragoien suak eta zalapartak aho jigante batetik irteten direnak, eta beste aldetik, *Arranoaren sartzea* eliza barruan eta egiten duen dantza kontzertu baten doinuaren arabera aldare nagusiraino, Ama Birjinari agur egitearren. Buruan, hegaztien errege bezala koroa dauka jantzia. Eta tramankulu handi bat daraman garraiatzailea ere gizon puska sendoa da.

Irailak 30.

Bart gauez, Ampuria Bravako labirintoan galduta ibili ondoren, telefonoz deitu behar izan genion Karmeni gure bila etor zitezen, bestela etxaldea ez genuela topatuko eta. Gaur, eguraldia aski petrala delarik, eta mendira joateko euritsu, Margak erabakitzen du gosaldu ondoren hotela ordaindu eta etxerantz abiatzea. Gironara goaz. Han *Museo de la Historia de los Judíos*, juduen historiaren museoa bisitatzen dugu. Ez da lehen aldia, eta beti bezain miresgarria iruditu zait. Leku xume honetan nola kontatzen dituzten beren etorkiak, erbesteak, sufrimenduak eta nola dabiltzan munduan zehar sakabanatuak. Harri inskripziodunak, jantziak, pergaminoak, Pariseko Liburutegi Nazionalean dagoen 1373an eginiko Cresqueseko *Mapamundi*aren erreprodukzioa, non ageri diren Fontarrabia, Donostia, Getaria, Bermeo, Bilbao… seinalatuak. Liburuak, *autodefe*ak, bizitza eta heriotzaren unerik garrantzitsuenak oso modu pedagokikoan aurkeztuak. Benetan miresgarria da juduek mendeetan zehar kulturarako eta jakintzarekiko eduki izan duten jaidura.

Gironan bazkaldu eta bagoaz beribilez goiko autobidetik, aitzinpiriniotik, hau da Aragoiko haran goietarik Huesca aldera. Han *Santxo Abarka Hotel*ean hartzen dugu ostatu. Ez da hiri handia Huesca, baina gauez hainbeste palazio zahar eta komenturekin eta haiek hain bakarti kriseilu xume batzuez argiturik daudela, benetan une atsegina igaro dugu. Hilario Vallier merkatari frantsesak 1871n eraiki Ultramarinos *La Confianza* gomendatzen digute bisitatzeko biharamunean eta hori egingo dugunean, denda hau benetan antzinako garaietatik aldatu gabe gelditu den zerbait da. Ahaztuak nituen bakailaoa mozteko labana handiak, azuleju politak, kaxak, armarioak, kajoiak… Saltzailea familiakoa da. Atso atsegin eta alaia, ohiko deuskeriak erosten dizkiogunean, dendari buruzko zenbait kontaketa kontatzen dizkigularik.

Urriak 1.

Huescatik Iruñera Jacatik barrena. Hemen gelditu gara, *Museo Románico*a, oraingo izenez *Museo Diocesano de Jaca,* bisitatzeko. Pirinioetako herri txikietan ziren ermitatxoetako joia preziosoak ikusmiratu ditugu, hala nola Bagueseko elizaren horma irudikatu eta koloreztatuak. Fresko

miresgarriak. Iruñean, eguerdi aldean, Gaztelu Plazan dagoen Iruñea kafetegitik itzuliño bat egin, bapo bazkaldu eta Donostiara, benetan gogo handia daukagularik alderrai-bizimodu hauxe denboraldi batez uzteko eta lasai-lasai etxean gelditzeko. Urgullera igo, parte zaharreko Ormazabalen txakolina edan, bazkalondoan siesta egin liburutxo bat magalean daukazula, zinemara joan eta besterik ez.

Urriak 19.

Igandea da eta Madrilera joatea erabaki dugu bizpahiru egunez. Bertan paseotxo batzuk egin, erakusketa batzuk ikusi, teatrora joan eta UNEDeko aretoetan Marina San Filippok antolatu dituen *I Jornadas Internacionales: Tomo la palabra. Mujeres, voz y narración oral,* hitzaldietakoren batera joan, adibidez, Arantxak emango duenera.

Instituto Cervantesek Utrechten debekatu zuen Albert Sánchez Piñolen *Victus* (1714) nobelaren aurkezpena, eta horrek leitzeko gogo gehiago sortu dit eta trenean banoa irakurtzen. Bartzelonaren setioa eta erorketa du gaitzat. Martí Zuviria ingeniari militarraren bizitzaren zertzeladak eta abenturak. Gezurra dirudi oraindik, 2014an, Espainiako Kultur Ministerioaren Inkisizioak funtzionatzen duela ikustea. Bestalde, nobelaren zabalkunderako debeku hau ongarria izan daitekeela uste dut, erraz eta arin irakurtzen dena baita, hemeretzigarren mendeko foiletoien erara.

Bazkalondoren Stathis Livathinosek burutu duen Homeroren Iliadaren bertsio teatrala, Dimitris Maronitisek greziera modernoan moldatua ikustera goaz, Lavapiésen dagoen Valle Inclán antzokian. Hamabost antzezle ezin hobeak, benetan antzinateko gerra famatua eguneratzen lan ikusgarria egin dute. Ahotsak miresgarriak. Dena den, eskerrak goitituluei, pixka bat hobetoxe jarraitzen lagundu digulako, Akilesen furia, *Ialki ezazu, Urtzemel Akile Pelesemearen erresumiña, Akayar'entzako beñolako atsekabe samiñen iturburu izan zana…* Salbador Barandiaranen 1954ko itzulpenean superezaguna izan arren. Hartu dituzten irtenbideak ere oso onak iruditzen zaizkit. Narratzaileak eta ekintzaileak aktore berak izatea, musika, jantziak, dekorazioa, dena. Irteeran Raulekin eta haren teatroko zenbait adiskiderekin topo egin dugu, eta orotariko iruzkinak eginez, aldamenean dagoen jatetxe galegoan izan gara afaltzen.

Urriak 20.

Astelehena. Jaiki, dutxatu eta apaindu. Telebista espainolean korrupzioaz ari dira mintzatzen, politikarien diru-xahuketa soberez… Bekatu egin duenak paga dezala, dio gizalegeak, baina susmoa daukat beste askotan bezala, ohoin handiak aske geratuko direla. UNEDeko liburu-dendara noa *Rutas Literarias* erosteko asmoz, baina ez dakite ezertxo ere obrari buruz. Badirudi Mercè Boixareu errektoreordeak edizio xume bat egin zuela lagunen artean soilik banatzeko. Pilar Ruiz-Va adiskideak esan dit Rocíori eskatu beharko diodala, ba omen ditu-eta aleren batzuk gordeta bere bulegoan urrea bailiran.

SERTA, Antonio Domingok zuzentzen zuen poesia-errebista begiratzen izan naiz, nire bibliografian dauzkadan hutsune batzuk betetzearren. Eta 2008-2009ko alean, non besteak beste, Tolaretxipik eta Juan Ramon Makusok beren poemak aurkezten dituzten, Antoniok egindako elkarrizketan honako galdera egiten dit, *¿el mejor recuerdo de tu actividad profesoral e investigadora?* Eta ongi pentsatu ondoren erantzuten diot, egunorozkotasuna dela. Lankide eta ikasleekiko harremanak, hala nola erabat ahaztutako edo galdutako euskal testuak topatzea eta haiek jendeari ezagutaraztea. Eta bi gizon niretzat benetan onak eta euskal munduan langileak izan direnei, eginiko bi *laudatioak*, laudoriozko txostentxoak. Luis Villasanteren eta Jean Haritschelharren omenezkoak.

Arratsaldean jardunaldietan gelditzen naiz eta Arantzazu Fernandezen *Las Historias de Virginia Imaz*, entzuten dut eta hitzaldien bukaeran Virginia Imazek *Clownclusiones de la primera jornada* performancea antzezten du. Barregarria, oso gordina eta hauslea da, bere burua *cuentera*tzat daukan euskal-erdal antzerkigile-aktoresa-clownesa honek, agian nire belarrientzat gordinegia, *me da por culo, me pica la punta de la polla* eta horietakoak ikuskizun batean maiz entzutea ez baitut oso gogoko. Zaharreriak txotxolotzen hasi ote naiz?

Urriak 21.

Asteartea da, eta gaur nire Departamentuko lankideek beren txostenak irakurtzen dituztenez, entzutera noakie. Helena Adrados Safoz eta Greziako antzinako andere poetez mintzo da. Rosa Pedrero antzinateko ahozkotasunaz eta emakume kultuez, Maria Teresa Navarro emakumea-

ren pertsonaia zenbait musikagileren (Wagner, Rossini, Donizetti, Verdi) operatan: *Holandar alderraia, Otello, Aida, Il trovatore…* Eta hautatu dituen baladak, doinuak eta interpretazioak benetan eredugarriak dira. Hunkitu nau bereziki Desdemonaren *Saratsaren abestia*k. Gauean Vicente Granadosekin afaltzen dugu Santa Ana Plazan. Gizagaixoa oso torpe dabil, tripa-zorro izugarria dauka eta Anjelitak utziz geroztik, edariari emanago dago. Bi bilobak astean behin ikusten dituela, diosku, eta erakusten dizkiela matematika eta hizkuntza pixka bat. Hau atarramentua. Tristea da ikustea horrelako gizon azkarra, jakintsua eta adeitsua hondatzen.

Urriak 22.

Asteazkena. San Lorenzo del Escorialera joateko erabakia hartu dugu, aspalditxo ez baikara bertan egon. Mende erdi edo… Tiketa Moncloako autobusean bertan hartu dugu. Herritik paseotxo bat eman eta Felipe II.ak eraikiarazi liburutegi miresgarria eta erregeen hilobi munstro beldurgarria ikusi, eta alde egiten dugu herrerianismoaren jigantismoak eraiki itzaletik.

Urriak 26.

Kongresuan azken eguna da eta Tarragonako *Universitat Rovira i Virgili*ko Areto Nagusian biltzen gara *Teatralitat Popular i Tradició*, hots, Herri-teatralitateaz eta tradizioez mintzatzeko: 09:30etik 10:15era Eugenia Jurado (Instituto Politécnico Nacional, Mexiko) irakaslea *La danza dramática de los huehes en la Huastecaz* mintzo da. 10:15etik 10:30era, Pere Navarro (URV) irakaslea *Interrupció, represa i evolució del Ball de Dames i Vells de Tarragona.* 10:30etik 10:45era Francina Fernández *El Ball de Vells de Valls.* 10:45etik 11:00etara Antoni Veciana *El Ball de Dames i Vells de Reus, una experiència de recuperació*. 12:45etik 13:00etara Oriol Mas, Anna Castell, Pau Torres, Jordi Serret, Eric Pujol i Manel Cívico *El Ball d'en Serrallonga de Tarragona*, eta 13:00etatik 13:15era Arantza Fernández (UNED) eta Patrizio Urkizu (UNED - Euskaltzaindia - Real Academia de la Lengua Vasca) *Los diálogos de Satanes en el teatro vasco*.

Txanda iristen zaigunean, aurkezpenen ondoren aspalditxo honetan ohi dudan bezala, Pastoraletako ohiko lehen ahapaldiarekin hasten naiz kantatzen, agurra *populu maitagarria* luzatuz eta *pakea eta osagarria* desiatuz. Baina ez dakit zergatik halako indar ezezagun batek bultzaturik,

desiatzen diedana *bakea eta independentzia* da, eta bertsoa itzultzean txalo-zaparrada handia jasotzen dut. Solas ezberdinen zentzuak, gizartearen kritika, sexua…

Adibidez, 1759a baino lehenago Mondragoen antzeztu *Gabonetako Ikuskizun*ean, satanek duten funtzioa Ongiaren botere ahalguztidunaren aurrean Gaizkiak duen ezintasuna azpimarratzea da. Astolasterretan, aldiz, Arüen 1807an antzeztu *Malku eta Malkulina*n adibidez, honako hau dio Satanak Bründemorri: *Holaxe, jaun anderiak, emazie azkarki, / eta popüla mündia ahal bezain abondanki,* eta Bründemorek erantzuten: *Ützi itzazü, sira. Traballa bite azkarki, / agian ezarriren dizie Arhuen hirüna liberaz peti.* Solasen gordintasuna azken garaietan aski bigundu eta eztitu dela azpimarratu behar…

Arratsaldeko bostak laurden gutxitan, mahai-inguruaren eta beste solasen artean tradizio zaharren biziraupena eta berrien asmaketak eztabaidatzen dira. Noiz arte edo zergatik erabili behar da diru publikoa, hiritarren zergak Festa mantentzeko? Askotan dokumentazio zaharra plazaratuz, fideltasuna mantentzen esfortzu handiak eginez, askotan, Castelletsen kasuan bezala, Festa nazionala bilakatuz, Festa eta Erlijioa nahastuz, Neofesten arriskuak, Festen instrumentalizazioa eta beste. Nire sorterrian, *Zabarre* pirata eta *Trapujale* pertsonaien, eta neurri batean Olentzero eta Mari Domingi (Marijaia eta beste) nola sortu diren ikusterakoan, badago zer esanik.

Hamaika eta erdietan, adostuta genuen bezala, iristen gara Pereladara, non Karmen, Kontxa eta Indio zain ditugun. Zurito bat hartu eta bagoaz mendian dagoen *Monastir del Cyr* ondoko ostatura bazkaltzera. Arroz beltza, haragia, lukainka eta umore ona. Gero, lau eta erdietan, monasterioaren sarreran irakasle lodi bat hasi zaigu historia-klasearekin, karolinjioen garaietatik Erdi Aro osoaren berri emanez, bertan izan diren eliza ezberdinen berezitasunak kontatuz eta gelditzen omen den klaustrorik zaharrena dela azpimarratuz. Lezio osoa bukatu baino lehen, nola hainbeste jende ginen, eta ez ginen iristen bere ingurura, Kontxa alditxartu denez, alde egitea erabaki dugu ikusi eta entzundakoa askietsiz. Castelló d´Ampuriasen gelditu gara, hotelean ditugun maletak utzi, eta gero Karmen eta Indiok Kontxarekin, interkanbioaren bitartez, lortu duten Ampuria Bravako *villa* batera afaltzera. Aldea noizbait izango zen gustagarria, baina orain arrunta deritzot lekuari, aberats berrien gune harroputza. Aberats berrien yate gora eta belari luze neu-

rririk gabekoen amarralekua. Itzultzen gara Castellóra eta herri horren xumetasuna, gaztelua, katedrala, historia ugari duen herrian paseotxoa emateak pixka bat konpentsatzen digu. Bi lekuak konparatzean benetan txiki eta zaharrarekin gelditu naiz itsu-itsu.

Azaroak 12.

Aspaldi da Eusko Ikaskuntzak antolatutako ekitaldi batera ez naizela joan. Zehatza izateko, nire saileko zuzendaritzan dimisioa aurkeztu nuenetik, baina jarraitzen dut halere nire kuota xuxenki ordaintzen, eta gaur Eusko Ikaskuntza - Laboral Kutxaren Humanitate, Kultura, Arte eta *Gizarte Zientzia Saria 2014* Mariasun Landa eta Jean Baptiste Orpustan adiskideek jasoko dutenez, joan egin naiz, aspalditxoan agurtu gabe daukadan Jan Battit besarkatzeko asmotan, zoriondu nuen arren gutun bidez. *Jakin*eko taldea ere agurtzen dut, Joxe Azurmendi, Juan Mari Torrealdai eta beste. Jose Manuel Castells nire ondoan esertzen da eta hasten da ekitaldia. Euskal Herriko zazpi Unibertsitateetako errektoreen ordezkariek beren txostenak irakurtzen dituzte, ia denak berdintsuak. Aspergarri bilakatzen ari da dena. Mariasunen ipuingintzaren balioak azpimarratzen dituzte, nola *xumetasunetik aldaketa sozialaren alde egin duen idazlea* den eta nola sari nazionala lortu duen, hala nola hainbat hizkuntzatara itzulia izan den. Orpustan ez da ageri, zeren eta bere ordez saria jasotzen dagoen Xarles Videgainek esan duenez, ospitalean dago bihotzeko ebakuntza egin diotenez. Beste zazpi diskurtso berdin entzuten ditugu oraingoan ere, axaletik baizik ez dutela ezagutzen frogatuz, Videgainek izan ezik. Lotsagarria nola ahoskatzen dituen frantses izenak elkarteko lehendakariak, Proust adibidez. Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren, Urkulluren solasa, memento politikoari atxikia, areago da solas politikoa, kulturala eta unibertsitateari dagokiona baino. Koktel bitartean musika entzuten dugu eta Castellsekin berriketan egiten dut, memento batez Videgain eta Aurelia Arkotxa ere agurtzen ditudalarik, eta Orpustanen presentziaren eza komentatzen. Osasuntsu izan balitz etorriko ote zen?

Azaroak 20.

Eugenio Arozenak deitu dit eta esan dit ea *Mintzola*k antolatu eta KMn egingo den bilerara joateko asmorik badudan. Ahaztuta neukan,

baina baiezkoa eman diot eta bertan elkartu gara *Teatro Ondare*ei buruz hitz egiteko. Baionako Mediatekako arduraduna den Marie-Andrée Ouret; Marie Hélène Déliart Euskal Museoko liburutegikoa; Pruden Gartzia Euskaltzaindiko liburuzaina; Euskal Kultur Erakundeko Pantxoa Etchegoin; KMko Sorne Matxinena, Sabino Aranako Iñaki Goiogana, eta Sü Aziako Maddi Oihenart mahaian, jendaurrean. Entzuleen artean oso gutxi. KMtik Frantxis Landatxe, Etxepare Institutuko zuzendaria den baina era pertsonalean etorri omen den Aizpea Goenaga, Eugenio Arozena, beste bizpahiru eta neroni. Denek agertu dituzte zeintzuk diren beren liburutegietako antzerki funtsak. Ezer gutxi Eugeniok bilduak dituen bi mila antzerkiekin konparatuta. Hauek, ordea, Oiartzungo Udalaren almazen batean daude kaxatan sartuak, eta inork gutxik erabil ditzake. Besteak, aldiz, gutxienez mundu ororen zerbitzuan daude. Ez dakit garbi zer negozio egin duen Eugeniok Oiartzungo Udalarekin, halako bilduma, non besteren artean 300 bideo dauden, burutu eta gero. Denek azpimarratu dute Euskal antzerkiaren dokumentazioa bildu eta ezagutaraziko lukeen zentro baten beharra, duela hogeita hamar urte neronek esaten eta idazten nuena *Antzerti Berezia* aldizkarian *Antzertiteka* baten beharraz idaztean. Biltegi hutsa baino, egungo teatroarentzat lanerako tresna izango litzatekeen zentro bat irudikatu da, bildutako dokumentazioa antzerki munduko eragile ezberdinen artean ezagutarazi, sorkuntza sustatzen lagundu eta ikerketa bultzatuko lukeena. Itxi zuen Eusko Gobernuak *Antzerti* eta orain horrelaxe gaude. *Mintzola*k ere hiru aldiz egitasmo bat aurkeztu omen du hori burutu dadin, baina diru-aurrekontuetan ikusirik ez dagoela, atzera. Biblioteka ezberdinen funtsen koordinazioa, Frantxis Landatxek adierazi duenez, KM kulturuneak egin dezakeela eta prest dagoela horretarako. Baina nire susmoa da bakoitzak bere altxor ttipia nahi duela mantendu eta elkarrekin parte hartzeko hutsaren trukeko baldintzetan ez dagoela prest. Ezer zehatzik erabaki gabe irten gara. Eugeniorekin bazkaldu dut *Aloña-Mendi* tabernan eta artxibo lanetan dabiltzanak eta parte hartu duten neskak izan ditugu aldamenean. Bizkaitarrak ez dira ageri, eta haien partetik sumatu dut ekintza honetan interes gutxiena.

Abenduak 2.

Mikelek deitu dit esanez ea nahi dudan Aresora joan eta onddo batzuk biltzen saiatu. Baietz esan diot, noski, eta bagoaz Gipuzkoa eta Nafarroa-

ko mendietan barrena ibilalditxo bat egitera. Gorriti aldean autopistatik atera eta bagoaz gorantz. Utzi dugu beribila pagadi baten gerizean eta berehala inguratu zaizkigu behor mordoxka. Egia da Mikelengatik ez balitz berehala galduko nintzatekeela paraje ezezagun hauetan, beti eduki arren behera jotzea eta errekari jarraitzea, baina auskalo nora iritsiko nintzatekeen. Arranoak baino bista zorrotzagoa du Mikelek, eta ni monagilloa bezala nabil, atzetik beti, berak urrutira ikusten dituen onddo, gibelurdin eta zizen saskia eramanez. Langarra dugu eta zirimiri ziztrinak blai bustitzen gaitu. Eskerrak bota onak eta janzki egokiak ditugula, bestela ez legoke giro, eta egia esateko ez dago, alabaina plazera da bideko orbelak eta goroldioak zanpatuz ibili ahal izatea. Aldapa pikotan goiti eta beheiti hiru ordu eta erdi inguru ibili ostean, hurbiltzen gara beribilera berriro. Ez da ageri lehengo behorrik. Aresoko etxera hurbiltzen gara eta han Mikelek sukaldean bildutakoak prestatzen dituen bitartean, berriketan jarraitzen dugu zeruak eta lurrak astinduz. Imanolen omenaldiez. Itxurakeriez, eta bere unean hain gaizki eta gogor tratatu zutenez. Otordu gozoaz dastatu eta whiski titaretxoa edandakoan Nafarroako telebistaren aurrean manta beroa magalean loak hartzen nau.

Abenduak 7.

Montse Fornells, Errenteriako garaietako lankidea eta orain *San Telmoko Lagunak* taldeko lehendakaria denak, iaz Mikel Hernandez Abaituak hitzaldia San Telmoko aretoan eman zuenean esan zidan ea aurten neronek emateko prest izanen ote nintzen. Baiezkoa eman nion eta gaur beharko dut bete agindutakoa. Powerpoint bat nahi dut aurkeztu zenbait abestirekin. Hitzaldiaren titulua *Itsasoko tragediak euskal kanta zaharretan*. Doinuak ongi entzun zitezen gaur Patxi Intxaurrandietari, behin berriro, laguntza eskatu diot eta goiz agertu da, teknikoarekin batera. Duela bi egun aretoan musikatzeko tresneria nola zegoen aztertu nuen eta proba ongi atera denez, hitzaldira lasai joateko prest nago. Hitzaldiaren aurkezpena Azkoitiko neska gazte batek egin du; beste askok bezala Larrañaga du izena. Horrelako okasioetarako deitzen diote, hau da, euskaraz zerbait egin nahi dutenean.

Gregorio González Galarza (1869-1948) fotografoaren argazkia, *Día de Galerna en la Bahia de la Concha,* aitzakitzat harturik, euskal kanta zaharrei errepaso bat eman diet: Hasiera *Itsasoa laino dago*… kantarekin

eman diogu eta gero *Ternuako kantak, Aldaztorreako balada* Ruper Ordorikak abestua, *Pulunpa* abesteko Elaudi taldeko Marie Hirigoienen ahots hunkigarria hautatu dut, Maika Etxekopar, aldiz, Etxahunen bertsoak *Domecq anaien tragedia* kantatzeko, *Lusitania* itsasontziaren hondoratzea eta 1914-18ko gerraz zertxobait hitz egin dut eta bertso-paperetako zenbait doinu neuk kantatu. Aretoa aski beterik, ia gehienak emakumeak, hori bai, eta tartean Marikrutx arreba eta Miren Lourdes iloba. Denek txalotu dute bukaeran eta esan didate oso gustukoak izan dituztela hala hitzaldi-kantaldia, nola irudiak.

Imanol Larzabal kantaria hil zela hamar urte igaro direla-eta, bera gogoratzeko Joxan Arbelaiz oiartzuarrak bildu ditu hainbat abeslari: hogei. Zaharrak eta gazteak, Victoria Eugenia aretoan. Tartean Pako Ibañez ere bai, bere laurogei urterekin ia ahotsik gelditzen ez zaion arren. Antton Valverde, Felipe Juaristi, Arantxa Irazusta, Pier Paul Berzaitz, Jabier Muguruza, Beñat Achiary, Amaia Zubiria, Erramun Martikorena, Mikel Markez, Caroline Philips, Xabier Euzkitze, Nahia Zubeldia, Txema Garcés, Mitxel Longarón, Mixel Ducau, Joxan Goikoetxea. Hain gogoko dudan Antton Valverde nahiko ahul aurkitu dut. Bazuen ikuskizunak bat-batekotasunaren kutsua, oro har aski erdipurdikoa eta ekitaldi-maisu Joxan Goikoetxea, pianoa eta akordeoia joz. Etxetik eta lagunengandik urrun Orihuelan bakar-bakarrik hil zen kantariari bizitzan eskaini ez zioten adiskidetasuna eta laguntza orain ari zaizkio ematen. Ikuskizuna luzea izan da, luzeegitxoa nire irudiko. Kantari gehiegixko eta prestaketa gutxitxo. Hobe zitekeen. Hiru orduren ondoren, une batzuk kenduta, Mikel (ez baita inor agurtzeko batere zalea) eta Mila bere emaztearekin *La Espiga*ra joan gara pausoa arinduz zertxobait afaltzera.

Abenduak 15.

Astelehena. Tomas Mannen *Los Budenbrook* bukatu dudalarik sukaldeko irakurketa bezala, galdetu diot Margari non gordetzen duen irakurri ditudan liburuen zerrenda, baina aspalditxo ez dituela apuntatzen eta bi orritxo eman dizkit zenbait titulurekin; osatzeko ganbarako errotari eskatu beharko diogu martxan jar dadin.

Abenduak 22.

Aspaldiko partez, goizetik Baionara joan gara, bai baneukan Mattin liburu-dendatik bueltaxka bat emateko gogoa. Murrizketak eta kenke-

tak hona ere iritsi direla ohartu naiz, zeren dendaren erdia supermerkatu batek jan du. Noski, liburu zaharrentzat jada ez da gelditzen tokirik. Orpustanek itzulitako Prousten bi liburu erosi ditut. *Aro galduaren bila* I. *Zuanen etxe aldean,* eta II. *Guermantes-ko aldea*. Baigorriko Haritzeta argitaletxeak plazaratuak Euskararen erakunde publikoaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Astiro eta zatika irakurri beharko, kontuan hartuta itzultzaileak darabilen nafar-lapurteraren zailtasunak erantsi behar zaizkiola nobelak berezkoak dituenei.

Gauean, etxean afaria antolatu dugu Koro Navarro, Jesus Garmendia, Lola eta Juan Kruzekin. Jesusek bi basoerdi on edan dituenean, *Podemos-Ahal dugu* talde politiko berriaren programa ekonomikoari, bera ekonomista aditua denez eta EHUn irakasle izana, kritika latza egin dio. Boterean baleude berehala erreka joko genukeela, hondatze hutsa litzatekeela, honengatik eta hargatik. Noski, beti ematen ditu bere arrazoiak, baina niri ekonomiaren mugimendu horiek hain egiten zaizkit arrotz non berehala ahazten ditudan.

Abenduak 23.

Goizean ARCO inguruan Goio Monrealekin topo egin dut, bere bilobak bisitatzera etorria baita Nafarroako bere erretirotik. Oso argal aurkitu dut, eta udaberrirako geratu gara, eguna luzatzen hasten denerako utzi dugu, beraz, beste txango bat egitea berak hain ondo ezagutzen duen Nafarroako lurralde zabaletik, Ramon, Marga eta Finirekin.

Abenduak 24.

Beste zenbait urtetan ohi bezala, lagun artean erabaki dugu Hendaiako portuan ostra-dastaketa eginen dugula ardo zuriarekin aperitiba gisara. Marinelen kooperatibara andreak sartu dira arropak begiratzera, eta nik bitartean Txingudiko badiaren ederra kontenplatu dut, eguzkia aurrez aurre dudalarik, eta itsasontziak oro branka hegoaldera daukatela begira. Ontzien izenak bitxi. Bat, *Saint Jean priez pour nous,* arrantzakoa da. Eta bestea, bi mastadun hamazazpi metroko belaria, *Avel Mor II*. Tabernako kanpoaldean libre dagoen mahai batera inguratu gara eta, hiru dozena eskaturik, plazerez eta harmonia onean dastatu ahal izan ditugu itsasoko emaitza freskagarri hauek. Indiok, higuin dituelako edo, hobeto esateko, behin kalte egin omen ziotelako komeni ez bazaizkio ere, izokina hautatu du. Karmen beti bezain agintari, bere iritziak denoi

ezarri nahiz, Kontxa beti bezain atsegin, eta familiaren osasunarekin kezkatuta, une gozo hauek *probextuz,* Eugeniok dioen bezala.


Gauean Lezora joaten gara, arreba Marikrutxen etxean afaltzera. Zortziak inguruan iritsi naiz eta hantxe zegoen koroa plaza erdian *Ator, ator mutil, etxera* kantatuz… Inguruetako gizataldea, batzuk kantari eta besteak entzuten. *Patri,* esan didate bi adiskidek, *ikusten duzun bezala hemen gauzak, tradizioak ez dira aldatzen…* Jai hauen inguruan antolatutako festak mantentzen dira, eta bi basoerdi edan ditugun bitartean, kaleetan zehar –ia ezin zen ibili ere, hainbeste jende baitzegoen bertan–, tradizioez mintzatu gara, eta nola, Kanariar uharteetarako hegazkinak beteta zebiltzan egun hauetan. Beraz, badela nahiago dituena familiako giro beroaren ordez beste gorputzeko berotasunak. Marikrutxenean ni naiz gizon bakarra, bertan daudelarik Mari Krutx betiko sukaldaria, Miren, honen bi alaba, Maider baserritar jantziz dotore eta Maddi, oso fin eta erdipunk, lana baduelako pozik, Marga eta neroni. Afaria ongi hastearren xanpain frantsesa ireki dut, eta horrela segitu dugu, ez aldatzearren. Bi eguberri-kantu kantatu eta goiz erretiratu gara, urte berri arte adio esanda.

Abenduak 27.

Gaur bukatu dugu sukaldeko irakurketetan Singer Isaac Bashevis, nobel saridun jiddish idazlearen *Enemigos (Una historia de amor)* nobela. Herman ateo izatera iristen ez zen juduaren hiru emazte, Tamara, Masha eta Yadwigarekiko saltsa-maltsak. Woody Allenen zenbait filmekin badu tankera. Elkarrizketak umore eta grazia handikoak dira, gazi-gezak.

Gezurretan bizi da Herman, beti beldurrez, rabinoari diskurtsoak eta liburuak idazten dizkio, eta literatura munduan esan ohi den bezala, beltza. Azkenean, espero zitekeena da bukaera, baina badu bere suspentsea ere, eta gizatasunaz eta nazismoaz gogoeta aski sakonak. 1989an Paul Mazursky zinema-zuzendariak Ron Silver protagonistaren, Anjelica Huston eta beste zenbait aktore miresgarrirekin burutu eta plazaratu zuen *Enemies a love story* filmak Oscarrerako hiru izendatze eduki zuen eta New Yorkeko Kritikarien Zirkuluak zuzendari hoberena bezala kontsideratu zuen urte horretan. Mereziko du ikustea filmak, dudarik gabe.

KM kulturuneko errebista-gelatik bueltaxka bat eman ondoren, eta ohartu2takoan *Egan* aldizkarian Gillermo Etxeberriak argitaratu duela bidali nion *Jose Martin Mikelajauregi "Ezkerra" (Bera, 1763 - Irun, 1861) Bidasoako bertsolaria* zenbait bertso-paper zaharrei buruzko idazlana, Urgullera paseotxo bat ematera igo naiz. Itsaso zabalera jotzen duen iparraldeko bidetik uhinen hotsak, olatuen orro etengabeak, etorri eta joaten diren bagen soinu errepikakorrak entzuten eta lurraren borobiltasuna frogatzen duen ostertzaren lerroari begira noalarik Ramon eta Fini topatu ditut. Ramon beti bezain dotore bere txapela urdinarekin. Zapatak ez ditut aipatuko. Tito eta Txiki zakurrak inguruan bueltaka jolasean, eta geratu gara beste irteera artistiko edo gastronomikoren bat egin behar dugula Margarekin, ahalik eta azkarren, dio Ramonek, Heriok bere atzaparretan eraman baino lehen, ze… nork daki biharko berri?



Irudia 89: Baionako Euskal Museoko eskuizkribua nº 97:
Recueil de quelques pièces de vers anciens et nouveaux. 1798.

PATRI URKIZUREN IDAZLANEN ZERRENDA

Oharra: Liburuak beltz nabarmenez ageri dira.

Digitalizazio zenbait ikus daiteke A Distancia, Armiarma, ASJU, Aurkinet, Bidegileak, Bilketa, EGAN, EPOS, Eusko News, Inguma, KM kulturunea; LAPURDUM, OIHENART, RIEV eta RLLCGV-en…

Ikus orobat wikipedia. Entziklopedia askea…

💻 Ikurra dutenak https://patriurkizu.eus/ eta patriurkizu.lezo.eus/ Web orrietan aurki daitezke.

1969

1. "Zomorro eta kazkazuri", **Euskal Elerti 69**. J. S. Martin et al., Kriselu, Bilbao, Donostia, 1969, 425-436. or.

1970

2. **Literatura eta kritika**. Lur, Donostia, 1970, 156 or.

1971

3. "Tresora hirur lenguayetakua, frantzesa, española eta heskuara, (ed. Voltoire, c.1620)", *Anuario del Seminario de Filología Julio de Urquijo* (aurrerantzean ASJU), Donostia, 1971, 175-191. or. 💻
4. "Antzerkia hil zorian dago"*, Herri esnatzailea. Esnatu,* Oiartzun, 19-20. or.

5. "*Poema Bilduma* (Amaia & Mikel Lasa)", *Esnatu,* 21. or.

1973

6. "Breve estudio antológico y léxico del tema marino vasco", ASJU, Donostia, 1973, 57-104. or. 💻
7. "Albadak, xikitoak eta erran zaharrak", ASJU, Donostia, 1973, 104-117. or. 💻
8. "Teatro popular vasco: Los Charibaris. *Chiveroua eta Marceline. Recoquillard eta Arieder*", ASJU, 1973, 117-225. or. 💻

1975

9. "Bertso paperak", *EGAN,* 1-6, 1975, 81-92. or. 💻
10. **Euskal teatroaren historia**., Kriselu, Donostia, 1975, 115 or.
11. **Sekulorun sekulotan**., Kriselu, Donostia, 1975, 85 or. 💻
12. (Itz.), Aldabaldetreku, P. et alt., **Deba. Euskal kosta nuklearra**. Kriselu, Donostia, 1975, 149. or.

1976

13. "Muga", *EGAN,* 1-6, 1976, 173-178. or. 💻
14. "Euskararen etorkiaz eta kaukasiar hizkuntzekiko ahaidetasunaz", *BERRIAK*, 1976-IX-16.
15. "Elekzioak Ipar Euskal Herrian duela ia ehun urte (1881...)", *BERRIAK,* 1976-II-2.
16. "Euskara eta iraultza frantzesa (1789-1793)", *BERRIAK,* 1976-X-14.
17. "Inprimategia eta euskal lehen liburuak", *BERRIAK,* 1976-X-28.
18. "Jon JUARISTI, *Euskeraren ideologiak*", *BERRIAK*, nº 9, 1976-X-21.
19. "Inprimategia eta euskal lehen liburuak", *BERRIAK,* 1976-X-28.
20. "Literatur sariak", *BERRIAK*, nº 9, 1976-XI-11, 53-55.
21. "Xalbador joan zaigu", *BERRIAK, nº 10,* 1976-XI-17.
22. "Bernardo ATXAGA, *Ziutateaz*", *BERRIAK,* nº 13, 1976-XII-8.

23. "Antonio Arrue hil da", BERRIAK, nº 13, 1976-XII-8, 30-31.

24. "Zer eman digu 1976ak Kultur arloan", *BERRIAK*, nº 13, 1976-XII-29.

1977

25**. Dorrejiko kanta**. Donostia, Kriselu, 1977, 66. or. 💻

26. "Elekzioak Ipar Euskal Herrian duela ia ehun urte (1881…)", *BERRIAK,* 1977-II-2, 24-27.

27. "Bertsolariak", *BERRIAK,* 1977-IV-6, 29-31. or.

28. "Zorion ustela" (erreseina), *BERRIAK*, 1977-II-16, 35-36.

29. "Ihauteriak. Izenaz historia apur bat. Ihauterietako bi kanta", *BERRIAK*, 1977-III-2, 30.

1978

30**. Lengua y literatura vasca**. Haranburu. Donostia, 1978, 172 or.

31. Isastiren atsotitzak (1620). Lezo.

32. "Harrizko hamalaukoa Gabriel Arestiri", ***Euskal poetak eta artistak G. Arestiren omenez***. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 191. or.

1980

33. "Zenbait ohar literaturaz eta politikaz"*, ZEHATZ,* 1980, 61-63. or.

34. "Jacques de Bela (1586-1667)", ZERUKO ARGIA, 1980-XII-28, 27-28. 💻

1981

35. "Ihauterietako hiztegia", *ARGIA,* 1981-III-8, 1904. zkia, 23-24. or. 💻

36. "Eguerritaco cantac 1789 urtean ezan zirenac Donostiyaco erriyan", *OH EUZKADI*. 13. zkia. 💻

1982

37. "Lezoko kale izendegiaz zenbait ohar". Lezo, Mendekozte. Maiatza.

38. "Xaribariak. Zenbait ohitura berezi". ARGIA,1982-XI-7, 24-25. Or. 💻

1983

39. "Edward Lhwyd-en hiztegi poliglota (1703)", *EUSKERA* 28, Bilbao, 1983, 378-401. or. 💻

40. "Carlo Goldoni (1707-1793)", *ANTZERTI berezia*, 3, Donostia, 1983, 32-33. or. 💻

41. "Impresiones de Boadella sobre la Pastoral vasca", ANTZERTI berezia, 4, Donostia, 1983, 2. or. 💻

42. "Bordeleko Herri Bibliotekan diren Pastoral, Xaribari eta InhauterikoTrajikomeriak", *ANTZERTI berezia*, 4, Donostia, 1983, 11-12. or. 💻

43. "Grekar Antzertia. Euripides V. mendea K.a.", *ANTZERTI berezia*, 4, Donostia, 34-35. or. 💻

44. "Zenbait ohar Euripides-en 'Troiako Emakumeak' izeneko trajeriari buruz", **Troiako emakumeak**. ANTZERTI 61, Donostia, 1983, 7-9. or.

1984

45**. Euskal Antzertia**. Donostia, Eusko Jaurlaritza, 1984, 173 or.

46**. Astolasterrak**. Donostia, Eusko Jarlaritza, 1984, 80 or.

47**. Nola Kursaal berria suntsitu zen**. Donostia, Elkar, 1984, 114 or.

48**. Jon Mirande, Gauaz parke batean: Ipuin izugarriak**. Donostia, Elkar, 1984, 170 or.

49**. Etsipenez: Jon Chahoren memorioizunak**. Donostia, Elkar, 1984, 196 or.

50**. Marzelin Eguiaphal, Santa Jenebieba (pastorala)**. Donostia, Eusko Jaurlaritza, 1984, 68 or.

51**. Zeren azken finean**. Gipuzkoako Kutxa, Donostia, 1984, 66 or. 💻

52. "Teatro popular vasco en la Edad Media y el Renacimiento", *ANTZERTI Berezia,* 6-7, Donostia, 1984, 2-5. or. ; 2-6. or. 💻

53. "P. Salaber, pastoral errejenta", *ANTZERTI berezia*, 6, Donostia, 1984, 6-7. or. 💻

54. "Pedro Ignacio de Barrutia y Basagoitia (Aramaio 1682 - Arrasate 1759)", *ANTZERTI berezia*, 6, Donostia, 1984, 33-34. or. 💻

55. "Frantzisko Xabier Maria Munibe eta Idiakez, Peñafloridako Kondea (Azkoitia 1729-Bergara, 1785)", *ANTZERTI berezia,* 7, Donostia, 1984, 24-25. or. 💻

56. "Euskara erdal Antzertian", *ANTZERTI berezia*, 8, Donostia, 1984, 6-8. or. 💻

57. "Marzelino Soroa", *ANTZERTI berezia*, 8, Donostia, 1984, 34-35. or. 💻

58. "Toribio Altzaga (1862-1941)", *ANTZERTI berezia*, 9, Donostia, 1984, 32-33. or. 💻

59. "Patri Urkizuren poema galduak", *SUSA,* 12, Donostia, 1984, 18-20. or. 💻

60. "Duela ehun urte", **Santurtziko kontsejua 3**, Literatur lehiaketa (Antzerki laburra), Santurtzi 1984, 7-9. or.

1985

61. "Protestantak Euskalerrian XVI-XVII. mendeetan", *PLAZARA,* 2, Irun, 1985, 22-23. or. 💻

62. "Strindberg Euskadin", *LITERATUR GAZETA* 1, Donostia, 1985, nº 1, 24. or. 💻

63. "Frantzisko Xabier Maria de Muniberen teatroa", *JAKIN,* 37, Donostia, 1985, 7-30. or. 💻

64. "Resurrección María de Azkue y Aberasturi (1864-1951)", *ANTZERTI berezia*, 10, Donostia, 1985, 29-30. or. 💻

65. "Alfredo Etxabe, eresiantzerkigile: Mirentxu, Bilbo 1910", *ANTZERTI berezia,* 11, Donostia, 1985, 26-28. or. 💻

66. "Etienne Decrept, eresantzerkigilea (Baiona 1868 - Bidart 1938)", *ANTZERTI berezia*, 12, Donostia, 1985, 24-26. or. 💻

67. **Eros, eros. Bertso eta poemak**. Literatur gazeta. Donostia, 1985, 43 or. KM kulturunea. D

68. "1965-1985. Nueva poesía de las lenguas de España", Verinesko idazleen biltzarra, *Literatur Gazeta*, Donostia, 1985. nº 2. 💻

69. "Sarrera", **Behin batean... ju, ju, ju.** ANTZERTI 77, Donostia, 1985, 7-9. or.

1986

70. "Euskara XVI-XVII. mendeetako zenbait idazle atzerritarrengan", ASJU, 1986, XX-2, 343-350. or. 💻

71. "C.A.F. Mahn-en kanta eta bertso bilduma. Berlin 1857", *EGAN*, 1-2, 1986, 13-84. or. 💻

72. "Jean Etcheberri. Arraultze ohoin", *EGAN,* 3-4, 1986, 223-226. or. 💻

73. "Poética", **El estado de las poesías.** LOS CUADERNOS DEL NORTE, Oviedo, 1986, 145-148. or.

74. "Jean Barbier (1875-1931)", *ANTZERTI berezia*, 12, Donostia, 1986, or. 26-27.

1987

75. "XVIII. mendeko amodiozko gutun bat", *EGAN,* 1-2, 1987, 39-41. or. 💻

76. **Behin errementari batek. Garibairen istoriotxoak**. Txertoa, Donostia, 1987, 57 or. 💻

77. **Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798).** Durangoko Udala, 1987, 228 or.

78. "Euskal Antzertia iparraldean (1867- 1939)", **Euskal Antzertia. Le théâtre basque.** Baiona, 1987, 39-53. or.

1988

79. "Pierre d´Urteren hiztegia", **Hiztegiak eta testuak**. Ed. J. Lakarra, UPV, 1988, 75-99. or.

80. "Introducción a las farsas chariváricas vascas", *MUNDAIZ*, 36, Donostia, 1988, 31-38. or.

81. "Juan Mari LEKUONAren Olerkia", *MUNDAIZ*, 35, Donostia, 1988, 171-177. or.

82. “Lezotarrak gerraurrean”, *LEZO,* 1988, 20-21. or.

83. **Serafin Baroja: bertsoak, Pudente, Tormesko Lazarotxoa**, *Kontuak*. Txertoa, Donostia, 1988, 151 or.

84. **Fenelon-Duvoisin, Telemake: Ulisen semearen gertaerak**. Elkar, Donostia 1988, 145 or. 💻

1989

85. **Pierre d´Urteren Hiztegia. Londres, 1715**. 2 Vols. Mundaiz, Donostia, 1989, 491 or., 637 or. 💻

86. **Zuberoako irri teatroa, astolasterrak**, Gipuzkoako Kutxa. Donostia 1989, 142 or. 💻

87. “Jon Juaristi: Literatura vasca (Taurus, 1987)”, *HEGATS,* 1, Donostia, 1989, 19-25. or. 💻

88. “Présentation et Analyse des Farces Charivariques Basques dans le context européen”, **International Society for the study of medieval Theatre. Sixth Triennial Colloquium**, Lancaster, 1989, 124-132. or.

89. “Garibairen eskuzkiribu galdu bat (1592)”, *MUNDAIZ,* 37-38, Donostia, 1989, 33-63. or. 💻

1990

90. “Pastorala eta Antzertia Iparraldean”, *Plazara*, 14, Irun 1990, 15-18. or. 💻

91. “1886. Durangoko euskal jaiak eta euskal antzerkiaren pizkundea”, *EGAN*, 1-3, 1990, 153-156. or. 💻

92. **Donostiako euskal iztundearen 75 urteurrena (1915-1990).** Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1990, 17 or.

93. (ed.) **Piarres Lafitte, Euskal Literaturaz**. Erein, Donostia, 1990, 374 or. 💻

94. (ed.) **Jean Pierre Iratchet, Antton**. Etor, Donostia, 1990, 92 or.

95. **Patxi Altunari omenaldia**. Ed. E. Perez & P. Urkizu, Mundaiz, Donostia, 1990. 💻

96. “Zumalakarregi en la literatura vasca”, **Estudios Históricos I**, Ormaiztegi, 1990, or. 277-301. 💻

97. "Antzertia 1980-1990", *JAKIN* 61, 65-71. or. 💻

1991

98. "Agosti Chahoren hiztegia", **Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum.** Ed. J. Lakarra, ASJU, 1991, 349-361. or. 💻

99. **Bertsolaritzaren Historia. Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. I. Anonimoak, II, 1545-1900**. Etor, Donostia, I. 910 or., II. 936 or. 💻

100. "Teatro popular suletino: Las pastorales", *EPOS,* UNED, Madrid, 1991, 639-648. or. 💻

101. "Ohar labur batzuk euskal nobela historikoaz", (Breves notas sobre la novela histórica vasca) **Galeuzca, 1990,** Iruñea, 1991, 79-97. or. 💻

102. "Antonio Maria Labaien eta Euskal Antzertia", *HEGATS,* 4, Donostia, 1991, 91-99. or. 💻

103. "Jean Baptiste Chaho, Barde baten izaitia", *HEGATS*, 5, Donostia, 1991, 29-41. or. 💻

104. **Introducción a la filología vasca**. UNED, Madrid, 1991, 206 or.

105. & Intxaurrandieta, P. (ed.), **Garbizu anaiak: Zubigar, Iruzubi, Tege (1921-1936),** Udala, Lezo, 1991, 589 or.

106. & Azurmendi, X.(ed.), **Klaudio Otaegi olerkaria (1836-1890).** Etor, Donostia, 1991, 332 or.

107. (ed.) **Santiago Ezenarro "Gaitz Errota", Kintoak**. Etor, Donostia, 1991, 139 or.

108. "Iraultza frantsesaren garaiko euskal bertsoak (1789-1799) (Poèmes basques du temps de la Révolution française (1789-1799)", **1789 et les Basques.** Presses Universitaires de Bordeaux, 1991, 221-239. or.

109. "Antoine d´Abbadie y el resurgir literario vasco en la segunda mitad del siglo XIX", **Jornadas de lengua y literatura catalana, gallega y vasca.** UNED, Madrid, 1991, 85-97. or. 💻

110. "Pastoral mota berri bat?" *El Mundo del País Vasco*, 1991-X- 13.

1992

111. "XVIII. Mendean Larramendiren Hiztegi Hirukoitzak iparraldeko zenbait idazlerengan duen eraginaz", **Manuel Larramendi. Hirugarren mendeurrena, 1690-1990.** Ed. J. Lakarra, Andoain, 1992, 313-324. or. 💻

112. **Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak (1811-1858).** Euskaltzaindia-BBK, Bilbo 1992, 98 or. 💻

113. "Juan Mari Lekuona: Edertiaren bidetik gizonaren bila", *HEGATS,* 6, Donostia, 1992, 57-77. or. 💻

114. "Arnaud OIHENART: L´Art Poétique Basque (1665)", (Itz.), *HEGATS*, 7, 1992, 34-59. or. 💻

115. "OIHENARTen atsotitzak berrirakurriz", *HEGATS*, 7, Donostia, 1992, 73-84. or. 💻

116. **Antología de la literatura vasca: guía didáctica. Grabación sonora. Audio**. 3 casetes. UNED, Madrid, 1992, 148 or. 💻

117. (ed.) **Agosti Chaho, Azti-begia eta beste izkribu zenbait.** Erein, Donostia, 1992, 121 or. KM-n digitalizatua. 💻

118. "Jean Baptiste Elizanbururen Lau andren besta", *EUSKERA*, 1, Bilbo, 1992, 149-180. or. 💻

119. "Barkoxeko koblakari-eskola XVIII-XIX. mendean", *Luis Villasanteri omenaldia*. Iker 6, Bilbo, 1992, or. 521-530. 💻

120. "Nola Joanes Harizpidek Matamoros goitizena irabazi zuen", *Pamiela* 14, Iruñea, 1992, 41-44. or.

121. "Teatro popular suletino: Las pastorales", **Els Balls parlats a la Catalunya nova. Teatre popular catala.** Tarragona, 169-179. or.

1993

122. "El teatre basc", Vito Pandolfi, **Historia del teatre 3**. Institut del Teatre. Dipùtacio de Barcelona, 1993, 357-365. or.

123. "Panorama bibliográfico del teatro vasco. Nombres para la Historia", **La Década del Teatro Vasco.** Gobierno vasco, 1993, 20-24. or.

1994

124. "La influencia de las vanguardias europeas en la literatura vasca", Revista de lengua y literatura catalana, gallega y vasca. (Aurrerantzean RLLCGV)UNED, Madrid, 1994, 189-213. or. 💻

125. (Itz.), **Montesquieu, Persiar Gutunak**. Ed. Ibaizabal, Euba, 1994, 230 or. 💻

126. "Jundane Jakobe pastoralaren maileguak", **La langue basque parmi les autres. Influences et comparaisons**, sous la direction de Jean-Baptiste Orpustan, Izpegi Baigorri, 1994, 25-43. or. 💻

127. "Aproximación a la Literatura Vasca de la Guerra Civil y el Exilio a través de la prensa (1936-1956)", **La Cultura del Exilio Vasco II**, Ed. J.A. Ascunce & M.L. San Miguel, Eusko Jaurlaritza, Donostia, 1994, 13-43. or.

128. "Euskal idazleen bertsoak bigarren errepublikaren gainean (1848-1851)", **La Révolution française dans l´histoire et la littérature basques du XIXe siècle**, sous la direction de Jean-Baptiste Orpustan, Actes du colloque de l´URA 1055 du CNRS, Ed. Izpegi, Baigorri, 1994, 121-147. or.

1995

129. **Zoazte hemendik (1936ko Santakrutzak).** Susa, Zarautz, 1995. 102 or. KM-n digitalizatua

130. **Exiliatuak ez gara inongoak**. Diputación Foral de Álava. Vitoria-Gasteiz, 1995, 102 or.

131. "Artazuriketak eta kontagintza", *EUSKERA,* I, Euskaltzaindia, Bilbo, 1995, 153-160. or. 💻

132. "Reflexiones sobre el Minotauro vasco", *Literatura en el laberinto.* Ed. Cátedra / Ministerio de Cultura, Madrid, 1995, 177-191. or.

133. "Arnegi, 1945", LEZO, 15, 1995, 40-44. or.

134. (ed.) **Jean Elissalde, LVII.a gerlan**. Alberdania, Irun 1995, 118 or. KM-n digitalizatua

135. (ed.) **Jon Miranderen GUTUNAK (1948-1972***).* Susa, Zarautz, 1995, 261 or.

136. & BUTIÑA, J., & CAPARROS, J., **Métrica comparada española, catalana y vasca. (grabación sonora**). Madrid, UNED, 1995.

137. Inor ez duzu hilko. *Egunkaria* (1995-II-4).

1996

138. (ed.) **Juan Ignazio Iztueta, Vocabulario vascuence**. Alberdania, Irun, 1996, 230 or.

139. "Análisis de la pastoral inédita Jundane Jakobe handiaren Trajeria (1634), primer texto teatral vasco", RLLCGVIV, UNED, Madrid, 1996, 125-162. or. 💻

140. **Jundane Jakobe Handiaren Trajeria (1634).** Errenteriako Udala, 1996, 150 or. 💻

141. "W. von Humboldt eta garaiko Euskal Literaturaz", *W. von Humboldt: un puente entre dos pueblos.* RIEV, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1996, 597-606. or. 💻

142. "A propósito de Ni ez naiz hemengoa 'No soy de aquí' de Joseba Sarrionaindia, UNED, *EPOS,* Madrid, 1996, 567-574. or. 💻

143. "La lengua vasca en el siglo XX", ***Studia Academica***, 1995-96. UNED, Cuenca 1996, 75-82. or.

144. (ed.) **Jean Baptiste Constantin, Haritchabalet. Don Juan eta bere adixkidiak.** Ibaizabal, Donostia, 1996, 119 or. 💻

145. **Historia del teatro vasco**. Orain, Donostia, 1996, 116. or.

146 "Traducción de poemas de Luis Mª Izagirre Jose Austin Arrieta, Juan Kruz Igerabide", *SERTA, revista iberorrománica de poesía y pensamiento poético.* Nº 1, UNED, Madrid, 185-217. or.

1997

147. "La literatura vasca", **A DISTANCIA**. Otoño, UNED, Madrid, 1997, 137-141. or.

148. "Herri literatura. Aztertu dena eta aztergai dagoena", *OIHENART,* nº 15, Donostia, 1997, 141-151. or. 💻

149. "Elissalde eta Etchepare. Apaiza eta medikua gerra kronikari", *Gerra eta literatura 1914-1944. OIHENART,* Donostia, 1997, 35-46. or. 💻

150. "Gogoeta arruntak XX. mende bukaerako Euskal Literaturaz", RIEV, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1997, 135-146. or. 💻

151. "Bertsogileak eta II Mundu gerratea", *Gerra eta Literatura 1914-1944. OIHENART,* 14, Donostia, 1997, 199-202. or. 💻

152. "Laudatio". Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxaren Giza eta Gizarte Zientzien Saria 1997 **Luis Villasante Kortabitarte Jaunari emate ekitaldiko hitzaldiak**. RIEV, 42.2. Donostia, 1997, 488-492. or. 💻

153. "1897-1997. Antoine d´Abbadie y el resurgir literario vasco en la segunda mitad del siglo XIX", *OARSO 97,* Errenteria, 119-122. or.

154. "Autores vascos, Los premios de textos teatrales en Euskadi", **Teatro vasco, Primer Acto**, Madrid, 1997, 43-47. or.

155. **Antoine d´Abbadie, Pensées, études et voyages de 1835 (carnet inédit).** Eusko Ikaskuntza. Euskaltzaindia, Donostia, 1997, 160 or. KM-n digitalizatua

156. **Antoine d´Abbadie, Recueil de textes etnographiques, géodésiques, linguistiques, littéraires**. Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia, Donostia, 1997, 456 or. KM-n digitalizatua

157. **Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma, 1851-1897**. Eusko Ikaskuntza. Euskaltzaindia, Donostia, 1997, 486 or. KM-n digitalizatua. 💻

158 (ed.) & Arkotxa, A., **Mirande orhoituz (1925-1972). Antologia**. Koldo Mitxelena kulturunea. Donostia, 1997, 135 or.

1998

159. (ed.) **Zuberoako Irri-teatroa. Recueil des farces charivariques basques**. Preface de Jean-Baptiste Orpustan. Izpegi, Baigorri, 1998, 420 or. 💻

160. "Ni ez naiz nor 'No soy quien'. Notas sobre memorias, recuerdos, diarios y autobiografías", RLLCGV, V, UNED, Madrid, 1998, or. 341-351. 💻

161. **Anton Abbadia (1810-1897).** Bidegileak. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1998, 20 or. 💻

162. **Pierre Lhande (1877-1957).** Bidegileak. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1998, 20 or. 💻

163. "Serafín Baroja. Vida y obra literaria". **Los Baroja. Memoria y lección**. Kutxa Fundazioa, Donostia, 1998, 31-45. or.

164 "Anton Abbadia, hizkuntzalari, literatur kritikari eta mezenas", *Antoine d´Abbadie 1897-1997, Congrès International. Eusko Ikaskuntza. Ezohiko Kongresua. Euskaltzaindia XIV. Biltzarra,* Donostia, 1998, 63-73. or.

165. Euskal idazleak eta best-sellerrak. *Eusko News*, 13.

166. "Anton Abbadia pilotazalea", *HEMEN* 1. Errenteria, 32. or.

1999

167. "Zuberoako irri-teatroa", **Teatro popular europeo**. *OIHENART,* Donostia, 1999, 199-246. or. 💻

168. "Anacronismo, panfleto y poesía en el teatro histórico vasco del postfranquismo", **El Teatro Histórico 1975-1998. Textos y Representaciones.** Visor. Madrid, 1999, 595-605. or.

169. "Antonio Maria Labaien (1898-1994) eta Euskal Antzertia", *EUSKERA.* Euskaltzaindia, Bilbo, 1999, 37-51. or.

170. "Bernard Lehete, euskal mezenas bat Bordelen XVI. mendean", *LAPURDUM* IV, *Hommage au professeur Jean Haritschelhar,* Biarritz, 1999, 107-115. or. 💻

171. "Axularren garaiko sermoi argitaragabe bat: *Erunt signa in sole, et luna et stellis,* L. 21.*, goure ginco omnipotantac,* aurkezpena, oharrak eta transkripzioa", *LAPURDUM* IV, Numero Spécial 1, ***Les lettres basques au temps d´Axular (1600-1650). Euskal literatura Axularren aroan***. Biarritz, 1999, 187-213. or. 💻

172. "Itsaso-minez", & Schommer, A. & Aguirre Franco R., **Itsasoa.** Kutxa, Donostia, 1999, 15-21. or.

173. "Hitzaurrea", J.M. Velez de Mendizabal, ***Mende Laurdenean***. Dip. Alava, or. 192.

174. "Hots-minez", **Musika Hamabostaldia, 60**, Donostia, 10-11. or.

175. "Monjongo Dassançaren 'Laborarien abissua' (1692) eta honen bi aldaera ezezagun: Jean Pierre Chabalgoityk idatzia (XVIII. m.) eta

Bertrand Goyenetcheren 'Marechalaren liburia' (1831). Aurkezpena, edizioa, oharrak eta hiztegia". ASJU, Donostia 1999, 239-304. 💻

2000

176. **Historia de la Literatura Vasca (ed.)**, UNED, Madrid, 685 or.

177. (ed.) **Andima Ibiñagabeitia. Erbestetik barne-minez. Gutunak (1935-1967).** Susa, Zarautz, 333 or. 💻

178. **Wentworth Webster (1828-1907).** Bidegileak. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 20 or.

179. "El teatro vasco entre la tradición y la modernidad: la década del 60", *Euskonews*, nº 76, 1-7. or.

180. "Aita Villasenteren omenez", *Euskonews*, nº 103, 15-22. or.

181. "Nemesio Etxanizen 100 urteurrena dela eta", *OIHENART 18.* Eusko Ikaskuntza, Donostia, 127-132. or. 💻

182. "La cultura del exilio vasco en eusquera", ***Memoria del exilio vasco.*** Biblioteca nueva. Madrid, 99-145. or.

183. "Jesús María Leizaola (1896-1989)", **1939-1969.** ***Sesenta años después. Euskal Erbestearen Kultura.*** Saturrarán. Donostia, 347-354. or.

184. "Ixaka Lopez mendizabal (1879-1977)", ***1939-1969. Sesenta años después. Euskal Erbestearen Kultura.*** Saturrarán. Donostia, 347-354. or.

185. "Traducción de poemas de Xabier Lete, Bitoriano Gandiaga y Patxi Ezkiaga", *SERTA, revista iberorrománica de poesía y pensamiento poético.* Nº 5, UNED, Madrid, 228-255. or.

2001

186. (ed.) & Patxi Intxaurrandieta, **Senpereko Kantu Xaharrak. Oxtikenekoak** Kultur Elkartea. Lankidetzan Bilduma. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 137 or. 💻

187. "Bernard Lehete, Eustorg de Beaulieu eta Bernard Detxepare Errenazimenduko hiru gizon", **Eugène Goyheneche. Omenaldia.** Eusko Ikaskuntza, Donostia, 235-242. or. 💻

188. *&* Patxi Intxaurrandieta, **Tomas Garbizu (1901-1989).** Bidegileak. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 24 or.

189. ."Jean-Martin Hiribarren, Iruñeko bestak 1845", *LAPURDUM VI.* Baiona, 319-351 or. 💻

190. "Pervivencia y evolución de las farsas y misterios vascos", **Teatro medieval, teatro vivo**. Actas del seminario celebrado del 28 al 31 de octubre con motivo del V Festival de Teatro. Ayuntament d´Elx, 219-243. or.

2002

191. "Aproximación crítica a la enseñanza de la literatura vasca", *OIHENART 19*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 145-154. or. 💻

192. "Algunas investigaciones sobre teatro vasco", *OIHENART 19*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 197-202. or.

193. "Teatro Vasco", **Teatro y Cine Vasco**. Etor-Ostoa, Lasarte. 3-99. or. KM-n digitalizatua

194. & Patxi Intxaurrandieta, **Tomas Garbizu 1901-1989**. Lezoko Udala, 480 or. KM-n digitalizatua

195. *"Zenbait testu"*, **Música, Palabra e Imágenes.** Etor-Ostoa, Lasarte. T. I. 29, 94, 117, 213, 226 or.; T. II, 28., 62., 174., 198. or.

196. "Multilingüismo en el teatro vasco", *REVISTA DE FILOLOGÍA ROMÁNICA* 19, Univ. Complutense, Madrid, 37-44. or.

2003

197. "Marzelino Soroa, Teatro Berriaren aitzindaria (1848-1902)", RLLCGV, UNED, 193-203. or.

198. "Traducción de Poetas afganos y Poetas vascos: Iratzeder, Itxaro Borda, Mikel Arregi", *SERTA, revista iberorrománica de poesía y pensamiento poético.* Nº 6, UNED, Madrid, or.

199. "Judit eta Holopherma pastoralaz, eta gai bereko antzerkiez mendebaldeko literaturetan", ***Euskal Gramatikari eta Literaturari buruzko ikerketak XXI. Mendearen atarian***. *EUSKERA,* Iker 14. Euskaltzaindia, Bilbao, 257-277. or. 💻

200. "Azkue antzerkigile", ***Resurrección María de Azkue: euskal kulturaren erraldoia eta funtsezko zutabea.*** Ed. I, Bazan &M. Garamendi. Lankidetzan 26, Eusko Ikaskuntza, 27-39. or.

201. "Baladen itzultze eta moldatze moduez", *LAPURDUM,* VIII, Baiona, 479-500. or. 💻

2004

202. (ed.) **Joan Perez de Lazarraga, *Dianea & Koplak. Madrid, 1567.*** Erein, Donostia, 400. or.

203. **Maria Dolores Agirre eta euskal Antzertia**. (ed.) Michael V. Gazzo, *Txapela bete euri*. *EGAN*, Donostia 2004. 100. or.

204. (ed.) **Koldo Mitxelenaren euskal gutunak (1951-1984).** *BILDUMA* 18. Errenteriako Udala, Errenteria, 13-223. or.

205. "Lengua y Literatura Vascas", ***Introducción a las lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca.*** Madrid, UNED, 555-775. or.

206. "XVIII. mendean Jean Espilek zubereraz moldatu Jean Racineren Esther", *LAPURDUM* IX, Bayonne, 311-321. or. 💻

2005

207. **Balada zaharrez.** Erein, Donostia, 109. or.

208. "Joan Perez de Lazarraga, autor de *Dianea & Koplak*. (Madrid, 1567), primer novelista y poeta vasco", RLLCGV*,* UNED, 165-171. or. 💻

209. "Evolución y retos de la Narrativa en euskera: Arantxa Iturbe. Presentación de las Jornadas de narrativa castellana, gallega y vasca. Coruña 18-IV-2001", RLLCGV, UNED, 193-203. or. 💻

210. "Complemento. Traducciones de autores vascos al castellano y al catalán". RLLCGV*,* UNED, 203-205. or. 💻

211. "Traducciones vascas del Quijote y de otras obras cervantinas". RLLCGV*,* UNED, 205-211. or. 💻

212. " Abraham & Maria, una adaptación teatral vasca del dieciocho basada en la obra de Hroswita (s. X)", ***Homenaje a María José Lopez de Ayala.*** UNED, 339-349. or.

2006

213. (ed.) **Agosti Chahoren Kantutegia**. Susa, Zarautz., 275. or. 💻

214. "Viejas Baladas del Cancionero de Chaho", RLLCGV, UNED, 29-109. or. 💻

215. "Introducción y antología de la Poesía Vasca", ***El otro medio siglo (1950-2000). Antología incompleta de poesía Iberoamericana.*** Espiral Mayor. A Coruña, 483-545. or.

216. "Augustin Zubikarai eta euskal teatroa", *PLAZA BARRI.* www. Euskaltzaindia. 💻

217. "Euskal poesia idazleen artean lehen anderea: Maria Estibaliz de Sasiola (Deba c. 1550-1611)". *LAPURDUM,* X, 287-302. or. 💻

2007

218. ***Teatro popular vasco. Manuscritos inéditos del siglo XVIII. Estudio y edición. CD de los manuscritos***. Madrid, UNED, 948 or.

219. ***Gramática de la lengua vasca***. 2ª edición. UNED, Madrid, 384 or.

220. "La poesía vasca de la segunda mitad del siglo XX", RLLCGV12, UNED, 183-235. or. 💻

221. "Gratien Adéma "Zalduby"ren Jeus poemaz iruzkinak", *EUSKERA,* Bilbo, 1009-1032. or.

222. "Homenaje de los poetas vascos a Juan Ramón Jiménez. Recepción y Traducción". SERTA, 9, *Revista iberorrománica de poesía y pensamiento poético.* UNED, Madrid, 325-372. or.

223 XX. mendeko teatroaz ikuspegi orokorra. HEGATS, Donostia, 55-81. or. 💻

2008

224. "Roland gesta kantetan, eleberrietan, teatroan eta zinean", *Jean Haritschelhar-i Omenaldia,* IKER 21, Euskaltzaindia, Bilbo, 645-664. or.

225. "Leturiaren egunkari ezkutua. Liburuaren harrera garaikideen artean". *EUSKERA,* Bilbao, 635-670. or. 💻

226.. Elkarlanean, ***Literatura terminoen hiztegia***. Euskaltzaindia. Bilbo, 798 or.

2009

227. ***Teatro vasco. Historia, reseñas y entrevistas, antología bilingüe, catálogo e ilustraciones***, UNED, Madrid, 574. or.

228. ***Poesía Vasca. Antología bilingüe.*** *Introducción y selección*. UNED, Madrid, 676. or.

229. "Un texto olvidado del siglo XVII: *Sumario Brebea*…", RLLCGV14, UNED, 207- 219. or. 💻

230. "Poesía vasca. Antología bilingüe. Presentación", RLLCGV 14, UNED, 219-222. or.

231. "Teatro vasco. Historia, reseñas y entrevistas, antología bilingüe, catálogo e ilustraciones", RLLCGV14, UNED, 223-225. or. 💻

232. "Presentación de Teatro popular vasco. Manuscritos inéditos del siglo XVIII. Estudio y edición. (Madrid, 16 de enero de 2008)", RLLCGV14, UNED, 225-232. or. 💻

233. "Euskal teatroa gerra zibilean (1936-37)", *EUSKERA*, Bilbao, 1049-1078. or. 💻

234. "Ziri-bertso eta eske-kopla argitaragabeak (1770, 1827)", *Juan Mari Lekuona-ri Omenaldia*. IKER 23, Euskaltzaindia, Bilbo, 429-443. or. 💻

235. "Euskal Antzertia erbestean (1937-1959)", ***Exilio y Artes escénicas. Arte eszenikoak erbestean.*** Koord. I. Beti & M.K. Gil, Ed. Saturraran, Donostia, 349-368. or. 💻

2010

236. "Bertso-paperen eta baladen sailkapenez gogoetak & oharrak edizio baterako". *EUSKERA,* Bilbao, 915-951. or. 💻

237. "Jean Etchepare, konplaintak (1873-1890)", RLLCGV 15, UNED, 171-233. or. 💻

238. "Euskal Antzertia erbestean (1937-1959)", *Lau Haizetara. Gerra Zibilaren ondorengo erbesteaz.* Josu Chueca (koord.), UEU, Donostia, 147-158 or. 💻

239. "Laudatio de Jean Haritschelhar Duhalde", ***Solemne acto de investidura como doctores honoris causa en reconocimientos a las lenguas de España***. UNED, 23 de marzo de 2010, 11-35. or.

240. "Federico García Lorca y el País Vasco (1930-1936)", SERTA, 274-299. or.

241. "Itsasoko tragediak euskal kanta zaharretan", *EUSKERA*, 55-3, 1253-1326. or. 💻

2011

242. **Antoine d´Abbadie, 1810-1897. Essai Biographique.** Traduit du basque par Edurne Alegria. Atlantica editorial, Biarritz.

243. "Actividad teatral Donostiarra (1950-1975)", **PRIMER ACTO: Cuadernos de investigación teatral**, nº 337, Madrid, 95-99 or.

244. "Agosti Chahoren obraz eta bere eraginaz", *EUSKERA,* Bilbao, 737-788. or. 💻

245. "Agosti Chaho, euskal erromantikoa Parisen", *HEGATS*, Donostia, 33-94. or. 💻

2012

246. "Barkoxeko koblakari eskola XVIII-XIX mendeetan", *EGAN,* 31-41. or. 💻

247. "Bernat Etxeparen bizitza-garaiaz albiste gehiago eta *Linguae Vasconum Primitiae* (1545)-ren berrirakurketa", RLLCGV17, UNED, 203-235. or. 💻

2013

248. "Jon Miranderen poesiaz" *HEGATS* 50, 31-56. or. 💻

249. "Basque theater from Costumbrisme to Political Symbolism", ***Basque Literary History.*** Ed. M. Jose Olaziregi, University of Nevada, 245-267. or.

250. "Modelos lingüístico-literarios vascos anteriores al 68", RLLCGV18, 305-319. or. 💻

2014

251. "Jose Martin Mikelajauregi 'Ezkerra' (Bera 1763 – Irun 1861). Bidasoako Bertsolaria", *EGAN*-3/4, 35-60. or. 💻

2015

252. ***1914-1918. Lekukoak.*** Maiatz, Baiona.297 or.

253. "Girolamo della Sommaia humanista florentinoak moldatu Refranes y sentencias... (Pedro Porralis de Amberes, Pamplona 1596) liburuaren eskuzkribua". EGAN, 1-2, 65-146. or. 💻

254. "Bernat Etchepare: albiste gehiago bere bizitzaz eta *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) liburuaren berrirakurketa". EGAN, 2-4, 17-44. or.💻

255. "Erdi Arotik Errenazimendura Euskal Herrian". ***Euskal Literaturaren antologia*** 1. Euskaltzaindia, LIB, 73-77. 💻

256. "Pierre Larzabalen Antzertiaren hego Euskal Herriko harrera". EUSKERA. Bilbo, 585-616. 💻

2016

257. "Salamankan Koldo Mitxelenarekin". OARSO. Errenteria, 119-125. or.

258. Wentworth Webster an Hugo Schuchardt bearbeitet von Bernhard Hurch & Patricio Urkizu. Grätz (Austria)-eko Unibertsitatea. 1-70. or. 💻

2017

259.. "2011-2012. Noizbehinkako Agenda Oharrak (I)", EGAN, 2017-3/4, 143-198. or.

260. "Albert Camus. *Gizon Zuzenak*. Bost ekitalditan moldatu antzerkia. Itzultzailea: Xalbador Garmendia. Edizio prestatzailea: Patri Urkizu", EGAN, 2017-3/4, 225-296. or.

2018

261. "Euskal teatroaren azken ikerketez gogoeta xume batzu", ***Ekin eta joka, Azken ikerketak euskal teatroaz.*** EHAZE, Andoain, 13-28. or.

262. "Urkaberako kantak direla eta Jean Etxepare Donapaleukoaren konplaintak (1873-1890)". BERTSOLARI, nº 112, 168-192. or.

263. "Breve aproximación a la vida y obra de Joseph Augustin Chaho Lagarde el primer romántico vasco". **Escritos sobre La Primera Guerra Carlista. Palabras de un vasco. Viaje a Navarra.** Edición Bilingüe. Zumalakarregi Museoa. Ormaiztegi, 11-20. or.

2019

264. Le Miracle V du *Codex Calixtinus* «Le pendu dépendu» dans la pastorale basque de saint Jacques et autres pièces de langues néolatines. *Littératures classiques*. Dirigée par Pierre RONZEAUD. *n° 97 - **Le «théâtre provincial» en France (XVIe--XVIIIe siècle).*** Pierre PASQUIER, Bénédicte LOUVAT-MOLOZAY (coord.); 233-249. or.

265. *"Bertsolariak eta 1914-1918ko gerra",* BERTSOLARI aldizkaria 2019, udaberria, nº 113, 142-157. or.

266. "Aurkezpena", Lander Zurutuza Sunsundegi, ***Lezoko Toponimia***, Maiatz, Baiona 2019. (Hitzaldia Zabalenea (Lezo, 2019-X-26). 💻

2020

267. Elkarlanean, ***Euskal Literaturaren antologia. Testuak eta argibideak 2. Errenazimentutik Ilustraziora. XVII eta XVIII. mendeak.*** Euskaltzaindia, Bilbao, 753 or.

268. Euskal ziri bertsoak (XIV. mendetik XX. mendea arte) I. BERTSOLARI ALDIZKARIA, Nº 117, 133-147 or.

269. Euskal ziri bertsoak (XIV. mendetik XX. mendea arte) II. BERTSOLARI ALDIZKARIA, Nº 118, 122-140 or.

2021

270. "Antoine d´Abbadie Thompson", ***Notitia Vasconiae. Diccionario de juristas, pensadores y políticos de Vasconia.*** Madrid, ed. Pons, T. II, 1793-1876; 2020, 384-388 or.

271. "Joseph-Auguste Chaho Legarde", ***Notitia Vasconiae. Diccionario de juristas, pensadores y políticos de Vasconia.*** Madrid, ed. Pons, T. II, 1793-1876; 2020, 384-388 or.

272. *Susaren froga*. Erein, Donostia, 252 or.

273. "Recordando a Manuel Rodriguez Alonso", RLLCGV, XXVI, 2021, 267-269 or.

274. Isabel Escudero, "*Fiat umbra [Itzala begi*, Itz. P. Urkizu]", *SERTA, revista iberorrománica de poesía y pensamiento poético.* Nº 12, UNED, Madrid, 431-455 or.

2022

275. "Bernat Etxepare. *Linguae Vasconum Primitiae* (1545). Iruzkin xume batzuek". ***Linguae Vasconum Primitiae*** 14 Forum. Hitzaldiak. Bilbo zaharra liburuak, 11-27 or.

276. SARAKO BESTAK 1864-1885 / 1897 LORE-JOKOAK, BERTSO-PAPERAK ETA LASTER-KOPLARIAK. Hitzaldia. (Sara, 2022-IV-11). 💻

277. "Ahal genuena egiten genuen", Errenteriako Koldo Mitxelena Institutuaren 50. Urteurrenean, esker onez. Elixabete Perez Gaztelu. OARSO 2022. Errenteria, 18-23 or.

2023

278. "Modesto Parisen", OARSO 2023. Errenteria, 196 or.

279. "Ainhoa Salaberria Garmendiarekin elkarrizketa", ZEORRI, 14, Lezo, 18-21. or.

280. Patri Urkizu, idazlea eta ikertzailea. "Ongi lan eginak sariren bat jasotzen duenean eskertzekoa da", Iñaki Esnaola, IRU TXULOKO HITZA, 2023-IV-28.

AURKIBIDEA

Alkatearen agurra 5
Bi hitz atari moduan 7
I. LEZO, NIRE SORTERRIA 1946-1958 9
II. ZORNOTZA ETA ALESBESEN KARMELDARREKIN: 1958-1962 37
III. IKASLE DONOSTIA, MADRID ETA SALAMANCAN: 1962-1970 51
IV. IRAKASLE DONOSTIA ETA ERRENTERIAKO INSTITUTUETAN: 1970-1985 89
V. LEZOKO ALKATE: 1979-1983 117
VI. BORDELEN KONPAINIA ONEAN: 1985-1988 153
VII. ESKRIBU GALDUEN BILA 171
Patri Urkizuren idazlanen zerrenda 591



Irudia 90: Lezoko kale nagusiko Marigozorenea (1699) harrizko atalburuan: hareorena, konpasa, izarra eta iparrorratza.